

EUSKALTZAINDIA

**EUSKAL
GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-I**

**EUSKAL GRAMATIKA.
LEHEN URRATSAK-I**

**GRAMATIKA BATZORDEA
EUSKALTZAINDIA
1991**

EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA

EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-I

1991

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Patxi Altuna

Buruordea: Pello Salaburu

Idazkaria: Patxi Goenaga

Idazkariordea: Maria Pilar Lasarte

Kideak:

Lino Akesolo

Miren Azkarate

Piarres Charriton

Andolin Eguzkitza

Jean Haritschelhar

Alan King

Jose Mari Larrarte

Jose Antonio Mujika

Beñat Oyharçabal

Karmele Rotaetxe

EGLU-I

Liburu honetan agertzen diren txostenen egileak:

Patxi Altuna
Miren Azkarate
Patxi Goenaga
Alan King
Pierre Lafitte
Jose M. Larrarte
M^o Pilar Lasarte
Jose Antonio Mujika
Beñat Oyharçabal
Karmele Rotaetxe
Pello Salaburu

Laguntzaileak:

Lino Akesolo
Piarres Charriton
Andolin Eguzkitza
Jean Haritschelhar

Azken moldatzaileak:

Patxi Altuna
Pello Salaburu

Argitarapen honetaz kontu eman nahian

Hitz bi zor dizkio Gramatika Batzordeak irakurleari orain eskuetan jartzen dion *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I* honen argitarapen berri hau dela eta. Batzordearen lan egiteko eragatik, gure Gramatika hau zatika eta apurka apurka ari gara argitara ematen. Horrela jarraitzeko asmoa dugu, gainera, lehen epe hau burutu arte. Gero, lan osoa berrikusiko da eta oharrak jasoko, horrela, "lehen urrats" hauek gaindituz, argitarapen finkoago eta biribilagoa eskaintzeko ordua iritsiko delakoan noizpait.

Hala ere, egun hori oraindik iritsi ez den arren, itxuragabea iruditzen zitzaigun hitz ordenari eta izen sintagmaren deklinabideari zegozkionak hiru liburuki desberdinetan -*Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I; Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I (Eraskina)* eta *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I-II (Gai aurkibidea)*- banatua edukitzea. Horregatik, hiru liburuki horietan biltzen den mamia liburuki bakar batean bildu nahi izan dugu eta hori da, hain zuzen, orain esku artean jartzen dizugun lana. Liburuki osoa berregitura genezakeen, baina lan hori beste baterako uztea zuzenago iruditu zaigu. Horregatik, hemen ez da ezer berririk erantsi. Zenbait huts zuzentzen ahalegindu gara, hori bai, tipografia ere bateratuz. Eta, besterik gabe, "Eraskina" lehen liburukiari josi diogu, zegozion gai aurkibidea ere bere lekuan ezarriz. Liburukia erabilgarriagoa izango dela uste dugu horrela.

Beraz, hemendik aurrera, eta azken buruan egin asmo dugun berregituratze hartara iritsi arte, lehen liburuki honetan *perpaus bakunaren egitura* eta *osagaien ordena* bilduko dira alde batetik, eta *izen sintagmaren egitura* eta *deklinabidea* bestetik. Baina hasieran argitaratua besterik ez da. Bigarren eta hirugarren liburukiak lehengo hartan diraute.

Gramatika Batzordea

AURKIBIDEA

LEHENENGO ATALA: PERPAUSAREN EGITURA	1
1. PERPAUSA	3
1.1. Perpausaren definizioaz	3
1.2. Perpaus motak	3
1.2.1. Lokabeak eta mendekoak	3
1.2.2. Jokatuak eta ez-jokatuak	4
1.2.3. Adierazpen, galde, aginte eta harridura perpausak	4
1.2.3.1. Adierazpen perpausak	5
1.2.3.2. Galde perpausak	5
1.2.3.2.1. <i>Bai-ez</i> erako galderak	6
1.2.3.2.2. Aukera galderak	6
1.2.3.2.3. Zati galderak	7
1.2.3.3. Aginte perpausak	7
1.2.3.4. Harridura perpausak	8
1.2.4. Baiezko eta ezezko perpausak	9
2. PERPAUSAREN EGITURA	11
2.1. Egitura orokorra	11
2.2. Osagarrien funtzioak	12
2.3. Komuntadura eta osagarrien ezabaketa	12
2.4. Osagarrien egiturak	14
2.5. Elementuen ordenaz	14
2.5.1. Ordena ez-markatua	15
2.5.2. Aditzaren ondoren jarritako osagarriak	16
2.5.3. Galdegaia	16
2.5.4. Mintzagaia	19

BIGARREN ATALA: IZEN SINTAGMAREN EGITURA	21
1. IZENA	23
1.1. Izena, izen sintagmaren ardatza	23
1.2. Izenen sailkapena	25
1.2.1. Izen arruntak eta izen bereziak	26
1.2.2. Zenbakarritasuna eta neurgarritasuna	32
1.2.2.1. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak	32
1.2.2.2. Izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak	34
1.2.3. Izen bizidunak eta izen bizigabeak	35
1.2.4. Izen bakunak, eratorriak eta konposatuak	35
1.3. Jeneroa euskaraz	36
2. IZENORDAINAK	39
2.1. Pertsona izenordainak	39
2.1.1. Pertsona izenordain arruntak	39
2.1.1.1. <i>Ni</i>	39
2.1.1.2. <i>Hi</i>	40
2.1.1.3. <i>Zu</i>	40
2.1.1.4. <i>Gu</i>	40
2.1.1.5. <i>Zuek</i>	41
2.1.1.6. <i>Berori</i>	41
2.1.2. Forma indartuak	42
2.1.2.1. Izenordain indartuen erabilera	42
2.1.2.2. Forma indartuen genitiboa	47
2.2. Izenordain zehaztugabeak	48
2.2.1. Galdetzaileak: <i>nor</i> eta <i>zer</i>	48
2.2.2. Galdetzaileetatik erakarritako izenordain mugagabeak	50
2.2.2.1. <i>Norbait, zerbait</i>	50
2.2.2.2. <i>Nor edo nor</i> eta <i>zer edo zer</i>	51
2.2.2.3. <i>Edonor, nornahi</i>	52
2.2.2.4. <i>Ezer, inor/nehor (deus, batere)</i>	53
2.2.2.5. Galdetzaile pluralak	56
2.2.2.6. <i>-txo</i> atzizkia	57
2.2.2.7. <i>Norbera, nor bere</i>	58
2.2.3. <i>Beste</i> , izenordain	60
2.3. Bihurkariak eta elkarkariak	62
2.3.1. <i>x-en burua</i>	62
2.3.2. <i>Elkar</i>	63
2.3.3. Azken ohar bat <i>elkar-en</i> erabileraz	65
2.3.4. <i>Bata beste</i>	65

2.3.5. <i>Elkar</i> : singularra ala plurala?	65
2.3.6. <i>Enel/neure, hirel/heure</i>	67
2.3.7. Azken ohar parea	70
2.4. Izen sintagmaren ardatz izena isil daiteke	70
2.5. Izenordainen eta beste zenbait sintagmaren eza baketaz	72
3. DETERMINATZAILEAK	77
3.1. Mugatzaileak	78
3.1.1. Artikulua	78
3.1.2. Erakusleak	83
3.1.2.1. Erakusleen funtzioa	83
3.1.2.1.1. Zerbait seinatzen dute	83
3.1.2.1.2. Haien lekua perpausean	84
3.1.2.1.3. Haien erro eta formak	85
3.1.2.2. Esapide batzu osatzen dituzte	87
3.1.2.3. Erakusle indartuak	89
3.1.2.3.1. <i>-xe</i>	89
3.1.2.3.2. <i>ber-</i>	90
3.1.2.3.3. <i>bera</i> izen sintagmaren bukaeran	91
3.1.2.3.4. <i>bera/berdin</i>	92
3.1.2.3.5. <i>bera</i> aposizioa	93
3.1.2.3.6. <i>hura</i> eta <i>bera</i>	93
3.1.2.4. Forma berrindartuak	96
3.1.2.5. <i>ber-</i> ez osatutako forma batzu	96
3.2. Zenbatzaileak	97
3.2.1. Zenbatzaile zehaztuak	98
3.2.1.1. Zenbatzaile zehaztuen lekua	98
3.2.1.2. Euskal zenbatzaileak	99
3.2.1.3. <i>Bat</i>	101
3.2.1.3.1. Horren lekua izen sintagman	101
3.2.1.3.2. Izen berezietan	103
3.2.1.3.3. Noiz erabiltzen da <i>bat</i>	104
3.2.1.3.4. <i>-izu</i> atzizkia	105
3.2.1.3.5. Zenbait esakeratan ere <i>bat</i>	105
3.2.1.3.6. <i>bat</i> edo <i>batzu</i> -ren deklinabidea	106
3.2.1.4. <i>bat</i> zenbatzailea eta <i>a</i> artikulua	108
3.2.1.4.1. Arau orokorra	109
3.2.1.4.2. <i>bat</i> gabeko zenbakarri batzu	110
3.2.1.4.3. <i>bat</i> eta <i>a</i> -ren arteko oposizioa	111
3.2.1.4.4. <i>bat</i> eta <i>anitz</i> -en arteko oposizioa	113
3.2.1.4.5. <i>bat</i> -en beste enplegua	113

3.2.1.4.6. Dudazko kasuak	113
3.2.1.5. <i>baso bat ur</i> eta antzekoak	115
3.2.1.6. <i>bi</i>	118
3.2.1.7. Gainerako zenbatzaileak	119
3.2.1.8. Balio enfatikoak duten zenbatzaileak	121
3.2.1.9. Orduak	122
3.2.1.10. Urteak eta data	124
3.2.1.11. Frakzioak	126
3.2.1.12. Zenbatzaileen deklinabidea	128
3.2.1.13. Nola izenda zenbatzaileak	129
3.2.1.14. Komuntadura aditzarekin	130
3.2.1.15. Ordinalak	132
3.2.1.16. Multzotik aukera egitean	136
3.2.1.17. Adjetibo biderkatzaileak	136
3.2.1.18. Kalkuluko eragiketak	137
3.2.1.19. Distributiboak	137
3.2.1.20. Aldien adieraztasuna	139
3.2.1.21. Esaerak	140
3.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak	140
3.2.2.1. <i>batzuk</i>	141
3.2.2.2. <i>zenbait</i>	141
3.2.2.3. <i>asko</i>	142
3.2.2.3.1. <i>asko</i> -ren balioak	144
3.2.2.3.2. <i>asko</i> -ren erabilera	144
3.2.2.3.3. <i>asko</i> -ren ordainak	146
3.2.2.3.4. <i>asko</i> mugatua	146
3.2.2.4. <i>anitz</i>	147
3.2.2.5. <i>gutxi</i>	147
3.2.2.6. <i>honenbeste</i> eta <i>kideak</i>	148
3.2.2.7. <i>franko</i>	149
3.2.2.8. Beste zenbatzaile zehaztugabeak	151
3.2.3. Zenbatzaile orokorrak	152
3.3. Nolaketzaileak	154
4. ADJETIBOA	157
4.1. Sarrera	157
4.1.1. Adjetiboaren sailkapena: izenondoak eta izenlagunak	157
4.1.2. Adjetiboen lekua	158
4.2. Izenondoak	161
4.2.1. Izenondoak izen sintagmaren barnean	161

4.2.1.1. Izenondo bat baino gehiago agertzen denean	161
4.2.1.2. Izenondo elkartuak	163
4.2.1.3. Izenondo koordinatuak eta adjetiboak	163
4.2.1.4. Partizipioa eta adjetiboa	164
4.2.1.5. Partizipioa eta izena	166
4.2.2. Izenondoa predikatu osagarri denean	167
4.2.2.1. Lotura aditzak	167
4.2.2.2. Predikatu osagarri mugatuak eta mugagabeak	168
4.2.2.2.1. <i>Joan, egon, bihurtu, hartu</i>	168
4.2.2.2.2. <i>Izan</i>	169
4.2.2.2.3. Bestelako aditzak	173
4.2.2.3. Izenondoa eta aditzondoa	174
4.2.2.4. <i>Huts</i> izenondoa	175
4.2.2.5. Adjetiboaren osagarriak	175
4.2.3. Kategori aldaketak	176
4.2.3.1. Izen bihurtulako izenondoak	176
4.2.3.2. Izenondo bihurtutako izenak	177
4.2.4. Izenondoaren mailakatzea	177
4.2.4.1. Marka fonetikoak	178
4.2.4.2. Marka morfologikoak	179
4.2.4.2.1. Atzizkiak	179
4.2.4.2.2. Izenondoaren errepikatzea	180
4.2.4.3. Maila adberbioak eta zenbatzaile batzu	181
4.2.4.3.1. Goi maila adieraziz	181
4.2.4.3.2. Nahikotasuna adieraziz	183
4.2.4.3.3. Ezeztapenetan	183
4.2.4.4. Konparaketak	184
4.2.4.4.1. <i>-EN</i> atzizkia	184
4.2.4.4.2. <i>-AGO</i> atzizkia	186
4.2.4.4.3. <i>-EGI</i> atzizkia	193
4.2.4.4.4. Berdintasunezko konparaketa	194
4.2.4.5. Harridura esapidenez oharño bat	195
4.2.4.6. Mailakatzea eta determinazioa	196
4.3. Izenlagunak	199
4.3.1. <i>-EN</i> atzizkia	199
4.3.2. <i>-KO</i> atzizkia	199
4.3.3. Zenbait arazo	201
4.3.4. <i>-REN</i> eta <i>-KO</i>	202
4.4. Aposizioa	203
4.4.1. Aposizio ez-murrizgarriak	203
4.4.2. Aposizio murrizgarriak	204

4.4.3. Aposizioan doazen elementuez	205
4.4.4. <i>San, santa, saindu</i>	205
4.4.5. <i>Jaun, andere</i>	206
4.4.6. Aposizioak eta kasu markak	208
HIRUGARREN ATALA; DEKLINABIDEA, ADITZONDOAK, INTERJEKZIOAK	209
1. DEKLINABIDEA	211
1.1. Aurkezpena	211
1.1.1. Oro har	211
1.1.1.1. Deklinabidea zer den	211
1.1.1.2. Kasuak	211
1.1.1.3. Zenbat deklinabide	212
1.1.1.4. Deklinabidearen egitura	212
1.1.1.5. Hizkuntza malgukariak eta hizkuntza eranskariak	213
1.1.1.6. Sinkretismoa	213
1.1.1.7. Erabilera	213
1.1.2. Euskaraz	214
1.1.2.1. Deklinabidea eta euskal sintagma	214
1.1.2.2. Kasuak euskaraz	216
1.1.2.3. Deklinabide bakarra euskaraz	218
1.1.2.4. Euskal deklinabidearen egitura	219
1.1.2.5. Euskara, hizkuntza eranskaria	220
1.1.2.6. Sinkretismoa	220
1.1.2.7. Erabilera	221
1.1.2.8. Absolutua eta ergatiboaren arteko oposaketa	222
1.2. Euskal deklinabidea - Taulak	223
1.3. Kasu gramatikalak	223
1.3.1. Absolutua (- \emptyset)	223
1.3.1.1. Forma	223
1.3.1.2. Funtzioa	223
1.3.1.3. Erabilera	225
1.3.2. Ergatiboa (- <i>k</i>)	226
1.3.2.1. Forma	226
1.3.2.2. Funtzioa	227
1.3.2.3. Erabilera	228
1.3.3. Datiboa (- <i>i</i>)	230
1.3.3.1. Forma	230
1.3.3.2. Funtzioa eta erabilera	231
1.4. Leku-denborazko kasuak	234

1.4.1. Sarrera	234
1.4.1.1. Zer kasu dira hauek?	234
1.4.1.2. Bizidun eta bizigabeak	235
1.4.1.3. Mugatu singularra eta mugagabea	238
1.4.2. Inesiboa (-n)	238
1.4.2.1. Leku eta denbora	238
1.4.2.2. Forma	239
1.4.2.3. Erabilera	241
1.4.2.3.1. Lekua adierazteko	241
1.4.2.3.2. Denbora adierazteko	243
1.4.2.3.3. Iharduera adierazteko	244
1.4.2.3.4. Modua adierazteko	246
1.4.2.3.5. Bestelakoak ere adierazteko	247
1.4.3. Leku-genitiboa (-ko)	248
1.4.3.1. Kasu honen zenbait ezaugarri	248
1.4.3.2. Forma	249
1.4.3.3. Erabilera	249
1.4.3.4. <i>noizko</i>	249
1.4.3.5. <i>noizko/nongo</i> eta <i>noizko/norako</i>	250
1.4.3.6. <i>zertako/zertarako</i>	250
1.4.4. Adlatiboa (-ra)	252
1.4.4.1. Forma	252
1.4.4.2. Erabilera	253
1.4.4.2.1. Izenki adberbializatuak	253
1.4.4.2.2. Adlatiboak aditz bihurtzen dira	253
1.4.4.3. Denbora ere adierazten du	253
1.4.4.4. <i>Zertara</i>	254
1.4.4.5. <i>Norako</i>	255
1.4.4.5.1. <i>norako</i> adizlaguna da, ez izenlaguna	255
1.4.4.5.2. <i>Dantzako deia</i> eta <i>dantzarako deitu</i>	257
1.4.4.5.3. <i>-rako</i> eta <i>-kotzat</i>	257
1.4.4.6. <i>noizko</i>	258
1.4.4.6.1. <i>etziko</i> ala <i>etzirako?</i>	258
1.4.4.6.2. <i>zertako/zertarako</i>	260
1.4.4.6.3. Adberbio esapideak	261
1.4.4.7. <i>-rako</i> eta <i>-rentzat</i>	261
1.4.5. Norabide zuzenezkoa (-rantz)	265
1.4.6. Adlatibo bukatuzkoa (-raino)	265
1.4.6.1. Forma	265
1.4.6.2. Denbora ere adierazten dugu	266
1.4.6.3. <i>-raino</i> eta <i>arte</i>	267

1.4.6.4. <i>Hurrengo artel/hurrengoa artel/hurrengorarte</i>	270
1.4.6.5. <i>Zertaraino/zenbateraino</i>	271
1.4.7. <i>Ablatiboa (-tik)</i>	272
1.4.7.1. <i>Forma</i>	272
1.4.7.2. <i>Balioak</i>	273
1.5. Gainerako kasuak	275
1.5.1. <i>Partitiboa (-ik)</i>	275
1.5.1.1. <i>Forma</i>	275
1.5.1.2. <i>Funtzioa eta erabilera</i>	275
1.5.2. <i>Genitiboa (-en)</i>	280
1.5.2.1. <i>Forma</i>	280
1.5.2.2. <i>Funtzioa</i>	280
1.5.2.3. <i>Erabilera</i>	282
1.5.3. <i>Soziatiboa (-ekin)</i>	287
1.5.3.1. <i>Forma</i>	287
1.5.3.2. <i>Funtzioa</i>	288
1.5.3.3. <i>Erabilera</i>	289
1.5.4. <i>Instrumentala (-z)</i>	290
1.5.4.1. <i>Forma</i>	290
1.5.4.2. <i>Funtzioa</i>	291
1.5.4.3. <i>Erabilera</i>	291
1.5.5. <i>Motibatiboa (-gatik)</i>	294
1.5.5.1. <i>Forma</i>	294
1.5.5.2. <i>Funtzioa</i>	295
1.5.5.3. <i>Erabilera</i>	295
1.5.6. <i>Destinatiboa (-entzat)</i>	297
1.5.6.1. <i>Forma</i>	297
1.5.6.2. <i>Funtzioa eta erabilera</i>	297
1.6. Posposizioak	297
1.6.1. <i>Posposizioen ezaugarriak</i>	297
1.6.2. <i>Posposiziorik garrantzitsuenak</i>	299
1.6.3. <i>Posposiziotzat hartzen ditugun beste elementuak</i>	303
1.6.4. <i>Izen sintagmak \emptyset kasu marka hartzen duenean</i>	304
1.7. -TZAT atzizkia	305
2. ADBERBIOA	309
2.1. Sarrera	309
2.1.1. <i>Adberbioaren sailkapena: adizlagunak eta aditzondoak</i>	309
2.1.2. <i>Izenondoaren modifikatzaileak izan daitezke</i>	312
2.1.3. <i>Adberbioaren aldaezintasuna</i>	312
2.1.4. <i>Laburpena</i>	314

2.2. Aditzondoak	315
2.2.1. Aditzondoan sailkapen formala	315
2.2.1.1. Aditzondo bakunak	315
2.2.1.2. Aditzondo eratorriak	315
2.2.1.3. Aditzondo konposatuak	316
2.2.1.4. Aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak	317
2.2.1.5. Esaera adberbialak	320
2.2.2. Aditzondoan sailkapen semantikoa	320
2.2.2.1. Sarrera	320
2.2.2.2. Denbora aditzondoak	322
2.2.2.3. Leku aditzondoak	327
2.2.2.4. Modu aditzondoak	330
2.2.2.5. Maila aditzondoak eta zenbatekoak	337
2.2.2.6. Eritzi aditzondoak	340
2.2.3. Aditzaren ondoko bestelako hitzak	341
2.3. Adizlagunak	345
3. INTERJEKZIOAK	347
3.1. Interjekzioak zer diren	347
3.2. Interjekzioen sailkapena	349
LAUGARREN ATALA: ERASKINA	353
1. HITZ ORDENA	355
1.1. Izen sintagmaren eta perpausaren barneko elementuen ordena	355
1.2. Hitzen ordena eta esanahia	357
1.3. Mintzagaia	360
1.3.1. Definizioa	360
1.3.2. Mintzagai isildua	361
1.3.3. Mintzagai hanpatua	362
1.3.4. Mintzagaia eta aditza	363
1.4. Irazkina	364
1.4.1. Definizioa	364
1.4.2. Galdegaia zer den	365
1.4.3. Galdegaiaren tokia aldaraztea	369
1.4.4. Galdegaia ezezkoetan	369
1.5. Gramatika funtzioen eta mintzagai egituraren arteko lotura	370
1.6. Ordena ez-markatua	371
1.6.1. Arazoa	371
1.6.2. Ordena ez-markatua eta osagaien gramatika funtzioak	371
1.7. Ordena markatua	374

1.8. Aditzaren eskuineko osagaiak	374
1.8.1. Irazkinaren barnean	375
1.8.2. Irazkinetik kanpo	375
1.8.3. Diskurtsuaren inguramena	376
1.9. Adizlagunak	377
1.10. Ondorioa: mintzagai egituraren eskema	378
2. -KO ATZIZKIA: FUNTZIOAK ETA ESANAHIAK	381
2.1. -ko atzizkia eta izenlagun deskribatzaileak	382
2.1.1. Adberbioa + <i>-ko</i>	382
2.1.2. Izen multzoa + <i>-ko</i>	384
2.1.3. <i>-ren</i> + izena + <i>-ko</i>	387
2.1.4. Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + <i>-ko</i>	387
2.2. -ko atzizkia, banaketaren marka	389
2.3. -ko atzizkia, <i>etxeren</i> baliokide	390
3. HITZ ELKARKETA	393
3.1. Izen elkartuak	394
3.1.1. Izen elkartu arruntak	394
3.1.1.1. Bi izen bakunez osaturiko izen elkartuak	394
3.1.1.2. Aditzoinaz edota izenki az osaturiko izen elkartuak	398
3.1.1.3. Izenaz + izenondoaz osaturiko izen elkartuak	400
3.1.1.4. Izenondo + izenondoaz osaturikoak	400
3.1.2. Izen elkartu bereziak	400
3.1.2.1. Izen berezi + izen arrunt	400
3.1.2.2. Izen berezi + izenondo	401
3.1.2.3. Izen arrunt + izen berezi	401
3.1.2.4. Izen berezi + izen berezi	401
3.2. Izenondo elkartuak	401
3.2.1. Izen + izenondo	402
3.2.2. Aditzoin + izenondo	402
3.2.3. Aditzoin + <i>-garri</i>	403
3.2.4. Izenondo + izenondo	403
3.3. Aditz elkartuak	403
3.4. Adberbio elkartuak	404
4. DEKLINABIDEKO TAULAK	405
4.1. Sarrera	405
4.2. Kasu marka guztien taulak	409
4.2.1. Izen bereziak	409
4.2.1.1. Kontsonantez bukatutako pertsona izenak: <i>Kattalin</i>	409

4.2.1.2. Bokalez bukatuako pertsona izenak: <i>Koldo</i>	411
4.2.1.3. Kontsonantez bukatuako leku izenak: <i>Eibar</i>	412
4.2.1.4. Bokalez bukatuako leku izenak: <i>Bilbo</i>	413
4.2.1.5. <i>a</i> artikulua bukatuako leku izenak: <i>Iruñea</i>	414
4.2.1.6. <i>a</i> bokalez bukatuako leku izenak: <i>Donostia</i>	416
4.2.2. Izen arrunt biziduna ardatzat duten izen sintagmak	417
4.2.2.1. Kontsonantez bukatuak: <i>gizon</i>	417
4.2.2.2. Bokalez bukatuak: <i>seme</i>	422
4.2.2.3. <i>a</i> bokalez bukatuak: <i>alaba</i>	425
4.2.3. Izen arrunt bizigabea ardatzat duten izen sintagmak	429
4.2.3.1. Kontsonantez bukatuak: <i>haran</i>	429
4.2.3.2. Bokalez bukatuak: <i>mendi</i>	431
4.2.3.3. <i>a</i> bokalez amaituak: <i>eliza</i>	433
4.2.3.4. <i>ai</i> diptongoaz bukatuak: <i>jai</i>	435
4.2.3.5. <i>au</i> diptongoaz bukatuak: <i>gau</i>	437
4.2.4. Pertsona izenordainak	439
4.2.4.1. Arruntak	439
<i>ni</i>	439
<i>hi</i>	440
<i>gu</i> eta <i>zu</i>	441
<i>zuek</i>	442
4.2.4.2. Errespetuzko formak	443
<i>berori</i>	443
4.2.4.3. Indartuak	444
<i>neu</i>	444
<i>heu</i>	446
<i>geu</i>	447
<i>zeu</i>	449
<i>zeuek</i>	450
4.2.5. Erakusleak	452
4.2.5.1. Erakusle arruntak	452
<i>hau</i>	452
<i>hori</i>	453
<i>hura</i>	454
4.2.5.2. Indartuak	455
<i>hauxe</i>	455
<i>horixe</i>	457
<i>huraxe</i>	459
<i>bera</i>	461
<i>eurak</i>	463
4.2.6. Galdetzaileak eta izenordain mugagabeak	464

4.2.6.1. <i>Nor</i>	464
4.2.6.2. <i>Zer</i>	465
4.2.6.3. <i>Zein</i>	466
4.2.6.4. <i>Norbait</i>	467
4.2.6.5. <i>Zerbait</i>	468
4.2.6.6. <i>Nornahi</i>	469
4.2.6.7. <i>Deus</i>	470
4.2.7. <i>Zenbatzaileak</i>	471
4.2.7.1. <i>Bat</i>	471
4.2.7.2. <i>Batzu</i>	472
4.2.7.3. <i>Zenbait</i>	473
4.2.7.4. <i>Hiru</i>	474
4.2.7.5. <i>Sei</i>	476
4.2.8. <i>Adberbioak</i>	477
4.2.8.1. <i>Leku adberbio arruntak</i>	477
4.2.8.2. <i>Leku adberbio indartuak</i>	478
4.2.8.3. <i>Denbora adberbioak</i>	478
4.3. Kasuak banan banan	479
4.3.1. <i>Absolutua</i>	479
4.3.2. <i>Partitiboa</i>	481
4.3.3. <i>Ergatiboa</i>	482
4.3.4. <i>Datiboa</i>	484
4.3.5. <i>Inesiboa</i>	486
4.3.6. <i>Leku genitiboa</i>	490
4.3.7. <i>Adlatibo soila</i>	493
4.3.8. <i>Hurbiltze adlatiboa</i>	497
4.3.9. <i>Muga adlatiboa</i>	500
4.3.10. <i>Ablatiboa</i>	503
4.3.11. <i>Genitiboa</i>	508
4.3.12. <i>Soziatiboa</i>	510
4.3.13. <i>Instrumentala</i>	512
4.3.14. <i>Motibatiboa</i>	515
4.3.15. <i>Destinatiboa</i>	517
4.3.15.1. <i>Genitiboaren gainean eraikia</i>	517
4.3.15.2. <i>Inesiboaren gainean eraikia</i>	521
4.3.15.3. <i>Adlatiboaren gainean eraikia</i>	523
4.3.15.4. <i>Banatzaillea</i>	526
4.3.15.5. <i>Prolatiboa</i>	526
BIBLIOGRAFIA	529
<i>Bibliografia</i>	531

Bibliografia (Eraskina)	536
1. Liburuan aipatua	536
2. Euskal gramatikak	537
GAI AURKIBIDEA	543

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

Duela bost urte, Euskaltzaindiak Batzorde bat izendatu zuen Gramatika lantzeko, sortzetik beretik zuen asmoetariko bati erantzun nahiz. Batzorde honek bere gain hartu zuen Euskaltzaindiak A. Campionen omenez Iruñean 1984ean egingo zuen X. Biltzarreko Gramatika honen hastapenak aurkeztea.

Euskaltzaindiak bere X. Biltzarra amaitu ondoren hauxe adierazi nahi du:

1. Gramatika Batzordeak aurkeztutako lana aitzin urrats handitzat dauka eta hauxe hartuko du oinarritzat aurrerantzean euskal gramatikari begira erabakiak hartzerakoan.

2. Lan honetan oraindik hautakizun direnei buruz Gramatika Batzordeari eskatzen dio gai hauen zerrenda prestatzen has dadila, behar den neurrian eta garaian aukera egin ahal izateko.

3. Euskararen ereduzko gramatika burutu bitartean, eta horretarako hain zuzen, Gramatika Batzordearen lana bultzatuko du. Hori dela eta hemendik aurrerako lanaren programa eta programa hori betetzeko behar diren bitartekoak zehaztea eskatzen dio, euskararen aberastasun eta ahalbide guztiak jasoaz, oraingo lanean egin den bezala.

4. Azkenik, tankera honetako gramatika batek duen premia ikusirik, ahal bezain laster, eta Biltzarrean bertan eta ezarritako epean jaso ditzakeen ohar guztiak kontutan harturik, Euskaltzaindiak argitara emango du Gramatika Batzordeak X. Biltzarrean aurkeztu duen lana. Biltzar honetan agertu beste txostenak argitaratzea ere bere gain hartzen du.

Iruñea, 1984eko irailaren 29a

HITZAURREA

1984ko Irailean egin zuen Euskaltzaindiak bere X. Biltzarra Iruñean Campionen omenez eta han aurkeztu Gramatika Batzorde honek Euskaltzaindiaren beraren aginduz paratua zuen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-I* delako liburu honen lehen prestakuntza. Batzar beraren buruan Euskaltzaindiak aditzera eman zuen Adierazpenean Batzorde honi besteak beste eskatzen zion, egun haietan irakurri ziren txostenak eta orduantxe eta gero helerazi zitzaizkion oharak gogoan edukirik, apaila zezan lehen prestakuntza hura ahalik lasterrena argitara emateko. Liburu hauxe da ahalegin guzi horien azken emaitza. Eskualdi berria ematerakoan iruditu zaigu lehen prestakuntza hari ezarri genion hitzaurrea baino hoberik, zehatzagorik eta osoagorik zorreniola, harrezkero zenbait lagunek —eta guk geurok geure buruari ere bai— galde, ohar eta keixu txiki batzu eginak baitizkigu. On dela uste dugu, gainera, liburu honen irakurleak ikas dezan zeintzu izan diren liburuaren egileen asmoak eta xedeak, bai eta lanari ezinbestean ezarritiko mugak.

Hondarrribian 1980ko Bazkoetan eginiko bileretan izendatu zuen Euskaltzaindiak Gramatika Batzordea, bere buru eta buruordeaz, idazkari eta idazkariordeaz gainera *Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak eta gaur egun gramatika lanetan sartuak direnak* batzorde lagun emanik. Agudo hasi zen Batzordea lanean. Eginbehar nagusia lehen egun haietan langaiak biltzea zen, egunen batean Euskaltzaindiarena izan behar zuen Gramatika taxutu ahal izateko. Baina xede hurbila edo helburu zehatza zein izan zitekeen ez genekien artean; itxumustuan edo, eman genituen lehen urratsak. Aurterago garbi ikusi genuen, ordea, perpaus bakunari lotu behar gintzaizkiola.

Loiolako bileran eginiko organigraman Gramatika Batzordea hamaika lagunek osatzen zuten arren, zenbait lagunek berehala poto egin zuten, eta eskulanaren premia gorria ikusirik, haien hutsuneak betetzeko dei irekia eta zabala egin eta lankide berriak elkartu zitzaizkigun. Halako batean, zenbait puntu aski ikertua eta zoritua zegoela ikusirik, gaiak sailkatu genituen eta zortzi lagunek haiei buruzko txostenak prestatzea bere gain hartu zuten; gainerakoak garraio lanetan jarraitu ziren, fluxak eta aipamenak liburuetatik eta bakoitzaren

kolkoko altxorretik atereaz, egungo eguneko hizkera bizia eta euskara mintzatua iurri zutelarik.

Ez zen, beraz, ez lankiderik arbuia ez idazle edo liburu zahar nahiz berririk baztertu. Nahi zuenak nahi zuen autoreaz aztertu eta hustu zuen; nahi zuen edo ezagutzen zuen euskalkitik jaitzi zituen adibide edo exenpluak. Hori bai, hemeretzi eta hogeigarren mendeetako idazleen liburuei eman zitzaizkien lehentasuna, gainerakoak zokoratu gabe, ordea, liburuaren irakurlea ohartuko denez. Orrialde hauetan zehar euskalkiren bat gailen atera dela besteren baten edo batzuren kaltetan inori iruditzen bazaio, beraz, egileek aurretik hartutako erabakiari ez zaio egotzi behar errua. Halaz eta guztiz ere, liburuan nolazpateko oreka nabari dela eta egungo eguneko euskara idatziaren ispilu aski garbia eskaini dugula uste dugu.

Ondoko orrialdeetan, beraz, iragan mendetik hona idatzi den euskararen xehetasun morfosintaktikoak azaltzen ahalegindu gara. Lan deskribatzailea da gurea, ezer baldin bada: hau garbi utzi behar da: eta Euskaltzaindiari begira euskal gramatika arauemaile baten zain egon direnak izan ditugu gogoan batikbat, bai eta egungo euskara batua gramatikalki finkatzeko arau multzoaren zain dauden irakasle, ikasle, idazle eta ofizio orotako euskaldunak. Hauei bereziki begira idatziak daude, hain zuzen, ondoko lerroak aipatu arazoa pittin bat argitzekotan.

Euskara modernoa eta batua, hau da estandarizatua, gaurko eta biharko premia eta ahalbideen arauerakoa, moldatzeko edo eraikitzeko bidean abiatuak, aurrera goaz urratsez urrats, denen neke eta ahaleginei esker: eta urratsez urrats diogu, aitzinean bide luzea gelditzen zaigularik ere, hauxe baita helburura ongi iristeko era bakarra. Urratsotako bat orain eskaintzen dizuegun lan hau datekeelakoan gaude, izan ditzakeen akats eta hutsune guztiak gorabehera. Baina ordu berean hauxe azpimarratu nahi dugu: euskara batuaren arautze ofiziala —Euskaltzaindiari berari dagokion eginkizuna, inori badagokio— eta Gramatika Batzordeak egin duen deskribapen hau oraingoz oso gisa desberdineko lanak dira. Euskara batuaren abiapuntu eta oinarria, izan ere, euskara bera da osoa, euskaldun guztien hizkuntza, alegia; beraz ez du gramatika bat euskara osoak eta beste bat batuak; biak, batuarena ere bai egin dadinean, euskara bakarraren eta beraren gramatika izango dira. Euskara batuaren definizio zehatza egiteke dago oraino, baina definizio hori oroz gainetik hizkuntza osoaren aberastasunen eta mugen arauera moldatu behar da. Gu liburu honetan, hain zuzen, eta gramatikari dagokionez, euskararen ondasun eta mugapen horiek oro biltzen, dokumentatzen, sistematizatzen eta

ahalik garbiena eta sinplekiena azaltzen saiatu gara, aztertu dugun alorlean bederen (izen sintagma, deklinabidea, adberbioa eta interjekzioak).

Gure betebeharra ez da izan hizkuntzak agertzen dizkigun egitura eta forma *gramatikalen* arteak hautaketarik egitea, euskal forma batzu onetsiz eta beste batzu gaitzetsiz. Bereizkuntza mota bat burutu beharra izan da, eta honek ere, jakina, ez digu buruhauste guti eman. Errealitatea dagoen dagoenean jasotzeari ekin diogu eta ez, errealitatea aldatzeari. Orain bada, euskara batua dela eta, — oraindik hainbat gauzatan finkatzeko den euskara batua dela eta—, hauxe galde lezakete irakurle batzuk: nolako tarrea dagoke hemen azaltzen den *euskararen* gramatika honetatik *batuaren* gramatikara? Oso tarie txikia, egia esan uste daitekeen baino txikiagoa: horra gure erantzuna. Eta are zehazkiago honela ihardets genezake: *funtsean* ia batere ez.

Euskalkietan aurkitzen diren alde edo diferentziaz mintzo garenean bereizketa bat egin behar genuke, izan ere, *funtsezkoen* eta *iturazkoen* artean. Hau egiten dugularik anitz altemantzia itxurazkotzat, azalekotzat eduki daitezkeela ohartzten gara, eta horren ondorioz euskararen egiazko batasun linguistikoa zertan datzan ikasteko bidean jartzen. Adibide nabari pare bat aipatzeko: ahozkerari dagokionez, bistan dago zenbait euskaldunen [bajna] eta beste zenbaitetan [bana] funtsean gauza bakarra direla; berebat morfologiari gagozkiola, inork ez luke ukatuko euskal aditzaren paradigmaman [dot], [det], [düt], eta [düt], edota [gara], [gera], [gare] eta [gira] gauza bera direnik; diferentziok hizkuntzarentzat azalekoak besterik ez dira. Ahozko mintzairako aldakinok itxuran bakarrik bereizten direla diogularik, ez ditugu horregatik gaitzesten; ez dugu esan nahi, alegia, hizkera horiek baztertzeoak direnik, euskaldun guztien ahozkerari berdintzeko, ez baitago horren beharrik. Idazterakoan, ordea, horrelako ahozko formek funtsean batasuna dutenez gero, euskara batuari ere ortografiatzeko batasun hori zor diogulakoan gaude. *Baina* eta *baña* ahozko formal euskaldunentzat gauza bera dira eta idazkera estandarizatuan bi gauza desberdin balira bezala bereizteak ez luke zentzurik.

Egia da, halere, diferentzia guztiak ez direla hain azalekoak; gelditzen zaizkigunen artean badira mamizko batzu eta hauentzat lehen azaldu tratamendua ez da egokia. Lexikotik hasten bagara, esate baterako, garbi dago puntu bat: *anitz* eta *asko* hitz desberdinak dira, sinonimoak, bata ez baita bestearen aldakina, eta idazleak horrelakoetan libre izan nahi du bere gogora bata zein bestea erabiltzeko. Aldiz, *anitz* eta *aunitz* ez dira sinonimoak, gure ustez, hitz bakarraren aldakinak baizik, eta euskara batuan ortografia bakarra behar dutela uste dugu. Banaketa dialektala izan arren, *anitz* eta *asko*-ren arteko

diferentzia funtsezkoa da eta ez, *anitz* eta *aunitz*-en artekoa bezalakoa, itxurazkoa.

Adibide hauek ikusirik, hurbil gaitzen orain gramatikaren eremura. Morfologian, ikusi dugun legez, itxurazko alternantziak ugari dira euskalkien artean; aldiz, egitura sintaktikoetara gatozela, askoz gaitzago da bi egitura funtsean batetara biltzea. Alegia, balio berdineko bi egitura gramatikal, ia beti *anitz* eta *asko*-ren parean ipiniko genituzke, ez *anitz* eta *aunitz*-en parean. Hori horrela delarik, euskara jatorra den edozein egitura sintaktikok badu euskara batuan lekurik eta hortik baztertzea nekez justifika daiteke, gure ustez. Euskara batuaren arauak esaten ahalko digute, bada, halako egitura nola idatzi behar den, ortografikoki eta bide batez morfologiari dagokionez, baina zein egitura erabil dezakegun jakiteko euskararen beraren gramatika orokorrera jo beharko dugu, zeren hor euskara batuak berez deus guti erantsiko edo kenduko baitu.

Nolanahi ere, gaur egun euskal morfosintaxia ofizialki guri arautua baldin badago, nahitaez hala izan behar du, harik eta alor zabal hau bere osotasunean eta bere aberastasunean ongi eta zehazki ezagutzen eta ezaguterazten, aztertzen eta deskribatzen deino. Osotasuna eta batasuna elkarren kontrakotzat hartzen dituen oker dabil; eta osotasunean aniztasuna gertatzen bada, aniztasun horren batuan bilatu behar batasuna, edo gutienez hortik abiatu behar batasunera heltzeko.

Zer esanik ez, liburu honetako azalpen eta adibideetan (idazle zaharregandik hartuta izan ezik, jakina) Euskaltzaindiak dagoeneko emanak dituen idatz arauak bete ditugu, eta gainera finkatzeke dirauten puntuetan ere *axalekotzat* dauzkagun alternantzia dialektalen aurtean estandarizazioranzko bidea hartzen saiatu gara, hor gure erizpideek inolako asmo edo balio arauemaillerik ez duten arren, Euskaltzaindiak erabaki ofizialik hartzen ez duen bitartean behintzat. Euskara batuak espresuki baztertu ez dituen formak, euskara izanez gero, euskara batuan ere erabiltzeko libre gara idazleok eta kasu horietan on deriztegun bideak aukeratzeko eta erizpideak erabakitzeko ere bai..., geuretzat, jakina, ez besterentzat. Hain zuzen ere, aukera egin eta erabakiak hartzerakoan --eta jakinaren goinean nahiz ohargabeki hartu behar arauak, finkatzen ez diren bitartean-- idazten duen edozein euskaldunek apurtxo bat eragiten dio euskara batuan azkenean nagusituko den joera finkatzeko prozesuari, azken batez Euskaltzaindia euskara erabiltzen duen herriaren morroi baita, ez besterik.

**LEHENENGO ATALA:
PERPAUSAREN EGITURA**

1. PERPAUSA

1.1. Perpausaren definizioaz

Txosten honetan ez dugu perpausaren definizio zehatzik emango, hau ez baita, gure ustez, lekurik egokiena honelako arazo teknikoak sakondu eta argitzeko. Gramatikaren lehengaitzat joko dugu perpausa, beraz, eta kontzeptu honetaz baliatuko aurrerantzean beste xehetasunik eman gabe.

1.2. Perpaus motak

1.2.1. Lokabeak eta mendekoak

Bi perpaus mota nagusi ditugu euskaraz. Beste perpaus baten mendean dagoen perpausa *mendekoa* deitzen dugu. Aldiz, beste perpaus baten mendean ez dagoena *lokabea*. Ondoko hau, esate baterako, perpaus lokabea da:

(1) Liburu bat emango dizut

Hurrengo adibidean, ordea, bi perpaus lokabe ditugu, biak askeak baitira, bata bestearen mendean egon gabe:

(2) *Liburu bat emango dizut, baina irakurri behar duzu*

Beste adibide honetan, aldiz, lehen perpausa lokabea da eta bigarrena mendekoa, lehenaren mendean dago eta:

(3) Liburu bat emango dizut, irakurtzen baduzu

1.2.2. Jokatuak eta ez-jokatuak

Perpausik gehienek aditza izan ohi dute eta aditz hori forma jokatuan nahiz ez-jokatuan egon daiteke. Forma jokaturako aditza daraman perpausa *jokatur* deituko dugu; aldiz, aditza jokatu gabe dagoenean, *perpaus ez-jokatur* baten aurrean aurkitzen gara. Horrela, orain arteko adibide guzietako perpausak jokatuak dira, beste adibide honetan ez bezala; honetan bigarren perpausa, mendekoa dena, ez-jokatur da:

(4) Liburua emango dizut, etxean irakurtzeko

Batzutan, halere, perpausak ez du aditzik izaten, honako honetan bezala:

(5) Liburua eskuan, etorri zen nigara

Gehienetan perpaus lokabeak jokatuak ohi dira, orainoko adibideetan bezala. Badira ere, ordea, ez-jokatur direnak; adibidez:

- (6) (a) Eseri hemen, mesedez!
(b) Orain etxera!
(c) A ze eguraldi ona!
(d) Isilik!

Ondoko kapituluetan garatzen den lanak, bada, perpaus jokatur lokabeak hartuko ditu kontuan; hauen egitura, perpausak osatzen dituzten sintagmen egitura, eta abar. Hitz batez esateko, perpaus bakunaren sintaxiaren zenbait puntu jorratzen saiatuko gara.

1.2.3. Adierazpen, galde, aginte eta harridura perpausak

Beste aldetik perpausak lau sail hauek banatzen dira:

- *Adierazpen perpausak*: soil soilik zerbait adierazten dutenak; adibidez:

(7) Gaur eskolan izan gara

- *Galde perpausak*: bere baitan galdera dutenak; adibidez:

(8) Buzi (al) zarotc?

- *Aginte perpausak*: agindu, eske, otoi edo horien antzekoren bat egiten dutenak; adibidez:

(9) Esadazu egia, mesedez

- *Harridura perpausak*: nolazpaiteko ustekabea, miresmena, harridura adierazten dutenak; adibidez:

(10) Hau poza!

Diogun bi hitz hauetako bakoitzaz.

1.2.3.1. Adierazpen perpausak

Adierazpen perpausak lokabeak edo mendekoak izan daitezke eta jokatuak edo ez-jokatuak ere bai. Mendeko adierazpen perpausak normalean marka bat daramate, hauen mendekotasuna seinalatuz; adibidez:

- (11) (a) Badakizu *gaur eskolan izan garela*
(b) Liburu bat emango dizut, *irakurtzen baduzu*
(c) Liburu bat emango dizut, *etxean irakurtzeko*
(d) Liburu bat emango dizut, *etxera joan baino lehen*

1.2.3.2. Galde perpausak

Galde perpausak ere lokabeak nahiz mendekoak eta jokatuak nahiz ez-jokatuak izan daitezke:

- (12) (a) Zer egingo duzu?
(b) Ez dakit *zer egingo dugun*
(c) Zer egin?
(d) Ez dakit *zer egin*

Badira aditzik gabekoak ere; adibidez:

(13) *Zer berri?*

Mendeko galde perpausak *zihar galderak* deitu ohi dira eta hauek *-n* hartzen dute mendekotasun marka gisa; adibidez:

(14) Amak galdetuko digu *nola busti garen*

Baina *bailez* galdera denean, *-ne(n)tz* marka erabiltzea ere zilegi da; adibidez:

(15) Amak galdetuko digu *busti garen(e(n)tz)*

Galde perpaus lokabeak, berriz, idaztean galde zeinuz seinalatzen dira. Galde perpaus hauen artean hiru sail bereziko ditugu:

1.2.3.2.1. *Bai-ez* erako galderak

Bailez galderak baiezko erantzuna nahiz ezezkoa eskatzen dute eta ez besterik; adibidez:

(16) Busti zarete? (erantzun posibleak: *Bailez*)

Adibide honetan bezala perpaus lokabe hauek inolako marka sintaktikorik gabe egin daitezke; erka itzazu:

- (17) (a) Busti zarete (adierazpen perpausa)
(b) Busti zarete? (galde perpausa)

Jakina, honelako galderak solasean intonazioari esker bereiz daitezke, eta idazketan, berriz, galde zeinua erabiltzen ohi dugu. Hala ere, *bailez* galdera hauek sintaktikoki seinala daitezke ere, nahi izanez gero, ondoren jartzen diren bide hauetako batez baliatuz: edo *-a* galde marka aditz jokatuari erantsiz:

(18) Busti zarete?

Edo *al* partikulaz baliatuz:

(19) Busti al zarete?

1.2.3.2.2. Aukera galderak

Aukera galderetan erantzun bat baino gehiagori bidea zabalik uzten zaio:

- (20) (a) Ardoa ala sagardoa hartuko duzue?
(b) Non bizi zara, Bizkaian ala Gipuzkoan ala beste probintziaren batean?

Ikusten denez, *aukera galderak* deitu ditugun perpausetan *ala* esaten dugu ahalbidezko aukeren artean.

1.2.3.2.3. Zati galderak

Zati galderetan, zer informazio eskatzen den zehazteko, *galdetzaille* bat erabiltzen da, hau hitz bakarra nahiz sintagma bat izan daitekeelarik; adibidez: *zer, nor, nork, zein, non, noiz, nola, zenbat, zer ordutan, zein ardo, nolako lagunak, zenbat herritatik...*:

- (21) (a) Zer hartuko duzu?
 (b) Zein ardo da onena?
 (c) Zenbat herritak bidali dizkigute eskutizak?

Lehen galderari erantzun diezaiokegu *Ardoa, Jateko zerbait, Dirua...* baina ezin dugu erantzun *Atzo* edo *Zurekin* edo *Bai*. Honelako galderetan, galdetzaillea aski da galdera dela seinalatzeko, eta ez da beste marka sintaktikorik erabiltzen honetarako.

1.2.3.3. Aginte perpausak

Hauek ere lokabeak nahiz mendekoak, edo jokatuak nahiz ez-jokatuak izan daitezke. Jokatuetan, aditzaren formak berak seinalatzen du aginte-perpausa:

- (22) (a) Joan zara hemendik (adierazpen-perpausak)
 (b) Bazoaz hemendik
 (c) Joan zaitetz hemendik (aginte-perpausak)
 (d) Zoaz hemendik

Ez-jokatuetan berriz —eta aginte-perpaus ez-jokatuak maiz erabiltzen dira— perpaus lokabeen kasuan ez da agertzen marka sintaktikorik:

- (23) Ircki atea

Aditza perpausaren hasieran jartzeko joerak aginte-perpausa identifikatzen laguntzen du. Baita intonazioak ere, jakina. Aginte mota (agindu hutsa,

eskakizuna, mehatxua...) zehazteko funtzioa betetzen duten zenbait hitz erants daitezke; hala nola *mesedez*, *bestela*, *gero*:

- (24) (a) Jarri hemen, mesedez (eskakizuna)
(b) Alde egin hemendik, bestela... (mehatxua)
(c) Ez ahantz, gero (abisua)

Mendeko aginte-perpausek (jokatuek nahiz ez-jokatuek) agintzeko funtzioa seinalatzen duen forma batean behar dute aditza:

- (25) (a) Hemendik alde egin dezazula esan dizut
(b) Hemendik alde egiteko esan dizut

1.2.3.4. Harridura perpausak

Harridura perpausetan, hiztunak nolabait adierazpen bati zerbait gehiago erasten dio, adierazpen honek bere baitan sortzen dion harridura edo espresatzen baitu. Zenbaitetan zaila da perpaus bat harridurazko denetz esatea, esateko moduak erakusten baitigu hala dela. Maiz kara, hala ere, egitura bereziak ere erabiltzen ditugu horrelako kasuetan: honako hauek ditugu garrantzizkoenak :

a) Hitz ordena aldatu edo predikatu osagarria bakarrik utzi:

- (26) (a) Hau gizon zikoitza da (adierazpen perpausa)
(b) Hau da gizon zikoitza (harridura perpausa)
(c) Gizon zikoitza!
(d) Harrigarria, honek esaten duena!
(e) Polita, zure lana!

b) Zenbait markatzaile erabili (erakusleak, *bai*, galdetzaileak...):

- (27) (a) Hauxe andrea!
(b) Bai ederra!
- (28) (a) Zer gizona den!
(b) Zer gizon handia den!
(c) Zer handia den!
(d) Zer laster egin duzun!

Ohartu goiko kasu horietan, *zer* erabiltzen dugunean alegia, artikulua behar duela IS-ak eta aditzari ere *-n* erasten diogula.

- (e) Zein handia zaren!
- (f) Zein ederki egina den!

Kasu honetan, aditzondo edo izenondoak erabiltzen ditugu (**zein liburua den!* ez legoke ongi), *zein* delakoaren ordeztze *zeinen* ere erabiltzen da eta aditzari ere *-n* erantsi behar zaio:

- (g) Zeinen zozoa den mutil hori!

Bestaldetik, *zenbat* galdetzailaz baliaturik ere ematen ditugu honelako esaldiak:

- (h) Zenbat gezur esan duen horrek!
- (i) Zenbat aldiz esan diodan!

Azkenekorik, badira, egon ere, beste zenbait esapide:

- (29) (a) Ala Jainkoa!
- (b) Ala dohatsua (bait zara)!

1.2.4. Baiezko eta ezezko perpausak

Oraino aipatu ditugun perpaus mota guztiak, *baiezkoak* nahiz *ezezkoak* izan daitezke. Ezezko perpaus guztietan *ez* (edo *ezin*) agertzen da:

- (29') (a) Autobusa (ba) dator (baiezkoa)
- (b) Autobusa ez dator (ezezkoa)
- (c) Ezin dut horrelakorik pentsatu

Baiezko perpaus askok, berriz, ez dute seinale berezirik. Baina *ba-* partikula (baiezko partikulaz ari gara, ez baldintzazkoaz) baiezko perpausetan bakarrik erabiltzen denez gero, partikula hau daramaten perpausak baiezkotzat jotzen ditugu:

- (30) (a) Etorriko da autobusa (baiezkoa)
- (b) Badator autobusa (baiezkoa)

2. PERPAUSAREN EGITURA

2.1. Egitura orokorra

Perpausaren barneko *egitura orokorra*, edo tipikoa bederen, honela azal dezakegu. Perpaus gehienek badute aditz bat. Aditzaren edo aditz multzoaren inguruan, perpausa osatzeko, beste zenbait elementu biltzen dira, eta azken hauek *osagarriak* deitzen. Perpaus batek osagarri bakarra, nahiz bi osagarri, nahiz hiru edo gehiago izan ditzake. Ondoko irudiek hori erakutsi nahi dute:

Aditzaz bakarrik osatutako perpausa:

ADITZA

(32) Atertu du
a.

Aditza eta osagarri bat duen perpausa:

OSAGARRIA — ADITZA

(33) Aita etorri da
o. a.

Aditza eta bi osagarri duen perpausa:

OSAGARRIA — ADITZA — OSAGARRIA

(34) Nik bi gizon ikusi ditut
o. o. a.

Aditza eta hiru osagarri duen perpausa:

OSAGARRIA — OSAGARRIA — ADITZA — OSAGARRIA

- (35) Piarres oso langile ona da baizuan
o. o. a. o.

2.2. Osagarrien funtzioak

Perpausen osagarriek *funtzio desberdinak* betetzen dituzte, eta funtzioen arabera sailka ditzakegu. Sailkapen horrek lau osagarri mota nagusi hauek emango dizkigu: *subjetua*, *objetua*, *predikatu-osagarria* eta *adberbioa*. Osagarria izen sintagma bat denean, funtzioak erabakiko du zer kasutan joango den. Subjetua absolutuan edo ergatiboan joaten da; objetua absolutuan edo datiboan; predikatu-osagarria absolutuan; eta beste zenbait kasuk aditzlagunak sortzen dituzte. Hona hemen adibide batzu:

- (36) (a) *Aita etorri da*
sub.
(b) *Nik bi gizon ikusi ditut*
sub. ob.
(c) *Maitasuna liluragarria da*
sub. pred.
(d) *Nik Piarresi liburu bat emango diot*
sub. ob. ob.
(e) *Nik bi gizoni begiratu diet*
sub ob.
(f) *Haiek nere laguna lehendakari izendatu dute*
sub. ob. pred.
(g) *Ni aitarekin bizi naiz*
sub. adb.
(h) *Ni zure ordezt joango naiz*
sub. adb.

2.3. Komunztadura eta osagarrien ezabaketa

Perpaus jokatueta aditzaren forma subjetuarekin eta objetuarekin edo objetuekin (objeturik dagoenean) aldatzen da; *komunztadura* deitzen da hau:

- (37) (a) *Aita etorri da*
(b) *Aita eta ama etorri dira*

- (c) *Nik gizonak ikusi ditut*
- (d) *Guk bi gizon ikusi ditugu*
- (e) *Nik gizona ikusi dut*
- (f) *Nik gizonak ikusi ditut*
- (g) *Nik gizonari begiratu diot*
- (h) *Nik gizonari begiratu diet*
- (i) *Nik gizonari liburuak emango diet*
- (j) *Nik gizonari liburuak emango dizkiet*

Predikatu-osagarriekin eta adberbioarekin, berriz ez da komunztadurarik euskaraz:

- (38) (a) *Ni aitarekin bizi naiz*
(b) *Ni aita eta amarekin bizi naiz*
(c) *Halek nere lagunak dira*

Osagarriak isilpean utz daitezke, testuinguruak agerian uzten baldin badu zer esan nahi dugun;

Adibidez:

- (39) (a) *Aita etorriko da* → *Etorriko da*
(b) *Gizonari liburu bana emango diet* → *Liburu bana emango diet*
(c) *Ez naiz zuekin joango* → *Ez naiz joango*
(d) *Jon lehendakari izendatu dute* → *Jon izendatu dute*

Baina zenbait kasutan, komunztadurari esker, askoz errazago da subjektua edo objektua ez aipatzea, informazio berria izan arren:

- (40) *Etxe berria erosi dugu*

Nork erosi du etxe berria, ordea? *Guk*, nahitaez; *dugu* aditz formak adierazten baitigu, komunztaduraren bitartez. Hortaz, perpaus honetan ez dugu *guk* hori aipatuko, nolabait azpimarratu edo nahi ez baldin badugu; adibidez:

- (41) (a) *Etxe berria guk (edo geuk) erosi dugu* (*guk* = galdegaia)
(b) *Guk etxe berria erosi dugu* (*guk* = minizagaia)
(c) *Etxe berria erosi dugu guk*

Komunztadura dela eta, ezabatzen diren osagarriak ez dira guztiz itzaltzen: erabilitako adibidean, *guk* dugu perpausaren subjektua, aipatzen ez denean ere.

2.4. Osagarrien egiturak

Osagarriak nahiz izen sintagmak nahiz mendeko perpausak, nahiz aditzondoak, nahiz adjetiboak... izan daitezke. Honako hauetan izen sintagmak dira:

- (42) (a) *Maitasuna* liluragarria da
(b) *Kafea* nahi duzu?
(c) Bilbo *hiri handia* da
(d) *Aitarekin* bizi naiz
(e) Beti oroituko naiz *zutaz*
(f) *Andoniren orde*z joango naiz

Beste hauetan mendeko perpausak:

- (43) (a) Garrantzitsua da *elkar maitatzea*
(b) Garrantzitsua da *elkar maita dezagun*
(c) *Nik ordaintzea* nahi duzu?
(d) Uste dut *aita atorriko dela*
(e) *Aberatsa zarelako* ezkondu nahi du zurekin
(f) *Liburuak irakurriz* ikasi ditut gauza hauek
(g) Bermut bat har dezagun *bazkaldu baino lehen*

Beste hauetan aditzondoak (adberbioen kasuan); adibidez:

- (44) (a) *Poliki* hitz egin behar zenuke
(b) *Asko* gustatzen zait zure janzi berria

Beste hauetan adjetiboak edo zenbatzaileak (predikatu osagarrien kasuan); adibidez:

- (45) (a) Bilbo *handia* da
(b) Txakur hau *neroa* da
(c) Gure arazoak *asko* dira

2.5. Elementuen ordenaz

Jakina denez, puntu hau hemen ematen dugun baino askoz ere korapilatsuagoa da eta eztabaida asko sorrerazi du hizkuntzalarien artean. Halaz ere, ez zaigu egoki iruditu perpausaren egituraz aritu eta aipatzeke uztea. Horregatik, azterketa sakonagoa zor zaiola jakinik ere, letrero hauek paratu ditugu hemen oraino esana laburbilduz edo.

Perpausaren oinarrizko egitura aditz (edo aditz multzo) batek eta zenbait osagarrik osatzen dutela ikusi dugu. Elementu hauek zein ordenatan eratzten dira perpaus mintzatu edo idatzian? Abiapuntu bezala esan genezake ordena hori librea dela, esan nahi baita edozein ordena posible dela. Adibidez, bi osagarritako perpaus hau hartuz gero:

Gure aita	etorriko da	bihar
(2)	(1)	(3)

Berehala konturatuko gara permutazio guztiak gerta daitezkeela:

- (46) (a) Etorriko da gure aita bihar (1.2.3.)
 (b) Etorriko da bihar gure aita (1.3.2.)
 (c) Gure aita etorriko da bihar (2.1.3.)
 (d) Gure aita bihar etorriko da (2.3.1.)
 (e) Bihar etorriko da gure aita (3.1.2.)
 (f) Bihar gure aita etorriko da (3.2.1.)

Hala ere, zenbait mugak edo erizpidek eraman gaitzake perpaus bakoitza era batean eta ez bestean eratzera. Hona hemen nagusiak.

2.5.1. Ordena ez-markatua

Badirudi euskal perpausen *ordena ez-markatua*, hots, beste arrazoiren batek ordena aldatzera ez garamatzalarik erabiltzen dena honako hau dela:

SUBJETUA — BESTE OSAGARRIAK — ADITZA

Beraz, lehengo adibideari dagokionez,

(47) Gure aita	bihar	etorriko da
sub.	adl.	a.

dugu ordena ez-markatua edo neutrala. Ordena ez-markatuak mendeko perpausetan aurkitzen ditugu askotan; adibidez:

- (48) (a) *Gure aita bihar etorriko dela* uste dut
 (b) *Gure aita bihar etorriko den* susmoa dugu
 (c) *Gure aita bihar etortzea* nahi genuke denok

Hala ere, ezezko perpausetan ordena ez da lehen eman dena, beste hau baizik:

SUBJETUA — ADITZA — BESTE OSAGARRIAK

Adibidez,

- (49) Gure aita ez da etorriko bihar
sub. a. adl.

2.5.2. Aditzaren ondoren jarritako osagarriak

Ordena ez-markatu horretan aditza (baiezko perpausetan) bukaeran agertzen bada ere, oso normala da zenbait osagari aditzaren ondoren jartzea. Bi arrazoi aipatuko ditugu hau esplikatzeko.

Alde baterik, edozein osagari luze edo konplexu, eta batez ere mendeko perpausak, normalean atzera botatzen ditugu; adibidez:

- (50) (a) Bihar etorriko da lehengoan aipatu nizun gizona (sub)
(b) Gure aita etorriko da bere lana bukatzen duenean (adl)
(c) Atzo ikusi nuen zakur handi-handi bat (obj)

Bestetik aditzaren aurrean joaten dira normalki perpausuan gehiago nabarmendu nahi ditugun osagarriak eta atzean, berriz, haintzakotzat hartzen ez ditugunak:

- (51) Zazpi anai-arreba gara gu (sub)

Nabarmentzen diren osagarriak bi eratakoak dira: galdegaia eta mintzagaia.

2.5.3. Galdegaia

Perpausen informazio berria, lehendik ezagutzen ez duguna, dakarren atalari *galdegaia* deitzen diogu. Informazio berria izan daiteke perpaus osoa nahiz perpausoko atalen bat. Adibidez, etxean sartu eta honako hau esaten badut:

- (52) Duela bi ordu sekulako istripua izan da San Martin kalean

Guztia izan daiteke etxekoentzat informazio berria, eta horrenbestez perpaus osoa har daiteke neurri batean galdegailzat.

Baina gerta daiteke zerbaitetaz hitzegiten, zerbait kontatzen... aritzea ere. Orduan, zertaz ari garen dakigularik, zerbait berria adierazten duen atala izango da galdegaia. Esaterako, Txanogorritxuren ipuina kontatzen ari garelarik, momentu batetan, entzuleak jakingo du nor den Txanogorritxu, bai eta amona duela ere. Orduan esan dezakegu:

(53) Txanogorritxuren amonari ezta gustatzen zizaiion

Kasu honetan *Txanogorritxuren amona* lehendik ezagutzen dugunez, *ezta gustatzea* da ematen dugun informazio berria; beraz, galdegaia. Horrelako kasuetan, hots, galdegaia atal bat denean, atal hau aditzaren aurre-aurrean ipini ohi da, eta aditzarekin batera ahozkatu, bien artean inolako etenik egin gabe. Horrenbestez, goiko adibidea, horrela ahozkatuko genuke gutxi gorabehera:

(54) Txanogorritxuren amonari / ezta gustatzen zizaiion

(Azentuek adierazi nahi dute, ahozkatzerakoan *ezta* den atal zatian ipintzen dugula indarririk handiena, eta atal osoa azentu bakarraz ahozkatzen dugula).

Zati galderetan galdetzailea bera da galdegai:

(55) Zer edango duzu?

Eta zati galderari ematen diogun erantzunean, galdetzailearen lekuan ipintzen den informazioa da galdegaia:

(56) Ardo beltza edango dut

Baina goiko adibidean beste ahozkerak hau ere posible da:

(57) Txanogorritxuren amonari / ezta / gustatzen zaio /

Hau da, etena egingo dugu, arnasa hartuko dugu, *ezta* eta *gustatzen zaio* atalen artean. Hala egiten dugunean, emandako definizioaren arauera, ezin esan *ezta*, aditzaren aurre-aurrean badoa ere, galdegai denik; ez baita azentu bakarra eta etenik gabe ahozkatzeko baldintza betetzen. Horrelakoetan, aditza bera da galdegai, baldin eta beste bi atalak aldeztetik ezagunak bazaizkigu. (Bestela, hasieran aipatutako galdegairik gabeko perpaus baten aurrean geundeke).

Hala ere, galdegaia aditza bera baldin bada, hots, gure adibidean, ematen dugun informazio berria Txanogorritxuren amonari *eztiari buruz zer gertatzen zaion* bada, badira beste bi era ere hau adierazteko:

- (58) (a) Zer gertatu zaio zuen aitari?
(b) Hil *egin* da gure aita
(c) Hil da gure aita

Hau da, *egin* erabil dezakegu laguntzaile gisa, edo aditza perpausaren hasieran ipin dezakegu.

Egin erabili ohi den euskalkietan, halere, bigarrenak (*hil da gure aita*), lehenak ez bezala, denborazko zentzua du: *dagoeneko hil da* bailio eta horrenbestez ez da gehiago *Zer gertatu zaio...?* -ren erantzuna.

Eta honek beste bereizketa batera garamatza, galdegaiari dagokion alor honetan. Denborazko zentzua duela esatea, edo galdegaia aditza (hots, ekintza) bera ez baizik ekintza horren baiezkotasuna, afirmazioa, dela esatea, gauza bera bait litzateke. Beraz, aditza galdegai dela esatean, honako bereizketa hau egin daiteke:

1. Aditzak adierazten duen ekintza bera da galdegai, eta hau adierazteko erabiltzen ditugu goian aipaturako hiru moduak (3 eta 7).

2. Aditzak adierazten duen ekintzaren afirmazioa, baieztapena, da galdegai. Kasu honetan ezin dugu *egin* erabili. Aditza perpausaren hasieran ipintzeaz edo, perpausaren barnean badoa, aurreko ataletik berezirik ahozkatzeaz baliatuko gara. Goiko adibidean:

- (59) Hil da gure aita (edo, gure aita / hil da)

dioen hartan, lehendik dakigu aita hilzorian dagoela; beraz, *aita* elementu ezaguna da eta *hil* ekintza, edozein momentutan espero duguna. Eta orain ekintza hori gauzatu dela baieztatzen dugu.

Galdegaia den aditza sintetikoa baldin bada, *ba-* aurrizkia hartuko du, edota ez, ezezkoa bada:

- (60) (a) Gure aita badator, (edo) ez dator
(b) Badator gure aita, (edo) ez dator

Ohar, haatik, perpausari hasiera aditz sintetikoak ematen dionean, beti behar duela *ba* edo *ez*, galdegaia bada eta ez bada. Ezina da, alegia, honako hau:

(61) *Dator gure aita

Eta honenbestez ohartzen gara, aditz perifrastikoei buruz egin dugun bereizketa bikoitz hori ez dela egiten ahal aditz trinkoekin. Hau da, aditz trinkoekin, Bizkaieraz salbu, ezin dugu bereizi noiz den galdegaia ekintza bera eta noiz ekintzaren baieztapena (edo ezeztapena).

Bizkaieraz, lehen kasua adierazteko (galdegaia aditzak adierazten duen ekintza dela, alegia), aditzaren errepikazioaz baliatzen dira; lehen lekuan lehen partizipioa ipintzen dutelarik eta ondoren aditz trinkoa:

(62) Etorri dator gure aita.

2.5.4. Mintzagaia

Berria den zerbait jakinerazten digun atala galdegaia den bezala, alde z aurretik ezagutzen duguna errepikatzen duen atalari mintzagaia deitzen diogu. Lehengo adibidean *Txanogorritxuren amona* litzateke, esate baterako, mintzagaia. Hori da ipuinari esker ezaguna den atala; horrezaz ari da ipuina.

Atal hori ere nolabait azpimarratu nahi delako jasotzen da perpausuan. Baina galdegaia bezain azpimarratua ez da gertatzen, batetik, eta, ez aipatuz gero, *eztia gustatzen zaio* ipuineko zein pertsonaiatz predikatzen den ezin jakin ahal liteke, bestetik, bat baino gehiago agertu baitira, agian.

Gauza bera gertatzen da bi lagunen arteko solasa *ertzainez* baldin bada, bietako batek honako hau dioenean:

(63) *Gizon horiek ezagutzen ditu nik*

Bi adibideetan nabari denez *mintzagaia* delako atala perpaus hasieran paratu ohi dugu. Baina, erne, horrek ez baitu inola ere esan nahi perpausaren hasieran ageri den atala beti mintzagaia denik.

Kontua hau da: euskaraz galdegaia nahiz mintzagaia nabarmen daitezen nahi dugunean, perpausuan markatu egiten ditugu nolabait eta horiek markatzeko euskarak duen bidea perpausaren leku berezian, jakinean, ipintzea da. Horretan

datza marka. Baina alderantzikoa ez da nahitaez egia; hots, leku horietan agertzen diren atalak ez dira beti markatuak; izan daitezke, bai, baina ez izan ere bai. Bestela esan, euskarak galdegai eta mintzagaiarentzat perpausaren bi leku horiek ditu gordeak, baina bi leku horietako atalak ez dira beti eta nahitaez galdegai nahiz mintzagaia.

**BIGARREN ATALA:
IZEN SINTAGMAREN EGITURA**

1. IZENA

1.1. Izena, izen sintagmaren ardatza

Perpasean izen sintagma elementu desberdinez osatua ager daitekeela berehala nabari da, honako perpase hauek bezala *etorri da*, *etorri dira*, *etorri naiz* eta horien antzeko aditzen aurrean kokatzen den osagaia izen sintagma denean:

- (1) (a) Andoni etorri da
- (b) Bost gizon handi etorri dira
- (c) Ni etorri naiz

Hona hemen era desberdinetako zenbait izen sintagma:

Izen sintagma	Aditz sintagma
Andoni, gizona	
Bost gizon, bost gizonak	
Andoni txikia, gizon txikia	
Bost gizon txiki	
Gure Andoni, Andoni gurea	
Gure Andoni hori	
Gure gizona, gure bost gizon	
Gure Andoni txikia, gure gizon txikia	Etorri da
Euskadiko bost gizon txiki	Etorri dira
Hori, txiki hori	Etorri naiz
Bost, bost txiki	
Gurea	
Euskadiko bost txiki	
Ni, norbait, edonor	
Euskadiko norbait	
Andoni hori	
Ezagutu dudak lagun bat	

Izen sintagma guzti hauen ardatza, *izen sintagma* deiturak berak aditzera ematen duen bezala, *izena* dugu. Alde horretatik, *Andoni, gizon, ni, norbait* edo *edonor*, izenak dira. Hala ere, badira goiko zerrenda horretan zenbait izen sintagma, itxuraz bederen izenik agerian ez daramatenak. Adibidez: *Euskadiko bost txiki* edo *bost* edo *hori*. Non da, izan ere, hauetan ardatza delako *izen hori*? Ez da ageri. Hala ere, perpaus hori entzuten duenak nolabait jakintzat ematen du hor falta den izena. *Gurea* esaten duenak ere nolabait *gure den zerbait* edo *gure den norbait* edo horrelako zerbait ulertzen duela pentsatzeko eskubidea badugu.

Hortaz, izen sintagma elementu desberdinez osatzen bada ere, denetan bada beti agerian edo izkutuan nagusiena gisa agertzen den bat: *izena*. Izen sintagmarik ez da berez izenik gabe; agerian ez badago, izkutuan egongo da.

Izen sintagman agertzen diren elementuak, funtsean hiru sailetakoak ditugu: ardatz-elementuak, elementu atributiboak eta determinatzaileak. Hortaz:

Izen sintagmaren osagaiak:

1. Ardatz elementuak: - Izena
2. Elementu atributiboak: - Adjetiboa (Izenlaguna, izenondoa)
3. Determinatzaileak: - Mugatzailea
- Zenbatzailea
- Nolaketzailea

Hala ere, kontutan izan behar da hitzak aski erraz aldatzen direla kategoriaz. Esan nahi baita, *hitz bera* ager daiteke *izen* modura, baina baita, beste testuinguru batean, *izenondo* modura ere. Adibidez, *hotz*, izena eta izenondoa izan daiteke. Baina kasu batean eta bestean testuinguru desberdinean agertuko zaigu: izen denean, izenari dagozkion inguratzaileez hornitua joan daiteke. Baina izenondo denean, bera izango da izen baten *hornitzaile*:

(2) Ur hotza edango dugu

Adibide honetan argi dago *hotz* izenondoa dela, izen sintagma horren ardatza den *ur*-ek izenaren kualitate bat besterik ez baitu adierazten. Baina zer gertatzen da beste perpaus honetan?

(3) Hotz ikaragarria dago gaur

Izen sintagmaren ardatza *hotz* dugu. Hau da ardatza, beraz; hau da izena. *Hotz* batean *ur* izenari laguntzen dago eta bestean, berriz, bera da izen sintagmaren burua. Hortaz, lehenbiziko perpausuan *hotz* izenondoa da eta bigarrenan, izena.

Areago, aditzondoari gauza bera gertatzen zaio. Hona adibidea:

- (4) (a) Gero esango dizut
(b) Geroak esango digu ongi ala gaizki jokatu dugun

Hemen ere, goiko perpausuan *gero* aditzondoa dela esango dugu, baina bigarrenan dudarik ez da izena dela, izenari dagokion testuinguruan agertzen baita. Hots: perpaus horretan *gero* agertzen da beste perpaus honetan *gizon* agertzen den testuinguru berean:

(5) Gizonak esango digu ongi ala gaizki jokatu dugun

1.2. Izenen sailkapena

Begira diezaiegun honako izen sintagma hauei:

- (6) (a) *Andoni* bihar etorriko da
(b) *Itziarrek* sua eskatu dit
(c) *Paris* oso hiri polita da
(d) *Eliza eder bat* aurkitu genuen bidean
(e) *Txakur hura* ez da gurca
(f) *Ur guztia* edan zuen
(g) *Maitasuna* zer den ez daki

Perpaus hauetako izen sintagmen ardatz ditugu honako izen hauek: *Andoni*, *Itziar*, *Paris*, *eliza*, *txakur*, *ur*, *maitasun*. Baina izen guztiak ez dira mota berekoak, batzu testuinguru batzutan ager daitezkeelako eta besteak beste batzutan; denak ezin dira testuinguru guztietan agertu. Oso inportantea da, bai semantikazko eta bai sintaxizko arazoienatik, izenaren multzoan zenbait azpimultzo bereiztea. Adibidez, *Andoni* eta *Itziar* izen *berezikiak* direla esan ohi dugu, *txakur* eta *ur*, izen *arruntak*, eta abar. Azpimultzo hauetan beste azpimultzoak ere bereiz daitezke oraindik: *bizidunak* eta *bizigabeak*, *zenbakarriak* eta *zenbakaitzak* eta abar:

		A.1.1. biziduna
	A.1. zenbakarria	
A. Arrunta		A.1.2. bizigabea
	A.2. zenbakaitza	
IZENA:		
	B. Berezia	

1.2.1. Izen arruntak eta izen bereziak

Izen sintagma osatzeko, zenbait izenek nahitaezko dute, normalean, mugatzaile deitzen dugun elementuren baten laguntzan agertzea, edo zenbatzaile baten laguntzan agertzea edo bien laguntzan agertzea.

- (7) (a) **Emakume* ibili da gure bila
(b) **Etxe* erosi dugu Zumaian

Perpaus horiek ez dira zuzenak. Arrazoia da perpaus horien izen sintagmek determinatzailea falta dutela. Falta duten hori erasten badiegu zuzenak gertatzen dira:

- (8) (a) *Emakumea* ibili da gure bila
(b) *Etxea* erosi dugu Zumaian
(c) *Zenbait gizon* ibili da gure bila
(d) *Etxe asko* erosi dugu

Izen sintagma osatzeko determinatzailearen beharra (eta bereziki mugatzaile deitzen dugunaren beharra) duten izenak *izen arruntak* direla esaten dugu. Hortaz *emakume* eta *etxe* izen arruntak dira: *leku*, *zuhaitz*, *txakur*, *liburu*, *auto*, *egokitasun*, *ibilera*,... normalean mugatzailea behar baitute.

Izen sintagma osatzeko mugatzailearen beharrik ez duten izenak *izen bereziak* direla esango dugu:

- (9) (a) *Joxe* ibili da zure galdezka (ez *Joxea*)
(b) *Paris* Frantzian dago (ez *Parisa*)

(Hala ere, testu zaharretan posible da izen berezi hauek mugatzaile eta guzti ikustea: *Jondone Peritagaz*, *Aita San Franziskua*, *Jesusa* (Jesus-en orde) eta antzekoak).

Bestalde, *normalean* esan dugu beti. Izan ere, zenbait esamoldetan izen bereziak erakuslea har dezake eta baita *-a* mugatzailea bera ere. Adibidez:

- (10) (a) Zer uste du Peru honek?
(b) Peru gurea Londresen

...

Kontua da, *-a* mugatzailea, adjetiborik edo tartean ez bada, ezin zaiola izen berezi bati erantsi.

Hortaz, hau izango litzateke izen arruntaren eta bereziaren arteko bereizketa nagusia:

- *Izen arrunta*: mugatzailearen premia duena.

- *Izen berezia*: mugatzailearik onartzen ez duena, normalki.

Semantikaren aldetik, bestalde, esan ohi da izen arruntak kategoria edo espezie bateko gauzak edo izakiak aditzera emateko erabiltzen direla: *gizon* izen arrunta da, *gizon* diren izaki guztiei aplikatu dakiekeelako; *etxe* etxe guztiei aplikatu dakieke. Baina *Andoni*, edo *Paris*, izaki jakin bati bakarrik aplikatu dakizkiokenez, izen bereziak izango dira.

Esan nahi da, izen bereziek erreferentzia zehatza dutela, ez dagozkie espezie bereko izaki guztiei, izaki jakin bati baizik. Alde horretatik, *Axular*, *Koldo*, *Itziar* pertsona izenak edo *Ataun*, *Gasteiz*, *Matxinbenta*, *Paris*, *Londres*... leku izenak edo *Jakin*, *Erein* eta antzeko izenak erreferentzia bakarreko izenak ditugu. Horrenbestez, izen bereziak direla esan dezakegu. Gainera, kontutan izan goragoko definizioaren arabera ere izen bereziak direla, ez baitute mugatzailearik behar.

Baina berehala konturatzen gara hemen bi irizpide horiek gurutzatu egiten direla, honako kasu hauek aurkitzen ditugulako:

A.- Berez erreferentzia bakarra ez dutenak izan arren, mugatzailearik gabe ager daitezkeenak: *errege*, *amabitxi*, *aita*, *aitatxo*, *ama*, *amatxo*, *izeba*, *osaba*, eta abar. Hauek izen berezien jokabidea dutela dirudi erreferentzia bakarra dutenean. Hortaz, mugatzailearik gabe erabiliak direnean, izen berezitzat haru beharko ditugu:

Erregueren advocatu videzco eta nobleari... (Etxepare, hitzaurrea)

Jakina, kasu honetan, norberaren erregea denean, Errege bihurtzen da; izen berezi, hortaz.

B.- Erreferentzia bakarra izan arren mugatzailearekin agertzen direnak: *ilargi, eguzki, zeru...* Hauek erreferentzia bakarrekoak izan arren, letra txikiz idazten ditugu eta izen arruntzat hartzen. Baita ere, asteko egunen izenak edo hilenak: *astelehen, ostegun, urtarril, abendu...*

Letren izenak ere, erreferentzia bakarra izan arren, mugatzailearekin erabil daitezke:

(12) Oso letra eztabaidagarria da zenbaitentzat h-a

Baina badirudi esan daitekeela ere:

(13) B oso letra polita da

Bietara, beraz. Noski, aposizio bidez itzulia erabiltzen dugunean dudarik ez da: artikulurik gabe ageriko zaigu:

(14) (a) Oso eztabaidagarria da zenbaitentzat h letra
(b) B letra oso polita da

C.- Letra handiz idazten ditugun leku edo erakunde izenak, erreferentzia bakarra duten arren, mugatzailearekin doazenak: *Azpeitia, Azkoitia, Bizkaia, Batikanoa...* *Herri Batasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea...*

Era berean, euskaraz *Jainko* edo *Jaungoikoa* izen arrunt bezala agertzen zaizkigu, mugatzailea hartu behar baitute. Horrela, *Jainkoak hitzegin du* esaten badut, *Jainko* bakarrari buruz ari banaiz ere, izen hori —letra handiak gora-behera— mugatzaileak laguntzen diolarik, izen arrunta dela esango dugu. Horregatik, *Jainko* bat baino gehiago direla diotenentzat ere izen arrunta izango da: *Jainko bat, hamar jainko, jainko guztiak* eta abar esan daiteke.¹

¹ Hau dena kontutan hartuta, zenbait gramatikalarik semantikaren aldetikako beste bereizketa bat gehiago erastea proposatzen dute, mugatzailea eraman arren erreferentzia bakarra duten izen horientzat (*Jainkoa, Urtarrila, Azpeitia* e.a.-entzat, alegia). Hauek semantikaren aldetik izen propioak izango omen lirateke. Guk, hala ere, bereizketa hau ez dugu kontutan hartuko. Guretzat bereizketa bakarra *arrunt/berezi* izango da eta hau mugatzailea hartzen duen ala ez kontutan izanik.

Erreferentzia bakarra duten mugatzaile edo artikuludun hauekin oso kontuz ibili beharra dago. Adibidez, delako izen hori herri izen bat bada (*Azpeitia Bizkaia* eta antzekoak) izen sintagma atzizkia hartzen duenean, beste izen sintagma mugatu guztiek bezala jokatzen du:

Ongi idatziak	Gaizki idatziak
<i>Azpeitian, mendian</i>	* <i>Azpeitin</i>
<i>Azpeitika, mendiko</i>	* <i>Azpeitiako</i>
<i>Azpeititik, menditik</i>	* <i>Azpeitianik</i>
<i>Azpeitira, mendira</i>	* <i>Azpeitiara</i>

(Eredu berberekoak ditugu *Iruñea, Bizkaia, Azkoitia, Zigoitia, Basaburua Ermua, Mallabia*, e.a.)

Halaz ere, herriaren izena ez da *Azpeiti, Azpeitia* baizik. Kontuan izan, bestalde, zenbait izen berezitan *-a* itsatsirik gelditu zaiela: *Hendaia, Nafarroa, Donostia, Getaria, Gipuzkoa, Zuberoa, Aezkaa, Errearteria*, etab. Kasu hauetan beste eredu honi jarraitu beharko zaio:

Ongi idatziak	Gaizki idatziak
<i>Donostian</i>	* <i>Donostin</i>
<i>Donostiako</i>	* <i>Donostiko</i>
<i>Donostiatik</i>	* <i>Donostitik</i>
<i>Donostiara</i>	* <i>Donostira</i>

(Modu berean, hortaz, *Nafarroa, Hendaia*, etab.)

Bestalde, baserri izenekin eta, Ekialdeko jokabidea eta Mendebalekoa desberdina dela dirudi gaurregun behintzat. Hain zuzen, Ekialdean baserri izenekin herri izenekin bezala jokatzen dute. Adibidez, baserri baten izena *Haranburua* izango da, baina *-a* hori mugatzailetzat hartzen delarik, *Haranburutik, Haranburura, Haranburuan*, e.a. esango dute.

Mendebaleko joera, berriz, alderantzizkoa dela dirudi. Alegia, baserri baten izena *Kaminburu* edo *Etxeberri* baldin bada *Kaminburuko, Kaminburun, Etxeberrin* eta abar esango da. Beraz, zail gertatzen da erregela zehatzik ematea gai honetan. Dena den, Ekialdean ere, *Haranburua* bada ere baserriaren izena, baserri horretako gizona ez da jadanik *Haranburua* izango, *Haranburu* baizik.

Hala ere, badira zenbait deitura, berez izen sintagma arruntak direnak: *Herria, Deia, Izarra, Argia* eta abar. Hauetan sintagma osoa hartu behar da, eta, deklinatzerakoan, mugatzailerik ez balego bezala jokatzeko dugu, -a itsatsia duten izen bereziak balira bezala:

- (15) (a) *Herria*-tik ale bat bidali didate (eta ez **Herri*-tik)
(b) *Deia*-koekin ez naiz aspaldion mintzatu (eta ez **Dei*-koekin)
(c) *Argia*-ra gutun ugari iritsi dira (ez **Argi*-ra)

Era berean, etxe baten izena edo taberna batena *Gure etxea* edo *Arrano beltza* bada, nola esan behar da:

- (16) (a) *Gure etxea*-ra goaz
(b) *Arrano beltza*-tik dator

ala

- (17) (a) *Gure etxera* goaz
(b) *Arrano beltzetik* dator?

Izan ere, *Herria* ez da *herri*, aldizkari baten izena baizik, *Deia dei* ez den bezala edo *Argia argi* ez den bezala. Era berean, *Gure etxea* ez da egiazki *gure etxea*, etxe baten deitura baizik. *Arrano beltza* ere taberna baten izena izan daiteke. Horren erreferentzia, hortaz, ez da hegazti bat, leku bat baizik, eta, mugatzaileari dagokionez, jokabide zuzena -a hori mugatzailetzat ez hartzea izango litzateke. Hots: *Deia, Herria, Argia, Gure etxea, Arrano beltza* eta antzekoak oso osorik izen berezitzat haruko genituzke, mugatzailerik ez balute bezala.

Antzeko arazoa daukagu alderdi politikoen deiturekin ere. *Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskadiko Alderdi Komunista*, adibidez, alderdi biren deiturak ez ezik, alderdi horien nolabaiteko deskribioa ere badira. Deitura izateaz gainera, *Eusko Alderdi Jeltzalea* alderdi bat da. Hortaz, ez da *Deia* edo *Argia*-ren kasua. Horrenbestez, mugatzaileari dagokionez, arruntak balira bezala jokatu dugu:

- (18) Eusko Alderdi Jeltzalea jende berri asko dator

Eta ez:

- (19) *Eusko Alderdi Jeltzaleara...

Baina *Herri Batasuna*, adibidez, deituraz gainera, *batasuna* ote? Hemen zalantzan bezala ibili ohi gara. *Herri Batasuna* deitura soila bada, *Euskadiko Ezkerra* bezala, *Herria* eta *Deia* eta antzekoekin bezala jokatzeko joera izango dugu:

- (20) (a) *Herri Batasuna*-n gazteak eta zaharrak ikusten ditut
(b) *Euskadiko Ezkerra*-ko jendea ezagutzen dut

Baina *Herri Batasuna batasuna* bada eta *Euskadiko Ezkerra ezkerra* bada, orduan, behar bada, mugatzaileari dagokionez, arrunt modura hartuko ditugu.

Hala ere, kontu hau ez dago batere argi, zeren arrazoibide berak balio behar luke *Bizkaia*, *Azpeitia* eta antzeko leku izenekin ere eta ez da horrela gertatzen.

Gauzak horrela, interesgarriena izena mugatzailea hartzen duen ala ez jakitea dugu:

Mugatzailea dutenak

1. *erxe, liburu, auto, unibertsitate, idi, txakur, katu, txingurri, ilargi, zeru, mendi...*

2. Astegun eta hilabeteen izenak: *ostegun, larunbat... urtarril, irail...*

3. Zenbait herriren eta lurralderen izenak: *Azpeitia, Bizkaia*: (Baina ez *Donostia*).

Mugatzaile gabeak

1. Pertsona eta leku deiturak: *Andoni, Lourdes, Agirre, Iturbe... Ataun, Anbotu, Nerbioi, Bilbo.*

2. Izen berezi modura erabiltzen ditugun zenbait izen arrunt: *Errege, amabitxi, aitaixo, izeko...*

Hala ere, izen bereziek mugatzailerik onartzen ez badute ere, izen horren eskuinetara adjetibo bat edo izenlagun bat azaltzen bada, orduan mugatzaile hori agertu egingo da:

- (21) (a) Peru gurea Londresen
(b) Axular jakintsuak
(c) Mosku osoa ezagutzen dut

Era berean, izen berezia agertzen den izen sintagman erlatiboazko perpaus bat ere agertzen bada, orduan mugatzaileak agertzekotan erakuslea izango da:

- (22) Hau ez da nik ezagutu nuen Joxe (ez *Joxea*)

edota

- (23) Hau ez da nik ezagutu nuen Joxe hura

Eskuarki badirudi, izen bereziekin *-a* artikulua agertzeko debekuak baditugu ere, erakusleak agertzeko ez dagoela hainbesteko trabarik. Horregatik, ez dira bat ere arraroak honelakoak: *Kennedy hura*, *Piarres horrekin*, *Euskadi honetan*... Zenbatzaileekin ere ager daitezke, baina orduan sentidu bereziren bat izaten da gogoan: *Zenbat Kennedy?*, *bi Piarres*, *badira munduan zehar Euskadi asko*, etab.

1.2.2. Zenbakarritasuna eta neurgarritasuna

1.2.2.1. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak

Izen batzu era guztietako zenbatzaileekin ager daitezke: *hamar liburu*, *bi etxe*, *liburu asko*, *pila bat liburu*... Beste batzu, berriz, ezin ditugu normalki horrela erabili: **bost olio*, **hiru gari*, **hamasei ke*...

Izan ere, *liburuak*, *etxeak*, *autoak*, *gizonak*... konta daitezke eta *olioa* edo *garia* edo *kea*, ezin. Konta daitezkeen izen horiek *zenbakarriak* direla esan ohi dugu eta ezin konta daitezkeenak, *zenbakaitzak*.

Izen zenbakaitzak jarraiak diren gaiak dagozkie, edo hizkuntza bateko hiztunak jarrai modura ikusten dituenak. Jarraiak dira banakotan ezin bereiz daitezkeenak edo, hobeto esan, hizkuntza jakin batean banakotan berezi ezinak gertatzen direnak. Adibidez *ura* edo *olioa*, edo *garia*, edo *sua*, edo *maitasuna*, ez ditugu banakotan bereizten: *masa* modura hartzen ditugu, zerbait jarraia bezala. Horregatik, hauekin ezin ditugu zenbatzaile numeralak erabili: **Bost olio*, **hiru gari*... Hortaz, *olio*, *gari* eta antzekoak izen zenbakaitzak direla esan ohi dugu.

- (28) (a) Sua itzali egin da (su = [- Zenb.])
(b) Su asko piztu dituzte mendi tontorretan (su = [+ Zenb.])

Gramatikaren aldetik kontu honek axola handia du: jakin behar dena da mora bateko eta besteko izenak zein zenbatzailerekin joan daitezkeen, edo kantitatea nola adierazi behar den:

- (29) *Gorroto bat, *gorroto asko

Horien ordeaz besteok hobeki esanak dirudite:

- (30) Gorrotoa, gorroto handia

1.2.2.2. Izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak

Izen zenbakaitzen artean, hala ere, beste bi azpimultzo berezi behar ditugu, zeren izen zenbakaitz hauetatik batzu neurtu ohi direnak baitira eta beste batzu, berriz, ez. Esaterako, *olioa* edo *garia* kontatzen ez baditugu ere neurtu egiten dira. Baina *maitasuna* edo *sua*, edo *gorrotoa* neurtzeko modurik ez dugu.

Honek sintaxiaren aldetik badu bere garrantzia: neurgarriak direnekin kantitatea adierazten duten sintagma batzu erabiltzen ditugu: *bost litro*, *pila bat*, *dozena bat*, *eskukada bat*, *pinta bat* eta abar:

- (31) (a) Eskukada bat gari
(b) Bost litro olio behar ditugu
(c) Hamar kilo irin saldu zidaten

Baina ez

- (32) (a) *Bost kilo maitasun
(b) *Pila bat gorroto.

Neurtzen ez ditugunekin, kantitatea gabe, intentsitatea edo adierazi ohi dugu. Horretarako *handi luze*, *labur*... izenondoez baliatzen gara.

Beraz:

A. Zenbakarria (*exxe, mutil, harri, zigarro...*)

Izen arrunta:

B.1. Neurgarria (*irin, ardo, ur...*)

B. Zenbakaitza

B.2. Neurgaitza (*su, gorroto, ke...*)

Jakina, izen zenbakarri asko ere bi eratara uler daitezke: adibidez, *bost harri bota nizzion* esaten badut, harriak konta daitezkeela esaten dut. Baina *tonelada bat harri bota nion* (edo *tonelada harria*) esaten dudanean, *harria masatzat* hartzen dut; zenbakaitzat, hortaz.

1.2.3. Izen bizidunak eta izen bizigabeak

Bereizketa hau ere semantikari dagokio, baina ondorio handiak ditu euskal morfologian eta sintaxian. Alegia, *exxe, liburu, harri, bide...* izen bizigabeak dira; baina *gizon, asto, Andoni...* bizidunak direla esaten dugu.

Leku kasuen atzizkiak hartzen dituztenean, *-(en)gan-* edo *baita-* posposizioa hartu behar izaten dute izen bizidun bat ardatz duten izen sintagmek: *etxean, etxetik etxera...* esango dugu, baina *gizona(ren)gan, gizona(ren)gandik, astoa(ren)gana*, eta abar.

Hala ere, berez bizidunak diren izakiei dagozkien izen batzu bizigabetzat hartzen ditu euskarak, landare izenak, adibidez: *arbolan* esaten dugu eta ez **arbola(ren)gan* edo **arbola baitan*. Dena den, bereizketa hau hobeto argitu behar da, zeren euskaldun batzuk *nitan* esaten duten bezala, beste batzuk *gauza hauek elkarrengandik ongi berezi behar dira* esaten dute.

Bestalde, izen batzu biziduntzat nahiz bizigabetzat har daitezke, esan nahi denaren arabera: *herrian* esaten dugu, baina *herria(ren)gan / herria baitan*. Hots: batean *herri* leku izen edo, izango litzateke, eta bestean, *populu* edo pertsona multzo gisa ulertzen dugu. Era berean, *umetan* esaten dugu biziaren aro bat adierazteko, baina *zein ume(ren)gan?* Puntu honi buruz ikus Leku kasuak.

1.2.4. Izen bakunak, eratorriak eta konposatuak

Orain arte esandakoez gain, izena, bere osagaien arauera ere azter dezakegu. Hau da, zenbait izen, elementu bakar batez osatuak izango ditugu, hala nola:

etxe, liburu, ate, haize, zakur, gorroto eta abar luzea. Izen hauetan zati txikiagorik egiten ez genuke asmatuko. Izen hauek *bakunak* direla esan dezakegu.

Badira ordea beste zenbait izen zati txikiagotan azter daitezkeenak. Honelakoak ditugu: *azterketa, bertsolari, luzera, dirutza, etsipen...* Edozein euskaldunek jakingo luke izen hauen azpian izkutatzen diren *azter(tu), bertso, luze, diru, etsi*, identifikatzen. Gelditzen diren atalak (-keta, -(l)ari, -era, -za, -pen) inoiz bakarrik erabiliko ez ditugunez, beti beste izen edo aditz edo adjetiboren bati loturik baizik, *atzizkiak* direla esango dugu, eta horrenbestez, bigarren sail honetako izenei, *izen eratorri* deituko diegu.

Azkenik, badugu hirugarren sail bat ere izenen artean. Hemen sartuko genituzke: *bertsolari-txapelketa, liburu-denda, jatetxe, literatur sari...* Goiko ataleko izenetan ez bezala, hauetan bereiz ditzakegun osagaiak: *bertsolari* eta *txapelketa, liburu* eta *denda, jan* eta *etxe, literatura* eta *sari*, bakarrik ere erabil ditzakegun izen, aditz edo adjetiboak ditugu. Horregatik izen hauei *izen konposatu* deitu izan zaie.

1.3. Jeneroa euskaraz

Euskarak ez du jenerorik bereizten gramatikan. Jenero gramatikala, inon bereiztekotan, aditzean bereziko da, hitanoan, hain zuzen: *esan diat*, baina *esan dinat*. Hortik aparte, euskaraz ez dago jenerorik. Beste hizkuntza batzutan morfologi bereizgarriak izaten dira jeneroa bereizteko. Euskaraz ez dago bereizketarik *gizon* eta *emakume*-ren artean, lexikotik kanpo. Bereizketa hori lexiko mailan soil soilik gertatzen da: *gizon* eta *emakume* bi izen desberdin dira eta bakoitzak esanahi desberdina du: batak arra den izaki bat aipatzen du, besteak emea dena. Baina honek ez dakar morfologian inongo bereizketarik.

Eta zenbait euskaldunek bereizten dituzten *alargun /alarguntsa, lehengusu / lehengusina* eta antzekoak ere lexiko mailako bereizkuntzak dira, *gizon / emakume* bereizkuntzaren parekoak. Hitz hauek hiztegian markatuak etorri beharko dute, eta gramatikan ez dute inolako eraginik izango. Alde horretatik, zenbait hizkuntza mailatan egiten den bereizkuntza: *tonto / tonta, katoliko / katolika* eta abarrek, erdaratik hartuak direnez, ez dute lekurik eta ezin dute euskara batuaren gramatikaren bidea erakutsi, jakina baita erdaratikako adjetiboak euskaraz -o-z amaituta hartzen direla. Adibidez:

(33) Perpaus konpletibOak (eta ez *perpaus konpletibak)

Era berean *Emakume toniOa da hori* esaten dute Ekialdeko euskaldunek.

Euskarak sexu desberdintasuna adierazteko bere berea duen bidea besterik da: *gaixo*, *gajo*, e.a. emakumeentzat balio dutelarik, *giza-gaixo* > *gizagaixo* eta *giza-gajo* > *gizajo* gertatu da. Alde honetatik, ez du zentzu handirik *Andre gixaja* eta antzokoetara jotzeak.

2. IZENORDAINAK

Hitzak berak besterik adierazten duela badirudi ere —izena ez baina haren ordea edo bailira— guk izenordainak izentzat joko ditugu, nahiz eta izen berezizat, ez baitute mugatzailerik onartzen eta horrenbestez berek bakarrik osa baitezakete izen sintagma.

Honako adibide hauetan *ni*, *gu*, eta *edonor Andoni* bezain izen direla esan daiteke:

- (34) (a) *Ni* azo etorri nintzen
(b) *Gu* bihar joango gara
(c) *Edonork* esan diezazuke
(d) *Andonik* ez daki ezer

2.1. Pertsona izenordainak

2.1.1. Pertsona izenordain arruntak

Izenordainen multzoan garrantzi handia dute izenordain pertsonalek: *ni / hi / gu / zu / zuek / berori*. Azter ditzagun banaka.

2.1.1.1. *Ni*

Lehen pertsona singularreko izenordaina da. Beti hiztunari dagokio:

- (35) (a) *Ni* Azpetician jaio nintzen
(b) *Niri* asko gustatzen zaizkit goxokiak
(c) Hori *ez da nirekin* etorriko

2.1.1.2. *Hi*

Bigarren pertsona singularreko izenordaina da eta hiztunak bere aurrean duen entzulea izan ohi da. Hala ere, *hi* lagunartean bakarrik erabiltzen da: lagunen artean, anai-arreben artean (zenbait tokitan) eta abar. Zenbaitek, aldiz, forma *desegokitzat*, *ijito hizkerakotzat* dauka eta horregatik baztertua izan da. Badirudi, haatik, gaur berriro berpizten ari dela galdua zuten zenbaiten artean.

Izenordain hau dela eta, ohar bat egin behar da. *Hi*-ren parean *zu* ere hor dugularik, behin *hi* erabiltzea erabakitzen duenak, gero *hi*-ren erabilerari eutsi behar dio adizjokoan, forma alokutiboak erabiliz. Alegia, ondoko biotan (a)-ren ordez (b) erbiltzera behartua dago hiztuna, *hi* erabiltzea hautatu duen mementutik:

- (36) (a) *Hiri deitu diat eta elkarrekin joango gara
(b) Hiri deitu diat eta elkarrekin joango gaituk

2.1.1.3. *Zu*

Hau ere bigarren pertsonako izenordaina dugu. Hasiera batean plurala zen, nahiz eta gaur singular balioarekin erabili. *Zu*-ren behinolako pluraltasunaren aztarnak batez ere aditzean geratu zaizkigu:

- (37) (a) Nik hi ikusi *haut* (ez *haitut*)
(b) Nik zu ikusi *zaitut* (ez *zauit*)

Gaur *hi* izenordaina baztertua izan delarik, jende askorentzat bigarren pertsona singularreko izenordain bakarra *zu* dugu. *Hi* eta *zu*, biak erabiltzen dituztenak, berriz, bata aldi edo parada batzutarako gordetzen dute eta bestea beste batzutarako. Adibidez, aitari edo amari *zu* esango diote, baina lagunari edo anaiari beharbada *hi*. Zenbait tokitan *zu*-rekin ere forma alokutiboak erabiltzen dituzte, *hi*-rekin bezala.

2.1.1.4. *Gu*

Lehen pertsona pluraleko izenordaina da eta pertsona bati baino gehiagori dagokio, baina pertsona horien artean hiztuna ere sartzen delarik. Hots:

$Gu = Ni + \text{beste zenbait pertsona}$

2.1.1.5. *Zuek*

Bigarren pertsona pluraleko izenordaina dugu. Hemen ere pertsona bat baino gehiago aipatzen da, baina horien artean bigarren pertsona (*hi* edo *zu*) ere, hots, hiztunaren aurrean dagoen entzulea, sartzen delarik. Hots:

Zuek = *hi* edo *zu* + beste zenbait pertsona

Zu izenordainaren gainean eraikia da *zuek*. *Zu*-k bere plural balioa galdu zuenean, nolabait pluraldutako izenordaina behar zen eta horrela sortu zen *zuek* forma. (Honen ondoan *zuok* forma ere erabiltzen da Bizkaiko zenbait eskualdetan).

2.1.1.6. *Berori*

Errespetuzko izenordain personala da. Gaur egunean baztertu eta ahaztuta daukagu. *Ori* aldaera ere badu eta pluralean *beroriek* ere bai. Berez pertsonala ez da, baizik erakusleen sailekoa; ez lehen ez bigarren pertsonakoa, beraz, baizik hirugarrenekoa. Hala ere, errespetuzko forma denez, bigarren pertsonarako erabili izan da eta erabil daiteke. Hortaz, formaren aldetik hirugarren pertsona dugu (eta horrenbestez aditzak komunizaduraren aldetik hirugarren pertsonatzat hartuko du eta ez bigarrentzat), baina balio, bigarren pertsonarako balio du:

(38) Jaungoikoak egun onak emon daiozala

esaten dio Peruk Maisu Juani eta aurreraxeago honela jarraitzen da:

(39) Berori baisen Jaun apaindu batoc oñac imini ardan-eche onetan? (Moguel, 43)

Eguneroko hizkuntza arrunterako agian balio ez duen forma dugu hau, baina hizkuntz maila formalagoetan erabilkorra gerta dakiguke beharbada (instanziak eta eskabide ofizialak egiterakoan, adibidez).

Errespetuzko izenordain hau ez da erabiltzen mugaz handiko euskalkietan eta Mendebalekoetan ere gero eta gutiago.

Hortaz:

PERTSONA IZENORDAINAK:

	Singularra	Plurala
1. perts.	<i>Ni</i>	<i>Gu</i>
2. perts.	<i>Hi, zu</i> <i>Berori</i>	<i>Zuek</i> <i>Beroriek</i>

2.1.2. Forma indartuak

Pertsona izenordain hauek badituzte forma indartuak ere. Izenordain indartu hauek direla eta, bi arazorekin egiten dugu topo: izenordain hauen forma, euskalki batetik bestera forma desberdina baitute. Eta bigarren arazoa forma hauen erabilpenari dagokiona da.

Formari dagokionez, gutxienez honako hauen artean egin beharko aukera:

	Singularra	Plurala
1. perts.	<i>neu, nihaur</i> <i>nerau, (neroni)</i>	<i>geu, guhaur</i> <i>gerok</i>
2. perts.	<i>heu, hihaur, herori</i> <i>zeu, zuhaur, zerori</i>	<i>zeuek, zuihauk</i> <i>zerok</i>

2.1.2.1. Izenordain indartuen erabilera

Pertsona izenordainetan bi sail ditugula badakigu. Arazoa da ea zein den bien arteko bereizkuntza, edo noiz erabili behar den —edo erabil daitekeen— bata eta noiz bestea. Ez dirudi arau estuegirik eman daitekeenik. Euskalkien arteko diferentzia ere nabaria da arlo honetan, Mendebaleko euskaldunek joera handiagoa baitute Ekialdekoek baino forma indartuak erabiltzeko. Dena den, saia gaitzen ahalik eta arau sinpleenak eta egokienak ematen.

Neu, zeu, geu sailari Altubek *formas reproductivo-intensivas* deitzen die. Altubek, hala ere, dio forma indartuak galdegaiaren lekuan erabiltzen ditugula. Hona hemen zenbait adibide, erregela hori betetzen dutenak:

- (40) (a) *Zeuc daucazu erruba* (Moguel, 74)
 (b) *Esta cer ecarri barberuric; Neu nas barberuric asco* (Moguel, 76)
 (c) *Zeuc mancau dozu also gaissua* (Moguel, 79)
 (d) Azken buruan, ez ninduten bulkatu, *nerau* sartu nintzen neure baitarik (Mix. 376)
 (e) Badira ere guraso diren irakasleak edo irakasle diren gurasoak: *nerau nauzu bat* (Mix. 230)
 (f) Ez nauk hola mintzo segurki, *neroni* Saratarra naizelakotz (Eliss. P.A., 39)

Adibide hauetan denetan izenordain indartuak galdegaiaren lekua betetzen duela dirudi. Hala ere, honek ez du esan nahi galdegaiaren lekuan beti forma indartuak erabili behar ditugunik. Ez dirudi, adibidez, ezina denik goiko perpaus horien lekuan beste hauek jartzea:

- (41) (a) *Zuk daukazu errua*
 (b) *Ez da zer ekarri barberurik; Ni naiz barberurik asko*
 (c) Badira ere guraso diren irakasleak edo irakasle diren gurasoak: *Ni nauzu bat*

Hain zuzen, hauxe izango litzateke, bestalde, Ekialdeko euskaldunen joera. Hala ere, Mendebalekoentzat lehen tankerako perpausak egokiagoak dira bigarren horiek baino. Eta horren arrazoia hau da: galdegai izateaz aparte, izenordain indartu horiek nolabaiteko kontraktotasuna edo, adierazten dutela dirudi. Esango bagenu bezala:

- (42) (a) *Zeuk daukazu errua eta ez beste inork*
 (b) *Zeuk mankatu duzu also gaixoa eta ez bestek*

Goiko perpausetan, berriz, bertan ageri da kontraktotasuna:

- (43) (a) *Ez ekarri besterik, neu naiz aski*
 (b) *Ez ninduen bestek bulkatu, nerau sartu nintzen*

Hortaz, badirudi galdegai izatea ez dela aski; behar dela nolabaiteko kontraktotasuna ere izan, forma indartua agertuko bada.

Galdegai ez izan arren forma indartuak erabiltzen ditugu zenbait esapidetan. Adibidez, *ere*, *behintzat*, *behinik behin*, eta antzeko elementuen aurretik doana ez da galdegai izan ohi. Hala ere, testuinguru horietan sarri agertu ohi da forma indartua. Adibidez:

- (44) (a) Obeto eguingo cenduban *zeuc* bere lo eguin bacendu (Moguel, 69)
(b) Igerri, bai, *neronek* ere igerriko nioke (Mitx. 395)
(c) 1929an euskaltzaletu nintzen (...) *neuk* ere nola ez dakidala (Mitx. 370)

Hauetan ere, egia da, gorago aipatu dugun kontraktotasun hori dugula dirudi. Adibidez, perpaus horren zentzua honela ere eman genezake:

- (45) 1929an euskaltzaletu nintzen, nola izan zen bestek ez dakicela, eta *neuk* ere ez

Era berean, *nik neuk*, *zuk zeuk*, (edo *zuk zerorrek*) eta abarretan ere agertzen da forma indartua:

- (46) *Ni neu*, ez nintzateke istilu horretan sartuko

Itzuli honetan kasu marka bi izenordainek hartzen dute:

- (47) (a) *Nik neuk*, ez nioke ezer esango
(b) *Niri neuri*, bost axola

Esan beharrik ez da, bestalde, esapide hauek direla jatorrak eta oraintsu sartuak ditugun *nik pertsonalki* eta antzeko trakeskeriak baino askoz gomendagarriagoak.

Forma hauek *gizonak berak* eta antzekoen parekoak direla esan daiteke. Alegia, honako bi perpaus hauek zeharo parekoak dirudite:

- (48) (a) *Nik neuk* esango nioke
(b) *Haurrak berak* esango lioke

Hauetan, dena dela *nik neuk*-en ondoren eten bat egiten da. Galdegai ez den seinale. Eten edo pausa hori egingo ez bagenu, galdegaia izango litzateke:

- (49) *Gizona bera etorri zen*

Gizonaz aritu beharrean lehen edo bigarren pertsonaz ari bagara, orduan *gizona bera* horri dagokion forma ez litzateke *ni neu* izango, *neu* edo *nerau* baizik:

- (50) *Neu etorri nintzen*

Baina hau, jakina, lehen ere aipatu dugun kasua litzateke.

Dena dela, *gizona bera* gabe, askotan *bera* bakarrik agertuko zaigu Mendebaleko euskalkietan. Baina *bera* hau *neu*, *heu*, *zeu*, *geu* izenordain indartuen parekoa litzateke. Hain zuzen, hirugarren pertsonakoa izango litzateke. Kontua da bata eta bestea baldintza beretsuetan agertuko direla. Adibidez:

- (51) (a) Edumek badaki *bera* dela politena
(b) Zuk badakizu *zeu* (*zerori*) zarela politena

Baina hemen ere, bai *bera* eta bai *zeu*, biak, dira galdegai.

(Hala ere, hortik aparte, *bera* erabili ohi dugu hirugarren pertsonako izenordain gisa. Lehenago aipatua izan dena berriro aipatu beharrean erabili ohi dute mendebaleko euskaldunek. Orduan garbi dago ez dela egiazko forma indartua, forma erreproduktiboa baizik, Altubek esango lukeen bezala:

- (52) Eleizalde zenaren izen maiteak baditu zenbait kutsu, *berak* ez baitzituen bere uesteak (...) izkutuan gorde sekula (Mitx. 219)

Hemen *bera*-ren orde ez genuke *neu* edo *zeu* edo horrelakorik erabiliko. Baina, galdegai balitz bai).

Ekialdeko euskalkietan izenordain indartu hauek badute beste balio bat ere. Alegia, *berak egin du* edo *nihaurk esan diot* diotenean, *berak eta berak bakarrik* edo *nik eta neuk bakarrik* esango balute bezala da.

Aipatu diren kasu hauetarik aparte, badirudi forma soilak erabil daitezkeela:

- (53) (a) Guazan laster icustera charri illa, ta *nic* esango deusudaz icenac (Moguel, 85)
(b) Zuk esan dozuna eguija bada... (Moguel, 85)
(c) Alan jazoten da *nic* ezagutu diudan zure biarguintzacuacaz (Moguel, 51)
(d) Alan esaten deusagu *guc* (Moguel, 47)

Era berean, bokatiboan ez dago forma indartuentzako lekurik:

- (54) (a) *Zu*, adiskide(a), zatorz hona (eta ez **Zeu adiskidea*...)
(b) *Ili*, Joxe, zer moduz habil?

Perpaua ezezkoa denean ere, badirudi ez dagoela izenordain indartuak erabiltzeko joerarik (izenordain hori *ere*, *behintzat* eta horrelakoen laguntzan agertzen ez bada, gorago ikusi den bezala).

- (55) (a) Ez zaitetz *nirekin* haserratu (eta ez **ez zaitetz neronekin haserratu*)
(b) *Nik* ez nuke horrelakorik esango
(c) *Ni* ez naiz teknokrauen aldekoa (Mitz. 224)
(d) *Nik* ez dut ezeren eta inoren buruzagi izateko gogorik (Mitz. 375)

Era berean, ikus ondoko perpaus hauen arteko jokabide desberdina:

- (56) Ez dut *nik* ixil eraziko; bere kontzientzian eraman behar duen harrak ixileraziko du (Mitz. 223)

Hemen kontrakotasun bat ageri da: ez *nik*, *harrak* baizik. Hala ere, lehenbiziko perpausa baiezka jarritz gero eta bigarrena ezezka, badirudi zilegi dela orduan izenordain indartuaz baliatzea:

- (57) *Neuk* isil eraziko dut, ez bere kontzientzian eraman behar duen harrak

Dena den, perpaus horretan ere *neuk* galdegai da.

Bestalde, zati-galderetan normala da izenordain indarturik ez agertzea, galdetzailea bera izan ohi baita galdegai. Horregatik, izenordaina, galdegai ezin izan daitekeenez, forma soilean agertuko zaigu, ez forma indartuan.

Baina galderazko perpausa *bai-ez* erakoa dugunean forma indartua ager daiteke:

- (58) (a) *Zeuk* egin duzu ala besteri eman diozu egiteko?
(b) Bildur zen *neronek* esango ote nion

Oraino esanak laburtuz, hauxe esan genezake:

A) Forma indartuak erabiltzen dira:

1. *Galdegai* direnean, baldin eta kontrakotasuna markatu nahi bada:

- (59) *Neronek* esan nion (= *neronek* eta ez *bestek*)

2. *Galdegai* ez denean, honako bi kasu hauetan ager daiteke:

a) *ere*, *behintzat*, *behinik* *behin* eta antzekoekin doanean:

- (60) *Neuk* ere badut horren beharra

b) *Ni neu, zu zeu* eta antzeko itzulietan:

(61) *Nik neuk* ez dut ezer horren kontra

B) Forma soilak erabiliko dira gainerako kasuetan:

1. Ezezkakoetan (Kontrako arrazoirik ez bada):

(62) *Zuk* ez duzu ezer entzun

2. Zati-galderetan:

(63) Eta celan aci cendubezan zu? (Moguel, 51)

3. Bokatioetan nahi eta ez forma soilak erabiliko ditugu:

(64) (a) *Hi*, txikito, hator hona!

(b) *Ene* kristau maitcok, ez dezazucla pentsa...

2.1.2.2. Forma indartuen genitiboa

Arazo berezia gertatzen da genitiboan forma indartu hauekin. *Neronen* daukagu alde batetik eta *neure* bestetik. Ba ote diferentziarik bien artean? Badirudi euskaldunek ez dituztela bereizten —agian jatorriz desberdinak baziren ere— eta batzuk forma bata erbiltzen dutela eta besteek bestea, baina zeharo balioakideak dirudite.

Genitiboan balio bihurkaria eta indartua biak nahasten direla esan daiteke eta, horrenbestez, bi balioekin erabil daitezke:

(65) (a) Ez duzu (...) *zerorren* iritzia azaltzen, besterena baizik (Mitx. 214)

(b) Aski eta sobera da (...) *neronen* iritziak (...) agertzeko (Mitx. 378)

(c) Segur dakidana besterik da: ez Elizalderen, ez *neronen*, ez (...) beste hizkuntzen begiralditxo bat emanaz, noizean behin bederen pentsatu duenaren ustez, ezin dezakeela irauñ gure hizkuntzak oraingo heinean... (Mitx. 221)

(d) *Zeure* escuba zabaldu, ta guztioe bedincatu gaguizuz (Moguel, 57)

Dena den, ikus izenordain bihurkariet buruz dioguna hemengoa osatzeko.

2.2. Izenordain zehaztugabeak

2.2.1. Galdetzaileak: *nor* eta *zer*

Mugagabeen artean lehenbizi *galdetzaileak* aipatu beharko ditugu. Hauetan beti izenordain gisa agertzen dena *nor* dugu. Izenordain galdetzaile honek pertsonen galdetzeko bakarrik balio du:

- (66) (a) - *Nor* etorri da?
(b) - *Gu* etorri gara.
(c) - *Ni* etorri naiz.
(d) - *Andoni* etorri da.
- (67) (a) - *Norekin* joango zara?
(b) - *Lagunekin* joango naiz

Nor galdetzaileaz baliatuz galdera bat egiten duenak, adibidez, goiko perpausen antzekoak erabiliz, etorri dena edo joango dena pertsona izango dela presuposatzen du.

Zenbait euskaldunek *nor* ez dute erabiltzen pertsona izenordain galdetzaile bezala. Horren ordez *zein*-ez baliatzen dira:

- (68) (a) *Zein* etorri da?
(b) *Zeinekin* joango zara zinera?
(c) *Zein* ez litzateke tristatuko hori entzunik?

Horrela jokatzan dutenentzat *zein*-ek bi balio izango lituzke: *nor*-ena eta *zein*-ena biak bereganatu ditu.

Pertsona ez direnez galdetu nahi denean, *zer* galdetzailea erabiltzen dugu:

- (69) (a) *Zer* erosiko duzu? - *Etxe eder bat*
(b) *Zertaz* mintzatu zineten? - *Ekonomiaz* mintzatu ginen
(c) *Zertan* ari zineten hor izkutuan? - *Zigarro bat* erretzen...

Hala ere, *nor* beti izenordain den bezala, hots, besteren laguntzarik gabe, berak bakarrik, izen sintagma osa dezakeena, *zer* izenaren determinatzaile gisa ere erabiltzen dugu. Adibidez:

- (70) (a) *Zer* ordu da?
(b) *Zer* moduz zabilta?

Nolako-ren baliokide gisa ere erabiltzen dugu *zer*, baina harridurazko esaldietan, ez egiazko galderetan:

(71) Ha *zer* bidea eta moldea, *zer* lausengua eta balakua... (Ax. 117)

Galderazko balio gabe ere erabiltzen ahal dugu *nor* zenbait esapidetan. Adibidez:

(72) Ni ez naiz *nor* hori egiako

Horrelakoetan *nor*-en ordeztan *inor* erabil daiteke. Azken batean, *nor izan = diin izan*:

(73) Zu *nor* bazara... (Mendiburu)

Hona hemen beste esapide bat ere *nor*-ez baliatzen dena:

(74) Jendea, *nor* zaldiz, *nor* oinez, etorri zen

Alegia, batzu zaldiz eta beste batzu oinez etorri ziren.

Berriz ere *zer*-era itzuliz gero, bada horren beste erabilera aipagarri bat: lagunarteko hizkeran batez ere, komodin gisa erabiltzen dugu *zer* hau (edo *zera*, beste batzuk). Horrelakoetan ez gaude jadanik galdetzaile baten aurrean, izen baten, adjetibo baten edo aditz baten aurrean baizik, zeren izen gisa (bere mugatzaile eta guzti), nahiz adjetibo gisa (hots: adjetiboa agertzen den testuinguru berean) nahiz aditz gisa erabil baitaiteke. Hortaz, edozeren ordeztan erabil daiteke:

- (75) (a) Zera esan dit
 (b) Bai zera! Nola esango zizun hori, bada?
 (c) Zerako zerak zerako zera zeratu omen zuen zerean
 (d) Oso neska zera da

Bistan da hizkuntza idatzian *zer* honek ez duela leku handiegirik. Ahozkoan bai, askotan gogoratzen ez garen izena ordezkatzeko balio baitu. Horrenbestez, ez dirudite oso dotoreak honako esapide hauen antzekoek:

(76) Industri Sailburuak zera adierazi du kazetarien aurrean: 15.000 lanpostu berri sortuko direla datorren urtean Urola aldean

Honen ordez, komodinen baten premian bagara, agian itxurazkoago litzateke *honako hau* edo *houxe-z* baliatzea:

(77) Industri Sailburuak *honako hau* (edo *houxe*) adierazi du...

Noski, horrelakorik gabe ere egin daiteke:

(78) Industri Sailburuak adierazi du 15.000 lanpostu berri sortuko direla...

Aipatu berri ditugun bi galdetzaile horiez gainera, jakina, badira beste galdetzaile batzu ere, baina horiek berez ez dira izenordainak, determinatzaileak baizik. *Zein*-en kasua aipatua dugu. *Zenbat* ere horietakoa izango litzateke eta baita *zer* bera ere. Bainan hauen *izenordaintasuna* nolabait erakarría edo dugu: izen sintagmaren buru den izena ezabatua gertatu delako. Alegia, honako perpaus hauek:

(79) (a) *Zein* aukeratu duzu, gorria ala berdea?
(b) *Zenbatek* galdetu dizute?

Beste hauen laburpen direla pentsa genezake:

(80) (a) *Zein* soineko aukeratu duzu, gorria ala berdea?
(b) *Zenbat* pertsonak galdetu dizute?

Ikus hau osatuz aurrerago dioguna.

2.2.2. Galdetzaileetatik erakarrítako izenordain mugagabeak

2.2.2.1. *Norbait*, *zerbait*

Beri izenordain dugu, izenordain mugagabe, erreferentzia zehatzik ez baitu, *nor* bezala, *norbait* ere pertsonentzat erabiltzen da.

(81) (a) *Norbait* sartu da gelan
(b) *Norbaiti* eskatu behar zenioke laguntza

Norbait izan esapidea ere, *nor izan*-en tankerara erabiltzen dugu:

(82) (a) Bada *norbait* gizon hori
(b) Euskal Herri honetan *norbait* garenak

Zerbait ere gehienetan izenordain gisa ageri zaigu, baina pertsona ez direnentzat:

- (83) (a) *Zerbait* gustatzen zait (-perts.)
 (b) *Norbait* gustatzen zait (+perts.)

Hala ere, batez ere, ekialdeko euskalkietan, *zerbait* determinatzaile gisa ere erabilia da, beraz, izen bati lagunduz:

- (84) (a) *Zerbait* obra egitera (Etxepare, Hitzaurtea)
 (b) Atsekabe handi *zerbait* (Joannat. 129)
 (c) *Zerbait* gauza (Joannat. 95)

Zerbait eta *norbait*, izenordain izanik ere izenondo baten laguntzan ager daitezke eta horrelakoetan Izen Sintagma eta guzti erabili ohi dugu. Alegia:

- (84') (a) *Zerbait* ona aurkitu du = Ona den *zerbait* aurkitu du
 (b) *Norbait* jakintsua behar dugu = *Jakintsua* den *norbait*

eta ez:

- (c) **Zerbait* on aurkitu du
 (d) **Norbait* jakintsu behar dugu

2.2.2.2. *Nor edo nor eta zer edo zer*

Hauetan ere (+pertsona) / (-pertsona) bereizketa baliagarri gertatzen da. Bestalde, goikoan esanahi berekoak dira:

- (85) *Nor edo nor* etorri da = *Norbait* etorri da

Hauen zentzukidea dugu, bestalde, *baten bat* ere:

- (86) *Baten batek* lagunduko digu = *Norbaitek* lagunduko digu

Eta baita *bat edo bat*, nahiz *bat edoren bat* ere:

- (87) (a) *Bat edo bat* etorriko zaigu ondora
 (b) *Bat edoren batek* esango zion

Horrelakoetan, *baten bat* edo *bat edo bat...*, inongo izenik gabe agertzen zaizkigunez, izenordain gisa agertzen dira perpausean, baina *bat* zenbatzailetik erakarriak ditugunez, determinatzaile zeregina ere bete dezakete izen sintagmaren barnean:

(88) Ekariezadazu liburu *baten bat*

Honen ordezkian usuago ikusiko badugu ere *libururen bat*.

-en bat izen sintagma mugagabeari erantsirik erabiltzen dugu:

(89) (a) Zer ote da zarata hori? - *Saguren bat* izango da
(b) Nola joango gara Baionara? - Aurkituko dugu *autoreen bat*

Dena dela, mugagabetasuna markatzeko modu bat ematen digute. Adibidez *ume bat* esaten badut, ziur dakit *umea* izan dela ateko txirrina jo duena, adibidez; baina *umeren bat* esaten badut, gauza ez dago hain garbi: nik *ume bat* izan dela uste izan nezake, baina behar bada beste norbait izan da.

Dena den, paritibo mota bat dela dirudi. Eta askotan ustezko perpausetan erabiltzen da. Zenbatzaileekin ere gauza bera gertatzen da. (ikus Zenbatzailea):

(90) (a) *Bost(en) bat* urte zituen, aita hil zitzaionean
(b) *Hogei(ren) bat* neska izango ziren inguratu zitzaizkionak

2.2.2.3. *Edonor, nornahi*

Hauk ere (+persona) ezaugarria dute. Bestalde, askoren artean aukera uzten denean erabiltzen dira (*edo* eta *nahi* ere aukera adierazten dutenak baitira):

(91) *Edonor* joan daiteke Donostiara = *Nornahi* joan daiteke Donostiara

Perpaus hau esaten duenak, esan nahi du berdin zaiola nor joango den Donostiara, bata nahiz bestea, nahiz denak.

Edozer eta *zernahi*, berriz, izenordain gisa nahiz determinatzaile gisa erabiltzen ahal ditugu, beti ere ezaugarritzat (-persona)tasuna dutelarik:

(92) (a) Orain *edozer* (gauza) jango nuke
(b) Batzuk, edandakoan, *zernahi* (astakeria) esaten dizute

Nor (ere), Zer (ere)... erabiltzen dira Ekialdeko euskalkietan eta azken batean izenordain erlatibo zehaztugabeak dira, aurrekorik gabeak:

- (93) *Nork ere* utziko baitu enegatik (...) aitarik edo amarik errezibituko du (...) ehun gehiago (izultzen du Axularrek) (Ax. 326)

(= enegatik aita edo ama uzten duenak).

2.2.2.4. *Ezer, inor/nehor (deus, batere)*

Hauek ere izenordain mugagabeak dira. Baina *zerbait* eta *norbait*-ek ez bezalako distribuzioa dute. Funtsean, izen sintagma absolutuaren eta partitiboaren artean dagokeen diferentzia bera dago *norbait* eta *inor* eta *zerbait* eta *ezer*-en artean. Esan nahi baita, *inor* eta *ezer* partitiboa erabil daitekeen testuinguru beretan erabili ohi direla, hots: ezezkako perpausetan, *bai / ez* erako galderetan, baldintzazkoetan, ezezko balioa duten zenbait elementuren lagun doazenean (*gabe*-rekin, *nekez*-ekin eta abarrekin). Laburbilduz, ezeztapen balioa duen elementuren bat perpausetan agertzen denean:

- (94) (a) *Ezer ez dakigu*
 (b) *Inor ez zaigu etorri*
 (c) *Ezer jakiten duzuncan esan iczadazu, mesedez*
 (d) Erleak *nehor* autsikitzen duenean... (Ax. 220)
 (e) *Ezer entzun duzu nitaz?*
 (f) *Inorekin* mintzatu zara zeure gaixotasunaz
 (g) *Inork* jakitekotan, erretoreak jakingo du
 (h) *Ezertan* hasi baino lehen
 (i) *Inork* baino gehiago dakit nik
 (j) *Inori* eman baino nahiago du erre
 (k) *Ezer* baldin badakizu, esan ezazu

Sarritan, izenordain mugagabe hauek *ere* partikularekin batera erabiltzen ditugu, enfasi handiagoa emanaz.

- (95) (a) *Ezer ere ez dut entzun*
 (b) Hori *inork ere ez daki*

Dena den *ere*-dun itzuli hau batez ere ezezkako perpausetan ageri ohi da, ez baldintza eta konparatibo eta horietan.

Horrek, hala ere, ez du esan nahi ezezkako polaritatea duten izenordain hauek bakarrik (eta gainerako adberbioak ere berdin: *inon*, *inondik*, *inora*, *inola*, e.a.) (Ikus Aditzondoak) erabil daitezkeenik baiezkkako ez diren perpausetan. Besteak ere bai. Adibidez, honako perpaus hauek zilegi dira:

- (96) (a) *Norbait* etorri da?
(b) *Zerbait* ez dago ongi

Baina hauek ez dira beste honako hauen zentzukide:

- (97) (a) *Inor* etorri da?
(b) *Ezer* ez dago ongi

Galderazko edo ezezkako perpaus batean *norbait* eta *inor*, *zerbait* eta *ezer*, biak, ager badaitezke ere, ez dute esanahi bera. Gutxi gora behera, absolutu mugatuaren *ogia* eta partitiboaren artean *ogirik* izango genukeen diferentzia bera izango dugu, *norbait* eta *inor*-en artean. Horrela, esan daiteke *norbait*, *zerbait* eta sail honetakoek balio positiboagoa dutela *inor* eta *ezer* sailekoak baino. Adibidez:

- (98) (a) *Zerbait* ez dago ongi \neq (b) *Ezer* ez dago ongi

Lehena esaten duenak honako hau dio, funtsean: *Bada zerbait ongi ez dagoena*, beste guztia agian ongi badago ere. Baina (b) dioenarentzat ezertxo ere ez dago ongi, dena gaizki dago. Hortaz, *ezer*, *inor*, eta antzekoak ezezkako perpaus batean ageri direnean, ezeztapena erabatekoa izan ohi da, *zerbait* eta *norbait*-ekin ez bezala.

Galderazkoetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Hemen, jakina, ezeztapenak ez du zerikusirik, baina galdera guztiek zerbait suposatzen dute aurretik eta galdera egileak espero izan dezake era bateko edo besteko erantzuna. Adibidez:

- (99) (a) *Norbait* etorri al da? \neq (b) *Inor* etorri al da?

Lehena dioenak egiazki *norbait* etorri dela suposatzen du eta galderaren helburua uste hori bestek ziurtatzea izango da; (b) dioenak, berriz, ez du alde aurretik *inor* etorri denik suposatzen.

Era berean, eman dezagun lagun bat ikusten dudala ondoezik eta aurpegi txarra duela. Nik pentsa nezake zerbait jan duela eta kalte egin diola janak. Hori horrela bada, galdera egokia honako hau izango da:

(100) (a) *Zerbait* jan al duzu?

Baina zerbaitek kalte egin diola pentsatu beharrean lagunaren ondoezaren iturria baraurik egotea dela uste badut, orduan ez dut galdetuko (a), (b) baizik:

(101) (b) *Ezer* jan al duzu?

Nahiz:

(102) *Ezer ez al duzu jan?*

Alderantziz, baiezakako perpausetan ere zilegi litzateke honetarako izenordain mugagabeak erabiltzea, nahiz eta ohitura hau hedatuegia ez egon:

(103) (a) *Inork* beti errua (Mendebalean). (Honen sinonimoa *beste* izenordainaz baliatuz sortzen den itzulia: *bestek* beti errua)

(b) Dirua eta indarra, *inork* berdindu dezala (Bizkaian jasotako esacra, Goierritik ekarria)

(c) Soñean daukatzun prakak *inorenak* dituzu (Garoa). (Hemen ere *inorenak* = *besterenak*)

Baina hauetatik aparte, badirudi izenordain honek beste esanahi bat hartzen duela:

(104) *Nehork* bidegabe bat egiten denezuean (Ax. 331)

Azken hauetan ez dirudi *norbait* eta *nehor*-en artean alde handiegirik dagoenik.

Beste honako honetan, berriz, *nehor* horrek *bat* edo *bakoitza* esan nahi duela esan dezakegu:

(105) (a) Gazteko usantzak irraitkitzen ohi zaitza *nehori* zahartzean ere (Ax. 117)

(b) *Niori* ematen dio merezien pagua (Zib. Etxeb., b. 1294)

(c) Ikhararic egonen da *nihor* haren beldurrez (Zib. Etxeb., b. 1761)

(d) Finac declaratu, ohi du *nihoren* bicia (Zib. Etxeb., b. 1963)

(e) *Nehork* bere barrena du ezagutzeko gaitzena (Oihenarte, 330)

Inoiz adberbioarekin maizago gertatzen da hori, dirudienez:

(106) *Inoiz* ikusi ditut horiek elkarrekin hizketan

(Ik. Aditzondoak)

Ezer honek badu, izan ere, pareko bat: *deus*. Biak kidekoak ditugu. Hala ere, *deus* ez da mendebaleko euskalkietan ezagunegia:

(107) *Ezer* entzun duzu? = *Deus* entzun duzu?

Baina *deus*, *ezer* ez bezala, izen tankerakoa dugu. Ikus, bestela, diferentzia:

(108) (a) Ene *deus*-ak (Pouvreau). Mugatzaile eta guzti. Baina ezin esan dezakegu:

*Ene *ezer*-ak

(b) Daguigun hitz hain *deus* probetxosoaz (Zib. Etxeb. 985)

(c) Hain *deus* izigarria (Zib. Etxeb., b. 1010)

Bestalde, *bat ere* erdi ezezkakoetarikoa dugu.

Itzuli honen osagaiak zein diren garbi dago: *bat* + *ere*. Hala ere, nolabait lexikalizatua dagoela esan liteke eta, horrela, dagoen dagoenean *ezer* edo *deus*-en ordaintzat har daiteke:

(109) Ez dut *bat ere* ikasi = Ez dut *ezer* (ere) ikasi
= Ez dut *deus* (ere) ikasi

Baina bada diferentzia: *bat ere* adjetiboaren maila adierazteko erabil daiteke, *ezer* eta *deus* ez bezala:

(110) (a) Lan hori ez da *batere* erraza
(b) *Lan hori ez da *ezer* erraza

Kasu honetan *batere* adberbioa da, honako esaldi honetan bezala:

(111) Ez da *batere* etorri (= ez zen inondik ere etorri)

2.2.2.5. Galdetzaile pluralak

-*tzu* atzizki kolektiboa batez ere *bat* zenbatzaileari erantsirik ageri zaigu: *batzu*; baina zenbait euskalkitan bere alorra hedatu egin du eta, horrela, *nor/nortzu*, *zer/zertzu*, *zein/zeintzu*, *zerbait/zerbaitzu*, *zenbat/zenbatzu*

aurkakotasuna ezagutzen dute eta bata singularraz galdetzeko erabiliko dute eta bestea plurala den zerbaitez:

- (112) (a) *Zertzu esan zizkioten gizajoari!*
(b) *Nortzu egingo dute lan hori?*

Jakina, bereizkuntza hau egiten ez dutenentzat, *zer*, *nor*, *zein* eta abar ez dira ez singular ez plural.

Batzutan, guti gora-beheratasuna adierazteko *-tsu* erasten zaio galdetzaileari (*Zertsu da?* adberbioetan eta, *nonitsu* esaten dugun modu berean).

Hala ere, hiztunak pluraltzat har ditzake, horrek aditz komuntaduraren aldetik dakartzan ondorioekin. Hortaz,

- (c) *Zein aukeratu dituzu?*

era, batez ere, *zer* nolakotzailea denean:

- (d) *Zer liburu irakurri dituzu?*

nahiz

- (e) *Zer liburutzu irakurri dituzu?*

baina ez,

- (f) **Zer liburuak irakurri dituzu?*

2.2.2.6. *-txo* atzizkia

Ezertxo, *inortxo*, *zertxobait* (*zerbaitto*)... izenordainei *-txo* atzizki txiki-garria erantsirik lortuak dira. Hauek ia beti *ere*-ren laguntasuna eskatzen dutela dirudi:

- (113) (a) *Inortxok ere ez digu lagundu*
(b) *Ezertxo ere ez daukagu jateko*
(c) *Zertxobait esan behar dizut gero*
(d) *Náies eguín *cerbaitto* ene Nausi onáren zervituzután...* (J.Lizarraga, Cath.29-1)

Hauek ere nolabaiteko enfasia edo indarra ematen diote izenordainari.

2.2.2.7. *Norbera, nor bere*

Kontutan hartzekoak ditugu *nor* izenordainaz baliatuz osa daitezkeen beste esapide hauek ere:

a) *Norbera*, bere horretan, izenordaintzat hartzen ahal dugu, nahiz eta *nor + bera* modura osatua egon, *Andoni bera* esaten dugunean bezala. Horrek esan nahi du, beste inolako elementurik gabe izen sintagma osa dezakeela:

- (114) (a) *Norberak* dituen arzoak nahikoa ez balira
(b) *Norbera* arduratiko da gauzak bere lekuan jartzaz
(c) *Norberari* axola ez badio, zer egingo dut nik?

Hortaz, *norbera* beste edozein izenordain bezala, izen sintagmak osatuz ager daiteke perpausaren barnean, eta, hain zuzen, izen sintagmak ager daitezkeen leku beretan.

(XVI mendean *nork berak* agertzen da. Hori froga bat gehiago izango genuke *nor bera* eta *Andoni bera* sintagmen arteko erlazioaren alde. Zeren, gaur *norberak* esaten dugun arren, *Andonik berak* esaten ahal baitugu).

Testu inguru hauetan, *norbera*-ren ordezt, *bakoitza* ezar daiteke zentzua aldatu gabe:

- (115) *Bakoitzak* egin dezala egin behar duena

Dena dela, Ekialdean *norbera* ez dute erabiltzen. Honen ordezt, *batbedera* erabili ohi da:

- (116) *Batbederak* erran zuen = *Bakoitzak* esan zuen

b) *Nor bere, zein bere, norbera*: *nor + bera* gisara osatua dagoen bezala, *nor bere* esapidea ere bi atalez osatua dago: *nor* batetik eta *bere* erreflexiboa bestetik. Erreflexiboek *aurreko* edo antezedente bat eskatzen dute (cf. *Andoni bere arazoez ez da arduratzen*. Hemen *bere*-ren erreferentea zein den jakiteko, *Andoni*-ri begiratu behar diogu. Hots: kasu horretan, *bere* esaten duenak *Andoniren* esango balu bezala da) eta beste honetan *bere*-ren aurrekoa *nor* dugu. Jakina, kasu honetan *nor* ez da jadanik galdetzaila, *norhait* edo agian hobeki, *bakoitza*-ren zentzukide den izenordain mugagabea baizik. Adibidez, honako bi perpaus hauek zeharo paraleloak ditugu. Diferentzia bakarra *bere*-ren

aurrekoa batean *nor* den bezala bestean *Andoni* izatean datza, eta bata bestarekin aldera daiteke:

- (117) (a) *Nor bere etxera joan dadila orain!*
 (b) *Andoni bere etxera joan dadila orain!*

Hala ere, *nor bere*, berezirik idatzi arren, osagai bakar modura agertzen zaigu, hautsi ezina da beraz, *Andoni* eta *bere* ez bezala. Adibidez:

- (c) *Andoni bere etxera joan zen = bere etxera joan zen Andoni*
 (d) *Nor bere etxera joan zen*

baina ez,

- (e) **Bere etxera joan zer nor*

Era berean ulertu behar dira honako adibide hauek ere:

- (118) (a) *Nori berea da zuzenbidca* (Hots: *nori berea ematea*)
 (b) *Nork bere opilari ikatza*
 (c) *Nor bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte*
 (Ax. 169)
 (d) *Nor bere etxean bizi da*

Nor aditz-jokoan eragina duten izen sintagmei dagozkien kasuetan bakarrik joan daiteke: ergatiboan, absolutuan edo datiboan. Horregatik, honako honen anizekoak ezinak dira:

- (119) **Norekin bere lagunak joango dira*

Honetan *bere* erreflexiboari zor zaion jokabidea errespetatzen dela esan daiteke *nor bere* itzuli honetan.

Nor-en ordezt, esapide hauetan, *bakoitza* ezar daiteke esanahia aldatu gabe:

- (120) (a) *Bakoitza bere etxera joan dadila!*
 (b) *Bakoitzari berea eman behar zaio*

Hala ere, esamolde jator hauen ordezt zenbait euskaldunek bide bihurriago eta traketsagoak nahiago izan dituzte. Honako hau, adibidez, ez da oso itxurazkoa:

- (121) (a) Bakoitzak nor bere opinioa du
(b) Norberak bere cuxean nahi duena egin dezake

Egiatan, ez diogu inori azken bide hau gomendatzen.

2.2.3. *Beste*, izenordain

Beste ere, bere determinatzaile balioarekin erabiltzeaz gainera (*beste etxe eder hori* eta antzekoetan bezala, alegia), izenordain gisa erabiltzen dugu; beraz, inolako mugatzailerik gabe. Hala ere, badirudi ezin dela kasu guztietan erabili. Adibidez, ergatiboan edo datiboan agertuko zaigu, baina nekez absolutuan:

- (122) (a) Berak egin nahi ez eta *besteri* (edo *inori*) agindu behar
(b) Zuk zikitzen duzuna *bestek* (edo *inork*) garbitu beharko du

Absolutuan ordea, *bat edo beste*, eta antzeko itzulietan ez bada, nekez aurkituko dugu:

- (123) *Bat edo beste* etorri zen, baina ez denak

Absolutuan, hortaz, *bat* edo horrelako zerbaiten lagun modura agertu behar duela dirudi: *Bestek egin beza*-ren ondoan ez daukagu **Beste etor dadila*, *Beste bat etor dadila* baizik¹.

Hala ere, gehienetan *beste* nolabaiteko determinatzaile gisa erabiltzen dugu, hots: izen sintagmaren barruan beste izen bati edo izenordain bati lagun eginez bezala:

- (124) (a) *Beste* gizon hori ez dut ezagutzen
(b) *Beste* nork galdetu zizun nitzaz?
(c) *Beste* bat erosi nahi nuke
(d) *Bestea* nik ekarri nuen

¹ Ikus halere Ziburuko Eltxeberriren hau:

Bere ordain egin bidal *berce* compariteera.

Berac agertu behar du Thronuaren oinera (Manual, b. 2211)

Horrelakoetan, *beste* izenaren ezkerretara joan ohi da. Izenlagunik edo zenbatzailearik baldin bada, izenlagunaren ondoren (aurretik ere joan daiteke) eta zenbatzailearen ezkerretara:

- (125) (a) *Beste* bost gizon eta ez **Bost beste* gizon
(b) Herriko *beste* etxeak ≠ *Beste* herriko etxeak

Beste, sarritan, *bat*-dun izen sintagmari kontrajartzen zaion izen sintagman agertzen da, honelako itzuliak sortuz:

- (126) Gizon batek hau esan zidan; *besteak* hura

Era berean *batzu*-ri kontrajartzen zaio askotan *besteak*:

- (127) *Batzu* oinez etorri dira; *besteak* bizikletaz

Baina *batak eta besteak* ere esaten da:

- (128) *Batak eta besteak* oker dabilza

Zenbait esapidetan ere *beste* aurkitzen dugu:

- (129) (a) *Zuax* *besterik* ez zen etorri (alegia, *zu bakarrik etorri zinen*)
(b) *Zu ez beste* guztiak etorri ziren
(c) *Zu beste* jaberik ez dugu nahi (alegia, *zu bakarrik zara gure jabe; beste inor ez*)

Aipa daiteke hemen *besteak beste* esapidea ere:

- (130) (a) *Besteak beste*, hau esan nuen
(b) *Besteak beste*, eraman ezazu hau bere lekura

Hauek nolabaiteko adberbio esapideak ditugu eta badirudi elipsi baten edo ondorio direla. Esango bagenu bezala: *besteak beste* direlarik.

2.3. Bihurkariak eta elkarkariak

2.3.1. *X-en burua*

Perpaus baten barruan bi izen sintagma erreferentzikideak direnean (hots: izaki bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean) bigarren izen sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du. Euskaraz ere, ez ditugu bi izen sintagmak errepikatzen: horren ordean, bigarrena agertu behar zukeen lekuan *neure* (edo *heure, bere...*) *burua* ezartzen dugu:

- (131) (a) Gizon hark *bere burua* hil nahi zuen
(b) Kargu ogiozu *zeure buruari*, gizona!

Bi adibideetan, *bere burua* eta *zeure buruari* bi izen sintagma ditugu, bata absolutuan edo nor kasuan, eta bestea, danboan edo nori kasuan, baina bi izen sintagma horiek nori dagozkion, edo nor aipatzen duten jakin nahi bada, derrigor atzera begiratu behar dugu perpausaren eta sintagma horren aurrekoa, edo antezedentea, bilatu. Izen sintagma bihurkari horien *aurrekoa* zein den garbi dago bi kasuetan: lehenbizikoan *gizon hark* eta bigarrenean *zuk*.

Egitura hauek osatzeko *burua* izenlagun bihurkari bati erasten diogu: aurrekoa *ni* baldin bada *neure*; *hi* baldin bada, *heure*; hirugarren pertsonakoa bada, *bere*; *gu* baldin bada, *geure*; *zu* baldin bada aurrekoa, *zeure*, eta *zuek* bada *zeuen, zeron...*

Baina Etxeparek *burua* soilik ere erabili zuen:

- (132) Ohari guiten *buruyari* denbora den artian (II, 84)

Aurrekoa plurala bada, edo erreferentzia anitza badu, orduan ere *burua* singularrean joan ohi da. Alegia:

- (133) (a) Bi gizon haiek *bere burua* hil nahi zuten
(b) Guk *geure burua* maite dugu gehien

Honako adibide hauek agerian jartzen dutenez, ordea, zilegi da pluralaz ere baliatzea:

- (134) (a) Eta badirade chikiratuak zenitaco resumagatic bere buruac chikiratu ukan dituztenac (Leiz. Mt. XIX, 12)
 (b) Eguiazco Dolurequin gure buruac eta gure vitio guciac citiagu condemnatzen... (Leiz. Othoiza ecclesiastic.)
 (c) Zeuen buruon etsaiak (Ax. 82)

(Dena den, bada hemen istilu bat, egiatan azterketa sakonagoa merezi lukeena. Alegia, gero eta zabaltzenago ari dira *Ikusten naiz* eta antzeko formak *Neure burua ikusten dut*-en orde. Askotan, jakina, bi egiturak dira zilegi eta biek esanahi desberdina dute. Adibidez, *neure burua hil dut* ≠ *hil naiz* ez dira inolaz ere baliokide. Baina *neure burua gorrotatzen dut* bezalako esapide jatorraren orde, *gorrotatzen naiz* eta antzeko trakeskeriak ugaltzen ari dira. Dena den, azterketak esan beharko digu zein aditzekin diren zilegi *jantzi naiz/jantzi dut*, *hil da/hil du* eta antzeko bikoteak).

2.3.2. Elkar

Elkar izenordain elkarkari edo erreziprokoa dugu. Eta izenordain dela esaten dugunean berak bakarrik izen sintagma osa dezakeela diogu, hots: inolako laguntzarik gabe. Beraz, mugatzailerik ere ez du ametitzen. Baina izen sintagma osatzen duen neurrian, kasu markak har ditzake: *elkar*, *elkarri*, *elkarren*, *elkarrekin*...

- (135) Gizakiok *elkar* maite dugu

Perpaus honetan *elkar* izen sintagma dugu, ondoko esaldian *Andoni* ere izen sintagma den bezalaxe:

- (136) Gizakiok *Andoni* maite dugu

Orobat, honako perpaus pareetan ere paralelotasuna ongi ikusten ahal dugu:

- (137) (a) Gu elkarren ondoan gaude — Gu Andoniren ondoan gaude
 (b) Zuek elkarrekin joango zarete — Zuek Andonirekin joango zarete

Elkar izenordain anaforikoa dugu eta, horrenbestez, aurreko edo antezedente bat bilatu behar zaio perpausean. Honetan, bihurkariak bezaia da. Hortaz, goiko perpausean *elkar*-en aurrekoa *gizakiok* izango da edo *gu* edo *zuek*... Esan nahi baita, *elkar*-ek bere aurreko den izen sintagma horrek aipatzen duen gauza bera aipatzen duela, erreferentzia bera dutela.

Dena den, *elkar*-en aurrekoak beti plurala izan behar du edo izen sintagma koordinatua. Horrela, ez dute inolako zentzurik honako perpaus hauek:

- (138) (a) *Nik elkar maite dut
(b) *Andoni elkarren ondoan eseri zen

Izan ere, *elkar* izenordain elkarkaria dela esaten dugunean *batak bestea eta beste honek bat hura* edo antzeko zerbait esan nahi izaten dugu. Horregatik, bat baino gehiago ez dagoen lekuan ezina da elkarkaria erabiltzea:

- (139) Andonik eta Joxepak elkar maite dute (= Andonik Joxepa maite du eta Joxepak Andoni maite du)

Bestalde, *elkar*-ek aurrekoa eskatzen duenez (eta plurala, gainera), deklinabide atzizkiak har baditzake ere, ezingo du hartu ergatiboaren atzizkirik, zeren orduan aurrekorik gabe geldituko bailitzateke eta, beraz, inolako interpretazio biderik gabe. Alegia, aurrekoa bera, noski, ergatiboa izan daiteke, baino *elkar* inola ere ez. Beraz, *elkar*-ek ergatiboaren kasu marka izan ezik, beste guztiak onar ditzake:

- (140) **Elkarrek* gu ikusi gaitu

ezina da, baina bai:

- (141) (a) Guk *elkar* ikusi dugu
(b) Zuek *elkarri* hitz politikak esaten dizkiozue
(c) Gurasoek *elkarrekin* ikusi gaituzte (Hala ere, hemen *elkarrekin* horren aurrekoa zcin den erabakitzen datza arazoa, zeren kasu honetan aurreko hori ez baita *gurasoak*, *gu* baizik)
(d) Andoni eta Edume beti *elkarren* ondoan esertzen dira

Azken esaldi honi buruz ohartxo bat egin behar da. *Elkar* genitiboan joan daiteke *ondoan*, *gainean*, eta antzekoekin, baina batzutan badirudi *elkarren*-en ordeztu *bata bestearen* edo antzeko itzulia nahiago dugula. Alegia *Peruk eta Inixik elkarren ondoan egin zuten lo* esan badaiteke ere, bitxi samarra gertatzen da beste honako hau *Peru eta Inixik elkarren ohean egin zuten lo*. Honen ordeztu, baina, beste hau zeharo normala dela dirudi: *Peruk eta Inixik bata bestearen ohean egin zuten lo*.

2.3.3. Azken ohar bat *elkar*-en erabileraz

Elkar izenordaina bada eta, horrenbestez, izen sintagmak osatzen baditu, izen sintagmak perpaus barnean betetzen duen funtzioaren arabera hartzen duen deklinabide atzizkia hartu beharko du. Horregatik *Guk Lehendakariarekin bazkalduko dugu* esaten dugun bezalaxe, *Guk elkarrekin bazkalduko dugu* esan beharko dugu. Beraz, gaizki esana dago zenbaiten artean zabaltzen ari den modu trakets hau: **Guk elkar bazkalduko dugu* edo **Elkarrik bazkalduko dugu*. Perpaus hauetako lehenak, izatekotan ere, honako esanahia izango luke, gutxi gora behera: *Guk elkar jango dugu*, hots : *Nik zu jango zaituk eta zuk ni*.

Era berean, **elkar joango gara* ere gaizki dago. Izan ere, *elkar*, kasu markarik ez duenez, edo nahiago bada absolutuaren kasu marka daramanez (\emptyset), *joan* aditzaren subjeto izango litzateke, aditz hau iragangaitza denez gero. Baina *joango gara* esaten dugunean, nahitaez subjektuak *gu* izan behar du. Hortaz, *elkar* ezin izan daiteke subjeto. Horregatik, goiko perpaus hori okerra da. Horren ordezt, *Elkarrekin joango gara* esan beharko dugu, *zurekin joango gara* esaten dugun bezala eta ez, **zu joango gara*.

2.3.4. *Bata beste*

Elkar-en ordezt erabil daiteke ere *batak bestea*, *bata bestearekin*, *bata bestearen* eta abar.

- (142) (a) Bi oilarrek *elkar* hil zuten = Bi oilarrek *batak bestea* hil zuten
 (b) Gu *elkarren* ondotik pasatu ginen = Gu *bata bestearen* ondotik pasatu ginen

2.3.5. *Elkar* : singularra ala plurala?

Elkar-en aurrekoa beti plurala dela esan dugu edo izen sintagma koordinatu bat. Hortaz, erreferentzia nolabait plurala duela pentsa daiteke. Hala ere, *elkar* bera singularizat hartzen dugu komunztadurari dagokionez:

- (143) *Guk elkar* ikusiko dugu

Eta ez:

- (144) **Guk elkar* ikusiko ditugu

Dena dela, bihurkariet egin dugun bezala, *elkar*-en erabilera beste oharño bat ere egin daiteke, gauzak dauden baino nahasiago egin ez ditzagun. Euskaldun askok *nork-elkar-aditz iragankorra* egitura jatorra erabili ordez, nahiago du, erdarak horretara bultzaturik ziur asko, beste honako egitura hau: *nor-aditza iragangaitza*. Adibidez:

(145) Elkar ikusiko dugu gero

esan beharrean,

(146) Ikusiko gara

Edo:

(147) Elkar maite dugu

esan beharrean:

(148) Maite gara

Dena dela, inola ere ez:

(149) *Elkar ikusiko gara

Aditzak berez iragangaitzak direnekin esana dugun bezala, ez dago lekurik *elkar* objektu gisa erabiltzeko. Baina aditza iragankorra bada, erreprozitatea adierazi nahi bada, bistan da *elkar*-ez baliatu behar dugula:

(150) (a) Guk *elkar* jo genuen
(b) Zuek *elkar* gorrotatzen duzue

Aditz batek bi erabilera baditu, bata iragankorra eta bestea iragangaitza (*hil, jantzi, erre* eta antzekoak, non bata erazlea den) orduan *elkar*-dun esapidea eta aditz iragangaitzaz baliatzen dena ez dira, inolaz ere, zentzukide. Adibidez:

(151) (a) Guk elkar jantziko dugu ≠ Gu jantzi egingo gara
(b) Gizon horiek elkar hil behar dute ≠ Gizon horiek hilgo dira
(c) Horiek elkar erretzen dute ≠ Horiek erretzen dira

2.3.6. *Enel/neure, hirel/heure*

Pertsona izenordainek eta erakusleek forma normalen parean forma indartuak ere badituztela ikusi dugu. Bikoizketa hau bereziki interesgarria gertatzen da izenordain horien genitiboan, zeren orduan forma indartuak izateaz gainera, bihurkari ere badirela dirudi. Hortaz *neure, heure, zeure, geure*, (eta *neronen, herorren, zerorren, geron...* ere bai?) izenordain bihurkariak ditugu. Baina noiz erabili behar dira forma normalak eta noiz forma bihurkariak?

Lege zorrotzegirik ez dagoela esan daiteke edo erabat betetzen den legerik behintzat ez. Hala ere, hona hemen eman ohi den araua:

"Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada *nor, nori* edo *nork* sintagma bezala"

Nor, nori eta *nork* sintagma hauek, aditza jokatua bada aditzean agertuko dira eta, orduan, aditzari begiratzea komeni da sintagma horiek ageri diren ala ez jakiteko.

(152) *Ni neure* eixera joango naiz eta zu *zeurera*

Izan ere, *ni* eta *zu* (hauek direlarik *neure* eta *zeure* genitiboek aipatzen dituzten pertsonak perpaus barruan) *nor* sintagma bezala ageri dira perpausentzat: *Ni joango naiz* eta *Zu joango zara*. Horrenbestez, forma bihurkariak erabil bitez. Gauza bera izango genuke baldin eta perpausentzat aditza jokatu gabea balitz:

(153) *Nik badakit neure* eixera joaten

Hemen ere, perpaus txertatua *nor* sintagmarik ageri ez bada ere, *ni* dela badakigu, perpaus nagusiko subjektua bera baita perpaus txertatu horren subjektu. Horregatik, hemen ere izenordain bihurkaria agertuko da.

Baina ohar bat egin behar da: genitiboaren aurreko izango litzatekeen sintagma horrek eta genitibodun sintagmak elkarrekin beste sintagma bat osatzen badute, ez da aplikatzen delako erregela hori. Adibidez:

- (154) (a) *Ni* eta *nire* lagunak ez gara ongi konpontzen
(b) *Aita* eta *haren* problemak ez digute lasai egoten uzten

Hemen ez dugu bihurkaria erabiliko, bihurkari honen aurrekoa, *ni* edo *aita*, nor sintagmak badira ere, aurrekoak eta genitibodun sintagmak (*nire lagunak*, *haren problemak*) beste nor sintagma bat osatzen baitute.

Hortaz:

(155) Andoni *nire* (edo *ene*, *nere*?) etxera joango da lo egitera

eta ez **neure* etxera, izenlagun horrek aipatzen duen pertsona *ni* baita eta *ni* hau ez da *joango da* aditzean ageri. Beraz, hor ez dago forma bihurkariarentzat lekurik. Beste hauetan bai:

- (156) (a) Nik *neure* lanak egingo ditut
(b) Zuci ez dizkizuete *zeuen* lanak ordaindu
(c) Ezagutzen ditut *neure* ardiak (Leiz. Io. 10, 14)
(d) Gozatu nahi dut nik ere *neure* denboran (Ax)
(e) Ez diot (...) ukorik egin *neure* herriari (Mitx. 372.)

Eta hirugarren pertsona dugunean ere gauza bera gertatzen da. Baina oraingoan bihurkaria *bere* dugu. Hemen ere *bere* horrek aipatzen duen pertsona edo dena dela aurretik agertzen bada perpausean *nor*, *nori* edo *nork* bezala, orduan *bere* izango dugu erabili beharreko izenordaina. Bestela, *haren* izango da forma zuzena. Horrela:

- (157) (a) Andoni *bere* etxera eramán nuen
(b) Andonik *bere* etxera eramán ninduen
(c) Andoniri *bere* etxea erosi nion

Baina beste norbaiten etxea baldin bada, Mikelena edo, orduan:

- (158) (a) Andoni *haren* etxera eramán nuen
(b) Andonik *haren* etxera eramán ninduen
(c) Andoniri *haren* etxea erosi nion

Honek esan nahi du perpausean berean egon behar duela izenordain bihurkariaren aurrekoak. Horregatik, *bere*-ren aurrekoa *Andoni* da goiko perpausetan, baina *haren*-ena ezin izan daiteke *Andoni*, beste norbait baizik. Zeren, bestela, *bere* aurkituko genuke.

Esanak esan, hirugarren pertsonako *bere* honekin anbiguitatea gerta daiteke, aurrekotzat izen sintagma bat baino gehiago dugunean. Adibidez:

(159) Andonik Jose bere etxera eraman nahi zuen

Hemen *bere*-ren aurrekoa *Andoni* nahiz *Jose* izan daiteke. Ekialdeko idazle zaharrek *bere* esango lukete *Andoni* balitz aurrekoa eta *haren Jose* balitz.

Bestalde, bihurkari hauek, eta bereziki *bere*, beste era batez ere erabiltzen dira eta ez bihurkari soil gisa. Adibidez, mendebaleko euskalkietan honako perpausak guztiz normalak eta hedatuak ditugu:

(160) (a) Itziar eta *bere* lagunak etorri zaizkigu etxera
(b) Ezagutzen al duzu Peru Arrieta? Bai horixe! Sarritan izan nahiz *bere* etxean

Hauetan, bistan da, *bere* izenlagunaren aurrekoa ez da aditzaren *partaide*. Horregatik, Ekialdeko euskaldunek *bere* hauen ordeaz, *haren* erabiliko dute:

(161) (a) Itziar eta *haren* lagunak etorri zaizkigu etxera
(b) Sarritan izan naiz *haren* etxean

Orduan zer? Esan daiteke bi *bere* ditugula: bata, bihurkaria eta beraz aurrekoa aditzaren *partaide* izatea eskatzen duena; eta bestea, nolabait *bera* izenordain indartuaren genitiboa edo izango litzatekeena. Esan nahi baita, *bera* erabiliko dugun baldintza beretan erabiliko dugu *bere* kasu honetan. Hortaz, bigarren *bere* hau *beraren* balitz bezala da. Eta honek eskatzen duen baldintza bakarra da noizpait aurretik aipatua izatea aurrekoa. Hots: *bere* (= *beraren*)-en aurrekoa ez da nahitaez perpausean agertuko eta aditzaren *partaide* izango. Aski da lehenago noizpait aipatua izatea, perpaus berean ez bada ere.

Alderantziz ere gertatzen da, batez ere lehen eta bigarren pertsonako izenordainekin. Alegia, berez goian emana dugun arauaren arabera izenordain bihurkaria agertuko dela espero daitekeelarik, izenordain normala agertzen zaigu. Horrek esan nahi du legea ez dela zorrozki betetzen. Adibidez:

(162) (a) Gure herrian eta *gure* hizkuntzan somatuko ez bagenitu... (Mtx. 226)
(b) *Gure* oroitzapenetan bateratsu gatoz... (Mtx. 373)

Eta bestalde, sarritan *neure* eta antzekoek ez dute bihurkari balioa. Izenordain indartu baten genitibo direla dirudi:

- (163) (a) *Neure izena (...)* gora eta behera erabilia izan denez gero... (Mitx. 212)
(b) *Neure herriak (...)* hutsik eta latzarik badu ugari (Mitx. 212)

Hortaz, oso zail dela dirudi lege zorrotz eta salbuespenik gabea ematea. Hitzunek behintzat ez dirudi erabat betetzen dutenik. Eta horren arrazoia izan liteke forma hauek bikoitzak izatea: bihurkariak alde batetik, eta indartuak, indartu soilak, bestetik.

2.3.7. Azken ohar pare

Hemen genitiboaz esan dugunak balio behar du genitiboarekin zerikusia duten formetarako ere: *enegan/neuregan; zurekin/zeurekin; guretzat/geuretzat* eta abar.

Eta bigarren oharra: bihurkari hauen aurrekoa *nor, nori* eta *nork* bakarrik izan daiteke eta ez, adibidez, forma alokutiboetan eta, agertzen den laugarren pertsona hori:

- (164) O emaztea, handi dun *hire* fodea (Leiz. Mi. 15,28)

dun da-ren forma alokutiboa baita. Beraz, hor agertzen den *hi* hori ez da ez *nor*, ez *nork*, ez *nori*. Hona hemen beste adibide polit bat, non biak, forma bihurkaria eta ez-bihurkaria ageri diren:

- (165) Hik *eure* (+bihurk.) buruaz testifikatzen duk, *hire* (-bihurk.) testimoniajea ezluk sinhesteko (Leiz. Io, 8, 13)

2.4. Izen sintagmaren ardatz izena isil daiteke

Izenordainen sailean ez ditugu sartu ohizko gramatiketan izenordaintzat hartu izan diren zenbait elementu. Adibidez, izenordain pertsonaletan ez ditugu lehen eta bigarren pertsonakoak baizik aipatu. Eta halaxe da: berez pertsonatzat lehenbizikoa eta bigarrena bakarrik har ditzakegu. Hirugarren pertsona deitzen den hori ez da, berez, pertsona: pertsona nahiz beste edozer izan daiteke. Zenbait gramatikatan *bera* eta gainerako erakusleak (*hau, hori, hura*) hartu ohi dira hirugarren pertsonako izenordaintzat. Hori horrela izanez gero, erakusleak eta antzekoak bi aldiz sailkatu beharko genituzke: batetik determinatzaile modura eta bestetik izenordain modura. Adibidez:

- (166) Gizon *hura* ez zait batere atsegin

esaten dudanean *hura* erakuslea izen sintagma baten barruan ageri da *gizon* izena mugatuz. Baina,

(167) *Hura* ez zait batere atsogin

diogunean, *hura*-k berak bakarrik osatzen duenez izen sintagma izenordaintzat hartu beharko dugu.

Hala ere, hemen gertatzen dena fenomeno zabalago baten ondorioztat har daiteke: izen sintagmaren ardatza den izena ezabatzearen ondorio, hain zuzen. Izen sintagma zenbait elementu desberdinez osatua agertzen da, ardatzat izena duelarik. Izen sintagmaren ardatz den izen hori izen berezia ez bada (hots izen berezi nahiz izenordain: *norbait*, *ni*, *zuek*...) sintagma behar bezala osatua egoteko izenaz gainera beste elementuren batzu behar ditugu. Baina izen sintagmaren ardatza izena bada ere, askotan izen hori, ezaguna delako, edo jakintzat ematen delako, edo lehenago aipatua delako edo hitzegiteko momentuan seinatu egiten dugulako, ezaba daiteke. Eta horrela, honako adibideetan erakusten den bezala, ezkerreko egituratik eskuinekoa lor daiteke:

- (168) (a) *Liburu gorria* ———> Ø *gorria*
 (b) *Liburu hau* ———> Ø *hau*
 (c) *Zenbait etxe* ———> *Zenbait* Ø
 (d) *Edozein makila* ———> *Edozein* Ø

eta abar.

Oso fenomeno zabala dugu hau, eta agian gehitxo litzateke pentsatzea bi *hau* ditugula, bata izenordaina eta bestea determinatzailea, edo bi *zenbait* ditugula, edo bi *edozein* eta horrela *-a* mugatzailearekin izan ezik, beste determinatzaile guztiekin. Askoz zuzenago dela dirudi euskaraz izena ezabatu egiten dela esatea. Hain zuzen, ezabatze hori posible izaten da denok ulertzen dugunean zein den azpian dagoen izena, nahiz eta axalean agertu ez. Esate baterako:

(169) Zein liburu nahi duzu?

galdetu beharko dut baldin eta testuinguruak ez badit jadanik erakusten liburuez ari garela. Adibidez, liburudenda batean bagaude eta eskuaz seinatzen badituzu liburuak ez daukat zertan *Zein liburu?* galdetu: *Zein?* esatea aski litzateke. Baina bazar batean aurkitzen bagara adibidez, zeinetan liburuak eta buztinezko ontziak eta kobrezko pitxiak eta horrelako asko dauden, *liburu* izena ezingo dut ezabatu, nere entzuleak ulertzea nahi badut behintzat.

Behin gogoko galdera hori egin ondoren (hots: *Zein liburu nahi duzu?*), erantzun normalena liburua aipatzen ez duena izango litzateke, bai baitakigu liburuez ari garela. Horrela, bada, erantzunik normalena *gorria*, edo *gorri hau*, edo *hango gorri hura*, edo *hau* soil soilik izango litzateke.

Hemen izena ez, beste elementuak gelditzen dira. Berez, sintagma bat izen batez eta erakusle batez osatua badago (adibidez, *liburu hau*) izena ezabatu ondoren erakuslea geldituko zaigu, baina horrek ez du esan nahi berez erakusle hori izenordain denik. Izenordain izatea, izatekotan, ezabatze prozesu baten ondorio besterik ez litzateke izango.

Egoera honetan aurkitzen dira determinatzaile guztiak, mugatzailea izan ezik:

- (170) (a) *Hau etorri zitzaidan*
(b) Andonik bi eta bi bost direla esan zuen: *horrek ez du inolako zentzurik*
(Alegia, *baieztapen horrek*)

Bakoitza, berez, determinatzaileen sailekoa dela dirudi, nahiz eta mugatzaile eta guztiko forma izan. Baina hemen azaldu dugun joko honetan ere gertatzen da. Hortaz, batzutan nolabaiteko izenordain gisa ere agertzen da.

Baina ez dugu horrelakorik Ekialdeko euskalkietan erabiltzen duten *bakoitza*-ren baliokidearekin, *batbedera*-rekin alegia. Hau beti izenordaina dugu eta beti singularrean doa:

- (171) (a) *Batbederak esan zuen = bakoitzak esan zuen*
(b) *Batbederak daki = norberak daki*

2.5. Izenordainen eta beste zenbait sintagmaren ezabaketaz

A) Komunztadura dela medio, aditzak ematen duen informazioa sarritan erredundantea gertatzen dela gauza jakina da. Aditzak perpausean jadanik jasoa dagoen informazioa, *nor*, *nori* eta *nork* sintagmei dagokienez, errepikatu egiten du. Horrenbestez, askotan *nor*, *nori* eta *nork* sintagma horiek ezabatzea zilegi gertatzen da. Ezabatze horrek ez dakar, normalki, inongo informazio galtzerik. Adibidez, ondoko perpaus hauek informazio bera ematen digute:

- (172) (a) *Nik zuri liburu hori eskatu dizut*
(b) *Nik liburu hori eskatu dizut*
(c) *Zuri liburu hori eskatu dizut*
(d) *Liburu hori eskatu dizut*

Eta *liburu hori* sintagma ere ezabatua gerta daiteke, baldin eta testuinguruari esker edo, zertaz ari garen (hots: *liburu horretaz* ari garela) badakigu. Orduan, beste perpaus hau ere zilegi gertatuko litzaziguke:

(173) Eskatu dizut

Perpaus guzti horiek zeharo zuzenak eta gramatikalak izaki, zenbait testuingurutan azkena esatea aski dugu, eta perpaus hori entzuten duenak badaki nork eskatu duen, eta nori eskatu dion. Zerbait eskatu duela ere badaki. Jadanik ulertuzat ematen badute esan beharrik ez da. Dena den, izenordain pertsonalak ez diren izen sintagmen ezabaketa testuinguruaren mende gelditzen bada ere, pertsona izenordainak ezabatzea zeri dagokio? Alegia, azkena entzuten duenak badaki garbi nork eta nori eskatu dion, *nik zuri*, alegia. Baina, besterik ezean, ez daki garbi *zer* eskatu dion.

Beraz, aditzean jasoak dauden neurrian lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainak agertzea edo ez agertzea hiztunaren esku gelditzen da. Hots: hiztunak askatasuna du izenordain horiek izkutarazitzeko.

Hala ere, bi kasutan behintzat ezina da ezabaketa hori: a) izenordaina galdegai denean, eta b) izenordaina perpausaren aurrera eraman den mintzagaia denean. Eta ezina gertatzen da kasu hauetan ezabaketa, informazioa galduko litzatekeelako. Galdegai den izenordaina ezabatzea zilegi balitz ez genuke jakingo zein den galdegaia, edo galdegaitzat beste osagairen bat hartuko genuke. Gauza bera gertatuko litzateke, aurreratutako mintzagaia ezabatua balego.

Bi leku horietan doan izen sintagma nolabaiteko kontrastean jartzen dugu. Adibidez, honako hau dioenak:

(174) *Nik* esango dizut zer den ona

nik eta ez bestek esango balu bezala da. Eta horrelakoetan, noski, beharrezko gertatzen da *nik* perpaus horretan. Zeren perpaus hori ez baita ondoko honen baliokide, galdegai desberdina dutelako nahitaez:

(175) Esango dizut zer den ona

Hemen, galdegaia *bai* edo agian *zer den ona* perpaus txertatua izango litzateke. Inola ere ez, *nik*, ezabatua izan den momentutik.

Hona hemen beste zenbait adibide:

- (176) (a) Zergatik ez dute egin apaiz oiek boroiek *nik* egin dedana? (Ormaetxea, 18)
(b) Pilipe, *ni* ikusten nauana, Aita ikusten ari da (Ormaetxea, 18)

Mintzagaia ere, aurreratua baldin badago behintzat, nolabaiteko kontraste lekua dugu:

- (177) (a) *Nik*, esango nizuke baina...
(b) *Zuri*, kontatuko nizuke baina...
(c) *Gu* ere lilura gaitezke
(d) *Gu*, berriz, barrura sartzeko irrikitzen gaude (Ormaetxea, 62)
(e) *Nik*, beintzat, ez diet ondorio segururik atera (Ormaetxea, 96)
(f) *Nik*, ordea, ez det neregan gauza onik (Ormaetxea, 129)

Eta hona hemen, azkenik, esaldi bat, non bi *gu* ditugun: bata mintzagaia, bestea galdegaia. Jakina, aditzak jasoa duen bakarra lehenbiziko *gu*-a da, mintzagaia izateaz gainera subjektua baita:

- (178) *Gu*, geren kaxkarrean *gu* gelditzen gera (Ormaetxea, 55)

Bi kasu hauetatik aparte, badirudi nahikoa libre gelditzen dela izenordaina agertzea edo ez agertzea:

- (179) (a) Aren arraza gera *gu* (Ormaetxea, 27)
(b) Ori egiten diogu *guk* askotan Jaiukoari (Ormaetxea, 55)
(c) Ezagutu nun *nik* orain ogeitamar urte norbait lau ordu otoitzean ari zana (Ormaetxea, 96)

Perpauk hauek izenordainik gabe emango bagenitu ez dirudi asko aldatuko liratekeenik:

- (180) (a) Haren arraza gara
(b) Hori egiten diogu askotan Jainkoari
(c) Ezagutu nuen orain hogeitamar urte norbait lau ordu otoitzean ari zena

Dena den, enfasi apur bat gehiago edo, ematen zaiola dirudi izenordainak horrela agerrerazten ditugunean. Baina izenordain horiek ezabatuz gero, ez dirudi informazio gehiegirik galtzen dugunik. Horregatik, hiztunaren esku gelditzen da izenordain horiek bere hartan uztea edo ezabatzea.

B) Beste ezabaketa kasu bat ere aipatu behar da: perpausean lehen pertsona singularrarekin (*ni*-rekin) edo bigarren pertsona singularrarekin (*hi* edo *zu*-rekin) beste norbait ere agertzen bada, ...*eta ni* edo ...*eta zu* esan beharrean ...*eta biok* edota ...*hirurok* esaten dugu. Beraz, (A) zutabeko esapideez baliatu beharrean, (B)-koez baliatzen da euskaldun jatorra:

(181)	(A)	(B)
(a)	Zu eta ni joango gara	<i>Zu eta biok</i> joango gara
(b)	Edurne eta ni iritsi ginen	<i>Edurne eta biok</i> iritsi ginen
(c)	Joxe eta hi etorriko zarete	<i>Joxe eta biok</i> etorriko zarete
(d)	Andoni, zu eta ni ibiliko gara	<i>Andoni, zu eta hirurok</i> ibiliko gara

C) Zenbait kasutan, izen sintagma bati dagokion izenlaguna ez da agertzen nahiz eta denok ulertu hor badela izenlagunen bat. Ikus dezagun zenbait adibide:

- (182) (a) Etxera noa
 (b) Etxera joan nintzaion
 (c) Aitari esango diot
 (d) Amak eman zidan
 (e) Alabari eska iezaiozu
 (f) Etxeraino eramán genuen

Hemen agertzen diren izen sintagmetan ez dago, agerian behintzat, inolako izenlagunik. Badirudi, hala ere, etxeak asko direnez gero, zein etxeri buruz ari garen aditzera eman behar genukeela. *Aita*, *ama*, eta *alaba*-rekin ere gauza bera gertatzen da.

Jakina, askotan, ezinezkoa gertatzen da izenlagun hori ezabatzea. Esate baterako, enumerazio batean izenlagun desberdinak kontrastean jarri nahi ditugunean. Adibidez:

- (183) Joxeren aitari, gurcari, Andresenari...

Baina izenlagun hori, izenordaina izan nahiz ez izan, agertzen ez denean, interpretazio arazoa gertatzen da. Agertzen ez den izenordainen bat badela pentsa daiteke. Arazoa da zein den jakitea. Adibidez, (A)-ren interpretazio normala (A') dugu:

- (184) (A) Etxera noa = (A') Neure etxera noa

Izan ere, perpaus honetan ez dugu aditzera ematen beste inor doanik. Baina nor eta nori agertzen badira, (B)-n bezala, galde liteke ea zein den interpretazio zuzena, (B') ala (B''):

- (185) (B) Etxera joan nintzaion = (B') Neure etxera joan nintzaion
(B'') Bere etxera joan nintzaion

Euskaldunak badaki interpretazio zuzen bakarra (B'') dela eta ez (B'). Goiko adibideetako hirugarren eta azken perpausak, aldiz, anbiguoak direla esango genuke. Zein egoeratan esaten diren kontutan haru beharko da.

Dena den, guri interesatzen zaiguna hau da: badira berez izenlagun bat eskatzen duten izenak (ahaidegoa adierazten dutenak, adibidez; hemen sartuko genituzke *maisua*, *andereño*, *buruzagi* eta antzekoak ere; baita *etxe*, *herri* eta antzekoak ere), baina sarritan ez dugu esaten *zein exez* edo *noren aitaz* ari garen, hori ulertutzat ematen delako. Askotan, hala ere, anbiguitatea gertatzen da. Jakina, anbiguitatea hausteko bideak baditu hiztunak. Elkarrizketa batean, adibidez, aski da galdera bat egitea: *noren aita?* esate baterako.

Beste batzutan aditzean doan datiboak esango digu zein den izkutuan dagoen genitibo horren erreferentzia. Adibidez:

- (186) Andoniri aita gazterik hil zitzaion

esanda ere, Andoniren aitaz ari garela ulertzen dugu, nahitaez. Eta hori, *bere* izenlaguna sartu gabe.

Genitiboan doan izenordaina askotan ezabatu egiten dugula esan dugu. Hala ere, batzutan, jartzea komeni zaigu, baina zein? Euskaldun jatorra, bere familiaz edo etxeaz ari delarik, plurala erabiltzearen aldekoa da eta ez singularra. Honek lehen eta bigarren pertsonarako balio du. Horrela, *gure aita*, *gure haurra*, *gure semea*, *gure andrea*, *gure ardiak*... esango dugu, *nire aita*, *nire andrea* eta abar baino gehiago.

3. DETERMINATZAILEAK

Euskal izen sintagmaren aztertzean (ikus Izena) aipatzen genuen, izen sintagma baten ardatza izen arrunta bada, izen sintagma horrek, gramatikala izan dadin, *determinatzailea* behar duela.

- (187) (a) *Ander* etori da
(b) *Zu* zara lotsagabea, ez *ni*

Euskal perpaus horiek gramatikalak dira, *Ander*, *zu* eta *ni* izen sintagmak, izen bereziz eta izenordainez osatuak daudelako.

Baina beste adibide hauetan beste zerbait gertatzen zaigu:

- (188) (a) Ume *asko* iritsi ziren gailurreraino
(b) Haur beltzarara zigortu du andereñoak
(c) Soineko *hori* erosi nahi nuke
(d) *Hiru* liburu irakurri behar dituzu

Adibide guzti hauetan beharrezkoak ditugu *asko*, *-a*, *hori*, eta *hiru*:

- (189) (a) *Ume iritsi ziren
(b) *Haur beltzaran zigortu du andereñoak
(c) *Soineko erosi nahi nuke
(d) *Liburu irakurri behar dituzu

Ikusten denez, azken perpausok ez dira gramatikalak.

Beraz, goian esandakoaren arauera, *asko*, *-a*, *hori* eta *hiru*, *determinatzaile* direla esango dugu. Determinatzaileen artean ere beste hiru sail egiten dira:

- a) *-a* (hots, artikulua) eta erakusleak.

b) Zenbatzaileak: *asko, gutxi, zenbait, bi, hiru, hamar...* Hauetako batzuk a) sailekoekin elkar daitezke; beste batzuk, ordea, ez (ikus Zenbatzaileak, geroago).

c) Nolakotzaileak: *edozein, zernahi*, eta abar.

Orain arte esanak kontuan hartuta, esan dezakegu euskaraz (\pm mugatzaile)tasunaz balia gaitzkeela izen sitagmak sailkatzeko.

(+mugatzaile) azaltzen denean, esan nahi da izen sintagmak mugatzailea (artikulua nahiz erakuslea) hartuko duela. Alabaiua, (-mugatzaile) azaltzen denean, izen sintagmak ez du mugatzailearik hartuko.

Baina nola jakin noiz dagokion tasun bat eta noiz bestea izen sintagma bati? Printzipioz, esango dugu euskaraz izen sintagmak mugatuak direla, mugagabe izateko arrazoirik ez dagoen bitartean. Alegia, izen sintagma noiz izango den (-mugatzaile) ikusiko dugu, eta, horrenbestez, ondoko zerrendan sartzen ez diren kasuetan, izen sintagmak, mugatzailea edo erakuslea hartu beharko du. Artikuluaz ariko gara lehenik.

3.1. Mugatzaileak

3.1.1. Artikulua

Izen sintagma batetan ez zaigu *-a* edo erakuslerik azalduko honako kasuetan (atal guzti honetan ikus Zenbatzaileak eta bereziki, 3.2.1.4.):

a) Izen sintagman *zenbatzaile*ren bat azaltzen denean:

- (190) (a) *Gizon askok* parte hartu zuten biltzarrean
(b) Ez dakit zergatik egiten duzun *horrenbeste lan*
(c) *Bost liburu irakurri* behar dituzue ikastaroan zehar

(Hala ere kontutan izan, zenbatzaile zehaztuak mugatzailearekin elkar daitezkeela: *irakurri ditut bost liburuak*).

Kantitatea, neurria, adierazten duten izen sintagmak ere zenbatzailea daramatenez, mugagabeak ditugu:

- (191) (a) *Bost kilo sagar* erosteko agindu dit amak
(b) *Lau metro oihala* beharko duzu soineko hori josteko

b) Izen sintagma izen bereziak osatzen badu, nahiz pertsona nahiz leku izenak, izen sintagma horrek ez du mugatzailerik izango:

- (192) (a) *Mirenek eta Iñakik* ez diote elkarri jaramonik egiten
(b) *Donibanen eta Eibarren* oso hizkera desberdina dute, nahiz guztiak euskaraz egin

c) Izen sintagmaren ardatza izenordaina denean ere, izen sintagma (-mugatzaile) motakoa izango da:

- (193) (a) *Edonork* daki horrenbeste
(b) *Zu* behintzat ez zara gurekin etorriko

d) Partitiboari dagokion kasu marka hartzen duten izen sintagmek mugagabeak izan behar dute (partitiboan azaltzen diren *nor* izen sintagmak):

- (194) (a) Ez dut inoiz *hain pertsona iraketsik* ezagutu
(b) *Zure neurriko soinekorik* aurkitu al duzu?

e) *Bat* zenbatzailearekin aurkitzen dugun egitura: *-en bat*, alegia; *-en* kasu marka hartzen duen izen sintagmak mugagabea izan behar du.

- (195) *Ikasleren bat* kopiatzen harrapatzen baduzu, bidal ezazu kanpora

f) *Egin, eman, hartu* aditzekin elkartzan ditugun izenak:

- (196) (a) *Min eman didazu*
(b) *Gogoz lan egiten* baduzu, azterketa gaindituko duzup

g) Perpaus batean bi izen sintagma *nor* kasuan ditugunean, bietatik bat predikatu osagarria delarik:

- (197) (a) *Semea artzain* bidali zuen Ameriketara
(b) *Jesusek ardo* bihurtu zuen ura
(c) *Frantzian Miterrand lehendakari* aukeratu zuten azken hauteskundeetan
(d) *Neskame* egon zen hiru urtez Iñaxi

Adibide hauetan, pertsonaren egoera, estatusa, edota materia aldaketa adierazten duten izen sintagmak mugagabean azaltzen zaizkigu (euskaraz perpaus bakoitzean kasu bakoitzeko sintagma bakarra dugulako erregelaren salbuespena).

Aditzei dagokienez, berriz, *joan, egon, bidali, bihurtu, hautatu, aukeratu, egin, izendatu*, e.a. aurkituko ditugu.

h) Izenondoa, atributu (predikatua) funtzioa betetzen duenean (ikus Adjetiboa), mugagabe bezala erabil dezakegu. Iparraldean eta ekialdean honetarako joera handiagoa dute; Hegoaldean eta Mendebalean txartzat ematen ez bada ere, askoz maizago erasten zaio mugatzailea adjetiboari:

- (198) (a) *Egoki eta bidezko da, zuzen eta osasungarri*, Zuri, Jaun guztiz ahaltu horri...
(b) Ikusteko zen orduan mutiko horren zangoek, palarra gora *on* baziren, palarra behara zer balio zuten! (Eliss. 4)

i) *-n* eta *-z* kasu markak hartzen dituzten izen sintagma, batipat izen soilez osatuak badaude, badirudi adverbio antzeko balioa hartzen dutela, eta izen sintagma horiek (*-mugatzaile*) motakoak izan ohi dira (ikus *-z* eta leku kasuak):

- (199) *Elurretan* ibiltzea nekagarri gertatzen zaigu

Hala ere, kontuz ibili behar dugu, *ilargi, eguzki* eta beste batzuekin ere honako bereizketok egiten baititugu:

- (200) (a) Gizona duela une guti izan da *ilargian*
(b) Atzo gauean *ilargitan* ibili ginen

Lehen adibidean *hilargi* hitza *etxe, baso* edo beste izen baten parekoa dugu:

- (201) Askotan hiri erdian *autoz* baino askoz ere azkarrago mugi zaitzke *oinez*

Iparraldean *-kin* kasu marka hartzen duten izen sintagma, ere *nola* galderari erantzuten dioten neurrian (ez *norekin* galderari) mugagabeaz azaltzen dira:

- (202) Bozkario *handirekin* hartu zuten eman nien berria

(Oharra: Nafarroan *-n* kasu marka hartzen duten izen sintagmetan, *sutan/suan* bereizketa egiten dute, hots, mugagabe/mugatu singular). Adibidez:

- (203) (a) Jar ezazu eltzean *suan!*
(b) Etxea *sutan* dago
(c) Etxea *ketan* dago
(d) Suhiltzailea *kean* sartu da

(Ikus, Leku-denborazko kasuak).

j) Prolatibo deitu izan zaion kasua adierazten duen kasu-marka beti mugagabeari eranstean zaio:

- (204) (a) *Erregetzat hartu dute*, benetan errege itxura baitu
 (b) *Tontolizat* daukate, baina edozein egunetan ohartuko dira uste duten baino azkarragoa dela

Hemen aipaturako egiturez kanpo, izen sintagmek mugatzailea edo erakuslea eraman beharko dute. Mugatzaile (nahiz erakusle) hauei izen sintagmaren eskuineko muturra dagokie:

- (205) (a) *Zirko horretako elefante zuria zoragarria iruditzen zait*
 (b) *Mutiko hori* andereño guztiek maite dute

Eta mugatzaile edo erakuslea izen sintagma osoari dagokio, ez ondoan ezkerretara dagoen elementuari bakarrik. Beraz, *elefante zuri* multzo osoa da *-a*-ren bidez mugatzen dena, ez *zuri* bakarrik.

Bestalde, izen sintagma osatzerakoan, (\pm mugatzaile)tasunaz gainera, (\pm plural)tasuna ere beharrezko zaigu. Tasun bakoitzarekin dugun aukera bikoitza kontutan izanik, honako eskema hau eman dezakegu:

	+ mugatzailea	+plural	-k
Izen sintagma		- plural	- \emptyset
	- mugatzailea	+plural	- \emptyset
		- plural	- \emptyset

Izen sintagmak pluralez jaritzeko *-k* eranstean zaio artikulua nahiz erakusleari. Jakina denez, singularrak ez du marka berezirik. Horrenbestez,

- (206) (a) *Gizon ase*a zoriontsu izan ohi da
 (b) *Lapur famatu hura* erori da azkenean
 (c) *Zakurrak* axaxatu ditu ijitoen kontra
 (d) *Enbor horiek* txikitzeko agindu diet

*Gizon ase*a eta *lapur famatu hura* izen sintagma mugatu singularrak direla esango dugu: *-a* edo *erakuslea* + \emptyset .

Zakurrak eta *enbor horiek*, izen sintagma mugatu pluralak: *-a* edo *erakuslea* + *k*.

Bestaldetik, mugagabe diren izen sintagmetan ez singularrak ez pluralak ez du marka berezirik. Hala ere, noiz diren (+plural) eta noiz (-plural), aditzaren komunztaduran ikus daiteke (*nor*, *nork* edo *nori* sintagmetan).

- (207) (a) Ander etorri da
(b) Bilbo atsegina da

nahiz,

- (208) (a) Gizon asko etorri da
(b) Gizon asko etorri dira

nahiz,

- (209) (a) Hiru liburu irakurri dut
(b) Hiru liburu irakurri ditut

Determinatzailea zenbatzailea denean, izen sintagmak (+plural) nahiz (-plural) bezala har daitezke, komunztaduran ikus daitekeenez. Hala ere, mendebaleko euskaldunek komunztadura pluralean egiten dute orohar (beraz, zenbatzailedun izen sintagmak (+plural) motakoak dira hauentzat). Ekialdekoek joera handiagoa dute halako izen sintagmak singularizat hartzeko; baina hegoaldekoek bezala, komunztadura pluralean ere egin dezakete. (ikus 3.2.1.14).

Baina izen sintagma mugatu pluraletan beste forma hauek ere aurki ditzakegu:

- (210) (a) Guk, irakasleok, geure biziko *rollo*-ak botatzen dizkiegu ikasle gizajoei
(b) Zuek, funtzionarioek, ez duzue kolperik jotzen

-a + *-k* formaren parean, *-o* + *-k* dugu adibide hauetan. Hau da, mugatzailea *neutroa*, ez *markatua*, nolabait esatearren, eta mugatzaile hurbila (*-o*), lehen edo bigarren pertsonari dagokiona, hiztun edo entzulearen hurbiltasuna markatzen duena. Gaur egun, mugatzaile hurbil hau ondoren pluralatzailea darraikionean bakarrik erabiltzen dugu. Izen sintagma singularrean, aukera bakarra, mugatzaileari dagokionez, *-a* da. (Bizkaian, hala ere, gordetzen dituzte *hemen bertan* bezalako formak, nahiz singularra izan).

3.1.2. Erakusleak

3.1.2.1. Erakusleen funtzioa

3.1.2.1.1. Zerbait seinalatzen dute

Erakusleak, izenak berak dioen bezala, erakutsi, seinalatu egiten duten elementuak dira. Euskaraz, elementu erakusle hauek ditugu:

hau/hori/hura hauek/horiek/haiek

Beraz, seinalatze horretan hiru gradu bereizten ditugu: hizketan ari denagandik gertu, ez hain gertu eta urrun dagoena. Edota hizketan ari dena (ni), entzuten ari dena (zu) eta elkarrekizketan parte hartzen ez duena:

(211) (a) Hainbeste bider zure alde azaldu nahizen *honék*, oraingoan ere lagunduko dizut

(b) Hainbeste bider nere alde azaldu zaren *horrek*, oraingoan ere lagunduko didazu, ez al da hala?

Hurbiltasun-urruntasuna espazioan gerta daiteke:

(212) *Eltze honetan* egosi ohi ditugu babarrunak

esango dugu, gertu daukagun eltzeaz ari bagara, eltze hori seinalatu eta bere hurbiltasuna espreski adieraziz.

(213) *Eltze horretan...*

esango dugu, eltzea piska bat urrutixeago badago, eta

(214) *Eltze hartan...*

urrun dagoenez hitzegiterakoan.

Gradazio bera denboran ere aurki daiteke:

(215) *Aste honetan* hasiko zaizkigu azterketak

esatean, hitz egiten ari garen uneari dagokion astea seinalatzen dugu; edota

(216) *Azken chun urte honetan* adina aurterapen ez du inoiz ezagutu gizadiak.

Azken-ek eta aditza orainaldian erabiltzeak hurbiltzen baitizkigu *ehun urte horiek*. Baina,

- (217) Ni 1955ean jaio nintzen eta, diotenez, urte *hartan* sekulako izozteak izan ziren

aipatzen dugun garaia urruti gelditzen zaigulako.

Azkenik, maila edo gradu hauek balio *nozionala* ere izan dezakete, hots, leku/denboratik at dagoen urruntasun-hurbiltasun maila. Hala gertatzen da, esaterako, kontaketan, aipatu berria den zerbait seinalatu nahi dugunean.

- (218) Behin batean *txix* txiro batetan neska eder bat bizi zen. Eta neska *honek*...

Hau, lehen graduko erakuslea, kontaketan ondoren datorrena aipatzeko, iragartzeko era erabili ohi da:

- (219) *Hauxe* esan nahi nuen, enkargua egingo dudala, baina ez neure gustoz, agindu didatelako baizik

3.1.2.1.2. Haien lekua perpausean

Erakusle hauen lekua, adibideetan zehar ikus dezakegunez, izen sintagmaren azken muturra da. Beraz, mugutzaileak hartzen duen leku bera hartzen du:

- (220) (a) Atzo ikastolarakoan kontatu nizuen ipuin polita
(b) Atzo ikastolarakoan kontatu nizuen ipuin polit *hura*

Baina askotan erakusle hauek berez bakarrik osa dezakete izen sintagma. Horregatik esan ohi da hirugarren pertsonako izenordain bezala ere funtziona dezaketela (ikus Izenordainak). Hala ere, hurbiltasun-urruntasun ideia gordetzen denez, balio seinalatzailea ez dute galtzen:

- (221) Horri gozokiak eman dizkiozu eta niri ez

Gure ondoan dagoen batez ari bagara (*horri gozokiak eman dizkiozu* edo *hari gozokiak eman dizkiozu*...).

3.1.2.1.3. Haien erro eta formak

Erakusleen formari dagokionez, berriz, eta deklinabide tauletan ikus daitekeen bezala, erakusle bakoitzak, singularrean, bi erro itxuraz desberdin ditu:

<i>hau</i>	<i>hori</i>	<i>hura</i>	nor kasuan
<i>hon-</i>	<i>hor-</i>	<i>har-</i>	beste kasu guztietan

- (222) (a) Mutil *hau* etorri da
(b) Mutil *honi* eman dizkiot nituen intzaur guztiak

Bestalde, balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak ere baditugu. Lekuzko adberbioak ditugu honako hauek:

<i>hemen</i>	<i>hor</i>	<i>han</i>
<i>hona</i>	<i>horra</i>	<i>hara</i>

Adberbio hauek aurkezpen balioa ere izan dezakete. Hala nola:

- (223) Horra! Horra! gure Olentzero...

Alde honetatik beheraxeago aipatzen ditugun *hona hemen* eta gainerakoen pareko direla esan daiteke.

Hurrengoek modua adierazten dute:

<i>honela</i>	<i>horrela</i>	<i>hala</i>
<i>(honelako)</i>	<i>horrelako</i>	<i>halako)</i>

Gradu bakoitzeko *non* kasua eta adberbioa ere elkar ditzakegu:

<i>hona hemen</i>	<i>horra hor</i>	<i>hara han</i>
-------------------	------------------	-----------------

- (224) (a) Hara nondik datorren
(b) Horra nona doan

Baina beheraxeago berriro ikusiko den bezala, hiru graduen arteko bereizketa ez da beti gordetzen, eta, ondorioz, gradu desberdinetako erakusleak elkartzen ditugu:

(225) Bildots Santua hara hemen

(*hona hemen* esan ordez).

Azkenik, zenbatzaile mugagabetzat har ditzakegu:

honenbeste / *horrenbeste* / *hainbeste*

nahiz,

honenbat / *horrenbat* / *hainbat*

Berez, *honenbeste* lehen pertsonari loturik erabili behar omen genuke, *horrenbeste* bigarrenari, eta *hainbeste* hirugarrenari:

- (226) (a) Aurrezki kutxan *honenbeste* diru *nuenik* ez nuen uste
(b) Aurrezki Kutxan *horrenbeste* diru *zenuenik*...
(c) Aurrezki Kutxan *hainbeste* diru *zuenik*...

Baina gaur egun *hainbeste* (zein *hainbat*) beste biei nagusitu zaie eta forma hori da gehienetan erabiltzen duguna. Alde honetatik esan dezakegu erakusle balioa galdu duela, eta kantitate mugagabea, konparazio absolutuaren esanahiaz, adierazteko balio duela.

Hauen parean ditugu adjetiboaren maila graduatzeko erabiltzen direnak:

honen / *horren* / *hain*

Aurreko sailekoek bezala, hauek ere bere balio seinalatzailea galdu, eta kualitateari dagokionez, konparazio absolutua adierazteko balio dute. Beraz:

- (227) (a) Ez nuen uste *honen* eskuzabala *nintzenik*
(b) Ez nuen uste *horren* eskuzabala *zinenik*
(c) Ez nuen uste *hain* eskuzabala *zenik*

Honela esan behar bagenu ere, praktikan *hain* da beste biei nagusiturik, gehien erabiltzen dena.

(Itxuraz pixka bat desberdinak izanarren, berdintasunezko konparazioa adierazten duten *bezain* eta *bezanbat* (= *adina*, *beste*) formetan, erakuslea aurkitzen da bigarren atalean: (*h*)ain, (*h*)anbat:

- (228) (a) Paris Londres bezain hiri ederra da
(b) Madrilék Bartzelonak bezanbat biztanle ditu

(ikus. Izenondoaren mailakatzea).

3.1.2.2. Esapide batzu osatzen dituzte

Hortaz bi perpaus lotzeko erabiltzen dugu, balio *ilatiboa* duela:

- (229) (a) (Hilabeteiko haurra dute)
(b) *Hortaz*, ezingo dira oso berandu etxeratu

Hala hala

- (230) *Hala hala* dabil (= erdipurdi dabil)

Nola hala

- (231) *Nola hala* moldatuko gara

Hala nola bi balio diferenterekin erabiltzen dugu:

a) *Hau da, hots* eta *alegia*-ren pareko:

- (232) Lau aul bereiz daitezke gramatikan, *hala nola*: fonologia, morfologia, sintaxia eta semantika

b) *Esate baterako*-k duen balioz:

- (233) Nik *hobby* asko ditut, *hala nola*, mendira joatea, irakurtzea, e.a.

Lehen graduko erakusle singularra *nor* kasuan esklamazioetan ere erabil daiteke:

- (234) *Hau duk* beroa!

Askotan gradu bereko erakusle singularra, *nor* kasuan, errepikatuz lortzen dugu esklamazio hori:

- (235) (a) *Hura zen* gizona *hura*!
(b) *Hau duk* *hau*!

(c) Hori duk hori!

Bestalde erakusle hauek artikulua modura ere erabil daitezke:

a) Erlatiboazko perpausetan, lehen edo bigarren pertsona singularrari badagozkio:

(236) Hainbeste bidegabekeria egin duzunorrek ez duzu errukirik merezi

b) Erlatiboaren pareko egituretan, erlatiboaren aditza azaltzen ez bada ere:

(237) (a) Nik pekatarionek (nik, pekatari naizen honck)
(b) Zuk zerriorrek

(Hala ere, batipat bizkaieraz, pertsonari ez loturik ere azal daiteke, baina aurretik gradu bereko erakuslean doan neurrian:

(238) Hau etxeau benetan polita da

baina ez *etxeau benetan polita da).

Ikus beste adibide ezagun hau:

(239) Maritxu nora zoaz, eder galantori

Kantu honetan, *-ori* elementuak ez du ezer seinatzen. Izen sintagma horrek eskatzen duen artikulua baizik ez da. Alde honetatik esan dezakegu erakusle bakoitza bilaka daitekeela (eta bilakatu dela) artikulua:

(240) Nik bekatarionek aitortzen diot...

Azken batetan, *-a* bera ere hirugarren graduko erakusle artikulua bilakatua baizik ez da. Gaur egun, *-au* eta *-ori*, lehen eta bigarren pertsonari loturik erabil ditzakegu forma markatu bezala; *-a*, berriz, edozein kasutan erabil daiteke. Hain zuzen, *-au*, *-ori* oraindik ere maiz erabiltzen ditugu erlatiboazko perpausen ondoren:

(241) Zeure bizitzan dirua barra-barra erabili duzunorrek, proba ezazu orain nolakoa den miseria

Gutunen hasieretan ere erabil daiteke *hori*:

(241) (a) Jaun agurgarri hori:

nahiz

(b) Jauna:

3.1.2.3. Erakusle indartuak

3.1.2.3.1. -xe

Hasieran esan dugu *hautorihura* saileko elementuek seinatzaile, erakusle funtzio dutela. Seinatatze horri indar handiagoa eman diezaiokegu *-xe* erantsiz orain arte ikusi ditugun formei:

- (242) (a) Ikusi al duzu hor dagoen gizona? Bada, gizon *horrexekin* dabil gure auzoko andrea
 (b) Inguruko erdarek, berriz, bestetandik harturikako gaiez... osatzen dituzten beren hitz eskolatuak. *Horrelaxe* artzain edo ikazkin euskaldun bati azaltzen badizkiogu teologiaren edo fisikaren izkutu sakonak, jabetuko da gure hitzen mamiaz (Mitx., 87)
 (c) Ba uesabandrick il ein gure neu geur, txitxe bai arrapeu dotalako, lapurre nasala-ta
 (d) Geu be *olaxoxe* atxakijogatik gabis olan (J.M.B., 259)
 (e) Parisa lan bila joan, eta hantxe urte luzez bizi izan ondoren, azkenik sorterrira izuli da

Bestalde, bigarren graduko erakuslea honako esapideetan ere erabil daiteke, *bai horixe!* edo *horixe baietz!* *noski*-ren baliokide direnak:

(243) Ekarriko al didazu eixerakoan kafea? Bai horixe!

Beraz, honako paradigmak ditugu:

<i>hauxe</i>	<i>horixe</i>	<i>huraxe</i>
<i>honexek</i>	<i>horrexek</i>	<i>harexek</i>
<i>honexen</i>	<i>horrexen</i>	<i>harexen</i>

Beste zenbait kasutan, *-xe* erroari lotu ordez, kasu-markaren ondoren ere azal dakiguke:

<i>honexeri/honixe</i>	<i>horrexeri/horrixe</i>	<i>harexeri/harixe</i>
<i>honexekini/honekintxe</i>	<i>horrexekini/horrekintxe</i>	
<i>honexetani/honetantxe</i>	<i>horrexetani/horretantxe</i>	<i>baina *harxetan</i>

Baina leku kasuetan:

<i>honexetani/honetantxe</i>	<i>horrexetani/horretantxe</i>
<i>honexetara/honetaraxe</i>	<i>horrexetara/horretaraxe</i>
<i>honexetatik/honetati(k)xe</i>	<i>horrexetatik/horretati(k)xe</i>

-xe kasu markaren aurretik nahiz atzetik ager daiteke, tokian tokiko erabileraren arauera. *Hartantxe* eta *bertantxe* esaten dugu beti, halere; ez **harxetan* edo **bertxetan*.

Era berean adberbioen sailean,

<i>hementxe</i>	<i>hortxe</i>	<i>hantxe</i>
<i>honaxe</i>	<i>horraxe</i>	<i>haraxe</i>
<i>honelaxe</i>	<i>horrelaxe</i>	<i>halaxe</i>

eta hemen ere,

<i>honelakoxel/honelaxeko</i>	<i>horrelakoxel/horrelaxeko...</i>
<i>honexenbestel/honenbestexe</i>	<i>horrexenbestel/horrenbestexe...</i>

3.1.2.3.2. *ber-*

Hau dugu zerbait berriro aipatzeko erabiltzen dugun elementua:

<i>berau/berori/bera</i>	<i>berauek/beroriek/beraiek</i>
<i>beronek/berorrek/berak</i>	

- (244) (a) Besorik ezpaleuko, *berau* dela esango nenke (E.I.H., 136)
 (b) Au lenengo seina izatego egoala, *beronen* amorde sorgina... (E.I.H., 126)
 (c) Egiunia egin eben ba, sosuak lortuteko txakurrari *beronek* nai eban gatzatu gustia (J.M.B., 249)

Berori errespetuzko izenordain bezala erabili izan da, aditza hirugarren pertsonan azaltzen zelarik. (Ikus Izenordainak).

3.1.2.3.3. *bera* izen sintagmaren bukaeran

Lehengo bi erakusle indartuak batipat bizkaieraz erabiltzen badira ere, hirugarren hau hedatuagoa da eta balio diferenteak izan ditzake. Hauxe dugu lehenbizikoa.

- (245) (a) Hasiapeneko *lagun berekin* niagok (Buruxkak, 114)
 (b) Fortunak nahi izan zuen, egun eta oren *berean* kausi zadin gizon bat *hide beraz* Azkaingo aldeja zohana (Eliss., 4)
 (c) Sagarde aren giderraz muñiko abil horri zurra-aldi ederrenaren ematen... Nahiko nian eman balio bertze lagun hari ere karatosa aldi bat ona, *sagarde gider berarekin* (Eliss., 30)
 (d) Denak adin berekoak ziren

Adibide hauetan *bera*-k adierazten digu aurretik doan izena bi bider aipatzen dela (nolabait esateko). Lehen adibidean, esaterako, hasieran sendia eta urlia lagunekin nengoen eta orain ere lagun horiexekin nagoela (ez beste batzuekin) adierazten dugu. Berdin gertatzen da bigarren adibidean ere: eman dezagun kontalaria Azkaina hilaren 24ean goizeko 8etan zihoala; *egun eta oren berean* esatean, beste gizon hori ere hilaren 24ean goizeko 8etan zihoala esan nahi da. Hau da, *bera*-ren aurretik doan izena ezaguna duen hori eta orain aipatzen zaiona bat bakarra direla adierazten diogu. (Edota *denak adin berekoak ziren* esatean, agian ez dugu jakingo konkretuki zein den adin hori, baina bai guztiek x adina dutela (10 urte, adibidez); ez batek 10 eta besteak 9 eta hirugarrenak 8 urte.

Zubereraz, izen sintagmaren muturrean azaldu ordez, izenaren ezkerretara azaltzen da *ber-*:

- (246) Ber gaiza erran (gauza bera esan)

Bestalde, iparraldean, *ber* erlatibozko perpaus baten ondoren ere azal daiteke, *-(e)n momentuan*, *-(e)n bakoitzean*... adierazteko.

- (247) (a) Errumeskian zen osoki haren zoriona. Bere atean bat *ikusten zuen ber...* besoak zabalduz altxatzen ziozkan (Buruxkak, 72)
 (b) Ezen, urruncrat *hautemaiten nuen ber*, ixilik jartzen nintzan, erdi ahalge, erdi izitua (Buruxkak, 27)

3.1.2.3.4. *beralberdin*

Gaur egun nahasian erabiltzen diren *bera* eta *berdin* bereizi behar genituzke, bakoitzak bere balio propioa baitu. Adibidez, erka ditzagun honako bi perpausok:

- (248) (a) Nere lehengusuaren eztaictara eramán nuen soineko berarekin joango naiz zureelara ere
(b) Zure alabak eta nereak soineko berdina dute

Lehen adibidean soineko *bakar* batez ari gara; soineko bakar hori da bi bider jantziko dudana. Bigarren adibidean, aldiz, *bi* dira eta bi horien arteko erabateko antza, *berdintasuna* predikatzen dugu. Bigarren perpaus hau beste modu batera esan nahi bagenu, honela egin genezake:

- (249) Zure alabaren soinekoa, nere alabarena bezalakoa da

Beraz, *bera*-k behin baino gehiagotan errepikatzen den objektu, pertsona... bakarra adierazten du. *Berdin*-ek ostera, objektu, pertsona... bat baino gehiago izanik, beraien arteko erabateko antza. Honenbestez, ezin genezake esan honako hau:

- (250) *Bi amek haur bera izan dute

Nork berea izan baitu dudarik gabe; bi haur, beraz, danera. Bai, ordea, beste hau:

- (251) Biok plater beretik jan dugu

(platera bakarra da eta biok plater horretatik jan dugu).

Era berean, emakume bakarra bada ezin dezakegu hau esan:

- (252) *Joan den astean harategian aurkitu nuen emakume berdina aurkitu dut gaur kalean

Beste hau, aldiz, ongi legoke:

- (253) Belarritako berdinak erosi dizkiete hiru ahizpei

3.1.2.3.5. *bera* aposizioa

Bera-k izen sintagma ere osa dezake, baina beste izen sintagma batekin aposizioan doan izen sintagma, izen sintagma honek hartzen duen mugatzaile eta deklinabide atzikia hartuz:

- (254) (a) Hanbatenaz ere zuzenkiago, non haurrak baitzuten *han berean*, bi urratsetan, erlisionezko irakaspenen hartzeko bidea (Buruxkak, 54)
 (b) Deabruari berari ere ez litzaioke horrelakorik bururatuko
 (c) Emakume honek beronek baditu beste bi alaba ere
 (d) Diodan zerbait Euskaltzaindiari berari buruz (Mitx., 223)
 (e) Hain duk ezazoi eta jori bere hizkuntzan non Angles garbick berek hunat jucarakin ikasi behar baitute (Buruxkak, 120)

Adibide hauetan *bera*, aurretik doan izena azpimarratzeko erabiltzen da, Euskaltzaindiari buruz esango zaigula zerbait, ez beste erakunde bati buruz adierazteko. Edota beste inora joan gabe han zuela erlijioa ikasteko aukera, eta abar.

Leku kasuetan (hots, *-n*, *-ra*, *-tik* kasu marka hartzen duten izen sintagmekin nahiz leku adberbioekin), *bera* beste izen sintagma batekin aposizioan doanean:

berean (*berera*, *beretik*) erabiltzen da Ekialdeko euskalkietan.
bertan (*bertara*, *bertatik*) Mendebalekoetan (Ik. Adberbioak).

- (255) (a) *Villeneuve*... Jabe bakar batena. Hau lenazko oihal fabrika baten buruzagi, han berean (Buruxkak, 181)
 (b) Diru guztia lapurtu zioten *herri hartara bertara* joan zen hurrengo urtean ere
 (c) *Etxe horretan berean* nere lagun handi bat bizi da
 (d) *Etxe horretan bertan*...

3.1.2.3.6. *hura* eta *bera*

Bera bakarrik ere azal daiteke izen sintagma osatuz. Horrenbestez erakuslearen, hirugarren pertsonako izenordain balioa izan dezakeenaren forma indartutzat har daiteke. Izenordainak uipatzean ikusi genituen honako hauek:

ni / nihaur, neu, nerau

hi / hihaur, heu, herori

Bera ere, bada, sail horretakoa litzateke:

hau/berau hori/berori hura/bera

(Baina lehen esan bezala, *berau* eta *berori* bizkaieraz izan ezik, oso gutxi azaltzen diren formak dira).

Eta nola jakin noiz erabili *hura* eta noiz *bera*? Dirudienez puntu honetan lege desberdinak aurki ditzakegu ekialdean eta mendebalean. Orohar, honako kasuok bereiz ditzakegu:

1. *Hau/hori/hura*, izenordain bezala, hirugarren pertsona (hots, ez hiztun ez entzule ez dena) seinalatzeko erabiltzen ditugu. Hirugarren pertsona hori eta erakuslea perpaus berean aurkitzen badira (kontutan izanik perpaus nagusiak eta bere mendeko perpausak, perpaus bakarra osatzen dutela), *bera* erabili ohi dugu (ez *hura*):

- (256) (a) Errege batek *berarengana* deitu eta esan zion (E.I.H., 175)
(b) Ac ustie dau ezlaguala *bera* leguezco Barberuric Bizcai guztijan (Moguel, 46)
(c) Hazpandarrak... plazaren ezin ezagutuz ari dira... Pilota, *berak* ez dakitelarik nola, bihurtzen dute aldi bakoitx ostatu sahetsari buruz (Buruxkak, 40)
(d) Beharbada ustie du Umandik erdalkeriak *bera* guxiago kutsatu duela Axular, Mogeldarrak edo Agirre Asteasukoa baino (Mitx., 85)
(e) Eta asto ortek, *beâri ei'zak urrea* esa'ezkco, urra eitte ementzôn (J.M.B., 269)
(f) Aita kirtenak sinistu ta arik laster alabca, erromeriara bear abela-ta... *beragaz* etxelik atara eban (E.I.H., 175)

Horrela, hor goiko adibideetan *errege*, *Umandi* eta *astoa* dira *bera* erakusle (izenordain) indartuak seinalatzen dituenak. Bigarren perpauscan, *bera*-k aldi berean beste erakusle bat seinalatzen du: *ac*. Azkenik, besteetan, azaltzen ez den, baina *bihurtzen dute* eta *atara eban* aditzen subjeto implizitu diren *hazpandarrak* eta *aita kirtena* seinalatzen ditu erakusle indartuak.

2. Erakusleak seinalatzen duen pertsona eta erakuslea perpaus desberdinetan azaltzen direnean. Kasu honetan bestalde, bi egoera bereiz ditzakegu:

a) Ekialdeko euskalkietan *hura* erabiltzeko joera nabari da halakoetan:

- (257) (a) Karno bere errotaren barteian bere aztapartez joka, ez nindaken ase *hari* beha egotezik (Buruxkak, 67)
(hari → Karno)
(b) Piarres Adamek niri erran istoriak, *hark* erran bezain ongi ezin ezarriko diudala zure begien aitzinean (Eliss., 8)
(hark → Piarres Adamek)
(c) Erregina arras eri da. Aspaldion mirikuak eztakite zer egin *hura* sendatzeko (E.I.H., 169)
(hura → erregina)
(d) Nere bi lagun lehen bizkaitarrak han zituan jadanik... Ohartu ninduan ez zela arbola hori *hek* bezperan erran zuten bezain estalia aranez (Eliss., 23)
(hek → bi lagun lehen bizkaitarrak)

b) Mendebaleko euskalkietan, *bera* erabiltzeko joera handiagoa dago, erakusleak seinalatzen duen hirugarren pertsona jadanik aipatua bada:

- (258) (a) Topau eben azerije, da esa'cutzen *berari* ia ondo einen pague zelan ixelen dan (J.M.B., 245)
(berari → azeria)
(b) Elcizaldeak bazekien... bi alde berezi dituela gure hizkuntza jasotzeko lanak. *Berak* 1918an Oinañin egin zuen hizaldi ezagunean (Mitx., 219)
(Berak → Elcizalde)
(c) Ez da zalantzarik Lizardigan... Alferrik bilatuko duzue *beragan* Europa eta mundu guztia dardaruzten hasia zen lur-ikararen berririk (Mitx., 226)
(beragan → Lizardi)
(d) Ez euki billurrik —esa emenzion neska jainkozko arek— dana bear bezela cingo'a ia. Esan bezela, *beak* lan guztie eifi da amaikak baño lèn opil bat motilleri ekarri emenzion (J.M.B., 276)
(beak → neska jainkozko arek)

Hala ere, *bera*-ren ordez *hura* erabili ohi dugu honako bi kasuetan.

1. *Bera*-k seinalatzen duen hirugarren pertsona aurreko perpausean aipatua izanarren, *bera*-ren antezedentea izan daitekeen beste hirugarren pertsona bat eta *bera* perpaus berean daudenean:

- (259) Deabrua sartzeko bere zakuen eginddu eutzen. Sartu zen, da Juan-soldaduak ikuen eskeititá imiñi eban. Da *areri* arrika eittuko aginddu eutzen eskola muñleri (J.M.B., 288)

Kasu honetan, *areri* erakusle (izenordaina) aurreko perpauseko *deabrua*-ri dagokio. Bestalde, *areri* dagoen perpauseko subjektua *Juan-soldadu* da. *Berari* erakusle (izenordain) indartua erabiliko bagenu, seinalatzen dena *Juan-soldadu dela* pentsatuko genuke. *Deabruari harrika egiteko agindu zien Juan-soldaduk eskola mutilei* da, ordea, hor duguna. Nahasketarik sor ez dadin, erakusle ez indartua azaltzen da.

2. Erakusleak *erakusten duen* pertsona gehiagoren arteko bat bada:

- (260) Ta gau artan eiztari átaكو besta'atek deittu ementzón etxekoandréñ bizi-tokiñ.
Baño ark ê, lênak bezala, leioa ezin itxik gaue pasau ementzón (J.M.B.,
273)

Ehiztariak bat baino gehiago izanik, haietako bat seinalatzeko, erakusle ez indartua erabiliko dugu.

3.1.2.4. Forma berrindartuak

Berau, *berori*, *bera* forma indartuei oraindik ere indar handiagoa eman nahi badiegu, aski dugu aurretik *ber-* erastea berriro ere:

- (261) (a) Zubia igaro ondoren, *berbertan* duzu gertokia
(b) Endañetak eta Perurenak iazko apustu *berbera* egin dute aurren ere

Beste hainbat hitzekin, errepikatzen ditugunean, gertatzen den fenomeno beraren aurrean gaude:

- (262) (a) Azal-azalcan
(b) Sakon sakonean
(c) Zuri-zuri

Errepika horrek indar handiagoa ematen die.

3.1.2.5. *ber-er* osatutako forma batzu

Klize bilakatuak dira. Hona batzu:

a) *Halaber* (= era berean):

- (263) Halaber, berauk erriari emaitetik xahu dela (Buruxkak, 122)

b) *Beraz* (bi perpaus lotzeko balio ilatiboaz):

- (264) (a) Teknika soilaren jabe egin garen euskaldunak itxuragaiztoko fabrikaz bete ditugu behinolako soro eta basoak. Saia gaitzen, *beraz*, kultura baten alde onez lehen bait lehen jabetzen (Mitx., 88)
(b) Hiru minutu besterik ez ditugu; *beraz*, bihar egingo ditugu ariketa horiek

c) *Berez* (beste inoren/ezeren laguntzarik gabe):

- (265) (a) Zauria *berez* ixten utzi behar zela esan zigun medikuak
(b) Literatura baten loraldietan izulpenak *berez* datoz gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala (Mitx., 83)

d) *Norbera*:

- (266) Norberak behar luke hori ikusi

e) *-xe + ber-*

Bi indartzaileak elkarturik ere aurki ditzakegu, enfasi handiagoa emateko:

- (267) (a) *Horixe berbera* pentsatzen dut nik ere
(b) *Hantxe berbertan* zerraldo jausi zen
(c) *Horkoxe bertako* seme batekin ezkondu zen
(d) *Horixe berori* egingo dut nik ere
(e) *Horixe berberori* egingo dut nik ere
(f) *Horkoxe bertoko* semearekin ezkondu zen

3.2. Zenbatzaileak

Badakigu iadanik izen sintagmetan zenbatzaileak ager daitezkeela euskaraz. Horrela, bada *ate* hitzari artikulua erants diezaiogegu:

- (268) *ate - a*

Edo, nahi izanez gero, zenbatzaile batez baliaturik osatuko dugu sintagma:

- (269) *bost ate*

Bar, bost, asko, anitz eta antzekoak zenbatzaile deituko ditugu, izena mugatzen duen zenbatasuna definitzen baitute. Ondoko lerrootan, hain zuzen ere, zenbatzaileez ariko gara.

Zenbatzaileak era desberdinetakoak dira. Horrela hiru motatako zenbatzaile hauek bereziko ditugu:

1. Zenbatzaile zehaztuak: *hiru, hamar* eta beste zenbaki guztiak.
2. Zenbatzaile zehaztugabeak: *zenbait, asko, gutxi* eta horrelakoak.
3. Zenbatzaile orokorrak: *dena(k), guztia(k), oro*.

Zenbatzaile hauek osatzen dituzten sintagma bestea aldetik, mugatuak edo mugagabeak izan daitezke. Horrela, zenbatzaile zehaztuak sintagma mugagabea (*bost ordots*) edo sintagma mugatua (*bost ordotsak*) ageriko dira. Zenbatzaile zehaztugabeek sintagma mugagabea nahi dute beti: *zenbait zaldi*. Eta, azkenekoz, zenbatzaile orokorrek mugatzaile singularra (*dena*) edo mugatzaile plurala eskatzen dute (*guztiak*). Eskema orokorra, esandako guztia kontutan harturik, honelaxe geratzen zaigu:

Zenbatzailea	Sintagma	
	Mugagabea	Mugatua
1. Zehaztua	<i>hiru neska</i> <i>hogeitamar oilo</i>	<i>hiru neskak</i> <i>hogeitamar oiloak</i>
2. Zehaztugabea	<i>zenbait ikasle</i> <i>berri guti</i>	- - - - - -
3. Orokorra	- - -	<i>etxe guztiak erre dira</i> <i>denak sartu ziren</i>

3.2.1. Zenbatzaile zehaztuak

3.2.1.1. Zenbatzaile zehaztuen lekua

Zenbatzaile zehaztuak (*bar* eta, batzutan *bi* izan ezik) izen sintagmaren ezkerrean jartzen ditugu:

- (270) (a) *Hogei*amar liburu
 (b) *An*xume *bat*
 (c) *Bi* hitz
 (d) *Hitz bi*

Ikus daitekeenez, eta geroago azalduko dugu puntu hau, *bat* zenbatzailea eskuineko aldean aurkitzen den bitartean, *bi* zenbatzailea ezker edo eskuinean ageriko da.

3.2.1.2. Euskal zenbatzaileak

Hauxek ditugu zenbatzaileak euskaraz:

1:	bat
2:	bi
3:	hiru
4:	lau
5:	bost, bostz
6:	sei
7:	zazpi
8:	zortzi
9:	bederatzi
10:	hamar
11:	hamaika
12:	hamabi
13:	hamahiru
14:	hamalau
15:	hamabost, hamabostz
16:	hamasei
17:	hamazazpi
18:	hemezortzi, hamazortzi
19:	hemeretzi
20:	hogei
21:	hogeitabat (edo <i>hogei eta bat</i>)
22:	hogeitabi (edo <i>hogei eta bi</i>)
30:	hogeitamar (edo <i>hogei eta hamar</i>)
31:	hogeitamaika
32:	hogeitamabi
40:	berrogei
50:	berrogeitamar

60:	hirurogei, hiruretan hogei
80:	laurogei, lauretan hogei
100:	ehun
101:	ehun eta bat
102:	ehun eta bi
200:	berrehun
300:	hirurehun (edo <i>hiru ehun</i>)
400:	laurehun (edo <i>lau ehun</i>)
500:	bostehun, bortzehun
600:	seiehun
1000:	mila
1200:	mila eta berrehun
1984:	mila eta bederatziehun eta lauogeitalau mila bederatziehun eta lauogeitalau
1.000.000:	milioia
10.000.000:	hamar milioi

(271) Mila bortz ehun eta berrogoy eta hamabortza zuan (Eliss.41)

Esan beharra dago 3 eta 4 zenbatzaileak deklinatzen ditugunean eta aldaki mugatuaren formak hartzen dituztenean *-r-* bat tartekatu behar dela. Horrela, *hiruretan* edo *lauretatik* esango dugu mugatuaren kasuan (eman dugun arrazoigatik) edo mugagabeen ere (*e* epentetikoa tartekatuz).

Kontutan izan, dena dela, zenbait hiztunek hedatu egiten duela *r* hau beste zenbakietara ere, baina hori euskara idatzian gaitzestekoa da. Hortaz, bada *seiretan*, *zazpiretan* eta antzekoak ez dira ontzat emango. Horien ordez *seieta*n eta *zazpieta*n dira forma zuzenak.

Bi zenbatzailearen parean baditugu ere *biga* eta *bida* (edo *bide*, Baztanen) aldakiak, baina hauek ezin dira sintagma baten barnean izen batekin agertu. Beti bakarrik agertu behar:

- (272) (a) *Biga asto
(b) Bi asto
(c) Biga etorri ziren
(d) Bi etorri ziren

Zenbatzaileen usuarioari dagokionez, badirudi zenbait esapide jator baztertzan ari garela, erdararen influentziagatik edo. Honela, bada, diruari buruz ari garela, ezin bazter ditzakegu gure herrietan hainbatetan entzundako formak:

- (273) (a) Mila pezetakoa (1000 pta.)
(b) Hamar durokoa (50 pta.)
(c) Bost durokoa (25 pta.)
(d) Bost ogerlekoa (25 pta.)

Gaur egun beste hau ere esan behar, noski:

- (274) (a) Mila durokoa (5.000 pta.)
(b) Mila ogerlekoa (5.000 pta.)

3.2.1.3. *Bat*

3.2.1.3.1. Horren lekua izen sintagman

Bat zenbatzailea izen sintagmaren eskuinaldean aurkituko dugu:

- (275) Etxe bat

Ez da horrelakorik gertatzen beste zenbatzaileekin:

- (276) Bost etxe

Hala ere, jakina denez, *bi* zenbatzailea ezker nahiz eskuinean jartzen dugu, euskalki edo estilo literarioen arabera:

- (277) Bi etxe

nahiz,

- (278) Etxe bi

Zenbaitetan *bat* zenbatzailea artikuluekin truka daiteke —geroago zehaztuko dugu kontu nahasi hau—, baina ez da horrelakorik gertatzen beste zenbatzaileekin. Beste zenbatzaile hauei, trukaketarik onartzen ez dutenez gero, artikulua erasten bazaie, delako izen sintagma hori mugatua gertatzen da; alegia,

- (279) Etxe bat = Etxea

baina,

(280) *Etxe bi* (mugagabe) ≠ *Etxe biak* (mugaua)

Nolanahi ere, puntu hau eztabaidagarri gerta liteke. Norma bezala, eta eman dugun arrazoiagatik (trukaketagatik), *etxe bat*-en ordeztu eta balio beretsuaz *etxea* esan daiteke, baina ez *etxe bata*, hau mugatua baita, *etxe biak* edo *bost etxeak* bezalaxe. Beraz *etxe bat* eta *etxe bata* ez da gauza bera:

- (281) (a) Aita batek ba omen zituen bi seme ta bi alaba. Alaba *bata* handia omen zen eta bestea, ordea, txiki txikia
(b) Nagusi batek bi *etxe* omen zituen. *Etxe batean* Aste Saindua pasalzen omen zuen, eta bestean, berriz, udako oporrak

(Azken adibide honetan sinkretismo osoa gertatzen da mugatu eta mugagabearen artean, *batean/batean* bereizketarik egin gabe. Euskalki askotan gertatzen da hau).

Berriki entzuna dugu ere (Unibertsitateko ikasturtea hasterakoan, Errektorearen hitzetan):

(282) ...hizkuntza bataren eta bestearen normalizazioa...

(edo antzeko zerbaitekin)

Literaturan ere ez dira adibideak falta:

- (283) (a) Nolacoac ordea? Araco Davidec esan zituen bezalacoac, chit asco-jakiflac, gau batak besteari alcar... (Larramendi, 5)
(b) Oraindaito sortu diran argiac izan dira argi au edo ori, argi bata edo bestea, argi illunago edo arrazago... (Larramendi, 2)
(c) Bada bakca eta bakca. Bake bata Jaungoikoarena da ta bestea etsai galgarriarena (Mendiburu, 301)
(d) Zenbat neke dakarten lan batak eta beste guziak badaki dakienak zein andia den gaitzerako gure grifa ta zein nagi astuna gauz onerako gure gogoia (Mendiburu, 304)
(e) Begiratu zion Apostol batak besteari ta galdetu zion: Au zer da? (Mendiburu, 321)
(f) Seme bata esolauba da, liburu zalia; badaqui erdera, ta eusqueratuten deuscuz, gaba igaroteco, iracurri dituban ipuinak, bafa ipuin onac, garbi ta iñoren calte bagacuac (Mogel, 95, 96)

Esan dugu *bat* zenbatzailea eta *-a* artikulua elkarrekin truka daitezkeela zenbait kasutan eta arrazoi horregatik *etxe bat*-en pareko edo kidea, *etxe bata*

ez, baina *etxea* dela. Hala ere *bat* zenbatzailea (*bat* zenbakia) izendatzen dugunengan *-a* erantsi behar zaio, izena baita, zenbaki baten izena, alegia:

- (284) (a) Hau *bata* da eta beste horko hori *bia*
(b) Hau *batekoa* (*edo bati*) da (kartortan ari garenean)

3.2.1.3.2. Izen berezietan

Izen bereziak deusik gabe jartzen dira gehienetan:

- (285) (a) Axularek ez luke horrela esango
(b) Altube biziko balitz!

Hala eta guztiz ere, batzutan *bat* zenbatzaileak laguntzen ditu:

- (286) (a) Altube bat biziko balitz!
(b) Axular batek ez luke horrela esango

Zer gertatzen da beste zenbatzaileekin? Ezaguna da, adibidez, Robert eta John Kennedy tiroz hil zituztela. Kontu kontari ari garelara, honela adieraz dezakegu hau:

- (287) (a) Badakit bi Kennedy tirokatu zituztela
(b) Badakit bi Kennedyak tirokatu zituztela
(c) Badakit Kennedytar bi tirokatu zituztela
(d) Badakit Kennedytar biak tirokatu zituztela
(e) Badakit bi Kennedytar tirokatu zituztela
(f) Badakit bi Kennedytarrak tirokatu zituztela

Kontura gaitezen goiko adibide horietan ez dagoela elipsisrik eta beste edozein zenbakirekin ere aldaketa berberak onerizgarriak direla. Gauza bera suertatzen zaigu beste kontuotan ere:

- (288) Bi Goenaga aurkitu ditut zerrenda honetan, baina ikus daitekeenez ezin dira anaiak izan, bigarren deitura desberdina dutelako

Bat zenbatzailea ez ezik beste zenbatzaileak ere erabil ditzakegu elipsia gertatzen denean:

- (289) (a) Marino Lejarreta bi Perurenari ere irabaziko lieke
(b) Bost Maradona baino hobea duzu Goikoetxea

3.2.1.3.3. Noiz erabiltzen da *bat*

Bat erabiltzen dugu, gutxi gora-beheranzko zenbatasuna adierazi nahi dugunean ere:

- (290) (a) Eta honelako ametsen batek gainerako euskal poeten gogoak, begien aurrean zuten edertasuna itsustuz, noiz edo noiz nahigabetu ez dituenik nola esan? (Mtx., 25-26)
(b) ...irazki nahasia eta urratua ehun ederragoren baten gai bihur daiteke goragoko Ehule haren eskuz eta arduraz (Mtx., 51)
(c) Gaurko gehiegikeriek zaharragoren bat izutzen badute, bada, har beza gogoan... (Mtx., 64)
(d) Badirudi gainera iratxo madarikaturen batek okertzen zituela (Mtx., 72)
(e) Orain, gaurko kritikari zitelen batek esaten badu *arnari ez da ezer*, erantzun jakina hartuko du (Mtx., 74)
(f) Bizkai-hizkerazko xokoren batean aditzen diren geban eta zaban-en aldean (Mtx., 82)
(g) Literatura, pintura, musika, eskubidezkoak uka eta arbuia ditzake Euskal herriko semeren batek (Mtx., 88)
(h) Ta beso guztia sartuta ibili zan iya zatien bat aurkitzen eban (Bustintza, 4)

Adibide guzti horietan ikus daitekeenez, *-en* atzizkia ezarri behar zaio *bat* zenbatzailearen aurrean dagoen izenkiari. Antzekoa geratzen zaigu, izenkiaren ordeaz beste zenbatzaile bat agertzen baldin bada:

- (291) Hirurogeiren bat urte daramatzagu batasunera bidean

Hala eta guztiz ere, azkeneko kasu honetan (*bat*-en aurrenean zenbatzaile bat agertzen zaigunean) ez da premiazkoa *-en* atzizki hori jartzea. Horrenbestez, goiko adibideak adiera bera du beste forma hau hartzen baldin badu ere:

- (292) Hirurogei bat urte daramatzagu batasunera bidean

Dena dela, eta esan bezala, izenkiren bat eta *bat* bera baldin badago aurrenean, beti jarriko da *-en* atzizkia:

- (293) (a) Ikasleren bat etorriko da
(b) Baten bat etorriko da (*bat edo bat* beste leku batzutan)

Berdin *batzu*-rekin ere:

- (294) Baten batzu etorriko dira

Kontura gaitzen *ikasleren bat etorriko da* eta *ikasle bat etorriko da* esanahi desberdineko esaldiak direla. Ez da horrelakorik gertatzen, ordea, *hogeiren bat etorri dira* eta *hogeit bat etorri dira* esaldien artean. Laburtzeko bada:

- (295) (a) *Ikasleren bat etorriko da* (bat, gutxienez, etorriko da)
 (b) *Hogeiren bat etorri dira* (guti goiti beheiti, 20 etorri dira)
 (c) *Hogeit bat etorri dira* (guti goiti beheiti, 20 etorri dira)
 (d) *Hogeit ta bat etorri dira* (21 etorri dira, juxtu juxtu)
 (e) *Ikasle bat etorriko da* (bat bakarrik etorriko da)

3.2.1.3.4. -tzu atzizkia

Adibideren batean agertu zaigun moduan -tzu atzizkia erants diezaiokegu *bat zenbatzaileari*, kolektibo bat sorreraziz:

- (296) *Oilar baizu ikusi ditut* (aditzaren komunatdurak plurala eskatzen duela)

3.2.1.3.5. Zenbait esakeratan ere bat

Bat zenbatzailea agertzen da zenbait lokuzio edo esakeratan: *bat edo beste, beste bat, baten bat, bapatean, bapatera, batek daki, batera, batez ere, bide batez, bat etorri*, eta abar.

- (297) (a) *Batek daki zer esan nahi duen horrek*
 (b) *Hitzzen hauzi hau ez da, nere ustez, ez hauzia ez ezer: ez luke behinik behin izan behar, pixkaren bat zentzatuko bagina* (Mitx., 78)
 (c) *Ez liguke batera kalterik egingo, nere ustez, lehen filosofiaren gailur agorrek pixka batez utziko bagenitu* (Mitx., 90)
 (d) *Beste alde batek, berriz, gaiaren aldeak...* (Mitx., 89)
 (e) *Batak, eta biak bat datoz honetan, ez omen ditu beti bestearen esanak ongi aditzen* (Mitx., 88)
 (f) *Ez gaitu, ez, kritika pixka batek, edo puxka batek, geure burua ukatzera orakarriko* (Mitx., 69)
 (g) *Gazteak kritika-zaleak agertu zaizkigu eta ni ere bat natorkie horretan* (Mitx., 68)
 (h) *Gure zinetako izatea, gure nortasuna, ez da gugan besteekin batera duguna* (Mitx., 17)
 (i) *...arifeleta baten joan zan bera be* (Bustintza, 4)
 (j) *Negar baten etorri zen*

3.2.1.3.6. *bat* eta *batzu*-ren deklinabidea

Bistan denez, *bat* zenbatzailea mugagabe balitz bezala erabiltzen dugu gehienetan. Antzera gertatzen da *batzu* zenbatzailearekin ere:

- (298) (a) Andre bat sartu zen
(b) Gizon batzu ikusi nituen

Hala ere, biek onartzen dute forma mugatua:

- (299) (a) Bata txikia zen, bestea handia
(b) Batzuk eskuz jokatzeko dute, besteek sarez

Kontua da deklinabideko forma guzti horiek ez direla homogeenak eta aldaki desberdinak agertzen direla usarioan idazle eta euskalkien arabera. Gramatikaren beste puntuekin gertatu zaigun bezala, hemen ere komenigarria ikusten dugu aldaki bat onartzea eta euskara baturako proposatzea. Gaur egun idazten diren testuak eta egin izan diren proposamenak kontutan hartuz, badirudi bi aukera ditugula:

a) *Bat* eta *batzu* deklinagaitzat hartu eta horiei, logikaren arabera, kasu markak ezarri. Edo bestela,

b) Jendeak hitz egiterakoan erabiltzen duena oinarritzat hartu eta hor nolabaiteko sistematizazioa aurkitzen saiatu.

Lehenbiziko aukeraren arabera, hauxe suertatzen zaigu:

<i>BAT</i>	
mugagabea	mugatua
<i>bat</i>	<i>bata</i>
<i>batek</i>	<i>batak</i>
<i>bati</i>	<i>batari</i>
<i>baten</i>	<i>bataren</i>
<i>batekin</i>	<i>batarekin</i>
<i>batentzat</i>	<i>batarentzat</i>
<i>batez</i>	<i>bataz</i>
<i>batean (batengan)</i>	<i>batean (batarengan)</i>
<i>bateako</i>	<i>bateko</i>
<i>batetara (batengana)</i>	<i>batara (batarengana)</i>
<i>batetatik (batengandik)</i>	<i>bateatik (batarengandik)</i>

BATZU

mugagabea	mugatua
<i>batzu</i>	<i>batzuak</i>
<i>batzuk</i>	<i>batzuek</i>
<i>batzuri</i>	<i>batzuei</i>
<i>batzuren</i>	<i>batzuen</i>
<i>batzurekin</i>	<i>batzuekin</i>
<i>batzurentzat</i>	<i>batzuentzat</i>
<i>batzuz</i>	<i>batzuez</i>
<i>batzuan (batzurengan)</i>	<i>batzuetan (batzurengan)</i>
<i>batzurako</i>	<i>batzuetako</i>
<i>batzutarra (batzurengana)</i>	<i>batzuetara (batzurengana)</i>
<i>batzutarik (batzurengandik)</i>	<i>batzuetatik (batzurengandik)</i>

- (300) (a) Sabelaldi batetakoak (Ax., 50)
 (b) Urihe batelako haurra zen Saul (Ax., 125)

Bigarren bidea aukeratuz gero, hauxe izango genuke:

BAT

mugagabea	mugatua
<i>bat</i>	<i>bata</i>
<i>batek</i>	<i>batak</i>
<i>bati</i>	<i>batari</i>
<i>baten</i>	<i>bataren</i>
<i>batekin</i>	<i>batarekin</i>
<i>batentzat</i>	<i>batarentzat</i>
<i>batez</i>	<i>bataz</i>
<i>batean (batengan)</i>	<i>batean (batarengan)</i>
<i>bateko</i>	<i>bateko</i>
<i>baterra (batengana)</i>	<i>baterra (batarengana)</i>
<i>batetik (batengandik)</i>	<i>bateik (batarengandik)</i>

BATZU

Batzu-ren kontua nahasiago agertzen da. Bigarren bide hau aukeratuz gero, ez genuke mugatu eta mugagabearen artean bereziko (nahiko artifiziala dirudi bereizketak) eta ondoko zutabe hauetako bat aukeratzea proposatzen dugu:

A	edo	B
<i>batzu</i>		<i>batzuk</i>
<i>batzuk</i>		<i>batzuek</i>
<i>batzuri</i>		<i>batzuei</i>
<i>batzuren</i>		<i>batzuen</i>
<i>batzurekin</i>		<i>batzuekin</i>
<i>batzurentzat</i>		<i>batzuentzat</i>
<i>batzuz</i>		<i>batzuez</i>
<i>batzutan (batzurengan)</i>		<i>batzuetan (batzurengan)</i>
<i>batzutako</i>		<i>batzuetako</i>
<i>batzutara (batzurengana)</i>		<i>batzuetara (batzuegana)</i>
<i>batzutatik (batzurengandik)</i>		<i>batzuetatik (batzuegandik)</i>

Nolanahi ere, argi gera bedi bigarren aukera honetan *bat* zenbatzailearen kasuetan bakarrik bereizten ditugula mugatua eta mugagabea; ez, ordea, *batzu* zenbatzailearenetan.

3.2.1.4. *bat* zenbatzailea eta *-a* artikulua

Badirudi gaur egungo euskara mintzatuan eta euskara idatzian ere, lehen hain ugari agertzen ez zen *bat*-en erabiltzeko joera dagoela. Bestalde, zenbait idazle beste muturrera joan dira eta *bat* ahalik gutxien erabiltzen saiatzen dira, haren ordeaz *-a* artikulua baliatuz. Gramatikek honetaz idatzi dutena arretaz aztertzen baldin badugu, oso arau ahul eta eztabaidagarriak direla ohartuko gara: arau horiek idazleek betetzen ez dituztelako; idazlea nor den, arauak berak desberdinak direlako; eta kontrako adibide ugari agertzen delako. Hori dela eta, aurretik esandakoa biltzen eta ordenatzen saiatuko gara ondoko lerroetan.

Bi motatako izenak ditugu euskaraz:

a) Zenbakaitzak edo kontaezinak: *haize*, *ohore*, *diru*, *hizkuntzalaritza*, *ardura*, *nekazalgo*, etab.

Badirudi horiek ezin direla kontatu egunoroko hizkeran, nahiz eta olerkian edo metafora gisara erabiltzeko aukera izan. Hemen, ordea, egunoroko mintzoaz ari gara.

b) Zenbakarriak edo kontagarriak: *liburu, pezeta, gizon, erloju, ate, etab.*

Badira beste zenbait, zenbakaitz nahiz zenbakarri izan daitezkeenak. Honela, adibidez, *sua* :

- (301) (a) Elurra eta *sua* gauza harrigarriak dira
 (b) Mendi hartan bi *su* piztu dituzte
 (c) Ez da... edozcin haizetok izal dezakeen *su* ahul bat besterik. (Mtx., 18)

3.2.1.4.1. Arau orokorra

Esan dezagun, bada, norma bezala, zenbakaitz diren izenek ez dutela artikulua besterik onartzen:

- (302) (a) *Hamar haize
 (b) *Bi ohore
 (c) Ez zuan beraz haurride guzietan bat talo egiteko ere on zenik, eta halere non zen irina, talo egiteko? (Eliss., 11-12)
 (d) Beraz, adinarekin ezagutza etborri zitzaitanean... (Eliss., 12)
 (e) ...esperantza izan balu bezala bideko lagun baten han ikhustea (Eliss., 4)
 (f) Fortunak nahi izan zuen... (Eliss., 4)

Alde, inguru, aurre eta antzekoak ere sail honetan sar daitezke:

- (303) (a) Aitzinean zohan gizonak bazituen oraino ehua bat urhats bedere egiteko... (Eliss. 4)
 (b) ...bertze aldean den erreka zolara yautsi baino lehen (Eliss. 4)
 (c) Egia da hurbildik edo urrundik Piarres Adame ikhusten zuena oharzen zela berchala gauza batez (Eliss. 6)

Hala ere, badirudi adjetibo bat sartzen dugularik tartean, norma hau ez dela hain hertsia:

- (304) (a) Egiten zuen haize bat... izigarria
 (b) Egiten zuen haize izigarri bat.
 (c) Espaniu handirekin mintzo zen bere sudurraz eta ohore handi bat zizaion (Eliss. 6)

- (d) ...erraten darot boz izigarri batekin: Nongoa haiz? (Eliss. 5)
- (e) Baina nekerik gabe egizta daiteke; nekerik gabe, gramatika jakite empiriko bat denez gero... (Mitx. 84)
- (f) Bestea, berriz, harritzekoa da nola moldatzen den adierazkizunik zailenak hizkera argi, zehatz eta —nere ustez— garbi baitaen adierazten (Mitx. 88)

3.2.1.4.2. bat gabeko zenbakarri batzu

Zenbaitetan, izenak zenbakarriak izanik ere, *bat* gabe ageriko zaizkigu, artikularekin. Hori gertatzen da balio jenerikoa dutenean, espezie osoa edo kontutan hartzen dugunean:

- (305) (a) *Animaliek* ez dute hizkuntzarik, gizonak ordea bai
- (b) *Nekazaria* beti dabil lurarekin borrokan
- (c) *Andrearen* eskubideak zapaldurik daude
- (d) *Kartzelan* sartu omen dute

Arrazoi berarengatik esplika daiteke *nolako* galdetzaileaz baliaturik egiten dugun galdera mugatua izatea, mota edo klaseari buruz galdetu dugulako:

- (306) *Nolako* mahaia erosi nahi zenuke? Egurrezkoa

Kontura gaitezen, balio *jenerikoa* deitu dugun hori aski aldakorra izan daitekeela, eta zenbait euskalkitan behintzat jenerikotzat jo daitezkeela beste euskalki batetako hitzunik konkretutzat har ditzaketen elementu berak:

- (307) *Chimista* bezala bide laburrez firindan errekazolara yausirik (Eliss.4)

Kasu honetan hitzun askok onartuko luke beste hau:

- (308) *Chimista* bat bezala...

Arrazoi beragatik honakook ere entzuten dira:

- (309) (a) *Bart* arratsean *azeria* etorri da
- (b) *Satorra* hasi da etxe aitzinean
- (c) *Basurdeak* zulatu digu berriz ere belardia
- (d) *Pasatu* da berriz ere *abioia*
- (e) *Arratoiak* egin du berrea
- (f) *Elorgakock* *tratorea* crosi dute
- (g) *Airegaiztoak* guardasola hautsi omen dio
- (h) *Zerriak* ez du batere dirurik egiten gaur egun

Horrela hitzegiten duenarentzat, noski, balio jenerikoa dute azpimarratu ditudan hitzek. Horrek ez du esan nahi beste modura esanez gero gaizki leudekeenik: adibide guztietan artikulua *bat* jar daiteke eta badirudi joera hori ari dela nagusitzen gaur egun:

- (310) Ikhusi duk, behinere, Pello, mendian, iratze edo othe-pean, epher familia bat alhan dabilala? (Eliss. 12)

3.2.1.4.3. *bat* eta *-a*-ren arteko oposizioa

Bat mugatzaile eta *-a* artikulua oposizioa erabiltzen dugu sarri askotan ez-ezagun/ezagun oposizioa adierazteko. Errealitateaz dugun ezagutzak munduarekiko informazio bat ematen digu eta informazio horren arabera uste baldin badugu aipatzen ari garen entitate bat bakarra dela, orduan ez dugu *bat* erabiliko, artikulua baizik. Adibidez: gure informazioaren barnean dago gizonak buru bat bakarra duela. Horrenbestez:

- (311) Buruan zeraman txapela

Normalean, badakigu ere txapel bat bakarrik erabiltzen dugula. Hortaz *txapela* eta ez *txapel bat*. Hala ere, horrek ez du esan nahi kasu hauetan *bat* jar ez daitekeenik, baina hori eginez gero, beste edozein zenbatzailearen balioa hartzen du:

- (312) Buruan txapel bat bakarrik eramane behar da, ez hiru

Badirudi kontu hau nahiko argi agertzen dela idazleen lanetan:

- (313) Hil-harrietara heldu naizenean, ikhusten diat elizako atean nere hainko edo hanchagoko haur multxo bat, liburu itiki batzuek eskuetan, sos galdetzen hari dircla mezara heldu diren yondori, DOMINE NE... errateko (Eliss. 13)

Munduarekiko ezagutzak esaten digu herrietan eliza bat bakarra dagoela edo gehiago izanik ere *elizara* joaten garenean beti eliza berera joaten gara. Elizak ate nagusia izaten du (hortik *atea*) baina, elizako atean haur multzo bat egon daiteke. Elizan *meza* ematen da (*goizeko meza*, *meza nagusia*, etab.) eta mezaren parte bat *sermoia* da. *Goizeko meza* eta *meza nagusiaren* artean beste mezaren bat egon liteke:

- (314) Goiz-mezatik lekora, meza-nagusia baino lehen, bazuan, dembora hartan, meza bat arteko meza deitzen zena (Eliss. 14)

Berdin esan dezakegu *aho*, *aurpegi*, *sabel* eta gorputz atalak adierazten dituzten izenez:

- (315) (a) Horrek badaki ongi aski *sabela* eta *sakela* betetzen
(b) Ahoan sartu zuen *zigarroa*

Gizaki bakoitzak *aho bat*, *aurpegi bat*, *sabel bat* dituela badakigu. Eta bakarrak diren neurrian, ezin *bat* erabili (beste edozein zenbatzailerekin trukaketa egiterik ere ez dagoenez).

Beste batzutan, testuinguruak, izenlagunen baten bidez edo, emango dio bakar izate hori (beraz, beste edozein zenbatzailerekin ezin erabili izatea):

- (316) (a) Iturengo arotzak egin zuen *gure herriko elizako dorreko ezkila*
(b) Gela hartan bildu ziren lau *langile* eta *Donostiako alkatea*

Hala ere, izen zenbakaitzez mintzatu garenean, ikusi dugu adjetiboren *bat* tartean baldin badago, *bat* mugatzailea sartzeko aukera dagoela:

- (317) (a) Egiten zuen *haize bat izugarria*
(b) Egiten zuen *haize izugarri bat*

Orain ere antzera gertatzen zaigu. Normalena izango litzateke honelako zerbait esatea:

- (318) Eraman zuen *pipa* *ahora*

Batek, erretzen ari denean, *pipa bat* bakarra erretzen duelako. Hala ere, begira adibide hauek:

- (319) (a) Bazuen ahoaren eskuineko *chokhoan pipa motz bat beltz-beltza*, *estalki hori batekin* (Eliss. 6)
(b) *Athorra bat bazuen soinean elhurra bezain churia* (Eliss. 5)
(c) *Aizincan kobrezko bothoin handi bat, hori horia* (Eliss. 5)

Ikus daitekeenez, alde zurretik dugun informazioak *bat* bakarrik dela esaten badigu ere (beste zenbatzailerik ezin sartu, orduan), adjetiboren *bat* agertzen baldin bada, *bat* jar diezaiokegu, emandako adibideetan ikus daitekeen moduan.

3.2.1.4.4. *bat* eta *anitz*-en arteko oposizioa

Bat zenbatzailea erabiltzen dugu *bat* / *anitz* oposizioa markatu nahi dugunean, hau da, beste edozein zenbaki jarri beharrean *bat* jarri nahi dugunean:

- (320) (a) Gela honetan mahai *bat* eta lau aulki sartzen dira
 (b) Galdera askoren artean batek kezkatu izan nau... (Mitx. 16)
 (c) Gernikako arbola iharraren sustriak ere, sator batek jan omen zituen (Mitx. 24)
 (d) Euskaldunik gehienok, guztiok ez bada, badugu gure barrendegian xoko urri eta apaindura gabeko bezain maiz *bat*: gure euskal baratzea (Mitx. 55)
 (e) Abuztua atsegin ez zitzaigulako, antzinako hitz galdu *bat ederturik...* dagonila sortu genduen (Mitx. 72)
 (f) (ez ote digu orainsu gramatikari ezagun batek erakutsi *izan bedi, izan bitez* hitanoz nola esan behar diren?). (Mitx. 73)
 (g) Bai, zerbait badira, baina galdera horrek beste *bat* zor du. (Mitx. 77)
 (h) Beste batzu oraindik lurralde eta lanbide berezi batekoak dira. (Mitx. 76)
 (i) Ez dut ordena berririk sortu, baina herritar batek sortu zuen Jesusen konpainia (Mitx. 68)

3.2.1.4.5. *bat*-en beste enplegua

Bat erabili behar dugu ixtorio *bat* konta kontari ari garenean, ixtorio horretako elementuak aurkezten ditugunean (aditza normalean iraganean agertzen zaigula):

- (321) (a) Errege *bat* bizi omen zen Patagonian
 (b) Aita batek ba omen zuen seme *bat*. Biak bizi omen ziren mendian zegoen herri koxkor bateko baserri edor baitan

Hortik aurrera *aita, herria, eta baserria* aipatuko dira *bat* gabe, aurkezpena egin dugunean ezezagunak genituelako, baina behin aurkezpena egin ondoren, gure informaziora pasatu direlako eta ezagunak ditugulako orain.

3.2.1.4.6. Dudazko kasuak

Badirudi beste kasu aunitzetan ez dagoela arrazoi garbirik noiz *-a* noiz *bat* erabakitzeko. Hala ere, aipatzen den entitatea ez-ezaguna denean eta, batez ere, *bat* horren orde *edozein* edo antzekoren *bat* sar badaiteke adierazkizuna gehiegi aldatu gabe, *bat* jartzen da:

- (322) (a) Gaurko euskaldun batek uler ditzake horrexegatik (Mitx. 86)
(b) Egun edo bihar (...) *naiza, haiza, eizan* idazten has banadi, aldeztetik ematen diot edozeini esku ero-etxe batean ongi estekaturik sar nazan (Mitx. 82)
(c) Erakus dizazkiogun orain hiru paradigmok ofizioko gizon bati (Mitx. 82)
(d) Horrelaxe artzain edo ikazkin bati ezartzen badizkiogu teologiaren edo fisikaren izkutu sakonak, jabetuko da gure hitzen mamiaz; ez, ordea, erdaldun ezjakin bat, erdaraz sail horietan erabili ohi diren hitzak badarabilzkigu (Mitx. 87)

Esandako guztiagatik argi aski ikus daitekeenez, *-a/bat* oposizioaren mugak zehaztea ez da batere kontu garbia, eta testuingurua, zenbakarri/zenbakaitz, ezagun/ez-ezagun eta beste aldagarri asko hartu behar ditugu kontutan. Dena dela, badirudi aipatutako kasuetan argiago dagoela bata edo bestea erabiltzeko joera. Laburtzeko, bada, hauexek dira kasuak:

-a erabiliko da:

- a) Izen zenbakaitzekin (hala ere, adjetiboarekin *bat* ere erabil daiteke).
- b) Izen zenbakarriak izanik, balio jenerikoa dutenean.
- c) Izen zenbakarriak izanik, ezagunak direnean aldeztetik aurkeztu zaizkigulako.
- d) Izen zenbakarriak izanik, gure informazioaren arabera *bat* bakarria delako mota horretakoa (adjetiboarekin *bat* ere erabiltzen da).
- e) Predikatu osagarrietan:

- (323) (a) Hau *irakastea* da
(b) Ni *gizona* naiz.

***bat* erabiliko da:**

- a) *Bat/anitz* oposizioan.
- b) Ixtoriorren *bat* kontatzen hasten garenean, izaki *bat* lehenbizikoz aipatzen dugunean:

- (323') Bazen behin mutiko *bat*

Beste kasu anitzetan kontuak nahiko ilun daude eta beste zenbait kasutan, azkenik, edozein erabil daiteke (-a edo *bat*, nahi bezala) txandakatuz. Esan dezagun, dena den, gaur egun *bat* ugaltzearen arriskua dagoela eta gehiegi hedatzen ari dela gure artean. Horrela erdaratik hartutako esakeren itzulpen zuzena entzuten da sarri askotan: *badut buruko min bat...* Gaizki dagoenik esan gabe, gure esateko modu jatorrak zaindu behar direla uste dugu: *nik dudan buruko mina, hau buruko mina*, etab.

Gauza bera gertatzen da partitiboaren ordeaz erabiltzen dugunean ere: *ez dut ardi bat aurkitu, liburu bat erosiko bazenu*, etab. Badirudi horiekin batera beste modu hauek ere erabili behar genituzkeela: *ez dut ardirik aurkitu, ez dut ardi bat ere aurkitu, ez dut ardirik aurkitu bat ere, libururik erosiko bazenu*, etab.

3.2.1.5. baso bat ur eta antzekoak

Batzutan, oso erabilera bitxia dute zenbatzaileek euskaraz eta sarritan, orain iruzkintzen ari garen esakera hauek ez dira zuzen erabiltzen. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

- (324) (a) Baso bat ur
(b) Baso bat ur hotz
(c) Hiru litro ardo
(d) Hiru litro ardo gorri

Goiko adibide horietan azpimarraturik agertzen dena da, hain zuzen ere, eskatu nahi dena. *Ura* nahi baldin badugu, eta ur hori *hatza* izatea nahi izanez gero honela eskatuko dugu:

- (325) Baso bat ur hotz

Bestalde, *basoa*, *botilla* edo *edontzia* bera, nahiz hutsik, behar baldin badugu, ez dugu kontutan hartuko zertako edo nolako basoa den hori:

- (326) Edontzi bat

Edontzi hori *ura* edatekoa baldin bada, edontziaren kalitate bat azpimarratzen da, baina orduan hitz konposatu soila dugu aurrean:

- (327) Ur edontzi bat

Edontzi hori ura edatekoa dela badakigu (beharbada *ur-edontzi bat* argiago legoke), baina noiz behinka ardoa edateko ere erabil genezake:

(328) Edontzi bat ardo

Eta hitz-jokoak eginez urruntxoago ere joan gitezke:

(329) Ur-edontzi bat ardo emadazu

Adibide honek honako hau esan nahiko luke: *Emadazu baso bat ardo, baina ur baso batetan, mesedez, Emadazu ardoa, ura edateko erabiltzen dugun baso batetan.*

Kontura gaitzen erabilera hau ez dela *bat* zenbatzailera mugatzen eta berdin berdin esan daitekeela beste hau ere:

- (330) (a) Sei kilo kafe
(b) Hiru baso ur
(c) Bost litro ardo
(d) Laurden erdi bat olio

Antzeko erabilera dute beste esakera modu hauek ere:

- (331) (a) Dozena bat porru
(b) Dozena bat arraultze

Horrela, bada, baztertu behar genituzke, *porru dozena bat, arraultze dozena bat* eta antzekoak. Esanen arabera ez dira gauza bera,

- (332) (a) Kamioi bat esne edango luke horrek
(b) Botila bat txanpan edan du minutuan

eta beste hauek:

- (333) (a) Esne-kamioi bat irauli da
(b) Txanpan-botila bat lehertu dio buruan

Esapide hauek dira, hain zuzen, izena zenbakaitza denean, edo, nahiz eta zenbakarria izan, masa modura hartzen denean, erabiltzen ditugunak:

- (334) (a) Basokada bat olio (edo *basokada olioa* ere)
(b) Kamioi bat harri

Halaber, *bete* ere erabiltzen da:

- (335) (a) Kolkoa bete diru
(b) Basoa bete esne (*baso bete esne*)

Hauetan denetan, galdera hauei erantzuten zaie:

Zenbat olio / harri / esne / diru ?

Berdintsu beste hauetan ere: *urte bat*, *urtebete*, *hilabete egon zen*, *hilabete bat egon zen*, *aste bat*, *astebete pasako dut*, etab.

Laburtzeko, bada, hauxe esan genezake:

- (336) (a) Lau esne-ontzi
(b) Ur-baso bat
(c) Hiru esne-kaiku
(d) Lau ardo-botila...

Hitz konposatu soilak dira horiek eta beste edozein izen sintagmak bezalaxe jokatzen dute. Ordinala hor *ur-baso bat* artikulua da bete betean eta horren ordez beste artikulua (-a) ere ipin daiteke: *ur-basoa*, eta plurala ere bai, noski: *ur-basoak*.

Aldiz *baso bat ur*, *litro bat esne*, *kilo bat haragi*, *bost litro ardo* eta abar *Zenbat...?* galderaren erantzun dira. Mugagabe dira —artikuluarik ezin har, beraz— eta horrenbestez *Litro bat esnek zenbat balio du?* galdegin behar da. *Bat* hori (edo bi, edo hiru, edo lau...) ezin ordezka daitezke, beraz, artikuluekin.

Zer gertatzen da izenondoa erasten diogunean? Hona nola dioen Leizarragak:

- (337) Boire bat ur hotz huts (Leiz, Ml. X, 42)

Eta nola esan behar da :

- (338) Bost litro ardo baino gehiago.

ala

- (339) Bost litro baino gehiago ardo?

Bigarren hau hobeki dela iduri luke. Zaharren ahoan behin baino gehiagotan entzuna izanaz gainera, hona hemen zer dioen Leizarragak:

(340) Hamabi legione baino guchiago aingueru (Leiz. Mt. XXVI, 53)

3.2.1.6. *bi*

Bi zenbatzaileak, esan bezala, aldaki batzu har ditzake bakarrik doanean:

- (341) (a) *bi*
(b) *biga*
(c) (*bia*)
(d) (*bida*)

Hala eta guztiz ere, ez dugu esanen:

(342) **Bia* etxe

baizik eta,

(343) *Bi* etxe

Horregatik, *-a* hori artikulua izan daiteke edo ez:

- (344) (a) Erranen darozkiat bihar bidean, nere gaztetasuneko historio eder bat edo *bia* (Eliss. 32)
(b) Hunat ethorriko diuk Zugarramurdiko hauzaphoza, eta haren lagun bat edo *bia* (Eliss. 44)

Goiko adibide horietan, noski, *bi* honek ez darama mugatzailearik. Erne egon behar dugu *bia* mugatzaileaduna eta *bia* artikulugabea nahas ez ditzagun:

- (345) (a) *Achut* oihu egiten duclarik eta *bi* begi handi idekitzen dituelarik (Eliss. 5)
(b) ...emazteki horrek, sakela handi batetik atheraturik, ematen zarotak bi-sosko bat (Eliss. 14)
(c) Pello, bi-sosko madarikatu hura, ozagut nezakek oraino balitz ere bortz ehunen artean (Eliss. 14)

Jakina denez, bestaldetik, *bi* zenbatzailea izenaren eskuinaldean joaten da zenbait euskalkitan:

(346) Lapur birn ordian

Baina, nahi izanez gero, beste zenbatzaileen modura, ezkerreko aldean ere ikusiko dugu:

(347) Bi etxetako zakurra

Ez da horrelakorik gertatzen beste zenbatzaileekin:

(348) Bi Saratarrek hegastin hoyen hegala eta izter osoak iretsi zituztela, deskantsurik ederreanean, bi zugarramurdiarrek doi-doia hegala punta bat edo bira bakotzak churgatzen zituztelarik (Eliss. 46)

3.2.1.7. Gainerako zenbatzaileak

Beste zenbatzaile guztiak izenaren ezkerreko aldean jarriko ditugu:

(349) (a) Eta kontseiluko hiru gizonak erran zutela goraki eta paperean ezarri (Eliss. 7)

(b) Badik, Pello, hirucan hogoi-eta hamar urte Piarres Adamek lehen aldikotz, ikhusi zuela argia (Eliss. 11)

(c) Piarresek galdegin zuen hiru sosen edari azkarra bi baso flakoetan eta ni, ustez bi basoetarik bat nerretzat galdetzen zuen, ausartatu nintzencan erratera: *Milesker, Piarres, ez dut edanen* (Eliss. 19-20)

(d) Ezen hamaka urhetan, irakurtzen nitian aski pulliki, ba eta franko ederki (Eliss. 21)

(e) Bihotz honak obeditu nahi ez badu, lau edo bortz gizonak makhila mehetto bauekin, eman dezotela zurra aldi bat onra (Eliss. 35)

(f) Astelehen arratsalde hartan... hiru errege-bideak gizonen estaliak (Buruxkak, 37)

Sei zenbakia baino txikiago diren zenbakiekin, halere, hiru modutara adieraz daiteke gutxi gora beheranzko zenbatasuna:

a) *Bi edo hiru*

Hiru edo lau

Lau edo bortz, etab.

(350) (a) Piztu zituencan bi edo hiru argi, (ez nauk orhoitzen zembat, ikusi bainituen gero hogoi eta hamar bedere) (Eliss. 14)

(b) Adiskide Haranchipi, zaro faltarik gabe, lagun bat edo biekkin (Eliss. 43)

(c) To, hik baino lo gehiago egin diat beraz; ezen egin ditiat bortz edo sei bedere... (Eliss. 38)

(d) Bihotz onez obeditu nahi ez badu, lau edo bortz gizonek makhila mehetto batekin eman dezotela zurra aldi bat ona (Eliss. 35)

(e) Gero sartu ginen, lauak batean, lerro-lerro, Olhetako plazan, erran nahi baita hiru edo lau etche gisakocn artean (Eliss. 31)

(f) Nere gizonari hurbil nintzen, bainan oraino bortz edo sei urratsez gibeletik (Eliss. 4)

b) *Edo* hori ez dugu nahi eta nahiezkoa:

(351) (a) Hiru lau andre

(b) Lau bost urte

(c) Zazpi zortzi berro berri nahi nituzke ezarri

c) *Edo* hori sartzeaz gainera, bada go beste modu jator bat ere oso erabilia eta erabili behar dena:

(352) (a) Bizpahiru

(b) Bizpahirulau

(c) Hiruzpalau

(d) Lauzpa bortz

(e) Bospasei

(f) Lauzpasoi

Sei zenbakitik goranzko gainerako zenbakiekin *edo* erabili behar dugu: *zazpi edo zortzi* besterik ez zen bildu.

Batzutan, hala ere, ken daiteke *edo* hori *bar* esaten baldin badugu azkenean:

(353) (a) Hamar hamabi bat porru erre genuen

(b) Zortzi hamar bat ertzain sartu ziren dantzalekuan

Hurbilezko zenbatasuna bestela ere adieraz daiteke:

(354) (a) Hogeiren bat

(b) Hogeit bat

(c) Hogeit lagun hurbil

(d) Hamabi hurren bat

(e) Hogeit lagun inguru

(f) Lauretan hogeit urte eskas

(g) Hogeit eta gehiago gizon

(h) Ehun eta zenbait ardi

Zenbatzaile batek mugatutako izen sintagma inesibo kasuan agertzen baldin bada eta *noiz* galderari erantzuten baldin badio, nahiz eta esanahiez plurala izan, erakuslea singularrez ere har dezake:

- (355) (a) Azkeneko hamar urte honetan
(b) Orai trenka ditzagun bi ezlabada, Frantzia anitz urte hontan nahasia daukatenak (Buruxkak, 58)
(c) Hogei egun hartan hitzartua zuten partida (Buruxkak, 37)

edo,

- (356) (a) Azkeneko hamar urte hauetan
(b) Zenbait urte hotan nahasirik dabilza oraino bazterrak (Buruxkak 59)
(c) ... ikusten bertzelde sortzekak hogeit urte hotan geroago gutituz doazila (Buruxkak, 55)

Dena dela, galdera hori *non* baldin bada (eta ez *noiz*) komunztadura pluralaz eginen da:

- (357) Azkeneko hiru herri hauetan

ez, ordea,

- (358) *Azkeneko hiru herri honetan

Antzera gertatzen da beste kasuekin ere:

- (359) (a) Azkeneko hiru urte hauek
(b) *Azkeneko hiru urte hau

3.2.1.8. Balio enfatikoa duten zenbatzaileak

Zenbait zenbatzailek balio enfatikoa du euskaraz eta plurala adierazteko ere erabiltzen ditugu: Lafitteren gramatikak *bi*, *bortz*, *zazpi*, *hameka*, *hogoita* *bortz*, *ehun* eta *mila* aipatzen ditu. *Biga bostetan* ere esaten da Zuberoan:

- (360) (a) Bost negar egiteko nonbait jaio ginen...
(b) Hamaiika aldiz esana dago hori
(c) Bereak eta bost eman zizkion
(d) Bereak eta bi esan zizkion
(e) Mila bider esan dizut, gizona, eta berriz ere hori
(f) Bi berri paratuko ditut

- (g) Bai bost!
- (h) Agur t' erdi
- (i) Kestione horrek badu hainitz korapilo, hainitz gora behera eta goiti beheiti, kestione horrek merezi ditu hameka pentsamendu eta hogoiu-bortz gogoeta (P.I., 74)

Mila ere agertzen da eskerrak ematen ditugunean:

- (361) (a) Mila esker
- (b) Esker mila

Badirudi ohiturak aldatzen ditugun arabera aldatzen dela zenbaitetan hizkuntza bera ere eta herriak erabili ohi dituen *hamaiketakoa* (edo *hamarretakoa*) eta horrelako horiek ahazten ari garela:

- (362) Hameketakoa zela gauza bat egiten zena, ez behi chuchen hameka orenetan, bainan ahal zencan (Eliss. 19)

3.2.1.9. Orduak

Orduak adierazteko aldaki asko aurkituko ditugu Euskal Herrian. Hala ere, hedadura eta sistematutasunari bagagozkio, badirudi ondoko hauek erabili behar genituzkeela:

- | | |
|--------------------------------|-----------------------------------|
| (363) ordu bata | ordu batcan |
| ordu bata eta bost | ordu bata eta boste(t)an. |
| ordu bata eta laurden(a) | ordu bata eta laurdenetan. |
| ordu bata t' erdiak | ordu bata t' erdietan. |
| (ordu) biak | (ordu) bietan |
| (ordu) biak laurden gutxi(ago) | (ordu) biak laurden gutxi(ago)tan |
| hirurak (hiru orenak) | hiruretan (hiru orenetan) |
| laurak | lauretan |
| bostak | bostetan |
| seiak | seietan |
| zazpiak | zazpitan |
| zortziak | zortzietan |
| bederatziak | bederatzietan |
| hamarrak | hamarretan |
| hamarrak eta bost | hamarrak eta boste(t)an |
| hamarrak eta laurden | hamarrak eta laurdenetan |
| hama(rak) eta laurdenak | hama(rak) eta laurdenetan |
| hamar t' erdiak | hamar t' erdietan |
| hamaikak | hamaiketan |
| hamabiak | hamabietan |

Eguneko hamabiei *eguerdi* edo *eguerdia* esaten zaio eta gauekoei, berriz, *gauerdia* edo *gauerdia*. Ikusten ahal denez, mugatzailea jar daiteke edo ez jarri. Bestalderetik, *eguerdian* edo *eguerditan*, biak onartzen dira.

(364) Eguerdia da; joan zaituz etxera

Dakigunez, *non* galderaren parekoa dugu *noiz* galdera eta biek morfema bera daramate:

(365) (a) Mendian egon naiz (*non*)
(b) Hamarretan etorzen naiz (*noiz*)

Gauza bera gertatzen da *nondik/noiztik* bikotearekin ere:

(366) (a) Menditik etorri naiz (*nondik*)
(b) Hamarretatik nago hemen (*noiztik*)
(c) Hamarretarik nago hemen

Nora galderarekin, hala ere, ez da berdina gertatzen, *nora*-ren parekoa *noiz arte* baita. Horrenbestez:

(367) (a) Noiz arte egongo zara?
(b) Laurak arte egongo naiz

Kontura gaitezkeenez, gaur egun biak erabiltzen ditugu:

(368) (a) Hamarretatik bostetara
(b) Hamarretarik bostetara

edo,

(369) (a) Hamarretatik bostak arte
(b) Hamarretarik bostak arte

Biak ongi daude, baina bigarrena erabiltzea eta bultzatzea gomendatzen dugu, hobeki baitagokio euskararen jatorriari. (ikus Deklinabideko kasuak).

Ekialdean, bestalde, Mendebaldeko *ordu* delakoaren ordez *oren* erabiltzen dute. Hala nola

- (370) (a) Biharamun goizean, zazpi orenak ez ziren urrun behar izan ni azarri nintzenekotz (Eliss., 37)
(b) Dathorla herriko-eicheko salara hamar orenak baino lehenago (Eliss., 43)
(c) Bazihoak herriko etchera hamar orenak baino lehenchago (Eliss., 43)
(d) ...bi oronetako ikus zitazken hiru erregebideak... (Buruxkak, 37)
(e) Lau orenak hirian agertu ziren... (Buruxkak, 38)

3.2.1.10. Urteak eta data

Urteak aipatzen ditugunean ez da beharrezko *-a* erastea. Honela 1983 urtea, adibidez, bi modu hauetara esan daiteke, nahiz eta erabiliena lehenengoa izan:

- (371) (a) 1813: mila zortziehun eta hamahiru (bakarrik agertzen denean)
(b) 1813a: mila zortziehun eta hamahirua (perpauis baten barruan)
(c) 1813garrena: mila zortziehun eta hamahiru garrena.

Data oso osorik jartzen dugunean, urtea adierazten duen zifrari *-ko* erantsiko zaio, *-en* hilabeteei eta *-an* egunari:

- (372) 1983.1.21ean: 1983ko urtarrilaren hogeitabatcan

Nolanahi ere, artikulua bakarrik ere erabil daiteke, baina orduan zenbakiez idatziriko zifran ere agertuko da:

- (373) 1983.1.21a: 1983ko urtarrilaren hogeitabata

Gutunetan eta horrelakoetan, inesibo kasuan (*non* kasua) paratzen da eguna. Horrenbestez:

- (374) Durangon, 1983ko martxoaren hogecian

Oraingoan ere, zifretan jarriz gero, laburpenak ondo eman behar dira:

- (375) Durangon, 1983.3.20an

Kontu eduki behar da ere urtea izendatzerakoan, azken zenbakia kontsonantez edo diptongoz nola amaitzen den, *-ko* edo *-eko*, *-an* edo *-ean* gaineratzeko:

- (376) (a) 1981eko - 1981ean
(b) 1982ko - 1982an
(c) 1983ko - 1983an
(d) 1983garrenko - 1983garrenean
(e) 1985eko - 1985ean

Zenbaki eta atzikiaren artean ez da beharrezko ezer ere jartzea; horrela *1983ko* idatzi beharrean *1983.ko* jartzen baldin badugu, ez dago ongi. Puntu horrek, hain zuzen ere, *-garren* adierazi nahi du eta horrexegatik (kontsonantez amaitzen denez) honela idatziko dugu: *1983.eko* (edo *1983.go*), edo *1983.ean*, ordinalez aritzen garenean ikusiko dugun bezala. Beraz:

- (377) (a) 1983ko...: mila bederatzichun eta laurogeitahiruko
(b) 1983.ean: mila bederatzichun eta larogeiahirugartenean

Au diptongoa ere kontsonantetzat hartu ohi denez gero, loturazko *-e-* bat jarriko dugu hurrengo segmentua kontsonantea baldin bada:

- (378) (a) 1983ko otsailaren zazpian etorri zen
(b) 1984can

Hila eta eguna bakarrik azpimarratu nahi direnean, bi modu ditugu:

- (379) Urtarrilaren 20a

nahiz,

- (380) Urtarrilak 20

honelaxe irakurtzen ditugularik:

- (381) (a) Urtarrilaren hogei
(b) Urtarrilak hogei (beti zerbaiten aposizioan eta kasu-markarik hartu gabe)

Erreferentziatzko eguna hileko lehenbiziko egunari dagokionean, bitara esan daiteke:

- (382) Martxoaren bata

edo,

- (383) Martxoaren lehen

Esandako guztia kontutan hartzen dugula, bada, honela jar dezakegu data:

- (384) 1) Durango(n), 1983ko martxoaren 7an
2) Durango(n), 1983, martxoak 7
3) Durango(n), 1983, martxoak, 7a
4) Durango(n) 1983, martxoak, 7
- (385) (a) Beraz azilaren lehen eguna zuan (Eliss., 13)
(b) Piarres Adame, bere aita eta amaren semea, sortua Saran, maiatzaren 14an mila-zazpi-chun eta hirucan-bogoi-eta hamazazpian (Eliss., 11)
(c) Mila bortz chun eta berrogoy eta hamabortza zuan (Eliss., 41)

Norbaiten adina adierazi nahi denean bitara egin dezakegu:

- (386) (a) Hamar urteko haurra
(b) Hamar urteko haurra

Urte bat bakarrik baldin badu, ordea, ken daiteke *bat* hori:

- (387) (a) Urteko haurra (*soseko xirula* diogun modura)
(b) Hogoy urteko mutil gazte batek (Eliss., 19)
(c) Urte bateko haurra zen Saul (Ax., 125)

nahiz,

- (d) Urtebeteko haurra

3.2.1.11. Frakzioak

Frakzioak zenbakiak direla bide aurkezten ditugu:

$1/2$	—————	<i>erdi</i>
$1/3$	—————	<i>heren</i>
$1/4$	—————	<i>laurden</i>

- (388) Hiru miloi laurden galdu zituen pelotalekuan (750.000 pt.).

Horrela, *ordu erdia*, *gazta erdia*, *ordu laurdena*, etab. erabiliko dira.

Bost zenbatzailerik gora, bide desberdinak ditugu frakzio hauek adierazteko. Horrela $7/10$ frakzioak, adibidez, irakurketa guzti hauek izan ditzake:

- (389) (a) zazpi hamarren (zientzietan erabiliena)
(b) hamarretik zazpi
(c) hamarretatik zazpi
(d) hamarretarik zazpi
(e) hamarreko zazpi

Antzera gertatzen zaigu $\frac{2}{5}$ frakzioarekin ere, zein honela irakurriko baitugu:

- (390) (a) bi bosten (zientzietan erabiliena)
(b) bostetik bi
(c) bostetatik bi
(d) bostetarik bi
(e) bosteko bi

Konturatzen garenez, eta zenbakiaren ordenari bagagozkio, antzera aurkezten ditugu euskaraz eta erdaraz. Hala eta guztiz ere, ez zaigu hori gertatzen portzentaien kasuan:

- (391) %5 ——— ehuneko bost (irakurriko da)

Ehunen eta milaren erabil daitezke centésima eta milésima adierazteko.

Dena dela, ongi berezi behar ditugu itxuraz oso antzeko direla irudi dezaketen espresio hauek:

- (392) Liburu erdia irakurri zuen

nahiz,

- (393) Liburuaren erdia irakurri zuen

Beraz, liburu baten erdia irakurri dela adierazzi nahi da. Ez, ordea, hurrengo kasu honetan:

- (394) Liburuaren erdiak irakurri zituen

Bigarren adibide honetan, liburu multzo batetik, multzo honen erdia edo irakurri duela adierazi nahi da. Ideia hau beste moduetara ere eman daiteke:

- (395) (a) Liburuetatik erdiak irakurri zituen
(b) Liburuetarik erdiak irakurri zituen
(c) Libururik erdiak irakurri zituen

Hala ere, *liburu erdiak irakurri zituen* baldin badiogu, beste zerbaiz adierazi nahi dela dirudi: liburuak erdizka irakurri zituela, liburu bakoitzaren erdiraino baizik ez zela iritsi.

Beste zenbait adibide jarritz:

- (396) (a) Ganbaran dauzkagun sagarretatik erdiak usteldu egin zaizkigu
(b) Euskararentzat diren diruetatik erdiak Bilbo aldetik, euskara ez dakitenen eskuetatik, datoz
(c) Ahopean esaten ditu berberik erdiak...; lotan ematen ditu ordurik erdiak.

3.2.1.12. Zenbatzaileen deklinabidea

Bi zenbaitik aurrera plurala ere har dezakete zenbatzaileek:

- (397) (a) Biak etorri ziren (*bi ertzainak etorri ziren*)
(b) Bostak sartu zitzaizkigun oharu gabe (*Bost ertzainak sartu...*)

Ez dago esan beharrik deklinabideko edozein kasuren morfema hartzeko gai direla zenbatzaileak:

- (398) (a) Hirurak bien kontra
(b) Biak hiruren kontra

Edo, jatorrago esanik (Lafitteren adibideak).

- (399) (a) Biak ari gara hiruei (biak hiruren kontra. Mugatua)
(b) Biga ari gara hiruri (Bi hiruren kontra. Mugagabea)

Ikus daitekeenez, *bi*-tik gorako zenbatzaileek, zuzenean, izendatzen ditugunean izan ezik, plurala ere hartu behar dute:

- (400) (a) Bietan etorriko naiz
(b) Peru eta hirurok egingen dugu hori

Baina, ingurune batzutan pluralik gabe jartzea jatorrago izan daitekeela dirudi:

- (401) Azkeneko hamar urte honetan

Zenbatzaileen deklinabidea dela eta, kontutan hartu behar dugu *lau* zenbakia *-au* diptongoaz bukatzen denez gero, kontsonanteen ereduarekin batera sartu beharko dugula:

- (402) (a) Zein lauek (eta ez, **zein lauk*)
 (b) Zein lauetan (eta ez, **zein lautan*)

Esan dezagun, dena den, arau hau euskara batuan erabiltzeko gomendatzen dugula, zenbait euskalkitan ez baita oso osoan betetzen. Bergaran, adibidez. (*lauan* eta *lauean* bereizten dituzte, *en la llanura* eta *en el cuatro*).

3.2.1.13. Nola izenda zenbatzaileak

Zenbatzaileak izendatzerakoan, joera dago artikulua erasteko beti:

- (403) Zein zenbaki da hau: *bia* ala *hirua*?

Orduan, bada, artikuluekin batera izendatuko ditugu zenbakiak:

<i>bat</i>	—	<i>bata</i>
<i>bi</i>	—	<i>bia</i>
<i>hiru</i>	—	<i>hirua</i>
<i>lau</i>	—	<i>laua, etab.</i>

Kontura gaitzen 2 zenbatzailea izendatzerakoan, *bia* esaten dugula eta ez *biga*, *bidea*, etab. Horrenbestez, hauxe dugu eskema:

<i>bat</i>	—	<i>bata</i>
<i>bi</i>		
<i>bida</i>	—	<i>bia</i>
(<i>bide</i>)		
(<i>biga</i>)		
<i>hiru</i>	—	<i>hirua</i>
<i>lau</i>	—	<i>laua</i>

Idazterakoan bakarrik ez ezik, zenbakiak zuzenean erabiltzen ditugunean ere erants daiteke artikulua:

<i>5a</i>	—	<i>bosta</i>
<i>6a</i>	—	<i>seia</i>

Artikulu hori zenbakiari joa jarriko da, adibideetan ikusten den legez. Artikulua jarriko diogu ere zenbatzaileari izendatu nahi dugun aldiro:

- (404) (a) Hau *bia* da
(b) Hau *2a* da

Hala eta guztiz ere *0* (*cero*) zenbakiarekin erabiltzen ditugun bi joerak ontzat eman daitezke: *huts* eta *zero*; kontutan hartuz, hori bai, beste zenbakiarikiko paralelismoa ongi zaindu beharko dugula:

- (405) (a) *Hauk* *bia*, *hirua* edo *hutsa* (edo *zeroa*) *dira*
(b) *Nire* telefonoa *lau*, *bi*, *sei*, *zazpi*, *huts* (edo *zero*) (*eta*) *sei*, *dat*

Esan nahi da, *huts* edo *zero*-ari erantsiko diogu artikulua, testuinguru honetan beste zenbakiren bat jarritz gero, azken honi ere artikulua erantsiko bagenio; bestela, ez.

Orain arte aipatutakoa dugu zenbakiak izendatzeko modu bat, baina badago egon ere, beste bat:

zenbakia + ko + a

Honen arabera, zenbatzaileak bi era hauetara izendatzeko aukera dugu:

<i>bata</i>	—	<i>batekoa</i>
<i>bia</i>	—	<i>bikoa</i>
<i>hirua</i>	—	<i>hirukoa</i>
<i>laua</i>	—	<i>laukoa</i>

Kartetan ari garelarik, honela izendatzen ditugu:

- (406) (a) *Bateko* *urtea*
(b) *Seiko* *ezpata*

3.2.1.14. Komuntadura aditzarekin

Jakina denez, euskal aditzaren morfologiak perpaus horretan agertzen diren *nor*, *nori* eta *nork* kasuetako sintagnien zenbatasuna (sing./plur.) isladatzen du:

- (407) (a) *Filmca* *ikusi* *dit* (*nor* sing.)
(b) *Filmcak* *ikusi* *ditut* (*nor* plur.)

- (c) Hark ikusi du (*nork* sing.)
- (d) Haiek ikusi dute (*nork* plur.)
- (e) Hari eman diot (*nori* sing.)
- (f) Haici eman diet (*nori* plur.)

Sintagma horiek zenbatzaile batek osaturik (eta ez, nahitaez, artikulua edo erakusleak) ager dakizkiguke:

- (408) (a) Filme bat ikusi...
- (b) Bost filme ikusi...
- (c) Gizon batek ikusi...
- (d) Bost gizon ikusi...
- (e) Andre bati eman...
- (f) Bost andreri eman...

Nola paratzen dugu kasu hauetan aditz laguntzailea? (ikus beste ehetasunetarako, Numeroa).

a) Zenbatzailea *bat* baldin bada, aditz morfologian singularra ageriko da beti:

- (409) (a) Filme bat ikusi dut (*nor*)
- (b) Gizon batek egin du (*nork*)
- (c) Andre bati eman diot (*nori*)

Hau da, *bat* horren orde artikulua balerama bezala.

b) Zenbatzailea ez baldin bada *bat*, besteren bat baizik, eta sintagma osoa — zenbatzaileaz gain— artikulua mugatzen baldin badu, aditz morfologian pluralaren aztarna ageriko da:

- (410) (a) Lau filmak ikusi ditut (*nor*)
- (b) Bost gizonck egin dute (*nork*)
- (c) Bost andreki eman diet (*nori*)

c) Gainerako kasu guztietan singularrez edo pluralez ageriko da aditza. Idazle batzuek singularrez bakarrik erabiltzeko joera dute eta zubereraz ere — neurri batean behinik behin— horrela jartzen da, baina hori ez da nahi ta nahiezko araua, ondoan jartzen ditugun adibideek ongi aski erakusten digutenez. Horrenbestez, bietara ikusiko dugu:

- (411) (a) Hiru filme ikusi dut (*nor*)
- (b) Hiru filme ikusi ditut
- (c) Hiru ikusi ditut

- (d) Bost gizonck egin du (*nork*)
 - (e) Bost gizonck egin dute
 - (f) Bostek egin dute
 - (g) Bost andreri eman diot (*nori*)
 - (h) Bost andreri eman diet
 - (i) Bosti eman diet
- (412) (a) Zer iduri zaizue? Baldin gizon batek chun ardi baditu, ezütu laurogei eta hemeretziak utziten, eta errebelatu zena bilhatzen? (Leiz. Mt. 18,12)
- (b) Egin ditzagun bada hirur tabernakle, bat hire, eta bat Moisesen eta bat Eliasen (Ib. Luk. 9,33)
 - (c) Mila gizon gaixtorik da emazte batendako. Gizon baten mila andre bere fedcan dago (Etxepare, Emazten labore, V. 37-38)
 - (d) Tülista aroan amabost urte del (R. y S.)
 - (e) Zenbat persona dira Yinkoatan? Hirur. Badira beraz hirur Yinko? Ez, zeren... (Bel., I, 30)
 - (f) Zenbat naturaleza dira Jesus-Kristen? Biga. Yinkoarena, eta gizonarena? (Bel., I, 32)
 - (g) Bi soldado pobre heldu dira Arucük Bardkoitzera (Tartas)
 - (h) Ene soldado debotak budu berekin laur konpafia edo laur regimendu (Tartas, 2)
 - (i) Milla mesprechu egin zion gizon saildu hari (Tartas)
 - (j) Ediren duzu laur kapitulu ene liburian (Tartas 6)
 - (k) Kolpu batez bi bekhatu handi eta grabe baitzutian kometitu heriotzia... (Tartas, 39)
 - (l) Mezan badirela hirur parte prinsipal (Lopez, 229)
 - (ll) Bi fundament edo prinsipio behar tüzi (Lopez, 277)
 - (m) Nausi batek bi mutil onkoz ondo elgarren berri jakin gabe zerbait eitekoz leku berera igortzen thienian... (Lopez, 304)
 - (n) Hogeí eta hirur mila hil erazi zutian (Inch., 359)
 - (ñ) Behin bost ogiekin bost mila gizon aserazi zian (Inch. 374)
 - (o) Badela Yinkoatan hirur persona berhezi (Inch., 375)
 - (p) Kuntalaten dutu bere libru batetan hogeí eta bi mirakulu (Inch, 414)
 - (q) Hirur urthe bazian ahortzirik zela (Inch. 419)
 - (r) Unisa erran duzu: ezüt senaharrik. Zeren izan duzu zazpi senhar (A.Urr., 4,18)
 - (s) Ikhusi zutian (Mariak) bi ainguru... (A.Urr.)

3.2.1.15. Ordinalak

Euskal ordinalak lortzeko zenbatzaile hutsari *-garren* erasten diogu:

bi *bigarren*

Zenbatzaileak idazteko zenbakiak erabiltzen baditugu (eta ez letrak) *-garren* hori ez da zenbakiari loturik idatziko, baizik eta bereiz (laburdura bada, loturik ordea):

2 ——— 2 *garren* (2gn.)

Horren ordez, zenbakiekin ari garela, puntu bat ere jar dezakegu *-garren-en* ordez:

2 ——— 2.

Beraz, bada, forma hauek ditugu euskaraz:

- (413) (a) Bigarren
(b) 2 garren
(c) 2gn.
(d) 2.

Eta, orain, deklinabide kasu atzizkiak erants daitezke, nahi izanez gero:

- (414) (a) Bigarrena
(b) 2 garrena
(c) 2gna
(d) 2.a
(e) Bigarrencan
(f) 2 garrencan
(g) 2gncan
(h) 2.can
(i) Hirugarrenak, mehe eta luhe bat baitzen... (Eliss. 17)
(j) Altxatu zuen ezkerrez bigarren basoa... (Eliss., 20)
(k) Bigarren boza iduritu zitzaitan haren ilobarena zela (Eliss. 37)

Norma orokorra hor emandako hori baldin bada ere, *l*-en kasuan aldakiak suertatzen dira. Horrelaxe,

- (415) bat ——— lehen
 lehenengo
 lehenbiziko
 lehendabiziko

Badirudi *lehenengo* horren parean *lehengo* ere erabil daitekeela, baina orduan anbiguetatea sortzen da, esaldi honetan ikusten den moduan:

(416) Hau da lehengo txirrindularia

Horrek bi esanahi bai baititu:

1. *Hau da lehendik ezagutzen zen txirrindularia* (eta, agian, egun ez du kurritzen).

edo,

2. *Honek irabazi du itzulia* (hots, hauxe izan da lehenbizikoa).

Euskalki edo hizkera batzutan oso ongi bereizten dira bi horiek, *lehengo* eta *lehenengo*. Anbiguetatea desegin nahi baldin badugu, bada, hobe da ordinalen kasuan *lehenengo* aldakia bakarrik erabiltzea.

Hori dela eta, bi gauza desberdin ditugu ondoko hauek:

- (417) (a) Lehengoan ikusi nuen
(b) Lehenengoan bizi da

Azkenik, ordena bat arnaitzen duenari honela deituko diogu:

- (418) (a) Azken
(b) Azkenengo
(c) Azkeneko

Zenbait euskalkitan, hala eta guztiz, *-engo* atzizkia ez da mugatzen aipatuko kasuetara eta beste guztietan ere ageriko da:

- (419) (a) bigarren bigarrenengo bigarreneko
(b) laugarren laugarrenengo laugarreneko

Lafittek *birden*, *heren*, *laurden*, etab. ere aipatzen ditu. Hortik sortuko lirateke:

- (420) (a) Lehengusu
(b) Herengusu — herenegun

Lehentxeago data aipatu denez gero, ez da esan beharrik ordinalak erabiltzen direla mendeak izendatzeko:

- (421) Hirugarren mendea

Hauen pareko ditugun adberbioak *-ik* atzizkia dela medio sortzen dira:

- | | | | |
|-------|-----------------|---|----------------------------|
| (422) | (a) lehen | — | lehenik, aurrenik |
| | (b) lehenengo | — | lehenengorik |
| | (c) lehenbiziko | — | lehenbizikorik |
| | (d) bigarren | — | bigarrenik, bigarrenekorik |
| | (e) azken | — | azkenik |
| | (f) azkeneko | — | azkenekorik |

Batzutan, hala ere, *lehenbizi* hori izen bihurtuko zaigu:

- (423) Esango nuke nik lembici artan illuna eta argia... zehar zein garaituco zuen ibilli ziradela (Larramendi, Sn. Agustinen doanditza, 4)

Ordinalak, bada, honelaxe geratzen zaizkigu (aldaki bat bakarrik emanaz):

- (424) lehen
bigarren
hirugarren
laugarren
bostgarren
seigarren
zazpigarren
zortzigarren
bederatzigarren
hamargarren

Bestalde, ordinalen puntu honetan ongi berezi behar dugu jarritako ordinala sintagmaren zati bati bakarrik ala sintagma osoari dagokion:

- (425) Ipar Euskal Herriko II. astea

Kasu honetan *II.* hori *astearekin* doa eta, beraz, *astea* dugu bigarrena. Hurrengo adibidean, aldiz, *II.* horrek sintagma osoa mugatzen du :

- (426) II. Ipar Euskal Herriko astea

Horrenbestez, badirudi zenbakiak eta ordinalak izenlaguna eta izenaren artean kokatzen ditugula:

- (427) (a) Hauxe dugu 2. semea
(b) Hauxe dira mendi horretako bi bideak

Baina, izenlaguna bera mugatu nahi denean, hari joa ikusiko dugu, zehaztasuna egin nahi den lekua ongi azpimarratuz:

- (428) (a) Hauek dira bi lorategitako loreak
(b) Hauek dira bi lorategietako loreak
(c) Hauek dira lorategiko bi lore
(d) Hauek dira lorategiko bi loreak

3.2.1.16. Multzotik aukera egitean

Multzo batetik aukera egin behar dugunean *-eko*, *-etatik* (edo, *-etarik*) edo *-tan* atzizkiak erabiltzen ditugu:

- (429) (a) Zazpietatik hoberena, bigarrena zen
(b) Bederatzietako handiena, lehenbizikoa da
(c) Bietatik batcan, hau nahiago dut
(d) Bietarik batcan, hau nahiago dut
(e) Bederatzietan handiena, laugarrena zen

Kontura gaituzen atzizki horiek gisa berean erabiltzen ditugula ohizko gramatiketan *bizidun* edo *bizigabe* deitu izan diren sintagmetan. Hori dela eta, *zazpietatik hoberena* izan daiteke *zazpi etxetatik hoberena* edo *zazpi ikasleetatik hoberena*. Kasu hauetan ez da egundaino erabili *zazpiengandik hoberena* edo horrelakorik (ikus, puntu honetaz deklinabidea, batez ere leku-denborazko kasuak).

3.2.1.17. Adjetibo biderkatzaileak

Adjetibo biderkatzaileak lortzeko *-kun* edo *-koitz* atzizkiak erasten dizkiegu zenbatzaileei. Honela:

(430) bat	———	bakun bakoitz
bi	———	bikun bikoitz
hiru	———	hirukun (edo <i>hirurkun</i>) hirukoitz

Bestelako aniztasuna ere bide beretik adieraziko da: horrela, dardarkari *soila* eta dardarkari *anizkuna* bereizten ditugu.

Dena dela, ez da batere erraza bi atzizki hauen artean dauden mugak behar bezala zehaztea. Azkuek dioenez, *-kun* atzizkiak proportziozko zenbakiak adierazten omen dituen bitartean, *-koitz* atzizkia konposaketa edo adierazteko erabili ohi da. Nolanahi ere *bat* zenbatzailearen kasuan, kontuak aski garbi daudela dirudi:

- (431) (a) *bakoitz* : *bakarra* edo holako zerbait
 (b) *bakun* : *soila*, *sinplea*, *bat* duen zerbait

3.2.1.18. Kalkuluko eragiketak

Kalkuluan erabiltzen ditugun eragiketak honela irakurtzen dira:

- a) Gehiketa : 5 gehi 5 berdin 10 ($5+5=10$)
 b) Kenketa : 3 ken 1 berdin 2 ($3-1=2$)
 c) Biderketa : 4 bider 3 berdin 12 ($4 \times 3=12$)
 d) Zatiketa : 4 zati 2 berdin 2 ($4:2=2$)

Plus eta *minus* zenbakiaren positibotasuna eta negatibotasuna adierazteko erabiliko ditugu. Horrela, honako ekuazio hau, ondoren jartzen den bezala irakurriko da:

$$5 + (-3) + (-1) = 1$$

Bost gehi minus hiru gehi minus bat berdin bat.

Beraz, bada, positibotasun-negatibotasun zeinuak ditugu *plus* eta *minus*.

3.2.1.19. Distributiboak

Zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia erantsiz gero, distributiboak sortzen zaizkigu:

bat *bana*
 —————
 bedera

- (432) (a) Liburu *bana* erosi dugu
 (b) Liburu *bedera* erosi dugu

Honek esan nahi du bakoitzak liburu bat erosi dugula, hau da, hamar baldin bagara taldean hamar liburu erosi ditugula (bakoitzak berea).

<i>Bi</i>	_____	<i>bina</i>
<i>Hiru</i>	_____	<i>hiruna</i>

(Bokalez amaitzen denean zenbatzailea *-ra* erants daiteke).

Distributibo hauek aurrekaria pluralez eskatzen dute. Adibidez, ondoko perpaus hauek ez dira gramatikalak:

- (433) (a) *Nik liburu bana erosi dut
(b) *Nik liburu bina erosi ditut
(c) *Kotxe banatan etorri naiz

Horien ordeez, beste hauek ditugu zuzenak:

- (434) (a) Guk liburu bana erosi dugu
(b) Liburu bina erosi dugu
(c) Kotxe banatan etorri gara

Distributiboak edozein zenbakirekin sortzen dira:

<i>Hamar</i>	_____	<i>Hamarna</i>
<i>Hogeitabi</i>	_____	<i>Hogeitabina</i>
<i>Hirurogei</i>	_____	<i>Hirurogeina</i>
<i>Ehun</i>	_____	<i>Ehuna</i>
<i>999</i>	_____	<i>Bederatzi ehun eta laurogei eta hemeretzi.</i>

Bestalde, partiduetan eta, markagailuak 0-0 adierazten duenean *hutsa* (edo *huts* eta *huts*) esan ohi da.

Hala eta guztiz, *mila* zenbakitik gora gauzak aldatu egiten dira eta beste eredu baten arauera doaz distributiboak:

<i>Mila</i>	_____	<i>mila bana</i> (eta ez, * <i>milana</i>)
<i>Bost mila</i>	_____	<i>bostna mila</i> (eta ez, * <i>bost milana</i>)
<i>5.030</i>	_____	<i>bost mila eta hogeitamarna</i>

Ohar gaitezen *mila* zenbakiak ezin dezakeela *-na* atzizki hori hartu. Gauza bera gertatzen zaigu *milioi* delakoarekin ere:

<i>Bi milioi</i>	———	<i>bina milioi</i>
<i>Milioi bat</i>	———	<i>milioi bana</i>

Horrenbestez, bada, honela ulertuko ditugu ondoko adibideok:

- (435) (a) Kafe bana hartu zuten Patxik eta Karnelek (Patxik kafe bat hartu zuen eta Karnelek beste bat)
 (b) Ekipo horiek bina ordezkari aukeratu dituzte. (Ekipo batek bi ordezkari aukeratu ditu, besteak beste bi, besteak beste bi...)

Distributiboetatik aditzondoak ere sor daitezke:

Banaka (*banazka, bederazka*)
Binaka (*binazka, bidanazka*)
Hirunaka (*hirunazka*)

- (436) (a) Banaka banaka sartu ziren (lehenik bat, gero bestea, gero bestea, hots, *bakarka* edo *bana bana* edo *banan banan* sartu ziren)
 (b) Binaka atera ziren jokalariaik (lehenik bi, gero beste bi, gero beste bi...)

3.2.1.20. Aldien adieraztasuna

Aldien zenbatasuna ere zenbakien bidez adierazten dugu:

Behin
Bi aldiz, bider, bitan, bi bider, birritan.
Hiru aldiz, hirutan

Hona hemen, beste modu jator hau ere:

- (437) ... eta norbaiti zerbait hostu badiot, *lau halako* itzuliko diot... (Zakeok)

3.2.1.21. Esaerak

a) Talde batetan baldin bagaude eta talde honetako lagunen kopurua aipatzen badugu honelako esakerak erabiltzen dira euskaraz:

- (438) (a) Maritxu, Jon eta hirurok joango gara
(b) Zuek eta lauron artean egingo dugu
(c) Karnele eta biok ezkonduko gara

Hori esaterakoan badakigu lehenengo kasuan hiru garelara (Maritxu, Jon eta ni). Bigarrenean ere, lau izango gara (zuek hirurak eta ni, hain zuzen ere).

b) Datari buruz ari garelarik, gaur astelehena baldin bada eta hurrengo nahiz lehengo astelehenaz zerbait esan nahi izanez gero, forma hau erabiliko dugu:

- (439) Gaur zortzi

Berdin beste egunekin ere:

- (440) (a) Hurrengo larunbatean zortzi (*hurrengo larunbatean ez, baizik eta hurrengo astelehen batean*)
(b) Atzo zortzi etorri zen Ameriketatik eta bihar hamabost hartuko omen du berriaz ere hegazkina

3.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak

Orain arteko orrialdeetan zenbaki zehatz bati egiten zitzaion erreferentzia eta horrexegatik *zenbatzaile zehaztuak* deitu ditugu. Dena dela, zenbatasun hori gutxi gorabeherakoa baizik ez da zenbait kasutan, esanahia bakarrik hartzen baldin bada kontutan. Horrela, *mutil bat* diogunean badakigu zenbat mutili buruz ari garen hitz egiten, baina *mutilen bat* esaten dugunean ez dugu zenbakirik zehazten. Hala ere, biak sartu ditugu zenbatzaile zehaztuen artean, formalki bederen zehatzak direlako.

Zenbatzaile zehaztugabeen kontua diferentea dugu: hemen ez da inoiz zenbaki zehatzik adierazten, handia nahiz txikia izan daitekeen multzoa baizik. Bestalde, hauek ere bakar bakarrik nahiz izen edo izenki baten ezker edo eskuinean ager dakizkiguke. Ondoko hauek ditugu garrantzizkoenak.

3.2.2.1. *batzu(k)*

Izen sintagmaren eskuineko aldean ageriko da eta *bat* zenbatzailearen pluraltzat jo izan da gramatikagileen artean. Hori dela eta aditzarekiko komunztadura beti pluralez eginen du:

- (441) (a) Andre batzu etorri *dira*
 (b) Ikasle batzuri esango *diet*
 (c) Idazle batzuk horrela nahi *dute*

Bakarrik ere, izen sintagma berak bakarrik osatuz, ager daiteke:

- (442) Batzu sartu ziren

(Deklinabideko formak: ikus. 3.2.1.3.6.).

3.2.2.2. *zenbait*

Zenbatzaile zehaztugabe honek ez du inolako mugatzailearik ametitzen eta *bat* baino gehiago adierazten du, kopurua mugatu gabe uzten duelarik. Izenaren ezkerrean erabiltzen da gehienetan:

- (443) (a) Igandetan zenbait aldiz Atletik ikustera joaten naiz
 (b) Zenbait gizonek ez du sinesten holakorik

Baina beste batzutan eskuinaldean ere aurkituko da:

- (444) (a) Andre zenbaitok ez du inoiz ere ulertuko hori
 (b) Liburu zenbaitetan ez duzu onik irakurriko

Horrela, *beste*-rekin, adibidez, beti eskuinaldean egonen da:

- (445) (a) Beste zenbaitok ez du hori uste
 (b) Beste zenbait gizonok
 (c) Beste gizon zenbaitok

Azkenik, bakarrik ere ageriko da:

- (446) (a) Gutarik zenbait hilen gara aurtan
 (b) Zenbaitetan entzun izan dut

Euskaldun batzuen artean zabaldurik dago *zenbat* eta *zenbait* nahasteko ohitura. Ezin daitezke bata bestearen ordeztu erabil: lehena galdetzailea da eta hau, berriz, zenbatzailea. Bai esanahiaz, baita hartzen duten itxura formalaz ere, desberdinak ditugu.

Aditzarekiko komuntadurari dagokionez, berriz, aditza singularrez nahiz pluralez joango da:

- (447) (a) Zenbait zerri ikusi dut
(b) Zenbait zerri ikusi ditut

Biak ontzat hartu behar dira.

Honez gainera, *-tzu* atzizkia ere erants dakiokete eta orduan *zenbaitzu* ematen du. Azkeneko kasu honetan aditzarekin egiten duen komuntadura plurala dugu beti.

- (448) (a) Gero heyeri zembait hitz erran eta boz aphalean, baziohak bigarren gambararat (Eliss., 45)
(b) Ageriko duk fraidek, artzainek eta bertze zembaitek ere, zer itxura izanen duten (Eliss., 45)
(c) Erranen darozkiat nere haur demborako eta geroztikako zembait historio (Eliss., 7)
(d) Oray utz dezagun Piarres Adame bera zembait historioren erratera (Eliss., 8)
(e) Aipatu darozkiat yadanik zembait hitz nere hautasunaz (Eliss., 21)
(f) Kokotsa behera jausten baitzitzaion herde chorta zembait (Eliss., 31)
(g) Noizetik noizerat zembait haiztur ere artean egiten zituclarik (Eliss., 32)
(h) Zembaitek atsegin izanen baitute (Eliss., 38)

Mintzaira batzutan, *zonbait* esaten dute *zenbait*-en ordeztu, hori berori gertatzen delarik *zenbat/zonbat* galdetzailearekin.

3.2.2.3. *asko*

Zenbatzaile zehaztugabe hau ezkerrean edo eskuinean joan daiteke, nola diren euskalkiak edo hiztunaren ohiturak:

Gizon asko (ordena hau da erabiliena)
Asko gizon

- (449) (a) Ecusten dezu, nola ezconduen artean ere guerria ditezquean asco becatu? (J.B.A., III, 161)
(b) Gogora ecarriko dizquitzu asco irudipen eta zoraqueria (J.B.A., III, 164)
(c) ...zeñaren bear dan bezela edertzeco eta apaintzeco grazia ascoren bearra daucat (Larramendi, 3)
(d) Asko herritan jendea zen elizari loturik zagon eskolategiari (Buruxkak, 54)

Bestela ere, bakarrik joan daiteke:

- (450) Asko ez omen dator horrekin bat

Zenbatzaile honen aditzarekiko komunztadura singularrez edo pluralez, bietara eginen da:

- (451) (a) Liburu asko erosi dut
(b) Liburu asko erosi ditut

Baina batean eta bestean ez dirudi gauza bera esaten dugunik: lehenbiziko adibidean liburu *masa* hartzen dugu gogoan. Bigarrenean, berriz, liburu *bat* eta *beste bat* eta *beste bat* e.a. Argiago gelditzen da oraindik *harri asko*-rekin. Honako hau esaten badut, hots:

- (c) Harri asko bota dute

Harri zenbakiatz modura hartua da, harri kantitate handi bat esango bagenu bezala. Baina beste hau esaten badut:

- (d) Harri asko bota dituzte

Harri kopuru handia bota dutela adierazten dut honela. Horregatik, hain zuzen,

- (e) Jende asko etorri da

Jende zenbakiatzat hartua baita.

3.2.2.3.1. *asko*-ren balioak

a) *Asko* zenbatzaileak aditzondoaren balioa hartzen du. Kasu hauetan, aditza singularrez doa beti:

(452) Horrek asko daki

Beste zenbaitetan, izen bat edo egon daiteke isildua. Orduan sintagma adverbial baten aurrean gaudela esan genezake:

(453) (a) Horrek *asko* irabazten du =
Horrek *diru asko* irabazten du

(b) *Asko* saltzen da han =
Gauza asko saltzen da han

(ikus, dena den, *nor* sintagma).

b) Bizkaian, Azkuek seinalatzen duenez, *beste edozein* adierazteko ere erabiltzen da, izenaren aurrean jartzen delarik, orduan:

(454) Askok gizonak esan balcust gauzori, sama samatik oratu neutsun onetzkeru

c) *Nahiko*-ren ordezkari ere erabiltzen da:

(455) Askok da (*Nahikoa da* adierazteko)

d) Batzutan *biziki*, *oso*, *txit*... ere esan nahi du:

(456) Askok goiz itzuli zen (*Oso goiz itzuli zen*)

e) *Gehiegi* adierazteko *askotxo* erabiltzen dugu:

(457) Askotxo irabazten du horrek

3.2.2.3.2. *asko*-ren erabilera

Badirudi ez dela *asko* erabili behar hurrengo kasu hauetan:

a) *Izan* aditzaz baliaturik egiten ditugun zenbait aditzekin: *beldur izan*, *gose izan*, etab. Kasu hauetan beste esapideak erabiliko ditugu:

- (458) (a) Guztiz beldur dira
(b) Arras beldur dira
(c) Arront beldur dira
(d) Txit beldur dira
(e) Beldur beldur dira
(f) Izigarri beldur dira

b) *Maite izan/ukan* aditzarekin:

- (459) (a) Oso maite zaitut
(b) Arrunt maite zaitut
(c) Biziki maite zaitut
(d) Txit maite zaitut

c) *Zenbait izen zenbakaitzetan*: (ikus *Izena*).

Joera handia dago gaur egungo euskaraz *asko* esateko *handi* esan behar den lekuan. Normalean, nahiz eta ez beti, izen zenbakaitz neurgaitzetan *handi* erabiliko dugu. Horrenbestez:

- (460) (a) Beldur handia (ez, **beldur asko*)
(b) Hotz handia (ez, **hotz asko*)

Hori dela eta, *su asko* eta *su handia* oso ongi berezten ditugu euskaraz. *Su asko* diogunean *leku desberdinetako suez* ari gara:

- (461) San Juan gauean *su asko* egiten da herrietan

Esaldi horretan esan nahi da *su bat baino gehiago* egiten dela San Juan gauean herrietan. Alderantziz, berriz:

- (462) *Su handia* zen horri hartan eta suhiltzaileak deitu genituen.

Kasu honetan *su bakarra* da eta *su hori handia* da, indarrean dagoen *sua*. Ereditu horri jarraituz:

- (463) (a) *Ke* handia
(b) *Maitasun* handia
(c) *Lotsa* handia

Nolanahi ere, hauen kontrakoa ez da *ke txikia* edo horrelako zerbaite, baizik eta *ke gutxi*. Bikoteak, bada, eredu hauetakoak ditugu:

- (464) (a) Ke handia / Ke gutxi
(b) Maitasun handia / Maitasun gutxi
(c) Beldur handia / Beldur gutxi
(d) Lotsa handia / Lotsa gutxi
(e) Atseguin contentu aundia. (J.B. Agirre, Erak. III, 85)
(f) Lan andia. (Erak. III, 91)
(g) Cere Jaunari diozun zor andia cerbait ezagutu dezazun (J.B. Agirre, Erak. III, 350)

3.2.2.3.3. *asko*-ren ordainak

Askoren ordeztu euskalki zenbaitetan beste adjetibo eta adberbioak ere erabiltzen dira (askotan anbiguetateak sortuz):

- (465) (a) Jende asko bildu zen
(b) Egin duk festa asko?
(c) Egin duk festa poliki?
(d) Asko badira han
(e) Bakarrik badira han
(f) Jendea barra barra bildu zen
(g) Jendea erruz bildu zen
(h) Belaralde ederra bildu dugu aurtan
(i) Sagar asko bildu du
(j) Hainbeste sagar bildu du
(k) Hainbat sagar bildu du

3.2.2.3.4. *asko* mugatua

Zenbait mintzairatan *asko* artikulua eta guzti adjetibo baten ondotik agertzen zaigu:

- (466) (a) Polit askoa da etxe hura!
(b) Polit askoak dira etxe haiek!

Modu berean erabiltzen du *aski* ere zenbait hiztunek:

- (467) Gizon jator askia da hori!

Esapide horiek *ondo* eta *ongi* adberbioez baliaturik ematen dira beste euskalkietan:

(468) Etxe hori ongi polita da!

(ikus. Adjetiboaren mailakatzea).

3.2.2.4. *anitz*

Anitz (edo *aunitz*) izenaren ezkerrean edo eskuinean aurki daiteke:

(469) (a) Etxe aunitz
(b) Aunitz etxe

Bestalde, *asko* eta *anitz* parekoak ditugu eta euskalkien arabera aukeratzeko da bata nola bestea.

(470) (a) Eta yotzen zituztela superki mutchiko, fandango eta bertze dantza suerte hainitz (Eliss., 32)
(b) On duk ere. Ikhas dezakan nik baino urthe gehiago duen hainitz balin bada Sarako herrian, ez dela bat nik baino irri gehiago egiten duenik (Eliss., 9)
(c) ...badukala oraino gauza hainitz ikhasteko (Eliss., 7)

3.2.2.5. *gut(x)i*

Guti zenbatzaile zehaztugabea —bai eta dituen aldaki guztiak (*guti*, *gutti*, *gixi*)— *asko* edo *aunitz*-en kontrakotzat hartu behar da, esanahiari dagokionez:

(471) Ikasle on gutxi biltzen da hemen

Ikusten denez, dagokion izenaren ondoan ezartzen da, eskuineko aldean:

(472) (a) Beretzat asko behar duenak, besterentzat gogo gutxi (Oskoz-ko esatera)
(b) Emendie ezagutu dezaquezu mundu onetan onguille eguiazco guchi arquitzen dala... (J.B.A., III, 345)
(c) Frutu gutxi ematen zuan. (J.B.A., III, 435)
(d) Piarres Adamo bezalako gizon guti ikhusten dela bazterretan (Eliss., 39)

Asko-rekin bezala, laguntzen dion izena nola hartzen den kontutan izanik, aditzaren komunizaduraren aldetik, Izen Sintagma hori pluralizat jo daiteke:

(472') (a) *Ikasle guti etorri ziren*

nahiz,

(b) *Ikasle guti etorri zen*

Hala ere, zenbatzaile hau mugaturik ager dakiguke noizbehinka:

(473) *Arras gutiak dira egiaren azkurri osoa barneak jasaiten ahal deieten haurrak*
(Buruxkak, 63)

Asko-rekin gertatzen zen bezala, sintagma adberbial gisa ere har daiteke:

(474) (a) *Hori guti gustatzen zait*
(b) *Aithortzen dut, ez baininduten guti izitu... eta gero, bi gizon bizardun zeinek gutiago izitu baininduten* (Eliss., 30)
(c) *Hiru dotzena aran gutiencan ekharri bainituen golkhoan, Matúnek yan zitian gehienak* (Eliss., 27)

Kasu honetan ere muga dezakegu:

(475) (a) *Hori oso guti gustatzen zait*
(b) *Horri arront guti gustatzen zait*
(c) *Hori arras guti gustatzen zait*

Eta gauza bera *guti* Izen Sintagma oso batean agertzen denean:

(476) *Arront / Oso gauza gutxi gustatzen zaizkit mundu honetan*

Baina ez dugu esango ondoko honen antzekorik:

(477) **Hori arront / oso asko gustatzen zait*

3.2.2.6. *honenbeste* eta *kideak*

Izenaren ezkerrean jartzen dira zenbatzaile hauek —eta berauen aldaki diren *honenbertze*, *horrenbertze*, *hainbertze*—. Gramatikari batzuen ustez,

aditzarekiko komunztadura zaindu behar dugu zenbatzaile hauek erabiltzerakoan. Horrela:

<i>ni, gu</i>	—	<i>honenbeste</i>
<i>hi, zu, zuek</i>	—	<i>horrenbeste</i>
<i>hura, haiek</i>	—	<i>hainbeste</i>

- (478) (a) Nik *honenbeste* urte dut
 (b) Zuek *horrenbeste* aldiz etorriko zarete
 (c) Haiek *hainbeste* aldiz ikusten dute ETBa

Dena dela, ez dago batere argi nola egin behar dugun komunztadura hori zenbait kasutan, era askotara egin baitaiteke:

- (479) (a) Nik *honenbeste* liburu emango dizkizut
 (b) Nik *horrenbeste* liburu emango dizkizut
 (c) Nik *hainbeste* liburu emango dizkizut

Ikusten denez, hirurak daude ongi.

Zenbaitetan (ikus *asko*) *askoren* eremua ere har dezake *hainbeste* zenbatzaileak:

- (480) (a) Hainbestetan ikusi zaitut
 (b) Hainbeste aldiz esan dizut
 (c) Hainbeste ondo atera da aurtan
 (d) Baztanen etxe alde asko? galdetu baztandarrari eta honek erantzun: Zenbat etxe on, hainbortze etxalde on (Goizuetako esera)
 (e) Aimbeste dembora onetan (J.B.A., III, 227)

(Ikus Erakusleak).

3.2.2.7. *franko*

Ez da errex zehazten *franko* delakoaren esanahia. Azkuek berak ere (Hiztegian) *asko* (edo *anitz*) adierazi nahi duela (*mucho*) dionean, bi galdera marka jartzen dizkio parentesi artean. Beharbada, *nahikoa*-rekin erlazionatuko litzateke, esanahiaz, beste batzutan (ikus Adjetiboaren mailakatzea).

Izenaren eskuinaldean jartzen denean, izena mugatu gabe doa gehieneran:

- (481) (a) Eta erreak ere zembat pipa, ilobak eta biok mokoka-aldi franko ematen zutelarik (Eliss., 38)
(b) Eta gero, baikinuen, Yainkoari esker, dembora franko iragaiteko, bazkaria heldu baino lehen (Eliss., 39)
(c) Bainan geroztik ikhusi diat eta ikhasi, nere gostuz, debru franko badela saildu itchura hartzen duenik (Eliss., 9)

Halaz ere, honako hauek ere entzun daitezke:

- (482) (a) Ainhoan izaten da lana franko
(b) Auto franko ibiltzen da kale honetan

Adjetiboaren ezker aldean ere jar daitezke, baina orduan adjetiboak artikulua eramaten du:

- (483) (a) ...nafartarrak frango luche a zuela sudurra, bainan mehea (Eliss., 7)
(b) Erraten zituzan ere andre hori franko nahasia balinbazen emazteki batenzat, Pacheko... franko esku zalukoa zela (Eliss., 33)

Beste adverbio batekin ere ager dakiguke:

- (484) (a) Ezen, hamoka urhetan, irakurtzen nitian aski pulliki, ba eta franko ederki (Eliss., 21)
(b) Han, yaun hauzapezak erraten zioz, alegia apha!, bainan franko gora (Eliss., 45)

Eta, beste zenbaitetan, bakarrik ere:

- (485) Aditu duk behinere, Pello, erraten gogaitatuz ez dela frankotan deusik galtzen (Eliss., 28)

Beraz, hiru erabilera ditu zenbatzaile honek:

- (486) (a) Franko gizon
(b) Gizon franko
(c) Gizona franko

Eta komunztaduraren aldetik izena zenbakarria denean (a) eta (b)-ren kasuan Izen Sintagma pluralizat har daitezke, baina ez (c)-renean:

- (a') Franko gizon ikusi nuen / nituen
- (b') Gizon franko ikusi nuen / nituen
- (c') Gizona frako ikusi nuen / nituen

baina,

- (d') Gizonak franko ikusi nituen

Hortaz, *franko* nolabaiteko adberbio bat litzateke (d')-ren tankerako esapideetan.

3.2.2.8. Sail honetan sartu behar dira *zenbat* galdetzailea eta *zenbatnahi*:

- (487) (a) Zenbat diru balio ote du etxe honck?
- (b) Mediku horrek zenbatnahi diru irabazten du

3.2.2.9. Beste zenbatzaile zehaztugabeak

Pixka bat, apur(txo) bat, xorta bat, pixka bat, pittin bat, makina bat, dexente, aski, ugari, nahikoa...

Badirudi *ogi pixka bat* eta antzeko sintagmetan, *pixka bat* oso osoan, dugula zenbatzailea, eta ez *bat* zatia bakarrik. Jakina denez gero, *ogi pixka bat* esaten dugunaren ondoan ez da *ogi pixka bi* edo holakorik entzungo. Horrexegatik sartu ditugu sail honetan:

- (488) (a) Ogi pixka bat hartu zuen
- (b) Eman zion ardo xorta bat
- (c) Egon ninduan aphur handi bat nihor ikhusi gabe ethortzen (Eliss., 14)

Pluralez *poxi* eta *pizar* ere agertzen dira:

- (489) (a) Igandean bilduko omen dituzte belar pizar horiek
- (b) Zapata batean sartzen omen zituen diru pizar haiek
- (c) Diru poxi batzu... (Buruxkak, 37)
- (d) ...kabalekin egun guzia ibili ondoan jendetasun poxi bat ikasten dutelarik (Buruxkak, 47)
- (e) Mesede apur oen ordain artu dituen... (J.B.A., 345)

Andana bat ere hauen artean sar genezake:

- (490) (a) ...lehenago egitate berarentzat bazituela zakur *andana bat* hilak
(Buruxkak, 33)
(b) Gobernamenduak ororen sakelatik atxik bilza mota guzietako eskoletxe
andana bat... (Buruxkak, 63)

Kontutan hartu behar da zenbatzaile hauek testuinguru batzutan bakarrik erabil daitezkeela, enfatikoetan edo. Ezin da esan, adibidez:

- (491) (a) *Edan dugu makina bat esne
(b) *Ogi xorta bat nahi duzu?

(*Xorta* isurkariekin bakarrik erabil baitaiteke).

Beste adibide zenbait paratzearren:

- (492) (a) Laudorioak *ugari* izan zituen
(b) *Aski* etxe handia erosi zuen
(c) *Nahikoa* ardo edan duzu

Ohar gaitezen ere zenbatzaile batzuk izenaren ezkerrean paratzen ditugun bitartean, beste zenbait eskuineko aldean daudela.

Bestalde, hauetako batzuk (*makina bat*, *nahikoa*, *ugari*, e.a.) aniztasuna adierazten dute eta horrenbestez, aditzaren komunztadurari dagokionez, pluralizat har daitezke:

- (d) Makina bat liburu irakurri dut / ditut urda honetan
(e) Nahikoa huts egin dut / ditut bizian

Honen osagarri ikus hirugarren atalean, 2.2.2.5.3.

3.2.3. Zenbatzaile orokorrak

Sail honetan sartzen ditugu hiru zenbatzaile: *dena*, *guztia* eta *oro*. Lehenbiziko biek plurala ere hartzen dute: *denak*, *guztiak*. Argi dago izen hori hartzen baldin badute, zerbaitengatik dela: zenbatzaile hauek orokortasuna, osotasuna, hartzen dute kontutan eta ez da horrelakorik suertatzen zenbatzaile zehaztuen eta zehaztugabeen kasuan.

Dena zenbatzailea bakarrik doa, izenik gabe:

- (493) (a) Mutiko horrek *dena* daki
 (b) *Denak* sartu ziren gola hartan
 (c) *Denek* dakite ongi aski zer den

Honen arabera, bada, zalantzaokoak ditugu ondoko esapide hauek:

- (494) (a) ? Neska *ixiki* denak hasi ziren dantzan
 (b) ? Kukuso denak bildu nituen

Guztia, ordea izen batekin ere agertzen da:

- (495) (a) *Guztiak* belaunikatu ziren
 (b) *Ardi guztiak* xuriak ziren han
 (c) *Mundu guztiak* daki hori

Eta, *dena*-rekin gertatzen ez den moduan, determinatzen duen izen sintagman izenondoak ere ager daitezke:

- (496) (a) Neska *ixiki guztiak* hasi ziren dantzan
 (b) Kukuso *goseti guztiak* bildu nituen kutxan

Bi zenbatzaile orokor hauek errepika daitezke balio enfatikoa eman nahi diegunean, izenondoekin gertatzen den bezala:

- (497) (a) Zer ikasi duzu: *dena ala den dena?*
 (b) Egun *guzti guztian* ibili omen zen goiti eta beheiti

Oro zenbatzailearen jokabidea desberdina da. Lehenengo eta behin, izen sintagmaren eskuineko aldean doa, beste bietan bezala, baina modu hauetara erabiliz:

a) Izena artikulurik gabe + *oro* + kasu-marka:

- (498) (a) Gizon oro hilkorra da
 (b) Gizon orok behar luke pentsatu
 (c) Idazle ororen kaltetan

b) Izena + artikulua + plurala + *oro* + kasu-marka:

- (499) (a) Gizonak oro hilkorrak dira
 (b) Gizonek orok esan dute

Bestela, bakarrik ere ager dakiguke:

- (500) (a) Orok dakite
(b) Ororen laguna da

Nolanahi ere, *oro* zenbatzaile orokorrak ez du inoiz ere artikulu edo bestelako mugatzailerik hartuko:

- (501) (a) *Gizon oroak hilkorak dira
(b) *Gizonak oroak hilkorak dira

Guzti eta *dena*-ren parean, zerbaiten osotasuna, eta ez zati bat, adierazteko, *oso* ere erabil daiteke: *pastel guztia jan zuen* eta *pastel osoa jan zuen* nahikoa baliokideak izan daitezke, pastela zati baitaiteke, baina *ura* edo *ardoa* edo, oro har, masa izen batekin ezingo dugu **ur osoa* edo **ardo osoa* esan, *ura* eta *ardoa* ezin baititugu zatitu. *Ur guztia* edo *ardo guztia* esan behar. Hortaz, *oso* zati daitezkeen gauzei dagozkien izenkiekin erabil daiteke:

egun
aste
urte *osoa*
liburu
pastel

3.3. Nolakotzaileak

Orain arte ikusi ditugun determinatzaileak bi sail nagusitan banatu ditugu: alde batetik mugatzaileak (artikuluak eta erakusleak) eta bestetik zenbatzaile guztiak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak). Hirugarren multzo honetan sartu ditugu gainerako guztiak eta, *nolakotzaileak* deitu baldin baditugu ere, ez dute zerikusirik *nolako* galderarekin.

Sail honetako determinatzaileak izen diferenteak hartu izan dituzte gramatikalarien artean: *determinante*, *predeterminante*, *prepositibo*, e.a. Determinatzaile hauek izenaren ezkerrean agertzen dira beti eta *beste*-ren kasuan izan ezik, ez dute mugatzailerik onartzen (ikus Izenordainak):

zein *zeinnahi* *edozein*
zer *zernahi* *edozer*

Eta hemendik sortzen zaizkigu:

- (502) (a) Zer etxe da hau?
 (b) Zein kotxe duzu nahiago?
 (c) Zeinnahi etxe eros dezakezu
 (d) Zernahi gauza entzun zuen
 (e) Edozein liburutan ikasten dira horrelakoak
 (f) Edozein gauza esaten dizu

Ohar gaitezen nolakotzaile guzti horiek izenordain modura ere agertzen ahal zaizkigula:

- (503) (a) Zer da hau?
 (b) Zein nahiago duzu?
 ...

Eta, azkenik, sail honetan sartu behar dugun azken determinatzaile bat: *beste*. Nolakotzaile honek ametitzen ditu gainerako mugatzaile, zenbatzaile eta abarrak:

- (504) (a) Beste haurra
 (b) Beste haur bat
 (c) Beste bi haur
 (d) Beste bi haurrak

Ikusten denez, beti izen sintagmaren ezkerreko aldean ageri da. Hortaz, hauexek ditugu nolakotzaileak euskaraz:

<i>zein</i>	<i>zeinnahi</i>	<i>edozein</i>
<i>zer</i>	<i>zernahi</i>	<i>edozer</i>
<i>beste</i>		



4. ADJETIBOA

4.1. Sarrera

4.1.1. Adjetiboaren sailkapena: izenondoak eta izenlagunak

Izen sintagmaren osagaien artean aurki daiteke bat izen sintagmaren muina den izenari laguntzen diona horren zermolakoa adieraziz. Adibidez:

- (505) (a) Liburu *handi* bat erosi nuen
(b) Gizon *beldurgarri* hark izulu ninduen

Hemen, bistan da, *handi*-k *liburua* nolakoa den esaten digu eta *beldurgarri*-k gizonaren kualitate bat ematen digu aditzera.

Baina izen sintagmaren barruan ager daitezke zeregin bera duten beste osagai batzu ere. Adibidez:

- (506) (a) *Lurrezko* ontzi batcan gorde zuen dirua
(b) *Urrezko* eraztuna erosi nion emazteari

Orain ere, *lurrezko* eta *urrezko* elementuek ontzia eta eraztuna nolakoak diren esaten digute.

Hortaz, izenaren inguruan doazen elementu hauei *adjetibo* deituko diegu. Baina *-zko* atzizkia dutenak —eta oro har *-ko* atzizkia dutenak eta baita *-en* genitiboaren marka dutenak— beti izenaren ezkerretara agertzen zaizkigunez eta inolako atzizkirik gabeak (*handi*, *beldurgarri* eta antzekoak) izenaren eskuinetara agertzen direnez, bi mota bereziko ditugu adjetiboen sailean:

a) *Izenondoak* dira izenuren eskuinetara jarri ohi ditugun adjetiboak: *handi*, *beldurgarri*, *polit*, *alfer*, *elab*.

b) *Izenlagunak* izango dira *-ko* eta *-en* atzizkien bidez osatuak diren adjetiboak. Hauek, esana dugunez, izenaren ezkerretara kokatu ohi dira: *urrezko, mendiko, idazteko*, etab. (Ikus Genitiboa deklinabidean).

Baina adjetiboa izen sintagmaren barnean ez ezik, predikatu osagarri modura ere ager daiteke:

- (507) (a) Liburu hori *ederra* da benetan
(b) Neska horiek *oso atseginak* ziren

Orain ere adjetiboak perpauseko beste izen sintagma baten ezaugarriren bat adierazten digu. Kasu honetan liburua nolakoa den esaten zaigu edo neskak nolakoak ziren. Beraz, izen sintagma subjektuari buruzko informazioa ematen digu adjetibo horrek. Hala ere, zenbait kasutan adjetiboa ager daiteke perpauseko beste izen sintagma bati dagokiola:

- (508) Gela *zikin zikina* utzi genuen

Hortaz, esan dezakegu adjetiboa bi lekutan ager daitekeela perpausean: izen sintagma baten barnean izen bati lagunduz, nahiz predikatuaren barruan, osagarri predikatiboa osatuz.

4.1.2. Adjetiboen lekua

Izenondoa gaur egun izenaren eskuinean joan ohi da:

- (509) Gure auzoko *gizon berritsuari* guztiok ihes egiten diogu

-garri atzizkiak osatutako zenbait adjetibo, *-ko* atzizkia erantsiz gero (izenlagun bihurtua gelditzen denez) izenaren ezkerretara joan daiteke:

- (510) (a) Izigarritzko lana burutu dute (vs. lan izigarria)
(b) Izarra baino ederragoko andrea joan zait ihesi

Literaturan zehar aurki dezakegu adjetiboa izenaren ezkerretara,

- (511) (a) *Justu* manamenduak (Zib. Etxeb., b. 215)
(b) *Venial faltak* (Zib. Etxeb., b. 301)
(c) *Enganoso* munduan (Zib. Etxeb., b. 3775)

Hala ere, badira zenbait adjetibo izenaren ezkerretara zein eskuinetara azal daitezkeenak. Hiru sailetan bana ditzakegu adjetibo hauek:

1. Harridura adierazten dugunean:

(512) Gaixo bekataria!

2. *-dun* atzizkiaren bidez osatzen ditugun adjetiboak:

(513) *dirudun neska*, edo *neska diruduna*

3. Adjetibo *jentilizio* dei ditzakegunak, hots, pertsonak nongoak diren esaten digutenak. Euskaraz, halako adjetiboak, leku izenari *-(t)ar* atzizkia erantsiz lortzen ditugu: *bilbotar*, *zarauztar*, *donostiar*...

(514) (a) Gure lagun zarauztarrek udan Zarauztik aldegiten dute
(b) Gure zarauztar lagunek...

Askotan euskal adjetiboaren ondoan, adjetibo mailegatua ere erabiltzen dugu (leku izena kanpotarra, ez euskalduna, denean):

(515) (a) *Frantziar mutil horiek* nahiz
Mutil frantziar horiek

(b) *Frantses mutil horiek* nahiz
Mutil frantses horiek

Hain zuzen, horrelako sintagmak anbiguo gerta daitezke. Adibidez *frantses irakaslea* uler daiteke nahiz *irakasle frantsesa*-ren pareko, nahiz izen konposatu bezala (ikus geroago): *frantsesa irakasten duena*..

Badirudi *-(t)ar*-en bidez osaturiko adjetiboek (+gizaki) motako izenei lagun diezaieketela. Hala ere hor dugu *liburu eskuarra*, adibidez.

Beraz beste kasuetan, esan nahi baita (-gizaki) motakoen artean, beti adjetibo mailegatua erabiliko dugu:

(516) Frantses liburua

edo

(517) Liburu frantsesa

Eskuarki, hortaz, adjetiboa izenaren ondotik doa. Salbuespenak, *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiez osatutakoak dira (eta bigarrenen baliokide maileguzkoak).

Honek esan nahi du maileguz hartzen ditugun gainerantzeko adjetiboek izenaren eskuinetara joan behar dutela. Bereziki aipatu beharrekoak iruditzen zaizkigu hain maiz gaizki erabiliak ikusten ditugun *ekonomiko*, *politiko*, *sozial*, *nazional*... Adjetibo diren neurrian izenaren eskuinetan ipini behar ditugu, lehen esan bezala:

- (518) (a) Arazo ekonomikoak (ez **Ekonomiko arazoak*)
(b) Alderdi politikoak (ez **Politiko alderdiak*)
(c) Laguntza sozialak (ez **Sozial laguntzak*)
(d) Hizkuntza nazionala (ez **Nazional hizkuntza*)

Hauek ikustean, norbaitek esan dezake: zer da, bada, *euskal* adjetibo ez bada, *euskal langileria* esaten dugunean?

- (519) (a) Euskal langileria
(b) Euskal gizona
(c) Euskal liburua

e.a. izen konposatuak dira. Bi izen elkartu ditugu kasu guztietan:

euskara + langileria
euskara + gizon
euskara + liburua

Hitz elkarketa lege zahar baten arauera, lehen osagaiak bi silaba baino gehiago dituenean, azken bokala galtzen du. Bokala hau galdu ondoren gelditzen den kontsonantea *-r* bada, *-r* → *-l* aldaketa gertatzen da. Horrela *euskara* hiru silabako osagaia dugunez

-a → *ø*
-r → *-l*

Era berean: *merkatari* + *ganbara* elkarketan, lehen osagaiak lau silaba dituenaz

-i → *ø*
-r → *-l*

- (520) (a) Merkatal ganbara
(b) Unibertsitat arazoak (Unibertsitari + arazoak)

Dena den, elkarketa berrietan aplikatu beharko genukeelakoaren beharrik ez da gertatzen askotan:

- (521) Kontsilal bilera? (Kontsilari + bilera)

Era berean, ondoko adibide hauen esanahia hauxe dugu:

- (522) (a) Sozialista alderdia (= sozialisten alderdia)
(b) Girisitio legea (= girisitioen legea)

Horiek hitz elkartuak dira, bi izenez osatuak.

- (523) (a) Alderdi sozialista
(b) Lege girisitinoa

aldiz, izen + adjetiboaz osatutako sintagmak.

Eta goiko *arazo ekonomikoak* edo *hizkuntza nazionala* sintagmetan maileguzko adjetiboa baztertzeko bide bakarra izen konposatuak erabiltzea dugu:

- (524) (a) Ekonomi arazoak
(b) Gizarte laguntzak
(c) Nazio hizkuntza
(d) Lan istripuak (vs. istripu laboralak)

4.2. Izenondoak

4.2.1. Izenondoak izen sintagmaren barnean

4.2.1.1. Izenondo bat baino gehiago agertzen denean

Orain arte esan dugu euskaraz (salbuespenak salbuespen) izenondoa izenaren eskubitara azaltzen dela. Baina zer gertatzen da izenondo bat baino gehiago dugunean? Ba al dago izenondo hauen ordenari buruz erregelarik ematerik?

Adjetibo horietako batek izenaren *nongotasuna* adierazten badu, lehen ikusi dugunez, izenaren ezkerretara joan daiteke,

(525) *Frantses* liburu eder bat

Bestelako izenondoak ditugunean, ordea, ez dirudi ordena zehatz eta konkreturik proposa dezakegunik. Kontutan izanik adjetiboak izenari buruzko informazio gehigarria ematen digula (kolore, tamaino, luze/labur, adin etabarri buruz), gehienaz ere esan dezakegu informazio horietatik garrantzitsuen sentitzen duguna izenaren ondoan jartzeko joera dugula. Horrela, adibidez, herri batez hitzegitean badirudi informazio garrantzitsuagoa dela txikia ala handia den esatea, polita ala itsusia den esatea baino. Beraz,

(526) Herri txiki polita

esango dugu normalean *txiki* eta *polit* adjetiboak *herri* izenarekin elkartu nahi ditugunean sintagma berean. Hala ere norbaitek esan dezake,

(527) Herri polita txikia

eta ez dugu uste gaizki esana dagoela esaten ausartuko ginatkeenik.

Edota objetuen tamainoa eta kolorea adierazten dituzten izenondoak ditugunean, badirudi lehen kolorea aipatzeko joera dugula:

- (528) (a) Kapela urdin zabala
(b) Kapela gorri handia
(c) Pipa beltz motza

Baina berdin berdinean esango du Elissanburuk:

(529) Pipa motz beltza

Beraz, badirudi izenondoen ordena subjektiboa dela. Hiztunak erabakitzen duela zein den izen bati buruz eman dezakeen informaziorik garrantzitsuena eta zein bigarren mailan gelditzen dena.

Gehienaz ere subjektibotasun honen barruan adjetiboen luze-laburraren kriterioa aipa daiteke. Bi adjetibo erantsi nahi badizkiogu izen bati, biak garrantzia aldetik berdintsu jotzen ditugunak, laburrena ipiniko dugu lehen, eta luzeagoa gero:

(530) Ilc argal horiska

4.2.1.2. Izenondo elkartuak

Izenondoa hitz elkartu bat izan daiteke. Era honetakoak ditugu, adibidez, /izena + izenondo/ gisa osatuak direnak: *buruhandi*, *bilotxuri*, *muxxurdi*...

- (531) (a) Emazte *ile txuri* bat etorri zituzidan
 (b) Zuen mutiko *espartin beltz* hori
 (c) Mutiko *musu gorri* horrek parte egin digu

Batzutan, era horretako izenondoa egiatzki izen bihurtua dela esan daiteke: *Belarri luzea* = *txerria*.

Izena azteritzean ikusten genuen bezala, izenondoen artean ere batzuk elementu bakar batez osatuak izango ditugu, hau da, zatiezinak: *zuri*, *beltz*, *oker*, *gaizto*, *zintzo*, *zuzen*, *oizan*... Hauei ere izenondo *bakun* deituko diegu.

Bigarren sail bat, *beldurti*, *herrikoi*, *haizetsu*, *emankor*, *barregarri* eta abarrek osatuko dute. Izenak aztertzean egiten genuen bigarren sail hartan aipatzen genuen bezala, bi zati bereiz ditzakegu izenondo hauetan: bata, bakarrik ere erabil dezakeguna (*beldur*, *herri*, *haize*, *eman*, *barre* (egin)). Horrexegatik hain zuzen ere, *izenondo* hauek *eratorriak* ditugula esan ohi digu. Bestea, (-*ti*, -*koi*, -*tsu*, -*kor*, -*garri*) inoiz bakarrik azalduko ez zaiguna.

Azkenik, hirugarren sail batetan genituzke *izenondo konposatuak*, hots, bi atalez (edo gehiagoz) osatuak, atal bakoitza bakarrik ere azal dakigukeelarik. Honelakoak ditugu: *eskuzabal*, *betoker*, *txuri-urdin*, *gorri-beltz*... *Esku* eta *zabal*, *begi* eta *oker*, *txuri* eta *urdin*, *gorri* eta *beltz* genituzke izenondo konposatu hauetako osagaiak.

4.2.1.3. Izen koordinatuak eta adjetiboak

Zenbait izen sintagmatan izenondo bakarra aurki daiteke baina izen bat baino gehiago, eta juntagailuaren bidez lotuak, adibidez. Horrelakoetan badirudi izen sintagmaren egiturari berari begiratu behar zaiola. Izan ere *haren samurgo eta haserre* esaten bada eta ez horren orde **haren samurgo eta haserre*, eta *haren gogo bihotzak*, eta ez **haren gogo bihotza*, bidezko dela ematen du izenondoa agertzen denean ere lege honi jarraitzea. Horrenbestez:

(532) Haren samurgo eta haserre *handia*

eta

(533) Haren gogo bihotz *handiak*

4.2.1.4. Partizipioa eta adjetiboa

Partizipioa, aditz adjetibo bat besterik ez da; eta horrenbestez, gainerako adjetiboen jokabidea duela esan behar da. Adibidez, zeharo lexikalizatua dagoenean, izenondoaren lekuan agertuko zaigu partizipio hori:

(534) Haur *ongi ikasiek* ez dute horrelakorik esaten

Baina horrelakoetan izenlagun gisa ere erabil daitezke, batez ere partizipiodun osagai hori perpaus oso bat denean eta, beraz, luzeegia izenondoaren lekuan joateko:

(535) *Ongi ikasi* haur batzu

esango dute Ekialdeko euskaldunek; Mendebalekoek, berriz, partizipio horri izenlagunari dagokion marka ezarriz osatuko dute esapidea:

(536) *Ongi ikasitako* haur batzu

Era berean, itzuli hauek luzeegiak gertatzen direnean, beste irtenbide bat aposiziara jotzea izan ohi dugu. Adibidez:

(537) (a) Haur bat, ongi ikasia, etorri zaigu
(b) Gizon bat, goitik behera mozorroz jantzia, ikusi genuen

Ikusi dugu partizipioa bera, huts hutsik, ager daitekeela izenondoaren lekuan, hots: izenaren eskuinetara, nahiz izenlagunaren lekuan, hau da, izenaren ezkerretara. Baina horrelakoetan, eta bereziki izenondo modura ageri denean delako partizipio hori, kontutan izan behar dugu izenondo soil dela; beraz izen sintagmari zor zaion eskema orokorrean eroriko dela izenondo hori: / ... izena ___ mugatzailea /, adibidez. Esan nahi baita, honako bi sintagma hauek zeharo egitura parekoa dute:

(538) (a) Pertsona *nekatuaren* itxura du Andonik
(b) Pertsona *onaren* itxura du Andonik

Baina gauza jakina da, *nekatu*, partizipioa den aldetik, ager daitekeela, gainerako adjetibo guztiak bezala, predikatuan:

- (539) (a) Pertsona hori *nekatua* da
(b) Gauza hori *mila bider esana* da

Kasu hauetan *nekatu*, *esan* adjetiboak ditugu eta, ageri diren lekuan ageri direlarik, dagokien izen sintagmarekin komunztadura dute. Hots: izen sintagma singularra bada, goiko perpaus horietan bezala, artikulua singularra eramango du: *-a*. Baina izen sintagma plurala bada, orduan artikulua plurala izango du:

- (540) (a) Pertsona horiek *nekatuak* dira
(b) Gauza horiek *mila bider esanak* dira

Baina nahasbidea sor dezakeen duen antzeko itzuli bat ere bada. Izan ere, *nekatua/nekatuak* bikotearen parean, predikatu osagarri modura doanean partizipio hau, beste esapide bat ere guztiz hedatua dago: *nekatua* eta *nekatu*rik. *Nekaturik* bakarrik bagenu, problemarik ez genuke, zeren jendeak ez baitu nahasten *nekatua*-rekin. Problema *nekatuta*-rekin sortzen zaizkigu. Bai *nekatuta* eta bai *nekatu*rik, biak nolabaiteko aditzondo edo, dira. Aditzondo diren aldetik, aldakaitzak eta, horrenbestez, inongo komunztadurarik ez dutenak izen sintagmarekin:

- (541) (a) Pertsona horiek *nekatuta* (= *nekatu*rik) etorri ziren
(b) Gauza horiek *mila bider esanda* (= *esan*ik) daude

Eta inola ere ez:

- (542) *Pertsona horiek *nekatuta* etorri ziren

eta horrelako trakeskeriak.

Esan bezala, bada, *nekatuta* eta *nekatu*rik adberbiotzat joko ditugu. Izen Sintagmaren barnean agertzekotan, bada *-ko* atzizkia beharrezkoa dute (*ikusitako*, *ikusiriko*), gainerako adberbio guztiak bezala. Horregatik, ezin esan daiteke honako hau:

- (543) (a) *Pertsona nekatutaren itxura du Andonik

ez eta beste hau ere:

- (b) *Langile zapalduaren problema

Gainera nekatuta eta antzeko itzuliek, jatorriz, honako osagai hauek dituzte: *nekatu + eta*, ondorengo esaldi hauetan ikusten ahal denez:

- (544) (a) Hau esan eta aldegin zuen
Hau esanda aldegin zuen
Hau esanik aldegin zuen
- (b) Bere zor guztiak ordaindu eta hil zen
Bere zor guztiak ordainduta hil zen
Bere zor guztiak ordaindurik hil zen

Esanahiaz hain antzeko diren forma guztion arteko mugak ongi zehaztea ez da bat ere lan erraza. Alde batetik diferentzia argiak daude (*haurra galtzarpean hartuta joan zen etxetik*, vs. **haurra galtzarpean hartua joan zen etxetik*) eta, bestetik, erabilera ere ez da berdina denetan. *Ikusia, erabilia, entzuna* eta horien tankerako formak (-*a*-dunak) ekialde eta mendebalean erabiltzen dira. *Ikusita, eginda* eta horrelakoen erabilera, berriz, mugatuagoa da euskalki batzuetara. Sintaxiaz ere, badirudi hiztunak bereizketa hauek egiten dituela:

1. Predikatu osagarria denean:

- (545) (a) Atea irekia da(go)
(b) Atea irekirik da(go)
(c) Atea irekita da(go)

2. Adberbioaren kutsua duenean:

- (d) Atea irekirik, hizketan segitu genuen
(e) Atea irekita, jende guztia sartu zen

4.2.1.5. Partizipioa eta izena

Hala ere, partizipio hauek batzutan adjetibo gabe, *izen* direla ohartu behar dugu. Adibidez: *esan, egin, jan, ekarri, begiratu*... gehienetan adjetibo ez, izen baizik, dira:

- (546) (a) Aitonaren esanak gogoan ditugu oraindik
(b) Apostoluen eginak
(c) Oiloen jana prestatzen ari da
(d) Zein izan da zure lanaren ekarria?
(e) Eman iezaiozu begiratu bat nire artikulu honi

4.2.2. Izenondoa predikatu osagarri denean

Predikatu osagarria deitzen diogu loturazko aditz baten bidez perpausaren subjektuari (edo beste izen sintagma bati, objektuari, adibidez) lotua ageri den adjetibo sintagma nahiz izen sintagma. Hots: adjetibo sintagma batek edo izen sintagma batek predikatua osatzen duenean loturazko aditz batekin, osagarri predikatiboa dela esaten dugu. Adibidez:

- (547) (a) Liburu hori *oso ederra* da
 (b) Zure lehengusua *Andoni* da
 (c) Gure amona *ongi* da

Osagarri predikatiboak ditugu honako hauek ere:

- (548) (a) Garaikoetxea *lehendakari* izendatu dute
 (b) Jesusek ura *ardo* bihurtu zuen
 (c) Pepita *neskame* joan zen
 (d) Mikel *preso* hartu zuten

Hauetan osagarri predikatiboa ez da adjetibo sintagma bat, izen sintagma mugagabe bat baizik. Osagarri predikatiboa deitzen zaio perpausako beste izen sintagma bati buruz (Garaikoetxeaz, Pepitaz, uraz eta abarrez) zerbait *predikatzen*, esaten, duelako.

Osagarri predikatiboan ageri den adjetiboa ere arestian egin dugun sailkapenaren arabera izan daiteke, hots: izenondoa nahiz izenlaguna. Baina oraingoan, osagarri predikatiboa izen sintagma bat ez bada behintzat, izenondo hori edo izenlagun hori izenik gabe agertuko zaigu:

- (549) (a) Liburu horiek *garestiak* dira
 (b) Aldare hori *zilarrezkoa* da
 (c) Ogi hau *atzokoa* da

4.2.2.1. Lotura aditzak

Osagarri predikatiboa eta izen sintagma lotzen dituen aditzari *lotura aditza* deitzen zaio. Era honetako aditzik usuena *izan* dugu, baina beste zenbait ere badira: *egon*, adibidez. Eta beste aditz askok ere loturazko modura lan egin dezakete: *bilakatu*, *bihurtu*, *egin*, *iruditu*, *ukan*...

- (550) (a) Gure haurrak *handi* egin dira
(b) Zopa *hotza* dago
(c) Zapata hauek *txiki(ak)* ditut

Hauetako zenbaitek, hala ere, badirudi adjetibo sintagma baino gehiago izen sintagma hautatzen dutela. Hori da, adibidez, *bilakatu*, *bihurtu*, *egin* eta beste askorekin gertatzen dena.

- (551) (a) Etxe handi hura *hauts* bihurtu zuten
(b) Pello *alkate* egin dute

Era honetakoak izango dira, beste osagarri predikatiboaz egindako perpaus hauek ere:

- (552) (a) Pello *soldadu* joan zaigu
(b) Andoni *irakasle* dago Sorbonan
(c) Itziar *serora* sartu zaie

4.2.2.2. Predikatu osagarri mugatuak eta mugagabeak

Predikatu osagarria dela eta, aurkezten zaigun arazorik nagusiena da jakitea noiz ageritu behar duen mugatzaileak eta noiz ez. Ez da batere erraz arauak ematea, arau zehatzegirik ez dagoela baitirudi. Ikus ditzagun hala ere, zenbait kasu.

4.2.2.2.1. Joan, egon, bihurtu, hartu

Osagarri predikatiboa *joan*, *egon*, *bihurtu*, *hartu* eta antzeko aditzekin doanean, normalki mugagabea izango da osagarri hori, batez ere osagarri predikatiboa izen batez edo izen sintagma batez osatua badago. Hortaz,

- (553) Ura *ardo* bihurtu zen

eta ez

- (554) *Ura ardoa bihurtu zen

(ez eta ere, noski, *ardotara*, *ardotan* eta antzekoak).

(555) Andoni *irakasle* dago

eta ez,

(556) *Andoni *irakaslea* dago

4.2.2.2.2. *Izan*

4.2.2.2.2.1. Lotura aditza *izan* denean adjetibo sintagma normalki mugatuan joan daiteke:

- (557) (a) Aita *ona* da
 (b) Edurne *lodiagia* da
 (c) Hango *cixe hura oso polita* zen lehen

Esan beharrik ez dago adjetibo sintagman agertu behar duen mugatzailea beti artikulua dela eta ez erakuslea, adibidez. Bestalde, mugatzaile honen zeregina adjetibo sintagmaren eta izen sintagmaren arteko komunztadura markatzea besterik ez dela dirudi. Honek esan nahi du izen sintagma singularra bada, adjetibo sintagmak ere singularra izan behar duela eta izen sintagma plurala bada, adjetibo sintagma ere plurala izango dela:

- (558) (a) Aita *ona* da / Gurasoak *onak* dira
 (b) Eliza *hura oso zaharra* da / Eliza *haiek oso zaharrak* dira

Adjetibo sintagma partizipioaz osatua badago, orduan ere mugatzailea derrigortzekoa da:

(559) Liburu *hori oso ongi idatzia* da

Hain zuzen, mugatzaileak ematen digu osagarri predikatiboa eta aditzaren lehen osagaia elkarrengandik bereiztea:

- (560) (a) Hil da ≠ hila da
 (b) Bete da ≠ betea da
 (c) Gaur sortu da ≠ sortua da

Hemen sartu behar dira honako itzuli hauek ere:

- (561) (a) Liburu horiek *aitonak erosiak* dira
(b) Mutil hori *nobela ugari irakurria* da

Dena dela, partizipioaz gorago esana gogora bedi.

4.2.2.2.2.2. Lotura aditza *izan* delarik osagarri predikatiboa adjetiboz ez, izenez edo izen sintagmaren batez osatua egon daiteke. Izen sintagma horren erreferentzia zehatza bada ez da dudarik: mugatua izango da:

- (562) (a) Andoni *gure irakaslea* da
(b) Andoni *aita ikusi genuen mutila* da

Baina izen horrek zerbait orokorra adierazten badu, nolabaiteko adjetibo modura edo, interpreta daitekeena, nahiz eta berez izena izan, orduan zilegi da mugatzailerik gabe ematea osagarri predikatibo hori:

- (563) (a) *Andoni irakaslea(a)* da
(b) Ni naiz *testigu*, ta (...) ni nerai naiz *Juez* (J.B.A., 322)
(c) Ezer egera bihurtzen du mesede, edo *mesede* izan citequtan gauza (J.B.A., 344)
(d) Ez niaquian *becatu* cirala (J.B.A., 157)
(e) Isillic uzten dituen gauza gucion *ordain* da (...) ematen dioen alabanza (J.B.A., 85)
(f) Ceru oriee Jaunaren vicilecuaren *atari* besteric ez dira (J.B.A., 350)
(g) Zan (...) lurreco gauza gucion *Jaun*, eta *jabe* (J.B.A., 98-99)

Hala ere, bestelakoak ere eman daitezke:

- (564) gurala *Jangoico beraren semeac*, *Jesu-Cristoren senideac*, ta *ceruco erreñuaren herederoac* (J.B.A., 278)

4.2.2.2.2.3. Hala ere, lotura aditza *izan* izanarren, badira zenbait adjetibo mugatzailerik gabe agertzeko joera dutenak, *zoriontsu*, *dohatsu*, *libre*, *berdin*:

- (565) (a) *Zoriontsu zara?* (=Zoriontsua zara?)
(b) *Libre* da gizona nahi duena egiteko
(c) Guicoc guerra *berdin*... (J.B.A., 233)

Era berean, badira zenbait adjetibo beti osagarri predikatiboan agertzen direnak eta inoiz ez izen sintagma baten barnean beste adjetiboak bezala: *gai*.

gauza, aihar, haizu, zilegi, sori, bide (komeni, ados, akort ere hemen sartuko genituzke behar bada):

- (566) (a) Ezkontzaren haustea *lege* da, baina ez *zilegi*
 (b) Ez naiz *gai* zuk diozuna ulertzeko
 (c) *Ados* ginen geure asmo guztietan

Hauek ere, bistan da, mugatzailek gabe agertzen dira. Dena dela, behar bada, azken sail honetan aipatu ditugun adjetibo direlako horiek beste era batera trata daitezke, aditz esapide modura edo. Esan nahi baita, *gai izan, gauza izan, aihar izan, zilegi izan, ados izan (egon)* eta antzera trata litezke.

4.2.2.2.2.4. Zenbait izen *adjetibo* modura erabiltzen ahal ditugu: *bildur, gose, haserre, ahalge, lotsa, ikara, izerdi, egarri, hotz, bero...* oro har, inoren egoera, barnekoa nahiz kanpoko, adierazten duten izen adjetiboak izango lirateke:

- (567) (a) Nire txakurra *gose* zen (= goseak zegoen)
 (b) *Haserre* da gure mutila
 (c) *Lotsa* naiz zuk diozuna egiteko

Hauek ere mugatzailek ez dute ametitzen.

4.2.2.2.2.5. Mugagabeen joan daiteke adjetibo sintagma perpaua txertatu bati dagokionean. Hori gertatzen da *on, hobe, zail, gaitz, harrigarri* eta antzeko adjetiboekin.

- (568) (a) Gauza guztiak ongi egitea *zail* da (= zaila da)
 (b) *On* da eskolatzea
 (c) *Harrigarri* da zein nekez ikasten duten batzuk
 (d) Mendian zein den *eder* eper zango gorri

Hauek ere zilegi dira forma mugatuak ere. Dena dela, mugagabeko forma hauek hizkera landuaren kutsua dutela dirudi. Alegia, forma mugatuak baino *jasoagoak* edo *ikasiagoak* dirudite forma mugagabeak.

Gauza bera gertatzen dela dirudi adjetibo enumerazio bat dugunean:

- (569) Jauna, zure grazia ez da *handi, azkar* eta *gozo*?

Noski, forma mugatua ere zilegi da:

(570) Jauna, zure grazia ez da *handi, azkar* eta *gozoa*?

nahiz:

(571) Jauna, zure grazia ez da *handia, azkarra* eta *gozoa*?

4.2.2.2.6. Adjetiboak maila adberbioren bat duenean, eta bereziki *-ago* konparazio atzizkia duenean ere, joera handia dago mugatzailea ez jartzeko:

(572) Ez ote da aur au bakar *bacarric* santuen eta aingueruen *escuadra oriee* guciac baño *ederrago*? (J.B.A., 89)

Hala ere, autore berak:

(573) Ez da batere *laburragoa* beraren jaquiundea. (J.B.A., 314)

-egi atzizkiarekin ere bietara joka daitekeela dirudi:

(574) Etxe hori *haundiegi* da zuretzat

Nahiz,

(575) Etxe hori *handiegi* da zuretzat

Superlatiboarekin, berriz, beti mugatzailea ageriko da:

(576) Nik ikhusi artzaitetan ziti zira *cederrena*

Hortaz, mugatu/mugagabe auzi honetan ez dirudi arau zehatzik eman daitekeenik. Gehienez ere, joeraz hitzegin daiteke, eta, alde honetatik, gu geu honako hau esatera ausartuko ginatke: aipatu diren zenbait kasu jakinetatik kanpo *izan* denean lotura aditza adjetiboak —ez izen sintagma— mugatzailea hartzeko joera nabarmena du. Hala ere, aipatu diren salbuespenak kontutan hartzekoak dira.

Izenlagunez osatutako predikatu osagarrietan beharrezkoa da artikulua.

(577) (a) Liburu hori *plastikozkoa* da (ez **plastikozko*)
(b) Erazun horiek *Itziarrenak* dira (ez **Itziarren*)

4.2.2.2.3. Bestelako aditzak

Lotura aditza *izan* ez, besteren bat, dugunean, errazago da mugagabea agertzea. Eta esan liteke lotura aditz horrek zenbat eta eduki semantiko handiagoa duen, hainbat errazago aurkituko dugula adjetiboa mugatzailerik gabe. Askotan, gainera, adjetibo ala adberbio den ez dakigula gelditzen gara. Adibidez:

(578) Edurne *dotorea* da

baina,

(579) (a) Edurne *dotore* dago
(b) Edurne *dotore* dator
(c) Edurne *dotore* dabil

(580) Ura *oso hotza* da

baina,

(581) (a) Ura *oso hotz(a)* dago
(b) Ura *oso hotz(a)* dator

(582) Anaiak *onak* ziren

baina,

(583) Anaiak *on(ak)* bihurtu ziren
(584) Anloni *handia* da

baina,

(585) Anloni *handi(a)* egin da

Hala ere, osagarri predikatiboa subjektua ez den izen sintagmari dagokionean, mugatzailea ageri dela dirudi:

(586) Begiak *ederrak* dituzu

4.2.2.3. Izenondoa eta aditzondoa

Sari samar adjetibo soilak, inolako mugatzailerik gabe, adberbio funtzioa betetzen duela dirudi. Hori argi dago *-ik* atzizkia edo besteren bat erasten diogunean adjeriboari: *bizirik, pozik, isilik, tristerik, osorik*... Hauek adberbio direla esango dugu.

Baina inolako atzizkirik gabekoak ere baditugu:

- (587) (a) *Gogor* ematen badiozu hautsiko da
(b) *Zintzo* jokatu duzu
(c) *Luze* mintzatu zitzaigun
(d) *Merke* erosi genituen liburua

Gogor, zintzo, luze eta *merke*, beste testuinguru batean izenondotzat hartzeko ez genuke inongo oztoporik izango, baina kasu honetan mugagabea doazelarik, beharbada aditzondotzat har litezke. Lehenbiziko hirurak behintzat hala dirudite, zeren *gogor, zintzo* eta *luze* ez dirudi inongo izen sintagmari dagozkionik, aditzak adierazten duen ekintzari baizik. Alegia, *luze mintzatu* esaten dugunean mintzatzeko moduz ari gara. Hala ere, gauza ez dago hain argi *merke*-ren kasuan. Hemen *merke* nolabait liburuei dagokie eta ez, erosteko moduari.

Dena dela, atzizkiren bat dutenean adberbiotzat hartzeko eskubide osoa dugu. Besteetan, ez dakigu. Hala ere, hauek denek *nola* galderari erantzuten baldin badiote, normalki adjetibo hori mugagabea joango zaigu. Bestalde, delako adjetibo-adberbio hori atzizkidun adberbio batez ordezkataitekeenean, adberbiotzat har liteke. Bestela ez. Adibidez:

- (588) (a) *Gogor eman* = *gogorki (edo era gogorrean) eman*
(b) *Zintzo jokatu* = *zintzoki jokatu*
(c) *Luze mintzatu* = *luzaro mintzatu*
(d) *Merke erosi* ≠ **merkeki erosi? era merkean erosi*

Hortaz, *gogor, zintzo*, eta *luze* kasu honetan adberbiotzat hartuko ditugu, baina ez *merke*.

Horrela jokatzuz gero, bestalde, ongi esplikataiteke zenbait adjetibo-adberbioren anbiguitatea. Adibidez:

- (589) *Edurne* dolore ibiltzen da

Perpauz honetan *dotore* zer izango da izenondo ala aditzondo? Biak. *Dotorek* ibiltzeko era, ibilera, adierazten badu, aditzondotzat hartuko dugu, baina Edurneren kualitaterean bat adierazten badu, orduan izenondotzat hartuko dugu.

4.2.2.4. *Huts* izenondoa

Huts beste izenondo atributiboen lekuan ager daiteke:

- (590) (a) Kafe *hutsa*
(b) Botela *huts* batzu

Baina beste adjetiboak nolabait *kalifikatuz* edo ere, ager daiteke:

- (591) (a) On *hutsa* da neska hori
(b) Alfer *hutsa* da Joseba lanerako

Horrelako itzuliak adjetibo predikatiboekin erabiltzen ditugu. Azken baten superlatibo mota berezi bat izango dira esapide hauek. Horiaz:

- (592) (a) Neska hori on *hutsa* da
(b) *Neska on *huts* bat ezagutzen dut

Azken perpausa ez da gramatikala. Bestalde, *huts* da aditz-izeneko perpausok eraman dezaketen ia adjetibo bakarra (*soil* eta beste bakarren bat ere bai):

- (593) Zu ikuste *hutsak* ikaragarritzko poza eman zion amari

4.2.2.5. Adjetiboaren osagarriak

Predikatu osagarriaren barnean sarritan adjetiboaren ondoan zenbait konplementu ager daitezke izenondoaren esanahia nolabait osatuz. Hain zuzen, hauetariko zenbait beti konplementuarekin erabili behar izaten ditugu: *gai*, *pare*... beti *zerbaitetako gai* edo *zerbaiten pare* esan behar izaten dugu.

Konplementu hori perpauz osoa izan daiteke, aditz jokatu gabeko perpausa, hain zuzen. Perpauz konplementu honek askotan *-ko* atzizkia eramango du, baina inesiboan edo instrumentalean ere joan daiteke beste batzutan. Adibidez:

- (594) (a) Egin nahi duzun lana egiteko trebe da gizon hori
(b) Perretxiko guztiak ez dira jateko onak izaten
(c) Ez naiz zure arazoak konpontzeko gai
(d) Liburu hori ulertzen zail(a) / gaitz(a) / erraz(a) / neke da

Izan daiteke, baita, bestelako izen sintagma bat ere:

- (595) (a) *Elizari* hurbil dago Joxeren etxea
(b) *Diruz* aberats zen baina *osasunez* behartsu
(c) Ondoa zabal eta *puntan* mehar (Ax., 15)
(d) *Ezia* *aphezeta*ko on (Ax., 239)

4.2.3. Kategori aldaketak

4.2.3.1. Izen bihurtutako izenondoak

Aipatua dugu euskaraz sarritan gertatzen den kategori aldakortasuna: zenbaitetan ez dakigu adjetibo baten aurrean gauden ala adverbio baten aurrean. Beste batzutan *gose*, *bero*, *hotz*, *egarri* eta antzeko hitzak izenondo nahiz izen izan daitezke. Noiz gauden bataren eta noiz bestearen aurrean, beti bezala, testuinguruak argituko digu:

Ur hotza esaten badut *hotz* adjetibo dela badakigu izenaren eskuinetara agertzen delako. Baina *Hotz handia* esaten badut, badakigu *hotz* izenaren lekuan dagoela. Beraz, *hotz* kasu honetan izena dugu.

Zenbait atzizki erantsiz ere *izentzen* ahal ditugu adjetiboak. Adibidez, *gozo* + *tasun* = *gozotasun*. *Gozo* adjetibo bada ere, *gozotasun* izena da. Baina, atzizkirik gabe ere zenbait adjetibo izen bihur daitezke. Horietako itzulirik emankorrena /Genit. + Adj. izendua + mugatzailea/ esapidea dugu. Adibidez:

- (596) (a) Sagardoaren *gozoa* (= sagardoaren gozotasuna)
(b) Nekarearen *handia* (= nekarearen handitasuna)
(c) Justiziaren *bortitza!* (justiziaren bortiztasuna) (Ax., 92)

Horrelako itzuliak, batez ere, harridurazko esaldietan erabiltzen ditugu, baina hortik kanpo ere erabil daitezke. Gaur, agian, horrelako ordeztasun atzizkira jotzen dugu, hizkuntza astunagotuz, dudarik gabe.

4.2.3.2. Izenondo bihurtutako izenak

Alderantzizko prozesuak ere badira:

- (597) (a) Infernuan betiko *zorigaitz* zintezke
(b) *Adin* gara (= *Adin bereko gara* esateko)

Askotan, nolabaiteko metaforak edo osatzen ditugu izen bat izenondoaren lekuan ezarriz eta, beraz, izenondoaren lana eginez:

- (598) (a) Pertsona *oiloa*
(b) Pertsona *zorria*
(c) Gizon *debru* hori!
(d) Emazte *zilar* hori
(e) Gizon *astoa*

Hauetan denetan *oiloa*, *zorri*, *debru*, *zilar*, *asto* adjetibo bihurtuak daude. Zer esanik ez, horrelakoak ahozko hizkeran oso erabiliak dira. Azken batean, pertsona bati beste zer baiten, animalia baten adibidez, ezaugarriak aplikatzea oso baliabide erabilia dugu.

4.2.4. Izenondoaren mailakatzea

Zerbaiti buruz hitzegitean, *polita* dela esan daiteke adibidez, besterik gabe:

- (599) (a) Etxe *polit* bat dago salgai
(b) Edurne neska *polita* da

Hemen etxearen edo neskaren politasuna baieztzen da, inolako ñabardurarik gabe, erabat. Baina gauzak ez dira beti erabat txuri edo erabat beltz gertatzen. Gauza batzu beste batzurekin konparatzen ditugu eta, horrela, erabiltzen ditugun izenondoak nolabait mailakatu beharrean aurkitzen gara. Horrela, *etxea polita da* gabe, askotan *etxea polit-polita* dela edo *nahikoa polita* edo *hain polita* eta abar, esan beharrean aurkituko gara.

Izenondorik gehienek —eta zenbait adberbiok ere bai— ametitzen dituzte mailak. Adibidez, lehengo adibidearekin jarraituz, *polit* adjetiboak kalitate bat adierazten du, baina politasun-maila asko izan daitezke: gauza bat bestea baino politagoa izan daiteke, edo aski polita edo oso polita, politegia eta abar. Baina badira adjetibo batzu, duten esanahi bereziagatik, mailarik onartzen ez dutenak. Adibidez, *begibakar* adjetibotzat har dezakegu:

(600) Gizon *begibakar* bat atera zitzaidan

Honako perpaus honetan ezin dugu *begibakartasun* horretan inolako mailarik pentsatu; norbait *begibakarra* bada, zeharo *begibakarra* izango da; ezin pentsa daiteke bat bestea baino *begibakarrago* izan daitekeenik; edo *begibakarra* da edo ez da *begibakarra*.

Izenondo baten maila adierazteko bide asko ditugu:

- marka fonetikoak
- marka morfologikoak
- maila adberbioak eta zenbatzaile batzu
- konparaketak

(Ordena aldaketak berak ere esanahiaren maila aldarazi dezake).

4.2.4.1. Marka fonetikoak

Balio berezlerik ez dutenez, gaitz da arlo honetan zehazki mintzatzea haietat. Baliabide hauek ahozko hizkerari dagozkio eta, horrenbestez, normaliki, ez dntte idatzian aztamarik utziko.

Hala ere, hiru marka aipa daitezke:

- Azentua. Sarritan silabako bokalaren luzapenez lagundurik gertatuko da. Gehienetan lehen silaba jotzen du:

- (601) (a) *Jáitorra*
(b) *Sorgin gáiztoa zen*

Dena den, alde batetik bestera azentua aldatu egiten denez, honetan ere alde bateko eta besteko usadioak desberdinak izango dira.

- Palatalizazioak. Ezaguna da euskaraz *bustidurak* duen garrantzia. Izenondoekin ere balia daiteke:

- (602) (a) *Ur hotza* ≠ *Ur hotxa*
(b) *Gizon zozoa* ≠ *Gizon xoxoa* (azken hau eri da, gaixoa, nolabait, bestea
ω)

Palatalizazioa forma hipokoristikoak sortzeko erabiltzen dugu. Hortaz, adjetiboekin ezigarri gisa baliatu ohi dugu, ez goi maila adierazteko. Hala ere, oso neke da gauza horietan erregela zehatzik ematea: *gozo/goxo*; *zuhur/xuhur*; *bizil/bixi*; *labur/llabur*; *zintzo/txintxo*, e.a. Dena den, askotan bi formak zeharo lexikalizatuak ageri dira bakoitzak bere esanahi propioa duelarik. Adibidez, *xuhurra* ez da zenbaitentzat *zekena*, baizik, ez *zuhurr*-en forma bat.

- Zenbait ezaugarri fonetiko azkartzea kontsonanteetan. Puntu hau beste biei lotua agertzen zaigu sarritan. Gisa denez, frikatu eta frikarietan nabaritutako da hobekienik, txistukarietan (*asssko*, *hasserre*...) nahiz aspirazioa bizi den tokietan soinu aspiratuetan (*hhandia*, *hhitsa*, *zikhina*... zeinetan aspirazioa indar handiagoz gertatzen baita). Behar bada, zenbait lekutan /π/-rekin ere horrelako zerbait gertatzen da: *izugarrria*, *harrroa*...

Marka fonetiko hauek beste mailakabideekin metatzen ahal dira: *goxo-goxoa*, *biziki luxea*, *oso txintxo*...

Eta bestalde, jakina, adierazkortasun bide hau izenekin ere gertatzen da, enfasi kontua baita azkenean.

4.2.4.2. Marka morfologikoak

Bi moldetakoak izan daitezke:

4.2.4.2.1. Atzizkiak

Konparatiboez kanpo, izenondoetan gutxi agertzen dira atzizkiak, maila markatzaile gisa behinik behin. Azken batean atzizki deribatiboak dira, gehienetan goi mailarik eza edo, adierazten dutenak:

- *-sko*, *-xko*:

- (603) (a) *berant / beransko*
 (b) *gazte / gaztesko*
 (c) *harro / harroxko*

Batzutan era honetako diminutibo hauek soberatasuna ere markatzen dute:

Gaztesko zara eni manera horretan mintzatzeko

- *-ska, -xka*:

- (604) (a) *ilun / ilunska*
(b) *gorri / gorriska*
(c) *zozo / zozoska*

- *-xe*. Gaur egun gutxi erabiltzen da atzizki hau, izenondoekin partizipioekin baino askoz gutxiago, dudarik gabe: *finituxe, lotsatuxe, egintxe...*

- (605) (a) *Hoa laster baratxe* (R. y S., 173.a)
(b) *Asexek ere gare gehienak* (L. Apoztegi)

Konparatzaileetan, haatik, *-xe* anitzetan agertzen da: *handixeago, handixeegi*.

- *-tzar*. Besteak ez bezala, Bizkaian bereziki erabilia den atzizki honek goi maila adierazten du. Nahiz gehienetan izenekin agertu, Azkueren arabera, zenbaitetan, adjetiboek ere lotzen ahal zaie: *handitzar*. Badirudi atzizkiak alderdi negatibo edo peioratiboa ere baduela (cf. *tzar* adjetiboa beste euskalkietan).

- *-txo* edo *-to* atzizkiez ere baliatzen gara:

- (606) (a) *Neskatila beltzarantxo* bat ikusi genuen
(b) *Gizon zikozto* bat (Zabala)

- Beste atzizki batzu ere aipa daitezke, koloreekin darabiltzagunean batez ere: (*-ats, -ail*) *-tsu*:

- (607) *gorrats, gorrail, gorritsu...*

- Baita adjetibo edo izen butetik aterak: *-antz*.

- (608) *gorriantz, gaziantz, hotzantz...*

4.2.4.2.2. Izenondoaren errepikatzea

- (609) (a) *Polit-polita* da etxe hori
(b) *Gorri-gorriak* dira etxean ditugun loreak
(c) *Liburu eder-ederra* duzu hori

Horrela, izenondoak adierazten duen kalitatearen mailan jartzen dugu, *guztiz*, *txit*, *oso* eta antzeko maila-adberbioez hornitutako adjetiboak baliatzen garenean bezala.

Bestalde, izenondoetatik aparte ere askotan baliatzen gara errepikatzeaz:

- (610) (a) Poz-pezik ibili ziren
 (b) Blai-blai egin ziren
 (c) Neka-neka eginda etorri ziren haurrak mendiak

4.2.4.3. Maila adberbioak eta zenbatzaile batzu

Esan daiteke hemen hasten dela benetako mailaketa.

4.2.4.3.1. Goi maila adieraziz

Goi maila adierazteko honako maila adberbioetako zenbaitez baliatu gaituzke: *oso*, *guztiz*, *biziki*, *txit*, *arrunt*, *arras*, *erabat*, *zeharo*, *izugarri*, *gogorki*, *itsuski*, *hagitz*, *xoil* (ark.), *ondo*, *ongi*, *anitz*, *frango*, *lar*, *sobera*.

Elementu hauek izenondoaren ezkerrean kokatzen dira. Izen sintagmetan izenaren ezkerrean joan ohi dira horietarik asko:

- (611) (a) Neska hura *oso* polita da
 (b) *Erabat* aspertuak geunden
 (c) *Biziki* neska atsegina zen Edurne

Hala ere, izenondoa izen sintagmaren barnean badago, bi joera ditugu adberbioaren kokalekua finkatzeko: a) Batzuk mailaketaile hori izenaren eta adjetiboaren artean ezartzen dute; b) besteek izenaren ezkerretara:

- (612) *Oso* arazo larrietan murgildua dabil

nahiz,

- (613) Arazo *oso* larrietan murgildua dabil

Maila adberbio hauek guztiek ez dute zeharo banaketa bera, baina euskalkien araberako erabilera desberdinagatik oso zaila gertatzen da gauzak xeheki azaltzea. Adibidez, zenbatzaileak Lapurdin beregainki erabiliak dira; *ondo* eta *ongi*, berriz, gipuzkeraz eta goi nafarreraz:

- (614) (a) Etxaldea frango handia dago (M. Treku)
(b) Erranen derautzut (...) egin duzula lan bat *hainitz* probetxosa eta hanitz onezia izanen dena Eskualherrian (Murde Inchausperen letra, in *Mariaren haurren escu-liburua*)

(Zenbaitek gaizki ikusten dute jokabide hau, ingurumen batzutan gero eta hedatzenago ari dena: *anitz maite ukan, asko gustatu...*).

Asko-rekin gauzak are konplikatua goak dira. Lapurdiko tradizioan *aski*-ren balioa du, batzutan adjetiboaren ezkerrean, besteetan eskuinaldean, jartzen delarik:

- (615) (a) Bera baita bere baitan eder *asko* (Ax. 331)
(b) Berak dira bere baitan *asko* klar eta ozen (Ax. 5)

Gaur Gipuzkoan erabiltzen da goi maila adierazteko, izenondoaren edo adberbioaren eskuinaldean aurkitzen delarik, mugatzaile eta guzti gainera, zenbaitetan (ikus. Zenbatzaile zehaztugabeak):

- (616) (a) Alai *askoa* zen gure mutila!
(b) Iñaki an azaluzen zan lasai *asko* (Alkain. Zavala. *Gerrateko ibillerak.f*)

Horrelako esnpideak nolabait harridurazko esaldiak osatzeko erabiltzen ditugu. Bestelako esaldietan ez dira erabiltzen.

Gauza bera gertatzen da *ondo* eta *ongi*-rekin ere, maila adberbio gisa erabiliak direnean:

- (617) (a) *Ondo* gazterik hil zen gizagajou!
(b) *Ongi* iristea zen nobela hura!
(c) *Ondo* galanta da zuen mutikoa (Azkue)
(d) ...nere ahala *ongi* tukia izanagatik... (L. Diharassary)

4.2.4.3.2. Nahikotasuna adieraziz

Nahikotasuna adierazteko honako elementu hauetakoren batez balia gaitzke: *nahikoa*, *aski*, *asko* (ark.), *dexente*, *samar*...

Samar, honetan besteetarik bereizten delarik, ez da zenbatzailea. Adjetiboaren eskuinean egon behar du:

(618) Lan zail *samarra* eman digute

Nahikoa eta *aski* baliokideak direla dirudi; izenondoaren ezkerretara kokatzen zaizkigularik:

(619) (a) *Nahikoa* neska polita aurkitu du gure Joxek
(b) *Aski* aberatsak dira Peruren gurasoak

Hala ere, zenbait esaceratan *aski* eta *asko* adberbioaren eskuinaldean kokatzen da:

(620) (a) Segur *aski*
(b) Segur *asko*

Nahikoa eta *samar*, esanahiaren aldetik ez dira zeharo baliokideak: *nahikoa* esaten duenak zerbait gehiago, zerbait positiboagoa, esaten duela dirudi *samar*-ez baliatzen denak baino. Adibidez, *Zer moduz egin duzu lo?* galderari *Nahikoa ongi* erantzuten dionak *Ongi samar* erantzuten dionak baino zerbait positiboagoa erantzuten duela dirudi. Era berean, nobela bat *on samarra* dela esatea badirudi *nahikoa ona* dela esatea baino zertxobait gutxiago esatea dela.

4.2.4.3.3. Ezeztapenetan

Ezezko predikazioetan ukapen osoa *batere*-ren bidez egiten da:

(621) (a) Etxe hau ez da *batere* polita
(b) Mutil hori ez da *batere* ikasle ona

Esan beharrik ez dago: *batere* hau adberbio sailekoa da eta izen predikatuetan bakarrik ageri da, ez bestelako izen sintagmetan:

(622) *Batere etxe merkeak ez dituzte saltzen

4.2.4.4. Konparaketak

Orain arte aipatu ditugun maila adberbioen bidez izenondoaren maila bere horretan adierazten dugu beste batekin konparatu gabe. Alegia, *oso polita* eta *biziki higuigarria* esaten dugunean politasunari edo higuigarritasunari maila ezartzen diogu, baina ez dugu beste ezeren politasunarekin edo higuigarritasunarekin konparatzen.

Izenondoak mailakatzeko oso bide emankorra osatzen dute konparaketak. Hemen, perpaus bakunaren eremuan gabiltzanez gero, ez ditugu puntu larrienak baizik aipatuko. Izenondoari zenbait atzizki berezi erantsiz eman daiteke askotan konparazio bidezko mailakatzeara.

4.2.4.4.1. -EN atzizkia

Superlatibo erlatibo deitzen dena osatzeko erabiltzen dugu. Superlatibo mota hau aipatu nahi den kualitate gorentasuna beste batzuri begira, beste batzuekin konparatuz egiten denean, erabiltzen dugu. Adibidez, *oso polita* esan dugunean, politasunaren goi maila adierazten dugu, baina politasun hori ez dugu beste ezeren politasunarekin konparatzen, bere hartan hartzen dugu. Baina *hau da politena* esaten dudanean, zenbait gauza elkarrekin konparatu ondoren egiten dut baieztapen hori.

Adjetiboari -en atzizkia erastea aski da superlatibo erlatiboa lortzeko:

<i>handi</i>				<i>handien</i>
<i>erraz</i>				<i>errazen</i>
<i>maite</i>	+ en	=		<i>maiteen</i>
<i>hurbil</i>				<i>hurbilen</i>

Baina,

<i>asko</i>				<i>gehien</i>
<i>on</i>	+ en	=		<i>onen eta hoberen</i>

Izenondoak predikatu osagarria denean, hots, izen predikatua osatzen duenean, jakina da izenondoak berak bakarrik (edo adjetibo + mugatzailea) osatzen duela sintagma. Adibidez:

- (623) (a) Edume da *handiena*
 (b) Liburu hori da *garestiena*

(*Hurrena, aurrena, lehena, azkena*, e.a. ere superlatibo mota honetakoak direla dirudi).

Baina askotan izenondoa izen sintagma baten barruan joan ohi da izen bati lagunduz:

- (624) (a) Liburu *polit* bat erosi dute
 (b) Mutil *galant* horrek egingo du lan hori
 (c) Traba *handiak* aurkitu ditugu geure bidean

Horrelako sintagmetan izenondoa (*polit, galant, handia...*) superlatiboan doanean, joera da aurreko izena partitiboan jarzea:

- (625) (a) *Libururik* politena erosi dute
 (b) *Mutilik* galantenak egingo du lan hori
 (c) *Trabarik* handienak geuk aurkitu ditugu bidean

Badirudi horrelakoetan *libururik* edo *mutilik* edo *trabarik* esaten dugunean liburuen, mutilen edo traben multzo osoa hartzen dugula eta multzo horretatik politena, galantena, handiena hartzen dugula. Ideia hau azpimarratzeko, sarritan beste zenbait esapidez baliatzen gara:

- (626) (a) Munduko mendirik garaiena da hori
 (b) Inon den neskarik alperrena dugu Joxepa
 (c) Inoiz ikusi dudarik txakurrik beldurgarriena da Txuti

Bestalde, izenari *-ik* atzizkia ezarri beharrean zilegi da beste atzizki batzu erabiltzea:

- (627) (a) Liburuetan
 (b) Liburuetarik politena erosi dute
 (c) Liburuetatik

Beti ere, superlatiboa dagokion izen hori zein multzotatik atera den aditzera eman nahi bagenu bezala. Hain zuzen, multzo horri dagokiolako deitzen zaio superlatibo *erlatiboa*.

Dena den, partitiborik gabe ere erabil daiteke:

- (628) (a) Liburu politena erosi duzu
(b) Mutil galantena Peru da
(c) Traba handienak Afrikako bidaiari aurkitu genituen

Gainera, ahaide izenekin partitibo hori gabe erabiliago dela dirudi. Adibidez:

- (629) (a) Seme zaharrena soldadu joan zaie
(b) Anaia gazteenarekin ezkondu zen Teileriako Inixi

(Ik. Partitiboa)

Euskaraz superlatibo hau beti baiezkorra da. Ez du forma ezezkorik. Alegia, *neska politena*-ren parean ez dugu *neska gutxien politena* eta antzekorik. Horrelakoetan *polit*-en antonimora jo beharrean aurkitzen gara: *neska itsusiena*. Hala ere, zientziaren zenbait alorretan badirudi *beroena*-ren parean, adibidez *gutxien(ik) beroa* edo antzeko zerbaitez baliatu beharra gertatzen dela, eta *gutxien(ik) beroa* delako hori eta *hotzena*, fisikari batentzat, adibidez, ez dela gauza bera. Kontuan har gauza bera gertatzen dela *-ago* atzizkiarekin ere: *Ez da gutiago egia* (Hiriart-Urruti).

Zenbait esapidetan *-en* formako superlatiboa erabili behar da:

- (630) (a) Ahalik eta sagarrik handiena har ezazu
(b) Ahalbait gehien ikas ezazu
(c) Ahalbait arinen etor zaitez
(d) Ahal den oherik zabalena aukeratu du

4.2.4.4.2. *-AGO* atzizkia

4.2.4.4.2.1. Atzizki honen bidez konparatiboak osatzen ditugu, esan nahi baita, bi elementu jartzen direlarik erlazioan, bati besteari baino maila goragokoa baldin badagokio, daraman izenondoari *-ago* atzizkia erantsiko diogu. Eta, orduan, adjetibo hau konparatiboa dela esaten dugu:

<i>handi</i>		<i>handiago</i>
<i>polit</i>		<i>politago</i>
<i>gorri</i>	+ <i>ago</i> =	<i>gorriago</i>
<i>zikin</i>		<i>zikinago</i>

Baina,

asko
on + *ago* = *gehiago, (haboro)*
hobe

Bestalde *gaizki* + *ago* = *gaizkiago* eta *oker* + *ago* = *okerrago*.

Adibidez:

- (631) (a) Etxe *handiagoa* behar dugu
(b) Herri *zikinagorik* ez dut ezagutzen

Eta adjetibo predikatibo gisa:

- (632) (a) Etxe hori *handiago(a)* da
(b) Herri hori *zikinago(a)* da

Adibideek erakusten duten bezala, *-ago*-dun adjetibo hori izen predikatua bada, hots: predikatu osagarria bada, artikulua ezartzea aukerakoa da: *handiago* nahiz *handiagoa* biak dira zilegi.

Dena den, *-ago* atzizki hau konparatiboa bada, zein elementurekin konparatzen dugun esaten bada, elementu horri *baino* erasten zaio. Horrelakoetan adjetiboaren maila aurreko perpaus osoak adierazten du. Izan ere, *izen sintagma* + *baino* + *adjetiboa* + *-ago* egituraren aurrean aurkitzen garenean, berez, hori egitura luzeago baten laburpen bat besterik ez da. Adibidez:

- (633) (a) Etxe hori *beste hura baino handiagoa* da
(b) Herri hori *gure txerritegia baino zikinagoa* da

Azpitarratutako egitura hori beste egitura hauen laburdura bat besterik ez dela esan daiteke:

- (634) (a) ...beste hura den baino handiagoa...
(b) ...gure txerritegia den baino zikinagoa...

4.2.4.4.2.2. Esan behar dugu hemen konparazioak berak ere mailak onartzen dituela. Horrela: *handiago*, *ederrago* eta antzeko konparatiboez baliatzen garenean bi elementu edo bi multzo (A eta B) konparatzen ditugu,

nahiz eta askotan bigarrena agertu ez. A eta B-ren handitasuna konparatzen dugu, adibidez, honako perpausetan :

(635) B baino handiago(a) da A

Baino gerta daiteke A eta B-ren handitasuna konparatzeaz gainera, bata bestea baino handiago izate hori zenbatetarainokoa den esan beharra izatea. Diferentzia neurtzeko *askoz*, *anitzez* bezalako instrumentalez baliatzen gara eta baita beste zenbait maila adberbioz ere: *biziki*, *aise*, *dexente*, *piska bat*, *apur bat*, eta abarrez:

(636) (a) Zu baino biziki (aise, anitzez, askoz (ere), dexente...) handiagoa da
(b) Zure autoa nirea baino apur bat luzeagoa da

Era berean, denbora eta kantitatea adierazten duten adberbioekin ere. Hauetan *zenbat beranduago*, edo *zenbat gehiago*, edo *zenbat garestiago* galderei era honelara erantzun dakieke:

(637) (a) *Bi ordu beranduago etorri zen tren*
(b) *Bi kilo gehiago erosi beharra izan nuen*
(c) *Mila pezeta garestiago jarri dituzte sarrerak*

4.2.4.4.2.3. Diferentzia zenbatetarainokoa den aditzera emateko ere instrumentalaz (ik. Instrumentala) baliatzen gara:

(638) *Buruaz handiago zen Edurne senarra baino (hots: senarra Edurneri, gehienez ere kokotzeraino iritsen zitzaion)*

Beste erabilera bat ere badu instrumental honek:

(639) (a) *Eztaiaz beheago sartzen çaio khe belça* (Zib. Etxeb. v. 2827)
(b) *Mereciez guehiago hartçaiçue sariac* (Zib. Etxeb. v. 2314)
(c) *Hartu dituecz arc haguiz handiagoc* (Zib. Etxeb. 2513)

Hauetan denetan, normalki, instrumentalaren ordez */...baino/* ezarriko genuke:

(640) *Eztaia baino beheago*

eta abar.

4.2.4.2.4. Zenbait esapidetan *-ago*-dun izenondoa (edo dena delakoa, adberbioa, adibidez) erabiltzen dugu. Hona hemen horietako zenbait:

a) *Gero eta ... -ago*:

- (641) (a) Gero eta poliago da nobela hau
 (b) Gero eta urrunago zihuan txalupa
 (c) Gero eta diru gehiago behar dute

Gero eta ...-ago-ren ordez, *geroago eta ... -ago* ere erabil daiteke:

- (642) (a) Geroago eta diru gehiago jokatzen duzu
 (b) Geroago eta liburu zailagoak idazten dituzte gaurko idazleok

Beti eta ...-ago ere erabiltzen da:

- (643) Beti eta beranduago etortzen zen

Hemen ere, izenondoa izen sintagma baten barnean aurkitzen bada, esan behar da, *gero eta ... delako* esapidea izenaren ezkerretara joan daitekeela, baina baita izenaren eta adjetiboaren artean ere. Adibidez:

- (644) Gero eta auto garestiagoak erosten ditu Beñatek

nahiz,

- (645) Auto gero eta garestiagoak erosten ditu Beñatek

b) *Zenbat (eta) ...-ago* *hainbat*
 orduan *(eta) ...-ago.*
 gero

- (646) (a) Zenbat (eta) gehiago irakurri, hainbat arinago ikasten dut
 (b) Zenbat (eta) zaharrago, hainbat (eta) petralago
 (c) Zenbat (eta) beranduago etorri, gero (eta) okerrago zuretzat

Laburrago ere eman daitezke goiko esapide horietako zenbait. Adibidez:

- (647) Zaharrago eta txarrago (= *zenbat eta zaharrago hainbat txarrago*)

Esapide hauen forma klasikoa *zenbatenaz ... hanbatenaz* da:

(648) Zenbatenaz gosca handiago, hanbatenaz ianharia gozoago (Ax., 318)

c) *Aldian baino aldian ...-ago.*

(649) Aldian baino aldian gaiztoago iruditzen zait gizon hori

d) *Zein baino zein ...-ago.*

(650) Neska horiek zein baino zein ederragoak dituzu

Alegia, neska horiek denak ederrak dira eta ez zenuke jakingo zein den ederrena erabakitzen.

e) *Ezinago + adjetiboa = ezin + adjetiboa + -ago.*

- (651) (a) Ezinago ederra zen paraje hura
(b) Ezin ederrago(a) zen paraje hura
(c) Nobela ezin zailagoa idatzi du
(d) Nic loa ere neurrian ta *ecin gueiagotan* emango dizut (Kard., 18)

Hauek egiazki superlatibo mota bat izango lirateke, esanahiaren aldetik, baina formaz, *-ago* atzizkia dela medio, konparatiboekin batera sartu behar. Era berean honako esapidea ere:

f) *Adjenbioa (edo adberbioa) + baino adjetiboa (adberbioa) + -ago.*

- (652) (a) Politu baino politagoa zen neska hura
(b) Urruti baino urrutiago joan zen ontzia

g) Ordua adierazteko ere *gutxiago* edo *gutxi* erabili behar izaten dugu. (Ikus Zenbatzaile zehaztuak):

- (653) (a) Hamaikak laurden gutxiagotan etorri zen
(b) Hamabiak bost gutxiago dituzu

h) *Hobeto* (hobeki) eta *hobe*. Honetaz ere ohartxo bat egitea guttiz beharrezkoa ikusten dugu, gauzak zenbaiten ahotan aski nahasiak baitabiltza. *Hobe* adjetiboa da, *on*-i dagokion konparatibozko forma, hain zuzen. Baina *ongilondo* adberbioei dagokien konparatibozko forma *hobeto* edo *hobeki* dugu. Hortaz, batetik *hobeago* eta *hobetoago* esatea alferrikako zerbait esatea da,

hobe aski baita. Eta bestetik, *nola esan?* galderari erantzungo liokeena ez litzateke izango *hobe esan*, *hobeto esan* baizik. *Hobeto* baita adberbio. Horregatik:

- (654) (a) Piloa hau bestea baino hobea da (ez *hobeagoa*)
 (b) Hori hobeto esanda dago (ez **Hobe esanda dago*)

Era berean:

- (655) (a) Hobeto aurkitzen da (ez **hobetoago aurkitzen da*)
 (b) Hobeki aurkitzen da (ez **hobekiago aurkitzen da*)

i) *are ...-ago*. *-ago* konparatiboaren atzizkiarekin batera, *are* elementua ere agertzen da:

- (656) Etxe hori beste hura baino handiago(a) da, baina eliza *are handiagoa*

are ...-ago itzuliaz baliatzen garelarik, aldez aurretik zerbait suposatzen dugu. Ezin gara, besterik gabe, *Ni are aberatsagoa naiz* esaten hasi. Hau dioenak, aldez aurretik *X aberatsa da* edo *X Y baino aberatsagoa da* suposatu behar du, bere esaldia zentzuzkoa izango bada. Konparazio soilak ez bezalako inguramendua eskatzen du, beraz, egitura honek. *Mikel Itziar baino zaharragoa* dela diogunean, esate baterako, Mikelen eta Itziar-en arteko adin-aldea baizik ez dugu adierazten; mundu honetan hark honek baino denbora luzeagoa daramala esaten dugu, ez besterik. Ez dugu, alegia, ezer esaten ez eta suposatzen ere, haien adinari dagokionez: gazteak, helduak nahiz adinean ondotxo sartuak izan daitezke. *Mikel Itziar baino are zaharragoa* dela esaten dugunean, berriz, aurretik esana edo ezaguna den beste zerbait ere hartzen dugu gogoan:

Itziar bera edo *zaharra* edo, bederen, beste hirugarren bat baino *zaharragoa* dela. Eta hori gogoan harturik, *Mikel areago* dela esaten dugu.

are ...-ago egitura, beraz, honako hauean erabiltzen da:

a) Izenondoa, gradu positiboan, konparazio-buruari badagokiola aurretik esan edo, bederen, ezaguntzat ematen denean:

- (657) Itziar zaharra da. Mikel, berriz, *are zaharragoa*

Itziar zaharra *badelako* erabiltzen dugu ondoko perpausean *are* partikula.

Hor berariaz aipatzen da Itziar zaharra dela. Gauza ezaguna dela suposatzen denean, berriz, ez da horrelako aipamenaren beharrik:

(658) Gaua baino are ilunagoa zen

b) Edota izenondoa konparazio-buruari, erabat dagokiona izan zein izan ez, hirugarren bati baino gehiago bederen *badagokionean*:

(659) Mikel Itziar baino zaharragoa da, Andoni are zaharragoa

Kasu honetan Mikel benetan zaharra den ala ez den ez zaigu axola. Beharbada hirurak umekondo batzuk baizik ez dira. Baina Mikelen eta Itziarren artean aldea badagoenez, Andoni alde horretatik *areago* dagoela esan dezakegu.

Gauza, beraz, honetara bil daiteke: *are ...-ago* egiturak, konparatibo enfatikoa denez, oinarri jakin bat behar du konparazio-buruan, handik *are gorago* igotzeko. Eta oinarria hauxe da: konparazio-buruari izenondoa *badagokiola* edo berez edo, bederen, beste hirugarren batekin konparatuz gero. Hori, noski, edo berariaz aipatu edo gauza jakintzat suposatu egin daiteke.

Kasu hauetan, *are* bezala, *oraindik* edo *oraino* ere erabil daitezke:

(660) Mikel Itziar baino zaharragoa da. Andoni oraindik zaharragoa

Askotan, *oraindik* eta *oraino*-ren parean *ere* ere ageri ohi da:

(661) Andoni oraindik ere zaharragoa da

nahiz,

(662) Andoni zaharragoa da oraindik (ere)

Adibide hauek erakusten digutenez, *oraindik* eta *oraino* lekuz alda daitezke, *are* ez bezala:

(663) *Andoni zaharragoa da are

Batzutan izenondoa isildua dago, konparaketaren konplementuak berak adierazten baitu. Orduan, *-aga* atzikia *are*-ri berari erasten zaio:

(664) (a) Haurrak baino areago zaretse
(b) Judas baino areago zen

Esan nahi bagenu bezala, haurrak baino haurrago edo Judas baino judasago. Hots: *Judas baino txarrago* edo *gaiztoago*.

Edo honetatik beretik, nagusitasuna adierazteko, *baino*-ri ere lotzen ahal zaio *-ago* atzizkia, adjetiboa edo dena delakoa isilik gorderzen dugularik:

(665) Ni bainoago den bat behar litzateke

Ikus, adibidez, pasarte bera nola ematen duten itzultzaile desberdinek:

- (666) (a) Baina ceren ikustera ilki içan çareiz? Propheta baten? bay diotsuet eta Propheta *bainoagoaren* (Leiz.)
 (b) Zertara atara zerate, bada? Igarle bat ikustera? Bai orixe, ta Igarle *bañon areagoa* esango dizuet (Orixo, Kerexeta, Zugasti)
 (c) Zertara atara zineten, bada? Profetaren bat ikustera? Baietz diotsuet; eta profeta *baino gehiago* den bat (Elizbarruti arteko Liturgi euskar. Taldea)
 (d) Zeren ikusten izan zirezte beraz? Profeta baten? bai eta nik erraiten dautzuet, profeta *bainoago* baten (L. León)

-ago atzizki hau *-tzen*-dun aditz osagaiari ere erants dakioko, Axularrek erakusten digun bezala (gaur egun ere erabiltzen da nafar-lapurteraz):

- (667) (a) Desiratzenago du (Ax. 238)
 (b) Erortzenago dira (Ax. 267)
 (c) Zauriak gordintzenago (Ax. 81)

Era berean, *nahi*-ren parean *nahio*go ere hor dugu. Eta *nahien* ere bai.

4.2.4.4.3. *-EGI* atzizkia

Atzizki hau erasten diogunean adberbio nahiz adjetiboari, gehiegizko maila aditzera ematen dugu:

(668) Gizon jakintsuegiak ez ditugu behar.

<i>handi</i>			<i>handiegi</i>
<i>txukun</i>			<i>txukunegi</i>
<i>eder</i>	+ egi	=	<i>ederregi</i>
<i>berritsu</i>			<i>berritsuégi</i>
<i>berandu</i>			<i>beranduegi</i>

Baina *asko* + *egi* = *gehiegi*
larregi
sobera

- (669) (a) *Jantzi ederregia* da hau zuretzat
(b) Lan hau ez da *txukunegia*
(c) *Berritsuegia* da langile ona izateko

Hain zuzen, azken adibide honek erakusten duen bezala, sarritan *-egi-dun* adjetiboak *-izeko* formako konplementu bat eraman ohi du:

- (670) (a) *Garcsuegia* da orosteke
(b) *Urrutiegia* dago egun batcan joateko

eta abar.

-egi-dun adjetiboa predikatu osagarri denean, batzutan artikulua agertu beharrik ez dela dirudi:

- (671) *Berritsuegi* da langile ona izateko

Bizkaieraz, *gehiegi*-ren ordez *larregi* erabiltzen dute eta *-egi* atzikiaren ordez *lar* mailakatzailerak:

- (672) (a) Diru *gehiegi* ematen diote = Diru *larregi* ematen diote
(b) Etxe *handiegia* erosi zuen = Etxe *lar handia* erosi diote. *Lar* etxe *handia* erosi diote

Ekialdeko euskalkietan, berriz, *-egi*-ren ordez *sobera* zenbatzailea ere erabiltzen dute zenbaitek:

- (673) *Handiegia* da = *Sobera handia* da

4.2.4.4.4. Berdintasunezko konparaketa

Konparaketaren sailean aipatu beharrekoak dira, baita ere, nahiz eta adjetiboari atzizkirik erantsi gabekoak izan, berdintasunezko konparaketak. Berez, hauek ere perpauk elkartuak dira, nolabait laburtuak agertzen direnak. Baina, aurrerago luzexeago mintzatuko bagara ere hauetaz, adjetiboen mailakatzeaz ari garenez gero, hemen ere zerbait aipatu beharrean gara. *-ago* eta

-*en* atzizkiak aipatu ditugun bezala, berdintasuna nola adierazten dugun ere esan behar. Adibidez:

- (674) (a) Erronkari Basabitria bezain ederra da
(b) Auto hori ez da nireka bezain zaratatsua

Adibide hauetan ere *eder* eta *zaratatsua* izenondoen maila adierazten dugu, *oso ederra* edo *zaratatsuena* esaten dugunean bezala. Baina oraingoan bi elementu edo bi izen sintagma konparatzen ditugu eta adjetiboaren aurrean konparaburua den *izen sintagma + bezain* ezartzen dugu. Era honetako egiturak normalki predikatuan agertzen zaizkigu.

- (675) Telebista hau beste hori bezain garestia da

Baina izen sintagmaren barruan ere ager daiteke era honetako konparaketazko perpaus bat (laburtua nahiz laburtu gabea):

- (676) Zu bezain neska polit gutxi dira herri honetan

Konparatzen diren bi muturrak aditzera eman gabe, askotan bat suposatu egin ohi dugu. Horrelakoetan, *honen*, *horren*, eta *hain* mailakatzailerak ezartzen ditugularik. Hauek, sintaxiari dagokionez, bestelako maila adberbioen jokabidea dute:

- (677) (a) Erroge, ezta egundaino lurraren gainean *hain* emazte ederrik sortu (Ax. 257)
(b) *Hain* ederra bada, har ezazu
(c) *Hain* liburu garestiak non aurkitzen ditugu?
(d) Gauza hori *horren* garrantzitsua bada, esan ezazu

Berez, hiru mailatakoak badira ere, gaur egun *hain*-ek beste biak baztertu ditu eta hau da gehien erabiltzen duguna.

4.2.4.5. Harridura esapideez oharño bat

Ondo eta *asko* adjetiboen ondoan erabiltzen ditugula esan dugu lehenago era honetako esamoldeak batez ere harridura adierazten duten perpausetan erabiltzen ditugula:

- (678) Ondo zapalduak hizi ginon orduan!

Izenondoak oso normalak dira harridurazko esapideetan. Hain zuzen harridurazko esapide hauetan dute bere lekua berez galdetzaile diren zenbait elementuk ere: *zein, zer, nolako (zelako)*:

- (679) (a) Zein polita den itsasoa!
(b) Nolako istiluak!

Zein izenondoaren maila adierazten duen mailakatzailatzat har daiteke. Alegia, *zein polita den itsasoa!*, *itsasoa oso polita da* esateko beste modu bat besterik ez da.

Zein nahiz *zeinen* galdetzaileek adjetiboaren maila adierazten dute eta aditzari zehargalderaren *-en* atzizkia erantsi behar zaio.

Zein-en ordeaz *zer* (edo *ze* esaten dugu ahozko hizkeran) erabiltzeko joera ere bada:

- (680) *Zer* polita den itsasoa!

Hortaz, badirudi *zer* horrek balio bat baino gehiago bereganatzen duela: 1) galdetzailea (*Zer ordu da?* galdetzen dugunean bezala); 2) Mailakatzzailea (*Zer polita den zerua*), eta 3) azken honetatik nahikoa hurbil gertatzen dena baina adjetiboarekin gabe izenarekin agertzen denean: *Cer ondasunak ecarri dituan (...)* *Jaunaren itzac!* (Ag. Erak.III, 430). Hemen *nolako*-ren baliokidea dela ematen du. Azken *zer* hau ez da egiazko galdetzailea, honek izen sintagma mugagabea joatea eskatzen baitu:

- (681) (a) *Zer* liburu nahi duzu? = *Zein* liburu nahi duzu?
(b) *Zer* ondasunak ecarri dituan = *Nolako* ondasunak ecarri dituan

4.2.4.6. Mailakatzzailea eta determinazioa

Izen sintagma baten barruan aurkitzen den izenondoak maila adberbioren bat baldin badarama edo, eskuarki, maila adierazteko erabiltzen ditugun itzuli horietakoren bat baldin badarama, konparaketazko perpaus bat, adibidez, oso kontutan izan behar dira zenbait debeku eta traba.

4.2.4.6.1. Horrelakoetan izen sintagma mugaturik joan ohi da, baina mugatzaile modura *-a* edo *-k* (pluralean) duela:

- (682) (a) Oso gizon petrala
 (b) Hain liburu interesgarria
 (c) Etxerik merkeenak
 (d) Andoni bezain gizon ospetsua

4.2.4.6.2. Honelako izen sintagmek nekez onartzen dituzte zenbatzaile numeralak eta bestelakoak: Hortaz, honako esaldi hauek ez dirudite oso bidezkoak, entzuten badira ere:

- (683) (a) (?) Oso neska polit bat etorri zitzaigun
 (b) (?) Neska oso polit asko ikusi genituen hondartzan
 (c) (?) Arazo oso garrantzitsu bat

Dударik ez da, horrelakoetan askoz jatorrago gertatzen direla *-a* soila duten izen sintagmak:

- (684) (a) Oso neska polita etorri zitzaigun
 (b) Oso arazo garrantzitsua
 (c) Arazo oso garrantzitsua

Baina zenbatzaile hauen beharrean baldin bagara, askoz egokiago da izen sintagma zatitzea eta bi zatiok aposizio modura ematea:

- (685) (a) Neska bat etorri zitzaigun, oso polita
 (b) Neska bat, oso polita, etorri zen
 (c) Neska asko, biziki politak, etorri ziren guregana
 (d) Bi liburu erosi nituen, hain merkeak non...
 (e) Sei sagar aukeratu nituen, handienak
 (f) Sei sagar, handienak, aukeratu nituen

4.2.4.6.3. Era berean, artikularekin (*-a*-rekin alegia) normalago gertatzen dira izen sintagma hauek bestelako erakusleekin baino:

- (686) Liburutegian zen liburu(rik) handiena hartu zuen

normalago dela dirudi beste hau baino:

- (687) Liburutegian zen liburu(rik) handien hura hartu zuen

Hala ere, batez ere, izen sintagman agertu behar lukeen izena isilpean gordea badago, erakuslea agertzeko inongo trabarik ez dugu:

- (688) (a) Mesodez, oman iezadazu handien hori!
(b) Han goian dagoen zikinen hura zurca da

Hauetan ere, jakina, aposizio bidea beti dago irekirik:

- (689) Liburu hura, liburutegian zen handien hura, hartu zuen

Hau oraindik nabarmenago gertatzen da *oso*, *hain*, *biziki*, eta antzeko maila adberbioak ditugunean. Adibidez, ez dirudi oso bidezkoak direnik honako perpaus hauek:

- (690) (a) (?) Biziki liburu interesgarri hau gomendatzen dizut
(b) (?) Oso film farregarri hura ikustera joan ginen

Hauen ordeaz, erlatiboazko itzulinguruetara jo genezake inolako oztoporik gabe:

- (691) (a) Biziki interesgarria den liburu hau gomendatzen dizut
(b) Benetan farregarri zen film hura ikustera joan ginen

4.2.4.6.4. Dena den, eztabaidagarri gertatzen da gorago aipatu ditugun itzuli horien *aposiziotasuna*. Ikus bestela zer pasatzen den izen sintagma horiek deklinabide atzizkiren bat eraman beharrean aurkitzen direnean. Adibidez guztiok esango bagenituzke ere:

- (692) (a) Bi liburu oso interesgarriak irakurri ditut
(b) Hiru haur oso bihurriak dituzte gure lagunek

zein da, ondoko perpausetan, egokiena?

- (693) Iritsi naizenean, bi liburu oso interesgarriez ari ziren

ala,

- (694) Iritsi naizenean, bi liburu oso interesgarriz ari ziren

eta,

(695) Hiru haur oso bihurriei berebiziko zigorra eman die andereñoak

ala,

(696) Hiru haur oso bihurri berebiziko zigorra eman die andereñoak

4.3. Izenlagunak

Kapitulu honen hasieran esan dugunez, izenlagunak dira izen sintagmaren muina den izenari laguntzeko erabiltzen ditugun bigarren mota osatzen duten adjetiboak. Adjetibo hauek *-en* edo *-ko* kasu-markak dituzte eta izenaren ezkerreko partean paratzen ditugu:

- (697) (a) Herritako jaiak
(b) Aitaron etxea

4.3.1. *-EN* atzizkia

Marka hau hartzen duten izenkien formez, funtzioaz eta erabileraz hirugarren atalean mintzatuko gara, *deklinabidea* izendatu dugun partean, hain zuzen ere. Beraz, honi buruzko xehetasun guztiak han ikusiko dira (begira hirugarren ataleko 1.5.2.).

4.3.2. *-KO* atzizkia

Atzizki honek, gainekoak bezalaxe, izenlagunak osatzen ditu. Hau ere deklinabideaz hitz egiterakoan aztertuko dugu (ikus hirugarren ataleko 1.4.3.) leku-denborazko kasuen artean, erabilerari dagozkion xehetasunak batez ere hantxe lantzen baitira. Nolanahi ere, zertxobait esanen dugu hemen honetaz. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

- (698) (a) *Etxeko* lanak egin ditu
(b) *Egundoko* jipoiak eman diote Errealari
(c) *Nolako* eltxa erosi duzu?
(d) *Isilik egoteko* agindua eman zigun
(e) *Lana guxxitzen ari delako* kontua kontu zaharra da

Euskal gramatikan deklinabideaz hitzegitean, atzizki hau beste deklinabide atzizki guztien artean sartu ohi da, *leku genitiboa* edo antzeko deitura eramanaz.

Hala ere, deitura hori lehenbiziko perpauseko *etxe*ko izenlagunari bakarrik datorkio ongi. Hemen egiazki *nongo* galderari erantzungo dio izenlagunak. Baina beste guztietan, galdera hori ez da egokia gertatzen.

Dena den, gaineko sintagma guztietan agertzen den *-ko* hori, denetan morfema edo atzizki bera dela esango dugu. Atzizki horren zeregina beti bera da: izenlagunak osatzea. Eta, normalki, gainera, adizlagun direnak izenlagun gisa agerreraztea nahi badugu, nahitaezko dugu atzizki horretaz baliatzea. Izan ere, azken batean, *leku genitibo* delako *etxe*ko horrek berorrek ere, azpian adizlagun bat ezkututzen duela pentsatzeko arrazoiak badira. Kasu honetan, inesiboari erantsi zaiola esango dugu *-ko* atzizki hori:

(699) *Etxeko* = *etxean* + *ko*

Eta, hain zuzen, horrela dela pentsatzeko arrazoiak ugari ditugu:

a) Alde baterik, baditugu *eguneango* eta antzekoak.

b) *Hemengo*, *gaurko* eta abar baditugu, *hemen* eta *gaur* adverbioen gainean eraikiak. Beraz, *hemen-dik hemengo* ateratzen delarik, *leku honetan-dik leku honetango* atera behar lukeen arren, *leku honetako* ateratzen zaigu. Baina funtsean gauza bera litzateke.

c) Normalki, *etxe*ko, *mendiko* eta abar inesiboa barnean duen erlatibozko perpaus baten bidez parafrasea daitezke, esanahiaren aldetik desberdintasunik batere ez dagoelarik:

(700) (a) *Etxeko mahaia* = *Etxean dagoen mahaia*
(b) *Mendiko haizea* = *Mendian izaten den haizea*

Hortaz, badirudi, gehienetan *-ko* atzizkia erlatibo baten ordaina izan daitekeela: ez bakarrik inesiboan, baita beste adizlagun guztietan ere:

(701) *Zurekiko harremanak* = *zurekin* + *ko* + *harremanak* = *zurekin ditudan harremanak*

Dena den, argi dagoena da *-ko* horrek ez duela beste deklinabide atzizkien antzik, zeren berez nolabaiteko lotura besterik ez du adierazten konplementuaren eta jarraitzen dion izenaren artean:

(a) <i>etxean</i>	+ <i>ko</i>	<i>mahaia</i>
(b) <i>nola</i>	+ <i>ko</i>	<i>mutila</i>
(c) <i>badaezpada</i>	+ <i>ko</i>	<i>lana</i>
(d) <i>zure alde</i>	+ <i>ko</i>	<i>borroka</i>
Alg		IS

4.3.3. Zenbait arazo

4.3.3.1. Hala ere, batzutan, badirudi *-ko*-ren aurrean dagoena ez dela egiazki adizlaguna, kalitatea aditzera ematen duen izen predikatu bat edo, baizik:

(702) *Bihotz oneko neska*

adibidez, parafraseatu nahi izanez gero, honela egin genezake:

(703) *Bihotz ona duen neska*

Honen azpian, noski, beste hau dugu:

(704) *Neskak bihotz ona du*

Hemen *bihotz ona* sintagmak, objektu funtzioa betetzen duela badirudi ere, azken batean *neska*-ren atributo bat edo adierazten duela dirudi, honako hau esango bagenu bezala:

(705) *Neska hau bihotz ona da*

Hau aski bitxia bada ere, badira antzeko egiturak:

(706) (a) *Mutil hau buru handia da*
 (b) *Gizon hura sudur luzea da*

Eta, hain zuzen, hauei dagozkie *-kodun* egiturak:

- (707) (a) Mutil hau *buru handikoa* da
(b) Gizon hura *sudur luzekoa* da

Badirudi, beraz, *Izena + Adjetibo + -ko* egitura hauek adjetibo moduko zerbait direla. Hain zuzen *-ko* gabe ere adjetibo direla dirudi. Hortaz, adjetiboari erasten zaio kasu hauetan *-ko* atzizkia. Dena den, hau ez da harrizkeo, zeren adjetiboari ere *-ko* erantsi baitaioke:

- (708) (a) *Izugarrizko* liburua (= izugarria den liburua)
(b) *Izarra baino ederragoko* andrea (= izarra baino ederrago den andrea)

4.3.3.2. Beste zenbaitetan ere, lehen begiratuan *-koren* aurrean doana adizlaguna ez dela pentsa badaiteke ere, egiazki adizlagun dela ikus daiteke:

- (709) (a) *Bost ordutako* lana (= bost ordu irau(te)n duen lana)
(b) *Ehun kilo(ta)ko* harria (= ehun kilo pisatzen duen harria)

Baina hauetan *bost ordu* eta *ehun kilo* ez dira egiazki *ukan*-en objektuak, adizlagunak baizik, eta, asko hestutuz gero, goian bezala, *harriari* dagokion kualitate bat aditzera ematen duen sintagma bat bezala.

4.3.4. *-REN* eta *-KO*

Gauzak horrela, ez da zailegia —kasurik gehienetan— *-ren* eta *-ko* bereiztea. *-kok* azpian adizlagun bat du gehienetan edo izen sintagmaren burua den izenaren nolabaiteko kualitatea adierazten du. Baina *-ren*ek gehienetan, beste era bateko erlazioa adierazten du:

<i>egile</i> - ekintza	:	<i>gizonaren</i> lana
<i>objektua</i> - ekintza	:	<i>etxearen</i> erosketa
<i>partea</i> - osoa	:	<i>liburuaren</i> azala
<i>jabeagoa</i>	:	<i>aitaren</i> etxea

eta abar.

Batzutan, *-ren* eta *-ko*, biak, ager daitezke. Horrek, normalki, izenlagunaren eta izenaren arteko erlazioa bi eratara ikus daitekeela esan nahi du:

- (710) (a) *Etxe*ko jabca = etxean dagoen jabca
 (b) *Etxe*aren jabca = etxeak duen jabca (hots; etxeak badu jabca)
 (c) *Elizako* isiltasuna = elizan egoten / izaten den isiltasuna. (Beraz, *eliza* leku bat da)
 (d) *Elizaren* isiltasuna = eliza isilik dago. Eliza, erakunde gisa ulertuz
 (e) *Alkandorako* botoia = alkandoran dagoen botoia
 (f) *Alkandorako* poltsikoa = alkandoran dagoen poltsikoa
 (g) *Alkandoraren* barrera = (hots; alkandorak bere parteen artean barrera ere badu)

4.4. Aposizioa

Adjetiboak lagun daraman izenaren zernolakoa adierazten duela badakigu. Hori da, hain zuzen, adjetiboaren zeregina. Baina askotan izen sintagma batean adjetiboak egin behar lukeen papera aposizioan doala esan ohi dugun izen batek, edo beste izen sintagma batek egiten du. Adibidez:

- (711) (a) Axular, gure idazle handiak, idatzi zuen bezala...
 (b) Larrañaga irakasleak besteia esan omen du

4.4.1. Aposizio ez-murrizgarriak

Goiko bi perpaus hauek erakusten dizkigute, hain zuzen, bi aposizio mota nagusienak. Lehenbizikoan, izen sintagma bat dugu: *Axular* eta ondoren, beste izen sintagma bat, aurrekoaren erreferentzia bera duena, baina ezaugarri berriren bat adierazten diguna. Lehenbiziko honi aposizio ez-murrizgarria deituko diogu. Hauetan, gehienetan, eten bat gertatzen da bi izen sintagmen artean. Hona hemen beste zenbait adibide:

- (712) (a) Gasteizen, Euskadiko hiriburuan, taberna gehiegi dago
 (b) Pellok, atzo aipatu nizun lagunak, andregaiia utzi egin du

Hauetan, bistan da, *Gasteiz* eta *Pello*-ren ondoren datorren sintagmaren erreferentzia *Gasteiz* eta *Pello* bera dira. Hori, honako hau esatea bezala izango litzateke, hots:

- (713) (a) Gasteizen (eta Gasteiz Euskadiko hiriburua da) taberna gehiogi dago
(b) Pellok (eta Pello da atzo aipatu nizun laguna) andregaiia utzi egin du

4.4.2. Aposizio murrizgarriak

Bigarren aposizio motari murrizgarria deitzen diogu. Normalki aposizio mota honen egitura honako hau izan ohi da: deitura bat eta gero izen arrunt bat. Orduan deituraren funtzioa da izen horren erreferentzia zehaztea. Adibidez, *Larrañaga irakaslea* edo *Garate medikua* eta antzekoak esaten ditugunean, irakasleen edo medikuen multzotik bat ateratzen dugu eta bat honi buruz ari garela adierazten dugu. Hau da, hain zuzen, *jaun, andere, andereño, maisu, irakasle*, eta antzeko izenekin erabili ohi dugun jokabidea:

- (714) (a) *Lasa* andereak deitu dizu
(b) *Itziar* andereñoari esan behar diogu

Kasu hauetan *Lasa* eta *andere*, *Itziar* eta *andereño* aposizioan daudela esan ohi dugu: *Lasa* eta *Itziar* izen berezien zeregina da zein andere edo zein andereñoz ari garen zehaztea.

Era honetakoak ditugu hauek ere:

- (715) *Gipuzkoa* plazan dago denda hori

(Noski, *Gipuzkoako plazan* ere esan daiteke).

Honek esan nahi duena da, zein plazatan, alegia plaza guztien artean zehazki zeinetaz ari garen esaten digu.

- (716) *Arrantzaleak* taberna oso polita da

Hala ere, batzutan ez da erraz zein motatako aposizioa dugun aurrean. Adibidez, eman dezagun badirela denok ezagutzen ditugun *Garate* izeneko mediku bat, andereño bat eta futbolari bat.

- (717) *Garate* futbolaria

Hori esaten badut, ez naiz ari futbolarien multzotik *Garate* izenekoa aipatzen. Alderantziz: *Garatez* ari naiz, baina izen horretako bat baino gehiago ezagutzen ditugunez, orduan zehaztu egin behar dut *Garate* hori zein den: futbolaria, alegia.

Dena den, *jaun, andre* eta antzekoak erabiltzen ditugunean bigarren motako aposizioa dugula dirudi.

Lehen motako aposizioan lehenbiziko izen sintagmak erreferentzia zehaztua izan ohi du gehienetan. Horregatik, oso normala da izen berezi bat aurkitzea lehenbizi edo izen sintagma mugatua izatea.

4.4.3. Aposizioan doazen elementuez

Gaur egun zenbaitek ahaztuxea dutela dirudien zerbaitez ohartu behar dugu. Gorago jarri ditugun adibideen arabera, euskaraz ordena normala honako hau da: *deitura + izen arrunta*. Esan nahi baita:

- (718) (a) *IGONE arraindegia* eta ez, *Arraindegi IGONE
(b) *JAKINTZA liburudenda* eta ez, *Liburudenda JAKINTZA

Bestalde, horrelakoetan, denda edo taberna baten izena, adibidez, nagusiaren izena bera bada, honela esan daiteke:

- (719) (a) *Igoneren arraindegia*
(b) *Antonen taberna*

Eta horrenbestez, *taberna* edo *arraindegia* izen arruntak ere izkutarazi ditzakegu eta honako hauek esan:

- (720) (a) *Igonerenean* oso arrain freskoa izaten dute
(b) *Antonenetik* atara garenean isuripu bat izan dugu

Noski, honek ez du balio etxe baten (denda, nahiz taberna) izena pertsona izena ez denerako. Ez dugu esaten:

- (721) (a) **Arranzaleenean*
(b) **Beti aluarenean*

4.4.4. *san, santa, saindu*

Saindu adjetiboa nahiz izena izan daiteke. Horregatik, aposizio modura ere ager daiteke, izena denean. Horrela, *saindu* adjetibo normal bat da kasu honetan:

(722) Pertsona saindua dela diote, baina deabrua dirudi

Hurrengoan berriz, izen bihurtua da:

(723) (a) Ekar ezazu saindu hori
(b) Sainduak lan handia dute zurekin

Eta azkenekoan, *saindu* izena beste izen berezi bati lotua ageri denean, aposizioa dugu:

(724) (a) Anton saindua
(b) Loiolako Inazio saindua

hemen, *saindu*-ren aurretik doan izen bereziak zein sainduz ari garen zehazten digu. *Bidasoa kafetegia* esaten dugunean bezala. Hots: zein kafetegiz ari garen esaten digu.

Baina *Santa Ines*, *San Anton*, *San Pedro*, *Santa Anastasia* eta horrelakoetan, multzo osoa, *san(ta)* eta guzti, izen berezizat hartu behar da. Hain zuzen, *San Anton*, dagoen dagoenean, *saindu* baten izena dugu, oso osorik, pertsona baten izena *Patxi* edo *Miren* izan daitekeen bezalaxe.

4.4.5. *Jaun, andere*

Jaun eta *andere* eta antzekoak izenaren ezkerretara nahiz eskuinetara ager daitezke. Hala ere, izen berezi bat dugunean, izen horren eskuinetara joan ohi dira:

(725) (a) Lasa *jauna*
(b) Alberdi *andereu*

Baina,

(726) (a) *Jaun* errotoea
(b) *Andere* errotoa

esaten dute, Ekialdean behintzat. Mendebalekoek ere bai, dirudienez:

(727) (a) *Andere* Joakina
(b) *Andre* Madalen

Don eta bere aldaera *On* ere erabiltzen dira. Hau beti izenaren ezkerretara joan ohi da:

(c) *On* Ramon agurgarria (J.J. Irazusta, *Nork bere bidea* I, 39)

Hala ere, ahaidetasuna adierazten duten izenekin, ezkerretara joan ohi da izen hori:

- (728) (a) *Amona* Josefina
 (b) *Aitona* Bernardo
 (c) *Osaba* Anton
 (d) *Izeba* Aranxa

Titulu hauek, gainera, bikoiztuak ager daitezke:

- (e) *Narbaitz* jaun kalone
 (f) *Mgr. Tessier* Baionako jaun apezpikua

(Oharra: Dena dela, hainbeste jaun eta andere, beharrezko ote? Ez zuen horrela uste Hiriart Urruti-k: *Jaun Oihanburu (...)* edo *Oihanburu jauna*. Izenaren aitzinean ala ondotik, bardin gaizki doa *jaun* hori.

Oihanburuko jauna, ba; Errekarteko jauna ba; eta etxeko jauna ere ba (...).

Eskuaraz mintzatu nahi direnek erraiten dute eta erranen *Jaun jujea, jaun mera, jaun axuanta*. Bizipide edo karguaren izenarekin *jauna*.

Familiako deiturarekin, deus ez: *Elizalde, Goienetche, Amezpil* (*Eskualduna*, 1908-VII-17, 176-177 orr.).

Dena dela, aposizio hau oso komenigarri gertatzen da zenbait sintagmatan zenbatzaileak eta adjetiboak, batez ere inguratzaile ugariz horniturik, agertzen direnean:

- (729) (a) Bi gizon ezagutzen ditut, oso berritsuak
 (b) Bi gizon, oso berritsuak, ezagutzen ditut

4.4.6. Aposizioak eta kasu markak

Beste arazo bat ere bada: aposizioan doazen izen sintagmak, perpausean beletzen duten funtzioaren arabera, atzizkiren bat izango dute. Baina, bi zatiek eraman behar dute atzizki hori, ala batek eramanda nahikoa da?

Aposizioa murrizgarria denean, dudarik ez da: atzizki bakarra izango dugu eta bera, jakina, izen sintagma osoaren azkenean:

- (730) (a) Urola ibaitik
(b) Axular ikastolara

Baina besteetan gauza ez dago hain garbi. Gehienetan badirudi aski dela kasu marka behin bakarrik ezartzea, izen sintagma osoaren azkenean:

- (731) Canpion, euskaltzale fin hark, sarritan esaten zuen...

Baina, etena handia denean, eta egiazki aposizio ez-murrizgarria denean, badirudi bi sintagmei erantsi dakiekela kasu marka:

- (732) (a) Canpionek, hainbeste aldiz gogoratzen dugun hark...
(b) Nik, bekatari honek, ez nuke horrelakorik esango
(c) Andoniri, nire lehengusuari, gauzak gaizki atera zaizkio

(baina baita, *Andoni, nire lehengusuari, gauzak gaizki atera zaizkio*).

**HIRUGARREN ATALA:
DEKLINABIDEA, ADITZONDOAK,
INTERJEKZIOAK**



1. DEKLINABIDEA

1.1. Aurkezpena

1.1.1. Oro har

1.1.1.1. Deklinabidea zer den

Perpausen osagaien artean izen sintagma aurkitzen dira, perpausaren egitura aurkeztu denean seinalezatu dugun bezala. Izen sintagma hauek gramatika edo leku-denborazko funtzioak adierazten dituzte, horretarako halako kasu-marka batzuk edo, hartuz. Izenak, izenordeak edo adjetiboak (komunztaduragatik, hizkuntza batzutan) har dezakeen kasu-marken multzo hori *deklinabidea* deitzen dugu. Hau dela eta, deklinabidea da, hain zuzen ere, izen, izenorde edo —izatekotan— adjetiboek hartzen duten kasu-marken *paradigma*.

Bestaldetik, *jokabidea* erabiliko dugu aditzak dituen aldaki desberdinetako *paradigma* seinalatzeko. Jakina denez, aldaki hauek pertsona, numeroa eta bestelako kategoria batzutan oinarritzen dira.

1.1.1.2. Kasuak

Izenek edo, nolana ere, bestelako izenkiek hartzen dituzten kasu-marken arabera, kasuak bereizten ditugu. Kasuen kopurua ez dator bat hizkuntza guztietan. Indoeuropear hizkuntzan, adibidez, zortzi kasu bereizten ditugun bitartean latinez eta grekeraz sei kasu bakarrik aurkitzen dira.

1.1.1.3. Zenbat deklinabide

Deklinabideko paradigma osatzen duten kasuen kopurua aldatzen baldin bada hizkuntza batetik bestera, deklinabideko paradigmak kopurua ere aldakorra da. Horrela, esaterako, latinak bost paradigma ditu, bakoitza bere kasu-markekin. Nola bereizten dira hizkuntza bateko deklinabideak? kontuan hartuz funtzio bera adierazteko zenbat kasu-marka agertzen diren. Horren arabera, funtzio berbera adierazi nahi denean, kasu-marka bat baino gehiago ikusten badugu, paradigmak ere neurri berean aldatzen dira.

1.1.1.4. Deklinabidearen egitura

Kasu-marka duen izenki bat hartzen dugunean, zati desberdinak bereiz daitezke hor: alde batetik dago hiztegiari dagokion zatia (hizkuntza baten hiztegi hitza) eta geratzen zaiguna da desinentzia edo hondarkia. Latineko *rosarum* hitzean, adibidez, berehala bereziko dira hiztegiarena dena, *ros-* eta hondarkiari dagokiona: *-arum*. Euskaraz ere antzera: *gizonen*, *gizon* (hiztegia) eta *-en* (hondarkia) bereizten ditugu.

Eman ditugun bi adibide horietan (*ros-arum*, *gizon-en*) ikusten den moduan, kontu hauetan ez dute hizkuntza guztiek modu berean jokatu. Horrela, hizkuntza batzutan gertatzen da hondarkia kenduz gero geratzen zaigun hiztegi zatia bakarrik ere ager dakigukeela baina beste zenbait hizkuntzetan, ordea, ez da horrelakorik suertatzen: *ros-* (*rosa*-tik aterea), *amic-* (*amicus*-etik), *mot-* (*motus*-etik) edo *di-* (*dies*-etik) ezin izango ditugu bakarrik paratu, ez baitira, hain zuzen, forma askeak. Euskaraz, jakina denez, *gizon-en* edo *etxe-en* formen parean *zer gizon*, *zer etxe*, *etxe bat*, *gizon bat*, eta horrelakoak ere baditugu, *etxe* eta *gizon* hitzak aske daudelarik azkeneko horietan.

Hizkuntzen artean dauden antzekotasun eta desberdintasunak, puntu honi dagokionez, ez dira hemen amaitzen. Aipatu ditugun hizkuntza klasiko horietan informazio bat baino gehiago ematen zaigu hondarkiaren barnean, baina formalki ezin dugu berezi non dauden zehatz mehatz adierazki horiek. Horrela, *rosis* hitza hartuz gero, badakigu *-is* hondarkiak hiru gauzaren berri ematen digula: *femeninoa*, *plurala*, eta *datibolablatiboa*, alegia. Baina ezin dugu zatitu hondarkian *pluralari* dagokiona hau dela, *femeninoari* dagokiona beste hura, seinalatuz dena unitate bat bakarra baita, zati ezina.

1.1.1.5. Hizkuntza malgukariak eta hizkuntza eranskariak

Hizkuntza klasikoak, neurri batean, hizkuntza malgukariak dira, hau da, hondarkian ematen zaizkigun adierazkien morfemak baturik daude, osatzen dituzten elementuak elkarren artean bereizteko biderik ez dugula. Beste hizkuntza batzutan, eta euskera ere hor tartean, elementu horiek errazago bereizten dira analisi egoki bat dela medio. Hizkuntza hauek aglutinatzaile edo *eranskariak* deitzen ditugu, hiztegiko hitzari erasten baitizkiote funtzioetarako behar diren elementuak banan banan. Euskaraz morfema guzti horiek hondarkian biltzen dira, kasuaren atzizkia ere barnean dagoela. Atzizki hau *kasu-marka* deitzen dugu.

1.1.1.6. Sinkretismoa

Hizkuntza askok funtzio gramatikal diferenteak adierazteko kasu-marka berbera erabil dezakete. Horrela, latineko *amico* hitza maskulino edo singularra izanik, datibo edo ablatibo kasua izan daiteke. Era berean, *consules* maskulino eta plurala bada ere, nominatiboa nahiz bokatiboa nahiz akusatiboa izan daiteke. Antzera gertatzen zaigu *diebus*-ekin ere, datibo eta ablatiboa baitugu berau. Fenomeno hau *sinkretismoa* deitzen dugu: jatorriz berezirik dauden edo gure analisiak bereiztera eramaten gaituen bi ezaugarri desberdin horiek bat eginik eta berezi ezinik agertzen zaizkigu. Aipatu ditugun adibide guztiak *kasu-sinkretismoa* zer den argitzen dute. Horrelako kasuetan, gehienetan, testuinguruari esker jakin dezakegu zer funtzio betetzen duen forma bakoitzak.

1.1.1.7. Erabilera

Sarritan gertatzen da kasu batek, duen oinarrizko funtzioaz gainera, beste funtzio batzuk ere hartzea. Hizkuntza erabiltzen dugunean hori suertatzen zaigu aunitzetan beste funtzio bat edo gehituz. Bistan dago, esate baterako, latinezko nominatiboak subjetuaren funtzioa duela baina hortez gainera beste batzuk ere izan ditzakeela.

1.1.2. Euskaraz

1.1.2.1. Deklinabidea eta euskal sintagma

Euskal deklinabidean agertzen zaizkigun kasu-markak izen sintagma osoari ezartzen zaizkio eta ez izen sintagmaren barnean ager dakizkigukeen atal guztiei. Beraz, izen sintagma oso osoan harturik deklinatzen da. Izen sintagmaren egitura, bestalde, era askotakoa izan daiteke. Hemen paratzen ditugu egitura erabilienak:

a) Galdetzailea + izena:

(1) *Zein neskak esan du hori?*

Zenbatzailea + izena:

(2) *Bost lagun datoz menditik*

b) Galdetzailea + izenondoa:

(3) *Zenbat beltz ikusi dituzu hirian?*

Zenbatzailea + izenondoa:

(4) *Bost zuri kontatu ditut han*

c) Izena + artikulua:

(5) *Mutilari emango diot*

d) Izenordea:

(6) *Guk ekarriko dizugu galdu duzun txapela*

e) Zenbatzailea:

(7) *Askok ez daki ezer horretaz.*

f) Izenondoa + artikulua:

(8) *Pilotan, gorriek irabaziko dute*

g) Izena + izenondoa + mugatzailea:

(9) *Neska polit hori nire arreba da*

h) Izenlaguna + izena + mugatzailea:

(10) (a) *Zure lagunak etorri dira*
(b) *Ikusten duzun neska joango da*

i) Izenlaguna + izena + izenondoa + mugatzailea:

(11) (a) *Nagusia ren etxe eder hau oso ederki paratu dute*
(b) *Erakutsi dizudan liburu eder hau oso merke erosi nuen*

j) Jakinaenez, aditza nominalizatzen dugunean izen sintagma bihurtzen da eta, hortaz, deklina daiteke:

(12) *Guk ez dugu hor sartzerik ala?*

k) Bestalderetik, eta goian jarri ditugun adibideetan ikus daiteke hau, aditz jokatu batek erlatiboaren atzizkia hartzen duenean, mugatzailea eta deklinabideko kasu-markak erants dakizkioke:

(13) *Goizean etorri denak apurto du hori*

Adibide guzti hauetan seinaleenez, izen sintagmaren egitura nahikoa konplexua izan daiteke, osagai askok osa baitezake. Hala eta guztiz, hemen azpimarratu nahi duguna beste zerbait da: euskaraz, deklinabideko kasuek adieraz dezaketen funtzioa *izen sintagma osoari* dagokio eta izen sintagma hori konplexua baldin bada, ez daramate osagai guztiek kasu-marka bana, baizik eta kasu-marka hori izen sintagma osoari ezartzen zaio. Ondoko adibide hauek erakusten dute hau ongi aski:

(14) (a) **Emakume argiak bereak eskubideak defenditzen ditu*
(b) *Emakume argiak bere eskubideak defendatzen ditu*

Lehenbiziko adibidean, azpimarraturik dauden izen sintagma bakoitzeko elementu guztiei ezarri diegu artikulua eta kasu-marka. Horregatik dago gaizki. Bigarrenean, alabaina, sintagma osoak hartu duenez gero kasu-marka, ongi dago adibidea.

Egin dezagun hemen beste ohartxo bat ere. Izen sintagmaren ardatza, izenak berak ongi aski dioenez, *izena* baldin bada ere, hondarkia ez zaio nahi ta nahi ez izenari ezartzen beti, izen sintagma *hersten duen unitateari* baizik. Azken osagaia da, hain zuzen ere, kontutan hartu behar dena. Hortaz:

- (15) (a) ((Hiru ((mutil) txiki))-k) egin omen dute hori
(b) (((gizon) sendo) -a) -k) ez du zigarrorik erretzen

1.1.2.2. Kasuak euskaraz

Honako hauek ditugu euskal deklinabidearen kasuak (parentesi artean jartzen dena kasu-marka da):

a) Kasu gramatikalak. Honela deitzen ditugu hauek aditzarekin duten *komunztadura* zaindu behar dutelako. Kasu hauek, hortaz, aditzaren morfologiak isladatzen ditu. Arrazoi horregatik, kasu hauetako izenordainak ezaba daitezke, perpausaren esanahia aldatu gabe geratzen delarik.

ABSOLUTUA: (Ø)	<i>ni nator</i> <i>nik zu maite zaitut</i> <i>zuk ni maite nauzu</i>
ERGATIBOA: (-k)	<i>nik zu maite zaitut</i> <i>zuk ni maite nauzu</i>
DATIBOA: (-i)	<i>nik zuri lorea ekarri dizut</i> <i>Edurneri loreak ekarri dizkiot</i>

b) Leku-denborazko kasuak:

INESIBOA: (-n; -(ga)-n)	<i>Euskadin dago</i> <i>Amagan ikusi dut borondatea</i>
LEKU-GENITIBOA: (-ko)	<i>Aldapeko sagarraren puntan</i>
ADLATIBOA: (-ra (-rat, -lat); (-en) gana)	<i>Pozik joaten gara Donostiara</i> <i>Guregana etorri dira</i>

NORABIDE ZUZENEZKOA: (-rantz)	Bakiorantz doa
ADLATIBO BUKATUZKOA: (-raino)	Bakioraino joan da

ABLATIBOA: (-tik; (-en)gandik):	Ikastolazik etorri da Zuengandik alde egin du
------------------------------------	--

c) Gainerako kasuak:

PARTITIBOA: (-ik)	Ez dugu lagunik ABSOLUTUAren azpisaila dugunez gero kasu hau, ikus geroago
----------------------	--

GENITIBOA: (-en)	Aitarene etxea defendituko dut
---------------------	--------------------------------

SOZLATIBOA: (-ekin)	Norekin joango zara? Bizkaieraz -GAZ da kasu marka: Aitagaz urten dau
------------------------	---

INSTRUMENTALA: (-z/-zaz, -taz)	Autoz etorri dira Zertaz ari zarete?
-----------------------------------	---

MOTIBATIBOA: (-gatik)	Zure nebagatik etorri naiz
--------------------------	----------------------------

DESTINATIBOA: (-entzat)	Mirenentzat ekarri dugu
----------------------------	-------------------------

Hemen jarri duguna da, hain zuzen ere, euskal deklinabidearen paradigma. Gainera dezagun, dena den, leku kasuen artean + eta - biziduntasunak berezi behar direla. Xehetasun gehiagorako ikus kasu hauen garapen zehatza geroago. Bestalde, bi genitiboen kasu-markei dagokienez, hitz eratorriak sortzen dituztela ematen du: kasu-marka hauek erantsi ondoren geratzen zaiguna bertiz ere deklinagai bihurtzen da, artikulua ondoren beste edozein kasu-marka hartzeko prest dagoena.

1.1.2.3. Deklinabide bakarra euskaraz

Euskal deklinabidea bat bakarra da. Honek esan gura du kasu bat adierazten dugunean, deklinagai (dg) guztiek kasu-marka (km) berbera hartzen dutela. Horrela, erkatzen baldin badugu euskara latinarekin, ikus daiteke latinez *-a*, *-us*, *-u* eta *-es* kasu-markak erabiltzen direla funtzio bera adierazteko, nolakoa den hitza. Euskaraz, ordea, beti marka bera dugu horretan, *-k*, hain zuzen ere. Hala eta guztiz, izen edo izenordeei (izenkiei, beste hitzetan paratzeko) erasten zaien hondarkiak hiru itxura desberdin har ditzake:

a) Deklinagaia + kasu-marka:

- (16) *gu + k* ez dugu entzuten
dg km

Deklinagaiak kasu-marka zuzenean hartzen duenean, nolabaiteko determinatzailea eskatzen du:

- (17) (a) *Bost lagun + i* entzun nien hori
dg km
(b) **Lagun + i* entzun nien hori
(c) *Zein andre + k* esan du horrelakorik?
dg km

Adibide guzti hauetan kasu-marka da hondarkia.

b) Deklinagaia + mugatzailea + kasu-marka:

- (18) (a) *Mutil + a + (r)i* emango diogu saria
dg m km
(b) *Andereno + a + k* esan du
dg m km
(c) *Neska + hon + i* emango diot hau
dg m km

Adibide hauetan mugatzaileak eta kasu-markak osatzen dute hondarkia.

c) Deklinagaia + mugatzailea + plurala + kasu-marka:

- (19) (a) *Mutil + a + k + ø* etorri dira
dg m p km
(b) *Adiskide + hau + (k) + ek* egingen dute
dg m p km

Esan dezagun, azterketa xeheagoetan hasi gabe, adibide hauetan mugatzaileak, pluralaren markak eta kasu-markak osatzen dutela hondarkia.

1.1.2.4. Euskal deklinabidearen egitura

Orain arte esandakoaren arabera, euskal deklinabidea aztertzerakoan osagai hauek bereiz ditzakegu:

Deklinagaia + hondarkia

(20) *gizon + ari* eman diot

Bestaldetik, hondarkiaren barnean beste osagai hauek ere bereiz daitezke:

Mugatzailea + plurala + kasu-marka

Ez dira elementu guztiak nahi ta ez agertzen, adibideetan argi aski ikusi denez: mugatzailea eta plurala ez dira beti agertzen:

(21) Erlea *gizon + ø* bihurtu zen

Esan dezagun, dena dela, azterketa baten ondorioz baldin badakigu ere elementu guzti horiek hor daudela, azaleko forman ilundurik ager dakizkigukeela; *gizonekin* forman daude, adibidez, deklinagaia + mugatzailea + plurala + kasu-marka, baina elementu horiek analisi egoki batek bakarrik ematen dizkigu. Beraz, honelakoa dugu egitura osoa:

Deklinagaia

+

Hondarkia

mugatzailea + plurala + kasu-marka

Izen sintagma

Esan dugu euskal deklinabidea bat bakarra dela. Zergatik diogu hori, kasu bat hartuz gero, forma diferenteak ager badakizkigu? Horrela, *gizoni*, *gizonari* eta *gizonei* aurkituko ditugu datiboan, baina forma horien aldakiak ez dira sortzen kasu-marka diferenteetatik, baizik eta hondarkiko beste elementuen (mugatzailera eta plurala) presentzia edo ezagatik. Horregatik esan dugu deklinabide bat bakarra dugula euskaraz, beridanik mantendu den bezala.

1.1.2.5. Euskara, hizkuntza eranskaria

Lehenago ere esandakoagatik, goian egin dugun analisi hori ezinezkoa izango litzaiguke hizkuntza malgukari (flexibo) batetan. Euskaraz, ordea, ez da horrelakorik gertatzen: hizkuntza eranskaria denez gero, deklinabideko paradigmaten morfema guztiak banan banan bereiz daitezke. Euskal deklinabidea aztertu nahi duenak ezin dezake kontu hau nolanaahi ahaztu.

1.1.2.6. Sinkretismoa

Beste hizkuntza askotan gertatzen den legez, euskaraz ere zenbait sinkretismo suertatzen da. Hemen batzu bakarrik aipatuko baditugu ere, jakina da euskalkietako hizketetan sinkretismo hauek ugaritzen direla. Hala eta guztiz, hemen ez gara euskalkietan aurki daitezkeen sinkretismo guztiez arituko.

a) Mendebaleko mintzairetan, pluraleko absolutua eta ergatiboa nahasi egiten dira. Horrebestez, hauxe suertatzen zaigu:

- (22) (a) *Umeak zarata handia ateratzen dute*
(b) *Umeak eraman ditu Karnelek haurtzaindegira*

Ikusten denez, sinkretismo hori aditzaren morfologiak hausten du, noiz den benetazko absolutua eta noiz ergatiboa aditz formetan isladatzen baita. Beraz, ergatiboa eta absolutua berezi beharko genituzke beti.

b) Goikoaren aldakia besterik ez dena, ergatiboaren singularrek ere hondarki bera hartzen dute:

- (23) *Umeak zarata handia ateratzen du*

c) Perpaus iragangaitzetako subjetuaren funtzioa eta perpaus iragankorreko objektuaren funtzioa kasu-marka berberaz baliaturik adierazten dugu, absolutuaren kasu-markaz, hain zuzen ere:

- (24) (a) Umea mendira joan da
(b) Edurnek ekarri du umea

d) Ergatiboaren mugagabeak eta ergatibo mugatu plurala sinkretismoan agertzen dira hitza kontsonantez amaitzen denean:

- (25) (a) Bost gizonek esan dute
(b) Gizonek egin dute

Sinkretismoa aienatzen da hitza bokalez amaitzen bada:

- (26) (a) Bost andrek esan dute
(b) Andreak egin dute

Hizketa bizian sinkretismo guzti horiek eta gehiago ere aurkituko dira, egia esan. Dena dela, hiztunak baditu bideak sinkretismo horrek sor dezakeen anbiguetatik ateratzeko: zenbait tokitan, azentuaketaz baliatzen da benetazko esanahiak bereizteko; beste batzutan, testuinguruak erakartzen dio behar duen informazioa; ikusienez, aditzaren morfologiak ere eman diezaiolke argia, etab.

Esan dezagun amaitzeko; egiazko sinkretismoa c puntuan aipatutakoa dela, funtzio desberdinak adierazteko kasu-marka bera (\emptyset , alegia) erabiltzen baita.

1.1.2.7. Erabilera

Kasu batzuk funtzio bat baino gehiago adieraz dezakete. Hori dela eta, kasu bakoitzaren erabilera ongi zehaztu behar da. Hala ere, ez gara honetaz arituko aurkezpen orokor honetan. Kasu bakoitzaren erabileraren xehetasunak gero emango dira, kasuak banan banan ukitzen direnean.

Esan dezagun, bestaldetik, baditugula euskaraz kasu-markez aparte beste zenbait hizki ere perpausen sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazteko balio dutenak. Elementu hauek *posposizioak* ditugu:

- (27) Zure alde nago

Adibide honetan, esaterako, **alde** poposizioak genitiboa eskatzen du. Ezin baitezakegu esan ondoko hau:

- (28) (a) *Zu alde
(b) *Zurekin alde, etab.

Posposizio guzti hauek beste nonbait lantzen dira.

1.1.2.8. Absolutua eta ergatiboaren arteko oposaketa

Euskal deklinabideko kasuen zerrenda eman dugunean absolutua eta ergatiboa aipatu ditugu han, baina ez dugu ezertxo ere esan nominatibo eta akusatiboaz. Eta, gure inguruko hizkuntzak aztertzen ditugunean, azkeneko bi hauek dira, hain zuzen ere, gehien batean agertzen zaizkigunak.

Hizkuntza aunitzen sintaxiaren ardatza nominatibo-akusatibo sistemari oinarritzen da. Ez, ordea, euskararena: esan daiteke euskararen sistemaren ardatza absolutu-ergatiboa dela eta ez gorago aipatu duguna. Honek esan nahi du euskara eta inguruko hizkuntzak bi sistema desberdinetan sailkatzen ditugula eta zenbait fenomeno, hala nola aktiboa eta pasiboa kontrajartzea, sistema batean gertatuko dela, baina ez bestean. Euskaraz ez dugu *dialesi*-rik (erderetako *pasiboa*).

Esan daiteke euskara hizkuntza ergatiboa dela morfologia mailan bederen, nahiz eta sintaxi mailan hori egia den segurtatzea gauza erraza ez den.

Oraingo argitarapen hau behin behingoa denez gero, ez dugu hain beharrezkotzat jo hemen paratzea zerrendaturik taula guztiak. Nolanahi ere, taula horiek han hemenka agertu ohi dira eta Euskaltzaindiak berak ere eman izan ditu argitara *Eusker*a aldizkari ofizialean. Beraz, bada, eta perpaus bakunaren sintaxiari dagokion lana erabat buruturik geratzen denean bilduko dira orduan taula guzti hauek.

1.2. Euskal deklinabidea - Taulak

(Ikus bukaeran *Eraskina*)

1.3. Kasu gramatikalak

1.3.1. ABSOLUTUA (-ø)

1.3.1.1. Forma

Kasu honen *forma* hartzen badugu kontutan, ez dugu marka berezirik aurkituko. Hori dela eta, kasu honetan agertzen zaizkigun sintagmek ø marka dute, inolako kasu-markarik gabe:

- (29) (a) Bost andre-ø
(b) Zenbait gizon-ø

Artikulua erantsiz gero beste hau suertatuko zaigu:

- (30) (a) Andre-a
(b) Gizon-a

Eta sintagma hori plurala baldin bada, honela ageriko da:

- (31) (a) Andre-ak
(b) Gizon-ak

1.3.1.2. Funtzioa

Kasu honek zenbait *funtzio* betetzen ditu:

1.3.1.2.1. Perpaus iragangaitzetako subjektua dugu. Honela gertatzen da aditz iragangaitz trinkoekin eta *izan* aditzaz baliaturik jokatzen diren bestelako aditzekin ere:

- (32) (a) Gizona dator
(b) Gizona sartu da

1.3.1.2.2. Perpaus iragankorretako objektu zuzena da. Honela, kasu honetan paratzen ditugu zenbait aditz trinkoz eta *ukan* aditzaz baliaturik jokutzen ditugun bestelako aditzetan ere agertzen zaizkigun objektu zuzenak:

- (33) (a) Gizona dakar
(b) Gizona sartu du

Kontura gaitzen, bada, *gizona dator / gizona dakar* eta *gizona sartu da / gizona sartu du* bikoteetako *gizona* hitzak bi funtzio desberdin dituela: subjektua kasu batean eta objektua bestean. Baina bietan kasu berberaren aurrean gaude.

1.3.1.2.3. Perpaus kopulatiboetako predikatu osagarria ere *nor* kasuan agertzen zaigu:

- (34) Etxe hau polita da

Hemen jarritako adibidean *polita* atributua adjetiboa dugu eta *-a* mugatzailea darama. Sarri askotan, ordea, ez da batere erraza bereiztea non dauden predikatu osagarri eta aditzondoaren arteko mugak:

- (35) Azoka honetan merke saltzen dira txerriak

Ikusten denez, *merke* hori ere atributuaren lekuan dago eta ez darama *-a* mugatzailea. Beraz, oso zaila da horrelako kasuetan adberbioa edo beste zerbait den erabakitzea. Antzera beste kasu hauetan ere:

- (36) Egarrri naiz

Zer da kasu honetan *egarrri*? Izena, izenondoa, aditzondoa? Ez dugu kontu hau zehaztuko: esan dezagun, dena dela, predikatu osagarria izena edo izenondo denean *nor* kasuan dagoela.

1.3.1.2.4. Pisua, neurria, prezioa, tokia, modua, denbora eta bestelakoak adierazteko erabiltzen dugu kasu hau:

- (37) (a) Bi aste egonen da hemen
(b) Duela zazpi urte etorri zen

Nahiz eta beste moduetara ere esan daitekeen hori (*bi astez*, adibidez), hemen paratutako adibidean, formalki bederen, *nor* kasuan dago izen sintagma hori. Antzera besteetan ere:

- (38) (a) Patata horiek bost kilo pisatzen dute
(b) Zazpi oin luze zen mutil hura

Kontura gaitezen, bide batez, komunztaduraren aldetik beti singularrean doazela. Ezin dugu esan, bada,

- (39) *Patata horiek bost kilo pisatzen dituzte

1.3.1.2.5. Bokatiboa ere, jakina denez, kasu honetaz baliaturik adierazten dugu:

- (40) Aizu, Joxe, zenbat balio du horrek?

1.3.1.3. Erabilera

Erabilera aldetik zenbait gauza hartu behar dugu kontutan.

1.3.1.3.1. Bokatiboa denean, batzutan *-a* mugatzailea eskatzen du, baina ez bestetan:

- (41) (a) Bai, jauna
(b) Ez, andre

1.3.1.3.2. Izenburu eta tituluak kasu honetan paratzen ditugunean, beti mugatzailea eskatzen dute:

- (42) (a) Gizartea (ez **gizarte*)
(b) Lana (ez **lan*)
(c) Filosofi-lehen Fakultatea (ez, **Filosofi-lehen Fakultate*)

1.3.1.3.3. Posposizio batzuk kasu hau gobernatzen dute:

- (43) (a) Astelehen arte

- (b) Ikusi zintudan eguna arte
- (c) Bi egun barru
- (d) Lau urte inguru

1.3.1.3.4. Komunztadura zaindu behar da:

- (44) (a) Andrea ikusi dut
- (b) Andreak ikusi ditut

Komunztaduraren kontua, dena dela, beste kasu batzurekin ere erlazionatzen da.

1.3.1.3.5. Zenbait aditzen kasuan ezin dugu kasu hau erabili eta beti *nork* eskatzen dute: *funtzionatu* (jatorrago *ibili* erabiltzen bada), *balio*, *dimititu*, *iraut*, etab.

1.3.2. ERGATIBOA (-k)

1.3.2.1. Forma

Formari dagokionez, *-k* dugu kasu honen marka:

- (45) Zein ikaslek ekarri dizu hori?

Hala ere, deklinagaia kontsonantez amaitzen denean *-e-* loturazko bat ezarri behar da:

- (46) Zein lagunek ekarri dizu hori?

Nolanahi ere, artikulua erantsiz gero izenkiari, hauxe suertatzen zaigu:

- (47) (a) Umeeak sagar bat eman dit
- (b) Gizonak ez du ezer esan

Eta izen sintagma pluralean jartzen badugu, honela geratzen zaigu:

- (48) (a) Umeeak sagar bana eman digute
- (b) Lagunek sagar bana eman digute

1.3.2.2. Funtzioa

1.3.2.2.1. Jakina denez, perpauis iragankorretan agertzen da kasu hau, hots, tankera hau duten perpausek bi izen sintagma gramatikal eskatzen dute gehienetan (nolanahi ere, ikus geroago eginen dugun oharra honi buruz). Bi izen sintagma absolutu eta ergatibo kasuetan daude eta ergatiboak markatzen du, hain zuzen, perpauis horretan suertatzen den prozesuaren egilea:

- (49) (a) Zure *nebak* eramango du ama etxera
(b) *Nik* dakart behar duzun liburua

Adibide hauetan *neba* eta *ni* izen sintagma dira prozesuaren egileak. Esan dezagun hemen, dena dela, euskal literaturan instrumentala erabiliaz ere ageri dela *egilea* behin baino sarriagotan:

- (50) Jainkoa deabruaz tentatua izan zen

Horrela itzuli ohi dira jatorriz pasiboan emanak ziren aunitz testu (*pseudopasibo* dei genitzake berauek).

1.3.2.2.2. Izen sintagma batek egilearen papera hartzen duela diogunean, erlazio sintaktikoez bakarrik ari gara; hau da, *egilea* izatea ala ez, ez dagokio lexemari (hiztegiko hitzari), perpauisen arteko egitura sintaktikoez markatzen dituzten harremanei baizik.

- (51) Zure *nebak* eramango du ama etxera

Adibide honetan *neba* da egilea, baina perpauis bera erraz itzultzen ahal dugu:

- (52) Amak zure *neba* eramango du etxera

Horrenbestez esan daiteke ez dagoela harreman zuzenik semantika eta sintaxiaren artean. Beste aunitz kasutan, egilearen papera dauka benetako egile ez den zerbaitek:

- (53) Umekak min hartu du

Adibide guzti horietan ikusten ahal denez, kasu-marka hau daraman izen sintagma perpauisaren subjektua da, euskal ergatiboak baititu, hain zuzen, beste hizkuntzetako nominatiboek dituzten propietate formal eta sintaktiko berberak.

1.3.2.3. Erabilera

1.3.2.3.1. Esan bezala, ergatiboarekin batera agertzen da gehienetan beste sintagma bat ere perpausan:

(54) Andre horrek bazterrak ixkuntzen ditu

Adibide honetako bi izen sintagma bat ergatiboan (*andre honek*) eta bestea absolutuan (*bazterrak*) daude.

1.3.2.3.2. Beste zenbait kasutan, ordea, ergatiboa bakarrik ere agertzen da aditz batzurekin, absolutuan egon beharko lukeen beste sintagma hura gabe. Hori da, hain zuzen ere, *urten* (bizkaieraz), *iraun*, *irakin*, *jardun*, eta beste batzuren kasua:

- (55) (a) Oso berandu urten dau aitak
(b) Euskarak iraunen du erabiltzen badugu
(c) Esneak goizegi irakin du
(d) Baserritarrak gogor dihardu

Aditz hauek ergatiboa eskatzen badute ere eta absoluturik gabe agertu arren, gramatikal ez diren, hots, *nor - nori - nor* kasuetan ez dauden gainerako sintagma ere onartzen dituzte:

- (56) (a) Oso berandu urten dau aitak eixetik
(b) Euskarak iraunen du gure lagunekin erabiltzen badugu
(c) Urak irakiten du lapikoan
(d) Baserritarrak gogor dihardu belarretan

1.3.2.3.3. *Jo* aditzak bi erabilera ditu: ergatiboa eskatzen baldin badu ere, batzutan absoluturik gabe ageri da, bakar bakarrik:

(57) Andonik mendli alderat jo du

Beste zenbait kasutan, halarik ere, absolutua ere eskatzen du:

(58) Andonik oso ongi jotzen du gitarra

Jakina, bi *jo* horiek esangura desberdinak dituzte.

1.3.2.3.4. Badaude zenbait aditz iragankor ergatiboaz gain beste izen sintagma bat ere nahi dutenak, baina azkeneko hau ez da absolutua, datiboa baizik: *ekin, jarraitu, eutsi, urten* (bizkaieraz) etab.

(59) *Lan honi* berchala ekinon diogu (*guk*)

(60) Hemendik eusten diote *baserritarrek* *igitaiari*

1.3.2.3.5. Izan ere, badira lexikalizaturik geratu diren zenbait izen, aditzari joak: *berba egin, hitz egin, lan egin, alde gin, negar egin*, etab.

Berba, hitz, lan, alde, eta bestelako hitzak ez daude hemen absolutu kasuan, gainbegiratu batek hala eman baleza ere. Esan daiteke guzti horiek aditzarekin bat egiten dutela. Hortaz, beste edozein hitz hartuz gero, hauxe gertatzen zaigu:

- (61) (a) *Etxea egin dit*
 (b) *Etxeak egin ditut*
 (c) *Etxe handiak egin ditut*

Gainean aipatutako hitzen distribuzioa ez da horien parekoa, gehienetan behinik behin:

- (62) (a) **Aldeak egin ditut*
 (b) **Alde asko egin ditut*
 (c) **Alde handiak egin ditut*

1.3.2.3.6. Eguraldiaren egoerak aditzera emateko erabiltzen ditugun aditzek aditz iragankorra hartzen dute, baina ez dugu ergatiborik ikusiko hor:

- (63) (a) *Atertu du*
 (b) *Euria ari du*
 (c) *Elurra egin du*

1.3.2.3.7. Antzeko egitura dute zenbait esapidek:

- (64) *Duela hamar une*

1.3.2.3.8. Kasu gramatikala denez gero hau, aditzarekiko komunztadura zaintzen du nahi ta nahi ez:

- (65) (a) *Nik ez dut egin*
(b) *Haiek ikusi dute*
(c) *Guk asmatu dugu*

Oharra:

1.3.2.3.9. Mendebaleko euskalkietan, lehenago ere aipatu denez, sinkretismoa sortzen da zenbaitetan:

- (66) (a) *Gure adiskideak bihar datoz*
(b) *Gure adiskideak kafea ekarriko digute*
(c) *Kepak ekarriko ditu adiskideak autoz*

Lehenbiziko eta hirugarren adibideetan *adiskideak* absolutu kasuan dago, nahiz eta lehenean subjeto eta azkenekoan osagarri zuzena izan. Hor ematen da kasu-sinkretismo garbia: funtzio desberdinak adierazteko kasu-marka berbera erabiltzen baitugu. Bigarren adibidean ergatibo subjetoa da, pluralez. Jakina denez, euskara batuan *adiskideek* esan behar dugu ergatiborako.

1.3.3. DATIBOA (-i)

1.3.3.1. Forma

Forma aldetik, *-i* dugu datiboaren marka:

- (67) *Bost gizon-i esan genien etortzeko*

Kasu marka hartzen duen deklinagaia bokalez amaitzen bada, beste hau dugu:

- (68) *Bost ikasle-ri esan genien etortzeko*

Izen sintagmaak, noski, mugaturik joan daitezke eta pluralean. Orduan honako marka hauek hartzen dituzte:

- (69) (a) *Ikasle-ari esan nion etortzeko*

- (b) Mutil-ari eman genion lapitza
- (c) Ikasle-ei eman genien etortzeko
- (d) Mutil-ei eman genizkien lapitzak

1.3.3.2. Funtzioa eta erabilera

Funtzior *bigarren objektua* edo *zihar objektua* markatzen du:

- (70) Antonek Laurari eman dio pilota

1.3.3.2.1. *Nor* eta *nork* kasuekin gertatzen den modura, kasu honek ere aditzarekiko komunztadura zaintzen du:

- (71) Antonek Laura eta Xabierri eman die pilota

Hala eta guztiz ere, badirudi zenbait hiztunen artean ez dela beti betetzen arau hau eta beste kasuetan baino askatasun handiagoa dagoela. Antza denez, *-i* kasu marka hartzen duen izen sintagma agerian dagoenean errazago askatzen da araua:

- (72) (a) Erran zuen Yaunac nere Yaunai (Etxenike, 100)
 (b) Orduan, Jesusen erran zuen bere discipuloci (Etxenike, 82)
 (c) Orduan erreguec errain du escufeco aldean direnei (Etxenike, 110)
 (d) Beste horrialdator eskatzen zuen orduan... (Etxepare, 294)

Baina datiboan dagoen izen sintagma ez badago agerian, nekez apurtuko da komunztadura:

- (73) (a) Eta urbiduic arec gana tentazalea, erran cion...
 (b) Cefec erresponditu cion, eta erran... (Etxenike, 43)

Nolanahi ere, idazle gehiengoek (elkarrizketan ez, aunitzetan) behar bezala zaintzen dute komunztadura:

- (74) Baldin lurreko Errege bati behar-ondoko bat emaiten dioenac gaztigu handiagoc mercezi bidu... (Ax., 391)

Hori horrela izanik badirudi komunztadura beti zaindu beharko genukeela batasun bidean aurreratu nahi baldin badugu, hori baita, hain zuzen ere, hiztunen artean hedatuena dagoen jokabidea.

1.3.3.2.2. Zenbait aditzek hartzen duen osagarria datiboan paratzen dugu. Aipa ditzakegu aditz horien artean, besteak beste: *ekin, jarraitu, jarraiki, eutsi, begiratu, behatu, eragin, e.a.*

- (75) (a) Gaurko gazteria ez zaio jarraitzen gurasoen lege zaharrari
(b) Lanari ekin diezaiogun
(c) Mutil ederrei begiratzea ikaragarri atsegin zait
(d) Indarrez eragin zion palankari

1.3.3.2.3. Semantika aldetik genitiboa nahi duten esapide batzuk datiboaren bidez ematen ditugu:

- (76) (a) Nire ama hil da
(b) Ama hil zait
(c) Gure semea erotu da
(d) Semea erotu zaigu
(e) Gure etxera etorriko da
(f) Etxera etorriko zaigu
(g) Zuen maixua haserretu da
(h) Maixua haserretu zaizue

Horren antzeko zerbait gertatzen da zenbait kasutan, baita ergatiboa eta datiboaren artean ere:

- (77) (a) Dirua galdu dut
(b) Dirua galdu zait
(c) Etxeko lanak ahantzi ditut
(d) Etxeko lanak ahantzi zaizkit
(e) Urrundu da nigandik
(f) Urrundu zait
(g) Hurbildu da nigana
(h) Hurbildu zait
(i) Beste inor ez bait zen lan horri lotu nahi, neri egin crazi dit (*nik* egin bchar)
(j) Nora joan dira zure zakurrak?
(k) Nora joan zaizkizu zakurrak?

Bestaldetik, analogiaz edo izan daiteke, abusua gertatzeko arriskua dago, gehiegi erabiltzen baita batzutan jokabide hau. Horrela, euskaraz *falta dut* esan izan da, baina gaur egun hedatzen ari zaigu *falta zait* delakoa.

1.3.3.2.4. Posposizio batzuk kasu marka hau eskatzen dute aurreneko hitzean:

- (78) (a) Senarrari buruz mintzatu zen
 (b) Anaiari esker jakin zuen hura
 (c) Haur txiki hura amari kontra biltzen zen arrotzen bat ikusi orduko
 (d) Beharrik hiztegiei esker ulertzen ditugu beste herrietako hizkuntzak
 (e) Mendiari goini (edo, *beheiti*) abiatu zen artzaina ardiek inguratutik
 (f) ... beste zerbaite, maiztasuna, eta maiztasun edo usutasun hori kontuan eduki behar dela beti arlo honetan, bai hiztegiari eta bai gramatikari buruz (Mitx., 193)

1.3.3.2.5. Jakina denez, hau ezin dugu izenlagun bihurtu. Hori dela eta, badago halako joera bat idazle zenbaiten artean besterik gabe lotzeko kasu hau daraman izen sintagma beste izen sintagma batekin zuzen zuzenean. Esate baterako, ondoko honen antzekoak ikus daitezke lantzean behin:

- (79) (a) Hau Descartes-i sarrera da

Horrelako perpausak ez dirudite zuzenegiak. Hobeki gertatzen dira horrelakoak datiboa izen nagusiaren eskubitara jarrita. Adibidez:

- (b) Ez zen baitezpadako kontua: baina zen (...) haren azken agurra bere lagunari (M. Treku, 133)

Dena dela, beti ere bada beste bide bat:

- (80) (a) Hau Descartes-i egindako sarrera da
 (b) Hau Descartes-en sarrera da

Ikus daitekeenez azkeneko adibidea ambigua da, esanahi bat baino gehiago duelako. Nolanahi ere, tituluetan eta izenburuetan onargarriagoak dira, elipsiaren bidez emanda baitaude:

- (81) (a) Descartes-i sarrera
 (b) Sarrera Descartes-i

1.4. Leku-denborazko kasuak

1.4.1. Sarrera

1.4.1.1. Zer kasu dira hauek?

Gainerako kasuak ez bezalako zenbait bereiztasun dutelako, ondoko lau hauek sail berezia osatzen dute euskal deklinabidearen barrutian eta *leku kasuak* edo *lekuzko kasuak* izena eman ohi zaie komunzkiro. Berehala esango dugunagatik dudari jar daiteke izena ongi emana dagoen ala ez, baina gu ez gara eztabaida horretan sartuko, baizik orainoko izena beste gabe ontzat emango.

Leku kasuak zer eta zein diren honela adieraz daiteke erabat: edozein hizkuntzak hain maizko dituen egon-ibilizko aditzen —*egon, etorri, joan*...— eta antzekoen konplementuak adierazten dituztenak; hots, *non egon, nondik etorri, nora joan*, galderai, besteak beste, erantzuten dietenak.

Beste bat ere sartu ohi da *Leku kasuen* artean alegia, *nongo* galderari dagokiona. Hau halere, egia, berez *non-en* izenlaguna baizik ez da, *norako* eta *nondikako* (edo *nondiko*) *nora* eta *nondik-enak* diren bezalaxe, eta hainbestez bi horiek baino eskubide handiago ez luke kasutzat hartzeko. Baina *etxeango*, *mendiango*, eta abar —*nongo non-i* bezalaxe *etxean* eta *mendian-i* dagozkien izenlagunak, (ikus bestela *hemengo, horko, hango*)— eta horien antzeko formak euskara biziak aspaldidanik galduak baititu eta horien ordez *etxeko*, *mendiko*, etab. sortu bait ziren, hiztunak batetik *non* eta *nongo* kasuen arteko ahaidetasunaren edo erlazioaren kontzientzia galdu eta kasu berritza dauka, eta gramatikalariak bestetik halakotzat onartua aspaldidanik *nongo* delako kasu hori, *norako* eta *nondikako* ez bezala.

Lau kasu nagusitan bildu ohi dira, beraz, *lekuzkoak* direlako hauek eta izen hauen bidez deitzen ditugu gehienetan:

INESIBOA

LEKU-GENITIBOA

ADLATIBOA (eta honen barnean Norabide

Zuzenekoa eta Adlatibo Bukatuzkoa)

ABLATIBOA

1.4.1.2. Bizidun eta bizigabeak

1.4.1.2.1. Kasu hauetako bakoitzean, gainerakoetan bezalaxe, paradigmaren hiru aldakiak, —mugagabea, mugatua eta mugatu plurala— kontutan eduki behar dira, noski. Baina horrez gain hauek badute lauetatik hiru kasutan —leku-genitiboa deritzanean ez— gainerako guztiak ez bezala, itxuraz bederen desberdin diren bi eratako atzizkiak *-(e)tan*, *-(en)gan*, etab.) harrerazitzen dizkien beste bereizkuntza bat.

Bereizkuntza hori hondarraren hondarrean zertan datzan eta zein hitzek atzizki sail bata eta zeintzuk bestea hartzen duten oraino ez dute hizkuntzalariak zehazkiro argitu, ez finkatu. Gramatikalariek, ordea, honela daukate aspaldidanik mugatua: alegia, *bizigabe* direlako hitz edo izen-sintagmek hartzen omen dute sail bata *-(e)tan...* eta *bizidun* direlakoek bestea *-(en)gan...*. Ezin uka, haatik batzuen eta besteen arteko muga non datzan erabakitzen maiz zaila dela eta inoiz edo behin lehenek ere bigarren saileko atzizkiak, hala nola:

(82) Zure ontasun eta paciencia andiagana (Kar., 36)

eta bigarrenek maiz lehenekoak ere hartzen dituztela; esate baterako Etxepareren, *anderetan*, *gizonetan*, edo Kardaberazek *autore graveetan*, *Predicatoreetan*, *ala guizaseme nola emacumeetan* idatzi zuenean (ikus Kardaberaz, Eusqueraren berri onak, 11, 13, 16 orr.).

1.4.1.2.2. Puntu honetan argibide pixka bat egin nahi genuke, nahiz dakigun ez ditugula agian esenplu guztiak esplikatuko. Har dezagun bikote hau: *gizonengan/gizonetan*, bata bestea bezain jatorra, noski, zein bere tokian erabiliz gero. Lehenak, *-ren baitan* formaren pareko baita, pertsona edo izaki bera, haren nortasun eta indibiduotasuna adierazten du; bigarrenak, aldiz, kolektiboa edo taldea edo mota osoa, ez izaki bera, eta horrenbestez *gizonetan* nahiz *gizonen artean* esan gauza bera edo beretsua da. Hortaz,

(83) Gizonengan ez, emakumengun dut neurte konfiantza

gauza bat izango litzateke, eta bestea,

(84) Gizonetan edertza loanes da, emakumecetan Mari

Eta antzinako Eliz-otoitz ezagun batetan *Bedeikatua Jaungoikoa bere aingeru eta santuetan* esaten zenean ere, ez zen esan nahi *Santuen baitan* behar zuela,

haietako bakoitzarengan alegia, Jainkoak izan bedeikatua, baizik *Santuen artean* edo haien andana eta multzoan.

Ikus ere Ubillosen forma politok:

- (85) (a) ... jarri ciran, *eren burutic* asmatu cituen guczurrezko Jaincoelara
(b) ... baciran ... *eren buruco* arguiac, ta legue naturalac eracusten cienā, eguien zutenac (17 orr)
(c) Dá, cer dan gauz ona, eta cer dān gauz gaiztoa, eracusten digun, *gueren buruco* arguia, ta czagutumentua (16 orr.)

Itxura denez, horko *buru-* horiek iparraldekoen *baita*-ren ordezekoak dira bete-betean.

1.4.1.2.3. Auzi honi buruz, halere, puntu batzuk argi utzi behar dira:

a) Ezin sar daitezke euskalki guztiak zaku berean, ez baita berdina guzien jokabidea.

b) Mendebaleko euskalkietan ekialdekoetan baino maizago erabiltzen da, dirudienez, *-ga-*; hau ekialdekoetan ia singularrean bakarrik ageri da eta *bizidun* direlakoekin ere *-ta-* atzizkiaz baliatzen dira gehienbat pluralean eta mugagabeen. Axularrek, esate baterako, behin bakarrik darabil *emazte* hitza *-ga-* formazko atzizkia duen kasuan: *emazteaganik* (233); ostera, *-ta-* formazko atzizkiekin askotan: *emaztetan*, 13 bider; *emaztetako*, 15 bider; *emaztetara*, 5 bider; eta *emaztetarik*, 13 bider. Ikus esenplu bakarra:

- (86) ...uste baduzu *emaztetan* anhitz usatzeaz *emaztetako* gutizia gutituko zaitzula enganatzen zara... (Ax. 253)

c) Singularrean berean ere, ordea, ekialdekoek batetik *baita-* dute eskupidean *-ga-* ez erabiltzeko; bestetik *Axularren*, *Larramendin*, *Azkuen* eta horien antzekoak *-ga-* gabe esateko mendebaldekoek baino kupida gautxiago dute. Ez ahantz Leizarragaren *launean* eta antzekoez. Hegoaldean ere ez dugu uste inork muzinduko lukeenik hau bezalako perpausa: *Larramendi zen bezalako gizon zuzenean... zuzenagan* esan beharrean. Entzun berria diogu euskaltzain nafar bati: *Hori ere behar da gizonean*.

d) Nolanahi ere den, hegoaldekoen belarrietan *bizidun* deriztegun horietako batzuetan *-ga-* gabeko forma (singularrean batiput) biziki arraroa da: esate

baterako, *jaunean, aman, lagunean*; are arraroagoa (hau euskaldun guztion belarrietan, noski) *bizigabeetan -ga-* erabiltzea: *mendiagan* edo antzekorik.

e) Dudak, maiz agertatu ohi den bezala, *bizidun* eta *bizigabeen* arteko muga zehatza non dagoen ez jakitetik sortzen dira.

Orain hobeki adituko da zergatik esan dugun hor goian *Leku kasuak* izena berá badaezpadako irudi dakiokela bati baino gehiagori, *bizidun* omen direlakoek nekez adieraz baitezakete *lekua*, oso zentzu zabalean izan ezik, eta *leku-*genitiboa deritzana baila bakarra, hain zuzen, *-ga-* atzizkia duten formak onaritzen ez dituen. Beraz, *lekukoak* ez diren heinean hartzen dute gainerakoek *-ga-*.

1.4.1.2.4. Argibide hauek ez dituzte, halere, auzi guztiak garbitzen. *Elkar*, gauzei gagozkiela ere, beti *bizidun* bezala deklinatzen omen dugu; berebat *bata bestea-*, alegia :

(87) Liburu horiek bakan izazu elkarrengandik

edo *bata besteagandik* esan ohi dugu; iparraldekoek *elgarretarik* edo *bata berzetetik* esaten balute, ez litzateke harritzeko, halere, haiek pertsonen ari direla ere *elgarretaratu* esaten baitute, ez *elkarrengaratu* nahitaez, guk bezala.

Iparraldeko beraien *baita-* aipatu dugu; hauek bakanka erabiltzen bide dute *-gan* atzizkia, ia beti horren ordez *baitan* diotelarik guztiz kideztat; baina hori inesibo kasuan gertatzen bide da soilik, gainerakoetan *niganik* nahiz *ni baitarik* eta abar biak erabiltzen dituztelarik. Ez, noski, guztiz baliakide bezala; alegia:

(88) Urrun zaitoz niganik (ez *ni baitarik)

baina,

(89) Ni baitarik sortu da pentsamendu hau (ez *niganik)

lehenak *-ga-k*, pertsonaren ingurua gehiago eta bigarrenak, *baita-k*, pertsonaren barrera gehiago adierazten baitu.

1.4.1.3. Mugatu singularra eta mugagabea

Bizidun eta bizigabeen arteko bereizkuntza finkatzen beti erraz ez den bezala, ez eta ez da mugagabea eta singularraren artekoa mugatzen ere. Hegoaldeko euskaldunik gehienek ia beti *uretan*, *su(r)tan*, *ketan*... baizik ez dute erabiltzen eta *urean*, *suan*, *kean*... guztiz txartzat jotzen. Bada, ordea, egungo egunean ere euskaldunik franko —eta horien alde dago antzineko idazleen ohitura— *suan* eta *su(r)tan*, *urean* eta *uretan*, *kean* eta *ketan*... biak esan eta bereizten duenik, bi gauza desberdin edo bi egoera diferente adierazteko; hots:

(90) Lapikoa suan ezarri dut

baina,

(91) Etxea su(r)tan dago

(92) Iurriko urean busti ditu behatzak

baina,

(93) Apaiza blei-blei egin da uretan

(94) Kean sar zaitez

baina,

(95) Gizona ketan dago

Diogun azkenik *-gan-* lekuzko kasu guztietan nahiz forma absolutuaren nahiz edutezko genitiboaren *-ren-* atzizkiaren gainean joan daitekeela; alegia, *aitagan* eta *aitarengan*, *Jainkoagandik* eta *Jainkoarengandik*, etab. Nolanahi ere, *-ren* ken daitekeela singular mugatuan bakarrik da gauza segurua, pluralean ezina baita eta mugagabeen dudamudazkoak dira gutxienez honako forma hauek: *hiru neskagan*, *zenbait alabagandik*; are dudamudazkoagoak oinarria kontsonantez amaitua duten izenetako hauek: *bi mutilgan*, *hiru gizonagandik*.

1.4.2. INESIBOA (-n)

1.4.2.1. Lekua eta denbora

Hala deritza ia mundu guziak kasu honi egungo egunean. Erabat esateko, norbaiten edo zenbaiten *lekua* —dagoen edo jaio zen edo bizi den lekua, eta

abar— adierazten du. Kasu honi dagokion galdekaria *Non* da, beraz, baina bizidunak direlakoei dagokiena *Nor(en)gan* edo *Nortan*, euskalkien arabera, laster esango dugunez. Halere, eta aurki arituko gara honezaz, kasu honen atzizkia hartzen duten zenbait izen-sintagmatako izenek badute beste baliorik ere: hala nola, zerbait gertatu denbora edo *noiz-a (goizean)*. Hori dela eta, *non-noiz* izena ematen diote kasu honi gramatikalari batzuek, atzizkiaren forma eta balioa elkarrekin nahasirik edo berdindurik. Hartaraz gero, ordea, *noiz* ez ezen, *zertan (lanean)* eta *nola (hainbestean)* eta *zenbate(t)tan (mila pezetetan)* eta *zenbatetan (askotan)* besteak beste, izendatu beharko litzateke, balio guztiok baititu. Egia da, halaz ere, *noiz* galderaz adierazten dugun balioa *non* kasuan ez ezen, gainerakoetan ere nabarmentzen dela (*noizko, noizdanik* edo *noiztik, etab.*), *zertan* galderaz adierazten duguna ere gainerakoetan ageri den bezalaxe; beste balioak ez, aldiz.

Horregatik lau kasuok osoro besarkatzen dituen eskema orokor hau eman genezake eredu gisa:

INESIBOA	<i>Non</i>	<i>Noiz</i>	<i>Zertan</i>
LEKU-GENITIBOA	<i>Nongo</i>	<i>Noizko</i>	<i>Zertako</i>
ABLATIBOA	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Zertatik</i>
ADLATIBOA	<i>Nora</i>	<i>Noizera(?)</i>	<i>Zertara</i>

1.4.2.2. Forma

1.4.2.2.1. Formari gagozkiola kasu inesiboaren atzizki nagusia *-n* soila da, noski; hala nola, *Donostian, Bilbon, Donibanen*; zer esanik ez, izena kontsonantez amaituz gero *-en* bilakatzen dela: esate baterako *Gasteizen, Parisen, Zarautzen*. Zenbait aldiz, halere *-gan* eta *-tan* ere erabili ohi ditugu, bai eta *zu (nahiz zure) baitan* ere, iparraldekoek batipat.

Antzina gauzak hortela ziren ala bestela ez dugu hemen auzitan ipiniko; hortxe ditugu, bai, *-n* gabeko zenbait forma: *hor, ezker-eskui, aitzin-gibel...* Bada ere arrazoi osoarekin dioenik singular mugatuaren ondoan bazela antzina mugatzaile gabeko forma: hots; *etxean* eta *etxen*, aditz nominalizatua deritzagunak dituen bien antzeko: *jateon* eta *jaten*.

1.4.2.2.2. Ez zaigu ere ahaztu behar beste zenbait puntu: alegia, euskalki batzuetan *goian* eta *behean* esan ordez *goitian* eta *beheitian* diotela, haietan *goiti* eta *beheiti*, beste euskalkietako *gora* eta *behera*-ren kide direnez gero, hots adlatibo eta ez inesibo; deklinabide hurbila delakoan (*aspaldion*, *berton*) -a-ren ordez -o- erabili ohi dela mugatzaile gisa, hala bizigabeen pluralean (*etxeotan*, *basootan*, *herriotan*) nola bizidunenean (*Gizonongan*, *eroongan*, *umeongan*); oinarria diptongoz amaitua denean bigarren elementua -i- edo -u- izan, alde txiki bat gertatzen dela: hots, lehena bokalez amaitua bezala deklinatzen (*zelaian*, *ibaian*, *lasaian*) eta bigarrena kontsonantez amaitzen bailitza (*gauean*, *barauetan*), eta abar, eta abar. Ezin aipa hemen, ordea, kasuon kasuistika guztia, ez eta behar ere, paradigmatan ezin hobeki bildua eta emana baitago.

Beste puntu bat jarri behar da agerian: direlako bizigabeen deklinabide singularrean (*etxean*, *etxeko*, *etxera*, *etxetik*) lehenak bakarrik erakusten du -a-, nahiz eta -a- hori artikulua den ala ez hizkuntzalariak bat ez datozen.

1.4.2.2.3. Esan dugu -n atzizkiaren ordez -gan- eta -tan- ere erabili ohi direla leku kasuetan eta ez, noski hor goian deklinabidearen paradigmatan ageri denez, mugagabe nahiz pluraleko formetan bakarrik. Hori garbiena izenorde erakusleetan ageri da; hots,

- (96) (a) Etxe honetan (ez *honean) / Emazte honengan
(b) Etxe horretan (ez *horrean) / Emazte horrengan

Gauza bertsua gertatzen da izenorde pertsonaletan ere, baina ez bizidun-bizigabeak bereizteko, baizik funtzio eta balio berdinez euskalki desberdinetako bariante gisa: hala nola, *nitan* nahiz *nigan*, *zutan* nahiz *zugan*...

1.4.2.2.4. Hau dela eta, on dateke ohartxo bat egitea euskaldunik gehienek hain ezagun ez dituzten euskalkietako forma horiei buruz. *Nigan* nahiz *enegan* (edo *neregan*), *zugan* nahiz *zuregan*, etab. esan daiteke, eta gauza bera gertatzen da izen komunekin, bizidunak direnean, eta propioekin ere; alegia, *amagan* nahiz *amarengan*, *Orixeregan* nahiz *Orixerengan* ongi esanak daude, gorago idatzi dugunez, eta lehen formak, -ren gabeak, maizago ageri bide dira autore zaharretan; horrexegatik ere bizidunak direlakoei dagokien galdekaria bi eratakoa da kasu honetan: *nor(en)gan* nahiz *nortan*.

Alegia, kasu absolutuaren nahiz genitiboaren gainean ipin daiteke *-gan*. Baina *-ta-* duen atzizkia ezinbestean forma absolutuaren gainean bakarrik joan daiteke: *nitan, zutan, hitan, (*enetan, *zuretan, *hiretan* ez dira ezer) izen komunekin ere gertatzen den bezalaxe: *hiru erre-tan, bost alditan*.

Orobat gertatzen da ere gainerako leku kasuetan: *nigana*, edo *neregana* (nahiz *enegana*), *nigandik* (nahiz *niganik*) edo *neregandik* (nahiz *enegandik* nahiz *eneganik*) etab., guztiak jatorrak dira; ez ordea **enetara, *enatarik*. Berebat izenorde pertsonal horiek pluralekoak direnean: *gu(re)gandik, zue(n)gandik, gu(re)gana, zue(n)gana* zuzenak dira, baina ezin esan daiteke honela baizik: *gutara, gutarik, zuetara, zuetarik, -re-* gabe edo *-en* gabe, alegia. Ez diogu inola ere *enetan, zuretan, hiretan...* euskaraz ezer ez direnik edo gaizki daudenik. Oihenartek, alegia, *suretan* (II, 69) dio, baina, jakina, horrek *zure-* du oinarria, ez *zu*; hots, *zurea bezala*, zure gauzen artean esan nahi du. Horrenbestez *enetan* eta *hiretan* esan daiteke.

1.4.2.3. Erabilera

Euskal deklinabidearen atzizki guztien artean ez dago besterik —kasu instrumentalaren *-z* izango luke lehiatzaile bakarra, baina horri ere alde handia kentzen dio— inesiboaren *-n* hau bezain emankorrik, bizirik, hizkuntzari (posposizio, esaera adberbial edo antzekorik sortzeko) honek adina zerbitzu prestatu dionik. Bestela esan, biziki produktiboa gertatu zaio hizkuntzari kasu inesiboaren *-n* atzizki hau.

Horrexegatik ere edukin semantikoari begiratuz txit joria eta aberatsa da atzizki hau bereganatu duten hitzen eremua. Horiek sailkatzeko irizpide bat baino gehiago genuke aukeran. Gu orainoko gramatikalaririk gehienen jardunari ez ezen, irakurle eta ikasleentzako erraztasunari ere amore emanik, edukin semantikoa eta beraien balioa adierazteko euskarak dituen adberbio galdekariei lotuko gatzizkie.

1.4.2.3.1. Lekua adierazteko

Zerbaitek edo norbaitek hartzen duen lekua, *non* dagoen alegia, adierazten duela erabat *-n* atzizkiak esan dugu. Hori adierazten duten hitzen artean badira zenbait bere esanahiaren muinean beste zerbaitek edo norbaitekiko erlazioa ere daramatenak, eta hainbestez posposizio gisa erabili ohi dira sarri, aurreko izenak *-ren* ia beti duelarik.

Hauetakoak dira:

- (97) (a) Gure aldean
(b) Hilaren ondoan
(c) Aitaren aldamenean
(d) Esanaren azpian
(e) Mutilaren aurrean
(f) Etxearen atzean
(g) Anaion artean
(h) Schaskaren lekuan
(i) Perpausaren buruan
(j) Gizonaren pean
(k) Lanaren kostuan
(l) Guztion agerian
(m) Aitaren izkutuian

Eta beste asko, noski. Oinarri soilaren ondoan ere joan daiteke, ordea, aurreko izena batzuetan:

- (98) (a) Zubi ondoan
(b) Mendi gainean
(c) Etxe azpian
(d) Denda atzean
(e) Eliza aurrean

Beste batzuk, ordea, erlaziorik ez dute adierazten eta formaz inesibo soilak izanik ere, lehengoak bezalaxe, balioz aditzondo bilakatzen dira: hala nola, *goian*, *behean*. Erlazioa adieraz dezaketenak berak erlaziorik gabe ere erabil daitezke eta orduan aditzondo gisa lexikalizatu direla esan daiteke, *adberbializatu* egin direla; hau da, kasu sistematik atera eta hitz berri, hots, aditzondo edo, bilakatu direla:

- (99) (a) Aldamenean eseri zitzaidan
(b) Azpian ezarri du
(c) Arian ezarri zuten elbarria

(Guk *erdian* esan ohi duguna *artean* dio Leizarragak).

Guztiorrek, ageri denez, adberbioarekin zerikusi handia du eta haren kapituluari luzaki eta zehazki ari baikara puntu honezaz, han aurkituko du irakurleak gai honi buruzko informazio ugaria. (ikus. Adberbioak, hirugarren ataleko hirugarren puntua).

1.4.2.3.2. Denbora adierazteko

Inesiboaz baliatzen gara ere zerbait noiz gertatu den edo denbora adierazteko: hala nola *gaztaroan*, *zaharizaroan*; eta beste batzuetan singularraren ordezt mugagabeen emanik ere bai: *umetan*, *txikitan*, *gaztetan*... Balio hori bera, denbora alegia, adierazteko euskarak maiz kasu instrumentalaren -z ere erabiltzen du eta biak maiz elkarren lehian dabilta, batez ere euskalki desberdinetako jokaeran. Erabat esan dezakegu iparraldekoak gu baino maizago baliatzen direla -z atzizkiak denbora adierazteko.

1.4.2.3.2.1. Era askotako denbora adierazten dugu gainera kasu inesiboaren bidez. Batzuetan puntu edo mementu batekoa eta *noiz* galderari dagokio orduan sintagma: esate baterako,

- (100) (a) Datorren astean emango dit
(b) Eguerdian hil da
(c) Goizean eramán dut

Beste batzuetan ekintza bat zenbat luzatu den adierazten dugu eta orduan *Zenbat denboran* galderaz baliatzen gara: alegia,

- (101) (a) Hilabeteen idatzi du liburua
(b) Astebeteen etorri da Erromatik Bilbora

Besteetan inesiboak denbora *zenbatetan* edo *zenbat aldiz* galderari dagokio: hots,

- (102) (a) Hirutan izan naiz Galizian
(b) Zazpitan irakurri dut eskutitza

Sail horretakoak dira, hain zuzen, aditzondo gisa erabiltzen ditugun *askotan*, *guxitan*, *batzutan*, *zenbaitetan*, *hirritan* edo *berretan*.

Zerbait *ze(r) ordutan* gertatu zen ere inesiboaz ematen dugu aditzera: hala nola,

- (103) (a) Hiruretan bazkalzen du
(b) Bost eta laurdentan jaikitzen da

Bai eta zerbaiten kostu edo prezioa ere eta *zenbatean* da horren galdekaria:

- (104) (a) Miloian erosi zuen
(b) Bost mila pezetatan saldu du

1.4.2.3.2.2. Kasu instrumentalaren atalean ikus ditzakegu -z atzizkiaren bidez osatzen ditugun denborazko hitz eta sintagma. Hemen aski bedi bakar batzuk aipatzea: *iaz, garaiz, tenorez, gauaz* batetik eta *egun batez, hiru urtez, bost egunez*, bestetik.

Denbora adierazten duten inesibozkoen artean ere badira, nolazpait esateko, eskematik atera eta lexikalizaturik aditzondo, edo esaera adberbial bilakatu direnak. Era bat baino gehiagotakoak gainera:

- Itxuraz singularreko forma dutenak: *orduan, artean, sekulan, arestian, bitartean, bat batean, berehalakoan, bertan, geroenean, bertantxe...*

- Mugagabekoa dutenak: *askotan, gutxitan, batzutan, gehienetan, zenbaitetan...*

- Esaera adberbial antzekoak: *ixitian-pitian, noizean behin, edo lantzean behin* (bizk.), *aldian-aldian, arra-arran, men-menean...*

Ikus guzti hau adberbioen atalean.

1.4.2.3.3. Iharduera adierazteko

Euskalki batzuetako hiztunek nekez egotz diezaiekete honako hitz hauei — *igerian, aitzurrean, musean, ehizean...*— nahiz guztiak inesiboan dauden, *non* galdekaria. Ez dute lekua adierazten, izan ere. Areago, egungo egunean zenbait euskaldunek hitz horiei *egon* (*ibili* ere bai) aditza erantsi eta *igerian dago, lanean dabil* eta abar esaten badute ere, beste euskaldun askorentzat inesibo horiek eta *egon* nahiz *ibili* aditzak ezin elkartuzkoak dira; hots, horixe ez dute esan nahi, hain zuzen, *egon* nahiz *ibili*; aitzitik *inor zerbaitetan ari dela, inork hartan diharduela* esan nahi dute, *ari* eta *ihardun* baitira euskalkien arabera ekintza horiek adierazteko aditzak. *Zertan* dute bestalde inesibo horiek bere galdekaria, ez *non*, nolazpaiteko egintza, ekintza edo aribidea denez gero sail honetako inesiboen muina.

Bi formatan ageri dira: batzuk singularrean: *jolasean, goldean, beharrean, marmarrean...*; besteak mugagabeen: *ametsetan, agerritan, lotan, mezatan,*

ixoritan, neskatan, belarretan... Zentzu berean erabiltzen ditugu ere *-(k)eta* atzizkia duten hitz eratorri batzuk: *hizketan, berriketan, kartaketan* edo *kartetan, maxiaketan, jostaketan* edo *jostetan, tortoloxketan, igeriketan...*

Halaz ere, bere galdekaria *zertan* duen sailik ugariena dudarik gabe aditz nominalizatuena da, adibidez aspektu puntuala edo adierazteko erabiltzen ditugun honelako formetan:

- (105) (a) Ikasten ari da
 (b) Josten ari da
 (c) Garbitzen ari da
 (d) Ikasten dihardu
 (e) Josten dihardu
 (f) Garbitzen dihardu

Diogun, halere, *non* eta *zertan*-en arteko mugak gehinetan bai, baina beti ez direla guztiz garbiak. Zer da, esate baterako, *lotan?* *non* ala *zertan?* Eta *mezatan* (*mezan* diote euskalki batzuetan)? Auzi honek badu, noski *izan* eta *egon* aditzen eremu semantikoeekin zerikusia. Nola esan behar da, alegia, *lotan dago* ala *lotan da?* Ala bietara, bata bezain zuzen bestea? Usarioa beste gabe onartzen bada, bietara, noski; baina horretara bagoaz, *non* ala *zertan* dagokion galdetzea ere alferrik da eta erantzuna eskupidean dugu: biak dagozkie.

Ez da hau, segurki, leku eta parada aproposa auzi hori garbitzeko, baina diogun, bidenabar bada ere, euskarak garbiro bereizi dituela noizpait eta nonbait honako biok: *etxean da* eta *etxean dago*, eta modu beretsuan *lotan da* gauza bat dela, euskaldun batzuentzat bederen, (hots, lotara joan dela, nahiz ez jakin loak hartu duen ala ez) eta *lo dago* bestea (hots, ez dagoela ernai, baizik loak hartuta).

Hala denarentzat *non da* litzateke gure ustez lehenaren —*lotan da* sintagmaren— galdera (eta ez *zertan ari da*, are gutxiago *non dago*) *mezatan da* -rena bezalaxe, eta *nola dago* bigarrenarena, *lo dago*-rena.

Bada oraindik beste bat ere oso testu-inguru jakinetan erabiltzen dena *zertan zara?* eta horren antzekoak. *Ari* gabe, noski, ez baitu inoren egintza adierazten, baizik inoren asmoak zein diren eta haiek burutzeko prest al dagoen galdetzen.

1.4.2.3.4. Modua adierazteko

Ez dira gutxi ere modua adierazten duten eta horrenbestez *nola* galdekariari dagozkion hitz eta sintagmak, inesiboan eman ohi ditugunak. Hauen artean ere sail batzuk bereiz daitezke:

Eskematik batere atera gabe izenen inesiboan daudenak; esate baterako:

- (106) (a) Oanean zerbait iritsiko duzu, txarrean ez
(b) Patxadan egin zuen lana
(c) Neurrian hartuz gero, pozoia ere on dateke

Bai eta inork presaka (*nola?*) aldegin duela esateko lekuan-lekuan entzuten diren hauek ere:

- (107) (a) Herioan aldegin du
(b) Zizkuan joan da
(c) Izu-zaparradan izkutatu da

Halakoak dira beste asko ere: *eskean, eskasean, mixerian, ezinean, koxkorrean* (pijo)...

Beste batzuk mugagabeen erabiltzen ditugu: *gezurretan, kaltetan, izerditan, txanxetan, benetan, zinetan*...

Beste asko, aldiz, erabat adberbializatuak dira: *agian, agidanean, gainerakoan, ustekabean, onenean, hainbestean, ezinbestean, noraezean, ahaleginean, osterantzean*.

Zerbait esaera adberbial bilakatu dira: hala nola, *itsu-itsuan, arian-arian, ezarian-ezarian, etsi-etsian, kus-kusean*...

Izen sintagma osoa dugu bestetan kasu inesiboan: *damu gaistoan, ordu onean, molde hobean, zori gaistoan, zori onean*...

Bai eta bestelakorik ere: *ahal den moduan, hobeto nahian, hoberik ezean, ezin gehiagoan*...

Baina puntu hauetako batzuk hiztegiari dagozkio gramatikari baino gehiago eta ez gara luzatuko.

1.4.2.3.5. Bestelakoak ere adierazteko

Gorago esan bezala, kasu inesiboaren -n atzizki honen emana euskaraz ia ezin ahituzkoa da eta laburkiro aipatu gabe bederen ezin utz dezakegu beraren beste zenbait funtzio.

a) Goiko sailetan eroso sartzen ez diren zenbait esapidetan agertzen da: *azken batean, lehen kolpean, hitz batean, hondarraren hondarrean, sakonaren sakonean*... Hauetako batzuk oso berriak direla gure hizkuntzan uste dugu eta horixe da seinalerik hoberena atzizki hau oraindik ere esapide berriak sortzeko bizi-bizirik dagoela.

b) Berriro hiztegi munduan sartzea bada ere diogun iragaitzean zenbait aditzen osagarri gisa inesiboa oso berea duela euskarak: hala nola, *lanean hasi, ahopean esan, eskean ibili, ezertan ez eduki, gogoan hartu, etxean sartu*... Komeni da esatea ere zenbait aditzen osagarri beste aditza denean, hau bigarren partizipio deritzagunean daramatela euskalki batzuetan, nahiz baterik bestera bereizkuntzak izan; alegia, *josten ikasi, ekartzen saiatu* edo *ahalegindu, mintzatzen jakin, idazten ahaztu*, (hori eta *idaztea ahaztu* ez dira gauza bera, noski), *egiten lagundu* eta abar. Bizkaierazko *bazkaltzen noa* eta antzekoak ahaztu gabe.

Zenbait perpaus txertatuk inesiboa hartzen duenean nolako balioak izan ditzaketen aztertzea ez da hemengo egitekoa, baina aipatu bederen egin ditzagun eredu batzuk:

- (108) (a) Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon
 (b) Dagoen dagoenean utziko dut lana
 (c) Eguna argitzean, izarrak itzali
 (d) Ni salbatzean, Jainkoari zer dihoakio?
 (e) Ahoz esatean hitz asko laburtzen dira
 (f) Jakintsuen artean beti ibiltzean horien zoriona egon da
 (g) Aita Manuel batek hau dioenean, besteok zer esango dugu?

Azken lau esatera horiek Kardaberazena dira. Hona beraren beste bat, non inesiboaren balioetariko hiru bildurik ematen bait zaizkigu hitz gutxitan:

- (109) ...oguei ta ainbeste *urteetan* Provincia oietan *Misioetan* jardun bear izan dei (Kardaberaz, Eusqueraren..., 11)

Zenbatetan edo *zenbat denboran, non* eta *zertan* galdekarien sintagmak ditugu perpaus horretan.

Adberbioaren (hirugarren atala, hirugarren kapitulua) kapituluan edo esango den arren, hemen ere aipatzea komeni da atzizki batzuen, batez ere partitiboaren eta adberbioen (-ik), bai eta ablatiboaren (-tik) indartzaile bezala agertzen dela inesiboa herri hizkerazko forma hauetan: *isilikan, bakarrikan, oraïndikan, baizikan, etxetikan, handikan...*

1.4.3. LEKU-GENITIBOA (-ko)

1.4.3.1. Kasu honen zenbait ezaugarri

Lehen leku-kasuez orokorki ari ginelarik kasu honi buruz esanak ez ditugu hemen luzaki errepikatuko, bai ordea laburkiro bilduko, aurrera baino lehen.

a) Berez *non*-en izenlaguna baizik ez da euskal gramatikaren historia zaharra gogoan hartzen badugu, baina euskaldun guztiok *hemengo, horko, hango* esaten dugun arren, inork ez dio egungo egunean *etxeango, mendiango...* Dena dela, forma hauek hain zaharrak ez direla sinesteko, ikus Fray Bartolomeren hau:

(110) ...ta euren neque egunianguac arinduteco demporia (Euscal errijetaco olgueta...,19)

b) Honek ez du beste hiru leku-kasuek duten -ga- atzizkizko formarik onaritzen; alegia, *hiru etxetan* eta hortik *hiru etxetako* bai ondo esana dago, baina *hiru ume(ren)gan* eta hortik *hiru ume(ren)gango* azken hau ez da esaten; bai, noski, *ni baitako*(antzina *ni baithang* ere bai, esate baterako Leizarragak).

c) Kasu honetan ere, aurrekoan bezala, hiru balio gailentzen dira: *nongo, noizko, zertako* galdekariei dagozkienak; banaka aztertu beharko dira, gainera, nork bere problemak baititu.

d) Beste genitiboari, atzizkia -ren duenari, kontrajartzeko deitzen da hau *leku-genitiboa*.

Bi genitibook, -ren eta -ko atzizkia dutenok, beren artean nola bereizten diren eta noiz bata noiz bestea erabili behar den, gaurko linguistikak honela esplikatu ohi du. Lehenari azpi egituraren ergatiboa omen dagokio eta *Donostiaren ederra* esate baterako diogunean, horren azpian honako aditz sintagma hau omen dago izkutatua: *Donostiak duen ederra*.

Bigarrenari, aldiz, inesiboa omen dagokio eta *Donostiako ederra* esatean, hori esan duenak *Donostian den* edo *dagoen ederra* izan omen du lehenik gogoan. Horrexegatik esan ohi da *Donostiako* hori antzineko euskaran *Donostiango* zela. Hortxe ditugu ere *txikitango*, *umetango*, *gaztetango*, eta abar, lege zaharren lekuko.

1.4.3.2. Forma

Leku-genitiboaren atzizkia singularrean *-ko* da, beraz, edo *-eko* oinarria kontsonantez amaitzen bada; mugagabeen eta pluralean, *-ta* aurrean duelarik, *-tako* eta *-etako*. Ikus paradigmatan kasu partikularrak: deklinabide hurbila deritzanekoa eta abar.

1.4.3.3. Erabilera

Atzizki hori gero izenak sorrerazitzeko oso lanabes egokia gertatu zaio hizkuntzari eta hala sortu dira *gerrikoa*, *zopakoa*, *bur(u)koa*, *lekukoa*, *hurkoa*, *betaurrekoak*, *eskekoa*, *egunerokoa*, *Elizakoak*, etab.

Bai eta gorputz atalen batean ematen diren zartadak adierazteko ere: *begiondokoa*, *bekainekoa*, *okotzekoa*, *ipurdikoa*, *masailekoa*... Pluralekotik ere sortu da zenbait izen: *belarrietakoak*, *oinetakoak*, *hamarretakoa*... Mugagabetik ere bai bakarren bat: *euritakoa*.

Atzizki honek izan ditzakeen beste funtzioak (*bihotz oneko mutila*) ikus *-ko* atzizkiak ari den txostenean.

1.4.3.4. *noizko*

Inesiboaz aritzean ikusi dugunez, denborazko aditzondo galdekaria *noiz* da eta hortik sortzen da *-ko* atzizkia erantsiz berorren izenlaguna den *noizko*; esate baterako,

- (111) (a) Noizko festetan ezagutu zenuen?
(b) Noizko albistea da hori?

Galdekari horri erantzuten dioten izenlagunak dira modu bertsuan honako guzti hauek, *non* kasuan ikusi ditugun hitzetatik *-ko* erantsirik sortuok: *iazko*,

aurtego, inoizko, herenegungo, atzoko, betiko, geroko, biharko, etziko, sekulako, bart arratseko, egundoko, etabar.

1.4.3.5. *noizko/nongo eta noizko/norako*

Hor goiko *noizko albistea da hori?* beste honako *noizko agindu zizun?* honekin konpara badezazu, ordea, ohartuko zara batetik bi *noizko* horiek formaz berdin direla, alde txiki batekin: bata nominalizatu eta *noizkoa* esan daitekeela, izenlagun denez gero, *nongoa* esan daitekeen bezalaxe; bestea, aldiz, ez. Bestetik, formaz kanpo balioari begiraturik, bata *nongoa*-ren pareko sentitzen duzula, hots, izenlagun, eta bestea berriz geroxeago aztertu beharko dugun *norako*-ren parekoago.

Bestela esan, bigarren hori destinatibo dela. Beraz,

I. *noizko*, izenlaguna, *nongo*-ren kidea.

II. *noizko*, destinatiboa, *norako*-ren kidea.

Bigarren hau geroxeago aztertuko dugu eta ikusiko ea izenlaguna ala adizlaguna den.

1.4.3.6. *zertako/zertarako* (1)

Gauza bertsua gertatzen da *nongo* eta *noizko* galdekarien kide den *zertako*-rekin, berez (?) *zertango* beharko omen lukeenarekin; hots, galdekari bera dugu, euskalki batzuetan bederen, leku genitibo eta destinatiborako.

Egia da, *noizko*-ren kasuan ez bezala, honetan bi forma desberdin ageri direla, *zertako* eta *zertarako*, euskalki batzuetan bata eta besteetan bestea; ez ordea, bata leku-genitiborako eta bestea destinatiborako, baizik bietarako bat bakarra, bata nahiz bestea.

Gaur *zertarako* esaten edo gutxienez idazten den euskalkietan ere, haatik, lehen idatzi ere *zertako* idazten zen. Kardaberazek, esate baterako, *zertako* dio; Axularrek eta, zer esanik ez.

Zertako-ri zuzen-zuzen dagozkion formak ditugu *igeritoko* (galtzak), *laneko* (tresna), *mezatako* (liburua), *lotako* (txanoa), eta abar. Bai eta aditz

nominalizatuetatik jalki eta izen bilakatu direnak ere; esate baterako, *egitekoa*, *jatekoa*, *irekitzekoa*, *sartzekoa*... Areago, noski, *jateko* (gogoa), *ikasteko* (garaia), *ibiltzeko* (giroa) eta gainerakoak.

Horiek berak inesibo mugagabeen ere maiz erabiltzen ditugu: *izatekotan*, *egitekotan*, *joatekotan*... Hauek baldintza adierazten dute gehienbat eta elipsi baten bidez sortuak bide dira: *izateko* (asmo)*tan* edo antzekoren batez. Honen ondoan *izanenean* (= baldin bada) ere zabaldua dago herri batzuetan, baldintza adierazten duelarik.

Guztiorren arabera, hortaz, *nongo* eta *norako* galdekari bikotea bakarrik bereizten zen, beste biak, *noizko* eta *zertako*, berdinak zirelarik hain izenlagun zein adizlagun zirenean. Alegia,

- (112) (a) Nongo zuhaitza? - Herriko zuhaitza
 (b) Norako? - Herriko
 (c) Noizko ogia? - Aizoko ogia
 (d) Noizko erosi duzu? - Gero
 (e) Zertako (?) galtzak? - Laneko galtzak
 (f) Zertako behar dituzu? - Laneko

Axularrengan zertako-ri ez darraikio behinere izenik, beti adizlaguna da, alegia. Eta, jakina, *zertarako* ez da harengan ageri.

Eta hegoaldeko euskalkietan bakarrik bereizi dira kasuen atzizkiak, bikote horien bigarrenen *-ra-* txeriatuak, hots, adizlagun direnei: *herrirako*, *gerorako*, *lanerako*. Ikus *norako*-ri buruz aurrerago dioguna.

Puntu hau amaitzeko ekar dezagun hona berriro Axularren goiko pasarte hura:

- (113) ...uste baduzu emaztean anhitz usatzeaz *emaztetako gutizia* gutituko zaitzula enganatzon zara...

Kasu honen hasieran esan dugu (hiru) *etxetan/etxetako* bikotea bai, baina (hiru) *ume(ren)gan/ume(ren)gungo* bikotearen bigarren forma hori ez dela esaten.

Iparraldekoek, ordez, bigarren bikote honen ordez, *-gan* gabe *-tan* erabiliz, (hiru) *umetan/umetako* bai esan dezakete eta esaten dute, Axularren pasartean ageri denez. Baina hor *emaztetako* izenlaguna da bete-betean; guk, aldiz, hori *-gan* atzizkiaren bidez adierazi nahi bagenu, *emazteenganako* esan beharko

genuke *nora* (edo *norengana*) kasuaren bidez, eta ez, Axularrek bezala, *nongo* (eta *zertako*), ez *zertarako*, kasuarenez.

Alegia, *emaztetako gutizia* eta *jateko gogoa* eta *igeritako galtzak* biziki antzeko dira, hegoaldekook *emaztetarako gutizia* hobeki esana legokeela uste bagenu ere.

Guztiau, haatik, geroxeago *norako/zertako* galdekariez ihardutean argiago geldituko da.

Esan dezagun, azkenik, *-ko* atzizkiaz, ere mintzatzen garela Adjetiboa izeneko kapituluan, hau da, bigarren ataleko 4. kapituluaren 3. puntuan.

1.4.4. ADLATIBOA (-ra)

1.4.4.1. Forma

Esanak errepikatzen aritu gabe, gatozen lehenik kasu honen atzizki formak aztertzerara. Hauek, gainera, beraietatik sortzen diren beste atzizki konposatu askotxo dituzte eta bana-bana aztertu beharko ditugu, berarizko arazoak baititu bakoitzak, hizkuntzaren historia ez ezen, egungo eguneko euskalkietako forma eta erabilera desberdinak ere gogoan hartzen baditugu.

Kasu honen forma nagusia deritzakeguna singularrean *-ra* da eta pluralean *-etara*, mugagabeen, aldiz, *-tara* izen oinarria bokalez eta *-etara* kontsonantez amaitua bada. Galdekaria, berriz, *nora* da. Ikus paradigmak edo taulak, deklinabide hurbila delakoan *-o-* agertzen baita mugagabe eta pluralean; eta gainera, kontsonantez amaituriko leku izenez *-a* soila har baitezakete; hala nola, *Parisa, Zarautza, Eibarra; Madrilla*, dio Mendiburuk.

Iparraldeko euskalkietan, halere, *-ra* horren ondoan *-rat* ere erabiltzen dute eta *norat* galdetzen. Bata eta bestea zertan diren bereiz ez dagokigu hemen adieraztea, hizkuntzalarien arteko eritziak ere ez baitatoz bat eta egungo egunean nahasi samar erabiltzen baitituzte hangoek berek.

Bizidun dirclakoek bere aldetik *-ra* ordez *-(ren)gana* hartzen dute singular mugatuan, *-ren-* atzizkia aukerakoa delarik, gorago esan bezala, singularrean bederen. Pluralean beti da atzizkia *-engana*; mugagabeen *-(r)engana*, izen oinarriaren azken bokalaren nahiz kontsonantearen arabera. Ikus taulak.

Hauen gaidekaria *norengana* da edota *norgana*, ez ordea *nortana*, nahiz eta *nortan* jatorra izan, gorago azaldu dugun bezala.

Erakusleek forma bereziak dituzte izenlagun direnean; izenlagun arrunt bezala dituzten *honengan/honetara*, *horrengan/horretara*, *harengan/hartara* edo, euskalkien arabera, horien antzekoen ondoan, aditzondo direnean beste hauek hartzen dituzte: *hona*, *horra*, *hara*.

1.4.4.2. Erabilera

1.4.4.2.1. Izenki adberbializatuak

Adlatibo forma soilak izanik ere, zenbait izenki adberbializatu egin da, batzuk besteak baino gehiago. Osoro adberbializatu direnen artean hauek aipa daitezke: *gogara*, *ardura* (= maiz, usu), *ostera*, *gainera*, *gora*, *behera*... Besteok, agian, gutxiago, muga ezartzen zaila den arren: *Aisira*, *gisara*, *antzera*, *erara*, *arauera*, *eritzira*, *alderantzira*, *aurrera*, *atzera*, *aitziner*a, *gibelera*, *esanera*... Ikus honetarako posposizio eta aditzondoei buruzko txostena.

1.4.4.2.2. Adlatiboak aditz bihurtzen dira

Ezin utzi daiteke ere bidenabar bada ere aipatu gabe, hau berez lexikoari dagokion arren, euskarak berebiziko joera duela adlatiboan dagoen edozein forma aditz bihurtzeko; hala nola, *etxeratu*, *eskuratu*, *oheratu*, *lotaratu*, *horratu*, *bereganatu* edo *beregandu*, *itsasoratu*, *azpiratu*, *menderatu*, eta abar.

Halaber diogun ere, hau sintaxiari gehiago dagokion arren, *ohera zenean*, *gogora zitzaidan*, *etxera bezain laster* eta horien antzekoak betidanikoak ditugula euskaraz.

Bada ere esaera adberbial bilakatu den adlatiborik: *ikusi batera*, *begiratu batera*, *gutxi gorabehera*, *hitzetik hortzera*, *bertatik bertara*...

1.4.4.3. Denbora ere adierazten du

Balioari gagozkiola, atzizki honek —hots, *-ra(t)*-ek, bizidunenak ez— denbora ere adieraz dezakeela esan behar da, lehengo bi kasuetan ikusi dugun bezalaxe. Alegia, *(hemendik) aurrera*, *(goizetik) gauera*, *(atzotik) gaurrera*,

(*egunetik*) *egunera*, (*bertatik*) *bertara* eta abar diogunean, denbora adierazten dugu. Gogora ere Axularren *gerotik gerora*, *biharretik biharrera* eta gainerakoak.

Bai eta hark berak eta bestek esan ohi zuten *handik harat* eta hegoaldean ere oraindik entzun daitekeen *handik har(er)a*, ez noski balio fisikoaz edo lekuzkoaz bakarrik. Hau dela eta, diogun ere Axular eta gainerako antzineko idazleen baitan, bai eta gaurko hegoaldeko erabileran, denborazko zentzua ez ezen, zerbaiten ondorioa ere adieraztera heldu dela azken esaera hori. Hots, ez du *harrez gero* bakarrik esan nahi, bai eta *gertakari haren ondorio gisa* ere.

1.4.4.4. *Zertara*

Atziki horren beraren hirugarren balioa, *zertara* galdekariari dagokiona, aurreko kasuetan aztertu ditugun *zertan* eta *zertako* galdekarien kidea da. Hemen *-ra* atzizkiak inoren ekintza baten helburua, asmoa edo xedea adierazten du lekua baino gehiago; esate baterako,

- (114) (a) Lanera joan da
(b) Aitzurera igo da
(c) Dantzara alera dira

Maiz, aurreko bi kasuetan bezalaxe, mugagabeen erabili ohi ditugu horien antzeko formak: hala nola, *lotara*, *mezatara*, *ardotara*, *perretxikutara*, *arkumetara* etabar.

Sail berean sartu behar dira ere galdekari berari aditz nominalizatuen bidez ematen dizkiegun erantzunak: *erostera*, *izkutatzera*, *afaltzera*, *konpontzera*...; bai eta elipsi baten bidez sorturiko beste hauek: *erosterakoan*, *izkutatzerakoan*, *afaltzerakoan*, *konpontzerakoan*... Hor gertatu den elipsia honen antzekoa dateke: *erostera (abiatze)ko (mementu)an*.

Beste hauek, denbora adierazten dutenok, ere bai: *prestatzerako*, *ikasterako*, *egosterako*... *Noizko* galdekariari dagozkio, beraz.

Hauek ez, ordea, baizik *noiz* galdekariari: *etxerakoan*, *oherakoan*, *bazkaritarakoan*...

1.4.4.5. *Norako*

Nongo berez, esan bezala, *non*-en izenlaguna baizik ez den bezalaxe, *norako* ere *nora*-rena da, noski, formari gagozkiola bederen; balioz ere hala den ala ez, geroxeago aztertuko dugu. *Nongo*, halere, bere eskuko kasutzat hartua dute gramatikalaririk gehienek —esan dugu zergatik— eta *norako* ez. Galdekari honi dagozkion formak dira *etxerako*, *mendirako*, *baserrirako*, *lanerako*, *eztarrirako*, *misioetarako*. Bertantxe esatea komeni da, halere, ekialdekoek *norako* galdekariari usu *-ra-* gabe erantzuten diotela: *etxeke*, *mendiko*, *baserriko*... (Ikus lehen esana ere 1.4.3.6).

Atzizki hau duen zenbait forma bere eskuko izen bilakatu da: *beherakoa* (= diarrea), *gorakoa*, *gainerakoa*... Geroxeago esango dugunez, *-rentzat/-rentzako* (edota *-rendako* euskalki desberdinen arabera) *-rako* honekin borrokan ari da euskalki batzuetan eta zertan berezten diren, berezten badira, aztertu beharko dugu gero.

Zer esanik ez, *-rako* bizigabeena bezala, bizidunen atzizki kidea *-(ren)ganako* dela, mugagabe eta pluralerako, bai eta izen oinarria bokalez edota kontsonantez amaitua denerako lehen ipini ditugun aldeekin; berorren galdekaria, aldiz, *nor(en)ganako* da. Honi dagozkion formak dira *eneganako*, *ni(re)ganako*, *ahizpa(ren)ganako*, *mutila(ren)ganako*, *semeenganako*, *gizonenganako*, *(hiru) neskaenganako*, *(bost) mutilenganako* eta abar. Ikus taulak.

Lehen *noizko* galdekariaz aritu garenean, bitarikoa dela esan dugu: *noiz*-en izenlagun soila bata —*Noizko albistea da hori?*— eta *norako*-ren parekoa bestea —*Noizko agindu zizun?*—. Izenlaguna denekoa, *nongo*-ren kidea, aztertu dugu han eta bestea, *norako*-ren parekoa, honerako utzi.

Orain bada, *non/nongo* eta *noiz/noizko* bikoteetan bata besteari dagokion eta bigarrenak lehenbizikoan izenlagun diren bezalaxe, *norako* ere, ikusi batera eta formaren arabera bederen, *nora*-ren izenlaguna litzateke. Hala al da, ordea, balioz eta egunoroko erabileran?

1.4.4.5.1. *norako* adizlaguna da, ez izenlaguna

Norako adizlaguna badela, ez da inolako dudarik. Betidanikoak dira honako perpaus hauek:

- (115) (a) Norako duzu labana hori?
(b) Norako behar duzu autoa?
(c) Norako erosi zenuen hainbeste dolar?

Izenlaguna ere izan daitekeen, hori da arazoa. Zuzen esana al dago, alegia edota *nongo* baino hobeki esana al dago *norako* —euskararen usuario eta lege zaharrari begiratuz, noski— honako hauetan:

- (116) (a) Norako bidia hartu zuen?
(b) Norako autobusa da hau?

Eta galdekari horren erantzun diren hauek zuzenak al dira, edota gutxienez zaharrak: *etxerako bidia*, *konbenturako galtzara*, *baserrirako estrata*, *zinerako sarrera*, *zerurako nahiz infernurako bidia*? Ohar, otoi, ez dela inola ere dudan jartzen izen soilez osaturiko *etxerako*, *konbenturako*, *baserrirako*, eta *gainerako* sintagmen jatortasuna, baizik horko, izenlagun gehi izenez, osatutakoena, eta galdetzen ea sintagma hauetan *-ra-* beharrezkoa den. Bestela esan, ea *norako bidia hartu zuen?* ala *nongo bidia hartu zuen?* den zaharrago, eta azken batean *norako* izenlaguna ere ba den.

Gure eritzia hau da: horrelakoetan, azken urteotako jaidura gorabehera, badirudi *-ra-* gabeko formak zaharragoak direla eta adineko euskaldunek, euskalkirik gehienetan bederen, egungo egunean ere maizago erabiliak, nahiz eta euskaldun gazteek, bizkaieraz batez ere, zenbait *nongo* izatea eta *norako* izatea, ondotik izena darraionean ere, bereizi beharra somatzen duten. Adineko euskaldun huts bati, ordea *Elizako liburua badut etxean* dioenean, *liburua ez da elizakoa*, baizik *elizarakoa* erasotzeak ez du zentzurik; hark ez du horrelako bereizkuntzarik somatzen.

Bestela esan, *nongo* beti izenlaguna den bezala, *norako* beti adizlaguna da, edo nahiago bada, izan da. Beraz *Bilboko tren*a, *Errenderiko autobusa*, *etxeko zapatilak*, *kanposantuko bidetxigorra*, *zeruko bidia*, *zineko sarrera* eta abar guztiz jatorrak dira eta guztiz zaharrak eta horiei *-ra-* erastea ez da inola ere beharrezko, hizkuntzaren —euskalkirik gehienan bederen— lege eta usuarioei errespetorik zor bazaie.

Horrenbestez lehen *nongo-zertako* kasukotzat eman ditugun *igeritako galtzak*, *laneko tresna*, *mezatako liburua*... eta arestian aipatutako besteak, *Bilboko tren*a eta abar, azken batean gauza bera dira, izenlagun bezala *nongo* eta *norako* ez baitira bi.

Guztiau honela dela sinesteko, Axularren jokaerari begiratu bat ematea on dela uste dugu. Araka ditzagun *bide-* ageri den pasarte guztiak eta hona zer aurkitzen dugun: inoiz ez da *-rako bide-* ageri (ezin ager zitekeen ere, lehen esan bezala *norako* galdekariari iparraldeko euskalkietan *-ko* soila baitagokio erantzun gisa, edota *-kotzat*); bai, ordea, ageri dira beste guztiok: *ifernuko bide-*, *parabisuko bide-*, *urkhabeko bide-*, *salbamenduko bide-*. Eta inork oraindik pentsa ez dezan 'leku horietan dagoen bidea' dela, bi bider hauxe dio: ...*parabisura loaiteko bidea* (311, 312). Baina beste hau bai badio, noski: *lainkoaganako bidea* (313, 318), *lainkoagango* esan ordez, lehen argitu dugunagatik (ikus lehen 3an esanak).

1.4.4.5.2. *Dantzako deia* eta *dantzarako deitu*

Bizkaieraz esan dugu dagoela batez ere *-ra-* txertatzeko joera zabaldua eta ez, noski, atzo arratsetik, lehenagotik baizik. Fray Bartolome irakur badezagu, *pecatuco ocasino* dioela ohartuko gara, Axularrek bezala, baina horren ondoan *-ra-* sartua duten formak ere erabiltzen dituela. Ikus hau:

- (117) *Soinuba bada ona ta oneracua, joiquiyac bere onac dira. Soinuba bada pecaturacua...* (F. Bartolome, 33)

Ikus egungo idazle baten honako hau ere:

- (118) ...*Detxepare erretoreak dantzarako deia egin zioncan* (Mitx., 27)

Nola aztertu behar da, ordea, horrako hori: *dantzarako deia* ala *deia egin*, *dantzarako deitu* bailio? *Deia* ordez *dei* bailio, *dei egin* eta *deitu* berdintzat jotzea zilegi litzateke. Pentsa daiteke, agian biok gurutzatu direla idazlearen luman: *dantzako deia* eta *dantzarako deitu*.

Hiru erataria esanak entzun daitezke horko esaera horiek, herri batzutan bederen, euskaldun zaharren ahotik: *Xoxote bidea*, *Xoxoteko bidea*, *Xoxotera bidea*; ez ordea, bizkaieraz izan ezik, zaharren ahotik diogu, *Xoxoterako bidea*.

1.4.4.5.3. *-rako* eta *-kotzat*

Diogun azkenik iparraldeko euskalkietan *-rako* atzizkiaren ordez *-kotzat* erabiltzen dutela maiz, *-ra-* gabe. Ikus Axularren pasarte hau:

- (119) ...eta noiz eta mundu *hunetakoizat* baitihoatzu gaizkicnik, orduan...
dihoatzula bertze *mundukoizat* hobekicnik (Ax., 204)

1.4.4.6. *noizko*

Eta *noizko*? Ikusi dugu *nongo*-ren kidea izenlagun dela eta galdekari horri dagozkiola *iazko*, *atzoko*, *betiko*, *geroko*, *biharko*, *etziko*, *bihar arratseko* eta abar, *noizko albistea da hori?* galdetzen dugunean, esate baterako, eta *atzoko albistea* edo *gaurko* nahiz *herenegungo albistea* erantzuten.

Norako-ren kidea dena ere, ordea, denborazko destinatiboa edo deritzakeguna, *noizko* da. Hau adizlaguna badela, ez da dudarik. Hala galdetu ohi dugu:

- (120) (a) Noizko agindu zizun dirua?
(b) Noizko konponduko didazu autoa?

Noizko dela diogu eta ez *noizerako*, nahiz *norako*-ren kide den, eta galdekariari dagokionez ez du hori inork dudan jartzen. Baina antzina ez zen galdekaria bera bakarrik bi balioetarako, leku-genitibo eta destinatiborako, berdina eta *-ra-* gabea, bai eta galdekari horri zegozkion erantzun sintagmetarako ere. Hau da, hor goian aipatu ditugun *iazko*, *atzoko*, *betiko*, *geroko*, *biharko* eta gainerakoak ez ziren *noizko* leku (?) genitiboari zegozkion izenlagunak bakarrik, gero eta gehiago euskaldun askoren belarrietan duten esanahiaren arabera, baizik horrez gain *noizko* destinatiboari zegozkion aditzlagunak ere bai.

Gaur ere hala dira oraindik zenbait hiztun eta idazleren baitan. Ikus esenplu bakarra:

- (121) Gure aldiko haize-crauntsiek urriki gabe astindu badute ere, ... hor daukagu ez *atzoko*, ez *gaurko*, ez *biharko*, bai ordea *betiko*... Jainkoaren begi maitakorretan betidanik egon daitekeen bezalaxe. Eta hor daukagu *betiko* batz ere... (Mitx., 33)

1.4.4.6.1. *etziko* ala *etzirako*?

Gero eta gehiago ari zaizkigu, ordea, forma horiek *gaurko* euskaldunoi hankamotzak ez ezen, okerrak ere iruditzen destinatibo balio dutenerako; hau da, *noizko* destinatiboaren, *norako*-ren kidearen, erantzunak direnerako, eta

horien ordez *-ra-* duten formak sartzen eta gailentzen: *betirako*, *gerorako*, *etzirako*..., hauek bakarrik bailira zuzenak, are zuzenagoak.

Eta hori gaztelerazko bikoteak (*de - para*) gudan izan dezakeen eraginaz gainera, bi arrazoigatik besteak beste: 1) *Norako*-ren parekotzat, hots destinatibotzat, jotzen dugunez gero, honek bezala eta honen erantzun diren *exerako*, *lanerako* eta gainerakoek bezala, *noizko*-ren ere *-ra-* behar dutela iruditzen zaigulako. 2) Destinatibo hori bera, denborazkoa alegia, adizki pertsonalaren bidez adierazten dugunean, *-rako* erabiltzen dugulako, hamar edo hamabi letro gorago guk geurok hor erabili ditugun *duenerako* eta *direnerako* horietan bezala; eta areago dena, *gourko*, *atzoko* eta gainerako destinatibo horien ondoan *gaur gauerako*, *atzo arratserako*... esaten dugulako, *-ra-*txertaturik.

Modu beretsuan esan ohi dugu ere hegoaldekook, galdekari berari erantzunez eta aditz nominalizatuen bidez, *etortzerako*, *konpontzerako*, *ikasterako*, *prestatzerako*.

Baina gauzok ez dira noiznahi eta nonnahi, euskalki guztietan alegia, horrela izan eta ez dira egungo egunean ere; ekialdekoak *-ra-* gabe esaten ohituak daude adizki pertsonalaren bidez adierazten dituzten denborazko destinatiboak ere eta *duteneko(tz)* nahiz *direneko(tz)* jalkitzen zaie hitzetik hortzera.

Modu beretsuan hegoaldekoon *-ra-* gabe esaten dute *gaur gaueko*, *bihar goizeko*, *atzo arratseko* eta abar destinatibo gisa. Arestian entzun diogun lagun bati: *datorren eguneko*. Ikus milaren artean Leizarragaren hau: ...*declarationeko egunecotzat*...(Rom. II, 5), guk *-ren* atzizkiari erantsi ohi diogun *-tzat* duelarik, lehentxeagoko Axularren *hunetakotzat*, *mundukotzat* haiek zuten bezalaxe, eta Meza liburuan ere irakurri berria dugu: ...*Jaunaren azken eguneko*, ez *egunerako*. Guztionen arrazoi historikoa oso ximplea da, gainera: leku-genitiboa eta destinatiboa ez dira noiz eta nonnahi desberdin eta berezi izan, beste genitiboa, *-ren* alegia, eta beronen destinatiboa, *-rentzat* edo *-rendaka*, ere desberdin eta berezi izan ez diren bezalaxe, antzina *-ren* soila aski zelarik destinatiboa adierazteko, Etxepare eta gehiagorengan ikus daitekeenez.

Atzizki berria, *-tzat*, aipatu dugunez gero, hori eta *-rako* elkarrekin nahasteko egungo egunean gailentzen ari den jaiduraz zerbait esan behar da, ea bereizten badira zertan bereizten diren. Ikus aurrerago.

1.4.4.6.2. *zertako/zertarako* (2)

Kasu bakoitzeko hirukotea osatzeko *norako* eta *noizko*-ren ondoan *zerta(ra)ko* gelditzen zaigu. Esan dugu hau berau, destinatiboa eta hainbestez *norako*-ren kide izanik ere, idazle zaharretan, eta ez hain zaharretan, *zertako* dela ia beti. Gaur ere hala da euskaldunik gehienen ahotan, *zertarako*-ren laburpena dela batek baino gehiagok dioen arren esan eta entzuten dugun *zertako* hori. Baina horrek ez dirudi horrela denik.

Aspaldiko urteotan, halere, hegoaldeko euskalkietan eta hiztun gazte ikasien artean batez ere, *zertarako* ari da gailentzen hitz egiterakoan ere —idazterakoan zer esanik ez— *norako*-ren analogiagatik edota *etxeke atea* eta *etxerako atea* bereizteko izan daitezkeen arrazoi beragatik.

Hor dugu, ordea, usuario zaharrenaren lekuko, *ezertako(a)* izenlaguna, *-ra-*gabe beti ageri dena eta euskalki askotxotan *trebea*, *egokia*, *abila* esan nahi duena. Ikus Kardaberaz pasarte hau:

- (122) Beste ascoc, guizon bat *ecertaco*, edo ascotan gaia dala, edo agudo bat dala esateco, Gaztelaniatic artu ia balentiaz bezala, Ori edo urlia demonio bat da, diote... (Kardaberaz, Ag., 37)

Aditz nominalizatuen bidez galdekari horri ematen dizkiogun erantzunetan ere *-ra-*gabe formez baliatzen gara:

- (123) (a) Neronek jateko crosi dit
(b) Buruz ikastecko ckarri dit
(c) Irakurtzeko utzi dit liburua

Horien antzeko *-ra-* dutenak, aldiz, *jaterako*, *ikosterako*, *irakurtzerako* eta abar denborazko esanahiez hornitu dira hegoaldeko euskalkietan eta hainbestez *noizko* galdekariari dagozkio, lehen esan bezala. Horiek ere, ordea, iparraldeko euskalkietan *-ra-*gabe esan ohi dira.

Puntu honetan ere Axularren jokaerak zerbait argi diezagukeela uste dugu. Hargan inoiz ez dira ageri *zerta(ra)ko* galdekariari dagozkion erakusleen kasuetan *hunetarako*, *horretarako*, *hartarako*, baizik beste hauek: *hunetako* (*gaiagorik eta anzatsuagorik...*) eta *hunetakotzat*, *-ra-*gabeak. Bigarren mailako erakuslearenik ez darabil, ez *horretako* ez eta *horretakotzat*. Hirugarrenarena, ordea, *-ra-* duena ere ageri da: *hartarakotzat*, bai eta horren ondoan *hartako*. Hau, egia esa, gehienetan leku-genitiboa da; destinatiboa ere bai, halere. Ikus biok:

- (123) (a) ... zu hariako ez gai izancz (Ax., 4)
 (b) ... ni baino huretako gaiagorik ... (Ax., 7)

Hartarako, esan bezala, inoiz ez, aldiz.

1.4.4.6.3. Adberbio esapideak

Esaera adberbial gisa honako hauek aipatzea merezi dute: *esate baterako* eta *dagoeneko*. *Esate baterako* eta *adibidez* elkarren antzekoak dira zentzuz. Zenbait euskaldun zaharrek, ordea, horrez gain *esateko* ere erabiltzen du beste zentzu batekin eta garbiro bereizten; azken honek zer esan nahi duen esenpluek erakusten dute garbiro:

- (124) (a) Hori, *esateko*, ez da Donostian bizi, ia beti kanpoan baita
 (b) Haur honek, *esateko*, ez daki oraindik ibiltzen, maiz erortzen baita

Euskalki batzuetan *idanik* diotenean zentzu beretsuan esan ohi dugu *dagoeneko* beste batzuetan. Hau eta *honez gero* nahasten ari da gaur zenbait jende, biok darabiltzagunon ahotan alor semantiko desberdinak dituzten arren.

Honez gero supositiboa edo inork, frogarik gabe, uste duenaren agergarria da. Hala nola:

- (125) (a) Hiltzeaz zegoen eta honez gero hil da(teke)
 (b) Goiz abiatu da eta honez gero Madrilan da(teke)
 (c) Duela bost ordu hasi da ikasten eta honez gero buruz daki(ke)

Dagoeneko, aldiz, dudagabeko gauza inork esatean, ikusia edo jakina duelako, erabiltzen da; *esate baterako*:

- (126) (a) Hiruretan bazkaldu du eta dagoeneko hor ari da igerian
 (b) Auzo Erroman zen eta dagoeneko herriratu dela badakit
 (c) Goizeko bostak dira eta dagoeneko jaikia somatzen dut

1.4.4.7. -rako eta -rentzat

Etxerako bidea gisako sintagmek euskararen egoera zaharra isladatzen ez badute ere, esan bezala, bizidun direlakoan atzizkiekin ez da gauza bera gertatzen, Axularren *lainkoaganako bidea* delako hark garbiro erakutsi digunez, *-(ren)ganako* ezinbestean izenlaguna baita beti. Horren orde ezin

esan daiteke, alegia, *Iainkoagango bidea, eixerako bidea*-ren ordez *etxe*ko *bidea* esan daitekeen eta betidanik gaurdaino esan den bezala.

Hori dela eta, *-(ren)ganako* eta *-rentzat* (edo *-rendako*) ez dabilta inoiz elkarren lehian eta hiztunak ez ohi ditu biak elkarrekin nahasten, lehenak adlatibo balioa hobeki gorde eta bigarrenari destinatiboarena gehiago dariolako edo; eta hori, bai eta *-rentzat* esan beharrean *-rentzako* izenlaguna erabili nahiago bada ere, biok hereiziz, alegia:

- (127) (a) Lagunarentzat (-rendako) ireki dut bidea (= adizlaguna)
(b) Lagunarentzako (-rendako) bidea ireki dut (= izenlaguna)

Bigarren hau ere eta *laguna(ren)ganako bidea* aise bereizten ditu hiztunak. Eguneroko hizkeran, halere, ez ditugu komunzki *-tzat* eta *-tzako*, adizlaguna eta izenlaguna, bereizten, biak adizlagun gisa erabiltzen baizik, non bata non bestea gehiago. Biok, beraz, eta *laguna(ren)ganako bidea, maitasuna, higuina* eta abar ez dira borrokan elkarrekin ari.

Bai, ordea, *-rako* eta *-rentzat*. Beti ez, noski. Euskalki batzuetan *-rentzat* (edo *-rendako*) bakarrik erabiltzen dute eta hala bi nafarren ahotik entzun berriak ditugu honako hauek:

- (128) (a) Hemen egin behar den lan batentzat eskatu dut
(b) Bi miloiko presupuestoa egin dut batzararentzat

Bakarra erabiltzen duten euskaldunek ez dute, beraz, buruhausterik. Baina mendebaleko euskaldunik gehienok esaldi horietan *lan baterako* eta *batzarerako* esango genuke. Hiztunok noiz bataz noiz besteaz baliatu, hori da nolazpait hemen konpondu beharra.

Garbi dago bizidunek ezin har dezaketela *-rako*, beti *-rentzat* baizik; hula nola, *nere-* edo *nire-* edo *enezat, harentzat, aitarentzat...*; bizigabeek, aldiz, bai. Exenplu honetan ditugu biak:

- (129) Neurentzat behar dut soineko hori dantzarako

eta Kardaberaz beste honetan ere bai:

- (130) Eta guzia ez gurentzat, baizic Jaincoaren *gloriarako* izan dedin (Kardaberaz, 5)

Bizigabeek, haatik, *-rako* ez ezen, *-rentzat* ere har dezakete eta berez —noiz bai eta noiz ez gero esango dugu— *eztarriarentzat* eta *eztarrirako, gibelarentzat*

eta *gibelerako*, *osasunarentzat* eta *osasunerako*... ongi esanak daude. Areago, nahasi darabiltza gaur jende askok, beren artean inolako berezkuntzarik ez balego bezala; esate baterako:

- (131) (a) Bi lanpostu bete nahi dituzte eta haienazako...
(b) Kuartel hori oso egokia da kultur-erxe batenaz

ez dira guk asmatuak, entzunak baizik. Hala behar al da esan, ordea, ala *haietarako* eta *kultur-erxe baterako*?

Gure ustez bada bi atzizki horien artean diferentziarik, nahiz *berez* biak erabil daitezkeen bizigabeekin. Har dezagun bikote hau:

- (132) (a) Ezta ona da eztaariarentzat
(b) Eztaarirako ona da ezta

Biak esaten ditugun arren, ñabardura bat somatzen du bien artean biak erabiltzen dituen hiztunak: *-ren* eta *-ko* genitibo atzizkien artean atzematen duenaren antzekoa; alegia,

- (133) (a) Bilboko arazoak larriak dira
(b) Bilboren arazoak larriak dira

Biak dira gramatikalak, baina lehenean *Bilbo* leku izen edo bizigabe bezala hartzen bide dugu eta bigarreanean han bizi diren lagunez osatua den aldetik edo bizidun bezala. Eta parafraseatu nahi izanez gero, lehena *Bilban diren arazoak* eta bigarrena *Bilbok dituen arazoak* esango genuke.

Orobatsu, *-rentzat* bizidun gisa sentitzen edo somatzen ditugun izenek osatutako sintagmei lotzen bide diegu, eta *-rako*, aldiz, bizigabe gisa sentitzen ditugunek osatutakoei; alegia, *hizkuntzarentzat*, *Euskaltzaindiarentzat*, *bazarrarentzat*, *elizarentzat*, *herriarentzat*, esango dugu testu inguruak bizidun bezala irakurterazitzen badizkigu; ostera *hizkuntzarako*, *Euskoltzaindirako* eta abar, bizigabe gisa sentierazitzen badizkigu.

Kardaberazena da hau ere:

- (134) ...obra obcagoric *Errientzat* ecin... eguin dezaquec (Kardaberaz, 16)

Areago, parafraasiak ematean datiboa egoki zaiola sintagmari iruditzen bazaigu, hots, *eztiak eztaariari on egiten dio*, edo horren antzekoa, orduan ere *eztaariarentzat on da* esango dugu; ostera, parafrasian adlatiboa erabiliko

genukeenean, orduan *-rako*. Hots, *eztarrira eramateko on da ezta* sintagmari *eztarrirako* zor zaiola dirudi.

Horrexegatik diogu batetik:

(135) *Jazkera hori mendirako egokia da*

eta bestetik,

(136) *Elurra mendiarentzat on da*

lehenean *mendirira eramateko* berrirakur baitezakegu eta bigarreanean *mendiari on egiten dio*. Beraz, bizigabeekin biak erabil badaitezke ere, ezin esan bi kasu atzizkiok beti berdinak edo aukerakoak direnik.

Ekintza adierazten duten izenek ere *-rako* hartzen bide dute; esate baterako, *dantzarako, lanerako, borrokarako, bertsotarako...* diogu eta horien funtzioa ere erakusleen bidez beti *-rako* atzizkiz adierazten dugu: hots, *horretarako* esanez, eta ez *horrentzat*. Halaz ere, begira zer dioen Fray Bartolomek:

(137) *Ezin ipini legui ordu bacoheraco, lecu bacoheraco, lagun bacoherentzat la dantza nastau bacoherentzat erreguela bat nos dan pecatu mortala, nos dan veniala eta nos ezdan pecatu esateco* (F. Bartolome, 37)

Ezin uka, beraz, argibide guztiok ez dituztela *-rentzat* eta *-rako*-ren arteko nahastea guztiak argitzen; esate baterako, *osasunarentzat on da* ongi dagokio datiboaz esan dugunari, *osasunari* egiten baitio on botikak, esate baterako; baina *osasunerako on dela* ere esan daiteke, eta hori adlatiboz esplikatzea edo parafraseatzea gogor egiten zaigu. Ikus, esate baterako, Fray Bartolomeren beste honako hau:

(138) *Baina alaco olguetaco apicinoia edo gurari laarreguija ezda errazuazcua arimaraco...* (F. Bartolome, 20)

eta hori *arima*, ezer bada, delarik bizidunetan bizidunena.

Datiboaz esan dugunari argibide polita ematen diola uste dugu Leizarragaren pasarte batek, Duvoisinenaarekin erkatuz. San Pablok Errromatarrei eginiko kartaren 6garren kapituluhan eta 10garren bertsoan honela dio: *Quod enim mortuus est peccato, mortuus est semel, quod autem vivit, vivit Deo*. Hona nola dakarren Leizarragak:

- (139) Eeen hil içan dena, bekatuari hil içan çayó behingotz; baina vici dena, laincoari vici çayó

Hor datiboz, latinez bezalaxe, itzuli duena, kapituluaren hasieran ezarri ohi duen laburpenean, bere eskutikakoan, honela ematen du:

- (140) Becatuagana hiltzeco, laincoagana vicitzeco

Hemen, ikusten denez, datiboaren ordeaz adlatiboa sartu du. Duvoisinek, aldiz, *-rentzat* darabil:

- (141) Alabainan bekhatuarentzat hil denaz, behin hil da; bizi denaz ordean, Jainkoarentzat bizi da

Zer esanik ez, hegoaldeko Elizbarrutiaren itzulpen ofizialean ere *-rentzat* irakurtzen dugula.

1.4.5. NORABIDE ZUZENEZKOA (*-rantz*)

Nahiz eta beste atzizkia den, adlatiboa adierazten duenez gero, hemen aipatu behar da *-rantz*, inor *nora* duan baino gehiago zein aldetara jo duen edo *norantzko* bidea hartu duen esan nahi duena. Hots, ibiliaren azken muga ez, baina guti gorabeherako jokabidea ematen du aditzera. Hauek ere, *-ra* atzizkia duen edozein forma bezalaxe, aditz bilaka daitezke, nahiz eta gutxiago entzuten diren; adibidez:

- (142) Honuztu plater hori

1.4.6. ADLATIBO BUKATUZKOA (*-raino*)

1.4.6.1. Forma

Norako ez ezen, *noraino* ere *nora* galdekariaren konposatuetarikoa da. Bide edo ibilaldi edo tarte baten azken muga edo puntua adierazten du, *nora*-k ez bezala handik aurrera luzatu edo igaro ez delako esanahia bere baitan duelarik. *Adlatibo bukatuzkoa* deitu izan da horrexegatik. Kasu honetan ere bestetako hiru balioak agertzen zaizkigu: *noraino*, *noizeino* (?), eta *zertaraino*. Diogun lehenik zerbait galdekari hauezaz.

Axularrek *norera*in darabil eta bizkaieraz atzizki hori *-ragino* ere izan daiteke eta hala izan da. Leizarragak, aldiz *-rano* dio: *Leguerano* eta abar. Halaz ere *noraino* da galdekari honen formatik zabalduena eta batua, eta *-raino* atzizkia. Hala esan ohi dugu *teitaturaino*, *dorre puntaraino*, *leporaino*, *tontorreraino*, *adarreraino*... Mugagabe eta pluralean *-(e)taraino*, noski: *izarretaraino*, *Ameriketaraino*, *oinetaraino*...

Bizidunen atzizkia *-(ren)ganaino* da —Leizarragagan *Moysesganano* eta irakurtzen ditugu— hala nola *ama(ren)ganaino*, *lagunenganaino*, *zu(re)ganaino*, *ene-* nahiz *ni(re)ganaino*, izenorde pertsonalekin ere absolutuaren nahiz genitiboaren gainean doalarik atzizkia, bestelako izenekin bezalaxe.

Erakusleek bi forma dituzte, adberbiozko *honaino*, *horraino*, *haraino* hauezaz gainera (Axularrek *hareraino* darabil); hots, *honetaraino*, *horretaraino*, *hartaraino* bizigabeentzat eta *honenganaino*, *horrenganaino*, *harenganaino* (*harganaino* ere bai) bizidunentzat.

1.4.6.2. Denbora ere adierazten dugu

Formari gagozkiola, *noraino*-ren pareko denborazko galdekariak *noizeino* izan behar luke, *nongo*-rena *noizko* den bezalaxe. *Noizeino* inon esaten edo agertzen den ez dakigu, baina *noizdrano* bai; Leizarragak darabil, esate baterako, eta *noizdaino* ere bai, non edo non.

Euskalkirik gehienetan horren ordez *noiz arte* esan ohi da komunzki, *-aino* edo *-ino*-ren ordez *arte*, alegia. Geroxeago mintzatuko gara honezaz. *Noiz arte* horrek beste forma hauek ere, gehiagoren artean, hartu izan ditu: *noiz artio*, *noiz artean*, *noiz arteino*, *noiz arteraino*, bi azkenok *arte* eta *-ino* elkarren gainean metaturik dituztela.

Atzizki honek, denborazko balioa duenean, forma edo aldaera ugaritxo hartzen du, galdekariak berak erakusten digunez zatiz; hots, *-no*, *-ino*, *-daino*, *-dano*, *-dino*, *-drano*, *-do* eta abar. Hala ditugu euskalkien arabera *orano*, *oraino*, *oraidano*, *oraindano*, *oraindrano*, *egundaino*, *egundo*, *gaurdaino*, *betidaino*, *deino*, *duguino*, *diraueino*... Hor goian zabalduena eta batua *-raino* dela esan dugun bezala, hemen denborazkoa denean alegia, *da(i)no* dela esan dezakegu, gero ablatiboan *-rikt-danik* diren bezalaxe; beraz, *-rainot-daino* eta *-rikt-danik*.

Zertaraino-ri buruz ez da zer esanik. Gehienez ere, hori eta *zenbatetaraino* egunoroko hizkeran maiz nahasi egin ohi direla; adibidez, *bere bizia haien alde emateraino maitatu zituen*, esatean, *zertaraino* nahiz *zenbateraino* izan liteke horren galdera.

1.4.6.3. -raino eta arte

Honaino esanak bi auzi guztiz praktiko eta eguneroko planteatzen digu: bat, *-raino* eta *arte*-ren arteko bereizkuntza, inolakorik baldin bada; bi, nola esan behar da —era bakartean esan behar baldin bada, batasun bila gabiltzanez gero— edota nola esan izan da —batasun hori lehenean eta alde igaroan idoro behar omen dugunez gero—: *arratsalde arte* ala *arratsaldera arte*, *Gabonak arte* ala *Gabenera arte*? Bestela esan: *zein egun arte* ala *zein egune(ta)ra arte* edota *ze ordu arte* ala *ze ordu(ta)ra arte*?

Has gaitezen lehenetik. Batak, *-raino*-k, lekua adierazten duela eta hainbestez leku izenekin gehienbat erabili behar dela esan izan da gramatika guztietan; bigarrenak, *arte*-k, aldiz, denbora adierazten duela eta denborazko adberbio eta sintagmekin erabili behar dela batipat. Euskaltzaindiak deklinabideaz eskaini zuen erabakian, esate baterako, honela irakurtzen dugu: *Adlatibo bukatuzkoa: -(r)ainol-tarainoll-ino*. Eta oharrak honela dio: *Hala ere, denborazko zentzua duten hitzei -rarte itsasten zaie eta distribuzio konplementarioz arte, azkenengo honen arteinolartio ere baduela. Pluraleraz -etararte edo -ak arte*. (Euskera, XXIV, 2. aldia, 1979, 635 orr.). Beraz, *etxeraino*, baino *gero arte*.

Hori orokorki hala da eta erakusleatarik sorturiko aditzondoek ezin hobeki erakusten digute lekua adierazten duten sintagmei berez *-raino* dagokiela, ez *arte*; ikus hor goiko *honaino*, *horraino*, *haraino*; horien ordez inoiz ez da idatzi ez esan, *noraino* galdekariari erantzunez, *hona arte* edo horren antzekorik, ez eta galdetu *nora arte*, gaurko egunean hau ere entzuten den arren. Hortaz *etxeraino*, *basoraino*, *kaleraino*, (elizatikan) *konbenturaino*... esan behar da komunzki. Modu beretsuan denborazko adberbio direnek inolako dudarik gabe erakusten digute horiei *arte* zor zaieia: *hots, gaur arte, bihar arte, gero arte, etzi arte*...

Baina bi atzizki horien aneko gurutzaketak askotxo dira eta ez bari arratsekoak, lekua adierazten duten izenek *arte* eta denbora adierazten dutenek *-(r)aino* hartzen dutelarik arestian esanaren kontra. Mikel Zaratek, esate

baterako, *Lezamara arte*, *exera arte* eta abar Bizkaian entzuten direla dio eta honako hau, berriz, Fray Bartolomerena duzu:

- (143) ...*echeetara artian* cer eguin aldaguiceen, amar urteco umiac bere baquice (F. Bartolome, 73)

eta, jakina, *Lezama* eta *etxea* leku izenak dira eta esanaren arabera *-raino* zor zaie. Zer esanik ez, Fray Bartolomerena irakurriz, guk ez ditugula, Zaratek bezala *Lezamara arte* eta horren antzekoak txartzat jotzen, baina horrezaz geroxeago mintzatuko gara.

Bestalde, betidanikoak ditugu denborazko aditzondoetan bi atzizki horien arteko nahastekak, hor goian aipaturiko zenbait galdekarik eta gainerako aditzondoek agertzen digutenez; hots: *noiz arte* diogu gehienok, baina Leizarragak *noizdrano*; *orain arte*, baina *oraindaino* eta horren antzekoak ere bai; *gaur arte* eta *gaurdaino*, eta abar. Beraz, bi atzizkion arteko bereizkuntza leku ala denbora esan nahi izatean komunzki badatza ere, ez, ordea, beti.

Horrez gain, bada ere zenbait sintagma hain atzizki bala zein bestea aukeran har dezakeenik. Hala urliak esango du *Errenteria(r)arte ez da autobusa geldituko*, eta sandiak *Autobus hau Errenteriaraino daa*; honako honek gorputz dagoen lagunari *Zeru(r)arte, adiskide!* esango dio, eta harako hark *Su-ziria zeruraino igo da* esango du.

Eta dudamudazko diren zenbait hitzekin, alegia berez ez leku ez denbora adierazten ez dutenekin, nola esan: *azken(a) arte ez zuen etsi* ala *azkeneraino heldu zen?*

Azkenik, euskalki bakoitzaren jokabidea ere kontutan eduki behar da. Askok *heriotzeko ordu arte* esango genuke, baina Axularrek *heriotzeko oreneraino* dio. Hortaz, *azken egun arte* bezain ongi esana dago *azken eguneraino*, *datorren urte arte* bezain zuzen *datorren urteraino*, eta abar, eta abar.

Jakina, Axularren hori —eta bost pasartetan ageri da, 130, 131, 134, 134, 143— guztiz normala da, hark ez baitarabil behin ere *arte* denborazko sintagmekin, beti *-(r)aino* baizik; eta hala hargan beti honako hauek aurkitzen ditugu: *beranduraino* (21, 124, 178); *azken ponturaino* (*egotu*, 34); *azken fineraino* (*iguriki*, 140, *iraun*, 298, *barasu*, 301); *azken eritasuneraino* (*iguriki*, 140); *pontu hunetaraino* (*jarraitu*, 358); *zahartu hutsezko ponturaino* (*ezkarela hillen*, 42, eta *iguriki*, 45); *denbora batetaraino* (*iraun*, 78), eta abar.

Axularren *arte-* guziak hauek dira: *arte(a)* (= antzea, maina); *artean* (herrikoen *artean*, esku *artean*...); *-en arteko* (eskuen *arteko*...); eta guri gehiago dagozkigun besteok: *arteino* (*akhaba arteino*, *ditezkeien arteino*, *bihar arteino*...); (zahar, egin) *arteraino* eta *hel arterainoan*. Besterik ez. Behin ere ez, alegia, *hurrengo aste arte-* edo antzekorik.

Galdekariak ere ezinbestean, bai leku hitzei bai denborazkoei dagozkienak, *-(r)aino* dutenak dira Axularrengan eta hala: ... *seinalatu dio norenaina hel bere xedea, bere mugarría eta marra ez ezen, denborazkoa ere noiz arteino egonen gara?* (389) eta ... *noizarteraino irauñ* (78) irakurtzen dugu, bigarren honetan ere *arte-ri -ino* nahiz *-raino* erantsirik gehigarri. Ikus pasarte hau:

- (144) Hala dute bekhatuek eta bekhatoreek ere bere arauaz bere neurria eta kontua *zenbatetaraino hel* eta bai denbora ere *noizarteraino irauñ* (Ax., 78)

Utz dezagun orain *kontuarena zenbatetaraino* dela (hots, *zenbat* bekatu egiten duen bekatoreek Jainkoak *kontatzen* duela) eta ohar gaitezen bestez: *denbora ere noizarteraino*... Axularrek hor goian aldatuiko denborazko izenekin *-raino* darabilenean, beraz, *NOIZ arte-* da —nahiz *arte-* horri bere euskalkian *-ino*, *-raino* itsasten dion— beroiei dagokien galdekaria, ez *NORERAINO*. Horrexegatik esan dugu arestian guk ez ditugula *Lezamara arte, echeetara artian* bezalako sintagmak txarresten, gogoan harturik horrelakorik dioenak lekua ez, baina denbora adierazten duela eta *NORAINO-ri* ez, baina *NOIZ arte* galdekariari erantzuten.

Hauxe da, beraz, auzi honen konponbidearen oinarria gure ustez: *NORAINO* galdekariari, hots lekuaren berri galdetzen duenari, beti *-raino* atzizkiz erantzuten zaio edozein euskalkitan, eta horretarako ia beti leku izenez baliatzen gara, edota leku gisa atzematen edo somatzen ditugun sintagmez (*azkeneraino*, *punturaino*, *fineraino*...). Hori bera, ordea, alderantziz edo atzekoz aurrera esanik ez da egi egia, hots, *-(r)aino* hartzen duten sintagma guztiak 1) ez leku izenak dira beti, 2) ez *NORAINO* galdekariari dagozkion erantzunak, eta egia honen esanplu ditugu *betidaino*, *gaurdaino* eta gainerako aditzondoak, bai eta *beranduraino* eta besteak; hauek ez baitira leku izenak, ez eta *NORAINO*-ren erantzunak, baizik *NOIZ arte-* galdekariarenak.

Auzi hau pixka bat arrazoibideratu nahi badugu, beraz, eta euskalki bakoitzaren jokabideari amore eman, badirudi irtenbide bakarra hau dela: Axularrek bezala beti *-raino* (*etxeraino* nahiz *beranduraino*) darabilten euskalkietakoek ez dute problemarik: leku nahiz denbora sintagmekin, hots

NORaino nahiz *NOIZ arte*- galdekariei dagozkienekin, beti *-(r)aino* erabil eta kito. Hots,

- (145) (a) Noraino joan da? - Mendi gailurreraino
(b) Noiz arte egon da? - Gaur ordiraino

Ostera, *-raino* eta *arte* biak darabiltzatenek, bereizkuntza hau egitea on lukete argi beharrez: *NORaino* galdekaritari beti *-(r)aino* atzizkiz erantzun (eta hori leku izenekin nahiz berez neutro direnekin leku gisa sentitzen edo somatzen ditugunean; alegia, *azkeneraino*, *heriotzeko punturaino*, *basoaren mugaraino*... *heldu*, *joan*, *iritsi*, eta abar). Baina *NOIZ arte* galdekaritari beti *arte*-ren bidez erantzun nahiz denbora adierazten duten sintagmekin —aditzondo, egun, ordu...—, nahiz leku izenekin *haraino heldu arteko denbora* adierazi nahi bada, adibidez *Lezamara arte*, *zeru(r)arte*, *hurrengo arte*..., nahiz neutro direnekin denbora gisa atzematen baditugu; hots, *azken arte*, *heriotzeko puntu arte*, *epearen muga arte*... *iraun*, *iguriki*, *egon* eta abar esaterakoan, adibidez:

- (146) (a) Noraino joan da? - Iturriraino, baserriraino, baso mugaraino, azkeneraino
(b) Noiz arte egon da? - Gaur arte, domeka arte, ordubata arte
(c) Agur, noiz arte? - Donostira arte!
(d) Irun arte ez da trenea geldituko
(e) Azken arte leial izan zizaion

1.4.6.4. *Hurrengo arte/hurrengo arte/hurrengorarte*

Baina nola da —eta honenbestez beste arazoari ekiten diogu—: *arratsalde arte* ala *arratsalderarte*, *ostegun arte* ala *ostegunerarte*, eta abar? Auzi hau, jakina, bizkaiera eta gipuzkeraren artekoa da soilik, gainerakoek ez baitute, ikusi dugunez, *arte* erabiltzen, beti *-(r)aino* baizik.

Gauza jakina da egungo egunean *-ra* itsasteko jaidura indartzen ari dela, gazteen artean batez ere, *NORaino*-ren adlatibotasunaren analogiagatik edo, hori bakarrik zuzen eta *-ra* gabea oker esana bailitza. Bizkaieraz ere, ordea, edota bizkaieraren zantzuak iristen diren herrietan ere, *-ra* gabearen arrastoak nabariak direla uste dugu: *ze ordu(ta)ra arte*, *zein egune(ta)rarte*, *beste batera arte*, *Gabonetara arte*, eta abarren ondoan, baldin horietako batzuk ere bizkaieraz esaten badira, horiek berak *-ra* gabe ere oraindik bizirik daude jendeak bizkaieraz egiten duen herrialdeetan ere. Eta zer esanik ez *bihar arte*, *gero arte*, *gaur arte*, *atzo arte*, *etzi arte*,... *-ra* gabe esan ohi direla komunzki, eta ez aditzondo direlako soilik, *biharrera*, *gerora*, *gaurrera*, *atzora*, *etzira*... *aldatu zuten hitzaldia* edozeinek esan baitezake.

Fray Bartolomek, esate baterako, bietarikoak darabiltza, *dantzara artian*, *erromedija egunera artian*, baina bai eta *erijotzaco ordu artian* ere.

Euskaltzaindiak biak onartuak ditu, hor goian aipatu ditugun Deklinabidezko Erabakitik aldaturiko hitzek erakusten dutenez. Batzuen ustez, halere, nahiz hau Euskaltzaindiak jaso ez zuen, *-ra* hartzen ez badu ere izena edo izen sintagma mugaturik egon daiteke: *alegia*, *azken eguna arte*, *azken hatsa arte*, *hura etorri zen ordua arte*; mugatua da ezinbestean erakuslea hartzen badu: *egun hura arte*; areago, izen sintagma plurala edo nahitaez mugatua bada, *zer ordu den* esatean, adibidez: *gabonak arte*, *ordubata arte*, *hamarrak arte*. Hiru modu ditugu, beraz:

- (147) (a) Hurrango arte
(b) Hurrangoa arte
(c) Hurrngorarte

1.4.6.5. Zertaraino/zenbateraino

Azkenik *zertaraino* nahiz *zenbatetaraino* galdekariei dagozkienak aipa ditzagun:

- (148) (a) Guztiz ahitzaraino aritu zen aizkoran
(b) Gezurretan ari zela nik esataraino itxuraldatu zuen gortaria
(c) Ia balere hutsik ez egitaraino menderatu du euskara
(d) Gero-ta handiago egin dadin, zeruko Ierusalame craikitzaraino (Bellok-en eginiko Meza Liburua, 466)

Axularrek gorago aldatu dugun pasartean esan digu *zenbatetaraino* honek *neurria eta kontua* adierazten duela. Hortaz,

- (149) (a) Hamabosteraino kontatu ditu
(b) ...Eztiossát çazpitarano, baina çazpitan hirurogucy eta hamarretarano (Leizarraga, S. Mat., XVIII, 22)
(c) ...ezta ontassunic eguiten duenic, ez batetarano (Leizaraga, Ad. Romanos, III, 12)

Erakusleek badituzte galdekari honi dagozkion formak: *honenbesteraino*, *horrenbesteraino*, *hainbesteraino*.

Diogun azkenik *-aino* guztiak izenlagun bihur daitezkeela: *oraindainoko*, *honenbesterainoko*, *bihotzerainoko*, *egundainoko*, *zenbatetarainoko*, eta abar; hala nola,

- (150) (a) Bihotzerainoko puñaladaz
(b) Oraindainoko albistekak
(c) Zenbatetarainoko arrakasta

1.4.7. ABLATIBOA (-tik)

1.4.7.1. Forma

Ezer berri gutxi dugu kasu honi buruz aipatzeko, ez baitu arazo berezirik ezartzen mahai gainean. Kasu markari berari dagozkionak dira batipat agerian ipini behartak, aski nabarra baita euskalkien lehenorainak gogoan harturik.

Kasu honen marka soila *-ik* da: *bazterrik bazter*, *adarrik adar*... Hitz oinarria bokalez amaituz gero, ordea, *-rik*: *Goardaceco beqhaturic*... eta *beccaturic garbizaçu*... idatzi zuen Etxeparek; Axularrek bere aldetik: *Zertarik heldu da haur?* galdetzen du eta *hartarik* erantzuten maiz; bizkaieraz oraindik ere *ene ondorik* diote.

Beste euskalki batzuetan halere, *-rik-ek* ordez, *-tik* esan ohi da, edo *-dik*, hitz oinarrien azken kontsonantea *-n* edo *-l* bada: alegia, *etxetik*, *menditik*, *urrutitik*, *izkututik*, *aurretik*, *aitzinetik*...; baina *nondik*, *inondik*, *handik*, (*hantik* euskalki batzuetan), *urrundik*, *oraindik*, etabar.

Halaz ere, konjuzki *-tik* erabiltzen duten hiztun aunitzek ere *etxerik etxe*, *mendirik mendi*, *aterik ate*, *herririk herri*, gordetzen dituzten, usario zaharraren lekuko.

Berebat leku izenetan: *Maulerik* diote euskalki batzuetan; gehienetan, ordea, *Paristik*, *Eibartik*, *Zarauztik*...; baina *Lyondik*, *Zeraindik*, *Usurbildik*, *Zizurkildik*; *Madriildic*, dio Mendiburuk. Hauetan, haatik, *Parisetik*, *Eibarretik* eta abar ere onartuak ditu Euskaltzaindiak.

Nahiz *-rik* eta *-tik* elkarren bariante gisakotzat ematen diren, badute alde txiki bat: bigarrenak azken *-k* gal dezake; *emeti*, *inundi* diote bizkaitarrek; *-rik*, aldiz, azken *-k* gabe ez da ezaguna.

Bizkaieraz *-rean* zen ablatibo kasu marka: *biotz guztirean*, dio Kapanagak, esate baterako. *Arean* bizirik dago oraindik *hartatik* esateko.

Horrenbestez esan gabe doa *-(e)tarik/-(e)tatik* dela mugagabe eta pluraleko marka: (bost) *iturritatik, exxeetatik, hodeietarik, Ameriketatik*, etabar.

Bizidunetan orobatsu gertatzen da, beti *-gan* artizkia batetik eta horren aurreko *-re(n)* ipin nahiz kenduzkoa dutelarik bestetik: *Adamganic* dio Leizarragak; *higanik, higandik* edo *hiregan(d)ik* esan daiteke; modu berean *amaganik, amagandik* nahiz *amarengan(d)ik*...

(151) Emacume dantzarijaganic apartau zaite (F. Barolome, 77)

Zu baitarik ere badiote iparraldekoek; Leizarragak *baithandic*.

Mugagabe eta pluralean *-(r)engan(d)ik*, noski: *haiengan(d)ik, zuengan(d)ik, lapurrengan(d)ik*... Honen ordez iparraldekoek, bai eta bizidunekin ere, gorago esan bezala (ikus 1.3. eta 1.4.), *-(e)tarik* ere bai: *zuetarik, haietarik, emazteetarik, ohoinetarik*, eta abar.

Arrazoi beragatik *gaztetandik* eta *gaztetarik, umetandik* eta *umetarik, txikitandik* eta *txikitatik*, eta abar.

1.4.7.2. Balioak

Aurreko kasuetan bezala, hiru balioak (*nondik, noiztik, zertatik*) bakandurik eta bakoitzari dagozkion forma batzuk aipatzekotan, hona:

Nondik: inondik, urrundik, bertatik, aurretik, atzetik, ostetik, gibeletik, goitik, behetik, eta abar.

Noiztik: gaurtik, aspalditik, bihartik, geroztik, lehendik, eta abar.

Zertatik: honetatik, horretatik, hartatik, hauetatik, eta abar.

Zenbait denborazko adberbiok *-danik* har dezake *-tik*-en ordez: *noizdanik, gaurdanik, aspaldidanik, betidanik*.

Hirugarren galdekari —*zertatik*— horri dagozkionen artean bereziki aipatzea merezi dute aditz nominalizatuek, Axularrek eta gehiagok hain maiz erabiliek:

halakatzetik, handitzetik, hastetik, hartzetik... begiratu edo gibeleratu edo dioenean.

Ikus Leizarragaren hau:

- (152) ... hanbat laudorio emaiten çayon Reguina bati dedicatzetic guibeleratzeco nuenic? (Gucizco Andre Noble..., 64-65)

Ablatibo kasu marka duen zenbait sintagma aditzondo bilakatu da, hor aipatuetan ageri direnez; hala nola, *inondik ere, bertatik* (bertara), *hemendik* (aurrera), *hantik* (harat), *horratik, hautik, aitzitik, gogotik, geroztik, oraindik, gaindi, haraindik*. (Ikus Aditzondoan txostena). Esate baterako:

- (153) (a) Euskalorrian gaindi
(b) Mugaz haraindik

Bi balio ditu, besteak beste, ablatibo markak euskalki batzuetan bederen: *abiapuntuaz gain (etxetik etorri zen), barrena edo zehar ere esan nahi du: basotik etorri da, hots, basoan zehar edo barrena.*

Hantik harat esapidea hiru baliotako bilakatu da, nondikakoa, noiztikakoa eta ondoriozkoa adierazten baitu. Alegia,

- (154) (a) Iturri ondoan zegoen, baina hantik harat aldegin du
(b) Iaz ikusi nuen; hantik harat ez dut ikusi, ordea
(c) Haserretu ziren eta hantik harat etsai dira

berez eta lekuzko esanahia zuteño bi sintagma (*hantik, harat*) zirenak, sintagma bakarra (*hantik harat*) bihurtu eta azken bi balioak beregana zituelarik.

Azkenik esan behar da kasu marka hau hartzen duten sintagmak izenlagun bihur daitezkeela: *harganiko, zугандико, aitagandiko, aspaldidaniko, zerutiko* edo *zerutikako, geroztikako. Harganico particia ene eyhargarria*, dio Etxeparek (VI, 9).

1.5. Gainerako kasuak

1.5.1. PARTITIBOA (-ik)

1.5.1.1. Forma

1.5.1.1.1. Euskal gramatiketan, kasu autonomotzat jo izan baldin bada ere partitiboa, badirudi *absolutu kasuaren* azpian landu beharko genukeela, haren baliokidea baitugu berez. Hortaz, bada, ezin esan kasu berria dugunik berau.

1.5.1.1.2. *Forma*-ri dagokionez, *-ik* hartzen du:

- (155) (a) Gizon-ik
(b) Muñi-ik

Baina deklinagaia bokalez amaiturik baldin badago *-rik* ageriko da:

- (156) Andre-rik

Ohar gaitzkeenez, mugatzailerik eta plural markarik gabe erabiltzen dugu beti. Horrexegatik esan izan du idazleren batek *auxe dala esan geinke euskal deklinabideko kasu guztietarik zeaztugabeenetarikoa*.

1.5.1.2. Funtzioa eta erabilera

Partitiboa honako kasu hauetan, gutxienez, erabiltzen dugu:

1.5.1.2.1. Ezezko perpausetan:

- (157) (a) Ez dugu libururik
(b) Ez dut zuhaitzik ikusi
(c) Ez dugu gogorik zinemara joateko
(d) Dirudienez, ez dute arcan linguistikarako astirik aurkitu (Mitx., 199)
(e) Ez diote, ordea, txiki eta labur izanagatik, inori oderrean zorrik (Mitx., 174)

Dena dela, *ez dugu ogirik jan* edo antzeko esaldiak esaten ditugunean, badirudi halako *masa* edo antzeko zerbaiti buruz ari gara:

- (158) Ez dugu ogia deitzen den horrelako ezer jan

Horrexegatik, bada, bi esanahi zeharo desberdin dituzte honako bi perpausek:

- (159) (a) Ez dugu ogirik hartu
(b) Ez dugu ogia hartu

Lehenbiziko kasua *masa* edo deitu dugun horretaz ari garen bitartean, bigarrenean *ogi zehatz* bati buruz mintzo gara. Azkeneko hau ogi ezaguna da eta erreferentzia garbia du. Entitateek erreferentzia argia duten neurri berean ezin ditzakegu partitiboan erabili:

- (160) (a) *Mila pezeta eman diodan eskalorik ez dut maite
(b) Mila pezeta eman diodan eskalea ez dut maite

Egon aditzarekin, jakina, maiz kara aurkituko da partitiboa:

- (161) (a) Ez dago ardorik
(b) Ez dago ogirik

Hauetan ere, aldez aurretik esan bezala, egiten den erreferentzia nahiko abstraktua da, zentzu batean behintzat:

- (162) (a) Ardoa ... ez dago hemen
(b) Ogia ... ez dago hemen

1.5.1.2.2. Galderetan:

- (163) (a) Behar dugu ogirik?
(b) Baduzu libururik?
(c) Ba al duzu surik?

Bai-ez erako perpaus hauek txertatuak ere egon daitezke:

- (164) Galdetu diozu ea baduen surik?

Dena dela, hemen ere goian egin den oharño berbera izan behar da kontuan, *ogirik*, *libururik* edo *surik* hitz abstraktuak direlako eta duten erreferentzia ez baita *ogi* edo *liburu* ezagun batena, *masa*-rena baino.

Orain arte jarritako adibide hauek *bai*-ez erako perpausei bakarrik dagozkie eta ez dirudi aparteko problemarik ageri denik hor. Zer gertatzen zaigu, ordea, zati-galderetan? Badirudi hauetan ere partitiboa erabil daitekeela, nahiz eta mugapen larriak izan oraingo honetan:

- (165) (a) Nork erosi du inoiz ogirik liburudenda batean?
 (b) Nola eros autorik dirurik gabe?
 (c) Noiz erosi duzu zuk lorerik?

Horrelakoetan, hala ere, badirudi hiztunak ez duela egiazki galdera bat egiten. Horrelako perpausak galdera bat baino gehiago ezeztapenak direla ematen du. Horrela, goiko perpaus horiek beste honako hauen pareko izango lirateke:

- (166) (a) Inork ez du erosi inoiz ogirik liburudenda batean
 (b) Ezin eros daiteke, inola ere, autorik dirurik gabe
 (c) Zuk ez duzu inoiz ere lorerik erosi

1.5.1.2.3. Baldintzazkoetan:

- (167) (a) Laguntzarik behar baduzu, deitu
 (b) Ahalkerik bazenu, ez zenuke hori esango
 (c) Telebistarik bazenu, holakoak ere ikusiko zenuizke

1.5.1.2.4. Batzutan, indar enfatikoa eman nahi diogunean sintagmari, baiezeko esaldietan ere aurkituko dugu partitiboa. Hala nola:

- (168) (a) Bada hemen hori dakienik
 (b) Bada neska ederrik
 (c) Besterik ere ikusi dut
 (d) Okerrena, beharbada, besterik da (Mitt., 195)

1.5.1.2.5. Gonbarazioa egiterakoan, gailentasuna adierazten dugu atzizki hau erabiliz:

- (169) (a) Mendirik handiena
 (b) Andrerik xuhurena

Hala eta guztiz, ez dugu nahitaezkoa horrela paratzea, bestela ere ongi baitaude adibideak:

- (170) (a) Mendi handiena
(b) Andre xuhurrena
(c) Lagun onena

Nolanahi ere, eta estilistika kontutan hartzen dugularik, lehen aldakiaren erabilera gomendatzen da. Ikusi hemen, adjetiboaren kapitulua.

1.5.1.2.6. *asko*, *gutxi*, *franko* eta, batzutan, *aski* hitzek ere partitiboa eska dezakete:

- (171) (a) Bazon zaldirik franko
(b) Eskerrik asko
(c) Gizonik asko
(d) Gizonik aski
(e) Esta cer ecarri barberuric; neu nas barberuric asco (Moguel, 76)

Nolanahi ere ezeztapenari loturik dagoen *gabe* posposizioak ere (ikus Posposizioak) partitiboaren marka har dezake:

- (172) (a) Besterik gabe
(b) Soila eta aipagarririk gabca delako, gutxiagok... (Mitx., 174)

1.5.1.2.7. Esan denez, partitiboa *nor* sintagma da berez eta mugagabea dugu beti. Horregatik esan da ondoko bi perpaus hauek diferenteak direla:

- (173) (a) Gizona ez da etorri
(b) Gizonik ez da etorri

Partitiboa eta beste zenbait izenordain ere nolabaiteko ezezkako testu inguruetan agertzen dira. Hizkera jasoan eta landuan, gerta daiteke *nor* sintagma ezik, ergatiboa ere bereziki mugagabea dela aditzera eman beharra. Horrelakoak dira, esaterako, honako izen sintagnok:

- (174) Ez du begik ikusi, ez belarrik entzua...

Baina esan behar da erabilera hauek oso mugatuak direla. Hauen ordeztasun nahiago izaten dugu determinatzaile mugagaberen bat erastea:

(175) Ez du hori (inongo, inolako, ezein) begik ikusi

1.5.1.2.8. Izen bera errepikatuz holako esapide hauek sor daitezke:

- (176) (a) Mendirik mendi (*mendiz mendi*)
(b) Elxerik etxe (*etxez etxe*)

Ikusi hemen ablatibo kasua, partitiboaren itxura izanik ere, ez baitira benetazko partitiboak.

1.5.1.2.9. Zenbaitetan *-ko* kasu marka erants dakiok e partitiboari eta orduan izenlagun bihurtzen dugu hura. Gehien batean aditz partizipioa + *ik* agertzen denean suertatzen da hau:

- (177) (a) Zuk ikusi dimzun liburuak politak dira
(b) Zuk ikusirik dimzun liburuak politak dira
(c) Zuk ikusiriko liburuak politak dira
(d) Zuk ikusirikako liburuak politak dira

Hala ere, batzutan agertzen dira oso antzeko itxura duten hitzak (*alferrikako*, *etab.*), baina horiek ez ditugu sail honetan sartzen.

1.5.1.2.10. *Nola* galdekariarekin erlazioa daitezkeen zenbait hitzek (erdi adberbio, erdi predikatu), partitibo marka hartzen dute. Honela,

- (178) (a) Neska hura ederrik etorri zen
(b) Mutil hau gazterik hilko da
(c) Haur horiek bakarrik joaten dira eskolara
(d) Hemengo ikasleak pozik bizi dira
(e) Han ere, agi denean, txakurrak oimutsik dabilta (Mitx., 189)

Antzera, ondoko esapide adberbial hauekin ere:

- (179) (a) Atcak irekirik (zabalik) utzi zituen
(b) Honelako gauzak gerta daitezkeela jakinik, ez zuen kotxea hartu behar

Ikus, dena den, adberbioen kapitulua puntu hau sakontzeko.

1.5.2. GENITIBOA (-en)

1.5.2.1. Forma

Sarteran ezarri diren tauletan argi aski ikus daitekeenez, genitiboaren kasu-marka *-en* dugu eta hori erasten zaio zuzenean deklinagaiari:

(180) Zenbat lagun**en** etxea da hau?

Izenki hori bokalez amaitzen baldin bada, ordea, *r* epentetiko bat nahi du izenkiak. Honela:

(181) Zenbat adiskide**ren** etxea da hau?

Izen sintagma artikulu hartzen duenean, *-aren* behar du, berdin diolarik oraingoan kontsonantez edo bokalez amaitzen den:

(182) (a) Gure lagun**aren** urbetetzea da gaur
(b) Gure adiskide**aren** urbetetzea da gaur

Esan dezagun, azkenik, izen sintagma pluralean dagoelarik *-en* hartzen duela:

(183) (a) Gure lagun**en** etxeak dira hauek
(b) Gure adiskide**en** etxeak dira hauek

Kontura gaitzkeenez batzutan forma berbera hartzen du mugagabeak eta mugatu pluralak ere (*lagunen*), baina sinkreísmo morfologiko hori hausten da izenkia edo deklinagai bokalez amaitzen denean (hala nola, batean *adiskide**ren*** dugu, baina *adiskide**en*** bestean).

1.5.2.2. Funtzioa

Kasu-marka hau hartzen duten izenkiak izenlagun bihurtzen zaizkigu. Beraz, genitibo hauek izen sintagma baten egituraren barnean agertuko dira, izenaren ezkerreko aldean normalki:

(184) *Fernandoren zapatak* berriak dira
 izlg iz

izen sintagma

Antzera hurrengo adibide guztiotan ere:

- (185) (a) *Nere aitak ez luke horrelakorik esango*
 izlg iz
 (b) *Gizon langilearen lanak aipatu nahi ditut*
 izlg iz
 (c) *Edozein txapelen prezioa emango digu dendariak*
 izlg iz

Beraz, genitiboak izena laguntzen du eta izen horri halako zehaztasun bat edo emateko balio izaten du. Izenlaguna kenduz gero ere, perpausak gramatikalak ditugu:

- (186) *Zapatak berriak dira*

Esan daiteke izenlagun hauek adjetibo mota bat direla eta izenondoekin batera (*handi, eder, jori, e.a.*) izenari ñabardura bezalako zerbait emateko erabiltzen ditugula.

Hori dela eta, kontuan izan behar dugu orain arte jarri ditugun izenlagun arrunt horien parean badagoela beste aunitz ere, beste modu batera eratzten ditugunak. Hasteko, orain arte jarri ditugun adibide guztietan izen batekin doaz izenlagun hauek (*zapatak, aitak, etab.*). Baina hau ez da honela suertatzen beti. Batzutan ixildu ere ixil dezakegu izen hori:

- (187) (a) *Fernandorenak berriak dira*
 (b) *Nereak ez luke horrelakorik esango*
 (c) *Gure etxea aitarena (= aitaren etxea) baino txikiagoa da*
 (d) *Non dago zurea (= zure autoa, zure emaztegaia...)?*

Bestaldetik, izenlaguna bera ere izenki ez ezik perpaus osoa ere izan daiteke:

- (188) *Horrek duen abilezia ikaragarria da*

Baina gramatika honetan ez gara honetaz arituko, perpaus bakunei buruzkoa bakarrik baita burutzen ari garen hau.

1.5.2.3. Erabilera

1.5.2.3.1. Joera nagusia, adibide guztiotan argi denez, izenlaguna izenaren ezkerretan paratzea da. Hala ere, badaude kasu mugatu batzuk, zeinetan eskuin aldera jarzea ere zilegi den. Izen bereziekin gertatzen da hori batipat:

(189) Gure Peru / Peru gurea

Horrelakoetan, artikulua erasteko beharrean aurkitzen gara, izenlagunak ezin baitezake bakarrik eta besterik gabe izen sintagma hertsi.

(190) *Peru gure

1.5.2.3.2. *Izan* edo beste aditz kopulatibo baten osagarri izan daiteke (Ikus Predikatu-osagarria):

(191) Abesti hau *Benito Lertxundirena* da

1.5.2.3.3. Kasu hau erabiltzen dugu askotan jabeagoa edo edutea adierazteko: *aitaren etxea* baldin badiogu, *aitak duen etxea* adierazi gura dugu; *gure dirua* esaten dugunean *guk dugun dirua* edo *norbaitek zor digun* diruaz mintzo gara, gu baikara diru horren jabeak.

Horrenbestez, denda edo antzeko zerbait bere jabearen izenarekin izendatzen denean, oso jatorra da edute genitiboaz baliatzea. Adibidez: *Etxeberrriaren arraindegia*. Berdin, norbaiten etxea aipatu nahi izanez gero ere: *Patxirenera joan naiz bazkaltzera*.

1.5.2.3.4. Hala eta guztiz ere, ez du beti jabeago-erlazioa adierazten, ondoko adibide hauetan ikus daitekeenez:

- (192) (a) Haren burua
(b) Mikelen heriotza
(c) Zure lagun minaren aita
(d) Bizitzaren hasiera
(e) Haran honen edertasuna
(f) Liburuaren lehenbiziko kapitulua
(g) Mila pezetaren ardoa

Argi denez, beste erlazio mota frango ere adierazteko baliatzen gara kasu honezaz.

1.5.2.3.5. Zenbait lokuzio idiomatikotan elipsia egiten dugu:

- (193) (a) Gurean (= *gure etxean*)
(b) Ez egin astoarena!
(c) Ez egin gorrarena!
(d) Beti tontoarena egiten gabiltza
(e) Kristorenak eman dizkio
(f) Zureak egin du!
e.a.

Beste hainbat eta hainbat esapide aipa genezake hemen, hala nola:

- (194) (a) Pozaren pozez
(b) Handiaren handiz
(c) Ikusiaren ikusiaz
(d) Honduraren hondarean
(e) Alderen alde
(f) Bururen buru

Eta harriduretan:

- (195) (a) Nere poza!
(b) Ene dohakabea!
(c) Ene galdua!

1.5.2.3.6. Posposizio askok kasu hau eskatzen du (Ikus Posposizioak):

- (196) (a) Elizaren ondoan
(b) Uraren gainean
(c) Nere inguruan
(d) Denon aurrean
(e) Andoniren ordean
(f) Eskutitz honen bitartez
(g) Liburu batzuen arabera
(h) Espainolen antzera
(i) Euskara batuaren alde eta kontra
(j) Azken gerraren ondoren

Posposizio aurrean (izenak izaki bizigabea adierazten duelarik) gramatika atzizkia ken daiteke oinarria soilik utziz han:

- (197) (a) Ur gainean
(b) Mahai gainean
(c) Ohe azpian

Halako kasuetan *a* itsatsia ere suntsi daiteke:

- (198) (a) Eliz ondoan
(b) Euskal eskolak

Hala ere, bizidunek kasu-marka behar dute beti:

- (199) Andoniren ondoan

1.5.2.3.7. Beste kasu batzuren morfologian genitibo honen kasu-marka ere ageri da:

- (200) (a) Haurraren gainetik
(b) Adiskideentzat
(c) Gizonaren gainean
(d) Gizonaren baitan
(e) Zuregana
(f) Andonirengandik

(Ikus hemen leku-denborazko kasuei buruz esandakoa).

1.5.2.3.8. Genitiboaren ordeaz, berriki aipatu ditugun kasu hauetako zenbaitetan absolutua ere erabil dezakegu:

- (201) (a) Gabonak aurretik
(b) Diruagatik
(c) Nigan
(d) Ni baitan

1.5.2.3.9. Hitz eta lokuzio batzuk edute-genitiboa eskatzen dute osagarrian: *beldur*, *lotsa*, *ahalke*, *herabe* (izan), *zain*, *beha*, *mende* (egon), *bila*, *xerka*, *galde*.

- (202) (a) Irakaslearen beldur zara
 (b) Zure zain gaude
 (c) Mikelen bila datoz
 (d) Elgarren bete zeuden

Eta besteok ere:

- (203) (a) Etxe bila dabilta
 (b) Diru eske etorri zitzaidan

1.5.2.3.10. Ekintza baten egilea adierazten duten izenek, edute-genitibo kasuan den osagarria har dezakete, osagarri honek delako ekintzaren objektua aipatzen duenarik, adibidez:

- (204) *Liburu hau*en egilea / saltzailea / hornitzailea

Hemen *liburu hauek* norbaitek egiten, saltzen edo hornitzen dituenak baitira. Objektu hau zentzu orokorrean hartzen delarik, berriz, oinarri-forma soilik erabili daiteke: *esne saltzailea*.

1.5.2.3.11. Ekintza bat adierazten duten izenek, era berean, kasu honetan dagoen osagarria hartzen dutenean, osagarriak edo ekintzaren objektua, edo honen egilea, izenda dezakete:

- (205) *Andoniren* sarrera / isiltasuna / sinetsmena / ekintza

Hemen, *Andoni* sartzen dena, isilik dagoena, sinesten duena eta ekiten duena edo ekintza burutzen duena dugu.

- (206) (a) *Andoniren* hilketa / atxilotzea
 (b) *Diamante hau*en salketa / lapurketa
 (c) ...satorraren beldurra ez da Joanes bakararena (Mitx., 24)

Hauetan berriz, *Andoni* norbaitek hiltzen edo atxilotzen du, eta *diamante hauek* norbaitek saltzen edo lapurtzen. Bestean aldiz, *satorrari* ez dio beldur *Joanes bakararak*. Baina ekintzaren objektua adierazten duen hau zentzu mugatuan hartzen ez bada, oinarri-forman agertzea posible da, adibidez: *ume hilketa*, *diamante lapurketa*.

1.5.2.3.12. Aditz izenaren objetua, bi modutara ezar daiteke:

a) Absolutuan:

- (207) (a) Gauza ederra da *euskara* ikastea
(b) *Diamante bat* saltzera etorri natzaizu
(c) Donibanen ibiltzen dira *diru pixka bat* biltzeko
(d) *Gauza hauek* esaten ibili da
(e) Anaia bat *gu* laguntzen ari da etxean

b) Edute-genitiboan:

- (208) (a) Gauza ederra da *euskararen* ikastea
(b) *Diamante baten* saltzera etorri natzaizu
(c) Donibanen ibiltzen dira *diru pixka baten* biltzeko
(d) *Gauza hauen* esaten ibili da
(e) Anaia bat *gure* laguntzen ari da etxean

Hemen ere objetuak zentzu orokor eta mugagabea izanez gero, genitiboaren orde z oinarri-forma ager daiteke, adibidez: *Onddo biltzen ibili da.*

Baina *-izen* edo *-ten* atzizkia daraman forma aditz jokatuaren elementua denean, objetu zuzena obsolutoan behar du:

- (209) (a) Gauza hauek esaten ditu (eta ez **gauza hauen*)
(b) Anaia batek *gu* laguntzen ginuen (ezin esan *gure* hemen)

1.5.2.3.13. Zenbait euskalkitan, *bat* edo *beste*, *bat* edo *bat*, *bat* edoren *bat*, *zenbait* adierazteko izen sintagma edute-genitibo mugagabea doa eta honen eskuinetara *bat* edo *batzu* erabiltzen dira:

- (210) (a) *Gizonen* bat etorri da
(b) *Libururen* batzu erosiko ditut

Egitura bera zenbakiekin erabiliz, kopuruaren ez-zehaztasuna adieraz daiteke:

- (211) (a) *Hogeiren* bat urte ditu *gure* lagunak (= *hogei bat*)
(b) *Hamabosten* bat tonclada galdu dira (= *hamabost bat*)

Baten bat eta baten batzu ere horrela erabiltzen dira:

- (212) *Baten bat etortzen bada...* (= *nor bait*)

(Ikus *Zenbatzailea*).

1.5.2.3.14. Euskara zaharrean, kasu hau *-entzat* kasuaren baliokidea da behin baino gehiagotan:

- (213) (a) *Hanbat gaiztoago zure* (= *Hainbat okerrago zuretzat*)
(b) *Debruen dela* (= *Deabruentzat izan dadila!*)

1.5.2.3.15. Batzutan zail da esatea zein kasu den egokiena, *-en* ala *-ko*:

- (214) *Etxeke teilatua ala etxearen teilatua?*

Bestetan, batak eta besteak esanahi desberdinak eman ditzakete:

- (215) (a) *Elizaren isiltasuna ez da Elizako isiltasuna*
(b) *Mila pezetaren kafea eta Mila pezetako kafea*

ez dira gauza bera, bi adibide jartzeko. Kasu seguruenak hauexek dira: (1) *edukitzailea* pertsona edo biziduna bada, *-en* erabili behar: *Andoniren bizitza*; (2) posposizioekin ere, *-en* erabiltzen da, eta ez *-ko*: *Etxearen aurrean*; (3) *toki edo denbora bati dagokion* delako erlazioa adierazi nahi bada, berriz, *-ko*: *etxeke giltzak, arratsaldeko autobusa*. Baina beste kasu batzu ez dira, tamalez, honen erraz arautzen. (Ikus *Leku-genitiboa (-ko)* delakoan esan duguna).

1.5.3. SOZIATIBOA (-ekin)

1.5.3.1. Forma

Mugagabeen *-ekin* (kontsonantez amaitzen denean deklinagaia) edo *-ekin*, loturazko *r* bat tartekaturik (bokalez amaitzen bada izenkia):

- (216) (a) *Hamar lagunekin etorri naiz*
(b) *Hamar adiskiderekin etorri naiz*

Singularrean *-arekin* egiten du honek:

- (217) (a) *Lagunarekin* joan nintzen mendira
(b) *Adiskidearekin* joan nintzen mendira

Azkenengoz, izen sintagma pluralean baldin badago *-ekin* eskatuko du:

- (218) (a) *Lagunekin* joan ohi naiz hondartzara
(b) *Adiskideekin* joaten naiz afaltzera

1.5.3.2. Funtzioa

1.5.3.2.I. Kidetasuna adierazteko baliatzen gara kasu honezaz:

- (219) (a) *Amarekin* nago
(b) *Mikelekin* bizi naiz
(c) *Norekin* heldu dira?
(d) *Lehendakariarekin* hitz egin dut
(e) *Zurekin* ados nago
(f) *Zure alabarekin* ezkonduko naiz
(g) *Horiekin* harreman txarrak ditugu
(h) *Harrekin* gudukatu naiz
(i) *Hau beste horrekin* kontrastatzen dugu

Gainera, kasu hau modu, kausa edo instrumentaltasuna adierazteko erabil daiteke, adibidez:

- (220) (a) *Makila honekin* jo dut
(b) *Liburu harekin* dakidan euskara guztia ikasi dut
(c) *Soka ebaki zuen labana harekin*
(d) *Bero honekin* ezin da lanik egin

Hauek euskarazko esaldi jatorrak badira ere, gaur egun, aspaldian instrumental kasua erdi galdua duten tokietan, eta instrumentala berriro bultzatu nahian, batzuk soziatiiboarekin erabilera hauek baztertuko lituzkete. Hau dela eta, komeni litzateke hobeki ezagutzea bai instrumentalaren erabilpenak, bai soziatiiboarenak.

1.5.3.2.2. Kasu hau denborazko zentzuan ere erabil daiteke, *noiz* adierazteko, adibidez:

- (221) (a) Andre Mari eguna ostegunarekin erortzen da aurren
(b) Egun huncquin (Martxo XXV) Veneia edificatzen hasi izan cen
(Leizarraga)
(c) San Martin de la Moja
Moja de San Martin,
Toberak jo ditzagun
denok elkarrekin;
denok elkarrekin da
ordu onarekin!

Jakina, inesiboa erabiltzen da gehienetan *noiz* adierazteko (Ikus Inesiboa).

1.5.3.3. Erabilera

1.5.3.3.1. Zenbait tokitan, instrumentala guti erabiltzen baita, normalean instrumentala eskatuko luketen zenbait aditz soziatiborekin erabili ohi da, adibidez:

- (222) (a) Horrekin konturatu naiz (hobeki: Horretaz...)
(b) Zurekin gogoratzen naiz
(c) Zurekin ahaztu dira
(d) Zure etorretarekin pozten naiz

1.5.3.3.2. Zenbait aditz, adjetibo edo adberbiok kasu hau eskatzen dute, adibidez:

- (223) (a) Zurekin amets egin nuen atzo
(b) Ardo honekin asti dugu
(c) Aulkiak mahaiarekin batera saldu zizkidaten

1.5.3.3.3. Jakina denez, *-ekin* kasu-marka honekin batera *-gaz* (*-kaz*, pluralean) ere erabiltzen da bizkaieraz:

a) mugagabea:

- (224) (a) Zein adiskidegaz
(b) Jonegaz

b) mugatua:

- (225) (a) Txakurragaz
(b) Zaldiagaz

c) plurala:

- (226) (a) Gizonekaz
(b) Mutilekaz

1.5.3.3.4. Pierre Lafittek bere *Grammaire Basque* delakoan adierazten duen eritziaren arabera, zenbait tokitan erabiltzen den *-ekila* atzizkia ez litzateke *-ekin* atzizkiaren baliokide hutsa toki haietako erabileran. Lafittek dioenez, *-ekila-k norbaitekin elkartzeko mugimendua (un mouvement pour se joindre à quelqu'un)* adierazten omen du:

- (227) Aitarekila igorri dut (= aitarengana, harekin biltzera)

1.5.4. INSTRUMENTALA (-z)

1.5.4.1. Forma

Hasteko, esan behar da toki askotan instrumentala oso guti erabiltzen dela, gaur egungo hizkera ezikasian behinik behin. Hala eta guztiz, alfabetatze prozesuari esker alderantzizko joera nabarmentzen da azken garaian honetan, kasu honetaz gero eta ugariago baliatzea, alegia. Ezin esan, ordea, euskara modernoan instrumentala defenditzen dutenek beti asmatzen dutenik erabilera zuzena, oraindik instrumentala bizi-bizirik mantentzen duten hizkera aztertzeak erakusten duenez. Bizkaieraz, gainera, nahasketa fonetikoaren bidez, jatorrizko sozietiboa (singularrean *-a(ga)z = arekin*) instrumentaltzat (singularrean *-az*) jotzen dute batzuek, era honetan *-z* kasua ere gehiago ugartuz. Instrumental eta sozietibo kasuen bereizketa jatorra zaindu behar genuke euskara batuan, bata bestearen ordainetan nolanih jarri gabe:

Forma aldetik, *-z* hartzen du deklinagaiak:

- (228) Eskuz jokatuko dugu

Izenkia kontsonantez amaitzen denean *-ez* egiten du:

(229) Oinez etorri ziren

Bestaldetik, mugatua *-az* dugu. Hala nola:

(230) Mailuaz

Eta pluralez *-ez* hartzen du izenkiak:

(231) Semceez (ez *semcetaz)

Esan dezagun, dena den, erakusleekin eta, honako hauek ditugula: *honetaz* edo *honezaz*, *horretaz* nahiz *horrezaz*, e.a. (Ikus taulak).

1.5.4.2. Funtzioa

1.5.4.2.1. Aditz askok instrumentala eskatzen dute beren osagarrietan, hala nola *baliatu*, *jabetu*, *konturatu*, *ohartu*, *oroitu*, *ahantzi*, *kezkatu*, *arduratu*, *poztu* :

- (232) (a) Haren izenaz baliatu ginon
 (b) Laster herri osoaz jabetu ziren
 (c) Nor bere husez konturatzea zailago da
 (d) Aberatsak ez dira sekula gutaz oroitzen

1.5.4.2.2. Beste zenbait aditzen osagarrietan erabilirik, kasu honek *gaia* adierazteko balio du: horrela *esan*, *entzun*, *mintzatu*, *idatzi*, *irakurri*, *pentsatu*, beste zenbaiten artean:

(233) Zer esan du gobernuak egoera ekonomikoaz?

hau da, bestek esan lezakeenez, *egoera ekonomikoa dela eta*, nahiz *egoera ekonomikoari buruz*, nahiz *egoera ekonomikoaren gainean*, nahiz *egoera ekonomikoari dagokionez* edo *dagokiola*.

1.5.4.2.3. Denborazko iraupena adierazteko balio du instrumentalak:

(234) Hizlaria bi orduz entzun behar izan genuen

Beste batzutan, kasu honek *noiz* adieraz dezake, adibidez: *egun batez* (=egun batean), *gauaz*. Baina azken kontzeptu honetarako inesiboa maizago erabiltzen da. (Ikus Inesiboa).

1.5.4.2.4. Batzutan, instrumentalak tresna adieraz dezake, adibidez:

- (235) (a) Mailuaz jo zuen
(b) Eskuan zuen igitaiaz akabatu zuen sugea

Baina zentzu honetan sozietiboa ere (*mailuarekin, eskuan zuen igitaiarekin*) jatorra da.

1.5.4.2.5. Diferentzia ere adierazten du instrumentalak:

- (236) Eztaiaz beherago sartcen çaió khe belça (Zib. Elxeb., 2827, v.)

Ikus, dena den, Adjetiboa izeneko kapituluan 4.2.4.4.2. puntuan ematen diren gainerako adibideak.

1.5.4.3. Erabilera

1.5.4.3.1. Zenbait posposizio instrumentalarekin erabiltzen dira:

- (237) (a) *Zutaz gainera* beste hiru lagun etortzeko dira
(b) *Gure azken elkar hizketaz geroztik* gauzak zeharo aldatu dira
(c) *Lehenaz gain*, lan berria ezarri digute

1.5.4.3.2. Beste hitz batzu ere (adjetiboak, adberbioak, eta abar) instrumentalarekin erabili ohi dira, adibidez:

- (238) (a) *Zerua izarrez beterik* dago
(b) *Horretaz segur* naiz
(c) *Mendiaz haratago* joan da
(d) *Erregez beste* guztiak honetara behartuak dira

1.5.4.3.3. Mugagabeen *-(e)z* atzizkiak modu, kausa eta beste zenbait kontzeptu adierazten dituzten adberbioak eta lokuzio adberbialak sortzen ditu,

hala nola *oinez*, *zaldiz*, *eskuz*, *euskaraz*, *beldurrez*, *larruz*, *ohituraz*, *adibidez*, *ixuraz*, *egunez*, *negarrez*, *askoz*, *lehen / bigarren / azken etab. aldiz*, *nere ustez*, *honen ondorioz*.

1.5.4.3.4. Aurreko puntuan aipatu diren formak eta hauen antzekoak gehienetan ezin dira sintaktikoki hedatu beste hitzak tartekatuz, edo hedadura bidez ateratzen diren sintagmak zalantzagarriak gertatzen dira sarritan behintzat. Adibidez:

(239) *Trenez itzuliko naiz*

esan arren, ez da esaten **Hamarretako trenaz itzuliko naiz*. Horren parean hauxe dugu zuzena:

(240) *Hamarretako trenean itzuliko naiz*

Euskaraz erabiltzen da beti; hala ere, *euskara batuaz* baino egokiago (eta batzuek honela diote, egia esan) dirudi *euskara batuan* esateak. Salbuespenak aurkitzen dira, hala ere; hauxe, esate baterako:

(241) Liburu hau *paper onez* egina da

1.5.4.3.5. Instrumentala esapide batzutan agertzen da. Adibidez:

- (242) (a) Herriz herri
 (b) Mendiz mendi
 (c) Buruz buru
 (d) Bataz beste
 (e) Ahoz behera
 (f) Hankaz gora
 (g) Buruz jakin
 (h) Buruz ikasi
 (i) Pozaren pozez
 (j) Denboraren denborez
 (k) Zertaz egin duzu hau? (= Zergatik egin duzu hau?)
 (l) Horuz

1.5.4.3.6. Partizipioa pasiboaren zentzuan erabiltzen delarik, bada joera bat euskal literaturan aditzaren agente edo egilea instrumentalean ipintzeko.

- (243) (a) Jainkoa deabruaz tentatua izan zen
(b) Etsaiez inguratua

Badirudi ergatiboa egokiagoa dela hauetan:

- (244) (a) Jainkoa deabruak tentatua izan zen
(b) Etsaiek inguratua

1.5.4.3.7. Partizipio formari instrumentalaren atzizkia erantsiz (forma mugagabeen zein singularrean), partizipio-adberbio aktiboak sortzen dira: *esanaz* nahiz *esanaz*, *bilduz* nahiz *bilduz*, etabar.

- (245) (a) Hau esanaz alde egin zuen
(b) Etxeko gauza guztiak bilduz, atzerrira joan zen

1.5.5. MOTIBATIBOA (-*gatik*)

1.5.5.1. Forma

Kasu-marka hau genitibo-edutezkoari erasten zaio, besterik gabe (ikus Genitiboa):

a) Mugagabea:

- (246) Koldorengatik egin nuen hura

b) Mugatua:

- (247) Semearengatik etorri da aita

c) Plurala:

- (248) Semeengatik etorri da aita

Ikus daitekeenez, forma aldetik *-gatik* dugu beti eta mugagabetasuna, mugatasuna eta pluraltasuna genitiboaren kasu-markak erakusten dizkigu. Hala ere, izenkia mugatua denean (singularrean) edo mugagabea, genitiboaren kasu-

marka gal dezake eta, orduan, zuzen zuzenean erasten zaio *-gatik* izen sintagmari:

(249) Semearengatik

nahiz,

(250) Semeagatik

(251) Koldorengatik

nahiz,

(252) Koldogatik

Nolanahi ere, pluralez ez da horrelakorik suertatzen:

(253) Semeengatik

(Axularrek *semeak* *gatik* ere erabiltzen zuen).

1.5.5.2. Funtzioa

Marka honek kausa delako zerbaít adierazten du:

(254) Nigatik egin dute

Horrelako zerbaít diogunean *nire kausaz* egin dutela adierazi nahi dugu. Arrazoi honengatik *kausatibo* ere deitu ohi zaio kasu honi.

1.5.5.3. Erabilera

1.5.5.3.1. Euskara batuan onartu den forma *-gatik* da eta ez *-gaitik*. Hori kontuan eduki beharko litzateke euskara idatzian.

1.5.5.3.2. Zenbaít hiztun forma honezaz baliatzen da *egiletasuna* adierazteko eta honela, *nigatik egina da*, *nigatik idatzia da* eta antzekoak entzuten dira *nik egin dut*, *nik idatzi dut* eta horien pareko bailira. Erabilera hori gaitzetsi behar da, ez baita zuzena batere.

- (255) (a) Etxea nik egina da
(b) Etxea nigatik egina da

Lehenbiziko kasuan *nik* egin dut etxea: neu naiz etxe horren egilea, alegia. Bigarren kasuan, aldiz, beste norbaitek egin du etxea, ez nik. Baina beste norbaitek egin badu ere etxea, *nire kausaz* egin du, nik eskatu diodalako edo beste edozein arrazoirengatik. Bi perpaus horiek honako hauekin parafrasea daitezke:

- (256) (a) Etxea nik egin dut
(b) Etxea norbaitek nigatik egin du

Perpaus honetan ikusten denez ergatiboa eta motibatiboa elkarrekin ager dakizkiguke, bakoitzak bere funtzioa betez:

- (257) Zugatik eginak ditut horrelakoak

Hori dela eta, sarri askotan ugaritzen diren erdal pasiboaren hizkuntz kalku horiek baztertu beharko genituzke zokora:

- (258) Nigatik esana da aspaldion

Perpaus honek ez du inoiz ere ondoko hauen esanahia:

- (259) (a) Nik esana dut aspaldion
(b) Nik esana da aspaldion

1.5.5.3.3. Perpaus kontzesiboak ere atzizki honetaz baliaturik eman ditzakegu:

- (260) Zuk esanagatik ez dut sinesten

Perpaus bera beste era honetara ere adieraz daiteke:

- (261) Zuk esan arren ez dut sinesten

Dena dela, kontura gaitzen bi esanahi desberdin dituztela ondoko perpausok:

a) Zuk esanagatik (= zuk esan arren).

b) Zuk esateagatik (= zuk esatearren).

1.5.5.3.4. Zenbait perpaus adbersatibotan ere aurkitzen da atzizki hau:

(262) (a) Nik ez dut, haatik, horrelakorik pentsatzen

(b) Ondarrak azaldu dituenak aski dira, haatik, ahaztuxe geneuzkan zenbait puntu guztioi oroiterazteko (Mitx.)

(*haatik* eta *horratik* horrela erabil daitezke).

1.5.6. DESTINATIBOA (-entzat)

1.5.6.1. Forma

Atzizki hau genitiboari erasten zaio zuzenean:

(263) (a) Alabarentzat

(b) Andonirentzat

(c) Adiskideentzat, e.a.

1.5.6.2. Funtzioa eta erabilera

(Ikus Adlatiboa, 1.4.4.7.).

1.6. Posposizioak

1.6.1. Posposizioen ezaugarriak

Posposizioa zer den definitzerakoan gramatikolari guztiak bat ez badatoz ere, esan daiteke posposizioak perpausaren sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten dituzten forma askeak direla. Erlazio gramatikalak adierazten dituzten aldetik, kasu marken pareko dira; baina azken hauek forma klitikoak ditugu, bakarrik ez baizik sintagmari loturik azaltzen zaizkigunak. Posposizioak, ordea, lehen esan bezala, forma askeak dira.

Gainera posposizioek badituzte beste zenbait ezaugarri ere: askotan (ez beti, halere) izen bezala funtziona dezakete mintzo katearen beste puntu batzuetan. Ondoko adibideetan ikus daiteke hau:

- (264) (a) Gaurko arazoei *buruz* hitzegiten aritu gara
(b) *Buru* handiegia duela iruditzen zait

Lehen perpausean *buruz* posposizioa dela esaten dugu, nahiz beste inguramendu batean —adibidez bigarren perpausean— izen bezala funtzionatu. Azken batetan horrelakoetan esan daiteke zenbait izenez perpausaren elementuen arteko harremanak adierazteko ere balio dezakeela. Hala denean, posposizio deitzen diegu eta honako ezaugarriok izaten dituzte:

a) Posposizio diren neurrian kasu markaren bat hartzen dute (*nor* kasuari dagokion \emptyset marka ere barne delarik). Kasu marka hau aldakaitza izan ohi da:

- (265) (a) Elizaren *bitartez*
(b) Astearen *buruan*

Ezin da esan **elizaren bitartean*, **elizaren bitarteari* edo **astearen buruaz*. Badira, halere, gero ikusiko dugun bezala kasu marka bat baino gehiago har dezaketen posposizioak.

b) Aurretik daraman izen sintagma, posposizioak (perpausean hark zer funtzio betetzen duen adierazten digunak) kasu marka konkretu bat hartzera behartzen du:

- (266) (a) Arazo *horri* *buruz* mintzatu zen
(b) *Amaren* bizkar aski farte egin dute

Hemen ere ezin da esan:

- (267) (a) **Arazo* honen *buruz*
(b) **Arazo* hau *buruz*
(c) **Amari* bizkar

c) Izen sintagmak eta posposizioak hitz-andana bakarra osatzen dute ia beti eta horrexegatik enklitiko gertatzen da maiz bigarrena, bien artean pausaldirik ezin egin daitekeelarik. Horretan bereiz daiteke posposizioa, besteak beste, izen denetik. Alegia,

- (268) Gaurko arazoei *buruz* / *mintzatu* gara

Hor hiru lehen hitzak etenaldirik gabe ahoskatu behar dira. Aldiz beste honetan izena da *buruz*:

(269) Gaurko arazoak / buruz dakizkit

1.6.2. Posposiziorik garrantzitsuenak

Hiru baldintza edo ezaugarri hauen arauera sailka daitezke posposizioak. Ondoren emango dugun zerrendan posposizio guziak azaltzen ez badira ere, garrantzitsuenak gutxienez azalduko direla espero dugu. Posposizio bakoitzari buruz bi informazio emango dugu: ezkerretara, izen sintagma hartzen duen kasu marka; eskuinetara, posposizioak hartzen duena. Adibidez:

ALDE (-en --- \emptyset): Inoren alde ez gaude
(-en --- an): Aitaren aldean ni ez naiz ezer

Biotarik lehenak esan nahi du *alde*-ren ezkerretara azaltzen den izen sintagma *-en* kasu marka hartzen duela, eta *alde* posposizioak berak, aldiz, \emptyset kasu marka. Bigarrenak, aldiz, erakusten digu *-en* eta *-an* hartzen duela bakoitzak.

Hona, bada, posposiziorik ezagunenak:

AITZI (-en --- \emptyset): nere aitzi (nere kontra)

ANTZ (\emptyset --- -n): Gaixo antzean dabil
(\emptyset --- -ra): Otso antzera jantzi zen

ARAU (-en --- -ra): Esan duzunaren arauera alferrik da dena
(-en --- -az): Legearen arauaz ez du eskubiderik

ARTE 1. (-en --- -an/-ra/-tik): Beste gauza askoren artean
Neska zahar eta gazteen artetik
Neskatxen artera etorri zen
2. (\emptyset --- \emptyset): Hirurak arte ez ziren iritsi

AT (-tik --- \emptyset): Hemendik at egizu nahi duzuna

AURKA (-en --- \emptyset): Inoren aurka dabil beti

BARIK: ikus GABE

BARREN (-an --- -(r)a): Munduan barrena (edo barna) ibilia da
(-en --- -n): Urte baten barrenean aberastuko gara

BARRU (ø --- -ø) (denbora adierazteko): Bost egun barru dator

BEHE (ø --- -ra): Aldapa beheara arin doa
(-n --- -ra): Eskilaretan beheara erori da
(-tik --- -ra): Burutik beheara jo du
(-z --- -ra): Buruz beheara ibiltzea zaila da

BEHEITI (ø --- ø): Malda beheiti
(-n --- ø): Maldan beheiti

BESTALDE (-z --- ø): Mendiaz bestalde oihan zoragarria dago

BIDE (-en --- -z): Lagunaren bidez lor dezakegu

BITARTE (-en --- -z): Inoren bitartez ez dugu lortuko
(-en --- -an): Etxera bitartean esango dizut

BIZKAR (-en --- ø): Besteren bizkar utzi dut lana
(-en --- -tik): Inoren bizkarretik bizi da

BURU (-en --- -an): Hogei egunen buruan itzuliko dizut
(bere buruz): Irakaslerik gabe bere buruz ikasi zuen
(-ra --- -z): Oihanera buruz abiatu ziren (Ekialdean)
(-i --- -z): Liburu honi buruz mintzatu gara
Mendiari buruz abiatu ziren
Asko dakizu gai horri buruz

ERETZERA (-en ---): Zure eretzera (zure aldera)

ESKER (-i --- ø): Nekazariei esker bizi gara

ESKU (-en --- ø): Maisuaren esku gelditzen da auzia

- GABE** (-rik/ø --- ø/-rik): Oinetakorik gabe atera da kalera
 Diru gabe ezin da bizi
 Diru gabarik nekez bizi da inor
 (ø --- -z): Onerizte gabez uzten etzirut (Etxepare)
- GAIN** (-en --- ø): Horren gain utzi dute eginbide hori
 (-en --- -an): Gauza horien gainean mintzatu zaigu
 (-z --- ø): Lehenaz gain multa berria ezarri diote
 (-z --- -ra): Etxeaz gainera andrea ere galdu du
- GAINDI** (-n --- ø): Etxean gaindi doa (ikus ZEHAR)
 Hemen gaindi dabil maiz
- GISA** (-en --- ø/-ra): Jainkoak bere gisa(ra) egin gaitu
 (ø --- ø): Aita gisa portatu da nirekin
- GOI** (-an --- -ra): Eskilaretan gora igo da
 Mendian gora ezin zuen Gastonek
 (-tik --- -ra): Menditik gora abiatu da
 (-z --- -ra): Muturrez gora erori zen
 (ø --- -ra): Aldapa gora joan da behia
- GOITI** (ø --- ø): Malda goiti
 (-n --- ø): Mendian goiti
- INGURU** (ø --- ø): Gauerdi inguru (denbora)
 Plaza inguru (lekua)
- IRIAN** (ø --- ø): Hamabiak irian (denbora markatzeko)
- KANPO** (-z --- ø): Zeure biziz kanpo ez duzu ezertan pentsatzen
 (-tik --- -an): Sasoinetik kanpoan laranjak ez dira onak
- KARA** (ø --- ø): Erein kara (mendean)
 Esku kara (mendean)
- KONTRA** (-en --- ø): Zer dugu Orixeren kontra?
 Harri baten kontra oldartu da
 (-i --- ø): Haurra amari kontra bildu zen

- LANDA (-tik --- ø): Hemendik landa ez duzu aurkituko
Elizatik landa ardo batzu hartu nituen
(-z --- ø): Hartaz landa ez zen inor
- LEKU (-en --- -n): Haien lekuan ni joan nintzen
- LEGE (ø --- -z): Ama legez ari da lanean
- LEPO (-en --- -tik): Inoren lepotik egiten du farre
- LEKO(ra) (-tik --- -ra): Eraman gaitzazu gaitzetik lekora
- MENDE (-en --- ø): Alkatearen mende dago herria
- ORDE (partizipioa --- ø, -z, -n): Mintzatu orde nigarrez ari zen
Etorri orde z joan egin da
Irabazi ordean galdu egin du
(-en --- ø, -z, -n): Egiaren orde gezurra dio noiznahi
Jaunaren orde z joango naiz
Jainkoaren ordean maita itzazu lurreko gauzak
- PARE (-en --- ø): Ero baten pare zen
Uraren pare gara
- PARTE (-en --- -z): Ailaren partez etorri naiz
- PE (-en --- -n): Jauna, zure hitzaren pean jaurtiko ditut sareak
- TRUK(E) (-en --- ø): Urrearen trukean dolarrak erosi zituen
(ø --- ø): Musu truk eman dit dirua
- ZEHAR (-n --- ø): Mendiatu zehar ibili ginen
(-(tik) --- ø): Hor(tik) zehar dabilta

1.6.3. Posposiziotzat hartzen ditugun beste elementuak

Badira beste zenbait elementu ere gure gramatikalariek posposiziotzat hartu dituztenak eta ondorengo ezaugarriak dituztenak:

a) Posposizioak berak hartzen duen kasu markari dagokionez, *-n*, *-ra*, *-tik* har ditzaketenak (hiruretarik edozein, esanahiaren arabera, noski).

b) Izen sintagmaren kasu markari dagokionez (zeinaren erlazio gramatikala adierazten baitu posposizioak), *-en* nahiz \emptyset azal daiteke, baldin izen sintagmaren izena ez biziduna bada. Izena biziduna denean (*gizaki* egokiago, *agian*), *-en* izango da dagokion kasu marka.

Sail honetakoak ditugu *aize*, *aurre*, *azpi*, *gain*, *oste*, *ondo*, *goi*, *aitzin*, *gibel*, *alde*, *barrubarne*, *pare*... (nolabaiteko espaziozko erlazioa erakusten duten izenak). Adibidez:

- (270) (a) Mahaiaren azpian dago / Mahai azpian dago
 (b) Atearen ostean izkutatu da / Ate ostean izkutatu da
 (c) Etxearen ondotik pasa naiz / Etxe ondotik pasa naiz
 (d) Zure aitzincan dago / *Zu aitzincan dago
 (e) Amaren ondotik alde egin du / *Ama ondotik alde egin du

Badira beste zenbait ere itxuraz posposizio direnak, baina beste analisi bat ere onartzen dutenak. Horrelakoak ditugu *so*, *beha* (egon), *bila* (joan, ibili), *eske* (ibili, etorri), *jabe* (izan), *zain* (egon), *zale* (izan)...

Aurretik daramaten izen sintagma kontutan harturik, honela aztertuko genituzke:

BEGIRA (-i --- \emptyset): Zuri begira nago

BILA (-en/ \emptyset --- \emptyset): Ardo(aren) bila joan da

ESKE (-en/ \emptyset --- \emptyset): Ogi(aren) eske bidali dut

JABE (-en --- \emptyset): Dirutza handiaren jabe da

ZAIN (-en --- \emptyset): Hiru orduz egon naiz zure zain

ZALE (-en/* \emptyset --- \emptyset): Neska ederren zale da
 Ardo zale amorratua da

Hala ere, orain arte ikusitako posposizioak ez bezala, hauek aditz jakin batzuei loturik azaltzen zaizkigu. Horrexegatik esaten genuen beste analisi bat ere onartzen zutela: hots, izen aditzez osatutako eta aditz balioa duten lokuzio gisa azter daitezkeela uste dugu.

Azkenik, aipamen labur bat *-gan*, *-gatik* eta *-(en)tzat* direla eta. Inoiz gure artean posposizio hitza erabili izan da elementu hauek aipatzerakoan. Baina ez Lafittek, ez Villasantek eta ez G. N'Diayek ez dituzte posposizioen artean sartzen. Egia da deklinabide atzizki bati erasten zaizkion morfemak direla, baina ez dute posposizioen sailean azertu ditugunek duten askatasuna; bakarrik aske erabili ahal izatea. Bestalde hau erraz ikus daiteke honako proba egin ondoren: bi posposizioak aurretik izen sintagma erreferentzikideak baldin badaramatzate, posposizioak koordina daitezke:

(271) Zure kontra ala alde azaldu da?

Ez da, ordea, halakorik gertatzen goiko *-gan*, *-gatik* eta *-(en)tzat*-ekin; hau, esate baterako, ez da gramatikala:

(272) *Amarengan ala gatik aurkitu duzu laguntza?

1.6.4. Izen sintagmak \emptyset kasu marka hartzen duenean

Izen sintagmak \emptyset kasu marka hartzen duenean, izen sintagma mugatua ala mugagabea den zehaztu behar dugu. Informazio hori honela eman dezakegu:

ANTZ ([*-mug*] + \emptyset --- *-n*): Gaixo antzean dabil

ARTE ([*+mug*] + \emptyset --- \emptyset)

BARRU ([*-mug*] + \emptyset --- \emptyset)

BEHE: Hemen esan beharko litzateke \emptyset ez dela erabiliena, *aldapa behera* eta horrelakoren bat izan ezik, *-n* erabiltzen dela.

GABE (*-rik* / [*-mug*] + \emptyset --- *-rik*/ \emptyset)

GISA (*-en* --- \emptyset /*-ra*)
([*-mug*] + \emptyset --- \emptyset)

TRUK(E) ([-mug] + \emptyset --- \emptyset)
 (-en --- \emptyset)

1.7. -TZAT atzikia

(Ohar gisa. Iruñeko Biltzarrean aurkeztu genuen txostenean -tzat atzikia ez genuen ezertarako sartu, beste gauza asko ere sartu ez genituen bezala. Hala ere, eskuetara iritsi zaizkigun zenbait oharrek aditzera ematen ziguten bezala, horri buruz zerbait esan beharra zegoela uste izan dugu eta, hain zuzen, arrapaladan bada ere, honako lerro hauek prestatu ditugu. Gure lan hau behin behinekoa bada, -tzat-i buruzko lerro hauek zer esanik ez. Hala ere, zerbait esatea lege zenez, hona hemen zenbait ideia. Gauzak ez daude oso argi. Agian irakurleren batek guk azken momentuan hau idatzi dugunean izan ez dugun argia izango du eta helaraziko digu, hurrengo argitalpenean gauza zuzenago eta osoago bat eskaintzeko).

1. Gaur egungo gramatkarik gehienek -tzat atzikia kasu markatzat hartu ohi dute. Hala ere, kasu marka izatekotan, oso berezia dela kontutan hartu behar dugu: beste kasu marka guztiak paradigma hirukoitzean agertu ohi dira, hots: mugagabea, mugatu singularrean eta mugatu pluralean. Baina -tzat izen edo izen sintagma soilari, mugatzailerik gabekoari alegia, erasten zaio. Eta behar bada harrigarriago dena, adjetibo soilari ere erasten zaio:

- (273) Adiskidetzat hartu ninduten Lasatarrek
 (274) Osasungaritzat daukat nik lana neurritz egitea
 (275) Geure irakasletzat hartuko zaitugu

Bestalde, -tzat atzizkiak ez du gainerako kasu marken jokabidea: gertatzen diren fonologi aldaketei dagokienez. Horrela,

- (276) Edozein gizonEK ez du hori egiten (... gizon + k = ... gizon + e + k)

baina,

- (277) Laguntzat hartu ninduen Joxek (lagun + tzat = laguntzat eta ez *lagunetzat)

Horregatik, hain zuzen, -tzat atzikia deklinabiderik aparte uztea dela uste dugu egokiena.

2. Hala ere, -tzat atzikia daraman osagaiak perpaus bamean funtzio berezia betetzen duela argi dago: predikatu osagarria izan ohi da atzizki horretaz

horitua ageri den sintagma. Osagarri horrek perpausaren objektuaz zer bait predikatzen duela berehala ikus daitekeen zer bait da. Hain zuzen, badira zenbait aditz iragankor (*hartu, jo, ukan, eduki eman, eskaini...*) beren objektuari dagokion predikatu osagarriari *-tzat* atzizkia ezartzen diotenak. Adibidez, (273) - (275) perpausetan *adiskidetzat, osasungarritzat* eta *geure irakasletzat* sintagma egiazko predikatu osagarriak ditugu, bakoitza perpausaren objektuari (hots: *ni, lana neurritz egitea* eta *zu* objektuari) dagokiolarik.

Hortaz, *-tzat* da predikatu osagarriak hartzen duen atzizki berezia zenbait aditzek hala eskaturik. Eta zein dira era honetako predikatu osagarria eskatzen edo ametitzen duten aditzak? Gorago aipatuak ditugunak, hain zuzen: *hartu, jo, ukan, eduki, eman, eskaini*, eta agian beste bakarren bat.

Adibidez:

- (278) Oparitzat erloju bat eman nion
- (279) Emaztetzat herriko neskatzarik politena eskaini zioten
- (280) Euskalduntzat jo nuen gizon hura hasieran

Badira, ordea, beste aditz asko inolako atzizkirik gabeko predikatu osagarria eskatzen dutenak. Adibidez, *bihurtu, bilakatu, izendatu*:

- (281) Udalak Pello alkate izendatu zuen (ez *alkatetzat)
- (282) Jesusok ura ardo bihurtu zuen (ez, *ardotzat)

Hala ere, *-tzat*-dun osagarria ametitzen dutela esan dugun aditz horietako zenbaitek —*eduki*-k edo *hartu*-k, adibidez— atzizkirik gabeko osagarria ere onartzen dute, honako adibide hauek erakusten duten bezala:

- (283) (a) Andoni daukagu aurtien irakasle
- (b) Andoni irakasle zintzotzat daukagu

- (284) (a) Neskame hartu dute Inixi
- (b) Neskameztat hartu dute Inixi

Hemen badirudi gauzak nahasi samarrean dabiltzala zeren aditz batzuk era bateko edo besteko osagarria eskatzen badute ere, beste batzuk biak ametitzen dituzte. Eta ez bakarrik hori: aditz berarekin —*hartu*-rekin adibidez— bikoiztasuna ez da beti zilegi gertatzen. Ikusi egin behar nolakoa den izena. Adibidez:

- (285) (a) *Seme hartu dute Iñaki

ez dirudi oso zuzena denik, baina beste honako hau bai:

(b) *Semetzat* hartu dute Ifaki

(284) eta (285) alderatzen baditugu berehala ohartuko gara arazoaz. Badirudi arazo semantiko baten aurrean gaudela. Izan ere, *semetzat hartu* esaten dudanean nolabait *seme egin* edo esango bagenu bezala litzateke. Zertarako hartu duten esango bagenu bezala, nolabait, *seme* izateko alegia.

Dena dela, horrelakoetan *-tzat* atzikiaren erabilera izango litzateke zaharrena eta hedatuena aipatu ditugun aditz hauekin.

Gainera, *-tzat* dun osagarri honek bi balio izkututzen ditu bere baitan. Adibidez:

(286) *Erregetzat* hartu ninduten gizon haiek

perpausak honako bi balio hauek dituela dirudi:

(a) Errege izateko hartu ninduten, (errege egin ninduten alegia)

(b) Errege nintzela pentsatu zuten gizon haiek

Bikoiztasun hau gertatzen dela dirudi gorago eman ditugun honako perpausetan ere: (273); (275) behar bada ez, aditza etorkizuneko forman doalako; (284 b). Beste askotan berriz, ustezko adiera hori besterik ez da nabari, adibidez (280), (283 b) perpausetan.

Hortaz, *-tzat* horrek bi balio hauek ditu nagusiki: a) Nolabaiteko xedea edo adierazten du (horregatik erabiltzen dute zenbait euskaldunek subjuntiboarekin ere: egin dadintzat, e.a.... Hau da, adibidez, (278) eta (279) perpausok adierazten dutena. b) Ustezko kutsua du. Hau batez ere adjetiboren bat tartean dugunean gertatzen zaigu. Horrela esplikatzen da (283a) eta (283b)-ren arteko diferentzia. Eta aditza zein den ere kontutan izan behar dugu, zeren ustezko kutsu hau batez ere *hartu*, *eduki* eta *jo*-rekin gertatzen baita, baina ez *eman* edo *eskaini*-rekin, adibidez. Hauekin batez ere lehenbiziko zentzua nagusitzen dela dirudi. Hala ere, *eman*-ek bere benetako zentzua ez duelarik adjetiboa prolatiboan ager daiteke: *Zorotzat eman zuen* (= zoroa zela kontsideratu zuen).

3. *Bezala* eta *-izat*

Forma jatorra *-izat* erabiltzen duena izanik ere, gero eta zabaltzenago ari da *bezala*, *legez*, *gisa* eta antzeko elementuez osatutako esapideren bat erabiltzeko joera *-izat*-en orde. Horrela ez da harritzeko honako esaldiak entzutea:

- (287) (a) *Sorgin bezala hartu zuten
(b) *Opari bezala bi liburu eman nizkion

Hauen orde askoz zuzenago dirudite beste hauek:

- (288) (a) Sorgin*izat* hartu zuten
(b) Opari*izat* bi liburu eman nizkion

Hala ere, gauzak ez daude beti nahi bezain argi. Berez, *bezala*, *legez*, *gisa* eta antzekoak erabiltzen ditugunean, modua edo zergatia adierazten dugu:

- (289) Jonek Pello seme(a) *bezala* / *gisa* hartu du

perpauzak esan nahi duena ez da Jonek Pello semetzat hartu duela, bere seme egiteko nolabait, baizik eta Jonek Pello hartu duela —etxean adibidez— semea hartuko lukeen modu berean.

Dena den, era honetako egiturak gero eta ugariagoak ditugu eta askotan ez da erraz, halako esapide egin batzuetatik aparte *-izat* erabili behar den jakitea ala *gisa* edo *bezala*. Baina badirudi aipatu aditzekin behintzat askoz jatorrago gertatzen direla prolatibozko itzuliak.

2. ADBERBIOA

2.1. Sarrera

2.1.1. Adberbioaren sailkapena: adizlagunak eta aditzondoak

Gorago, perpausaren egitura azertu dugunean, aditz sintagma osatzen duten elementuen artean, aditzarekin komunizadurarik ez duen adizlaguna ere aipatu dugu (ikus txosten honen hasierako kapitulua). Han ez dugu bestelako berezketarik egin. Dena dela, adizlagunek adberbioen arteko mota bat bakarrik osatzen dute. Besteak aditzondoak ditugu. Horrela, adberbioen artean bi sail nagusi hauek bereziko ditugu:

1) *Adizlagunak*. Adizlagunak, bere aldetik bi modura suerta daitezke:

a) Izen sintagma deklinatuaren bidez: *zurekin, etxera, herritik*, etab.

b) Posposizioaren bidez: *Txostenari buruz, mendian barna, kaleetan zehar, argirik gabe*, etab.

2) *Aditzondoak*. Adberbioek, berez eta soil soilik inolako kasu-markarik hartu gabe ere, adizlagunaren zeregina bete dezakete: *atzo, hor, berandu*, etab.

Ohar gaitezen parekotasun handia dagoela adberbio eta adjetiboaren arteko sisteman:

Adjeiboa Adberbioa

1. Izenlagunak adizlagunak: Hizkiak behar dituzte *etxeko, mailuaz*

2. Izenondoak aditzondoak: Ez dute hizkirik behar *garbi, gaur*

Bi adberbio klase hauen aldea, hortaz, honetantxe datza: izen sintagma, kasu bakan batzutan salbu, adizlagun bilakatzeko atzizki edo posposizio jakin batzuen beharra duen bitartean, aditzondoari ez zaio inolako morfemarik erantsi behar horretarako; berez eta elementu autonomo bezala bete dezake adberbioaren zeregina.

Badira testuinguru jakinetan adizlagun gisa erabiltzen diren izen sintagma absolutuak ere, aldiaren luzea, neurria, pisua edo antzekorik adierazten duten batzuk hain zuzen: *bi ordu iraun, hiru egun egon, lau metro luzatu*.

- (290) (a) Ordu pare bat egona da (Izeta, 97)
(b) Bost metro Mayi-renganik urrundurik (Izeta, 49)

Horien edo horrelakoen ondoan, beste hauek ere baditugu, noski: *Hiru egunetan/egunetan egon, lau metroz luzatu*, etabar.

- (291) (a) Egun bitan iraun eban ekatu orrek (Etxeita, 249)
(b) Mutil bauekin ibilli uan denbora askoan (Garmendia, 84)
(c) Hekietarik baztertu zen harri besagun batean (Duvoisin, 1138)

Zaude piska batean, zein zaude piska bat entzun daiteke, beraz. Jakina denez, testuinguruari esker berezten dira sintagma absolutu horiek ohizko izen sintagma Nor-etatik (ikus III. atala, 1.3.). Dena den, salbuespen horietan ezik, morfema baten beharra du izen sintagma, aditzondoak ez bezala, adizlagun izango bada.

Egia da, bestetik, zenbait aditzondok ere —leku-denborei dagozkienak, hain zuzen— atzizki edo posposizioaren bat har dezaketela: *hor --- horra, hortik...; bihar --- bihardanik, bihar arte...* Horrela erantsiriko atzizki-posposiziook, noski, sintagma esaldiaren barnean betetzen duen adizlagun funtzioa markatzeko dauden erlazio hizkiak dira, izen sintagmatik erakarritako adizlagunetan bezala. Izen sintagmaren kasuan ez bezala, ordea, aditzondoarenean erlazio hizkiok berez adizlagun izan daitekeen hitzari edo sintagmari erasten zaizkio:

- (292) (a) *Han* dabilza haurrek
adl:adb
(b) *Handik* etorri dira
adl:adb

Eta gainera aditzondoari erantsi dakizkiokeen erlazio hizkiak izen sintagmak har ditzakeenak baino gutxiago dira: *-ekin*, *-entzat*, etab., esate baterako, ez ditu adberbioak hartzen.

Erlazio hizkiz nahiz gabe aditzari laguntzen berezko zeregina duen hitz klasea da beraz, labur esateko, adberbioa. Hori dela eta, adizlagun orori dagokionez, adberbioa ere esaldiari albotik bezala erasten zaion elementua dela esan ohi da: hots, *marjinala* nolabait esan, kendu nahiz jarri haren funtsa erabat aldatzen ez duena:

- (293) Otsa ikusi genuen (iaz)

Behar adina erantsi daitezkeelarik gainera:

- (294) Otsa ikusi genuen (iaz) (hemen) (ustekabeen)...

Gehienetan horrela bada, halere, batzutan adberbioak aditzaren eskemari berez dagokion osagarria dirudi eta ez albotik erantsiriko gehigarri hutsa. Mugimenduzko zenbait aditzi, esate baterako, lekuzko osagarria berez dagokiola dirudi: *iritsi* + *nora*. Eta gauza bera, edo bertsua, esan daiteke modu adberbioei dagokienez ere, estuagoa baita hauek aditzarekin duten lotura: *iritsi* eta *ongi iritsi* sintagmen arteko aldeak ez dirudi horren marjinala.

Adizlagunak eta aditzondoak perpaus lokabeetan agertzen dira, gehien batean. Hala eta guztiz ere, perpaus konposatuetan mendeko esaldi batez ere, jokatu ez jokatuz, gerta daiteke: *gero joango gara*, *arratsaldean joango gara*, *amaitutakoan joango gara*, *amaitzen dugunean joango gara*, etab.

Adizlagunei dagokienez, ezer guti gaineratuko dugu kapitulu honetan, hemen aipa litezkeen kontu asko deklinabidez aritu garenean esnna baitaude (ikus atal honetako 1.4., 1.5.3.etik aurrera eta 1.6.). Oraingo honetan aditzondoetara mugatuko gara gehien batean.

2.1.2. Izenondoaren modifikatzaileak izan daitezke

Aditzaren laguna eta osagarria ezezik, zenbait aditzondo izenondoaren edo beste adberbio baten modifikatzaile ere izan daitekeela esan ohi da, hau da, berezko zeregina aurreko atalean azaldu duguna baino zertxobait zabalagoa dela zenbaitetan. Eta arrazoiz esan ere:

- (295) (a) *Ondo* ibili ginen atzo
adl:adb
(b) *Ondo* ederki ibili ginen
adl
(c) Gau luzia zala esan eban Matxiñek. Bai *ondo* luzea! (Agirre, 97)
adb

Gogoan hartu behar da, noski, zeregin hau adberbio gutxik bete dezakeela (*oso, txit, arrunt, arras, hagitx, biziki, guztix, erabat, berdín, samar, ongi...*). Maila adberbioak dira hauek, adjetibo-adberbioen maila adierazteko erabiltzen direnak hain zuzen (hauen erabileraz eta harridurazko/ez-harridurazko oposaketaz ikus izenondoaren mailakatzear aritu garenean esandakoa: Hirugarren atala, 4.2.4. geroago ere itzuliko gara hona).

2.1.3. Adberbioaren aldaezintasuna

Adberbioaren definizioa borobiltzeko, aurreko ataletan funtzioari buruz esan dugunaz beste, formari dagokion beste berezitasun bat ere aipatzen da askotan, alderdi formalak bestelako arrazoiak baditu ere: posposizioa, juntagailua eta interjekzioa bezala, adberbioa ere aldagaitza dela alegia. Hiru hitz mota horien aldagaiztasuna eta adberbioarena, ordea, ez dira erabat berdinak. Juntagailuena, esate baterako, adberbioarena baino askoz estuagoa da, hark ez baitu inoiz inolako morfemarik hartzen, zenbait aditzondok, gorago esan dugun bezala, atzizkiren bat edo beste har dezakeen bitartean. Gramatikari batzuk, hori dela eta, ez dute inondik onartzen adberbioa aldagaitza denik.

Azkuek, adibidez, *nada de invariabilidad tienen los de nuestra lengua en su mayoría* dio. Ez hori bakarrik: *Muchísimos de ellos son tan declinables como cualquier nombre* dio; baina hamar bat lerro beherago zertxobait gehiago zehazten du: *La declinación de los adverbios es muy reducida* (Azkue, 454).

Aldagaiztasunaren kontzeptua bera da, noski, zehatzago definitu behar dena. Aldakortasuna, hain zuzen, hitzek edo hitz multzoek esaldian betetzen dituzten zereginen arabera hartzen dituzten muga-hizkiei, erlazio-hizkiei eta, are

zabalduz, gradu-markei eta antzekoei badagokie, honako hau esan daiteke adberbioari dagokienean.

a) Izenkia ez denez, adberbioak ez ditu —esan beharrik ere ez legoke— hari dagozkion determinanteak onartzen. Ez, bistakoa denez, mugatzaierik ez bestelako determinanterik ere: **atzoa(k)*, **ederkia(k)*, **atzo hau*, **ederki bat*, **edozein ongi*, **andreekinak*, **zurretzata*, etabar. Hauek, hain zuzen ere, izenkiei dagozkienak baitira.

Besterik da, jakina, aditzondoa nominalizatzen denean, hau da, adizlagunaren zeregina utzi ta izenarena betetzera pasatzen denean:

- (296) (a) Aurtengo Korrikak jende asko bildu du
(b) Geroak esan beza (Orixe, 3)

Hemen beste forma ez-nominaletan bezala, bi bide nagusi ditugu nominalizazioa lortzeko:

1) Zero deribazioa: deribazio atzizki explizitorik gabe adberbioa izenkien kategoriara igarotzen da eta, horrenbestez, izenkiei dagozkien testuinguruetan agertzen. Testuinguru horrek salatzen digu, hain zuzen, nominalizazioa gertatu dela:

- (297) (a) Or-emen guziak (Lardizabal, 145)
(b) Jerusalemik zerbait urrutian (Lardizabal, 175)
(c) Zeure gero hartara laster egiten duzu (Ax., 439)
(d) Harat-hunelak beti bezala eginik (Izeta, 42)
(e) Gaur-biharretan

2) *-KO* deribazioa: atzizki honen bidez aditzondoa izenlagunaren lekura igarotzen da (*gaurko lanak*, *geroko denbora*, *honetako lagunak*...) eta ondoko izenaren elipsiaz izen sintagmaren ardatz bilakatzen (ikus *Nongo* kasua):

- (298) Halakoek ez dute zerurik merzei

Aditzondo batzuk badirudi ez dutela hain erraz zero deribazioa onartzen: *horrela hori* eta antzekoek ez dirudite gramatikalak, metahizkuntzan edo ez bada behintzat. *-KO* deribazioaren bidea, berriz, zabalago eta usuago erabiltzen da. Halere batzuk hura, eta ez hau, onartzen dute: *ongia*, baina **ongiko*. Eta gainera, bestalde, berdin-berdinak ote *geroa* eta *gerokoa* edota *zer-nolak* eta *zer-nolakoak*?

b) Aditzondoak, bigarrenik, nominalizatu ezean bederen, ez du edozein kasu-marka onartzen, ez noski ergatiboaren *-k*, datiboaren *-i* edo genitiboaren *-en* atzizkiak, hauek ere izenkiei baitagozkie: **atzok*, **horrelari*, **ederkiren...*; ez eta, adizlagun-hizkiak izanik ere, *-ekin* eta *-entzat* ere: **berandurekin*, **gaizkirentzat*.

Atzizki sail mugatua da (*-tik*, *-ra*, *-ko*, *-rako*, *-raino*, *-rantz*, *-danik*) adberbio sail mugatuari, leku-denborazkoen sailari, hots, aditzondoari, erants dakiokeena: *handik*, *hara*, *biharko...* Eta ez edozein moduz gainera. *iaz* aditzondoak esate baterako, denborazkoa izanik ere, ez ditu *-ra* edo *-raino* onartzen.

Inesiboaren *-n* eta instrumentalaren *-z* atzizkiak zenbait aditzondotan fosildurik edo antzeman daitezke: *hemen*, *aurten*, *inoiz...* Hortik aparte, zenbait euskalkitan moduzko adberbio batzuk ere onartzen dituzte atzizkiok: *halaz*, *holan*, *holanik...* Forma hauek, dena den, pleonastikoak dira eta aipatu atzizkiek ez dute semantikoki ezer berririk ekartzen eta badirudi funtziogabeak direla.

c) Adberbio batzuk, hirugarrenik, adteribo gehienek bezala, mailakatzea onartzen dutenez, gradu markak (eta are maila adberbioak) ere onartzen dituzte: *beranduegi*, *beranduago*, *beranduen(a)*; *ederkiago*, *ederkiegi*, *ederkien(a)*. Zenbaitetik, ordea, marka batzuk onartzen dituzte eta beste batzuk ez: *honantzago*, (?)*honantzaegi*, **honantzaen*. Eta beste batzuk, berriz, ez dute inolako gradu markarik onartzen: **atzoegi*, **atzoago*, **atzoen*; **honelaegi*, **honelago*, **honelaen...* (ikusi beheago ematen diren zehaztasunak).

d) Argi da, azkenik, adberbio batzuk atzizki intentsiboak har ditzaketela: *halaxe*, *hortxe*, *oraintsu*, *berandusko...* Honek, ordea, gorago definitu dugun aldakortasunari baino areago hitzen deribazioari dagokion arazoa dirudi.

2.1.4. Laburpena

Hau da beraz, labur bilduz, adberbioaz esan dezakeguna: bi klasetakoak ditugula: adizlagunak eta aditzondoak.

- Aditzaren laguntzeko zeregina berez bete dezakeen hitza dela, nahiz eta zenbaitetan adizlagunen kasuan zeregin horretarako deklinabide batzuk ere onartu; eta, beraz, inoiz esaldian elementu marjinala dela;

- Batzutan, maila aditzondoan kasuan alegia, izenondoa eta beste aditzondo baten modifikatzaile ere izan daitekeela;

- Eta zenbait kasu eta gradu markari mugaturiko aldakortasuna duela.

2.2. Aditzondoak

2.2.1. Aditzondoan sailkapen formala

Aurreko atalean aditzondoak har ditzakeen atzizkiei buruz aritu bagara, oraingo honetan adberbioa bera nola formatzen den azalduko dugu, denak ez baitira era berean sortzen: batzuk osagai bakar eta trinkoz formatzen diren bitartean, beste batzuk eratorriak edo konposatuak ditugu. Badira, baitare, hitz multzoek osaturiko esaera adberbialak.

2.2.1.1. Aditzondo bakunak

Aditzondo bakunak trinkoak dira, hau da, osagai bakarrekoak, inongo deribazio edo konposaketarik gabeak: *atzo*, *beti*, *usu*, *aspaldi*, *gero*, *etab*.

2.2.1.2. Aditzondo eratorriak

Beste zenbait aditzondo, berriz, eratorriak dira, hau da, lexema bati —izenki absolutu nahiz jokatuari, izenondoari, aditzari edo beste adberbio bati— aditzondo-atzizkiren bat erantsirik sortu direnak.

Adibidez:

-KI

gizonki, *ohorezki*, *ederki*, *ibilki*
 iz iz jok adj ad

-KA

harrika, *aldizka*, *gordeka*, *haraka*
 iz iz jok adj adb

-RO

astiro, berriro, betiro
iz adj adb

-TO

ederto, txarto
adj adj

-IK

isilik, onik, bakarrik, zutik, pozik
adj iz adj adj iz

-KARI

igandekari
iz

-LA

horrela, bestela
izo dt

-KI da inolako zalantzarik gabe aditzondo-atzizkiotan emankorrena eta etengabe ari zaie aditzondo berriei bide ematen. Inoiz, gainera, horrela sorturiko aditzondoek bestela egindako adizlagunei lekua hartzen die: *itsuan*, *izkutuan*, *normalean*, eta antzeko adizlagun ezagunen ordez *itsuki*, *izkutuki* eta *normalki* erabiltzeko joera nabari da. Aditzondo gisa erabilitako izenondo batzuekin ere gauza bera gertatzen da. Egokiak dira *zorrotz jokatu*, *zehatz azaldu* edo *arin ibili*, baina, adizlagun direla areago markatzeko edo, horien lekuan *zorrozki*, *zehazki*, eta *arinki* ere erabiltzen dira.

2.2.1.3. Aditzondo konposatuak

Galdekariei zenbait lexema erantsiz -- *edo-*, *-bait*, *-nahi*, *i-*, *(e-)*— aditzondo konposatuak sortzen dira, *edonor*, *norbait*, *nornahi* eta *inor* izenordainen pareko:

<i>edonon</i>	<i>nonbait</i>	<i>nonahi</i>	<i>inon</i>
<i>edonoiz</i>	<i>noizpait</i>	<i>noiznahi</i>	<i>inoiz</i>
<i>edonola</i>	<i>nolabait</i>	<i>nolanahi</i>	<i>inola</i>

Bada, horietaz landa, bestelako aditzondo konposaturik ere: *herenegun*, *berehala*, *behiala*, *lehenbizi*...

2.2.1.4. Aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak

2.2.1.4.1. Zenbaitetan izenkiren bat, izena zein izenondoa, kasu zirkunstantzial batean jokatua, adberbio gisa lexikalizatu egin dela esan daiteke, adberbializatu egin dela alegia, kasu sistematik nolabait atera eta hitz berri bilakatu dela, adberbio egin dela hain zuzen. Ileri dela eta, hiru maila berez ditzakegu:

a) Adberbializazioa erabat burutu duten hitzak ditugu lehen mailan. Horrelakoak dira, hasteko, historikoki kasu marka baten bidez sortuak, baina gaur egun hiztunek halakotzat ez dituztenak: *aurten*, *noiz*, etab. *Hemen*, esate baterako, etorkiz *hau + n* dela esan daiteke, baina hori guztiz gorabehera diakronikoa da. *Hor* aditzondoaren kasuan, berriz, ez da horrelako aztarna formalik ageri.

Erabat adberbializatuak kontsidera daitezke, orobat, *hondarkia* (ikus Deklinabidea atal honetan 1.1.2.4.) garbi ageri arren, erabiliaren erabiliaz harturiko esanahi bereziagatik edo, hiztunek hitz berriztat dituztenak: *orduan*, *berriz*, *gainera*... Zaila da, jakina, eta ez noraezean erabaki beharrekoa beharbada —batera zein bestera adizlagunaren aurrean baikara— atzizki edo marka zirkunstantziala daraman izenkia adberbializatu denetz zehatz erabakitzea. Zergatik, esate baterako, *berriz* aditzondotzat haru eta (*luzaz* aldiz ez? Zalantza horiek hiztegietan ere ageri dira inoiz) batzuk horrelako adizlagun bati, aditzondotzat kontsideratuz, sarrera berezia eskaintzen dioten bitartean, besteek izenkiari dagokion sarreran uzten baitute. *Gogotik*, adibidez, *gogo* lemaren pean ematen dute batzuk, besteek sarrera berria eskaintzen dioten bitartean.

b) Azken hauek, *luzaz*, *gogotik*, eta antzekoak adberbializatze bidean bederen badaudela esan daiteke eta estereotipaturik edo erabiltzen direla. Horrelakoak genituzke, beharbada, goiko sailekoak bezain lexikalizaturik ez

dauden *ondoan, ostean, gustora, gora, aurrera, oinez, agerian, berritan, birritan, onez, onean, txarrez, txarrean, zuzenean, adibidez, alderantziz, artez, benaz, benetan, egiaz...* Berehala ohar daitekeenez, inesiboa eta instrumentala dira honetara gehien egokitzen direnak.

c) Hirugarren mailan genituzke, azkenik, kasu marka eta guzti izenki garbi jarraitzen dutenak, hau da, adizlagun bai baina aditzondo ez direnak: *mendiz, lagunarekin, leku ederrera...* (guzti honetaz ikus deklinabideari eskainitako atala).

2.2.1.4.2. Badira, ordea, bestelako adverbializatze bide batzuk ere. Zenbaitetan izenondoa inolako atzizkirik gabe, ez mugatzaile ez kasu marka, aditzondo gisa erabiltzen da bestelako adverbioen zereginetan. Testuinguru soilak agintzen du aldaketa hori, beste inolako markarik gabe:

- (299) (a) *Argi* mintzatu zaigu
adl:adb
(b) *Gogor* ari da (Izeta, 75)
adl:adb
(c) *Zorrotz* jokatu bearra zeukaten
adl:adb (Garmendia, 32)

Esaldi horietan *argi, gogor* eta *zorrotz*-ek *nola* galdekariari erantzuten diote eta *ondo, ederki* edo beste moduzko adverbioek bete dezaketen lekua betetzen dute. Hona, nahi izanez gero, horrelako erabilera ager dezaketen izenondoen zerrenda laburra:

<i>alfer:</i>	<i>alfer bizi</i>
<i>apal:</i>	<i>apal etorri</i>
<i>argi:</i>	<i>argi esan</i>
<i>arin:</i>	<i>arin ibili</i>
<i>bikain:</i>	<i>bikain jokatu</i>
<i>eroso:</i>	<i>eroso ibili</i>
<i>erraz:</i>	<i>erraz egin</i>
<i>garbi:</i>	<i>garbi mintzatu</i>
<i>jator:</i>	<i>jator jokatu</i>
<i>makur:</i>	<i>makur atera</i>
<i>zintzo:</i>	<i>zintzo ibili</i>
<i>zuzen:</i>	<i>zuzen jokatu</i>
e.a.	

Orobat esan daiteke, beharbada, zenbatzaileei dagokienez:

- (300) (a) Josetxo *aunitz* maite dute (Izeta, 39)
adb
(b) Etzaitela *sobera* nabarmendu (Izeta, 67)
adb
(c) Ez naiz *batere* arritzen (Izeta, 89)
adb

Horrelakoetan ez izenondoa ez zenbatzailea ez daude izenari lotuak, ez izen sintagmaren barnean ez predikatu osagarri bezala ere. Izenarekin ez, aditzarekin dute lotura; baina, jakina, adizlagunaren zeregina betetzen dutenez, komunztadurarik gabeko lotura. Gauzak horrela direla, testuinguru soilak agintzen du, izenondo-zenbatzaileok ez baitute erabilera adberbialera eramango dituen inolako morfemarik hartzen.

2.2.1.4.3. Zenbaitetan, azkenik, aditzondo gisa erabiltzen den izenkia forma absolutuan, *mugatzaile* eta guzti, agertzen zaigu:

- (301) (a) Zabal-zabala erori ziren
(b) Aintzina hobeto bizi ginen
(c) Doi doya arquitzen du gure artean (...) oroitzen danc! (J.B.A., 345-346)
(d) Lenbizia... (J.B.A.)

Diogun iraitzean aditzondoak berak gehientasun mailan dagoelarik sarri hartzen duela *mugatzaile* hori:

- (302) (a) Urrena, uquitaco det (...) (J.B.A., 3)
(b) Alic onguena aguertzea (J.B.A., 325)
(c) Aurrena, beintzat, artoak egin ditzagun (Garmendia, 64)
(d) Azkena joaten diran bostak (...) (Garmendia, 49)

Horien ondoan *-ik* atzizkia daramatenak ere erabiltzen dira: *lehenik*, *aurrenik*, *ahalik ongienik*...

- (303) Ardurenik lanean ari zen... (Buruzkak, 27)

Eta bai, noski, forma soilak ere, balio beretsuz, ondoko bigarren adibidean ikus daitekeenez:

- (304) (a) Karta bat idazteko al dan azkarrena (Garmendia, 149)
(b) Al dan azkarren cuxera karta eskribitzea (...) (Garmendia, 148)

2.2.1.5. Esaera adberbialak

Aipatu behar dira, azkenik, nahitaez hitz konposatua, hau da, hitz berri eta bakarra, osatzen ez duten eta adberbio gisa erabiltzen diren hitz multzoak (ikus atal honetan beheago). Batzuk esaera tinkoak eta itxiak dira:

- (305) (a) Gutxi gorabehera
(b) Noizik behin
(c) Behinik-behin
(d) Batez ere
(e) Lehen-bait-lehen
(f) Lehenengo eta behin
e.a.

(Hauetako esaera askok ez dute oraindik idazkera normalizatu eta bateraturik: *lehen-bai-lehen*, *lehen bait lehen*, *lehenbailehen*; *behinik behin*, *behinik-behin*, *behinipein*; *bat batean*, *bat-batean*, *bapatean*; *batik bat*, *batik-bat*, *batipat*...).

Beste batzuk, berriz, irekiak dira, hots, esaeraren osagai bat aldagarria dutenak:

Zenbatzailea + *bider*: *zenbat bider?*
 bi bider
 hamaika bider
 hainbat bider
 e.a.

Genitiboa + *kasa*: *nera kasa*
 zure kasa
 e.a.

2.2.2. Aditzondoan sailkapen semantikoa

2.2.2.1. Sarrera

Formari dagokionez aparte, aditzondoan beste sailkapen nagusi bat ere egin izan da beraien edukin semantikoa kontutan harturik. Aditzondo guztiek

osaten dute nolabait aditzak (edo izenondo-aditzondoek) esaten duena, baina ez denek edukin mota bera erantsiz: batzuk noiz-nongoak ematen dituzten bitartean, beste batzuk modua edo maila adierazten dute eta beste batzuk, azkenik, hiztunen esaldiarekiko jarrera azaltzen dute. Denek ez dute, bestalde, aditzarekiko lotura bera edo jokabide sintaktiko bera.

Hiru sail handi egin ditzakegu, beraz, besteak beste:

a) *Zirkunstantziaren* bat adierazten dutenak. Aditzondo hauek, nolabait esan, esaldiari noiz-non gertatzen den markoa ezartzen diote:

- (306) (a) Giltzak galdu zaizkit ... hemen
(b) Kotxea erosi nuen ... atzo

Dena den, eta gorago ere esan dugun bezala, aditzondoa ez da horren marjinala. Bestalde, mintzagai-galdegaien arauak gordez, bestelako elementuak bezalaxe mugi daitezke aditzondo hauek ere esaldiaren barnean inolako eten edo pausarik gabe.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, leku eta denbora aditzondo hauei maiz erasten zaie ondotik aposizio bat, bere esanahia indartu edo zehatzagotu egiten duena: *hor goian, bertan, bertan, bertan, lehen garai batean...*

b) Aditzari *nozioren* bat erasten diotenak, hau da, modua edo maila (zenbatekoa) adierazten dutenak. Hauek aditzarekiko lotura estuagoa agertzen dute, aditzari berari, nolabait esan, laguntzen baitiote:

- (307) (a) Mikel *benetan* mintzatu zen
(b) Ama *oso* haserretu zen
(c) Denak *ongi* iritsi ziren

Zenbaitetan, ordea, moduzko aditzondoa esalditik kanpora bezala gertatzen da eta hiztunak esaldiari buruz duen jarrera agertzen du:

- (308) Zoritxarrez, langabezia handituz doa

Azken kasu hauetan aditzondoa, edo adizlaguna, eten edo pausa batez berezten da esalditik.

Sail honetakoak dira, azkenik, aditzaren, izenondoaren edo aditzondoaren maila adierazten duten maila aditzondoak: *oso haserretu, ondo polita, berandu asko...*

c) Moduzkoetan ikusi dugun bezala, aditzondo batzuk hitzunak esaldiari buruz duen *jarrera* adierazteko erabiltzen dira: *agian, berhabada, ixuraz, nonbait...*

- (309) (a) Beharbada, bihar azalduko gara
(b) Bost negar egiteko nunbait jaio gifan
(Mufagorriren bertsoak)

Hona, beraz:

	denborazkoak (denbora aditzondoak)
- zirkunstantzia:	lekuzkoak (leku aditzondoak)
	moduzkoak (modu aditzondoak)
- nozioa:	maila aditzondoak (eta zenbatekoak)
- jarrera:	eritzizkoak

Bestelako sailkapena ere egin daiteke, erizpide desberdinak kontutan hartuz gero: galdekariak genituzke batetik (*non, noiz, nola, zenbat...*), erakusleak bestetik (*hemen, honela, hain...*) eta indefinituak bestetik (*edonon, nolabait, noiz-nahi...*). Ez dirudi, ordea, oso egoki erizpideak nahasian erabiltzea. Hori dela eta, hobetzat jo dugu goiko sailkapen semantikoari jarraitzea eta bestelakoak horren barnean sartzea, hau da sail bakoitzaren barnean galdekariak, erakusleak eta indefinituak, daudenean jakina, aipatzea.

2.2.2.2. Denbora aditzondoak

2.2.2.2.1. Denbora aditzondo galdekaria *noiz* da. Eta horretatik, atzizki-posposizioak erantsiz, honako hauek ateratzen dira: *noiztik/noizdanik, noiz*

arte, noizdaino, noizko. Kasu horietatik landa, zenbait esaeratan, bestelakoak ere erabiltzen dira: *noizean behin, noiztik noizera*; baita eratorriak ere: *noizero*.

Gainera galdera denborak bestelako adizlagunen bidez egiten dira: *zer ordutan, zein egunetan, zenbat astetan...*

2.2.2.2.2. Goiko galdekariei erantzuten dieten aditzondoak —den-denak ez ditugu aipatuko— honako hauek dira:

a) Indefinitu konposatuak:

edonoiz, noiznahi, noizpait, inoiz

b) Bestelakoak:

agudo, aitzina, ardura, arin, aspaldi, atzera, atzo, aurki aurten, aurtemein, azkar, bart, behiala, behin, belu, berandu, berehala, berriki, berriro, berriz, beti, bihar, dagoeneko, egun, egundaino, egundo, etzi, etzidamu, fite, gaur, gaurgero, gero, geurtz, goiz, goizik, herenegun, iaz, ja, jada, jadanik, jagoitik, laster, lehen, lehenen, lehenik, lehenbizi, maiz, orain, oraindik, oraino, orduan, oster, sarri, sekula...

Zerrenda honetan aipatu aditzondo guztiak ez dira, jakina, euskalki guztietan erabiltzen. *Aurtemein* esate berako B da eta *jadantik* BN eta L. Eta adiera ere ez dute denetan bera: *ardura*, adibidez, L, BN, eta Z euskalkietan da denborazko aditzondo eta *askotan, maiz* esan nahi du; *sarrrik*, berriz, zenbait euskalkitan *maiz* esan nahi du eta bestetan *aurki*; *atzera*-k gipuzkeraz du adberbio erabilera eta *berriro* esan nahi du.

Behin beherago aipatuko ditugun hainbat esaera adberbialen osagaia ere bada: *behin-edo-behin, noizean behin...*

Berri izenondotik honako aditzondo hauek eratorri dira: *berriki, berriro, berriz*, lehen biak forma aldetik antzekoak, baina esanahi aldetik azken biak hurbilago direlarik.

Lehen hitzaren inguruan ere beste hauek sortu dira eta ez denak esanahi berekoak: *lehenago*, konparatiboa, *lehenbizi*, beste ezer baino lehenago; *lehenbizian*, hasieran edo berehala; *lehengoan, lehengo batean*, aurreko aldi batean; *lehenik, aurrenik; lehenen*, aurren...

Orain aditzondotik ere *orainago* konparatiboa (orain berriro); *oraindino* (orain arte), *oraino* eta *oraindik* sortzen dira; baita *orain aldi*an konposatua ere.

Egun aditzondotik, orobat, *egundo* ez-baiezko esaldietan *inoiz* esanahiaz erabiltzen dena eta *egundaino*, (orain arte), sortzen dira; baitare *egunero*, *egunkari* eratorriak eta, besteren artean, *egunean egunean*, *egunez egun*, *egunetik egunera*, *egungo egunean* esaerak ere.

Egundo, *sekula* eta aurreko atalean ikusi dugun *inoiz* aditzondoak berez baiezko ez diren perpausetan erabiltzen dira, *inor* eta antzekoak bezala: *ez da egundo etorri, ikusi al duzu sekula horrelakorik?, joaten bazara inoiz...* Beste biak ez bezala, ordea, *inoiz* baiezkoetan ere erabiltzen da gipuzkeraz: *jokatu izan dugu inoiz hor*. Hortik *inoizka* eratorria eta *inoiz edo behin*, *inoiz edo beste*, *inoiz edo berriz* esaerak.

Goiko zerrendako zenbait aditzondok *noiz* galdekariak hartzen dituen kasu markak eta posposizioak, denak edo batzuk, har ditzakete: *geroko*, *gero arte*, *gaurtik/gaurdanik*, *gaurdaino*, *betidanik*, *betiko*... Bestelako atzizkiak ere hartzen ditu zenbaitek: *sarritan*, *geroztik*, *gaurgeroz*... Zenbait kasutan, dena den, badirudi atzizkiak ez diola esanahi berririk erasten forma soilari: *sarri(tan)*, *sekula(n)*, *aspaldia(an)*, *berehala(koan)*. Orobat esan daiteke, baitare, adberbiohizkia hartu duten zenbait aditzondori dagokionean ere: *beti(ro)*, *goiz(ik)*... Aditzondoen deklinabidean ez dira betetzen izenkien jokoan agintzen duten arauak: *egun* izenetik *eguneko*, *egunetik*, ateratzen dira, baina *egun* aditzondotik *egungo*, *egundik*; *gailurretik*, baina *gaurtik*...

Zerrenda horretako aditzondo batzuk denborazkoak ezezik moduzkoak ere izan daitezke: *arin*, *azkar*, *lehenik*...

Horietako aditzondo batzuk, azkenik, atzizki intentsiboak eta adierazkorrak ere har ditzakete: *berehalaxe*, *orduantxe*, *orduxetik*, *orduxerarte*, *oraintxe*, *oraindexek*, *oraintxe arte*, eta *oraintsu*, *maiztxo*, *berandusko*. Eta orobat gradu markak edo maila adberbioak: *beranduago*, *beranduegi*, *beranduen*, *oso berandu*, *ondo berandu*, *berandu asko*. Gehientasun mailakoek, gorago esan bezala, maiz daramatzate *-a* edo *-ik* hizkiak: *beranduena*, *beranduenik*. Beste zenbaitek, aldiz, ez dute horrelakorik onartzen: **betixe*, **behinago*, **oraindikegi*. Batzuk, azkenik, esanahi berezia hartzen dute horrelako formetan: *orainago*, orain berriki; *geroenean*, hemendik aurrera edo azkenean.

c) Erabat aditzondo bilakatu ez badira ere, aditzondo gisa nolabait estereotipaturik erabiltzen direnak badira denbora adizlagunetan ere. Horiek, noski, kasu marka daramate beti: *artean, bitartean (bizkitartean, bienbitartean), arestian, askotan, gutxitan, batzutan, gehienetan, azkenean, gaztetan, txikitan, garaiz, tenorez, bestorduz...* Horien artean sar daitezke artikulua eta guzti erabilera adberbiala duten *aurrena, azkena* eta antzekoak. *Artean* posposizio gisa ere erabiltzen da eta, zenbait euskalkitan egiten bada ere, ez da *arte* posposizioarekin nahasi behar: *bostak arte ez naiz etorriko; bostak artean hemen egon dira.*

Posposizioa duten forma batzuk ere aditzondo gisa erabiltzen dira: *honezkero, horrezkero, harrezkero*. Euskalki guztietan ez bada, batzutan ondo berezten dira *honezkero*, eta *dagoeneko* aditzondoak, (ikus Deklinabidea kapitulu 1.4.4.6.3. puntua eta han ematen diren zehaztasunak).

d) Atziki bidez eratorriko eta denbora adierazten duten aditzondoak ere badira:

igandekari, urtekari (nominalizaturik ere erabiltzen da)
igandeka, urteka
igandero, urtero

Eta aditz izenkiei erantsi ohi zaizkienak ere badira, denbora adierazten dutenak:

hiltzear, erortzear
ikusirik, eginik
ikusita, eginda

Azken hauek denbora kutsua ezezik, moduzkoa era badute beherago ikusiko dugun bezala.

2.2.2.2.3. Denbora adierazten duten esatera adberbialak ere ez dira gutxi:

- galdekariak: *noiztik hona, noiztik nora.*

- bestelakoak: *hemendik goiti, hemendik aurrera, ordutik aurrera, bapatean, lehen-bai-lehen, noiz-edo-noiz, noizetik noizera aldian-aldian, urtean-urtean, urtez-urte...*

- *behin* osagaia dutenak: *noizik-behin, noizean behin, inoiz edo behin, aldian behin, lantzean behin, behin edo behin, beste behin, astean behin, hamabostean behin, behindanik behin, behin ere* (berez baiczko ez direnetan), *beingo baten, lehenengo-ta behin, behin-behinean, behin betiko...*

- zenbatzailea + *bider*: *zenbat bider* galdekaria, *hainbat bider, bi bider, hiruzpalau bider, hamaika bider...* Orobat esan daiteke zenbatzailea + *aldiz* (*aldi* izenetik sorturiko forma estereotipatua). Esaera hauek gorago esan dugun bezala, egitura irekia dutenetakoak dira.

- *gero eta ...-ago* egitura, irekia hau ere: *gero eta lasterrago, gero eta beranduago...*

2.2.2.2.4. Ez gutxitan denbora aditzondoek beste adizlagun bat daramate aposizioan. Inoiz aditzondoak zabalegi utzi duen denbora-gunea mugatuago adierazteko:

- (310) (a) Bihar goizean
(b) Atzo gauean
(c) Bara arratsean
(d) Iaz udaberri

Beste batzutan, berriz, aurrekoa bera, indarrez edo, errepikatzen duen gehigarria baizik ez da aposizio hori:

- (311) (a) Orduan bertan (*orduan berean*)
(b) Orainxe bertan (*bertan, berean*) (ikus *beherago*)
(c) Behin batean
(d) Lehen garai batean
(e) Lehen garai haietan

Eta alderantziz ere gerta daiteke, hau da, aditzondoan beste adizlagun baten aposizioa izatea:

- (312) (a) Lehengo egunean berandu
(b) Goizean goiz(ik)

2.2.2.3. Leku aditzondoak

2.2.2.3.1. Leku aditzondo galdekari *non* da. Eta horretatik, kasu markak erantsiz, honako hauek ateratzen dira: *nondik, nora, norantz, noraino, norako*, destinatiboa (eta *nongo* izenlaguna). Gainerako leku galderak bestelako adizlagunen bidez egiten dira: *Zenbat lekutan, zeren atzean...*

2.2.2.3.2. Goiko galderei erantzuten dieten aditzondoak —erabilienak baizik ez ditugu aipatuko— honako hauek dira:

a) Hiru erakusleak:

hemen

hor

han

Erakusle hauen kasuak:

hemendik

hona

honantz

hanaino

honako

(*hemengo* izl)

hortik

horra

horrantz

horraino

horako

(*harko* izl)

handik

hara

harantz

haraino

harako

(*hango* izl)

Indartuak:

*hementxe*¹

hemendixek

(*hementxetik*)

honaxe

e.a.

hortxe

hortixek

(*hortxetik*)

harraxe

hantxe

handixek

(*hantxetik*)

haraxe

eta *ber-* aurrizkia daramatenean:

berton (bereon)

bertotik

bertora

e.a.

bertan (berean)

bertatik

bertara

¹Baturako baztertzeak dirudite *hementxen, hortxet, hantxek* eta antzekoek.

Erakusle soilen batasunari dagokionez, Euskaltzaindiak eskaini zuen bere erabakia eta horri jarraitu gatzaizkio hemen: *hona*, beraz, eta ez *honera*, *honara*, etab. Indartuei buruz, ordea, ez du inolako erabakirik eskaini. Hori dela eta, geure ustez hobesteko direnak proposatu ditugu goiko paradigman: *hemendixek*, etab.

Lekua zein denbora adierazteko erabiltzen diren *ber-* formei dagokionean, honako hau esan daiteke: *berton/bertan* formak ez dute *bereon/berean*, formen erabilera bera. Azken hauek, izan ere, badirudi aposizio bezala erabiltzen direla beti:

- (313) (a) Hemen(uxe) berean
(b) Orain(uxe) berean

Berton/bertan, aldiz, bai aposizio bezala:

- (314) (a) Hemen(uxe) bertan
(b) Orduan(uxe) bertan

eta bai aditzondo bezala, hau da, aposizio izan gabe ere, erreferentzia urrunago dutela, erabiltzen dira:

- (315) Barren kalera noa, bertan nai dot bizi (Iparragirre, 153)

Ezaguna da, bestalde, hirugarren mailako formak —*bertan*, *bertatik*, e.a.— maila guztietan erabiltzen direla euskalki gehienetan eta, beraz, *orduan bertan*, eta *han bertan* bezalaxe *orain bertan* eta *hemen bertan* ere esaten dela, *orain bertan*, *hemen bertan*, eta *bertan* formek erabilera dialektala edo estilistikoa dutelarik.

Bertan hitzak azkenik, *hurbil* nahiz *aurki* ere adieraz dezake. Indartuaz ere ematen da inoiz: *bertantxe*. Eta *bertan behera*, *bertatik bertara*, edo antzeko esaerei ere ematen die bide.

b) Indefinitu konposatuak:

edonon *nonahi* (*nongura* B) *nonbait* *inondik*

Berauen kasuak:

<i>edonondik</i>	<i>nondiknahi</i>	<i>nonbaitetik</i>	<i>inondik</i>
<i>edonora</i>	<i>noranahi</i>	<i>norabait</i>	<i>inora</i>
e.a.			

Inon, inondik, inora, etab., baiezko ez diren perpausetan erabiltzen dira.

Nonbait aditzondoak leku esanahiaz beste, moduzkoa ere badu eta *ituraz* edo esan nahi du:

(316) Bost negar egiteko nonbait jaio gifan (Muñagorriren bertsoa)

Nonbait hor esaerak, berriz, *gutxi gorabehera* edo adierazten du.

Inondik ere orobat, leku esanahiaz beste, moduzkoa ere badu eta *segur-segur* edo adierazteko erabiltzen dugu. *Inondik ere ez* eta *inondik inora ez*, berriz, *inola ez*, esan nahi dute.

(317) Gerrak ez dakar onik inondik inora (Muñagorriren bertsoak)

Konposatu hauei maiz erasten zaie *ere* partikula, kutsu berezia emanaz. *Edo-* eta *-nahi* osagaiez eratupei esanahi kontzesiboa ematen die. *-bait* eta *i-* osagaiez sortuak, berriz, indartu egiten ditu:

(318) (a) *Noranahi* ere joan den, *noranahi* joaten bazara ere
(b) *Inora* ere ez, *inora* ez

c) Bestelakoak:

alde, gertu, hurbil, urre, urrun, urruti...

Aditzondo hauetako batzuk izenondo dira jatorriz (*leku hurbila, mendi urruna...*) edo izenak (*alde...*) testuinguruaren eraginaz aditzondo bilakatuak. Maiz, gainera, deklinaturik agertzen dira: *aldean, gertutik, urrutira...* Berezi behar dira, halere, *hurbiletik, urrunetik* (izenondo) eta *hurbildik, urrundik* (aditzondo).

Maila marka eta aditzondoak onartzen dituzte: *oso gertu, ondo gertu, gertuago, gertuegi, gertuen(a), hurbilen(ik)...* Orobat, batzuk bederen, adierazkorrak: *urrutitxo...*

d) Badira, hemen ere, aditzondo bilakatu diren edo bederen aditzondo gisa nolabait estereotipaturik erabiltzen diren adizlagunak: *aurrera, gora, kanpora, barnean, kanpoan, behean, goian, aldamenean, goiti...*

2.2.2.3.3. Lekua adierazten duten esaera adberbialak ere ez dira falta:

- galdekariak: *nondik nora* (moduzko esanahia ere badu).

- bestelakoak: *han hemen, han-hor-hemen, harat-hunat, non-edo-non, non-edo-han, nora-edo-hara, nondik-edo-handik, gain-behera, tokian-tokian, hor nonbait...*

- inesiboari jarraiki: *aldapan gora, maldan behera, kalean barrena, kalean zehar* (hortik zehar)... Horrelako esaeretan aditzondoak posposizio gisako zerbait dira eta, beraz, esaera irekiak dira: *kalean gora, mendian gora, eskaileretan gora...*

- *gero eta ...-ago* egitura: *gero eta urrunago*.

2.2.2.3.4. Lekuzko aditzondoek ere, erakusleak batez ere, adizlagun bat eraman dezakete aposizio bezala, bai aditzondoaren erreferentzia mugatzeko (*hor goien, han urruti...*), bai gehigarri huts hura indartzeko (*han bertan...*).

Eta alderantziz ere gerta daiteke: aditzondoa bera izan daiteke beste adizlagun baten aposizioa: *mendian urruti...*

2.2.2.4. Modu aditzondoak

2.2.2.4.1. Modu aditzondoaren galdekaria *nola* da (B *zelan*). Honek ez du deklinabide atzizkirik hartzen; *nolatan, nolaz* (eta B *zelanik*), izan ere, forma soilen pareko dira eta daramaten atzizkia ez da gehigarri hutsa baizik, inolako edukin berririk, espresibitatea edo ez bada behintzat, erasten ez duena.

Inguruko erdaretan bezala, galdekari honek bere moduzko esanahiaz bestelako inguruak ere agertzen ditu. Horrela, esate baterako, zergatia ere galdetzen du sarri askotan (*nola egin duzu hori? = zergatik egin duzu hori?*). Bestetan, berriz, isilpeko aditzen bat daitekeela medio, baieztapen edo ezeztapen indartsua gordetzen duen itaun erretorikoa egiteko erabiltzen da:

- (319) (a) Nola egingo dut hori, bada?
(Ez dut horrelakorik egingo, nola uste duzu...?)
(b) Nola ez, gero?
(Bai, noski; nola uste duzu...?)

Bestetik, eta erdara horien pareko baitare, gertakaria adierazten duten konpletiboetan ere erabiltzen da inoiz:

- (320) Esan zieten bidean igaroa, eta nola Jesus ogia ebakitzean ezagutu zuten
(Lardizabal, 149)

Orobat konparatiboetan: *hala...*, *nola...* -ko atzizkiak *nolako* izenlagun galdekaria sortzen da. Izenlaguna bada ere eta, beraz, izenaren ezkerrean ematen, izenondoari dagokion galdera da:

- (321) Nolako etxea? - Etxe handia

Esaera adberbialeki ere bide ematen die: *hala nola*, *nola den*, *nola gerta*, *nola hala...*

Atzizki adierazkorra, -tsu alegia, har dezake: *nolatsu?*

Badira, noski, bestelako modu adizlagun galdekariak ere: *zer moduz*, *zein eratan*, *nolako gisan...*

Goiko galderari erantzun diezaieketen aditzondoak honako hauek dira:

a) Konposatu indefinituak:

<i>edonola</i>	<i>nolabait</i>	<i>nolanahi</i>	<i>inola</i>
(B edozelan)	(B zelanbait)	(B zelangura zelannahi)	(B ezelan)

Aditzondo hauek, egia esan, galdekaria bezain zabalak edo are zabalagoak dira esanahiari dagokionean, moduaren mundua bera ere aski irekia baita. Ezingo ditugu, jakina, esanahi guztien azalpenak eskaini hemen. Ez da hori, gainera, gramatikaren zeregina. Adibide gisa, ordea, batzuk aipatuko ditugu.

Inola (*inolaz*) berez baiezkoko ez diren perpausetan erabiltzen da. Modu esanahiaz aparte, zenbaitetan ukapen indartua adierazten du (*inola ez = erabat ez*); beste batzutan, berriz, *ixuraz* edo *seguru* edo antzeko zerbait esan nahi du:

(322) Inola ere ondo bizi zara

Nolanahi aditzondoak esanahi indefinitua du batetik (*edozein modutan*) eta esatera kontzesiboei bide ematen die bestetik: *nolanahi ere, nolanahi den...*

Nolabait (*nolazpait, nolarebait*) aditzondoak ere inguru batzuk baditu: *Nolabait bizi* ahal den bezala, modu batera edo bestera, bizitzea bada ere, zenbait testuingurutan *gaizki, eskas* edo *ixura txarrean* bizitzea ere esan nahi du, edota era susmagarriz ibiltzea... hots, gaitzespenaz hornituriko indar adierazkorra darama:

(323) Dana segituan gastatzen dutenak dira nolabait samar ibiltzen diranak (Garmendia, 114)

Zenbaitetan, bestalde, esaldiaren indarra leuntzeko edo erabiltzen den partikula gisako zerbait bilakatu da:

(324) Horixe da, nolabait, esan nahi nuena

Edonola ez da oso erabilia bere esanahi indefinituan. *Edola, edolan*, eta *edolarik*, berriz, berbaldiaren lokarri edo kontzesibo gisa erabiliak dira (edo izan dira) zenbait euskalkitan:

(325) (a) Eguia da, Jauna, eznaiz diña or sartceco, baña edolaric ateronz allegatcen uztazu (Kard. 46)
(b) Esaizu bada edolan bere hat (Moguel, 120)

Adberbio hauek, gainera, maiz hartzen dute ondotik *ere* partikula, azken adibide horretan bezala. Partikula horrek zenbaitetan aditzondoaren esanahia indartu egiten du, bai moduzko hauetan (*inola ere ez = inola ez* enfasiz), bai orobat leku-denborazkoetan ere (*inoiz ere ez, inora ere ez...*). Askotan, ordea, bestelako esanahia hartzen du: *nolanahi ere, edolarik ere...* (kontzesiboa).

Esan beharrik ez dago aditzondo hauek indefinituak direnez ez dutela gradurik onartzen: **edonolago...*

b) Erakusleak:

honela
(B *holan*)

horrela

hala

Erakusleen adierazkorrak:

honetaxe
honetatsu

horretaxe
horrelatsu

halaxe
halatsu

Batasunerako ez da *hola* forma laburtua hartu, *hala-hola*, *hola-halako* edo antzeko esakeretan ezik. Esanahi berririk ekartzen ez duten atzizkidun formak badira erakusleotan ere: *halaz*, *halarik*...¹

Hauek ere sarritan hartzen dute *ere* partikula: *hala ere*, kontzesiboa. Bai eta adberbio esaera adverbial askori bide ematen: *hala-hala*, *hala eta guztiz*...

Eta azkenik hauek ere, erakusle izaki, ez dute gradurik hartzen: **honetago*...

Bada *-la* modu atzizkia daraman beste aditzondo bat ere: *bestela*. Eta konparatiboetan *bezala*. Konpletiboen *-eLA* atzizkiak ere badu, beharbada, erakusleen modu atzizki honekin zerikusirik: *horrela esan*, ...*-eLA esan*.

c) Aditzondo atzizkiren batez eratorriak.

Hau dugu, inolako zalantzarik gabe, aditzondo sailik ugariena eta emankorrena.

-ki: *ederki*, *gaizki*, *poliki*, *egiazki*, *osoki*...

Aditzondo atzizki guztietan ugariena eta zabalena da hau, adberbio berriak etengabe sortzen ari dena, erantsitako lexemari modu esanahia ematen diolarik. Zenbaitetan, halare, lexemaren esanahitik zertxobait urundu egiten da horrela sorturiko aditzondoa: *poliki*, esate baterako, bai *era politean*, bai *mantso* edo *ez ozenki* edo antzekorik ere adierazteko erabiltzen da. Gehienetan izenondoari erasten bazaio ere zenbaitetan izenari ere lotzen zaio, honek izenondo itxura duelarik (adib. *gizonki*) edo adizlaguna bilakatua dagoelarik (adib. *desohorezki*).

Hain erabilera zabalekoa izanik, sarri askotan berez modua adierazten duten adizlagunei ere —eta, beraz, bestelako atzizkiren beharrik ez dutenei ere— erasten zaie, moduzkoak direla are nabarmenagotzeko: *egiaz(ki) mintzo*, *larri(ki)*, *zauritu*, *garbi(ki) jokatu*...

¹*Honetaxen*, *holan* edo antzekoek ez dirudite batasunerako egokiak.

Aditz erroari ere erasten zaio zenbaitetan, *nola* esanahia emanaz: *ibilki, joaki, izaki...*

Beherago ere ikusiko dugun bezala, atzizki honen bidez sorturiko zenbait aditzondo bestela osaturiko adberbio eta adizlagunen sinonimo gertatzen dira: *ongi, ondo, ontsa; handiki, handiro; izkutuan, izkutuki.*

Aditzondoek graduak onartzen dituzte: *ederkiago, polikiegi, garbikien...* Ongi-ren mailak hauek dira: *ongi, ongiegi, hobeki, ongien.*

-to: ederto, txarto, polito, gogorto...

Atzizki hau, *ondo* eta *hobeto* aditzondoetan ezik, bizkaierakoa dela esan daiteke. Ez da, inondik ere, *-ki* bezain emankorra. Hura bezala izenondoei erasten zaie.

Atzizki honen bidez sorturiko aditzondoek ere graduak onartzen dituzte: *oso txarto, txartoago...* Ondo-ren mailak hauek dira: *ondo, ondoegi, hobeto, ondoen. Hobetoago*, konparazioa bi aldiz markatzen duenak, ez dirudi batasunerako formarik egokiena. Dena den, adierazkorretan *hobetoxeago* erabiltzen da.

-ro: argiro, astiro, berriro, garbiro, gozaro, handiro...

Atzizki hau ere izenondoei erasten zaie gehienbat eta, noski, modu esanahia ematen die. Batzutan, gainera, lehendik ere beste atzizki bat daramaten aditzondoei lotzen zaie: *egokiro, emekiro, egiazkiro, maitekiro...* Eta *gaingiroki* aditzondoan hiru modu atzizki metatu direla dirudi. Metatze honen egitekoa modu esanahia indarzea dela esan daiteke.

-ka: apurka, arrastaka, bakarka, banaka, epeka, hayinka, harrika, korrika, isilka.

Modu atzizki honek ekintza adierazten du eta izenei (*hurrika*), izen jokatuari (*barrezka*), izenordainei (*hika*), izenondoei (*bakarka*), determinantei (*guzkika*), partikulei (*omenka*) eta aditzei (*esaka*) ezik, sintagma luzeagoei ere erasten zaie, esuera adberbialak eta adizlagunak osatuz (*nor gehiagoku, esku huska, gaizki esaka...*). Nominalizatu ere sarritan egiten dira: *banaka batzuk, gaizki esaka haiek.*

-ik: alferrik, bakarrik, biluzik, hutsik, isilik, onik, pozik, zutik...

Atzizki hau, partitibokoarekin nahastu behar ez dena, izenondoei (*alferrik, isilik*) eta izen gutxi batzuei erasten zaie (*pozik*). Askoz ere maizago erasten zaie, ordea, partizipioei (*ikusirik, egonik*), esaldi adberbialak sortuz.

Horrelako aditzondo horiek, partitiboak ez bezala, izenlagun bilakatzen dituen *-ko* atzizkia onartzen dute (*alferrikako, ikusiriko, edo ikusirikako*). Ikus, dena den Partitiboa, hirugarren atala, 1.5.1).

-ta: Atzizki hau ere, aurrekoa bezala, partizipioei erasten zaie, esaera adberbialak sortuz (*nekatuta, ikusita, esanda*). Esaldi osoak bilaka daitezke, noski, adizlagun atzizki honen bidez¹:

(327) Gauza horiek esanda, banao

Hala ere, adberbio soil bat edo beste ere sortu du (*nahita*).

Aipaturiko atzizki hauen bidez sortutako aditzondoak trukagarriak dira batzutan: *ongi*, eta *ondo* edo *ederki* eta *ederto*, esate baterako, edo *osoki* eta *osoro*. Badirudi, halere, *-ki* eta *-ik* atzizkiak ezin direla beti eta besterik gabe trukatu: *onik* eta *ongi*, *bizirik* eta *biziki* esate baterako, ez dira esanahi bereko aditzondoak.

Goiko modu atzizki horien bidez sorturiko aditzondoan pareko edo antzeko izan daitezke, azkenik, deklinabide atzizkien bidez sorturiko adizlagunak ere: *itsuan* eta *itsuki*; *oihuz* eta *oihuka*; *berriz* eta *berriro*.

d) Aditzondo gisa erabiliak:

Gorago ere esan dugunez izenondo asko dira testuinguru jakinetan aditzondo gisa erabiltzen direnak: *aise, arin, azkar, bizkor, dotore, erraz, garbi, gogor, lasai, zehatz, ziur, zuzen, aldrebes, apropos...* (ikus bigarren atala 4.2.2.3.).

Badira, orobat, deklinazio atzizki eta guzti aditzondo gisa nolabait finkaturik erabiltzen direnak. Instrumentalean batzuk: *berriz, oinez, zinez, nekez, (nola*

¹ Horrelako formak aldagaitzak direla gogoratzea ez da beharbada alferrikakoa izango, gero eta maizago irakurtzen eta entzuten baitira **irekitak, ikusitak* eta antzekoak, *ikusia/ikusiak*, formen analogiaz edo.

eta gipuzkeraz *noiz* ere bai), *adibidez, alderantziz, benaz, berariaz, egiaz, gogoz, halabeharrez, itxuraz, tamalez,...* Inesiboan beste batzuk: *aidean, aukeran* (adibidez: *aukeran etorri zara*), *benetan* (askotan errepikatua: *bene-benetan*), *dilindan, ezinbestean, ezjakinean, itsumustuan, ustekabea, osterantzean...* Adlatiboan besteak: *gogara, erara, gora, gustora, ostera,...* eta erakusleak: *honetara, horretara*, eta, batez ere, *hartara*. Eta ablatiboan: *gogotik*.

Aditzondo hauek, hain zuzen, aditzari lotuak zein perpausetik kanpora gerta daitezke:

- (328) (a) Itxuraz egin duzu hori
(b) Itxuraz, inor ez da bizi hemen

Aditzondo esaeretarako bidea ere eskaintzen dute aditzondo hauek: *gogoz kontra, topoz-topo, atzekoz aurrera...*; eta egitura irekia dutenak: *izenlaguna + kabuz (nere kabuz); izenlaguna + ustez/ustetan (nere ustez, zure ustetan)* etab.

e) Bestelakoak:

Badira, gutxi bada ere, berez modu aditzondo diren hitz bakunak edota bestelako atzizkiren batez sortuak:

<i>ados egon</i>	<i>debalde(tan) eman</i>	<i>konforme egon</i>
<i>blai egin</i>	<i>derrigor(rean) egin</i>	<i>majo ibili (lgart)</i>
<i>begira egon</i>	<i>dohan eskaini</i>	<i>tente ibili</i>
<i>belauniko jarri</i>	<i>kili-kolo egon</i>	<i>ziplo egin (lgart)</i>
<i>bidenabar esan</i>	<i>kito geratu</i>	<i>e.a.</i>

(lgart = lagunartekoa)

Beharbada honako hauek ere:

igeri ibili
ihesi joan
zain egon

Azkenik, onomatopeiak edo hots-hitzak:

tiki-taka joan
hika-mika aritu
e.a.

2.2.2.4.2. Moduzko esaera adberbialak ere ugariak dira: *baitezpada, bada-
 ezpada, batez ere, orobot, alde bat, nola edo hala, nola-hala, nora-ezean,
 inondik ere, inola ere, hala hola, hola-hola, aldez edo moldez, argi eta garbi,
 batera edo bestera, edozein moduz, hain zuzen, hain segur, hala-beharrez, bide
 batez, nahitaez, orpoz-orpo, atzekoz aurrera...*

- Ugariak dira, baitare, hitz errepikatuek sorturiko esaerak: *poliki-poliki,
 bene-benetan, itsu-itsuan, itsumustuan, isilka-misilka, zirt edo zart, bete-
 betean, tiki-taka, hika-mika...*

- Egitura irekia dutenak: *izenlaguna + kabuz, kasa, ustez, iritiz...*

- Ohizkoa da hemen ere *gero eta ...-ago* egitura: *gero eta hobeto, gero eto
 ederkiago, etab.*

2.2.2.5. Maila aditzondoak eta zenbatekoak

2.2.2.5.1 Zenbatekoari dagokion sail honen nondik-norainokoak garbi eta zehatz mugatzea ez da beti lan erraza, sail bakarraren barruan adberbio mota diferenteak sartzen baititugu. Izan ere, aipatuko ditugun aditzondo guztiak zenbatekoari edo intentsitateari nolabait loturikoak badira ere, denek ez dute lotura bera agertzen.

2.2.2.5.2. Maila aditzondoak ditugu, batetik, hau da, izenondo, aditzondo eta are aditzaren maila edo intentsitate neurria adierazteko erabiltzen direnak:

- (329) (a) Oso berria ere ez zen
 (b) Oso haserretu zen
 (c) Oso gustora etorri zan (Garmendia, 117)

Honako hauek ditugu, besteak beste, maila aditzondoak: *oso, gustuz, biziki, txit, arrunt, erabat, zeharo, dexente, arras, izugarri, ikaragarri, hagitx, xoil...*

honen, horren eta *hain* erakusleak; *zein* esklamatioa. *Erdi*, izenaz beste, badago *erdi* maila adberbioa ere:

(330) *Erdi* hilik dago

Berdin ere sail honetan sar dezakegu:

(331) Ez orotan *berdin* tinki (Buruxkak, 40)

Izenondoaren maila adierazteko erabiltzen dira, orobat, inguru jakinetan *ondo* aditzondoa, *asko*, *aski*, *nahikoa*, *frango*, *sobera*, *samar* eta antzekoak ere:

(332) (a) Mutil on *asko* uken (Garmendia,60)

(b) Gure Inasio ori *ondo* bearrekoa etorriko da soldaduzkatik (Garmendia 99)

(c) Orra bada nere sermoigaya. *Ondo* mea eta segalla (Larramendi, 3)

(d) Zur *xamarra* ote zan tankera eman nion (Garmendia 144)

Asko eta *samar* aditzondoaren ondoan ematen dira eta jakina, aditzondo denez, inolako mugatzailerik gabe:

(333) (a) Baita zintzo *asko* bildu ere (Garmendia, 43)

(b) Nolabait *samar* ibiltzen diranak (Garmendia, 114)

Aski berriz, aurrean zein ondoan eman daiteke:

(334) (a) *Aski* berandu gabiltza

(b) Ongi *aski* dakizki Bidaneko gorabcherak (Izeta, 63)

Gainerakoak, dirudienez, aditzondoaren aurrean ematen dira:

(335) (a) Oso berandu ez gabiltza

(b) Hain berandu ere ez da!

Aipatu parrafoan azaltzen den legez, *nahikoa* aditzondoak indar handiagoa ematen dio ondoko aditzondoari *samar*-ek baino: *nahikoa ongi*, *ongi samar* baino *ongi*ago da eta *nahikoa gaizki*, berriz, *gaizki samar* baino *gaizki*ago.

2.2.2.5.3. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, *asko*, *aski*, eta antzekoak izenondo-aditzondoan maila adierazteko erabiltzen ditugu askotan. Adizlagun

gisa ere erabiltzen ditugu, ordea, beste zenbaitetan eta bi eratan gainera, determinante gisa eta adberbio gisa:

a) Gorago testuinguru jakinetan adizlagun gisa erabiltzen diren izen sintagma Nor batzu aipatu ditugu, hots, kasu atzizkirik agerian bederen ez daramatenak: *bi egun iraun*, *hiru aste egon* eta antzekoak. Horien pareko dira, noski, zenbatzaile zehaztugabea daramaten honako esaldi hauek ere: *kilometro asko ibili*, *ordu asko luzatu*, etab. Horietatik, izena isilduta, *asko ibili*, *asko luzatu* eta antzekoak ekar daitezke. Horrelakoetan, noski, ez da zertan zenbatzailea aditzondotzat hartu. Determinantea izaten segitzen du eta adizlagun gisa erabilitako IS Nor bezala azal dezakegu.

b) Beste zenbaitetan, aldiz, intentsitatearen neurrian gorabeherak onartzen dituzten aditzen lagungarri izan daitezke, *oso* eta bestelako maila aditzondoen pareko:

- (336) (a) Orai aunitz ematu da (Izeta, 67)
 (b) Etziran gutxi lasaitu Bordaberrikoak (Garmendia, 32)
 (c) Ez dela sobera arriiu (Izeta, 89)

Sentimenduak *zenbakorrak* ez direnez eta euskararen legeak garbiago gorde nahirik, honelako perpausak edo antzekoak (*asko maite zaitut*) gaizkietsiz, *oso maite zaitut* eredukoak proposatu izan dira inoiz forma egoki bakarrak bailira. Eta galdera, beraz, ez litzateke *zenbat maite nauzu?* Hori, ordea, erabilera hedatuaren aurka joatea litzateke. Iritziak iritzi, beraz, goiko perpausak gramatikaltzat hartu behar direla dirudi. Eta konparatiboetan ere *hain maite* bezala *hainbeste maite* erabiltzen da:

- (337) Ixilpean hainbertze maite zuena (Izeta, 68)

Horiek ere adizlagun gisa erabilitako izen sintagma Nor bezala azaldu behar ote ditugu? Egokiago litzateke, beharbada, bi sail bereztea: *asko₁*, *zenbat₁*, etab. determinanteak *lagun asko etorri da* zein *asko ibili da* gisako esaldietan erabiltzen direnak (bigarrena arestian aipaturikoa); eta *asko₂*, *zenbat₂*, etab. maila aditzondoak *asko maite zaitut* zein *eder askoa* gisako sintagmetan erabiltzen direnak.

Azken sail honetan, beraz, honako aditzondo hauek sar ditzakegu: *zenbat, asko, gutxi, aski, nahikoa, anitz, frango, sobera, berdin...* Eta horien graduak, *gutiegi, gutiago, gutien, gehiegi, gehiago, gehien, haboro:*

(338) Jan-edanera gueyegui itsutu dan bat (J.B.A., 228)

Eta orobat *gero eta gehiago, piska bat, apur bat, batere* (ez-baiezkotan) eta antzekoak.

2.2.2.5.4. Baditugu, azkenik, asko ez badira ere, zenbatekoari loturiko bestelako aditzondoak *ia, kasik, abantzu, doi, ozta...*

Ia askotan errepikaturik *ia-ia*, aditzaren zein bestelakoan lagun izaten da:

- (339) (a) *Ia* amaiturik dugu lana
(b) *Ia* ehun metro egin ditugu
(c) Ez zuen *ia* ezer egin

Berdintsu *kasik* eta *abantzu* ere:

(340) Ahantxu ene erritarra delakotz (Zubiri, 17)

Doi eta *ozta*, sarri askotan errepikaturik erabiliak hauek ere, denbora, modua eta beste zenbait inguruz landa, zenbatekoa ere badutela dirudi:

- (341) (a) *Ozta-ozta* egin zuen
(b) Alacere doi doya arquitzen du gure artean (J.B.A., 345-346)

2.2.2.6. Eritzi aditzondoak

Zalantza bat baino gehiago sor lezake, beharbada, atal honen izenburuak. Zer da, izan ere, eritzi aditzondoa? Zehatz esateko hemen perpausetik nolabait kanpora gertatzen diren eta hari buruzko hiztunaren eritzia edo jarrera adierazten duten aditzondoak sartzen ditugu:

- (342) (a) Txarra zen, nonbait
(b) Agian joango da

Horrelakoak dira, besteak beste, *benturaz, itxuraz, iduriz, agian, onenean, nonbait* (ez lekuzkoa), *ausaz, apika, antza* (B), *arean* (B)...

Horietako batzuk adizlagun batetik datozenak dira, erabileraren erabileraz aditzondo gisa finkatuak. *Antza* berriz, *antza denez* esalditik edo datorrela dirudi:

(343) Gaur etorri da, antza (denez)

Badira, baitare, gisa honetako esaera adberbialak: *beharbada*, *dudarik gabe*, *agi denean...*, *agi denez*, *badaezpada*, *inola ere* (ez moduzkoa)...

Hemen sartuko lirateke baitare *noski*, *jakina* eta antzekoak. Dena den *hain zuzen*, *behintzat* eta horrelako beste batzuk hobeto sartzen dira ondoren ikusiko ditugun ilatibo eta partikulen sailean.

2.2.3. Aditzaren ondoko bestelako hitzak

2.2.3.1. Aurreko sailetan leku erosoak ez duten hitzak eta partikulak ere badira, hau da, aditzaren ingurukoak izan arren, adizlagun gisa erraz azaldu ezin daitezkeenak. Horrelakoak ditugu, besteak beste, *behintzat* eta antzekoak, *ere*, *omen* eta kidekoak, *baitez*...

2.2.3.2. *Behintzat*, *behinik behin*, *edola bere*, *bederen*, *bederik*, *gutxienez* eta antzekoak modu edo eritzi kutsuren bat agertzen badute ere, hori baino areago kontraste jakin bat adierazteko erabiltzen direla dirudi. Aurretik aipaturiko edo hitzunik, gehiegi zehaztu gabe beharbada, gogoan hartutako zerbaiti buruzko kontrastea adierazten dute, hain zuzen, hitz horiek:

(344) (a) Ni behintzat ez noa

(b) Aurrena, behintzat, artoak egin ditzagun (Garmendia, 64)

Bigarren adibidean badirudi hitzunaren gogoan honako zerbait dagoela: *gero gerokoak*, *baina aurrena behintzat*... Eta lehenbiziko esaldian: *besteak ez dakit*, *baina ni behintzat*... Aurkatasun lotura bat salatzen dute, beraz, hitz hauek aurretik aipaturiko edo suposatutako zerbaiten eta esaldian esaten denaren artean. Eta modu-eritzi kutsuan aditzondoen antza baldin badute, lotura honetan juntagailuen itxura zerbait ere badute.

Honelako hitzen lekua, bestetik, aurkatasuna daraman elementuaren ondoan dago eskuarki (edo, gehienez ere, esalditik kanpora bezala, eten batez berezirik):

- (345) (a) Ni behintzat gaur ez noa
(b) Ni gaur behintzat ez noa

Aipaturiko aurkatasuna ez da bera bi perpaus horietan: lehenean (*besteak*)/*ni* dateke kontrastea eta bigarrenean, berriz, (*beste egunak*)/*gaur*.

2.2.3.3. Ere (B here) bi esaldi edo gehiago lotzen dituen juntagailua —edo juntagailu konposatuaren osagaia— da sarri askotan, zerbait baieztu edo ukatu ondoan beste zerbait baiezteko edo ukatzeko erabiltzen dena, hain zuzen (ikus koordinazioa). Zenbaitetan, ordea, esaldi lokabeetan ere suertatzen da, hots, beste zerbait suposatu arren, gramatika aldetik lokabe diren esaldietan:

- (346) Ni ere joango naiz

Esaldi honek *beste norbait joango dela* suposatzen du, noski, baina koordinazio formalik ez dago halere. Horregatik partikula hori inoiz juntagailu bada ere, beste askotan —azkeneko esaldian bezala— *erreferentzi mundua* zabaltzeko edo erabiltzen da.

Partikula hau lotura —edo erreferentzi hedatzea— dagokion elementuaren ondoan ere kokatzen da. *Ni ere gaur noa* eta *gaur ere ni noa* ez dira, beraz, gauza bera. Lehenean *ni* da elementu eragina eta *besteak* edo zehaztugabeko erreferentzia; bigarrenean, berriz, *gaur* eta *beste egunak*. Lotura hori aditzari berari dagokionean, *ere* ez da, zenbait euskalkitan bederen, aditzaren ondoan ematen: **Aspertu naiz ere*. Horrelakoetan partikula partizipioaren ondoan ematen da, *egin* erantsiz: *aspertu ere egin naiz*.

Partikula honek baditu, jakina, beste hamaika erabilera ere: koordinatzeko erabiltzen diren *baitare*, *eziare*; esanahi kontzesiboa duten *baldintza + ere*, *hala ere*, *nolanahi ere*; balio enfatikoa duten *nolabait ere*, *inola ere (ez)*...; erlatibo jokoa ematen duten *izenordain galdekaria + ere*, (*nark ere*, *zer ere*).

2.2.3.4. Omen (B ei), ote, bide, al, besteak beste, aditzari lotzen zaizkion partikulak dira, huren esanahia batera edo bestera zertxobait aldatzen dutenak.

Aditzaren aurre-aurrean paratzen dira, hau sintetikoa denean; eta laguntzailearen aurre-aurrean, berriz, perifrastikoa denean:

- (347) (a) Etorri omen da
 (b) Ba ote dator?
 (c) Ez bide da azaldu
 (d) Joan al da?

Omen izena ezezik, aditz partikula ere bada. Eta hiztunak aditzaren aurrean *omen* sartzen duenean, esaldi hori besteri entzuna duela adierazten du, *diotenez, entzun dudanez* edo antzeko zerbait esango bailuen. Aditzetik aparte ere gertatzen da inoiz, esalditik eten batez berezita: *etorri da, omen*; eta aditza isilduta ere para daiteke, galdegaiari zein perpaus ordainari lotuta nahiz soilik: *gaur omen, ez omen, omen*. Bizkaierazko *ei*, aldiz, aditzaren aurrean baizik ezin daiteke eman:

- (348) Alejandro andiak negar egiten ei eban (F.B.S.T. 250)

Ote partikulak galdera eta zalantza adierazten du. Inoiz geroaldiaren bitartez ematen den inguru hau, garbiago eta zehatzago adierazten da partikula honen bidez, inolako anbiguotasunik gabe: *non izango da?* baino zehatzagoa da, beraz, *non ote da?*. *Omen* bezala, hau ere aditzetik aparte eman daiteke, harridura inguru batez askotan: *ni ote?, bai ote!* Ez da, ordea inoiz bakarrik erabiltzen: **ote?*

Bide, dirudienez edo esateko erabiltzen dena, aditzaren aurrean ematen da beti: *etorri bide da, hura bide duzu alkatea*.

Galdera marka entonazioaz beste, *al* partikulaz ere ematen da zenbait euskalkitan (eta *-a* atzizkiak beste zenbaitetan): *etorri al haiz?*

Ustez edo antzeko kutsuren bat erasteko, bestetan juntagailua den *edo* partikula erabiltzen da: *joan edo da*.

Partikula hauen erabil mugez (*omen, ote* eta *bide* partikulak, esate baterako, ezin dira *al* galdera markarekin elkartu; *ba omen, ba ote*, esaten diren bitartean, *ba bide* ez dirudi gramatikala...).

2.2.3.5. *Bai* (*ba*) eta *ez* partikulak ez dira modu berean erabiltzen. *Bai*, hain zuzen, perpaus ordaiua da, bakarrik zein beste esaldi batekin iustaposizioan ematen dena:

- (349) (a) Bai
(b) Etorri da, bai

Aditzaren baiezkotasuna markatu nahi denean, berriz, ez da partikula hau erabiltzen: *ba-* edo *ba* erabiltzen da sintetikoekin eta \emptyset perifrastikoekin (hau da, aditza esaldiaren buru-buruan ematen da edo etenaren ondoan):

- (350) (a) Badator
(b) Ba omen dator

baina,

- (351) (a) Etorri da
(b) Gaur, etorri da

Ez, berriz, bai perpaus ordain eta bai aditz aurreko partikula izan daiteke:

- (352) (a) Ez
(b) Ez da etorri, ez

eta,

- (353) (a) Ez dator
(b) Ez da etorri

Gorago aipatu ditugun *omen*, *ote* eta *ai* partikulak eman daitezke *ba* edo *ez* eta aditzaren artean: *ba omen dator*, *ez ote da etorriko*.

Hona, beraz, eskema:

Perpausordaina:

<i>Bai</i>	<i>Ez</i>
Etorri da, <i>bai</i>	Ez da etorri, <i>ez</i>

Partikula:

<i>Badator.</i>	<i>Ez dator.</i>
<i>Ba omen dator</i>	<i>Ez omen dator</i>
\emptyset Etorri da	<i>Ez da etorri</i>
Gaur, \emptyset etorri da	Gaur, <i>ez da etorri</i>

Ikusten denez, *ez* partikulak adizkien ordena aldarazten du: *egiten du* \rightarrow *ez du egiten*. Dena den *egiten ez du* gramatikala izan daiteke eta koordinazioan *ez egiten du, ez egiten uzten du* gisako egiturak ere badira.

Ezezkoa indartzeko *inola (ere) ez, inondik (ere) ez* eta antzekoak erabiltzen dira.

Partikula eta perpausordain hauetatik bestelako hitz batzu ere sortzen dira: *baietz*, eta *ezetz* esate baterako, subordinazioan; *haia, eza, baietza, ezetza, baietzkoa* eta *ezezkoa* izen eginak; *baieztu, ezetzu* aditzak; *ezean, ezik, ezezik* juntagailuak...

2.2.3.6. *Hain zuzen, izan ere, beraz, hortaz, bada,* eta antzekoak leku erosoagoa dute esaldiak lotzen dituzten juntagailuen artean edo berbaldi zatiak lotzen dituzten ilatiboen artean.

2.3. Adizlagunak

Adizlagunak ditugu, hasieran esan dugunez, kasu-atzizki edo posposizioen bidez sortzen ditugun adberbioak. Kasu-atzizkiez baliaturik sortu ditugun adberbio hauek ez dute inola komuntadurarik aditzarekin eta erraz berez daitezke, haien egituran izena eta hondarkia (eta, batzutan, posposizioa ere) agertzen direlako.

Hauexek ditugu euskal adizlagunak:

2.3.1. Leku-denbora adierazten dutenak. Sail honen barnean daude *-n*, *-ra* eta *-tik* kasu atzizki hartzen dituztenak. Hauek hirugarren atal honetako 1.4.2., 1.4.4., 1.4.5., 1.5.6., eta 1.5.7., puntuetan landu dira.

2.3.2. Gainerako kasu-atzizkiek sortutako adizlagunak. Adizlagun hauek *-ekin*, *-z*, *-gatik*, eta *-entzat* hartzen dute. Hauek ere atal bereko 1.5.ean landu ditugu.

2.3.3. Posposizioek sortutako adizlagunak (ikusirik honetarako 1.6, hirugarren atalean).

3. INTERJEKZIOAK

3.1. Interjekzioak zer diren

3.1.1. Hiztunok bihotz-aldiak bizi adierazteko erabiltzen ditugun oihu-hitz edo interjekzioak —hala nola *ai!*, *eup!*, *kaixo!* eta antzekoak— ez dira berez, orain arteko hitz-klaseak bezala, perpausaren barnean kokatzen; hau da, ez dute perpausaren barnean inolako funtziorik betetzen, ez oinarrizko osagai bezala ez eta osagai horien arteko erlazio-hizki gisa ere. Perpausetik kanpora, nolabait esan, ematen diren hitzak edo, zuzenago esan, berbaldi-zatiak dira. Demagun Lizardiren perpaus ezaguna:

(337) Oi, zein den ituna / beema-bear au! (Lizardi, 160)

Perpaus horretan *oi* interjekzioa ez da ondoko perpaus esklamatiboaren osagaia, aurretik egindako esklamazioa baizik.

Ez da, beraz, interjekzioa perpausaren zati edo osagai. Bai ordea, askotan esan ohi den bezala, perpaus osoaren antzeko zerbait; perpaus esklamatiboaren antzeko zerbait, hain zuzen. *Antzeko zerbait* diogu, ez baitirudi perpaus gramatikalaren osagaiak —IS eta AS— dituenik, ez agerian ez eta inolako isilpean ere. Horrexegatik, hain zuzen, perpaus guztiak zehar estilora eramán daitezkeen bitartean, interjekzioari dagokionean ez da horrelakorik gertatzen;

- (338) (a) *Joan da* esan du —> Joan dela esan du
(b) *Joan da?* galdegin du —> Joan den galdegin du
(c) *Zoaz!* agindu dio —> Joateko agindu dio
(d) *Kaixo* oihu egin du —> ?

Dena den, *perpaus* ez bada ere, perpausaren ordaina bada. Esklamatiboaren ordaina, noski. Eta askotan beste esklamatiboaren alboan, edo tartean, paratzen da, aposizio gisako zerbait osatuz:

- (339) (a) Oi!
(b) Ene!
(c) O, zein aizen eder loa! (Lizardi, 138)
(d) Ene! Gure biotzen / erdibitza! (Lizardi, 78)
(e) Bular yoritik ez aut, / ene!, ikusiko/ zalapartan edaten (Lizardi, 78)

Esangurari dagokionean, berriz, aski zabala gertatzen da interjekzioa, ordezka ditzakeen esklamazio guztietara irekia, alegia. Eta berbaldiaren testuinguruak mugatuko du kasu bakoitzean zein den esanahi zehatza. Esangura desberdinak ditu, beraz, interjekzio bakoitzak, inguruaren arabera zehazten direnak. *Ene!*, esate baterako, ustegabea eta harridura adierazteko erabiltzen dugu, baina zer da zuzen-zuzen esan nahi duena, *hau pena, hau poza, hau beldurra!...?* Testuinguruak agintzen du horretan. Interjekzio balzuk, noski, besteak baino zabalagoak eta mugatu gabeagoak dira.

Interjekzioak, azkenik, berezitasun jakinak ditu intonazioari, hotsen kantitateari etabarri dagokienean. Besteren artean aipatzekoa da, noski, haren eta ondoko perpausaren artean gertatzen den etena, idatziz eskuarki koma batez, harridura markaz edo antzekoren batez seinalatzen dena.

3.1.2. Berez eta beti interjekzio diren hitzen ondoan —*ai!*, *eup!*, *aupa!*, *epa!*, *txo!* *txut!* (B)...— badira bestelakoak izanik, izenak eta aditzak batez ere, interjekzio gisa ere usu edo ez hain usu erabiltzen ditugunak: *ama!*, *Jesus!*, *hara!*, *begira!*, *ene!*, *soizu!*, *baina!*... Hitz hauek, noski, interjekzioaren zeregina betetzera pasatzen direnean, berezko esangura galdu egiten dute eta interjekzioari dagokion esanahi berria hartzen dute. *Ama* hitzak, adibidez, oso esangura diferentea du ondoko bi perpausotan:

- (340) (a) Nere aitak amari gona gorria ekarri dio
(b) Ama! Zer zen gero hura!

Eta norbaitek harriduraren harriduraz *aitaren!* esaten duenean, erabiltzen duen *aita*-k ez du goiko perpausokoarekin zerikusirik.

3.1.3. Interjekzioek, ikusi dugun bezala, ez dute hizkuntzaren alderdirik behinenean artean aparteko lekurik, haren egituratzean alboko zeregina betetzen baitute. Halere, hizkera espresiboari dagokionean badute garrantzirik eta, hori dela eta, gogoratzeak dira beharbada zenbait gramatikariren oharrak:

a) Hizkuntza eta beronen baliabide espresiboak, interjekzioak barne, ondo ezagutzen ez dituzten hiztunek bestelako hitzak hartu eta intonazio berezia emanaz interjekzioaren lekuan erabiltzeko joera dute: *gizoon!, neskaa!...* Edota, bestelakoak galduxeak dituztenez, maila eta testuinguru guztietako hizketak interjekzio berberaz hornitu eta josteko ohitura dute, besterik ezean, horrela espresibitate indarra galduz edo hizkuntza maila diferenteei zor zaien egokitasunean huts eginaz.

b) Euskalki bakoitzak bere interjekzioak sortu ditu eta zenbaitetan batasuna badago ere, beste askotan aniztasuna da nagusi.

3.2. Interjekzioen sailkapena

3.2.1. Gorago ere esan dugun bezala bi sail handi berez daitezke hastehastetik interjekzioen artean, beren erabilpena kontutan hartzen badugu:

a) *Berezko interjekzioak*, hau da, beti interjekzio eta hori baizik ez direnak. Hauetako batzuk —*uf!, et!, oi!, ai!...*— mintzaira artikulatuaren muganuetan aurkitzen badira ere eta jatorria, seguruenik senaz jaulkiriko oihuetan badute ere, ez dira besterik gabe azken hauekin nahasi behar. Amildegian behera doanari berez ateratzen zaion *aaa* oihu luze-eroa ez da interjekzioa. Hau, izan ere, konbentzios finkaturiko oihua baita, ez istintu hutsez jaulkia. Horrexegatik, konbentzios finkatuak direlako alegia, ditu hizkuntza bakoitzak bere interjekzioak, gutxi edo asko besterenetatik desberdinak.

Horrelako interjekzio zenbaitek hizkuntzaren ohizko joera fonetiko-fonologikoak gainditu egiten ditu. *Uf* eta *eup* interjekzioak, adibidez, bereziak dira alderdi horretatik, ez baita ohizkoa euskal hitzak *-f* edo *-p* hotsez amaitzea.

Gainera, jatorria gorabehera gaur berezko interjekzio diren batzuk —*kaixo!, alajaina!, utikan!, bantzut!...*— ez dute inolako zerikusirik istintuzko oihu horiekin eta zeinu artikulatuen itxura garbia dute.

b) *Interjekzio gisa erabiliak*, hau da, berez bestelako hitz-klase edo hitz-multzo izanik interjekzio gisa ere erabiltzen direnak:

- Hitzak: *ama!, ene!, hel!, tira!, baina!, oto!, arren!, alde!, kasu!, agur!...* Mota desberdinetako hitzak pasa daitezke, beraz interjekzio izatera. Interjekzio gisako erabilera hau, dena den, batzutan hesteetan baino finkatungo dago.

- Esaerak edo sintagmak: *aitaren!*, *beharrik!*, *kontuz!*, *arrano pola!*, *deabrua!*...

3.2.2. Esangurari jarraikiz ere sailkapen eta zerrenda bat baino gehiago egin izan da: harridura, baiezpena, alaitasuna, larritasuna, nazka, arreta-deia (eta gizakiei zein abereei deitzeko erabiltzen diren oihuen zerrenda luzeak, euskalkitik euskalkira diferenteak, ematen dira), irria, mespretxua eta antzekoak sailkatzen ditu batek. Besteak, berriz, agurrak, deiak, erakartze-oihuak, ustekabea, nazka, harridura, eta abar hartzen ditu sailkapenaren irizpidetzat. Hirugarrenak, aldiz, oihuak, zin-hitzak, biraoak dei-hitzak, agurrak, irainak eta gisakoak berezten ditu.

Horrelako sailkapenak, ordea, ez dira erraz arrazoizko sistema zehatz batera biltzen. Nola zehaztu zenbat eta zeintzu diren berezi beharreko sailak? Eta nola mugatu interjekzio jakin bat sail honetakoa dela eta ez hartakoa?. *Ene* harridurazkoa dela esate baterako, eta ez ustekabea nahiz mina adierazten duena? Interjekzio batzutan hori egitea posible bada ere, beste zenbaitetan ez dirudi oso erraza.

Hori dela eta, horrelako sailen berezketa egitea eta, batez ere, sail bakoitzeko zerrenden burutzea hiztegiarako eta lexiko lanetarako utzi behar dela dirudi.

3.3. Bestelako esapide esklamatiboak

Zehatz eta estu hartuta interjekzio ez badira ere, interjekzioen inguruan aipa daitezke baitare nolabait finkaturik erabiltzen ditugun esapide esklamatibo zenbait.

a) Batzuk esaldi zatiak dira, gainerakoa isilpean edo uzten dutenak: *eskerrik asko!*, *egun on!*, *hau da, hau!*, *baldinba!*, *behazak honi!*, *jakina!*... Horietako batzuetan ez da nekeza isilpean utziriko esaldi zatia zein den antzematea: *eskerrik asko (ematen dizut)*.

b) Beste zenbait, egitura esklamatiboak dira, hots, hitz diferentez bete daitezkeen egiturak:

- *Bai* + Izenondo/aditzondo: *bai ederra!*, *bai ederki*... Egitura honetan izen-izenondoen ordena aldatu egin daiteke, tartean etena sartuz: *bai etxe*

ederra —> *bai ederra, etxea*. *Bai* gabe ere eraman daiteke aldaketa hori: *ederra, etxea!*

- *Erakustea* + izena: *hau mutila!, hori neska!, hura hotza!, haiek egunak!...*


- *Genitiboa* + izenondo Mugatua: *Egunaren ederra!, gauaren iluna!...*
Posesiboak erabiltzen dira usu horrelako egitura esklamatiboan:

- (341) (a) *Ai nire galduba!* (Mogel, 77)
(b) *Hay nere miserable!* (Muruzabal, 13)
(c) *Ay nere zorigaiztokoa!* (Lardizabal, 231)
(d) *Zuen bildurtiak!* (Mendiburu)

- *Geroaldia* + *ai*:

Deahruak eramango ai au (Mendiburu)
luoko ai aiz (Mendiburu)

- *ai* partikula: *ailetsa*
ailedin gal!



**LAUGARREN ATALA:
ERASKINA**

1. HITZ ORDENA

1.1. Izen sintagmen eta perpausaren barneko elementuen ordena

Izen sintagmaren egitura aztertu duguncan (ikus Bigarren Atala, 21-208 orr.), zenbait ohar egin ditugu haren barnean elementu desberdinek izan dezaketen ordenaz eta posizioaz. Zehazturik geratu da han izen sintagmaren osagai horiek har dezaketen tokia. Horrela, eta adibide gisa, izenondoek izenaren eskuineko parte hartzen dutela esan da. Jentilizioak izan ezik, gainerako izenondoak izenaren ezkerreko partean paratuz gero, izen sintagma ez gramatikal bihurtzen da, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

- (1) (a) Gizon handia
(b) Etxe txikia

vs.

- (2) (a) *Handi gizona
(b) *Txiki etxea

Beste batzutan, berriz, delako izen sintagma horren barneko osagaien ordena aldatuz gero, izen sintagma berri bat sortzen zaigu:

- (3) (a) Etxe zaharra
(b) Zahar etxea

Azkeneko adibidean ikusten den bezala, esanahia zeharo aldaturik geratu da hor: *zaharra den etxea* vs. *zaharrak hizi diren etxea* (*apez etxea* bezalatsu). Adibide guzti hauetan izen sintagma bezalako osagai jakin batean hitz ordenak duen garrantzia agerian jartzen zaigu. Zernahi gisaz, gure helburua ez da hemen sintagma unitate guztietan agertzen den arazo hau sakontzea edo argitzea, baina perpausaren barnean osagai direnen artean bera nola agertzen

den poxiño bat agerteraztea. Zein da, bada, perpausaren barneko sintagmen ordena?

Egia da, nolana ere den, izen sintagmen barruko ordenaren eta perpausaren osagaien ordenaren artean nolabaiteko erlazioak egon daitezkeela. Hizkuntz tipologian halako erlazioak aurkituak izan dira maila desberdinetako unitateen barnean kausitzen ditugun ordenazko datuetan. Adibidez, izen sintagmaren barnean, eratorketan, elkarketan edo aditzaren beraren barnean ere aurkitu ohi diren ordenek perpausako osagaien artekoarekin zerikusirik badutenentz galde daiteke. Halaz guztiz, ez gaitzke gu bide horretatik abia. Alde batetik, erlazio kontu horietan gauzak ez baitira beti oso garbi eta bestetik, berriz, uste baitugu, horrela eginez, gramatika honen mugetatik harago gindoazkeela. Hortaz, perpausaren ageri diren hitzen ordena zehaztera mugatuko gara.

Esan dezagun, hasteko, hemen aipatzen dugun gai hau zerbait ukitua eta erabilia izan dela jadanik, gure gramatika honen lehenbiziko atalean (ikus 14-20 orr.) perpausaren egitura orokorki aurkeztean. Baina gaia hain axaletik ukitu denez gero han, berriz ere arazo haletara itzultzea eta piska bat barnekiago ikertzea komeni dela iruditu zaigu. Horra berriz ere gai berera etortzearen arrazoia.

Ongi aski dakigun bezala, eta gramatika gehienetan aipatua izan da kontu hau, hitz ordena aski libroa dugu euskaraz. Bi arrazoirengatik gertatzen da halaxe:

1) Osagaien zeregin gramatikala (edo gramatika funtzioa) ez baitu tokiak markatzen.

2) Eginkizun edo funtzio horiei ez baitagokie toki finko ezin aldatuzkorik.

Horiek horrela izanik, maiz esana izan den bezala, ordenak beste gisa batez garrantzia badu, eta delako orden askatasun horrek, ondorioz, bere mugak ere bai.

Argi dezagun guzti hau adibide batean. Demagun perpaus batean osagai gerta daitezkeen elementuen segida hau dugula:

aditza: *eman dio*

beste osagaiak: *aitak, haurrari, sagarra*

Ithurry joan den mendean ohartu zen bezala, lau elementu horiek manera guztietan kombina daitezke eta konbinazio horien ondorioz perpaus zerrenda luzea egin daiteke, perpaus guzti horiek ongi moldatuak direlarik. Orotara 24 perpaus dira:

- (4) aitak sagarra haurrari eman dio
 aitak sagarra eman dio haurrari
 aitak eman dio sagarra haurrari
 aitak eman dio haurrari sagarra
 aitak haurrari eman dio sagarra
 aitak haurrari sagarra eman dio
 sagarra haurrari aitak eman dio
 sagarra haurrari eman dio aitak
 sagarra aitak haurrari eman dio
 sagarra aitak eman dio haurrari
 sagarra eman dio haurrari aitak
 sagarra eman dio aitak haurrari
 eman dio aitak sagarra haurrari
 eman dio aitak haurrari sagarra
 eman dio sagarra haurrari aitak
 eman dio sagarra aitak haurrari
 eman dio haurrari sagarra aitak
 eman dio haurrari aitak sagarra
 haurrari aitak sagarra eman dio
 haurrari aitak eman dio sagarra
 haurrari eman dio aitak sagarra
 haurrari eman dio sagarra aitak
 haurrari sagarra aitak eman dio
 haurrari sagarra eman dio aitak

Perpaus guzti horiek sortzen dira adizkiaren bi osagaiak aldatu gabe utzirik. Haiek ere bereziz gero eta goiko konbinazio horietan sartuz, ehun perpaus baino gehiago molda daitezke: *aitak dio sagarra eman haurrari*, *sagarra dio eman aitak haurrari*, e.a.

1.2. Hitzen ordena eta esanahia

Zerrenda luze horren aurrean zenbait galdera egin ditzakegu. Perpaus hauen esanahia aldatzen dea? Egiten ez bada, esaldi guztiak gramatikalak izanik ere, denek molde berean jotzen al digute belarria? Eta bata bestearen ordeztu librok erabil al ditzakegu? Galdera hauei erantzuna ematen saiatzean hobeki agertuko

zaigu —neurri batean bederen dudarik ez da— hitz ordenaren arazoak gure hizkuntzan hartzen duen itxura.

Esanahiari dagokion aldakuntzarik badenentz ikus dezagun lehenbizi. Jakina, oroz lehen, *esanahi* hori zuzen zer den galde daiteke. Bistan da gauza bat baino gehiago izan daitekeela. Guk, halere, molderik hertsienean ulertuko dugu hemen: alegia, mezuaren edukina ahal bezain konkretuki jasoz, eta solas inguruari datxezkon gorabeherak baztertuz eta albora utziz. Beraz, hitzek beren aldetik duten loturagabeko esanahiaz ari gara orain, neurri batean behintzat inguruari kasurik egin gabe.

Argi ikus daitekeen bezalaxe, alderdi horretatik ez da aldakuntzarik kausitzen gure adibideekin: perpaus bakoitzean emate ekintza bat adierazten da eta ekintza horretan parte hartzen duten hiru elementuak gisa berean, hiruretan eginkizun semantiko eta gramatika funtzio bera izanez, agertzen dira: aldi bakoitzean *aita* da emalea eta subjektua, *haurra* da eskuratzaila eta zeharkako objektua eta *sagarra* da, azkenik, emana eta objektua.

Ez da horretan deus harrigarrik, deklinabidea aurkezten genuenean esandakoak kontuan hartzen baldin baditugu, izen sintagmaren gramatika funtzioak, leku-denborazkoak bezala, kasu markak adierazten dituztela euskaraz, alegia. Ez tokiak, beraz. Are gehiago dena, adibide hauetan ikus daitekeen bezala, ez dirudi, osagaiak beren gramatikazko izatearen edo kasu markaren arauera beti toki berean agertu behar dutenik. Horra, bada, zergatik diogun libro dela euskaraz hitz edo sintagmen ordena.

Horiek horrela, bigarren galderari erantzungo diogu orain. Perpaus hauen esanahia aldatzen ez baldin bada, denek molde berean jotzen al digute belarria? Zehazkiago mintzatuz, perpaus horiek bata bestearen ordeztatu erabil al ditzakegu besterik gabe?

Gogoan har, lehenik, hasieran ikusi dugula perpausen esanahia (zentzurik hertsienean) ez dela aldatzen hitzen ordena aldatuz. Perpaus guzti hauek molde berean jotzen diguten belarria galdetzen dugunean, perpausa bere hutsean bakarrik ez, solas ingurumena ere edukitzen dugu kontuan, zeren orain perpaus hauek *noiz* erabil ditzakegun ikusi behar baitugu.

Kontsidera ditzagun, adibidez, honako bi perpaus hauek:

- (5) (a) Sagarra haurrari aitak eman dio
(b) Aitak sagarra haurrari eman dio

Lehen esan dugun bezala, gisa batez ber edukina dute bi esaldi hauek. Halaz guztiz ere, edozein euskaldunek sendi dezakeenez, ez ditugu biak elkarren pareko. Zertan datza, bada, bien arteko aldea? Horren adierazteko bide bat baino gehiago dagokeen arren, saia gaitezen esplikazioren bat ematen. Hasteko, badirudi bi perpaus hauek auresuposizio desberdinak dituztela esan genezakeela. Lehenbiziko perpausuan, (S.a.)ean alegia, badirudi hiztunak aurretik jakintzat ematen duela norbaitek sagarra haurrari ematen diola eta norbait hori nor izan daitekeen zehazteko erabiltzen dugula. Perpaus horrek, ondorioz, norbait hura zehazki nor den adierazteaz beste helbururik ez du. Ondoko perpausuan, ordea, badirudi aitak sagarra norbaiti eman diola aurretik jakina den zerhaintzat daukala hiztunak. Horixe da, hain zuzen ere, datiboan agertzen den izen sintagma zehazten duguna.

Azalbide hau hertsiki lotua dago, Altubez geroztik bereziki, gure gramatika tradizioan oso ezaguna den beste hati. Alabaina perpaus bakoitza galde zehatz baten ihardespena bailitzan kontsideratzen baldin badugu, ez dute perpausoko osagai guztiek ber pisua edo garrantzia. Haien artean bada bat, nolabait esateko, galde horri zuzenki eta zehazki ihardesten diona. Hain zuzen ere, berau, *galdegaia* deitu ohi dugu, eta tokiaren edota doinuaren bidez seinaltatzeko aukera dugu.

Gure bi adibideetan bi perpausok galdegai desberdinak izanki (*aitak*, Nork sintagma subjektua lehenbizikoan; *haurrari* Nori sintagma zeharkakoa bestean), horrexetan datza bien arteko diferentzia, eta horretatik heldu da bata bestearen orde zehazteko gaiztasun eta ezintasuna. Horrek esan nahi du gramatika egituraren ondoan beste egitura bat ere agertu zaigula, hemen mintzagai egitura deitutako duguna. Beraz bi egitura, bata bestearen gainean, ageri zaizkigu perpausetan: *funtzio egitura* eta *mintzagai egitura*. Lehenbizikoak funtzioekin du zerikusia, kasuek ematen dituzten informazioarekin alegia. Bigarrena, aitzitik, informazio klasean eta hizketaren uniberisoan oinarritzen da.

Puntu honetara ailegatu garenez, hitz ordenaren arazoa hobeki ulertzen ahal dugu orain. Ordena libroa dugu euskaraz, elementuen eginkizun edo funtzioak batziki ez baditugu kontuan hartzen; ez da libroa, ordea, perpausaren bigarren egitura ere, mintzagaiarena, gogoan atxekitzen badugu.

Perpausuan bi maila bereizten ditugula ikusi dugu. Berehala galdera bat datorkigu burura: bi maila eta egitura hauek zeharo askeak dira elkarrengandik? Aia, badute elkarren artean zerbait lotura?

Gutziz loturarik gabekoak baldin balira, hitz ordena emaitza gramatikaletatik arras kanpo den arazoa dugula pentsatu behar genuke. Lotura zerbait baldin bada, aitzitik, emaitza horiek beren eragiketa senti eraziko dute mintzagai egituraren barnean ere, eta guztiz beharrezkoak izanen zaizkigu hitz ordenaren arazoa argitzeko. Hor planteiatu ditugun galderei zuzenean ihardetsi baino lehenago, hobeki muga ditzagun, mintzagai egitura deitu dugun horren zutabeak diren oinarritzko bi kontzeptu: *mintzagaia* eta *irazkina*.

1.3. MINTZAGAIA

1.3.1. Definizioa

Euskaraz mintzagaia deitzen dugun honek izen diferenteak hartu izan ditu ondoko hizkuntzetan. Horrela, *tema* edo *topikoa* ere deitu ohi zaio inguruko erdaretan.

Mintzagaiaren zehazki definitzea oso zaila da, beste arrazoen artean, gauza bat baino gehiago izan baitaiteke. Esan daiteke *informazio zaharra edo jadanik ezaguna biltzen duten elementuek osatzen dutela*. Beste batzutan, diskurtso edo solasaren *unibertsoa* finkatzen duena dela ere esaten da. Bi definizio horiek elkarren osagarri izan daitezke, ikusiko denez, eta ez dira nahitaez kontrakoak, sarritan informazio zaharra solasaren oinarri gertatzen baita eta elementu berriek zein kontestutan toki hartzen duten erakusten baitu.

Dena dela, ohar zenbait egin beharrak gara hemen: egia bada ere informazio zaharra biltzen duten elementuek osatzen dutela mintzagaia, ezin dugu atzendu mintzagaiak informazioaren aldetik berri diren elementuak ere bil ditzakela, geroago ikusiko dugun bezala. Gainera, aditzaren kasuan bereziki, informazio zaharrari edo aurretik ezagunari dagozkion elementu guztiak ez ditu beti biltzen.

Ororen buru, ideia orokor horietarik abiatuz, mintzagaia perpausetako predikazio oinarriari dagokiola esan genezake. Nolabait argitzeko, elearen azpia edo markoa finkatzen du, ekartzen den informazioari eremu bat ematen diolarik. Hobeki ulertuko dugu guzti hau ondoko adibide honekin. Adibide honetan agertzen den mintzagaia *markatua* dela esanen dugu, gerorako utziz zer ulertzen dugun markatua izate afera horretaz:

(6) *Liburua* nik hartu dut; *paperak*, berriz, ez dakit nola galdu dituen

Adibide horretan, *liburua* lehen perpausean eta *paperak* bigarrenan, mintzagai ditugu: esaldietan hiztunak adierazten duena haiei buruz zuzendua da, haiek finkatzen digute solasaldiaren unibertsoa eta perpausaren markoa. Koordinazio bat baita kasu horretan, ohart nola bigarren perpausean, lehenean bezalaxe, *nor* sintagma, hemen objektua, den mintzagai. Ez bide da kasualitatea, zeren solasaren haria eta koherentzia tematikoa hauts baikenezake beste elementu bat haren orde z emanaz:

(7) ?*Liburua* nik hartu diot; *hark*, berriz, ez dakit nola galdu dituen paperak

Bestalde, seinalagarria da nola bigarren esaldian, mintzagai den elementua (*paperak* edo *hark*) perpaus konpletibotik aterea den, duen jatorrizko perpausetik kanpo alegia:

(7') ... paperak ez dakit [nola galdu dituen ___]
p

Ikus daitekeenez, perpaus konplexuetan mintzagai markatu hauek propietate bereziak dituzte, tokian dagokionez behinik behin. Urrunegi ginderamatzake orain arazo hau sakontzeak, baina on zen aztertzen dugun puntu hau horrelako ondorioei lotua dela ohartaraztea.

Eman ditugun adibideetan mintzagaia hanpatua edo puztua dago. Halaz guztiz, bestela ere gauza bera suertatzen da. Koordinazioa, esate baterako, mintzagaiarekin egiten dugu:

(8) Poliziak lapurra zauritu zuen eta ospitalera joan zen

Badakigu perpaus horretan *polizia* joan zela ospitalera eta ez lapurra. Mintzagaiaren mailan suertatzen delako koordinazioa dakigu hori. Hobeki azal dezagun orain nola gertatzen den mintzagaiaren arazo hau euskal perpausetan.

1.3.2. Mintzagai isildua

Lehenik, hasteko, esan behar da delako mintzagaia ez dela beti ikusten (edo entzuten), dela isilean atxekia delako, dela adizkerak berak komunztadurari esker agerian uzten digulako zein den:

- (9) (a) Oinez etorriko naiz
(b) Nik hartuko dut

Perpau hauetan zenbait elementu isilean utzi dugu: horrela, badakigu *ni* naizela oinez etorri dena eta (9.b).ean hartzeko den hori dela ezkutuan dena: isilean dauden bi elementu horiek mintzagai direla kontsidera dezakegu.

1.3.3. Mintzagai hanpatua

Sarri askotan, halere, enfasi berezia eman nahi diogunez mintzagaiari, ez dugu isilean uzten eta perpauaren hastean jartzen dugu. Mintzagai enfatiko edo hanpatu hau irazkinaren ezkerrean ageri da komunzki eta beraren ondoren pausa bat bezala izaten da, perpauaren etendura seinalatzeko dugularik horrela. Berdin gertatzen da balezko nola ezezko perpauetan:

- (10) (a) *Etxe horretan*, gu bizi gara
(b) *Etxe horretan*, ez da inor ere bizi
(c) *Ardo hau*, oso merke erosi dut
(d) *Ardo hau*, ez dut merke erosi
(e) *Ardo hau*, eman (egin) didate
(f) *Atzo*, mozkortu (egin) nintzen
(g) *Atzo*, zer egin zenuen?

Ber perpausean, elementu bat baino gehiago izan daiteke mintzagai, ondoko adibideak erakusten duen bezala:

- (11) *Goizean, luntokian, nagusiek eta langileen ordezkariak*, oso biltzarre luze eta kalapitatsua izan zuten

Zenbait kasutan ez da mintzagaia horrela bera bakarrik eta huts huts agertzen eta morfema batzuren laguntzarekin hanpatzen dugu. Hori gertatzen da maiz *behintzat*, *aldiz*, *aitzitik* eta beste batzurekin:

- (12) (a) *Ni*, behintzat, han nintzen
(b) *Zuri*, aldiz, ez nizuke halakorik egingo
(c) *Hark*, aitzitik, autoa hartu zuen
(d) *Zurekin*, berriz, edozein tokitara joango nintzateke

Ohar gaitezen guzti horien parean jar daitezkeen honakook ez direla, ordea, gramatikalak:

- (12') (a) *Han ni behintzat nintzen
(b) *Halakorik ez nizuke zuri aldiz egingo
(c) *Autoa hark aitzitik hartu zuen
(d) *Edozein tokitara zurekin berriz joango nintzateke

Ikusten denez, perpaus osagai den edozein sintagma izan daiteke mintzagai, edozein kasutan izanik, edozein gramatika funtzio izanik. Hala ere, aditzari datxezkon baldintza batzu badira.

1.3.4. Mintzagaia eta aditza

Batzutan gauzak piska bat nahasiago gertatzen zaizkigu eta ez dira hain errazak:

(13) Irakasleak kanpora haurrak eramán zituen

Gure adibidean, *kanpora* oso lotua zaio aditzari eta nekez joan daiteke mintzagai hanpatu baten posiziora, oso solas inguru berezia behar baita horretarako. Lokatibo askorekin gertatzen zaigu gauza berbera. Aipatu lokatibo hori aditzarekin doa eta aditza, geroago zehaztuko dugunez, irazkin elementua da, hau da, irazkinaren barnean agertu ohi da. Mintzagai gisa agertzen denean, oso itzuli markatuak nahi izaten ditu:

(14) (a) *Bizi*, ondo bizi da hori
 (b) *Jakin*, badakit
 (c) Baztanen sortu nintzen eta *hil* ere, Baztanen hil nahi nuke

Ikusi dugu lehen mintzagaia, ardura, informazio zaharra biltzen duten elementuek osatzen dutela esaten dela. Partez egia izanik ere, azalpen bat eman behar da hemen, zeren aditzaren kasuan ez baita horrela gertatzen. Galdetzen duguncan, esate baterako, *nor etorri da?* eta horri erantzuten *aita etorri da*, *etorri* aldeztetik ezaguna da: aditz horren esanahia informazio zaharrari dagokio. Bizkitartean, erantzunean agertzen denean, ezin izango da mintzagaiaren barnean agertu, gure adibidean ikusten den bezala, hain zuzen ere, aditza berez predikatua den aldetik, irazkineko elementua baita.

Bestalde, mintzagai diren osagaiak ez dira beti aldeztetik ezagunak. Alabaina informazio berria dakartenek mintzagai izaera har dezakete batzutan, dela aurkaritzako jokoetan, dela perpausoko osagarri guztiak *berriak* diren kasuetan. Adibidez, *zer gertatu du goizean?* galderari erantzuna ematen diogunean, *anaiak autoa garbitu du* esan dezakegu eta erantzun horretan, *anaiak*, nahiz informazio berria dakarren, mintzagai izaera du hor. Perpausari segida eman nahi izanez gero, mintzagai egitura bera gordetzera bortxatuak gara:

- (15) (a) ... eta *nik*, *euxea*
(b) ... *ama* berriz, merkatura joan da
(c) ... eta \emptyset , lanera joan (da)

1.4. IRAZKINA

1.4.1. Definizioa

Irazkina delako honi *errema* ere deitu ohi zaio eta, orain artekoa kontuan izanik, argi ikusten da mintzagaiaren kidea dugula edo, hobeki esateko, haren osagarria.

Esan izan da irazkina informazio berria dakarten elementuek osatzen dutela, baina definizio hau gure ustez estuegia da eta ez digu arras gogoia betetzen, nahiz baduen dudarik batere gabe zerbait funts. Dena den, eta informalki, hemen, irazkina, predikazioaren edukina biltzen duten sintagmek osatzen dutela esanen dugu. Beraz, mintzagaiari buruz esaten dena gorpuzten duela dirudi. Jakina, predikazioaren ardatza denez gero, irazkinari dagokion elementua da aditza.

Gramatika askotan *irazkina* eta *galdegaia* nahasirik agertzen dira, baina hobe litzateke bi kontzeptuak elkarrengatik bereiztea. Galdegaia, hortaz, irazkinaren barnean *hanpatua* den elementu gisa kontsidera genezake. Kontzeptu hertsia goa, beraz. Horrenbestez, ohar gaitezen mintzagaiaz hitz egin dugunean ere mintzagai *hanpatua* ager zitekeela esan dugula. Bada, hemen ere antzera: irazkinaren barruan elementu bat ager daiteke denen gainetik nabarmen eta hori izanen dugu galdegaia.

Ordena ez markatua duen perpaus batean ikus daiteke guzti hau:

- (16) Patxik esnea edan du

Perpaus horrek, jakina denez, bi interpretazio diferente izan ditzake: batean, *esnea* ez da hanpatua, zer genatu den edo Patxik zer egin duen besterik gabe esaten baitu. Beste interpretazio batean, alabaina, Patxik *zer* edan duen esaten da hiztunak (aurkaritzako joko batean ikusten den bezalaxe: *eta ez ardoa*).

Irazkina (hau da, *esnea edan du*) berdina da bi interpretazio horietan, baina bigarren interpretazioan baizik ez da agertzen galdegaia (*esnea*). Esan gabe

doa, mintzatzen garenean, desberdinketa hori ederki egiten dugula, *esnea edan du* ez baita bietan molde berean esaten.

Irazkina aditzaren inguruan biltzen da eta mintzagaiari dagokion elementurik ezin daiteke sar aditz eta irazkinaren beste elementuen artean:

(17) *Hementxe bertan ni bizi naiz

Ordena aldatuz gero, ez dago arazorik:

(18) Ni hementxe bertan bizi naiz

Irazkineko osagarri bat hanpatua delarik, hau da, perpaus batean galdegaia izaten delarik, aditzaren ezker aldeko lehen posizioa hartu ohi du osagarri honek. Oihartzunez bezala, galdegai horren ezkerrean doazen beste osagarriak mintzagai gisa hanpatuak dira. Bestela esan: galdegaia agertzen baldin bada esaldian, galdegaiaren ezkerreko mintzagaia beti hanpatua izanen da.

(19)	liburua,	nik	irakurri dut
	└───┘	└───┘	└───┘
	mintz. hanp.	gald.	aditza
		└──────────┘	
		irazkina	

Egia esateko, eta gero ikusiko dugun bezala, puntu hauek ez dira beti arras betetzen. Hala ere, nolabaiteko ordena kanoniko bati dagozkiola irudi luke.

1.4.2. Galdegaia zer den

1.4.2.1. Garrantzi handikoa da galdegaia euskal joskeran, hitz ordena kontuetan bereziki. Nahiz aski zail den haren hertsiki mugatzea, lehen esandakoa ontzat eman daiteke, hau da, irazkineko osagarri baten enfasiari edo hanpatzeari dagokiola, dela kontraste batean eraikia delako, dela irazkinaren elementu bakarra delako.

Esan bezala, aditzaren ezkerrean ezarri ohi da:

- (20) (a) Bihar, *aita* etorriko (ez ama)
 (b) Aita, *bihar* etorriko da (ez etzi)
 (c) *Qinez* joango naiz, ez autobusez
 (d) Joan, *neu* joango naiz

Galdegai badelarik, hark mamitzen du perpausaren informazio edukia, gaineratikoa aurretik ezaguna balitz bezala. Irudi luke galde zehatz bati erantzuten diola (gure adibideetan: *nor etorriko da bihar?* bihar norbait etorriko dela aurretik finkatua delarik; *noiz etorriko da aita?* aita etorriko dela aitzinetik emana delarik; *nola joango naiz?* joango naizela auresuposatzen dugularik).

1.4.2.2. Nahiz ez den hori ezin hautsizko erregela, komunzki, ordena markatua duten perpausetan, aditzaren ezkerrean den osagaia galdegai izaten da. Aldiz, ordena ez-markatuan, intonazioak esango digu aditzaren ezkerreko elementua hala denentz, hanpatua ez den irazkineko osagarria ere izan baitaiteke.

- (21) (a) Liburu hau *amak* eskaini dit
(b) Aitak *autoa* erosi du

1.4.2.3. Galdetzaileak, galdegai direnez gero, aditzaren ezkerrean agertu ohi dira:

- (22) (a) Bihar, *nora* joango zara?
(b) Piarres, *norekin* etorri da?

1.4.2.4. Osagarri guztiak izan daitezke galdegai, aditza bera ere bai. Aditza galdegai delarik, zenbait euskaldunek *egin* erabiltzen dute adizkera lagunduetan, forma perifrastikoetan alegia. Adibidez,

- (23) Liburua *ebatsi* egin dut

Beste batzutan, *egin*, irazkinean bakarrik dagoen aditz baten laguntzera heldu da, adibide honetan bezala:

- (24) Zer egin duzu?

Galdera horri erantzuna ematen diogunean, bi bide izaten ditugu, hizkera zenbaitetan:

- (25) Kanpora atera naiz

nahiz,

(26) Atera egin naiz

Lehenbiziko galderaren erantzunean aditzak badu irazkineko beste elementu bat ondoan eta, horrenbestez, den bezala ager daiteke, bera bakarrik. Bigarrenean, berriz, aditza bakarrik denez irazkinean, *egin* aditzaren laguntza hartzen du. Gauza bera ikusten da ondoko adibide honetan:

- (27) Lengo igandean, Moxolo eta ni asi gaituk zaragia esku batez jaso baietz eta ezetz, ta *galdu eginnian* (T. Agirre, *Garoa*)

1.4.2.5. Aditz trinkoa dugunean, aditza bera baldin bada galdegai, edota irazkineko elementu bakarra (edo, oraino, aditzaren baieztapena dugularik galdegaia), *ba-* aurrizkia lotzen zaio.

Alabaina, joera bizi bizia dugu trinkoan jokatu aditzak perpaus eta irazkin hastapenetan ez erabiltzeko (salbu agintekeran):

- (28) (a) ?? Dator laguna
(b) ?? Dakit hori
(c) ?? Zuk behintzat, daukazu

Literaturan horrelakoak aurki daitezkeen arren, komunzki asertzio marka lotu ohi zaio adizkerari, edo irazkineko elementuren bat ezkerretik sartu:

- (29) (a) Badator laguna
(b) Hor dator laguna
(c) Badakit hori
(d) Zuk behintzat badaukazu

Esan gabe doa, orduan, aditza *ba-*rekin gisa horretan agertzen delarik, aditzaz (edo honen baieztapenaz) beste galdegairik ez dagoela:

- (30) (a) *Gaur* dator, ez bihar
(b) ?*Badator* gaur, ez bihar
(c) *Euskaldunek berek* dute falta, eta *ez* euskarak (Axular, *Gero*, 108)

1.4.2.6. Bestaldetik, egia da solas mailek edo solas moldeek ere oso garrantzi handia dutela. Adibidez, zerbait kontatzen ari garenean, gertaera segida bat ematen denean, sarritan, aditza perpaus hasieran (hobeki esanez, irazkinaren hastapenean) eman ohi da, *egin* erabili gabe orduan, non ez den

azken aditzean. Hona hemen nola kontatzen digun Tx. Agirrek baserritarren ibilmoldea dema egunetan:

- (31) ... oso aurretiaz jakin ohi dute noiz, nondik, nortara edo non, zeintzuk eta zergatik izango duten demaren bat; biltzen dira gero sagardotegi edo ardangeletan (...); jartzen dira orkoaren edo emengoaren alde (...); jasotzen du batak bere gizon autua Ernio baño gorago ta jetxitzen du besteak itxasoko ondarretaraño; asten dira mingarritzko izak elkarri esaten; berotzen dira eztabaida zitalean irri ta ziri dabilzala; suak artzen ditu geiegizko jardun garratz amaigabeen; jokutzen dituzte bero-beroan aldean dituzten txanpon guztiak; ipintzen dituzte urlia edo sandiaren dema egin arteraño, ta (...) egun andi alaia zabaltzen danean, goitzxoago jaiki, etxeko lana zerbait egin, igandietako jantziak soñean jarri, aldiran diru apurrak sakelean sartu emakumien ixillik, eta badijoaz. (Tx. Agirre, *Garoa*, 82-83.orr.)

1.4.2.7. Galdegaiaren nolakotasunak ere garrantzi handia du. Adibidez, esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu. Konpara ditzagun honako biok:

- (32) (a) Tomasek *baietz* esan zidan
(b) Tomasek esan zidan, *berak erakutsi zidan bidetik joatekotan, zuk iaz presiatu zenion auto hura hartu beharko nuela*

1.4.2.8. Euskalkien arauera, itzuli bat baino gehiago erabiltzen da, galdegai markatzeari lotua. Hona hemen haietarik hiru:

1.4.2.8.1. Batzutan aditz laguntzailea aurrera pasatzen dugu, hau da, galdegaiaren eskuinaldeko lehen posizioan uzten. Ekialdean erabiltzen da itzuli hau, osagai bat galdegai gisa indartu gura denean:

- (33) (a) *Nik* dut egin
(b) *Zuk* duzu basoa hautsi

1.4.2.8.2. Adizki trinkoetan, aditza bera dugu errepikatzen zenbait aldiz. Bizkaiko zenbait tokitan egiten da, aditza galdegai delarik:

- (34) (a) Ekarri *dakar*
(b) Entzun *dantzu*

- (35) Irasten dabezan artean, ordiak erosten diarduala, entzun danizu (Mogel, *Peru Abarka*, 32.orr.).

1.4.2.8.3. Galdegai direnean, deiktikoek *-xe* atzizkia hartzen dute sarritan:

- (36) (a) Aitak *hauxe* esan zuen
 (b) *Aitak hauxe esan egin zuen
 (c) *Hauxe aitak esan zuen

1.4.3. Galdegaiaren tokia aldaraztea

Esanik dago galdegaiak aditzaren ezkerreko lehen posizioan duela kokalekua. Halaz guztiz, batzutan —euskara mintzatuari bereziki gertatzen da hau— intonazioak aipatu ordena hau hauts lezake, galdegaia aditzaren eskuinean ematen delarik orduan:

- (37) Hola segituz hemengo muthil guziak joanen dituzu, eta gu geldituko gira mutzurdin! (P. Larzabal, *Hiru ziren*, 15.orr.)

Azken esaldi honetan, ikusten den bezala, *mutzurdin* dugu galdegaia; oso modu bereziz esango da, pausa eginez aditzaren ondotik.

1.4.4. Galdegaia ezezkoetan

Adizki perifrastikoa denean galdegaia, baiezkotan gertatzen den bezala, aditzaren ezkerrean egon ohi da, aditz laguntzailea aurretik duelarik.

- (38) (a) Ez dut *nik* egingo, baina beste batek
 (b) Ez zara *zu* joango, baina beste bat
 (c) Lagunak ez ziren *oin*ez etorri, baina autobusez
 (d) Ez dut *lapuru*a, erosi (egin) dut

Batzutan, aditz laguntzailearen eta galdegaiaren artean, galdegaiaz gain beste osagai batzu ere sar daitezke, komunzki beti baiezkotako ordena atxekitzen delarik.

- (39) (a) Ez zuen Errege Antiokok barkhamendurik erdietsi (Axular, *Gero*, 139.§)
 (b) Ez dut liburutto haur leiratu handientzat egiten (Axular, *Gero*, 11.§)

Aditza trinkoa denean, galdegaia aditzaren eskuineko partean paratzen da:

- (40) (a) Haur hori ez da *gaixtoa*; pixka bat bihurria
(b) Aita ez dator *oinez*, baina autobusez

Esan dezagun, azkenik, galdegaia luzea eta korapilatsua denean, joera horiek ez direla berdin errespetatzen:

- (41) Ez dut esan, *honetako lana berak bakarrik inoren laguntzarik gabe egin dezakeela*

1.5. Gramatika funtzioen eta mintzagai egituraren arteko lotura

Hasieran galdetu dugu mintzagai egitura honek baduenentz zerikusirik gramatika funtzioekin. Beste modu batera egingen dugu galdera orain: hitz ordenaren arazoa argitzeko (mintzagai egiturari dagokiona, hain zuzen ere) elementu gramatikalak kontuan hartzeko al dira?

Baietz esan behar. Ikus dezagun bada zer gisaz.

Orain arte ikusitako guztia kontuan hartzen baldin badugu, honako hau litzateke mintzagai egitura:

Mintzagaia / Irazkina

Egitura hau, geroago esango dugun bezala, ez da beti horrela errespetatzen. Hala eta guztiz ere, mintzagaia hanpatua delarik eta oroz gainera aditza hondarrean delarik, ia beti atxekitzen dela esan genezake. Ez da dudarik horretan euskararen funtsezko joera bati dagokiola.

Bada, ordena ez markatuan, elementu gramatikalak ordenaturik sartuko dira mintzagai egitura horren barnean, honelako korrespondentzia gertatzen delarik:

mintzagai egitura:	mintzagaia / irazkina
gramatika funtzioak:	subjektua / objektua-aditza

Azalpen honek bi baieztapen egiten ditu: euskaraz badugula ordena ez markatu bat, alde batetik; ordena ez markatu horretan mintzagaiaren tokia izen sintagma subjektuak betetzen duela, eta irazkinarena, berriz, objektuak eta aditzak, bestetik.

1.6. Ordena ez markatua

1.6.1. Arazoa

Puntu hau nahikoa ezaguna da, nahiz ez den beti gramatikalariek nahiko luketen bezain garbi. Konpara ditzagun, hasteko, honako bi perpaus hauek:

- (42) (a) Piarresék sagarra jan du
(b) Sagarra Piarresék jan du

Biak, ez da esan beharrik, ondo daude. Baina edozein euskalduni bigarren honek, (42.b).ak alegia, molde berezi batez joko dio belarria. Ez du nolanahi esaten ahalko, baina bakarrik *nork* sintagma galdegai gisa dakarren inguru batean. Lehenbizikoa arruntagoa da, esan errazagoa, gisa batez. Azken hau, beraz, ez markatutzat joko dugu eta bestea, markatutzat. Begia eduki nola bietan mintzagaia eskuinean dagoen: *Piarresék* (42.a)an eta *sagarra* (42.b)ean. Ohartzen garenez, aldatu gabe atxekitzen da mintzagai egitura orokorra. Halere, gramatika elementuak trukaturik, delako mintzagai egituraren edukina ere aldatu geratzen da haren ondorioz, eta markaturik gainera, esan nahi baita, bai mintzagaia (*sagarra*), bai galdegaia (*Piarresék*), hanpatuak geratzen zaizkigula.

Gogoan hartu behar dugu, zernahi gisaz, markatze hori, hau da, mintzagai eta galdegaiaren hanpadura, ordena ez markatuan ere gerta daitekeela, baina intonazioak digu horren berri ematen eguneroko eleketan. Beraz, gure bi adibideak hartuz hiru esaldi mota bereiz ditzakegu:

	ord.	hanpad.
(43) (a) Piarresék sagarra jan du	ez markatua	-
(b) Piarresék sagarra jan du	ez markatua	+
(c) Sagarra Piarresék jan du	markatua	+

1.6.2. Ordena ez markatua eta osagaien gramatika funtzioak

Ordena ez markatua zein den jakiteko, hiru erizpide diferente balia ditzakegu, hirurak eztabaidagarriak bakarka hartzen baldin baditugu, baina hirurek ondorio bertsuetara garamatzatenez gero, egokitzen eman ditzakegu euskararen kasuan:

1) Euskaldunaren hizkuntz sena edo intuizioa. Hauxe da, hain zuzen ere goiko adibidearen kasuan erabili duguna.

2) Estatistika: maiztasun handiena duen ordena ez markatuzat joko da.

3) Perpaus menderatuetako hitz ordena. Hauetariko zenbaitetan ezinbesteko ordena erabili behar izaten dugu. Hauxe da oinarrizko ordenari darraiola kontsideratuko duguna. Egia da, nolana ere, ordena ez markatua eta oinarrizko ordena ez doazela beti elkarrekin loturik eta, hortaz, erizpide hau beste bietarik berezi behar litzateke menturaz. Halaz guztiz, puntu batean bederen erabilgarri gertatuko zaigu eta beste bi erizpideei kontrajartzen ez zaien neurrian, gure azterketarentzat ere balioko dugu.

Ez da hemen tokia, erizpide hauek erabilirik zer ondorio ateratzen den eztabaidatzeko. Esan dezagun, hitz batez, honako emaitza hauek ditugula:

- subjektua (S) aurrean ematen da, mintzagaiaren lekuan
- aditza (A) hondarrean ematen da
- objektua (O) aditzaren ezkerrean agertzen da, irazkinaren barnean.

Lehenbiziko puntuak ez du inolako dudarik uzten eman ditugun hasierako bi erizpideak ezartzen baldin baditugu. Jakina, hirugarren erizpidea ezin dezakegu balia, ez baita ezinbesteko ordenarik (subjektuei dagokienez, mendeko perpausetan).

Bigarren puntua ere nahikoa ongi betetzen da, batez ere aditz iragangaitzekin. Aditz iragankorrek ez hain ongi, ordea. Alabaina, honako bi hautabide hauen arteko aukera egitea ez da biziki erraza:

- (44) (a) Aitak sagarra jan du (S / O A)
(b) Aitak jan du sagarra (S / A O)

Halan eta guztiz ere, gramatikari gehiengoenek diotenez, aditza hondarrean emateko joera bizia dugu euskaldunek, eta euskaldun gehienek intuizioaren arauera ere, badirudi S / OA ordena hau jatorrago edo ematen dugula. Estatistikek ere, testu idatzietan egindakoek bereziki, ondorio bera ematen dute.

Ororen buru, geroago aipatuko dugun adizlagunen kasua aparte utzirik, Lafitte-k ordena *logikotzat* zeukan ordena aurkitzen dugu, berak ematen duen adibide honetan ikusten den bezalaxe:

(50) Aita Sainduak (atzo) bi erresumeri aphezpiku bat ararteko igorri diote

1.7. Ordena markatua

Gure azterketa zuzena bada, ordea, urrunago joan behar dugu orain: mintzagai egitura eta funtzio egitura lotuak badira, ordena ez markatua kausi daitekeen segida hautsiz gero, ondorio garbi eta zehatzak behar genituzke.

Horixe nabaritu dugu, hain zuzen ere, objektua eta subjektua tokiz aldarazi ditugularik lehenago; gauza bera gertatuko da Ithurry-ren adibidean osagaien ordena alda erazten badugu. Elementuen ordena aldez kontra emanez, mintzagaia eta irazkineko elementu bat hanpatzen baititugu azkarki:

- (51) (a) Aitak sagarra eman dio (S, O1) —→
sagarra aitak eman dio (O1, S)
(b) Haurrari sagarra eman dio (O2, O1) —→
sagarra haurrari eman dio (O1, O2)
(c) Aitak haurrari eman dio (S, O2) —→
haurrari aitak eman dio (O2, S)

Ordena ez markatua dugunean, goiko hiru adibide horietan, aditzaren ezkerreko elementua ez da obligatuzki galdegaia. Bai, ordea, ordena markatua. Halaber, mintzagaia hanpatuagoa da orduan beste perpausetan baino.

Hiru bikote horietako lehen perpausek, esate baterako, *zer gertatu da?*, *aitak zer egin du?* edo *non da sagarra?* galderi erantzun diezaiete. Bigarren perpausak, aitzitik, anitzez hertsia dira, azpimarratuagoak: *udarea nik eman diot haurrari, baina sagarra nork eman dio?*, *aitak udarea zuri eman dizu, baina sagarra nori eman dio?* eta, *sagarra zuri aitak eman dizu, baina haurrari nork eman dio?*

1.8. Aditzaren eskuineko osagaiak

Orain arte aditza azkenean ezarri dugu gure adibideetan. Nahitaez, jakina, aipatu ordena kontu horrek orduan bereziki baititu ondorioz garbienak. Baina

aski da edozein euskal testu hartzea, aditza maiz baino maizago, hondarrean ez dela ikusteko. Eta ez perpaus luze batzu darraizkiolarik bakarrik. Bestela ere gertatzen da.

Aditzaren eskuineko elementu horietaz zer esan, beraz? Gutienik hiru puntu hauek berezi behar genituzke:

- Irazkinaren barnean gertatzen dena
- Irazkinetik kanpo jazotzen dena
- Esaldiaren diskurtsuaren ingurumena

1.8.1. Irazkinaren barnean

Lehenago S A O ordena aipatzean halako dudaño bat bagenuela aitortu dugu, ez ote zitzaigun hau S O A ordena bezain naturala. Egia da sarritan irazkineko elementuak aditzaren eskuinean agertzen direla (oroit, esate baterako, T. Agirrerenganikako aipuaz); galdegaiarekin berarekin ere gerta daitekeela ikusi dugu, bai eta irazkineko elementuak oso luze eta konplikatuak direnean ere. Irazkinak aditzaren eskuineko hedamena izan dezake, beraz.

1.8.2. Irazkinetik kanpo

Baina aditzaren eskuineko osagaiak ez dira beti eskuinera (doinuak lagundurik) *igorritako* galdegaiak, edo osagai luzeak. Beste batzutan, mintzagai gisa hanpatu gura ez diren osagaiak baizik ez dira.

Esplika dezagun apurtxo bat guzti hau. Ikusi dugu aditzaren ezkerreko posizioak aski ongi zedarrituak direla mintzagai egituraren barnean, ordena markatuan partikularki. Alabaina galdegaiak badelarik, haren ezkerreko elementuak, ia automatikoki, mintzagai gisa puztuak dira:

- (52) (a) *Haurrari sagarra*, nik eman nion
(b) *Etxean*, neuk agintzen dut

Baina batzutan gertatzen zaigu delako hanpatze hori biziki gaizki datorkigula eta orduan, bestelako biderik ez denez, hanpatu nahi ez dugun osagai hori aditzaren eskuineko aldean emateaz beste posibilitateak...

- (53) (a) Neuk agintzen dut etxean
(b) Sagarra nik eman nion haurrari

Nola kontsidera ditzakegu, beraz, elementu hauek? Ez da erraz esatea batere. Mintzagai / irazkina oposizioari buruz neutro edo direla proposa daiteke beharbada, baina honelako azterbideak badu haatik alderdi makurrik ere. Izan ere, mintzagai egituraren ondoan beste sail berri bat moldatzen baitugu era horretan, aski artifizialki eta, egia esan, arazoa ezertan ere argitu gabe, hirugarren sail horrek identitaterik ez bailuke.

Beste posibilitatea, benturaz zuhurragoa, hauxe litzateke: mintzagai ez markatuak diren elementuak eskuinean ere ager daitezkeela onartzea. Gisa horretan esplika genezake horrelako osagaiek aire erredondantea badutela maiz:

- (54) (a) Sagarrak erosi ditut nik
(b) Bart, akitua eta logale izanagatik, oso berandu joan nintzen ohera

Halaber, koordinazioan, posizio horretan diren osagaiek beren mintzagai izaera balia dezakete ederki:

- (55) Sagarra eman nion *Paxiri*, baina *Koldori* ez nion ezer eman

Bigarren azterbide hau onesten baldin badugu, piska bat aldatzen da gure mintzagai egituraren eskema: mintzagaiak, hanpatuak ez direnean bereziki, irazkinaren eskuinean ere badagozke.

Ikus dezakegunez, biziki erlatibizatzen da honela, lehen esan eta adierazi duguna hitz ordenari buruz. Bada oraino beste gauzatxo bat kontuan hartzeko, eta erlatibizatze honi are indar gehiago ematen diona: diskurtsuaren ingurumena.

1.8.3. Diskurtsuaren ingurumena

Ordena kontu hau ez bide da arras molde berean agertzen hizkuntz iharduketa mota guztietan. Orain arte aipatu ditugun jokabideek elkar bizketentzat bereziki balio dute beharbada. Beste eratako testuetan (gogoeta, kondaira, e.a.) askatasun gehiago dateke. Orduan ordena desberdinak (irazkinaren barnean oroz gainerik) estilistikari legezkiekeen gora-beherak lirateke.

Adibide gisa, Mitxelena (1978, FVL) plazara ekarri zituen aipu hauek eman ditzakegu; hona, beraz, euskalki bereko bi idazlek nola ematen zuten zenbait pasartetan Luk 15:

Lardizabal

Guizon batec bi seme cituen

gazteena aitari senipartearen esque jarri citayon

morrontzan jarri zan

soñekoric onena ecardazute ...

erraztuna beatzean sartu, eta oñetakoac ipiñi zayozcazute

Agirre

Aita batec cituan bi seme

gazteenac escatu cion echeñic cegocana

jarri zan eche batean morroi

ecarri ceguiola ... soñeko ederra ...

eman ceguiola erraztuna ...

ecarri ceguiozkeela oñetako berriak

1.9. Adizlagunak

Ordenaren kontu hau argitzerakoan, bazterrean utzi ditugu adizlagunak: osagai gramatikalak baizik ez ditugu gogoan eduki. Alabaina oso aldakorra da adizlagunen egoera mintzagai egiturari buruz. Zenbaitetan aditzari datxezko elementuak dira; adibidez, lokatiboak mugimendu aditzari biziki lotuak izaten dira. Beste batzutan, ordea, ekintzaren ingurumen espaziala edo denborazkoa adierazten digute, eta alde horretatik mintzagai izateko joera izan dezakete, hala nola, denbora markatzaileek:

(56) (a) *Haurretan* oso haur bihurris zinen

(b) *Joan den astean, Donostian*, guardia zibilek manifestaldi bat egin omen zuten

Mintzagai hanpatu gisa nekezago agertuko dira beste adizlagunak (aditzari datxezkonak):

- (57) (a) Bart, ohera, oso berandu joan zinen
(b) Bart, oso berandu joan zinen ohera
(c) Mahai gainean, nik utzi dut
(d) Nik utzi dut mahai gainean

Ezinezkoa gertatzen da, beraz, molde orokor batetan elementu horiek mintzagai egituran zer toki hartzen duten esatea.

1.10. Ondorioa: mintzagai egituraren eskema

Honaino esandakoa pixka bat bilduz, lan guzti honetan aurkezten dugun eskema bi ardatzetan biltzen da: mintzagaia/irazkina. Orain aberats dezakegu eskema hau.

Funtsean bi tasun ditugu erabili: [\pm mintzagaia] (-mintzagaia, irazkina deitu dugula) eta [\pm hanpadura]. Bi tasun hauek konbinatuz, lau posibilitate ditugu:

-mintzagaia	-mintzagai	+mintzagai	+mintzagai
-hanpadura	+hanpadura	-hanpadura	+hanpadura

Eta bikote guzti horiek honela ordena ditzakegu:

+mintzagaia +hanpadura	+mintzagaia -hanpadura	-mintzagaia +hanpadura	-mintzagaia -hanpadura	+mintzagaia -hanpadura
<i>Piarresék</i>	<i>Piarresék</i>	<i>esnea</i>	<i>esnea edan du</i>	<i>goiz honetan</i>
<i>Piarresék(esnea)</i>		<i>edan</i>	<i>edan du</i>	
	<i>Patxi</i>		<i>etorri da</i>	
<i>Patxi</i>		<i>goizean</i>	<i>etorri da</i>	<i>Parisetik</i>
<i>auto berria</i>		<i>hortxe</i>	<i>erosi dut</i>	
<i>ordiak</i>		<i>entzun</i>	<i>dantzu</i>	
			<i>badator</i>	<i>laguna</i>
	<i>haizea</i>		<i>bada</i>	
<i>nik ordea</i>		<i>ba</i>	<i>dakit</i>	
		<i>asko</i>	<i>dakitzu</i>	
<i>jan</i>		<i>ondo</i>	<i>jaten du</i>	<i>horrek</i>
	<i>ama</i>		<i>ohera joan da</i>	
		<i>ama</i>	<i>joan da</i>	<i>ohera</i>
<i>ama</i>		<i>laster</i>	<i>joanen da</i>	<i>ohera</i>

Ikusten ahal denez, oso eskema sinplea da funtsean, baina bere soiltasunean euskaldunaren hizkuntz senari ongi erantzuten dio. Halaz guztiz, araubide baino areago argi edo azterbide izan nahi luke. Ez dezagun ahantz alabaina, hastapenean aipatu dugun ordenaren askatasuna hor dugula beti. Alde batetik, eman dugun eredu horren barnean obratzen dena, baina beste batzutan hartatik kanpo edo haren aurka ere, mamitzen dena (galdegaia aditzaren eskuinean ematean, adibidez). Ez dezagun ahantz bestalde, mintzagai/irazkina oposaketa, edo hanpaduraren tasuna, mailakatuak balira bezala agertzen zaizkigula maiz. Osagai bat mintzagai gisa hanpatzen denean gutiago edo gehiago hanpa daiteke; halaber irazkineko elementuentzat ere. Gradazio horri esker dugu euskara, hain zuzen ere, hain malgua hitz ordenaren aldetik.

2 "-KO" ATZIZKIA: FUNTZIOAK ETA ESANAHIAK

Tokia eta denbora adierazten duten izenlagunek *-ko* marka hartzen dute toki eta denbora erlazio hori adierazteko. Horrela, esate baterako, *Orhiko xoria* diogunean, *Orhiren* eta *xoriaren* arteko toki erlazioa adierazten du *-ko* erator atzizkiak. Eta *atzoko eguraldia* diogunean, berriz, *atzo* aditzondoaren eta *eguraldiaren* arteko denbora erlazioa ematen zaigu aditzera. Guzti hau esana utzi da atzeragoko bi ataletan (ikus 199 eta 248. orrialdeak). Bertan esaten da, nolana ere, erator atzizki honek ez duela erlazio hori bakarrik adierazteko balio eta tokiaz edo denboraz gain bestelakoak ere ematen dituela aditzera: *nolako etxea, isilik egoteko agindua, bihotz oneko neska*, e.a. aipatzen diran.

Ikusten den bezala, toki-denborazko sintagmen ordez *itxura oneko laguna*, *eguneko mila pezeta irabazten du* edo *Paskualgoan bizi da* diogunean, *-ko* erator atzizki hori dela eta, beste izenlagun batzu sortzen ditugu, tokiaz eta denboraz bestelako erlazioak adierazten dituzten izenlagunak.

Beste izenlagun horiek aztertzeari ekin aurretik esan behar da *-ko*₁ (leku-denborazkoa) eta beste *-ko* horiek, *-ko*₂, *-ko*₃ eta *-ko*₄ deituko ditugunak, diferenteak ditugula, berehala emanen ditugun arrazoiengatik. Ikusia denez, leku-denborazko izenlagunek azpiegituran inesibo kasuko adizlaguna baitute. Neurri honetan, hortik sorturiko izenlagun guztiek mugatzailea dute beti *-ko* atzizkiaren azpian. Numeroari dagokionez, berriz, edozein testuingurutan ager daiteke mugatzaile hori:

- (58) (a) *Euskal Herriko seme naiz*
(b) *Zein herritako seme zaitugu?*
(c) *Gure mendietako zuhaitzak ihartzen ari dira*

Aipatu ditugun bestelako *-ko* horiek, aldiz, azpiegituran ez dute inesibo kasuko izen sintagmarik, ez eta toki-denborazko izenlagunetan azaltzen den numero markarik ere. Ez-gramatikalak dira, beraz, honakook:

- (59) (a) *Hanka luzetako mahaiaik
(b) *Zein hanka luzetako mahaia?
(c) *Bi hanka haueetako mahaia
(d) *Kolora zuri honetako mahaia

2.1. *-ko* atzizkia eta izenlagun deskribatzaileak

-ko daraman izenlagun deskribatzailearen formari begiratu gero, bi eratakoak izan daitezke izenlagun horiek: batzu adberbioari *-ko* erator atzizkia erantsiz sortuak lirateke, eta beste batzu izen multzoari zuzenean *-ko* erantsiz sortzen direnak.

2.1.1. Adberbioa + *-ko*

Lehenbiziko sailean sartzen ditugu, hortaz, *adberbioa + -ko* formakoak. Horrek esan gura du *-ko* erator-atzizkia adizlagunari edo aditzondoari erants dakiokela izenlaguna sortzeko. Izenlagun honek azpian adjetibozko edo erlatibozko perpausa du beti.

Esan behar da, gainera, honela sorturiko izenlagunek ez dutela numero markarik hartzen. Hauen artean daude honako guzti hauek:

a) Adberbio konposatuak

- (60) (a) Nahitaezko erabakiak dituzu hauek
(b) Hitzez hitzeko itzulpena da hau
(c) Ziri edo zarteko gizona da hori

b) Posposizio sintagma + *-ko*

- (61) (a) Linguistikari buruzko liburua da hau
(b) Zu bezalako gizonak non aurki?
(c) Lotsarik gabeko hori isilduko al haiz!

c) Partizipio adberbiala + *-ko*

- (62) (a) Zuk erositako liburuak garestiak al dira?
 (b) Aizo entzuniko gauzak egia ote?

d) Aditz jokaturia + *-ko*

- (63) Balizko oleak burdinarik ez (*Refranes y Sentencias*, 15)

e) Moduzko aditzondoak + *-ko*

- (64) (a) Nolako gizona ote da hori?
 (b) Zelako etxea erosi duzuen!
 (c) Honelako jendetzarik ez dut ikusi sekula
 (d) Berehalako ona ikhusten ez badugu ... (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 314)

f) Denborazko aditzondoak + *-ko*

- (65) (a) Itxasoak austen ibillita gero, sekulako gizonik ederrena zatoz (Azkue, *Dicc. V.E.F., sekula*)
 (b) Egundoko gezurrak esan ditu horrek
 (c) ... eta bizi izan zen egundainoko nausitasun berarekin (Larreguy, *Testametu çaharreco...I*, 110)
 (d) Burupekoak, oi-estalgia, egundainoko aukerak (Sagarzazu, *Atozkit*, 106)
 (e) Bere inoizko gordailuak miazten dabil

g) *-ka* modala + *-ko*

- (66) (a) Bakarkako lana astunagoa izan ohi da
 (b) Esku-huskako pilota partiduak zaizkit gogokoen
 (c) Presakako lana askotan alfer lana

h) Kasu marka gramatikalak + *-ko*

- (67) (a) Zure lanarekiko iritzia zorrotzegia izan da
 (b) Ene amarekiko maitasuna samurra da
 (c) Amarentzako erregalua duzu hori
 (d) Lapurtzako gaur epaitu omen dute

2.1.2. Izen multzoa + *-ko*

Bigarren sailekoak dira *izen multzoa + -ko* eskema segitzen dutenak. Eskema honen barnean ager dakizkiguke, alde batean, izena, izenlaguna edo izenondoa. Zenbatzaile zehaztua edo zehaztugabea ere bai. Bestaldean izanen ditugu izena eta *-ko* atzikia eta bi hauen artean, aukeran, graduatzailea eta izenondoa. Guzti hau berehala ikusiko da.

Konbinaketa posible guzti horiek kontuan izanik, zenbatzailerik gabeko izen multzoak egitura forma bat baino gehiago izan ditzake:

a) Izena + *-ko*

- (68) (a) Hori al da, bacla, itxurako pertsona izatea?
(b) Adineko idia ez da gaztea bezain balios ... (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 236)
(c) Edadeko pertsonet begirunea zor zaie
(d) Hitzeko gizona omen da euskalduna

Ez dira asko, ikusten denez, honelako adibideak. Ohartzen bagara, gainera, izen abstraktoekin bakarrik erabil daitezke honelako egiturak. Ez dugu sekula ere, *hanka duen mahaia* esateko **hankako mahaia* esango, ez eta **besoko pilotaria* edo antzekorik ere, jakina. Horrelako kasuetan *-dun* atzizkiak baliatuko gara, *hankadun mahaia*, *besodun pilotaria* eta antzekoak esanez, *-dun* atzizkia baitugu aukera bakarra, gehienetan bederen. Zernahi gisa, delako *-ko* horrek ez du beti *-dun* atzizkiaren balioa.

b) Izena + izenondoa + *-ko*

Egitura hauetan izen abstraktu nahiz zehaztuak agertzen dira. Dena dela, beste elementuren bat ere behar dute aurretik nahiz ondoren, adibideotan ikusten den bezala:

- (69) (a) Negurri gaitzekoa zuen (Elissanburu, *P. Adame*, 6)
(b) Ergela da jende horia, eta jite txarrekoa (J. Etxepare, *Buruchkak*, 126)
(c) Bai gatz gutxiko emakumeak! (Tx. Agirre, *Guroa*, 302)
(d) Ago oneko kafea (*Canc. Vasc. I*, 23)
(e) Gaiñeru ezkuratar au ez degu korputz aundikoa edozeinen parekoa baizik! (Tx. Garmendia, *DV*, 86-4-16)
(f) ... eta hots haundiko festak egin ziren! (J.M. Satrustegi, *Ipui Miresgarriak*, 91)

Honelako egitura duten izen multzoekin badirudi ez dela *-dun* atzizkia ibiltzen, ez eta forma konposaturik ere. Badira, halere, kontrako zenbait adibide, hala nola, *teilatu gorridun etxea*, *leihu gorridun txabola* eta antzekoak entzuten baitira.

Izen multzo horretan doakeen izena gorpuzkiren bat adierazten duen izena baldin bada eta izen horrek duen jatorrizko esanahian erabilia, *-ko* erator atzizkiak balia gaitzake hori izenlagun kalifikatzaile bihurtzeko:

- (70) (a) Sudur handiko gizona (Elissamburu, *P. Adame*, 30)
 (b) Beso luzeko pilotaria
 (c) Buru handiko gizona
 (d) Hanka luzeko korrikalaria
 (e) Txima luzeko gaztea
 (f) Begi urdineko neska
 (g) Bizar gorrikoa da zure anaia

Forma horren orde bestea bi aukera ere baditugu: lehenbizikoa, izenlagun hori kalifikatu nahi duen izenaren ondoren izen konposatu edo elkartu gisa erabiltzea, hala nola, *gizon sudur handia*, *pilotari beso luzea*, e.a.

Bigarren aukera da *-dun* atzizkiak baliatzea, *neska begi urdinduna*, *bizar gorridun anaia* edo *anaia bizar gorriduna* eta abar esanez. Horrela erabili behar dela dio, gainera, S. Altubek, izen kalifikatuak adierazten duena aldi batekoa edo behin behingoa denean. Halere, euskalki gehienetan *-ko* erabiltzen da *-dun* atzizki horren orde.

Baina izenlagun bilakatuko den izen multzoan doan gorpuzki izena, jatorrizko esanahian erabili beharrean, zentzu ez-gauzazkoan edo aldatuan erabiltzen bada, edota ohiturazko tasunak edo kalitateak adierazten dituzten *argi*, *eder*, *bizkor*, *on*, *txar*, *gaizto*, *gaitz* eta antzeko izenondoren bat badarama, *-ko* atzizkiak baliatuzko era bakarrik erabil daiteke Altuberen iritziz. Ez litzateke, beraz, goiko adibide horien bigarren edo hirugarren aukerarik, ez litzateke forma konposatua edo *-dun* erabiltzerik izango:

- (71) (a) *Pilotari beso ederrak dira Retegitarak
 (a') *Pilotari beso ederduak dira Retegitarak
 (b) *Ehiztari begi ona da Azkue
 (b') *Ehiztari begi onduna da Azkue
 (c) *Ume bihotz gaiztoa haiz hi
 (c') *Ume bihotz gaiztoduna haiz hi

Halere, ekialdean batipat, baina baita mendebaleko zenbait euskalkitan ere, badira forma konposatuzko adibideak:

- (72) (a) Gizon mihi gaiztoa (= mihi gaiztoko gizona) da Peru
(b) Moko fina (= moko finekoa) haiz benetan
(c) Jende mihi zorrotza (= mihi zorrotzeko jendea) da

Altuberen iritzia bestelakoa bada ere, *-ko* ibiltzen da izena kalifikatzeko izenlagunak soinean daramagun zerbait adierazten duenean ere, hala nola:

- (73) (a) Alkondara zuriko mutil hori ezaguna al duzu?
(b) Jertsei gorriko neska hura nere arreba da

Forma horien ordez *-a(re)kiko*, *-a(re)kilako* erator atzizki konposatuak ere ibiltzen dira (ikus 65. adibideak), soinean daramagun janzki izena + izenondoa egiturari atxekirik. Erabilera hau mendebaleko eta ekialdeko zenbait lekutakoa da. Toki horietan, beraz, forma guzti hauek aurki daitezke:

- (74) (a) Jantzi gorriko gaztea
(b) Jantzi gorria(re)kiko gaztea
(c) Jantzi gorria(re)kilako gaztea

Bestalde, hemen beste bi aukerak erabil daitezke, *-dun* atzizkiarena eta forma konposatuarena, alegia:

- (75) (a) Alkondara zuridun mutila ezaguna dut
(b) Mutil praka motza nor da?
(76) (a) Amona mantal urdinduna dabil sukaldari
(b) Amona mantal gorria, eguzkia ala euria

Hortaz esan daiteke *-ko* hau eta *-dun* baliakide direnean, forma konposatua erabiltzea ere zilegi dela.

Kontuan hartu behar da, halere, ikusten ari garen *-ko* atzizki honen emankortasuna mugatua dela: hortaz, izenlagun kalifikatzaileko izenak adierazten duena izen sintagma horren buru den izenari berez, gorputzez edo dohainez datxekona, edo soinean daramana denean bakarrik erabil daiteke izenlagun kalifikatzaile gisa. Hala, *bihotz oneko mutila*, *kolore ederreko aurpegia*, *alkandora zuriko neska*, *sorbalda zabaleko aizkolaria*, *adimen argiko irakaslea*, *hitz ugariko hizlaria*, *etorri oparoka bertsolaria* eta horrelakoak ongi esanak daude. Ez legoke, ordea, batere ongi esana **auto gorriko mutila*

horrekin *auto gorria duen mutila* esapidea adierazi nahi bada, horrek *auto gorrian dagoen mutila* adierazten baitu.

2.1.3. -ren + izena + -ko

Hirugarren multzoan sailkatzen dira *-(r)en + izena + -ko* egitura dutenak, honako etsenplu hauetan ikusten den bezala:

- (77) (a) Erbiaren heineko ihiziño bat duzu peludoa (Etxepare, *Buruchkak*, 29)
 (b) Azeriaren iduriko mutur luze batzu ... (Etxepare, *Buruchkak*, 29)
 (c) Afrikatarren itxurako arpegia ipiñi eutsien gaixoari ... (Tx. Agirre, *Kresala*, 171)
 (d) ..., gehienek ezen beren poneten heineko shilhottoak egiten dituzte (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 343)
 (e) Han nintzen ene adineko bertze mutikoxka batzuekin (Etxepare, *Buruchkak*, 65)

Halako egituretan *-ko* atzizkia daramanaren aurrean beste izen bat ere ager daiteke, egitura honela geratzen delarik orduan: izen berezia/arrunta + izena + *-ko*. Izen horiek bereziak nahiz arruntak izan daitezke, bizidunak nahiz bizigabeak, ondorengo adibideotan ikusten denez:

- (78) (a) *Xumai* izeneko eskalea dabil hor ate joka
 (b) Urki izeneko zuhaitzak azala zurizta du

2.1.4. Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + -ko

Zenbait aldiz egitura honelakoa dugu: zenbatzailea + izena + (izenondoa) + *-ko*. Aurreko izenlagun deskribatzaileetan ez bezala, izenlagungai den izen multzoan zenbatzailerik ageritzen bada, nahiz zenbatzaile hori zehaztua edo zehaztugabea izan, eskuarki *-ko* erator atzizkia hartuko da izen multzo hori izenlagun kalifikatzaile bihurtzeko. Orduan ageri da goiko egitura.

Izen multzo horretako izena, bizigabeai dagokiena da gehienetan:

- (79) (a) ... bost behatz ederreko eskua ikusi zuen mutikoeri lotzen ... (J.M. Sarustegi, *Ipuin Miresgarriak*, 49)
 (b) ... pagatzeko gutienteik (sic) 50 liberako amanda (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 117)

- (c) ... amar urteco umiac bere baquijee (Fray Bartolomé de Santa Teresa, *Euskal errijetaco olgeeta* ..., 73)
- (d) ... eta hirur mila liberaco amanda bat pagatceco penaren azpian (Lavieuxville, *Bi-garren catichima*, 33)
- (e) ... eta ez zen munduan hainbeste zorioneko sukalderek (J.M. Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 82)
- (f) Hitz gutxiko gizona da, esan zuen erregek (J.M.Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 98)
- (g) Ez nian uste hain bizkorrak zirenik bi hankakoak (Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 98)
- (h) Ongi axola gutikoak garela aihortzeko du... (Duvoisin)
- (i) Milla ia berreun kiloko arriarekin neurtuko dituzte indarrak (Basarri, *DV*, 86.4.16)

Bizidunekin ere erabil daiteke atzizki hori eta erabili ere erabiltzen da. Hona hemen etsenplu batzu:

- (80) (a) Donamartihiri 403 arimako herri tipi bat da (Etxepare, *Buruchkak*, 132)
- (b) Bi ugazabako etxea, kaltea (Alf. Irigoien-ek Mallabian jaso)
- (c) Bi etxeoandreko sukaldia gatzez bctetako elizia (Zavala, *Esacera zarren bilduma berria*, Tolosa 85, 614.2104)
- (d) Ehun ardiko artaldea dute auzokock
- (f) Behi bakarreko leran ekarriko dugu belarra

Baina zenbatzailea + izena (+izenondoa) + *-ko* egitura forma horren ordez, zenbatzailea + izena (+izenondoa) + *-tako* egitura duten izenlagun kalifikatzaileak ere ageri dira batzutan. Eta bigarren egitura hau zenbatzaile mugatuekin nola mugagabeekin ageri zaigu. Hona zenbatzaile mugatua barnean dutela eginiko izenlagunak:

- (81) (a) Urthe batetako haurra zen Saul (Axular, *Gero*, 125)
- (b) Lazaro, laur egunetako hil kirestua (Axular, *Gero*, 65)
- (c) Agerreko nausia zen ... berrogei ta zenbeit urtetako gizon sekail ginarri bat... (Etxepare, *Buruchkak*, 65)
- (d) Piramidea edo Piramideak ziren sepultura suete batzuk, pilare, arroin edo thonba lau kantoinetako gora ailtxatu batzuk... (Axular, *Gero*, 15)
- (e) Arbola landareak, urtheakoak eta bi urthetakoak... (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 205)

Zehaztugabeekin ere, nahiz eta gutxi izan, bada adibide bat edo beste:

- (82) (a) Pairu gutitako (zahartasuna) bada (Axular, *Gero*, 191)
- (b) Zeren bihotz gogorra eta ezagutza gutitakoa izanen da (Axular, *Gero*, 219)

(c) Bekhatuetan dagoenaren esperanza fauna, hilla eta probetxu gutitakoa (Axular, *Gero*, 294)

(d) Fede apurretakoa, fidantza gutitakoa (Axular, *Gero*, 179)

Ikusten denez, zenbatzailea + izena (+izenondoa) + izena egiturari *-ko* erosten zaioneko adibideetan bi erabilera ditugu nabari: bata, *-ko* erator atzizkia izen multzoari zuzenean lotzen zaionekoa. Ikus lehenago emanikako adibide guztiak. Joera edo erabilera hau da euskalki mailan hedatuena eta, hasieran esan dugunaren arauera, gramatika bideei hobeto jarraitzen zaiena.

Bigarrena, aldiz, *-ko* erator atzizkiak eskatzen duenez, atzizki hori izen multzoari zuzenean erantsi beharrean, *-ko* deitzen dugun leku-genitiboko atzizkiaren bideari jarraikiz, *-ta-* eta guzti ageri dena. Honelakoak ditugu azkeneko adibide guzti hauek. Egia esan, besteekin alderatzen baditugu, oso bakanak dira honelakoak, eta leku-genitiboko izenlagunen arauera eta horien analogiaz erabiliak dirudite.

Nolanahi ere, ohargarri da *-tako* forma hori zenbatzailerik ez duten izen sintagmetan ere ageri dela batzutan. Ondoko adibideotan, esate baterako, ez da zenbatzailerik. Halere *-tako* forma ageri zaigu:

- (83) (a) ... aire handitako andre bat (Laphitz, *Bi saindu*, 55)
 (b) Gauza oderra da eta arimakotzat probetxu handitakoa... begien behetuturik edukitzea (Axular, *Gero*, 257)
 (c) Mengoa handitako gauzaz mintzatzera nobakizu (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 365)
 (d) Seinale onetako aratcheak ez dira hilaraziko (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 251)
 (e) Gauza aski mengoa handitakoa da (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 311)
 (f) Franklin deitzen zen aiphamen handitako amerikano batek zer egin zuen...? (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 194)

Hauek ere nolabaiteko analogiaz erabiliak dirateke.

2.2. *-ko* atzizkia, banaketaren marka

-ko atzizkia erabiltzen da, bestalde, banaketa batean, izen multzoko izenari edo zenbakiari begira edo horren arauera, bakoitzari dagokiona adierazteko ere. Atzizki honen bitartez hemen ez dugu izenlagunik sortzen, adizlagunak baizik. Ondoren ditugun adibideok egingo digute argi zerbait:

- (84) (a) Horra, jujeak izendatuak, bi herri bakoitzeko (Etxepare, *Buruchkak*, 114)
(b) Hamabi libera ematen ziztaian hastapenean nausiak eguneko, eta jana (Etxepare, *Buruchkak*, 114)

Erabilerari begiratzen badiogu, adibideetan ikusten denez, *-ko* atzizki hori nolabaiteko epea edo denbora adierazten duten izenei, eta baita beste izenei ere, erants dakieke.

Hor beti ere zenbakiren bat, kontakaria edo zenbakaria, legoke, nahiz agerian nahiz isilean: *bakoitz*, esate baterako. Hortaz, izena soilik, zenbakirik gabe, agertzen bada, azpian *bakoitz* legoke, hala nola: *laguneko* (= lagun bakoitzeko), *eguneko* (= egun bakoitzeko), eta abar.

2.3. *-ka* atzizkia, *etxeren* baliokide

Orain arte ikusi ditugun bestelako *-ko* horiek ez bezala, lehena eta bigarrena izenlagunak sortzeko eta hirugarrena adizlagunak sortzeko erabiltzen baitira, laugarren hau esanahi berria duten izenak sortzeko erabili izan da. Erasten zaion lexemari edo hitz-oinarriari, *-ko* horrek *etxe* izenaren balioa ematen bide dio edota *Letrau(-a bizi dene)-ko* (*etxe)a* bezalako esapidean eginiko bi elipsiren ondorioz gelditzen den izen eratorria.

Horrelako adibideak nahikoa ugariak dira Gipuzkoako mendebalean eta Bizkaian, batez ere. Kasu hauetan, *-ko* atzizkia hartuko dute izen arruntek nahiz bereziek, nolana ere beti *-a* artikulua daramatela.

Hitz berrien oinarri diren izen arrunten artean batzu ogibidea adierazten dutenetakoak ditugu eta beste batzu, berriz, bestelakoei loturik datozkigunak. Hona hemen adibide batzu:

- (85) (a) *Letraukoa* (Lekaitio)
(b) *Zapatarikoa* (Bergara)
(c) *Pastorkoa* (Azpeitia)
(d) *Errotarikoa* (Bergara)
(l) *Torrekoa* (Bergara)
(g) *Errotakoa* (Bergara)
(h) *Kanposkoa* (Bergara)
(i) *Txopekkoa* (Oñati)

Atzizki hau agertzen ere da, izen bereziekin eta deiturekin, segidan ikusiko denez:

- (86) (a) *Baltasarkoa* (Azpeitia)
 (b) *Karloskoa* (Bergara)
 (c) *Paskualgoa* (Abadiño)
 (d) *Amenabarkoa* (Azpeitia)
 (e) *Aringoa* (Bergara)
 (f) *Moiukoa* (Bergara)

Ikusten denez, badirudi guzti horietan *etxea* jan dugula. Beste toki batzutan, ekialdean bereziki, erabiltzen den *-en* morfemaren baliokide dugu *-ko* hau, biek bikote hauek ematen dizkigutelarik: *dendariarena / dendarikoa; errotariarena / errotarikoa; karlosena / karloskoa*, e.a.

Bi aukera horietaz baliatzen ez direnek, *etxe* izenaz baliatuz, konposaketa bidera jotzen dute, *apatxe* (abadetxe), *serotxe* (seroretxe), *errotatxe*, *dendatxe*, e.a. izen konposatuak sortuz beste bikotearen pareko.

Aipatu *-ko* guzti hauek perpaus bakuneko elementuekin ez ezik, konposatutakoekin ere erabiltzen dira erlazio-atzizki gisa, *-lako*, *-neko*, *-izeko* formek erakusten digutenez, baina horietaz perpaus konposatuak aztertzerakoan arituko gara.

3. HITZ ELKARKETA

Orain arte, izenaz eta izenondoaz aritu garenean, izen eta izenondo soilak hartu ditugu kontuan (hau da, *haur*, *zakur*, *ate*, *zuri*, *oker* eta hauen gisakoak). Baina kategoria gramatikal horien barruan beste era honetakoak ere aurki ditzakegu: *zeru-lurrak*, *aita-amak*, *zuri-urdina*, *txori kaiola*, *haragi salda*, *betoker*, *eskuzabal*, *albistari saltzaille*, *gari jote*, e.a. Aipatu berri ditugun izen eta izenondo hauen berezitasuna honetan datza: bi hitz, zehatzago esan, bi morfemaz osatuak daude (*zeru+lur*, *aita-ama*, *zuri-urdin*, *txori+kaiola*, *haragi+salda*, *begi+oker*, *esku+zabal*, e.a.), bi morfemak askeak direlarik, esan nahi baita, bakoitza bere aldetik erabil dezak. gula askatasun osoarekin:

- (87) (a) Jaitxe honetako *haragi salda* oso gozoa da
(b) *Haragia* garestia da
(c) Elxe batzutan ur sobera ematen diote *saldari*
(d) Dendari hori arrot *eskuzabala* omen da
(e) *Esku* horiek zikin dituzu
(f) Bide hura ez zen hain *zabala*

Izen edo izenondo bakunak, aldiz, morfema bakarraz osatuak daude (ikus goiko *izen*, *zakur*, *ate*, *zuri* edo *oker*). Beste modu batera esanda, *txori-kaiola* izenean, aldi berean, beste bi izen bereiz ditzakegu, biak bakunak: *txori* eta *kaiola*. *Eskuzabal* izenondoan ere *esku* eta *zabal*, izena eta izenondoa aurkitzen dira. Argi ikusten denez, *haur*, *zuri*, *oker* edo *ate* hitzak, berriz, ezin ditzakegu gehiago zatitu, ezin baitugu horien barnean —esanahiaren aldetik, jakina— elementu gehiago bereizi.

Badira, bestalde, tarteko izen eta izenondoak ere, hots, bi morfemaz osatuak daudenak, baina bi horietarik bat bakarrik, oinarri deritzona, da askea, bestea beti elementu lotua baita: *menditsu*, *erosketa*, *bertsolari*, *zerriki*, *negarti*, *negargarri*, *labainkor* edo *izozgailu* genituzke azken sail honetako adibideak.

- (88) (a) Ez dakizue zer *bertsolari* ona zen Xalbador
(b) Batzuk erraz egiten dituzte *bertsoak*
(c) Jendeak besterik uste badu ere, *zerrikia* ez da ona osasunerako
(d) Herri honetan nahiko goiz hiltzen dute *zerria*

Horrelako egiturak, eratorpen edo deribazioaren barnean sartu ohi dira, baina gu ez gara hauetaz arduratuko (kontu honetaz argibiderik nahi duenak ikus beza L. Villasante: *Palabras vascas compuestas y derivadas*).

Hitz elkartua, beraz, bi morfema askez osatua dagoela esan dugu: bi morfema horiek lotzen ditugunean, beste izen bat edo beste izenondo bat sortzen zaigu. Egia esan, hitz elkartu ugarienak izenak eta izenondoak badira ere, aurki ditzakegu aditz elkartuak eta aditzondo elkartuak ere. Honenbestez, hitz elkartuok, beren kategoria gramatikalaren arauera sailka ditzakegu. Baina ezinbestekoa zaigu kategoria bakoitzaren barruan azpisail zehatzagoak egitea. Horretarako lehen pausua, Izena deritzon kapituluko 1.2.1. ataleko bereizketa hemen ere egitea izan daiteke, hau da, izen elkartu arruntak eta izen elkartu bereziak bereiztea (ikus 26.orr.). Ondoren, izen, izenondo, aditz eta aditzondo elkartu hauetako morfema edo osagai bakoitzaren kategoria gramatikala, dagozkien xehetasun guztiekin, hartu beharko dugu kontuan. Horrela, orain arte aipaturiko erizpideak elkartuz, hona hemen nolako sailkapena geratuko litzaigukeen.

3.1. Izen elkartuak

3.1.1. Izen elkartu arruntak

3.1.1.1. Bi izen bakunez osaturiko izen elkartuak

Ikus honako adibide hauek:

a) aita-amak, zeru-lurrak, ate-leihoak, goi-beheak, jaun-andreak, maisu-maistrak, atze-aurreak ...

- (89) (a) *Maisu-maistra* guztiak haserre dabilta azken bolada honetan
(b) Ume honek ez ditu ezagutzen bere *aita-amak*
(c) Lantegi honen kutsadurak *zeru-lurrak* zikitzen ditu

b) afari-merendua, erloju-iratzargailua, bizargin-osagilea, barre-algara, irri-barrea, kafesnea ...

- (90) (a) *Afari-merendua* egin beharrean askoz ere egokiagoa izaten da behar bezalako gosari batekin hastea eguna
 (b) *Irri-barrea* etorri zitzaion aurpegira

c) emakume dantzaria, erle langilea, emakume alarguna, atso bentera, atso sorgina, ahizpa neskazaharra, aingeru begiralea ...

- (91) (a) Denok dakigu *erle langileak* eta *erle alferrak* erlategi berean aurkitzen direla
 (b) *Atso sorgin* hura isatsa hartu eta denen aurtean zerurantz airetu zen

d) txori-kaiola, zartagin kertena, gaztaina adarra, gau lapurra, gari soroa, gaiso etxea, etxe atea, esku saskia, esku lana, eleiza gizona, ezpata kolpea, eper kanta, kandela argia ...

- (92) (a) *Ezpata kolpe* batekin amaitu zen borroka
 (b) *Zartagin kertena* bi zati egin zitzaion eskuetan

Adibideon aurrean berehala oharzen gara arestian aipaturiko erizpideak, hitz elkartuaren eta berau osatzen duten morfemen kategoria gramatikalak alegia, ez digula gehiegi laguntzen azpisailak egiteko orduan. Hori horrela baldin bada, zein erizpide erabili dugu bereizketa horiek proposatzeko? Bi ruorfema edo osagaien artean gertatzen den erlazioarena. Izan ere, gerta daiteke bi osagaiak, bi morfemak, maila berekoak izatea, edota bata bestearen mendeko izatea.

Horrela, lehenbiziko sailekoetan *aita* eta *ama*, *zeru* eta *lur*, *ate* eta *leiho*, *goi* eta *behe*... maila berean daude, pare parean. Izen elkartuaren bidez biak izendatzen ditugu eta ez diogu bati baino besteari garrantzi handiagoa ematen. Horrelako hitz elkaruei *kopulatiibo* izena eman izan zaie, eta bi izen horrela elkartu ahal izateko beharrezkoa da bi izen horiek edo aurkakoak, antonimoak, izatea (*goi-beheak*, *atze-aurreak*, *zeru-lurrak* ...) edo kontrakoak ez badira, eremu semantiko berekoak izatea (*ate-leihoak*, *zuhaitz-loreak*, *ama-semeak* ...). Baldintza hau betetzen ez bada ezingo dugu horrelako izen elkarturik sortu: *maitasun-egurrak* izenak, adibidez, ez luke zentzurik izango.

- (93) (a) **Maitasun-egurrak* nolakoak diren erakutsi ziguten eskolan
 (b) *Denda horretan ez da *olio-takurrik* saltzen

Halaz guztiz, beste baldintza bat ere bete beharko dute izen elkartu hauek: mugatzailea erastekotan, mugatzaile honek beti plurala izan beharko du: *zeru-lurrak* edo *aita-amak*, baina inoiz ere ez **zeru-lurra* edo **aita-ama*.

Bigarren azpisaileko izen elkartuetako osagaiak ere maila berekoak ditugu, baina, oraingoan, lehenbiziko sailekoekin gertatzen ez den bezala, gauza edo pertsona bakarraz ari gara. Esanahiari dagokionez, objektu edo pertsona bakar horrek bi osagaiak adierazten dutena jasotzen du nolabait, nahiz agian, ondorioa zerbait desberdina izan. Horrela, *afari-merendua* ez da ez *afari* eta ez *merendua*, tartean legokeen zerbait baizik, bien lekua hartzen duena.

Hirugarren azpisaileko adibideetan, aldiz, ez daude bi izenak maila berean. *Erle langile* esaten dugunean, bistan da erleaz ari garela hitz egiten; beraz, bi izenen artean hau da nagusia, zertaz ari garen adierazten diguna; besteak, *langileak*, esan dezakegu ia izenondoaren balioa duela edo hartzen duela *erle* izenari buruz. Beste horrenbeste esan liteke *atso sorgin* edo *abade ehiztari, agure saskigile* eta abarrez.

Izan ere, egitura hauek Adjetiboa kapituluan, 4.2.3.2. atalean, 177. orr., ikusi ditugunen parekoak direla esan dezakegu, hau da, izenondo bihurturiko izena genuke adibide hauetan azaltzen zaiguna. Honenbestez, ez dago batere garbi adibide hauek eta antzekoak izen elkarketan sartzekoak diren ala ez. Zenbait autorek hitz elkarketaren barnean aipatzen dituztenez, hala egin dugu guk ere, baina berauek sortzen dituzten zalantzak azpimarratuz.

Laugarren azpisailekoak ditugu azkenik. Hau izango dugu euskal hitz elkartuen artean aurkituko dugun azpisailek ugariena. Bertan, esan bezala, izen elkartuak ditugu, bi izenez osaturikoak, baina hemen beti garbi dago bigarrena dela esanahi nagusia, zertaz ari garen adierazten diguna; bigarren osagai hori *mugakizun* deituko diogu. Lehen morfemak, ostera, bigarrenaren esanahia mugatu, zehaztu, egingen du, eta *mugatzaile* deituko diogu. Adibide erraz batez gauzak argitzekotan, *behi-esne* eta *esne-behi* bikotea har dezakegu. *Behi-esne* esatean, *esneaz* dihardugu, baina ez edozein esnez, behiak ematen duen esneaz baizik. *Esne* dugu morfema mugakizuna eta beronen esanahia *behi*, morfema mugatzaileak konkretatzen, zehazten du. *Esne-behi* diogunean, aldiz, behiaz mintzo gara, baina ez edozein behiz edo behi motaz, esnea ematen duen eta horretarako hazten denaz baizik. Azpisaile honetako izen elkartuak *mendekoak* direla esan ohi da, eta berauen egitura, esan dugunez, *Mugatzaile + mugakizun* da. Bi osagaien ordena honek garrantzi handia du, hizkuntza bakoitzak izaten baitu bere ordena berezia eta jakina. Euskararena goian aipaturikoa den bitartean, inguruko hizkuntzetan (frantsesez edo espainieraz) kontrakoa aurkituko dugu, *mugakizun + mugatzaile*; hau da, lehen osagaiak adierazten digu zertaz ari garen, eta bigarrena da esanahi nagusi hori zehazten edo mugatzen duena. Eta honek, itzulpen lanetan eta, duen garrantzia begien bistakoa da.

Bestalde, euskaraz, mendeko izen elkartuetan lehen osagaiak edo morfemak bigarrena mugatzen badu ere, lehen osagaiak dakarren zehaztaperen modua era desberdinetakoa izan daiteke. Eta hau izan daiteke azken erizpidea oraindik ere azpisail xeheagoak egin nahi baditugu: zein zehaztasun den mugatzaileak mugakizunari erasten diona. Horrela:

a) *gautxori*, *gau lapur* edo *egun argi* izen elkartuetan, lehen osagaiak, mugatzaileak, *denborari* buruzko zehaztapena ematen digu.

- (94) (a) *Nekazariak egun argiarekin* batera hasten dira beharrean
(b) *Gau lapurrak* hautsi du kristala berriz ere

b) *zur ezpata*, *oilo salda*, *urre kate* edo *ezpata kolpe* izen elkartuetan, mugatzaileak, *zertaz*, baliabidea edo tresna, adierazten digu.

- (95) (a) *Taberna horretan oilo salda* ematen dute
(b) *Andre hori urre katez* inguratirik ibiltzen da

c) *eper kanta*, *kandela argi*, *arto irin* eta abarretan, lehen morfema da bigarrenak adierazten duenaren *iturburua*.

- (96) (a) *Kandela argi* baliatu omen zen *Axular Gero* liburua idazteko
(b) *Taloak arto irinarekin* egiten dira

d) *diru zorro*, *poxpolo kaxa*, *txori kaiola* edo *azeri janari* izenetan, mugatzaileak, mugakizuna zertako den, mugakizunaren *helburua* adierazten du.

- (97) (a) *Umeci ez zaie sekula ere poxpolo kaxarik* utzi behar
(b) *Txori kaiolak* ez dira oiloak sartzeko

e) *zartagin kerten*, *etxe ate*, *gaztaina adar*, eta orohar bigarren osagaitzat *zati*, *puska*..., daramaten izen elkartuetan (*ogi zati*, *haragi puska* ...) mugakizuna mugatzailearen atal izan ohi da, lehen osagaiak adierazten duen osotasunaren parte bat.

- (98) (a) *Etxe atetik* sartzean gurutzatu gara berarekin
(b) *Emazioe* *ogi zati* bat, ea isiltzen den
(c) *Zakurrak* ibiltzen dira *hezur zatiak* jaten, beren jabeak telebista ikusten baino pozago

Horrela segi genezake zehaztaperen mota desberdinak egiten. Baina, egia esan, egin ditugun bereizketak lagungarri eta argigarri izan badaitezke ere, hitz

elkarketaz aritu diren autore guztiek, aho batez, aitortu behar izan dute zehaztapen mota hauen zerrenda erabatekorik ezin daitekeela egin. Saia gaitzeko orduan ezagunenak eta erabiliak aipatzen, baina alde aurretik jakinaz berri izanen dugula askatasuna bi izen arruntez mendeko izen elkartu bat osatzeko, baldin eta bien artean erlazio edo lotura lojikoaren bat aurkitzeko gauza bagara.

3.1.1.2. Aditzoinaz edota izenkiaz osaturiko izen elkartuak

Bigarren azpisail honen ezaugarri orokorra, izen elkartuetako osagaietako bat, hein batean, aditza izatean datza, ondoko adibideok erakusten diguten bezala:

a) Aditzoin + izen: eserleku, garbitoki, idazmakina, jantoki, egongela, irakur-gela, ikasmahai, idazlan, borragoma ...

- (99) (a) *Idazlan* hau hiru aldiz aztertua izan da
(b) Ikasleetan *borragomak* nola erabili erakusten zaie haurrei
(c) *Logela* honetan ohe bat besterik ez da sartzen

b) Izenki (aditzoin+atiziki) + izen: euskalduntze prozesua, alfabetatze ikastaroak, bilketa lanak ...

- (100) (a) Euskal idazle eta idazkien *bilketa lan* sistematikoa egin beharra da
(b) *Alfabetatze ikastaroan* ez da jonderik apuntatu

c) Izen + izenki: albistari saltzaile, gezur erraile, gatz-emaile, kale garbitzaile, bazter nahastaile ...

diru biltze, ogi eroste, egun urratze, lur-lantze, ipuin kontatze, odol ateratze, pozoin jate ...

diru-bilketa, arta-zuriketa, mutur-astinketa, etxe-aldaketa, ordu-aurreraketa

...

- (101) (a) *Gatz-emaile* horrek ez du ikasi oraino zenbat azukre behar duen arroz esneak
(b) *Kale garbitzaileak* beranduraino ibiltzen dira Donostian
(c) Errege mezperan umeek egin ohi zuten *diru biltzearen* ohitura galtzeaz dago
(d) Iaz erosi etxea eta berriro ere *etxe aldaketa* lanetan dabilza

d) Aditzoin / partizipio + aditzoin / partizipio (harremanak, hartu-emanak, joanjin(ak), joanetorri(ak)...) edo aditzoin+izenki (salerosketak...):

- (102) (a) Nazionalista eta sozialisten arteko *harremanak* ez dira batera txarrak
(b) Saltzaile horrek astero egiten ditu *joanetorriak* Santander aldera

Lehenbiziko multzoko adibideetan ikusten denez, lehen osagaia, mugatzailea, aditzoina da eta oro har, bigarren osagaiak, mugakizunak, zertako balio duen, zertako erabiltzen den adierazten digu: *idazmakina* zer den ez dakien bati, *idazteko makina* dela esanen diogu, edota *borragoma*, *borratzeko goma*, e.a.

Bigarren multzoko adibideetan lehen osagaia aditzoin+atzizki egiturakoa dugu. Hirugarren atalekoek aurkako egitura dute, hemen mugakizuna da aditzoin + atzizkiak osatzen duena. Kontuz ibili behar dugu, dena dela, horrelako hitz elkartuekin; bigarren osagaia da atzizkia hartzen duena, eta *saltzaile*, *kontatze*, *sarrera* edo *zuriketa* osatu ondoren erabiltzen ditugu hauek izen elkartua eraikitzeko. Bestela, izen hauek **diru bildu*, **albistari saldu*, **arta zuritu* eta antzeko aditzetatik sortuak direla pentsa genezake, eta euskaraz ez dugu horrelako aditzik. Beraz, izen elkartu hauen zatiketa zuzena hauxe dugu:

albistari + saltzaile
(*sal*+*-zaile*)
gatz + emaile
(*eman*+*-le*)
diru + biltze
(*bil*+*-tze*)

Ez, ordea, beste hau:

**albistari sal + -zaile*
**gatz eman + -le*
**diru bil + -tze*

Oro har, hirugarren azpisail honetan, lehen osagaiak, mugatzaileak, bigarren osagaien bildua dagoen aditzoin horren objektu zuzena adierazten du, baina badira salbuespenak ere (herri sarrera, predikatu hasiera...); gutxi batzu besterik ez izan arren,

Laugarren azpisaileko aditzoinak maila berean daude eta alde honetatik egitura kopulanboen artean lukete beren lekua.

3.1.1.3. Izena + izenondoaz osaturiko izen elkartuak

Honako hauek dira multzo honetan sartzen ditugunak: udaberri, gabonak, neska zahar, odol batu, artelatz, Eguberri, harriurdin, Berrion (= Ebanjelio), este gorri, bihotz erre ...

- (103) (a) *Udaberrian* landareak loratzen hasten dira eta zuhaitzak, berriz, hostatzen
(b) *Gabonetan* elurra egiten du urtero urtero

Hauei *justaposizio* deitu izan diete euskal gramatikariek. Horrelako egituretan izena eta izenondoa elkartzen ditugunean, izen multzoa eratu ordez, izena eratzen dugu; hots, izena eta izenondoa elkartuz, kontzeptu berri bat, ideia berri bat ematen dugu aditzera (*udaberria* ez da uda berri bat, beste urtaro bat baizik, ez eta *Eguberria* egun berria, Abenduaren 24a baizik...)

3.1.1.4. Izenondo + izenondoaz osaturikoak

Bi izenondoz osatuak egon arren izenaren balioa hartzen dute eraikuntza hauek: luze-laburra, hotz-beroa, e.a.

3.1.2. Izen elkartu bereziak

3.1.2.1. Izen berezi + izen arrunt

Adibide gisa aipatuko ditugu hemen honakook:

Peru Abarka, Patxiko Txerren, Pello Errota, Martin Kaiku, Martin Txilibitu, e.a.

- (104) (a) Mogelek idatzi zuen *Peru Abarka*
(b) Gizon horri *Martin Kaiku* esaten diote

Ikusten denez, izengoitiak dira denak: *Peru Abarka*, esate baterako, ez da Peru izena duen abarka bat, edozein euskaldunek ongi aski dakien legez. Guzti hauek, dena dela, aposiziotzat jo ditugu atzerago eta, hortaz, ez dago argi izen elkartutzat hartu behar ditugun ala ez.

3.1.2.2. Izen berezi + izenondo

Bigarren sail honetan aurkitzen ditugunak ere pertsona izenak dira, izengoitiak esan dezakegu. Bi multzo bereiz daitezke hemen: lehenbizikoan, izen berezi hori leku bati dagokio, pertsona hori jaiotako lekua adierazten baitu. Bigarrenean, ostera, izen berezia pertsona izena da. Ikus dezagun:

Lazkao Txiki, Altza-Txiki, Teileri-Txiki...

Katalingorri, Manuel Zahar, Joxe Mari Potolo, Inazio Motz...

- (105) (a) *Lazkao Txiki* oso ezaguna da bertsojaritza munduaz arduratzen direnen artean
(b) *Katalin gorriak* adar puntetarik abiatzen dira

3.1.2.3. Izen arrunt + izen berezi

Hauen artean sailkatu izan dira *Errege Dabid*, *amona Asunxi*, *izeba Bixenta*, *Deun Kepa*, eta horrelakoak. Halaz guztiz, gure ustez guzti hauek (*Oria ibaia*, *Urbietea kalea*, *Bilintx liburu-denda* eta hauek bezalakoak) aposizioak dirateke (ikus Adjetiboa, 203 eta hurr. orr.).

3.1.2.4. Izen berezi + izen berezi

Hemen aipatu beharrak dira azken hauek:

Axular-Etxepareak, Bilbo-Gasteizetan, Erronkari-Zaraitzuetako ...

Ikusten den bezala, izen berezi kopulatiboak ditugu hauek, lehen ikusitakoen parekoak, hain zuzen ere.

3.2. Izenondo elkartuak

Hauek ere, lehen bezala, osagaien kategoria gramatikalaren arauera azpisailka ditzakegu. Hauexek dira bereziki ditugunak: izen + izenondo; aditzoin + izenondo; izen + izenondo eta izenondo + izenondo.

3.2.1. Izen + izenondo

Multzo honetan sailkatzen ditugun izenondoak honakook dira:

betoker, eskuzabal, muturzikin, gerri lodi, bizar zuri, odolbero, sudurmotz, burugogor, buru arin, buztanmotz, burusoil, galtzagorri, gibelandi, kopetilun, musugorri, hankamotz, muturbeltz, begibeltz ...

- (106) (a) Haur *musugorri* hori siestatik jaiki berri da
(b) Irakasle *kopetilun* hura Zarautzen sortua omen zen
(c) Mutil *buru arina* da hori benetan
(d) Nola joango zara, bada, *sudurmotz* horrekin dantzara?

Ikusten den bezala, izenondo elkartu hauek, izenondo diren heinean, izen baten eskubitara azalduko zaizkigu, izen hau gizakia, pertsona, adierazten dutenetakoa delarik gehienetan. Horrela esango dugu: *aitona buruzuria*, *ume muturzikina*, *atso gerri lodia*, *senar odolberoa* edota *zakur buztan motza*.

Eta izen sintagma hauen pareko genituzke *buru zuria duen aitona*, *muturzikina duen umea*, *gerri lodia duen atsoa*, e.a. Beraz, esan dezakegu izen+izenondoaz osatzen ditugun izenondo elkartu hauek erlatibozko perpaus baten pareko direla hein batean, izenak *duena* biltzen dugularik izenondo elkartuan (*gerri lodia*, *buru zuria* edo *buztan motza*). Esan dezagun, dena den, horrela sortutako izenondoak izen berezi gisa ere ager dakizkigukeela kasu batzutan: *Esnepel*, *Prakagorriak*, *Moñoker*, *Txapelokerrak*, e.a.

3.2.2. Aditzoin + izenondo

Multzo honetan sartzen ditugu ondoko hauek, ikusten denez, *erraz* izenondoaren bitartez osaturikoak:

etenerraz, ulerterraz, sinesterraz, ikasterraz ...

Hona nola erabiltzen ditugun:

hari etenerreza: errez etetzen den haria, edo eteteko erreza den haria
gezur sinesterreza: sinesteko erraza den gezurra, erraz sinesten dena
azalpen ulerterreza: ulertzeko erraza den azalpena, erraz ulertzen dena

- (107) (a) Hori bai asmatu duzun gezur *sinesterreza*!
(b) Irakasleak egiten dituen azalpen *ulerterezak* eskertzekoak dira

3.2.3. Aditzoin + -garri

Izenondo elkartu hauek *-garri* atzizkiaz baliaturik osatzen ditugu. Hala nola:

bihotz erdiragarri, neke aringarri, begi mingarri, etxe galgarri, buru eragozkarri, ohe bigungarri, aho-gozagarri ...

Askotan izen bezala ere erabil daitezkeen izenondo hauen bidez *bihotza erdira dezakeen zerbait, nekea arin dezakeen...*, *begiak min ditzakeen...*, e.a. adierazten dugu. Horrela:

- (108) (a) Ikuskizun hori begi mingarri izango zaio bati baino gehiagori
(b) Liburutio bat egitea buru eragozkarri da

3.2.4. Izenondo + izenondo

Bi izenondo hauek maila berekoak ditugu eta, hortaz, elkarren parean agertzen dira. Hori dela eta, izenekin egin dugun bezalaxe, hauek ere izenondo *kopulatibo* deituko ditugu:

txuri-urdin, gorri-beltz, gazi-geza, txuri-gorri, hori-beltz, e.a. (gehienetan, ikusten denez, kolore izenondoak direnak)

- (109) (a) Aurtan ere *txuri-urdinak* izan dira txapeldun
(b) Zerriki *gazi-geza* oso jaki ezaguna da Txinan

3.3. Aditz elkartuak

Bi motatakoak ditugu hauek. Alde batetik *etsi* edo *eritzi* (gaur egungo euskaraz iharturik geratu dira, neurri handi batean) hartzen dutenak osagaitzat eta, bestetik, izen+aditz-ez osaturikoak:

a) alferretsi, alfer eritzi, onetsi, oneritzi, gaitzetsi, gaitzeritzi, goretsi, gutietsi, miretsi ...

b) odolustu, itxuraldatu, antzaldatu, esku-etendu, bihotz aldatu, gurutziltzatu, indar behartu, eraberritu, gainbegiratu (ez dira asko euskaraz) ...

- (110) (a) Betidanik *gaitzetsi* dugu andre hori gure elkartean
(b) Oso zauri larriak zituenez, konturatu ondoko *odolustu* zitzaien

3.4. Adberbio elkartuak

Adberbio elkartuen artean hiru multzo daude: adberbio + adberbio; izen + izen (izenak izan arren adberbio balioko esapidea hartzen dute hauek) eta izen + adberbio (aditzoinak eta *-ka* adberbio osakiak osatua):

- a) han-hemen-hor, harat-honat, harantz-honantz, atzera-aurrera
b) buru-belarri, ezker-eskuma/eskuin

- (111) (a) *Ezker-eskuma* begiratu genuen
(b) *Buru-belarri* saiatu zen Antton

- c) beso zabalka, harri jaurtika, esku eraginka ...

Ohar gaitezen azkeneko adberbio elkartu hauen zatiketa zuzena *beso + zabalka* edo *harri + jaurtika* dela eta ez **beso zabal(du) + ka* edo **harri jaurti + ka*.

- (112) (a) Hamarrak baino lehen *aho zabalka* hasiko zaizu
(b) Batzu *beso zabalka* ibiltzearekin dena konponduko dutelakoan daude

4. DEKLINABIDEKO TAULAK

4.1. Sarrera

Gramatika honek deklinabideari eskaintzen dizkion azalpenak hirugarren ataleko lehen partean (211.orr.) aurki daitezkeen arren, eskas dira han normalean irakurlearen lagungarri paratzen diren deklinabideko taulak. Hemen jartzen ditugun taula hauek hutsune hura betetzera datoz.

Esan beharra da, hasteko, taula hauek ulertu eta erabiltzeko, atzerago emandako azalpenak kontuan hartu behar direla. Han aipatzen genituen kasuak banan-bana eta dituzten ezaugarri guztiak aipatu. Beraz, hara jo beharko du irakurleak taula bakoitzeko formak nahi bezala erabili gabe. Dena dela, aurkezpen honetan zenbait ohar zor direla uste dugu.

Hasteko, ez da ahaztu behar euskaraz ez direla hitzak deklinatzen, *izen sintagma osoak baizik*. Kasu markak izen sintagma osoari dagozkio orduan:

- (1) *Gizonari*
- (2) *Gizon handiari*
- (3) *Hortik datorren gizon handiari*
e.a.

Euskal deklinabidearen egiturak mugadura (mugadura eza barne) eta kasu markadura hartzen ditu kontuan (ikus 219. orr. eta jarri.). Mugadura kontuetan ezaugarri nabarmenak dituzten elementu batzu baititu euskarak (hala nola izen bereziak, pertsona izenordainak, galdetzaileak, e.a.), bidezkoa ikusi dugu hauexei taula bereziak eskaintzea. Horrela ageri dira izen bereziak, pertsona izenordainak, erakusle eta izenordain indartuak, e.a.

Ardaztzat izen arrunta hartzen duten izen sintagmen kasuan, deklinabide mugagabea eta mugatua parez pare jarri ditugu. Dakigun bezala, mugagabeko

hondarkiak, izen ardatza isilean egonik, zuzenean lot dakizkioke orduan izenordain baten itxuran agertzen den determinatzaile bati, hala nola gerta baitaiteke *zenbait*, *edozein*, *asko*, etabarrekin (ikus 71. orr.).

Paratu ditugun taulen kasuen zerrrenda dela eta, atzerago erabili dugun sailkapen bera gorde dugu neurri handi batean behintzat, eztabaidagarria gerta badaiteke ere. Kasu gramatikalak datoz lehenik: *absolutua* (*nominatiboa* ere deitua izan dena aitzineko agerietan), *ergatiboa* eta *datiboa*. Baina hemen bada aldaketa bat, *absolutuarekin* batera jarri baitugu *partitiboa* ere, askoz ere egokiago geratzen delarik horrela; ondotik, leku-denborazko kasuak agertzen dira: *inesiboa*, *leku-genitiboa*, *adlatibo soila* (lehenago *adlatiboa* deitua), *hurbiltze adlatiboa* (lehenago *norabide zuzenezkoa*), *muga adlatiboa* (lehenago *adlatibo bukatuzkoa*) eta *ablatiboa*; azkenean gainerako kasuak heldu dira: *genitiboa* (genitibo edutezkoa deitua Euskaltzaindiaren aurteko agirietan), *soziatiboa* (zenbait hizkuntzalarik, batez ere hemendik kanpo, *komitatibo* deitua), *instrumentala*, *motibatiboa* eta *destinatiboa*. Azkeneko honen barnean sartu ditugu, dena dela, *prolatiboa* (eziabaidagarria da benetan bestelako kasu marken parekoa den) eta bestelako forma batzu ere: forma hauen artean bereizteko zenbaki batzu jarri dira: 1) Genitiboaren gainean eraikia (*Kattalinentzat*, *Kattalinendako*); 2) Inesiboaren gainean eraikia (*lore hauek etxeko ekarri ditut*; *pitxer hau hemengo da*); 3) Adlatiboaren gainean eraikia (*lore hauek etxerako ekarri ditut*; *pitxer hau honako da*); 4) Banatzailea (*ehuneko bost igo dute*. *Zortzi gizoneko lau ohe daude*) eta 5) Prolatiboa (*Kattalintzat*). Ikusten den bezala, kasuen deiturak ere lehenago emandakoetatik ez dira sobera urruntzen.

Zenbait puntutan haatik tauletan emana eta lehen esana ez datoz guztiz bat, aldi honetan irakurlearen aisetasuna bereziki kontuan hartu baitugu. Adibidez, azalbideetan kasu markatzaile hartzen ez gauen *-izat* atzizkia, *prolatibo* delakoa alegia (ikus 305. orr.), tauletan *destinatiboaren* ondoan ezarri dugu. Halaber *partitiboarekin* ere: berez kasu berezia ez dela sumatzen bada ere, *absolutuari* baitagokio noski (ikus 275. orr.), tauletan bereiz eman dugu, *gainerako* (ez gramatikal eta ez leku-denborazko) kasuen zerrrendan.

Aitzitik, euskara batuaren erduan hobetsi ez diren forma batzu ez dira agertzen tauletan. Hori da, esaterako, *partitiboari* edo *ablatiboari* dagozkien *-ikan* formekin (*dirurikan*, *etxetikan*) gertatzen dena. Gauza bera esan daiteke *inesibo* arkaikoa deitu ohi denaz eta izen arruntei izen bereziak bailiran lotzen zaizenaz (*etxen*, *ihizin*, *aitzurren*) edo hain hedatua den *-etaz* instrumentalekoaz (hortaz, *gizonetz* edo *andreez* baina ez *gizonetaz* edo *andreetaz*). Esan bezala, Euskaltzaindiaren erabakien arauera bestelakoak dira hobetsi diren formak.

Soziatiboaren kasuan, *-kin / -gaz* atzizkien arteko aukera ere Euskaltzaindiak aldeztu aurretik egin duenez, guk gure tauletan *-kin* bakarrik jaso dugu. Beste batzutan, ordea, Euskaltzaindiak ez du aukerarik egin eta ezagutzen ditugun forma guztiak ematen ditugu: hori suertatzen da destinaiboen atzizkiekin, esate baterako. *Instrumental* hurbilean, analogiaz, *gizonoz* jarri dugu, eta ez *gizonotaz*, nahiz plural hurbilari buruz ez den erabakirik hartu. Galdetzaileri buruz ere ber gauza: plurala adierazteko *nortzu* eta *zertzu* ere jarri dira (*nor* eta *zer*-en parean) eta forma hauen arauera analogikoki osatu ditugu zenbait paradigma, forma hauetariko asko euskara mintzatuan non eta zenbat erabiltzen diren segurantzarik ez badugu ere.

Leku-denborazko kasuetan bizidunen eta bizigabeen deklinabidea aldakorra baita, bai izen berezietan, bai izen arruntetan, taula bereziak egin ditugu bi jokabideak agerian emateko. Erakusleentzat, ordea, bi paradigmak elkarren ondoan eman ditugu. Irakurlea oroit bedi delako bereizkuntza ez dela hertsiki hartu behar, beraz bizidun diren izenek bizigabeei dagozkien hondarkiak har baititzaizkete batzutan (kolektiboki, edo generikoki hartuak direlarik adibidez), eta beste batzutan bizigabeak bizidunei dagozkienak (ikus 35 eta 235-237. orr.).

Izen arruntan arauerako deklinabidean mugagabeko edo artikulua mugatuzko hondarkiak erasterakoan junturan nabari diren aldakuntzak argian ematearren, beti bezala hiru egoera berezi ditugu tauletan: deklinagaia *a* berezkoa duten hitz batez bukatzen denekoa (*elizalalaba*), *a-z* beste bokal batez amaitzen denekoa (*mendi/semi*), eta azkenik kontsonante batez burutzen denekoa (*haran/gizon*). Bestalde, *au* diptongoa arazo honetan kontsonantetzat hartzea erabaki baitzuen Euskaltzaindiak, *gau* bezalako deklinagai bati dagokion jokabidea ere eman dugu, *jai* bezalako batekin erkatzeko moduan gertatzen dena. Nolanahi ere, honek arazo praktikoak ekartzen ditu, Euskaltzaindiaren erabakietan ez baitira forma guztiak zehazten. Lege hori ezarriz gero, oso gogor egiten zaigu *gaw* idaztea, baina hori da, hain zuzen ere, arauak dakarkiguna.

Esan dezagun, bestalde, gradu hurbileko artikulua behin bakarrik jartzen dugula osorik, eredu gisa emanez bestelakoetan ere erabil baitaiteke modu berean. Ohar, hala ere, *a* itsasia dugunean (*alaba*, adibidez), *a* + *o* multzoak *o* ematen duela. Alegia, *alabaok* ez, *alabok* baizik; *gauzoi* ez, *gauzoi* baizik.

Gainera dezagun, dena dela, formak hemen hala agertu arren, esanahiarekin kontu handia izan behar dela: ez dago argi *huraxe* eta *bera*, adibide bat jartzeagatik, esanahi berekoak diren eta bata besteaz eragozpenik gabe erabil

daitekeen ala ez; badirudi *niregana* eta *nire baitara* ere ez direla ganza bera. Areago: forma anitz distribuzio konplementarioan daude, hau da, hiztunek eta euskalkiek bata edo bestea aukeratzen dute (*neu* izango da batzuren kasuan, *neroni* edo *nihaur* beste batzuren euskalkian), baina erabilera oso diferentea izan daiteke euskalki batetik bestera (honetaz zerbait esaten da 42. orr.). Horregatik, behin eta berriz esan dugun bezala, ez dira nolana ere erabiltzen ahal aldagarri guzti hauek. Guzti hau behar bezala ikertzeke dago oraindio.

Taula hauek bi modutara daude jarriak: lehenik zalantzak sor ditzaketen ereduak ematen ditugu, izenen, izenordainen, galdetzaileen, erakusleen eta abarren deklinabidea oso-osorik jarri. Gero, bigarren parte batean, kasu bakoitzean ager daitezkeen aldakiak jartzen dira, hala nahi izanez gero kontsultatzeke moduan utziz gauzak. Irakurlea berehala ohartuko denez, aldaki asko bildu ditugu hemen: guzti horiek galdezka jasoak izan dira. Oraingoz kontu honetaz (batez ere erakusle eta izenordain indartuen kontuan) Euskaltzaindiak deusik ere esan ez duenez, nahiago izan dugu lekukotasuna duten guztiak jarri, besterik gabe. Argi dago, nolana ere, batzuk besteak baino hedadura edo literatur tradizio handiagoa dutela. Hortaz, badirudi hemen ere aukera edo egin beharko litzatekeela euskara idatziaren batasunerako forma batzu hobetsiz.

Ohar hauetaz gain badira beste zenbait ere erantsi beharrak, baina horiek, orokorrak ez direnez, kasu bakoitzean ezarri ditugu.

4.2. KASU MARKA GUZTIEN TAULAK

4.2.1. Izen bereziak

4.2.1.1. Kontsonantez bukaturiko pertsona izenak: *Kattalin*

1) Absolutua	Kattalin
2) Partitiboa	Kattalinik
3) Ergatiboa	Kattalinek
4) Datiboa	Kattalini
5) Inesiboa	Kattalin(en)gan, Kattalin(en) baitan
6) Leku genitiboa	Kattalin(en) baitako
7) Adlatibo s.	Kattalin(en)gana(t) Kattalin(en) baitara(t)
8) Hurbiltze adlat.	Kattalin(en)ganantz
9) Muga adlatiboa	Kattalin(en)ganaino
10) Ablatiboa	Kattalin(en)gan(d)ik Kattalinen baitarik
11) Genitiboa	Kattalinen
12) Soziatiboa	Kattalinekin
13) Instrumentala	Kattalinez
14) Motibatiboa	Kattalin(en)gatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	Kattalinentzat Kattalinendako
- Ines. gainean eraikia	—
- Adl. gainean eraikia	Kattalin(en)ganako
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	Kattalintzat Kattalindako

Adibideak:

1) Gaur *Kattalin* etorri da. 2) Gaur ez da hemen *Kattalinik* sartu. 3) *Kattalinek* egin du lana. 4) Berria eman nion *Kattalini*. 5) Uste osoa *Kattalin(en)gan/Kattalin(en)* baitan jarrita dauka. 6) *Kattalinen baitako* pentsamendu guztiak jakin nahi nituzke. 7) Ifaki *Kattalin(en)gana(t)* joan da; *Kattalin(en) baitara(t)* ez dago sartzerik. 8) *Kattalin(en)ganantz* abiatu da. 9) *Kattalin(en)ganaino* iritsi da. 10) Berria *Kattalin(en)gan(d)ik / Kattalin(en) baitarik* jaso zuen. 11) *Kattalinen* alabak ederrak dira. 12) Ikastolara *Kattalinekin* joan naiz. 13) *Kattalinez* baliatu naiz lan hori egiteko. 14) *Kattalin(en)gatik* aprobatu nuen latina. 15) Sagar hauek *Kattalinentzat / Kattalinendako* dira; Ifakik *Kattalin(en)ganako* adiskidetasuna erakutsi zuen; *Kattalintzat* haru genuen, baina Miren zen.

4.2.1.2. Bokalez bukatutako pertsona izenak: *Koldo*

1) Absolutua	Koldo
2) Partitiboa	Koldorik
3) Ergatiboa	Koldok
4) Datiboa	Koldori
5) Inesiboa	Koldo(ren)gan, Koldo(ren) baitan
6) Leku genitiboa	Koldo(ren) baitako
7) Adlatibo s.	Koldo(ren)gana(t), Koldo(ren) baitara(t)
8) Hurbiltze adlat.	Koldo(ren)ganantz
9) Muga adlatiboa	Koldo(ren)ganaino
10) Ablatiboa	Koldo(ren)gan(d)ik, Koldo(ren) baitarik
11) Genitiboa	Koldoren
12) Sozietiboa	Koldorekin
13) Instrumentala	Koldoz
14) Motibatiboa	Koldo(ren)gatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	Koldorentzat Koldorendako
- Ines. gainean eraikia	_____
- Adl. gainean eraikia	Koldo(ren)ganako
- Banatzailea	_____
- Prolatiboa	Koldotzat Koldotako

Adibideak:

1) Bihar etorriko da *Koldo*. 2) Gaur ez dut *Koldorik* ikusi. 3) Hori *Koldok* esan omen du. 4) Gutuna *Koldori* eman nion. 5) Uste osoa *Koldo(ren)gan / Koldo(ren) baitan* jarri zuen. 6) *Koldoren baitako* pentsamenduak, nolakoak ote dira? 7) Unai *Koldo(ren)gana(t)* joan da. 8) *Koldo(ren)ganantz* abiatu da. 9) *Koldo(ren)ganaino* iritsi da. 10) Berria *Koldo(ren)gan(d)ik / Koldo(ren) baitarik* jaso zuen. 11) *Koldoren* semeak handiak dira. 12) Ikastolara joan naiz *Koldorekin*. 13) *Koldoz* baliatu naiz lan hori egiteko. 14) Euskara *Koldo(ren)gatik* gainditu nuen. 15) Udare hauek *Koldorentzat / Koldorendako* dira; Marixak *Koldo(ren)ganako* adiskidetasun handia zuen; *Koldotzat / Koldotako* utzi bazenuten ere, Mattin zen hura.

4.2.1.3. Kontsonantez bukatutako leku izenak: *Eibar*

1) Absolutua	<i>Eibar</i>
2) Partitiboa	<i>Eibarrik</i>
3) Ergatiboa	<i>Eibarrek</i>
4) Datiboa	<i>Eibarri</i>
5) Inesiboa	<i>Eibarren</i>
6) Leku genitiboa	<i>Eibar(re)ko</i>
7) Adlatibo s.	<i>Eibar(re)rat(t)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Eibar(re)rantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Eibar(re)raino</i>
10) Ablatiboa	<i>Eibar(re)tik</i>
11) Genitiboa	<i>Eibarren</i>
12) Soziatiboa	<i>Eibarrekin</i>
13) Instrumentala	<i>Eibarrez</i>
14) Motibatiboa	<i>Eibar(re(n))gatik</i>
15) Destinatioa:	
- Gen. gainean eraikia	<i>Eibarrentzat</i>
	<i>Eibarrendako</i>
- Ines. gainean eraikia	<i>Eibarko</i>
- Adl. gainean eraikia	<i>Eibarrerako</i>
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	<i>Eibartzat</i>
	<i>Eibartako</i>

Adibideak:

1) *Eibar* Gipuzkoako hirietako bat da. 2) Ez izadazue *Eibarrik* aitatu! 3) *Eibarrek*, zenbat biztanle ditu? 4) *Eibarri* ez litzaioke igerilekuren bat gaizki etorriko. 5) *Eibarren* Ipuruako futbol zelai ederra duzue. 6) *Eibarko* lekurik ospetsuenetakoa Arrate dateke. 7) *Eibarr(er)a* joateko bide erosoena autopista da. 8) *Eibarrerantz* abiatu dira duela ordu erdi. 9) *Eibarreraino* iritsi nahi al duzu auto zahar horrekin? 10) *Eibar(re)tik* Bilbora 50 km. inguru daude. 11) *Eibarren* kutsadura ez da beste herrietakoa adinakoa. 12) Gure hirietako itxura hobetu nahian gabiltzanean, *Eibarrekin* zer egin? 13) *Eibarrez* kanpo badira beste industria hiri asko Gipuzkoan. 14) Bere hiriarengatik, *Eiba(re)n)gatik*, edozer gauza egingen omen luke. 15) *Eibarrentzat* berdegune gehiago eskatzen ditu jendeak; *Eibarko* / *Eibarrerako* bidea konpontzen ari omen dira; *Eibartzat* / *Eibartako* hartu zuten, baina Tolosa inguruan ziren.

4.2.1.4. Bokalez bukaturiko leku izenak: *Bilbo*

1) Absolutua	Bilbo
2) Partitiboa	Bilborik
3) Ergatiboa	Bilbok
4) Datiboa	Bilbori
5) Inesiboa	Bilbon
6) Leku genitiboa	Bilboko
7) Adlatibo s.	Bilbora(t)
8) Hurbiltze adlat.	Bilborantz
9) Muga adlatiboa	Bilboraino
10) Ablatiboa	Bilbotik
11) Genitiboa	Bilboren
12) Sozietiboa	Bilborekin
13) Instrumentala	Bilboz
14) Motibatiboa	Bilbo(ren)gatik
15) Destinatioa:	
- Gen. gainean eraikia	Bilborentzat
	Bilborendako
- Ines. gainean eraikia	Bilboko
- Adl. gainean eraikia	Bilborako
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	Bilbotzat
	Bilbotako

Adibideak:

1) *Bilbo* Bizkaiko hiriburua da. 2) Ez iczadazue *Bilborik* aipatu! 3) *Bilbok*, zenbat biztanle ditu? 4) *Bilbori* trafikoa gutxitzea ez litzaioke gaizki etorriko. 5) *Bilbon* S. Mames futbol zelai ederra duzue. 6) *Bilboko* lekuri ospetsuenetakoa Arriaga antzokia dateke. 7) *Bilbora* joateko bide erosocna autopista da. 8) *Bilborantz* abiatu dira duela ordu erdi. 9) *Bilboraino* iritsi nahi al duzu auto zahar horrekin? 10) *Bilbotik* Eibarra 50 km. inguru daude. 11) *Bilboren* kutsadura oso handia da. 12) Gure hirietako ixura hobetu nahian gabiltzancan, *Bilborekin* zer egin? 13) *Bilboz* kanpo badira beste industria hiri asko Bizkaian. 14) Bere hiriarongatik, *Bilbo(ren)gatik*, edozer gauza eginen omen luke. 15) *Bilborentzat* / *Bilborendako* berdegune gehiago eskatzen ditu jendeak; *Bilboko* / *Bilborako* bidea konpontzen ari omen dira; *Bilbotzat* / *Bilbotako* hartu zuten, baina Barcelona inguruan ziren.

4.2.1.5. *a* artikuluz bukatutako leku izenak: *Iruñea*

1) Absolutua	Iruñea
2) Partitiboa	Iruñerik
3) Ergatiboa	Iruñeak
4) Datiboa	Iruñeari
5) Inesiboa	Iruñean
6) Leku genitiboa	Iruñeko
7) Adlatibo s.	Iruñera(t)
8) Hurbiltze adlat.	Iruñerantz
9) Muga adlatiboa	Iruñeraino
10) Ablatiboa	Iruñetik
11) Genitiboa	Iruñearen
12) Soziatiboa	Iruñearekin
13) Instrumentala	Iruñeaz
14) Motibatiboa	Iruñea(ren)gatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	Iruñearantzat Iruñearendako
- Ines. gainean eraikia	Iruñeko
- Adl. gainean eraikia	Iruñerako
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	Iruñetzat Iruñetako

Adibideak:

1) *Iruñea* Nafarroako hiriburua da. 2) Ez iezadazue *Iruñerik* aipatu! 3) *Iruñeak*, zenbat biztanle ditu? 4) *Iruñeari* trafikoa gutxitzea ez litzaioke gaizki etorriko. 5) *Iruñean* egin izan dira UEUko ikastaroak azken urteotan. 6) *Iruñeko* lekurik ospetsuenetakoa Estafeta kalea daiteke. 7) *Iruñera* joateko ez da autopistarik. 8) *Iruñerantz* abiatu dira duela ordu erdi. 9) *Iruñeraino* iritsi nahi al duzu auto zahar horrekin? 10) *Iruñetik* Eibarra km. asko daude. 11) *Iruñearen* kutsadura ez da handiegia. 12) Gure hirietako itxura hobetu nahian gabiltzanean, *Iruñearekin* egin dena egin beharko litzateke. 13) *Iruñeaz* ari garela, ezin dira S. Ferminak ahaztu. 14) Bere hiriarengatik, *Iruñea(ren)gatik*, edozer gauza eginen omen luke. 15) *Iruñearentzat* / *Iruñearendako* berdegune gehiago eskatzen ditu jendeak; *Iruñeko* / *Iruñerako* bidea konpontzen ari omen dira; *Iruñetzat* / *Iruñetako* hartu zuten, baina Tafalla inguruan ziren.

Oharra:

- Honen ereduak dira guzti hauek: *Bizkaia*, *Azkoitia*, *Azpeitia*, *Zigoitia*, *Basaburua*, *Ermua*, *Mallabia*, *Pausua*, *Deustua*. Ikusten denez, *a* hori egiazki mugatzailea da eta edozein izen sintagma mugatzailearen deklinabidea dute eredu honetako izen hauek: *mendian*/*Iruñean*, baina *mendiko*/*Iruñeko* (eta ez, **Iruñeako*).

4.2.1.6. *a* bokalez bukatutako leku izenak: *Donostia*

1) Absolutua	Donostia
2) Partitiboa	Donostiarik
3) Ergatiboa	Donostiak
4) Datiboa	Donostiari
5) Inesiboa	Donostian
6) Leku genitiboa	Donostiako
7) Adlatibo s.	Donostiara(t)
8) Hurbiltze adlat.	Donostiarantz
9) Muga adlatiboa	Donostiaraino
10) Ablatiboa	Donostiatik
11) Genitiboa	Donostiaren
12) Soziatiboa	Donostiarekin
13) Instrumentala	Donostiaz
14) Motibatiboa	Donostia(ren)gatik
15) Destinabitiboa:	
- Gen. gainean eraikia	Donostiarentzat Donostiarendako
- Ines. gainean eraikia	Donostiako
- Adl. gainean eraikia	Donostiarako
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	Donostiatzat Donostiatako

Adibideak:

1) *Donostia* Euskal Herriko hiriburu bat da. 2) Ez iezadazue *Donostiarik* aipatu! 3) *Donostiak*, zenbat biztanle ditu? 4) *Donostiari* trafikoa gutxitzea ez litzaioke gaizki etorriko. 5) *Donostian* egin izan dira UEUko ikastaroak azken urteotan. 6) *Danostiako* Kontxa oso polita da. 7) *Donostiara* joaleko bada autopista eder bat. 8) *Donostiarantz* abiatu dira duela ordu erdi. 9) *Donostiaraino* iritsi nahi al duzu auto zahar horrekin? 10) *Donostiatik* Eibarra km. asko daude. 11) *Donostiaren* kutsadura ez da handiegia. 12) Gure hirietako itxura hobetu nahian gabilzancan, *Donostiarekin* egin dena egin beharko litzateke. 13) *Donostiaz* ari garela, ezin dira hango hondartzak ahaztu. 14) Bere hiriarongatik, *Donostia(ren)gatik*, edozer gauza eginen omen luke. 15) *Donostiarentzat* / *Donostiarendako* berdegune gehiago eskatzen ditu jendeak; *Donostiako* / *Donostiarako* bidca konpontzen ari omen dira; *Donostiatzat* / *Donostiatako* hartu zuten, baina Zornotza inguruan ziren.

4.2.2. Izen arrunt biziduna ardaztat duten izen sintagmak

4.2.2.1. Kontsonantez bukatuak: *gizon*

	Mugagabea
1) Absolutua	gizon
2) Partitiboa	gizonik
3) Ergatiboa	gizonek
4) Datiboa	gizoni
5) Inesiboa	gizonengan, gizonen baitan
6) Leku genitiboa	gizonen baitako
7) Adlatibo s.	gizonengana(t), gizonen baitara(t)
8) Hurbiltze adl.	gizonenganantz
9) Muga adlatiboa	gizonenganaino
10) Ablatiboa	gizonengan(d)ik, gizonen baitarik
11) Genitiboa	gizonen
12) Soziatiboa	gizonekin
13) Instrumentala	gizonez
14) Motibatiboa	gizon(e(n))gatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	gizonentzat, gizonendako
- Ines. gainean eraikia	_____
- Adl. gainean eraikia	gizonenganako
- Banatzailea	gizoneko
- Prolatiboa	gizontzat, gizontako

Adibideak:

1) *Hainbat gizon etorri da.* 2) *Ez dut begien aurrean gizonik ikusi nahi.* 3) *Edozein gizonek egingo luke beste horrenbeste.* 4) *Edozein gizoni lagunduko lioke.* 5) *Edozein gizonengan aurki daitezke antzeko sentimenduak.* 6) *Edozein gizonen baitako minak ez dira txantxetakoak.* 7) *Edozein gizon(en)gana(t) hurbiltzen da neska hori.* 8) *Zenbait gizonenganantz laguntza bila joatea alferrikakoa da.* 9) *Zenbait gizonenganaino iritsi dira zuen kezkuak.* 10) *Zenbait gizonengan(d)ik ez duzu laguntzarik jasoko batere.* 11) *Zenbait gizonen maitasuna itxura hutsa da.* 12) *Zenbait gizonekin ez ibili neri gero.* 13) *Zenbait gizonen aritu da.* 14) *Zenbait gizon(e(n))gatik bizia emango nuke nik.* 15) *Zenbait gizonentzat / gizonendako ez dago munduan zorionik; zenbait gizonenganako maitasun handia du horrek; gizoneko hamar bat ohe bazen han; gizontzat / gizontako hartu baduzue ere, andrea da.*

	Mugatu sing.	Mugatu plur.
1) Absolutua	gizona	gizonak
2) Partitiboa	_____	_____
3) Ergatiboa	gizonak	gizonek
4) Datiboa	gizonari	gizonei
5) Inesiboa	gizona(ren)gan gizona(ren) baitan	gizonengan gizonakan gizonen baitan gizonen baitako
6) Leku genitiboa	gizonaren baitako	gizonen baitako
7) Adlatibo s.	gizona(ren)gana(t) gizona(ren) baitara(t)	gizonengana(t) gizonakana gizonen baitara(t)
8) Hurbiltze adl.	gizona(ren)ganantz	gizonenganantz gizonakanantz
9) Muga adlatiboa	gizona(ren)ganaino	gizonenganaino gizonakanaino
10) Ablatiboa	gizona(ren)gan(d)ik gizonaren baitarik	gizonengan(d)ik gizonakan(d)ik gizonen baitarik
11) Genitiboa	gizonaren	gizonen
12) Soziatiboa	gizonarekin	gizonekin
13) Instrumentala	gizonaz	gizonez
14) Motibatiboa	gizona(ren)gatik	gizonengatik gizonakatik
15) Destinatiboa:		
- Gen. gainean eraikia	gizonarentzat, gizonarendlako	gizonentzat, gizonendako
- Ines. gainean eraikia	_____	_____
- Adl. gainean eraikia	gizona(ren)ganako	gizonenganako
- Banatzailea	_____	_____
- Prolatiboa	_____	_____

Adibideak:

1) *Gizona* ikusi dugu; *gizonak* ikusi ditugu. 3) Hori *gizonak* esan du; hori *gizonek* esan dute. 4) *Gizonari* etortzeko eskatu diote; *gizonei* etortzeko eskatu diete. 5) *Gizona(ren)gan* konfidantza osoa dut; *gizonengan* konfidantza osoa dut. 6) *Gizonaren* izena Jon zen; *gizonen* autoak dira hauek. 7) *Gizona(ren)gana(t)* joan zen laguntza bila; gure haurra *gizonengana(t)* joaten da. 8) *Gizona(ren)ganantz* abiatu da; *gizonenganantz* abiatu zen. 9) *Gizona(ren)ganaino* iritsi ziren gure kexuak; *gizonenganaino* iritsi dira kexuak. 10) *Gizona(ren)gan(d)ik* ez duzu inoiz ere laguntzarik jasoko; *gizonengan(d)ik* ez duzu erraz jasoko laguntzarik. 11) *Gizonaren* harrera benetan ona izan da; *gizonen* harrera ona izaten da normalcan. 12) *Gizonarekin* joan da Parisa; *gizonekin* ibiltzea asko gustatzen zaió. 13) *Gizonaz* mintzatu da; *gizonez* mintzatu da. 14) *Gizona(ren)gatik* eman du bizitza; *gizonengatik* eman du bizitza. 15) *Gizonarentzat / gizonarendako* ekarri zuen; *gizonentzat / gizonendako* ekarri zuen; *gizona(ren)ganako* maitasun handia du; *gizonenganako* adiskidetasuna erakustea maite du.

Oharra:

- *gizonetan*, *gizonetara* ere erabil daiteke. Kasu honetan, jakina, *gizonen artean* edo esan nahi luke (ikus 235 orr.)

	Plural hurbila
1) Absolutua	gizonok
2) Partitiboa	—
3) Ergatiboa	gizonok
4) Datiboa	gizonoi
5) Inesiboa	gizonongan, gizonokan
6) Leku genitiboa	gizonon baitan
7) Adlatibo s.	gizonon baitako gizonongana(t), gizonokana
8) Hurbiltze adl.	gizonon baitara(t) gizononganantz, gizonokanantz
9) Muga adlatiboa	gizononganaino, gizonokanaino
10) Ablatiboa	gizonongan(d)ik, gizonokandik gizonon baitarik
11) Genitiboa	gizonon
12) Soziatiboa	gizonokin
13) Instrumentala	gizonotaz
14) Motibatiboa	gizonongatik, gizonokatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	gizonontzat, gizonondako
- Ines. gainean eraikia	—
- Adl. gainean eraikia	gizononganako
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	—

4.2.2.2. Bokalez bukatuak: seme

	Mugagabea
1) Absolutua	seme
2) Partitiboa	semerik
3) Ergatiboa	semek
4) Datiboa	semeri
5) Inesiboa	seme(ren)gan, semeren baitan
6) Leku genitiboa	semeren baitako
7) Adlatibo s.	seme(ren)gana(t), semeren baitara(t)
8) Hurbiltze adl.	seme(ren)ganantz
9) Muga adlatiboa	seme(ren)ganaino
10) Ablatiboa	seme(ren)gan(d)ik, semeren baitarik
11) Genitiboa	semeren
12) Soziatiboa	semerekin
13) Instrumentala	semez
14) Motibatiboa	seme(ren)gatik
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	semerentzat, semerendako
- Ines. gainean eraikia	—
- Adl. gainean eraikia	seme(ren)ganako
- Banatzailea	semeko
- Prolatiboa	semetzat, semetako

Adibideak:

1) *Hainbat seme* izan du. 2) Ez dut begien aurcan horrelako *semerik* ikusi nahi. 3) *Edozein semek* egingo luke beste horrenbeste. 4) *Edozein semeri* lagunduko lioke. 5) *Edozein seme(ren)gan* aurki daitezke antzeko sentimenduak. 6) *Edozein semeren* baitako minak ez dira txantxetakoak. 7) *Edozein seme(ren)gana(t)* joango da gurt haurra. 8) *Zenbait seme(ren)ganantz* laguntza bila joatea alferrikakoa da. 9) *Zenbait seme(ren)ganaino* iritsi dira zuen kexuak. 10) *Zenbait seme(ren)gan(d)ik* ez duzu laguntzarik jasoko batere. 11) *Zenbait semeren* maitasuna itxura hutsa da. 12) *Zenbait semerekin* ez dira erraz konpontzen gurasoak. 13) *Zenbait semez* ariku da. 14) *Zenbait seme(ren)gatik* bizia emango nuke nik. 15) *Zenbait semerentzat / semerendako* ez dago munduan zorionik; *zenbait semerenganako* maitasun handia du horrek; *semeko* hamar bat ohe bazen han; *semetzat / semetako* hartu baduzue ere, beste familia batekoa da.

	Mug. sing.	Mug. plur.
1) Absolutua	semea	semeak
2) Partitiboa		
3) Ergatiboa	semeak	semeek
4) Datiboa	semeari	semeei
5) Inesiboa	semea(ren)gan, semearen baitan	semeengan, semeakan, semeen baitan
6) Leku genitiboa	semearen baitako	semeen baitako
7) Adlatibo s.	semea(ren)gana(t) semearen baitara(t)	semeengana(t) semeakana semeen baitara(t)
8) Hurbiltze adl.	semea(ren)ganantz	semeenganantz semeakanantz
9) Muga adlatiboa	semea(ren)ganaino	semeenganaino, semeakanaino
10) Ablatiboa	semea(ren)gan(d)ik, semearen baitarik	semeengan(d)ik, semeakandik semeen baitarik
11) Genitiboa	semearen	semeen
12) Soziatiboa	semearekin	semeekin
13) Instrumentala	semeaz	semeez
14) Motibatiboa	semea(ren)gatik	semeengatik semeakatik
15) Destinatiboa:		
- Gen. gainean eraikia	semearentzat, semearendako	semeentzat, semeendako
- Ines. gainean eraikia	_____	_____
- Adl. gainean eraikia	seme(ren)ganako	semeenganako
- Banatzailea	_____	_____
- Prolatiboa	_____	_____

Adibideak:

1) *Semea* ikusi dugu; *semeak* ikusi ditugu. 3) Hori *semeak* esan du; hori *semeek* esan dute. 4) *Semeari* elortzeko eskatu diote; *semeei* elortzeko eskatu diete. 5) *Semea(ren)gan* konfidantza osoa dut; *semeengan* konfidantza osoa dut. 6) *Semearen* izena Jon zen; *semeen* autoak dira hauek. 7) *Semea(ren)gana(t)* joan zen laguntza bila; gure haurra *semeengana(t)* joaten da. 8) *Semea(ren)ganantz* abiatu da; *semeenganantz* abiatu zen. 9) *Semea(ren)ganaino* iritsi ziren gure kexuak; *semeenganaino* iritsi dira kexuak. 10) *Semea(ren)gan(d)ik* ez duzu inoiz ere laguntzarik jasoko; *semeengan(d)ik* ez duzu erraz jasoko laguntzarik. 11) *Semearen* harrera benetan ona izan da; *semeen* harrera ona izaten da normalean. 12) *Semearekin* joan da Parisa; *semeekin* ibiltzea asko gustatzen zaio. 13) *Semeaz* mintzatu da; *semeez* mintzatu da. 14) *Semea(ren)gatik* eman du bizitza; *semeengatik* eman du bizitza. 15) *Semearentzat* / *semearendako* ekarri zuen; *semeentzat* / *semeendako* ekarri zuen; *semea(ren)ganako* maiatasun handia du; *semeenganako* adiskidetasuna erakustea maite du.

4.2.2.3. *a* bokalez bukatuak: *alaba*

	Mugagabea
1) Absolutua	<i>alaba</i>
2) Partitiboa	<i>alabarik</i>
3) Ergatiboa	<i>alabak</i>
4) Datiboa	<i>alabari</i>
5) Inesiboa	<i>alaba(ren)gan,</i> <i>alabaren baitan</i>
6) Leku genitiboa	<i>alabaren baitako</i>
7) Adlatibo s.	<i>alaba(ren)gana(t)</i> <i>alabaren baitara(t)</i>
8) Hurbiltze adl.	<i>alaba(ren)ganantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>alaba(ren)ganaino</i>
10) Ablatiboa	<i>alaba(ren)gan(d)ik</i> <i>alabaren baitarik</i>
11) Genitiboa	<i>alabaren</i>
12) Sozlatiboa	<i>alabarekin</i>
13) Instrumentala	<i>alabaz</i>
14) Motibatiboa	<i>alaba(ren)gatik</i>
15) Destinatioa:	
- Gen. gainean eraikia	<i>alabarentzat</i> <i>alabarendako</i>
- Ines. gainean eraikia	_____
- Adl. gainean eraikia	<i>alaba(ren)ganako</i>
- Banatzailea	<i>alabako</i>
- Prolatiboa	<i>alabatzat</i> <i>alabatako</i>

Adibideak:

1) *Hainbat alaba* izan du. 2) Ez dut begien aurrean horrelako *alabarik* ikusi nahi. 3) *Edozein alabak* egingo luke beste horrenbeste. 4) *Edozein alabari* lagunduko lioke. 5) *Edozein alaba(ren)gan* aurki daitezke antzeko sentimenduak. 6) *Edozein alabaren* baitako minak ez dira txantxetakoak. 7) *Edozein alaba(ren)gana(t)* joango da gure haurra. 8) *Zenbait alaba(ren)ganantz* laguntza bila joatea alferrikakoa da. 9) *Zenbait alaba(ren)ganaino* iritsi dira zuen kexuak. 10) *Zenbait alaba(ren)gan(d)ik* ez duzu laguntzarik jasoko batera. 11) *Zenbait alabaren* maitasuna itxura hutsa da. 12) *Zenbait alabarekin* ez dira erraz konpontzen gurasoak. 13) *Zenbait alabaz* aritu da. 14) *Zenbait alaba(ren)gatik* bizia emango nuke nik. 15) *Zenbait alabarentzat / alabarendako* ez dago munduan zorionik; *zenbait alabarenganako* maitasun handia du horrek; *alabako* hamar bat ohe baten han; *alabatzat / alabatako* hartu baduzue ere, beste familia batekoa da.

Oharra:

- Honen ereduak dira honako hauek: *aita, aitagarreba, aitona, ama, amagarreba, amona, ahizpa, alaba, anaia, arreba, neska, neskatila, neskatxa, pertsona.*

	Mug. sing.	Mug. plur.
1) Absolutua	alaba	alabek
2) Partitiboa		
3) Ergatiboa	alabak	alabek
4) Datiboa	alabari	alabei
5) Inesiboa	alaba(ren)gan, alabaren baitan	alabengan, alabakan, alaben baitan
6) Leku genitiboa	alabaren baitako	alaben baitako
7) Adlatibo s.	alaba(ren)gana(t) alabaren baitara(t)	alabengana(t), alabakana, alaben baitara(t)
8) Hurbiltze adl.	alaba(ren)ganantz	alabenganantz, alabakanantz
9) Muga adlatiboa	alaba(ren)ganaino	alabenganaino, alabakanaino
10) Ablatiboa	alaba(ren)gan(d)ik alabaren baitarik	alabengan(d)ik, alabakan(d)ik, alaben baitarik
11) Genitiboa	alabaren	alaben
12) Sozilatiboa	alabarekin	alabekin
13) Instrumentala	alabaz	alabez
14) Motibatiboa	alaba(ren)gatik	alabengatik, alabakatik
15) Destinatiboa:		
- Gen. gainean eraikia	alabarentzat alabarendako	alabentzat alabendako
- Ines. gainean eraikia	_____	_____
- Adl. gainean eraikia	alaba(ren)ganaiko	_____
- Banatzailea	_____	_____
- Prolatiboa	_____	_____

Adibideak:

1) *Alaba* ikusi dugu; *alabak* ikusi ditugu. 3) Hori *alabak* esan du; hori *alabek* esan dute. 4) *alabari* etortzeko eskatu diote; *alabei* etortzeko eskatu diete. 5) *Alaba(ren)gan* konfidantza osoa dut; *Alabengan* konfidantza osoa dut. 6) *Alabaren* izena Jone zen; *alaben* autoak dira hauek. 7) *Alaba(ren)gana(t)* joan zen laguntza bila; gure haurra *alabengana(t)* joaten da. 8) *Alabea(ren)ganantz* abiatu da; *alabenganantz* abiatu zen. 9) *Alaba(ren)ganaino* iritsi ziren gure kexuak; *alabenganaino* iritsi dira kexuak. 10) *Alaba(ren)gan(d)ik* ez duzu inoiz ere laguntzarik jasoko; *alabengan(d)ik* ez duzu orraz jasoko laguntzarik. 11) *Alabaren* harrera benetan ona izan da; *alaben* harrera ona izaten da normalean. 12) *Alabarekin* joan da Parisa; *alabekin* ibiltzea asko gustatzen zaio. 13) *Alabaz* mintzatu da; *alabez* mintzatu da. 14) *Alaba(ren)gatik* eman du bizitza; *alabengatik* eman du bizitza. 15) *Alabarentzat / alabarendako* ekarri zuen; *alabentzat / alabendako* ekarri zuen; *alaba(ren)ganako* maitasun handia du; *alabenganako* adiskidetasuna erakuslea maite du.

4.2.3. Izen arrunt bizigabea ardaztat duten izen sintagmak

4.2.3.1. Kontsonantez bukatuak: *haran*

	mugagabea	mug. sing.	mug. plur.
1) Abs.	haran	harana	haranak
2) Part.	haranik		
3) Erg.	haranek	haranek	haranek
4) Dat.	harani	haranari	haranei
5) In.	haranetan	haranean	haranetan
6) L. gen.	haranetako	haraneko	haranetako
7) Adl.s.	haranetara(t)	haranera(t)	haranetara(t)
8) H. adl.	haranetarantz	haranerantz	haranetarantz
9) M. adl.	haranetaraino	haraneraingo	haranetaraino
10) Abl.	haranetatik, haranetarik	haranetik	haranetatik, haranetarik
11) Gen.	haranen	haranaren	haranen
12) Soz.	haranekin	haranarekin	haranekin
13) Inst.	haranez	haranez	haranez
14) Mot.	haran(e)gatik, haranengatik	harana(ren)gatik	haranengatik, haranakatik
15) Destin.			
- Gen. g. er.	haranentzat, haranendako	haranarentzat, haranarendako	haranentzat, haranendako
- Ines. g. er.	haranetako	haraneko	haranetako
- Adl. g. er.	haranetarako	haranerako	haranetarako
- Banatz.	haraneko		
- Prolat.	harantzat, harandako		

Adibideak:

1) *Zenbait haran* kurrutu dugu gure bizitzan; Ansoko *harana* oso polita da; Euskal Herriko *haranak* ikusgarriak dira. 2) Ez dugu honelako *haranik* ikusi. 3) *Zenbait haranek* lilurutzen nau; Belaguako *haranak* liluratu egiten nau; Euskal Herriko *haranek* lilurutzen naute. 4) *Zenbait harani* higuin diot; Leitzarango *haranari* argazkiak atera dizkiote; Galiziako *haranei* su eman die. 5) *Zenbait haranetan* ez naiz gustora ibiltzen; Leitzaaran *haranean* zuhaitz asko dago; Gipuzkoako *haranetan* pinu asko dago. 6) *Zenbait haranetako* pagadiak hondatuta daude; Leitzaaran *haraneko* autobiak kezkatzen nau; Gipuzkoako *haranetako* ibaiak zikin daude. 7) *Zenbait haranetara(t)* joatea atsegin zait; Ansoko *haranera(t)* joatea atsegin zait; Galiziako *haranetara(t)* joatea atsegin zait. 8) *Zenbait haranetarantz* abiatu dira; *haranerantz* abiatu gara; soldaduak Gipuzkoan dauden *haranetarantz* abiatu dira. 9) *Zenbait haranetaraino* iritsi dira; Leitzaaran *haraneraino* iritsi dira; Espainiako *haranetaraino* iritsi ziren kalteak. 10) *Hiru haranetatik* datoz fruitu hauek; Ansoko *haranetik* datoz fruituak; Belagua eta Zurizako *haranetatik* etorri dira mendizaleak. 11) *Zenbait haranen* edertasunak lilurutzen nau; Leitzaaran *haranaren* edertasunak lilurutzen nau; Gipuzkoako *haranen* edertasunak lilurutzen nau. 12) *Hainbeste haranekin* ez dakigu zer egin; Hor agertzen direnetatik, dudarik gabe, Baztango *haranarekin* geratzen naiz; Gipuzkoako *haranekin* dirua egin nahi dute. 13) *Hainbat haranez* hitz egin dute; Ansoko *haranaz* hitz egin dute; Nafarroako *haranez* filminak bota dituzte; 14) *Hainbat haranengatik* ez nuke pausurik emanen; hau bezalako *harana(ren)gatik* ez nuke pausurik emanen; herriko *haranengatik* egin dute guzti hau. 15) *Edozein haranentzat / haranendako* hau izaten da hoberena; *haranarentzat / haranarendako* hau izaten da hoberena; *haranentzai / haranendako* ez dakigu zer egin; *zein haranetako* bidea da hau?; *haraneko* bidea da hau; *haranetako* bidea da hau; *zein haranetarako* bidea da hau?; *haranerako* bidea da hau; *haranetarako* bidea da hau; *haraneko* hogeit zuhaitz landatu dute; hemendik begiratu *harantzat / harandako* har daiteke, baina ez da hala.

Oharrak:

- *n*-ez amaitzen direnekin (eta *-i*-ez amaitzen direnekin ere) ondoko *-t*- horrek ahostasuna galtzen du eta *-d-* bihurtzen da: "haran+tako" = *harandako* (bestela ere *irundar* hitzean gertatzen den bezalatsu).

- Ikusten denez, eta hemendik aurrera beti gauza bera gertatuko da, *haraneko* izan daiteke leku genitibo singularra edo destinatibo banatzaile mugagabea. Formaz ez dago desberdintasunik, baina destinatiboaren kasuan mugagabean jarri dugu, hor ez baitago inolako oposizioirik.

4.2.2.2. Bokalez bukatuak: *mendi*

1) Absolutua	mugagabea	mug. sing.	mug. plur.
2) Partitiboa	mendi	mendia	mendiak
3) Ergatiboa	mendirik	mendiak	mendiek
4) Datiboa	mendiri	mendiari	mendiei
5) Inesiboa	menditan	mendien	mendietan
6) Leku gen.	menditako	mendiko	mendietako
7) Adl. s.	menditara(t)	mendirara(t)	mendietara(t)
8) H. adlat.	menditarantz	mendirantz	mendietarantz
9) M. adlat.	menditaraino	mendiraino	mendietaraino
10) Ablat.	menditatik, menditarik	menditik	mendietatik, mendietarik
11) Genit.	mendiren	mendiaren	mendien
12) Soz.	mendirekin	mendiarekin	mendiekin
13) Instr.	mendiz	mendiaz	mendiez
14) Mot.	mendi(ren)gatik	mendia(ren)gatik	mendiengatik, mendiakatik
15) Destin.			
- Gen. g. er.	mendirentzat, mendirendako	mendiarentzat, mendiarendako	mendientzat, mendiendako
- Ines. g. er.	menditako	mendiko	mendietako
- Adl. g. er.	menditarako	mendirako	mendietarako
- Banatz.	mendiko		
- Prolat.	menditzat, menditako		

Adibideak:

1) *Zenbait mendi* kurrutu dugu gure bizitzan; *mendia* oso polita da; Euskal Herriko *mendiak* ikusgarriak dira. 2) Ez dugu honelako *mendirik* ikusi. 3) *Zenbait mendik* liluratzen nau; *Mendiak* liluratzen nau; Euskal Herriko *mendiek* liluratzen naute. 4) *Zenbait mendiri* higuin diot; *Mendiari* higuin diot; Galiziako *mendiei* su eman diete. 5) *Zenbait menditan* ez naiz gustora ibiltzen; *Mendian* ez naiz gustora ibiltzen; Gipuzkoako *mendietan* pinu asko dago. 6) *Zenbait menditako* pagadiak hondatuta daude; *mendiko* autobiak kezkatzen nau; Gipuzkoako *mendietako* ibaiak zikin daude. 7) *Zenbait menditara(t)* joatea atsegin zait; *Mendira(t)* joatea atsegin zait; Galiziako *mendietara(t)* joatea atsegin zait. 8) Bi *menditarantz* joaten gara urtero; *Mendirantz* abiatu gara; *Mendietarantz* abiatu dira. 9) *Zenbait menditaraino* iritsi dira; *Mendiraino* iritsi dira; Espainiako *mendietaraino* iritsi ziren kalteak. 10) *Hiru menditatik* datoz fruitu hauek; *menditik* datoz fruituak; Belagua eta Zurizako *mendietatik* etorri dira mendizaleak. 11) *Zenbait mendiren* edertasunak liluratzen nau; *Mendiaren* edertasunak liluratzen nau; Gipuzkoako *mendien* edertasunak liluratzen nau. 12) *Hainbeste mendirekin* ez dakigu zer egin; Hor agertzen direnetatik, dudarik gabe, hantzeko *mendiarekin* geratzen naiz; Gipuzkoako *mendiekin* dirua egin nahi dute. 13) *Hainbat mendiz* hitz egin dute; *mendiaz* hitz egin dute; Nafarroako *mendiez* filminak eman dituzte; 14) *Hainbat mendi(ren)gatik* ez nuke pausurik emanen; hau bezalako *mendia(ren)gatik* ez nuke pausurik emanen; herriko *mendiengatik* egin dute guzti hau. 15) *Edozein mendirentzat / mendirendako* hau izaten da hoberena; *mendiarentzat / mendiarendako* hau izaten da hoberena; *mendientzat / mendiendako* ez dakigu zer egin; *zein menditako* bidea da hau?; *mendiko* bidea da hau; *mendietako* bidea da hau; *zein menditarako* bidea da hau?; *mendirako* bidea da hau; *mendietarako* bidea da hau; *mendiko* hogeitazuhaitz landatu dute; hemendik begiratuz *menditzat / menditako* har daiteke, baina ez da hala.

